Si bien la presencia de eclesiásticos en la revista *Egan* no fue marginal, los nacionalistas vascos Michelena e Yrigaray trataron de impulsar una visión moderna de la cultura vasca desde el interior de la dictadura franquista. Dentro de los límites que imponía la censura oficial, procuraron publicar una revista vasquista y liberal. Ello provocó de manera inevitable un sordo enfrentamiento por la hegemonía cultural con el símbolo de la ortodoxia resistente en el exilio, *Euzko-Gogoa*, tal y como reconoció Michelena: «Existía la idea de que, al no existir libertad de expresión en el interior, la gente del exilio representaba mejor al País; los del exterior consideraban que no reflejábamos con autenticidad la realidad vasca. Naturalmente, nosotros pensábamos exactamente lo contrario» (Ibarzabal 2001: 149).

A pesar de que su director, el presbítero Joaquín Zaitegui, trasladó *Euzko-Gogoa* a Biarritz en 1956, contando con el apoyo del gobierno de Euzkadi, la revista dejó de publicarse en 1959. Mientras tanto, desde San Sebastián, *Egan* atrajo a jóvenes escritores antifranquistas como Gabriel Aresti, ‘Txillardegi’ o Juan San Martín, forjadores

⁹⁴ KMK-KM: oficio del SFVJU a la delegación guipuzcoana del Ministerio de Información y Turismo, [1956].

⁹⁵ KMK-KM: presupuesto del SFVJU para 1959, [1958].

⁹⁶ ABA, fondo Andima Ibiñagabeitia: carta de A. M. Labayen a A. Ibinagabeitia, [1953-10-30].

⁹⁷ «Á prohibición de publicare revistas ou xornaes en lingua galega ou catalá, engadiuse a de publicarse artigos ou notizas nas linguas ditas» (Piñeiro 1954: 7). El propio ‘lendakari’ Aguirre envió un mensaje a la Unesco para denunciar el genocidio franquista de la cultura vasca, pero se limitó a describir el periodo comprendido entre 1938 y 1949, prescindiendo de referirse al SFVJU o la ALV (Ugalde 1981 II: 881-882).

del euskera ‘batua’ durante los críticos años 60 y 70. Prueba del conflicto generacional que se estaba gestando, el que fuera comandante de Michelena durante la guerra civil, Felipe Lizaso, consciente de la proyección intelectual de su excompañero de penas, le escribió en 1956 una carta para mostrarle de manera amistosa, pero enérgica, su disconformidad con el modelo de lengua que difundían desde la revista, poco respetuoso con la tradición literaria y académica ‘abertzale’.⁹⁸

5. Conclusiones

Para concluir diremos que, superada la etapa más dura de la posguerra civil española, la dictadura franquista se vio impelida a modificar los aspectos más represivos de su política cultural, en el contexto de la ‘guerra fría’ y la homologación internacional del régimen por el bloque occidental. En lo que respecta a ‘Euskal-Erría’ y su lengua vernácula, estos cambios se percibieron en una relajación e incluso modificación de la política lingüística, tanto desde instancias ministeriales aperturistas, con la creación de una cátedra ‘Manuel de Larramendi’ en la Universidad de Salamanca, como con iniciativas de carácter provincial, con la fundación del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» en San Sebastián.

De hecho, la creación en febrero de 1952 de la cátedra dirigida por el rector falangista Tovar fue un acicate para que, superando los fallidos esfuerzos de la RSVAP, la diputación de Gipuzkoa presidida por el carlista Caballero creara su propio seminario exactamente un año después, en febrero de 1953, en tanto que aquella dejaba en evidencia la dejadez regional respecto de los estudios vascos. Es curioso en este sentido cómo un nacionalista vasco como Michelena, atento a cuestiones estrictamente científicas y materiales, era más favorable a integrarse en la estructura del CSIC de Madrid que los propios franquistas vascos que dirigían la diputación provincial de Gipuzkoa, la RSVAP o la ALV.

Precisamente, las personalidades guipuzcoanas que más se empeñaron en el proyecto de un seminario lingüístico eran en gran medida monárquicos y tradicionales vergonzantemente ‘autonomistas’ que recelaban del centralismo estatal y se sentían especialmente aludidos, en calidad de supuestos guardianes de un patrimonio compartido —inmaterial, como la lengua misma, o material, como el valioso fondo bibliográfico de Urquijo—, por las acusaciones de genocidio cultural que el nacionalismo vasco hacía desde el exilio. De hecho, los monárquicos derechistas de la RSVAP, carlistas insumisos como Arrúe, integristas recalcitrantes como Echaide y, a nivel estatal, incluso falangistas convencidos como Tovar, quisieron integrar en sus proyectos culturales a nacionalistas vascos —tal fue el incómodo caso de Yrigoyen, Michelena e incluso Barandiarán— dada su valía personal, pero también para amortiguar esas críticas y crear un ambiente de relativa reconciliación en el que aquellos se asegurasen el liderazgo ideológico. Que este delicado proceso no fue compartido por todo el poder franquista provincial lo prueba el veto que sufrió la candidatura de Michelena para dirigir el SFVJU, resultando favorecido en un pri-

⁹⁸ KMK-KM: carta de F. Lizaso a L. Michelena, 1956-08-23. Esta carta se encuentra en la correspondencia de la revista *Egan*.

mer momento el canónigo Urrutia, cuyos antecedentes políticos no eran motivo de represalia.

Sin embargo, las razones científicas de Michelena se acabarían imponiendo. La entrada de este ‘mirlo blanco’ —en expresión de Arocena— significaría un salto cualitativo tan grande que pocos podían prever entonces que, con su solvencia académica y exigencia ética, no solo se estaba asegurando la restauración de los estudios filológicos vascos, enlazando con la tradición histórica representada por Urquijo, Azkue o Menéndez Pidal, sino que se estaban actualizando sus fundamentos hasta situarlos a una altura de indudable prestigio internacional, de la que es heredera la escuela de filología vasca actual. No obstante, junto a una labor científica carente entonces de infraestructura universitaria y, por tanto, demasiado dependiente de esfuerzos individuales, estaba la de fomento y conservación del vascuence. Esta otra labor, de carácter intrínsecamente social, se ve reflejada en los esfuerzos de Michelena por fijar una lengua literaria moderna a través de plataformas como la ALV y la revista *Egan*. Sin embargo, tal y como señaló el ‘euskaltzainburu’ Echaide —con palabras tan tendenciosas como acertadas— en el acto de inauguración del SFVJU, el problema del recesivo uso del euskera obedecía a unas fuerzas económicas y sociales tan poderosas, que ni siquiera el final de la larguísima dictadura franquista garantizaría su solución.

Abreviaturas

- ABA: Archivo de Euskaltzaindia.
Actas: *Actas de las sesiones celebradas por la Excma. Diputación de Guipúzcoa*.
ALV: Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.
BAP: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*.
BOE: *Boletín oficial del Estado*.
CCG-RP: Archivo del Consello da Cultura Galega, fondo Ramón Piñeiro.
CSIC: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
FET y de las JONS: Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista.
FSS-JA: Archivo de la Fundación Sancho el Sabio, fondo José Miguel Azaola.
ICOS: International Congress of Onomastic Sciences.
JMB: Archivo de la Fundación José Miguel de Barandiarán.
KMK: Archivo de Koldo Mitxelena Kulturunea, fondo general.
KMK-KM: Archivo de Koldo Mitxelena Kulturunea, fondo Koldo Mitxelena.
KMK-JU: Archivo de Koldo Mitxelena Kulturunea, fondo Julio Urquijo.
OC: Michelena (2011).
PNV: Partido Nacionalista Vasco.
RIEV: *Revista internacional de los estudios vascos*.
RSVAP: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.
SEV: Sociedad de Estudios Vascos-Eusko-Ikaskuntza.
SFVJU: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».
SIEB: Société Internationale des Études Basques-Eusko-Ikaskuntzen Lagunartea.
SLP: Seminario de Lenguas Prerrománicas-Seminario de Lenguas Prerromanas.

Bibliografía

- Actas de las sesiones celebradas por [la Comisión Gestora de] la Excma. Diputación de Guipúzcoa...* 1944-54. 10 vols. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.
- Actas de la Primera Reunión de Toponimia Pirenaica. Jaca, agosto de 1948.* 1949. Zaragoza: Instituto de Estudios Pirenaicos.
- Actas del Primer Congreso Internacional de Pireneístas. San Sebastián, 1950.* 1952. 7 vols. Zaragoza: Instituto de Estudios Pirenaicos, CSIC.
- Actes du Deuxième Congrès International d'Études Pyrénéennes. Luchon-Pau, 21-25 septembre 1954.* 1956-62. 8 vols. Toulouse: [s.n.].
- Agud, Manuel. 1968. El diccionario etimológico vasco. *BAP* 24. 39-49.
- Agud, Manuel. 1988. Luis Michelena y la ciencia del lenguaje. *Oarso* 23. 69-71.
- Agud, Manuel & Antonio Tovar. 1989-94. *Diccionario etimológico vasco*, 7 vols. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Akesolo, Lino. 1985. Aingeru bizkaitar baten oriomenean. In *Aingeru Irigaray-ri omenaldia*, 43-49. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- Alvarez Enparantza, Jose Luis. 1997. *Euskal Herria en el horizonte*. Tafalla: Txalaparta (1. edn., 1994).
- Arocena, Fausto. 1951. Reseña de *El Señorío de Concas* de Manuel Agud. *BAP* 7. 298.
- Arocena, Fausto. 1969. La *Revue internationale des études basques*. In *Revista internacional para los estudios vascos-Revue internationale des études basques*, vol. 1, XI-XVIII. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Arrieta, Leyre & Miren Barandiaran. 2003. *Diputación y modernización, Gipuzkoa 1940-1975*. San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Aycart Orbegozo, José María. 2005. *La Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País y su «segunda época» (San Sebastián 1899-1944)*. San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
- Aycart Orbegozo, José María. 2006. El nacimiento de un Boletín. *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-Euskalerriaren Adiskideen Elkartea*. *BAP* 62. 171-192.
- Azkue, Resurrección M. 1905-06. *Diccionario vasco-español-francés*, 2 vols. Bilbao: [El autor].
- Azkue, Resurrección M. 1932. *Particularidades del dialecto roncalés*. Bilbao: Editorial Vasca.
- Bähr, Gerhard. 2016. *Vasco e ibérico*. Bilbao: UPV/EHU (eds. Joaquín Gorrochategui, José M. Vallejo & Carlos García Castillero; 1. edn. 1948). https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=UHPDF164498.
- Barandiarán, José Miguel. 1956. Olentzaro, Kalerre, ta subilaro. *Egan* 5-6. 164-172.
- Barandiarán, José Miguel. 2005-09. *Diario personal*, 2 vols. Ataun: Fundación José Miguel de Barandiarán.
- Bouda, Karl. 1949. Nouvelles étymologies basques. *BAP* 5. 411-425.
- Berriketari. 1952. Berriz-berri. *GH* 24. 192.
- Cano López, Pablo. 2003. Antoine Meillet ante los problemas de la determinación del parentesco lingüístico. *Res diachronicae* 2. 55-64.
- Caro Baroja, Julio. 1945. *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- Caro Baroja, Julio. 1949a. *Los vascos. Etnología*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

- Caro Baroja, Julio. 1949b. Proyecto para la elaboración del fichero de toponimia y antropónimia vasca medieval. *BAP* 5. 381-385.
- Ciriquiain-Gaiztarro, Mariano. 1949. Seminario de Lenguas Prerrománicas. *BAP* 5. 269-270, 387.
- Cortes, Luis, Manuel García Blanco & Antonio Tovar (eds.). 1958. *Cinquième Congrès International de Toponymie et d'Anthroponymie. Salamanca, 12-15 avril 1955. Actes et mémoires – Fifth International Congress of Toponymy and Anthroponomy. Salamanca, 12th-15th April 1955. Proceedings and transactions*, 2 vols. Salamanca: [s.n.].
- Echenique, María Teresa. 1999. La lengua vasca en la obra de Joan Coromines. In Joan Solà (ed.), *L'obra de Joan Coromines*, 211-219. Sabadell: Fundació Caixa de Sabadell.
- Errazkin Agirreabala, Mikel. 2013. *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945*, 3 vols. San Sebastián: Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Etxebarria, Jose María. 1986. Euskal Herriko atlas linguistikoaren historiarako. *Euskera* 31. 375-412.
- Eusk. I. 1950. Conversaciones de *Ikuska* año 1950 (del 4 al 9 de septiembre en el Musée Basque). *EJ* 4. 384-388 (= *Ikuska* 4-6. 86-90).
- Euskaltzaindia. 1956-82. Euskaltzaindiaren batzar-agiriak. *Euskera* 1. 317-329; 17. 1-34.
- Holmer, Nils M. 1950. Las relaciones vasco-celtas desde el punto de vista lingüístico. *BAP* 6. 399-415.
- Gárate, Justo. 1971. Bibliografía. *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* 85. 95-96.
- Goicoetxea Marcaida, Ángel. 1997. *La Sociedad de Ciencias Aranzadi. Medio siglo de trabajos, 1947-1997*. San Sebastián: Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- Gorrochategui, Joaquín, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (eds.). 2018. *Historia de la lengua vasca*. Vitoria: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Grande Ramos, Mario. 1952. Sobre el origen del vascuence. *Zumárraga* 1. 63-68.
- Grande Ramos, Mario. 1954. Problemas y métodos de la lingüística vasca. *Zumárraga* 3. 105-126.
- Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra. Estudios relativos al País Vasco*, 3 vols. 1949-51. San Sebastián: RSVAP.
- Hurch, Bernahard. 2018. La red vascológica de Schuchardt. *ASJU* 52(1/2). 353-379. <https://doi.org/10.1387/asju.20208> (= Joseba A. Lakarra & Blanca Urgell (eds.), *Studia philologica et diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica*. Bilbao: UPV/EHU).
- Ibarzabal, Eugenio. 2001. *Koldo Mitxelena*. San Sebastián: Erein (1. edn., 1977).
- Ibarzabal, Eugenio. 2019. *Juan Ajuriagerra. El hermano mayor*. San Sebastián: Erein.
- Ikuska. 1950. Primer Congreso Internacional de Pireneístas. *EJ* 4. 457 (= *Ikuska* 4-6. 159).
- KMK. 1997. *Koldo Mitxelena Elissalt 1915-1987. Erakusketa, 1997ko martxoak 21-maiatzak 10 – Exposición, 21 de marzo-10 mayo 1997*. Donostia/San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Lacarra, José María. 1957. *Vasconia medieval. Historia y filología. Conferencias pronunciadas los días 10 y 11 de enero de 1956*. San Sebastián: Diputación Provincial de Gipuzkoa.
- Lafon, René. 1950. Propositions pour la notation des mots basques dans les publications scientifiques. *EJ* 4. 379-383 (= *Ikuska* 4-6. 81-85).

- Lafon, René. 1952. Remarques et projets de recherches sur le vocabulaire pyrénéen. In *Actas del Primer Congreso Internacional de Pireneístas. San Sebastián, 1950*, vol. VII, 51-64. Zaragoza: Instituto de Estudios Pirenaicos, CSIC.
- Lafon, René. 1999. *Vasconiana*, Bilbao: Euskaltzaindia (eds. Jean Haritschelhar & Pierre Charriton).
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Segurola. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Larronde, Jean-Claude (ed.). 2004a. *VII^eme Congrès d'Études Basques – Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua – VII Congreso de Estudios Vascos. Biarritz, 1948*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- Larronde, Jean-Claude (ed.). 2004b. *VIII^eme Congrès d'Études Basques – Eusko-Ikaskuntzaren VIII. Kongresua – VIII Congreso de Estudios Vascos. Baiona, Ustaritz, 1954*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- Lasanta, Teodoro & Yolanda Pueyo (eds.). 2018. *75 aniversario del Instituto Pirenaico de Ecología (CSIC). Del Pirineo al estudio de las montañas del mundo*. Madrid: CSIC.
- Lewy, Ernst. 1946-47. Bosquejo de una sintaxis elemental del vascuence. *BAP* 2. 367-368; 3. 3-28 (trad. Antonio Tovar & Martín Sánchez Ruipérez; 1. edn., 1931).
- Luengo, Félix. 1990. La formación del poder local franquista en Guipúzcoa (1937-1945). *Gerónimo de Uztariz* 4. 83-95.
- Luengo, Félix. 2007. San Sebastián en los años 50. Aspectos socioeconómicos y políticos. *Mundaiz* 73. 91-100.
- Mas, Emilio. 1949a. ¿Conserva el vascuence restos del latín arcaico? *BAP* 5. 67-69.
- Mas, Emilio. 1949b. Etimologías vascas. *BAP* 5. 377-379.
- Menéndez Pidal, Ramón. 1948. Javier-Chávarri, dos dialectos ibéricos. *Emerita* 16. 1-13.
- Menéndez Pidal, Ramón. 1950. *Orígenes del español. Estado lingüístico de la península ibérica hasta el siglo XI*. Madrid: Espasa Calpe (1. edn., 1926).
- Menéndez Pidal, Ramón. 1952. *Toponimia prerrománica hispana*. Madrid: Gredos.
- Menéndez Pidal, Ramón. 2005. *Historia de la lengua española*. Madrid: Fundación Ramón Menéndez Pidal.
- Michelena, Luis. 1987-2005. *Diccionario general vasco-Orotariko euskal hiztegia*, 16 vols. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Michelena, Luis. 2011. *Obras completas*, 15 vols. San Sebastián & Vitoria: Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, Diputación Foral de Gipuzkoa & UPV/EHU (eds. Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz).
- Mogel, Juan Antonio. 1956. *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte*. Zarauz: Icharcopena (1. edn., 1881).
- Música, Plácido. 1965. *Diccionario castellano-vasco*. Bilbao: El Mensajero del Corazón de Jesús.
- Navas, Emilio. 1977-84. *Irún en el siglo XX. Monografía*, 3 vols. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Piñeiro, Ramón. 1954. *Denuncia diante a Unesco da perseguição do idioma galego pol-o Estado hespánio. Texto en galego, francés e inglés*. Buenos Aires: [s.n.]
- Rafanell, August. 2002. El filóleg catalá de Franco. *L'Avenç* 266. 28-39.
- Ramos Ruiz, Isabel. 2007. El impulso del estudio de las lenguas en la Universidad de Salamanca en la década de 1950. *Papeles salmantinos de educación* 8. 201-226.

- Ramos Ruiz, Isabel. 2009. *Profesores, alumnos y saberes en la Universidad de Salamanca en el Rectorado de D. Antonio Tovar (1951-1956)*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- Rodriguez Oñatibia, Amaia. 2019. *Errenerteria 1936-1945*, 3 vols. San Sebastián: Errente-riako Udala, Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Rohlfs, Gerhard. 1955. Couches de colonisation romaine et pré-romaine en Gascogne et en Aragon. *Revue internationale d'onomastique* 7. 1-12.
- RSVAP. 1948. Estación de Estudios Pirenaicos. *BAP* 4. 115-116.
- RSVAP. 1950a. Seminario de Lenguas Prerromanas. *BAP* 6. 97-100.
- RSVAP. 1950b. Primer Congreso Internacional de Pirineístas. *BAP* 6. 349-350.
- RSVAP. 1951. Una cátedra de vascuence en Salamanca. *BAP* 7. 585-586.
- RSVAP. 1952a. San Juan. *BAP* 8. 299-300.
- RSVAP. 1952b. Semana Vasca en San Sebastián. *BAP* 8. 495.
- RSVAP. 1953. El Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*. *BAP* 9. 125-126.
- RSVAP. 1956. Don Luis Michelena, miembro de la *Société de Linguistique de París*. *BAP* 12. 459.
- RSVAP. 1959. Una tesis sobre lengua vasca. *BAP* 15. 72-73.
- Satrategi, Jose María. 1997. Gerra ondoreko Euskaltzaindiaren pizkundea. In *Federiko Krutwig-i omenaldia – Homenaje a Federico Krutwig – Hommage à Federico Krutwig*, 313-338. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Schuchardt, Hugo. 1947. *Primitiae linguae Vasconum*. Salamanca: Colegio Trilingüe de la Universidad (trad. Ángel Yrigaray; 1. edn. 1923).
- Schuchardt, Hugo. 1951. El vascuence y la lingüística. *BAP* 7. 551-570 (trad. Emilio Mas; 1. edn., 1925).
- Schuchardt, Hugo. 1956-60. Vascuence y romance. *BAP* 12. 463-487; 14. 181-205; 15. 339-363 (trad. Ángel Goenaga; 1. edn. 1907).
- SFVJU. 1955. *El Seminario Julio de Urquijo. Antecedentes y constitución*. San Sebastián: Imprenta de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa.
- Swiggers, Pierre. 2007. Un debate-clave de la lingüística general a inicios del siglo xx. Meillet y Schuchardt sobre el parentesco lingüístico. In Pablo Cano López (coord.), *Actas del VI Congreso de Lingüística General (Santiago de Compostela 2004)*, vol. III, 2997-3006. Madrid: Arco Libros.
- Torrealdai, Joan Mari. 2000. *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura, 1936-1983*. Zarauz: Susa.
- Tovar, Antonio. 1947. El Diccionario de Azcue. *BAP* 3. 256.
- Tovar, Antonio. 1948. Estado actual de los estudios de filología euskérica. Revista de los trabajos lingüísticos aparecidos entre 1936 y 1947. *BAP* 4. 3-30.
- Tovar, Antonio. 1952. Parentescos del vascuence. *Zumárraga* 1. 74-79.
- Tovar, Antonio. 1954. La cátedra *Larramendi* de la Universidad de Salamanca. *Zumárraga* 3. 11-34.
- Tovar, Antonio & Manuel García Blanco. 1946-47. Bibliografía de estudios lingüísticos publicados en España (1939-46). *Cultura neolatina* 6-7. 231-254.
- Trombetti, Alfredo. 1925. *Le origini della lingua basca. Memoria presentata alla R. Accademia delle Scienze dell'Istituto di Bologna nella sessione del 24 Novembre 1923*. Boloña: Coop. Tipografica Azzoguidi.
- Tusell, Javier. 1992. *Franco en la Guerra Civil. Una biografía política*. Barcelona: Tusquets.

- Ugalde, Martín (ed.). 1981. *Obras completas de José Antonio de Aguirre y Lecube*, 2 vols. San Sebastián: Sendoa.
- Ugarte, Antón. 2016. The relaunching of Euskaltzaindia (1937-1941). From the Ministry of National Education's omission to the Board of Culture of Bizkaia's imposition. *Bidebarrieta* 26. 165-184.
- Ugarte, Antón. 2018. *Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954)*. Bilbao: Euskaltzaindia & UPV/EHU.
- Ugarte, Antón. 2019. Cultura vasca y regionalismo franquista. Julio Urquijo y los estudios vascos en la posguerra. *Cercles* 22. 163-192. <https://doi.org/10.1344/cercles2019.22.1006>.
- Umandi. 1955. *Gramática vasca*. [S.l.]: [s.n.].
- Urkia Etxabe, José María (coord.). 2006. *José de Arteche, un hombre de paz*, 2 vols. San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
- Urkizu, Patri (ed.). 2004. Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984). *Bilduma* 18. 13-223.
- Urquijo, Ignacio. 1947. *Breves recuerdos históricos con ocasión de una visita a Munibe*. San Sebastián: Real Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País.
- Vallejo, José. 1949. Dos notables coincidencias entre vascuence y caucásico. *BAP* 5. 268.
- Veyrin, Philippe. 1950. Sources imprimées pour l'étude de la toponymie et de l'anthroponymie du Pays Basque français au Moyen Age. *BAP* 6. 223-224.
- Villasante, Luis. 1956. Aita Añíbarro, euskal-idazlea (1748-1830). *Euzko-Gogoa* 1. 60-88.
- Yrigaray, Ángel. 1947. Acotaciones al *Bosquejo de una sintaxis* de E. Lewy. *BAP* 3. 122-124, 257-259.
- Yrigaray, Ángel. 1948. Etnología e historia del Alto Aragón. *BAP* 4. 507-511.
- Yrizar, Pedro. 2001. *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*. Madrid: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (eds. Henrike Knörr & Iñigo de Yrizar).
- Zaragüeta, Juan. 1947. Perfil psicológico del guipuzcoano. *BAP* 3. 275-280.
- Zubiaga Arana, Erik. 2017. *La huella del terror franquista en Bizkaia. Jurisdicción militar, políticas de captación y actitudes sociales (1937-1945)*. Bilbao: UPV/EHU.

Itzulpengintzaren errepresentazioa azken 60 urteotako euskal literaturaren historiografietañ¹

Representation of translation in literary historiographies during the last 60 years

Miren Ibarluzea Santisteban*

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: Following the basis of sociological translation studies, the point of view about translation in literary histories is analysed in this paper. More specifically, we focus on the representation of translation in eleven Basque literary historiographies published during the period 1961-2016. First, we propose a theoretical basis for the study of literature historiographies; second, we analyse different historiographic discourses on translation; and, third, we reflect on the evolution of the representation of translation in Basque literature historiographies.

KEYWORDS: Sociology of Basque translation, literature historiography, Basque literature history.

LABURPENA: *Itzulpen ikasketa soziologikoei jarraikiz, lan honetan aztergai da itzulpenaren ikuspegia literatur historiari buruzko lanetan. Hain zuzen ere, 1961-2016 bitarteko euskal literaturaren hamaiaka historiografiatan itzulpengintzak izandako errepresentazioari erreparatzen zaio: lehenbizi, azterketarako gakoak azaltzen dira; ondoren, historiografiak kokatzen dira eta itzulpenari buruzko diskursoa aztertzen da historiografiaz historiografia; eta, azkenik, ondorio gisa, diskurso horien bilakabidearen deskripzioa egiten da.*

HITZ GAKOAK: *Euskal itzulpenaren soziologia, literatur historiografia, euskal literaturaren historia.*

¹ Lan hau MHLI - IT1047-16 ikerketa-taldearen US17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuen parte da.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Miren Ibarluzea Santisteban. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika. Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU). Sarriena auzoa, z.g. (48940 Leioa-Bizkaia) – miren.ibarluzea@ehu.eus – <http://orcid.org/0000-0002-2377-2922>

Nola aipatu / How to cite: Ibarluzea Santisteban, Miren (2021). «Itzulpengintzaren errepresentazioa azken 60 urteotako euskal literaturaren historiografietañ». *ASJU*, 53 (1-2), 39-82. (<https://doi.org/10.1387/asju.22411>).



1. Sarrera

Euskal itzulpengintzaren eremua² eta, horri loturik euskal itzulpengintzaren narratibo historikoa, ez da duela gutxira arte beregaina izan. Itzulpengintza euskal letron historiaren hasieratik agertzen den arren, 80ko hamarkadara arte itxaron beharko da eremu edo gizarte-entitate gisa irudikatzen hasteko eta profesionalizaziorako, erakundetzerako eta produktuen espezifikotasunerako joera nabaritzen hasteko (Ibarluzea 2017: 343-373). Hala, beste eremu batzuen baitan, esaterako euskal literatur eremuaren baitan, garatu da euskal itzulpenaren inguruko diskurtsoa, nahiz eta euskal itzulpengintzaren erakundetze-prozesuan eta eremuko produktu espezifikoak biltzeko prozesuan euskal itzulpengintzaren historia berariaz lantzeko hainbat lan egin diren.³ Oro har, esan dezakegu itzulpenari buruzko narratiboa bestelako diziplinetako narratibo historikoetan txertatu izan dela, batez ere literatur historiografietan, eta horiexek ditugu hemen aztergai.⁴ Gisa horretako lanetan sistematizatu egin ohi dira bestelako lanak, eta garai edo lan espezifiko bati soilik begiratu ordez literatur eremuari osotusunean begiratu ohi zaie. Gainera, hamarkadaz hamarkada hainbat autorek hainbat historiografia idatzi dituztenez gero, halako bilakabide bat ere izan da. Hargatik deritzogu interesgarri literatur historiografietan itzulpenaren errepresentazioa azterzeari.

Denboran zehar euskal literaturaren historiografietan itzulpenak duen presentzia azterzean, honako hauek dira gure helburuak: a) euskal literaturaren historiografietan itzulpenaren historiari buruzko diskurtso motak identifikatzea, aztertzea eta sailkatzea; b) itzulpenak euskal literaturaren eraikuntzan izandako tarteari eta funtzoario buruzko gogoeta egitea; c) itzulpenaren errepresentazioaren bilakaerari erreparatzea. Funtsean, euskal itzulpengintzak literatur espazioaren eraikuntzan izandako tarteaz edo egitekoaz gogoeta egitea dugu xede, bai eta euskal literaturari buruzko narratibo historiografikoetako diskurtsoak euskal itzulpengintza irudikatzeko modua aldatu duen edo ez, eta aldatu badu nola aldatu duen, aztertzea ere.

2. Literaturaren historiak itzulpenari emandako tarteaz

Historia, literatura eta itzulpena aztergai duten askotariko lanak arakatuta Joaquín Rubio Tobar katedradun espainiarrek egindako gogoeten arabera, itzulpenak ospe txarra izan du oro har, eta bigarren mailako jardueratzat jo izan dute hainbat sortzailek eta ikertzailek: hainbat testu aztertu gabe geratu dira oraintsura arte itzulpenak zirelako, egokitzapen baldarrak zirelakoan (Rubio Tobar 2013: 61). Edonola ere, literatur nazionalen sorkuntzan eta garapenean funtsezko egitekoa izan du itzul-

² Eremu, *capital* zein *habitus* kontzeptuei eta itzulpenaren soziologiari buruzko jakingarriez, begiratu Ibarluzea 2019.

³ Martuteneko izultzaile eskolaren inguruan ibilitako itzultzaileek sortutako lanak zein EIZIE elkar-teak sustatutako proiektuak eta artikulu bildumak aipa daitezke besteak beste, bai eta UPV/EHU itzulpengintza-ikasketak ezarriz geroztik egindako ikerketa-lanak ere.

⁴ Jesus María Lasagabasterrek literatur historiaren eta historiografiaren aldeko bereizketa egitean dioenez (2010: 762), biek ala biek dute aztergai bera, baina xede formalda da biak bereizten dituena: literaturaren historiak testuak banaka aztertu eta testuen bilakabideari begiratzen dio ikuspuntu diakronikotik; historiografiak, ostera, testu-sistemen azterketa du helburu, ikasketa literarioen edozein ikuspegitatik (Lasagabaster 2010: 762).

penak Rubio Tobarren iritziz, eta literaturen berrikuntza zein hainbat generoren sorkuntza eta garapena atzerriko literaturetako testuak ekartzeko prozeduren bidez gertatu da hainbat kulturatan (2013: 251).⁵ Euskal literaturaren kasuan ere halaxe gertatu dela esan dezakegu. Baino, kontuan hartu ote dugu itzulpen/egokitzapen/birsorkuntza horiek zer funtzio izan duten literaturaren bilakabidean? Agertu al ditugu historiografietan? Aipatu besterik ez ditugu egin, zer ziren azaldu gabe?

Garairik garai itzulpenak egon diren arren eta funtzio jakina bete duten arren, garai bakoitzean eta hizkuntza-komunitate bakoitzean modu batean baloratu izan da itzulpena, eta gizarte bakoitzak molde batera edo bestera hartu aintzat (Rubio Tobar 2013: 298). Horri erreparatzeko, hainbat iturri balia daitezke; besteak beste, itzultzaleen gutuneria, kritikak, hizkuntzak irakasteko metodoak, eta itzulpenari buruzko tratatuak; izan ere, «Elles peuvent éclairer la conceptualisation historique, la lisibilité, la diffusion des textes, les contraintes institutionnelles, voire la censure, ainsi que la part individuelle ou «biographique» d'une pensée en mouvement» dio D'Hulstek (1995: 17). Literaturaren historiografiak ere iturri aberatsak dira gure ustez. Nolanahi ere den, itzulpenak literaturaren historian izandako tarteaz ari diren lanak badiren arren, eta gaiari buruzko gogoeta orokorrak egiten diren arren, guk dakigula, historiografien arakatze sistematikorik ez da egin. Alde horretatik, dakargun lanak badu berritasunik, baina baita gidatzat jotzeko zein erkatzeko moduko lanen falta ere.

3. Literaturaren eta itzulpenaren narrazioa: zeri eta nola erreparatu

Ikerketa-metodologiak zein itzulpenak baloratzeko irizpideak aldatzen diren modu-moduan kontzeptuak eurak ere aldatu egiten dira denborarekin; beraz, kontuan hartu behar dugu guri dagozkigun aztergaiak (literatura, itzulpena eta literatur itzulpena) ulertzeko eta definitzeko moduak aldatu egin direla, literatur historiaren ideia bera ere garatzen eta aldatzen joan den era berean:

El segundo término que destaco de *Historia de la literatura traducida* es, naturalmente, *literatura*. En este libro recuerdo traducciones de textos teóricos, de libros científicos, pero, sobre todo, de textos literarios. Si la noción de historia ha sufrido cambios notables, tampoco el concepto de literatura nos parece hoy una referencia rotunda y precisa. Lo que hoy llamamos literatura, antaño no se consideraba como tal. (Rubio Tobar 2013: 250)

Ondo nabarmena da hori gurean eta, Lasagabasterren hitzak gogora ekarrita, esan dezakegu literatur historia baino gehiago, euskaraz idatzitako testuen historia egin izan dela oraintsura arte euskal literaturaren izenean:

Literatura y lengua están así estrechamente unidas, unidad que es más evidente en el caso de la literatura vasca, por la situación diglósica y la marginación socio-cultural

⁵ «Byron y su generación, recordaba Lefevere (1997) no leyeron el *Fausto* de Goethe en alemán sino en la versión francesa abreviada incluida en *De l'Allemagne (Sobre Alemania)* de Madame de Staël. Pushkin leyó a Byron en francés, no en inglés, y ciertamente no en ruso, una lengua que sólo hablaba con sus criados. Ezra Pound inventó la poesía china para Occidente mediante una antología de poetas "traducidos" de la dinastía T'ang. (Lefevere 1997: 17)» (Rubio Tobar 2013: 199-200).

del euskera frente a las lenguas mayoritarias —español y francés— entre las que trata de sobrevivir. En realidad, la historia de la literatura vasca es, hasta la época reciente, la historia de lo escrito en euskara y la modernización de la literatura vasca puede verse y explicarse como un proceso de recuperación de la autonomía de lo literario frente a la lengua. (Lasagabaster 2007: 237-248)

Nolanahi ere den, egoera aldatuz joan da euskal literaturak berak apurka-apurka autonomia lortu duen heinean eta sistema estetikotzat jo izan den heinean: «Se trata simplemente de que la literatura vasca se afirma y se reconoce cada vez con mayor lucidez como un sistema semiótico específico y autónomo, distinto por tanto del sistema lingüístico, en el interior del sistema semiótico general de la cultura de un pueblo» (Lasagabaster 2007: 244-245).

Bide beretik, literatur itzulpena definitzeko hainbat arazo izan dira azken urteotako ikerketetan. Lambertek laburbildu bezala (2001: 130-133), *literatura* terminoaren beraren erabilera (sorkuntzaren, estiloaren, generoaren... parametro askotari-koei jarraikiz) aski berria da. Ikerketa akademikoak ez ditu argiro ezarri literaturaren edo literatura jakin baten mugak, ez eta hizkuntzen eta lurraldeen arteko loturak ere. Orokorean, onartu egiten dugu literatura horiek izan badirena. Hala, Lamberten arabera (*ibidem*), literatura loturik baldin badago hizkuntza, lurralde edo nazio batetikin, itzulpenak ez du zertain halabeharrez edo berez interakziorik sortu tradizioen artean. Izan ere, *itzulpen* kontzeptua bera ere ez da unibertsala, eta egokitzapenaren zein berridazketaren mugak non diren zehazteke dago. Literatur itzulpenaren estatusa, hortaz, anbiguoa da, eta edozein azterketa egiteko denbora, azterketa-moldeak, irizpideak zein une jakin batean aintzat hartutako definizioak hartu behar dira kontuan. Adibidez, itzulpenaren eta sormenaren artean jatorrizko lanetatik abiatuta egin-dako bertsio libreek, egokitzapenak eta gisako fenomenoek zaildu egiten dute itzulpenaren beraren definizioa. Alabaina, ekarritako literaturaren balioaren adierazleak egon badaude, eta horiei arretaz begiratu behar zaie. Euskal literaturaren historiografietan aztertu dugun beste auzietako bat da nola definitu ote den *literatur itzulpena*, edo, bestela esateko, zer motatako testuei (egokitzapenei eta auto-itzulpenei ere bai?)⁶ jarri zaien *itzulpen* etiketa.

Bushek honela definitzen eta deskribatzen du literatur itzulpena (2001: 127-130): jarduera subjektibo orijinala da, zerikusi zuzena duena literatura definitzen duten hierarkiekin (eta literatur itzultaileak kultur konbergentzien parte direnez, hierarkia horien parte dira). Besteak beste, literatur itzulpenak lotura handia du edizio-merkatuaren legeekin. Halaber, itzulpena aurretiazko irakurketen fruitua da, eta testuin-gurua funtsezkoa da, itzulpen-prozesuan kanpo-eragile askok eragin baitezakete eta itzultaileak itzulpen-estrategia ezberdinak balia baititzake. Horiek hala izanik ere, itzultailea da itzulpenen eragile nagusienetako bat, eta interesgarri deritzogu aztertzeari ea euskal literaturaren historiografietan autoreren bat itzultaile legez ageri ote den eta, hala bada, nork, nori eta noiz esleitzen dion etiketa hori.

Iraganeko gertakariak zeren arabera antolatu, hori izaten da edozein arlotako historiareni azterketan historiografiagileen buruhausteetako bat, eta hala gertatzen da li-

⁶ Arrula Ruizen *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian* (2018) doktorego tesian, 2. kapituluan, aurki dezake irakurleak autoitzulpen moten sailkapen xehea. Esteka honetan dago eskuragarri: <https://addi.ehu.es/handle/10810/27983?locale-attribute=eu>.

teraturaren eta itzulpengintzaren historiografian ere; beraz, askotariko irizpideei jarreraikiz antola daitezke itzulpengintzarekin lotutako gertakariak (Woodsworth 1998: 101-103).⁷ Edonola ere, irizpide nagusiak espazioa eta denbora izaten dira: itzulpengintzaz denaz bezainbatean, batez ere nazio jakin bateko itzulpengintzari buruzko lanak idatzi izan dira, edo lurralte zein kultur komunitate jakin baten ingurukoak. Oro har, mendeak, hamarkadak... eta gisako denbora-tarteak baliatu izan dira garaia markatzeko. Hala ere, badira, bestelako irizpide historiografikoak: itzulpenmota edo testu-generoa, esaterako (gehien aztertu izan diren testu-generoak literatur itzulpena eta Bibliaren itzulpena izan dira). Historiografia bat idazteko, arlo jakin batetako eskolak zein joera espezifikoei ere egin dokieke erreferentzia, eta generoaren eta erakundeen eragina edo arloko antologiak edo aipuak ere izan daitezke lanak ardazteko irizpide. Ildo horretan, hemen aztergai izango dugu zeren arabera sailkatu ote dituzten euskal literaturaren historiografoek literatur zein itzulpen-gertakariak eta zer motatako kapitalaren arabera baloratu izan dituzten itzulpenak.

Rubio Tobarren esanetan (2013: 247), itzulpenaren narrazio historikoari ez zaio behar besteko garrantzia eman literatur historiografietan: batetik, itzulpena hizkuntzarekin lotutako fenomenotzat jo izan delako gehienbat; bestalde, literaturaren narrazioa hizkuntza-literatura-nazioa hirukoari lotuta idatzi izan delako. Horrez gainera, literatur historiografietan autoreen obraren gehigarri txertatu izan dira itzulpenei buruzko aipamenak. Besteak beste, horri erreparatu diogu euskal literaturaren historiografien azterketan, itzulpenei buruzko aipamenek tarterik ote duten eta aipatzen diren autoreen obren gehigarri gisa agertzen ote diren begiratzean.

Labur esanik, gure asmoa da euskal literaturaren historiarenean narrazioa egiten duten literatur historiografia esanguratsuenetan (ikusi 5. atalean corpusaren hautaketari buruzkoak) euskaratik eta euskarara eginiko itzulpenari buruzko errepresentazioak zein izan diren aztertzea eta diskurtsoek fokua non jarri duten azaltzea.

4. Itzulpenaren arkeologia, kritika historikoa eta azalpena

Method in Translation History liburuan (1998) itzulpenaren historiarenean definizio-saiakera bat egiten du Pymek:

[Translation history] is a set of discourses predicating the changes that have occurred or have actively been prevented in the field of translation. Its field includes actions and agents leading to translations (or non-translations), the effects of translations (or non-translations), theories about translation, and a long etcetera of causality related phenomena. (Pym 1998: 5)

Jarraian, azpialorrik bereizten ditu: itzulpenaren arkeologia, kritika historikoa eta azalpena. Bada, sailkapen hori esku-eskura datorkigu euskal literaturaren historiografietan ageri diren itzulpenari buruzko diskurtsoak sailkatzeo.

⁷ Woodsworthen iritzi berekoa da D'Hulst; dioenez, askotariko irizpide eta eremuetako eraginen arabera aritu ohi da itzulpengintzaren arloko ikertzailea: «Il adoptera les grandes divisions de l'histoire culturelle (Antiquité, Moyen Âge, Renaissance, Classicisme, etc.), ou bien il distinguera de grands axes théoriques qui lui paraissent globalement dominer des périodes plus souplement distinguées: la théorie de l'imitation, celle de la traduction-appropriation, de la traduction créatrice, etc (voir Ballard, 1992)» (D'Hulst 1995: 23-24).

Itzulpenaren arkeologia galdera hauei osoki edo zatika erantzuten dien diskurtso-multzoa da: nork, zer, nola, non, noiz, norentzat eta zertarako itzuli zuen? Hala, itzultzileen ikerketa biografikoari buruzko katalogoak barne hartzen ditu alorrik. Kritika historikoa deritzon alorrari dagokionez, diskurtso multzo bat da, hain zuen ere, itzulpenek humanitatearen garapena laguntzen edo oztopatzet dute moduari buruzko diskurtsoen multzoa. Azalpena, osteria, artefaktu historikoak zergatik geratu ziren azaltzen duen historiaren arloa da; halaber, aldaketari edo garapenari nola lotzen zaizkion azaltzen du (Pym 1998: 5). Nolabait, arkeologiak eta kritika historikoak egintzakin eta testuekin dute zerikusia, eta, azalpenak, berriz, horiek arrazoi-tezarekin. Batez ere, arrazoitzea, hots, itzulpen baten atzean dauden helburu-sare eta beste arlo batzuekiko loturak agerraztea zein gizartean itzulpenak irudikatzeko eta sortzeko eragiten eta eraikitzen diren sareak eta indarrak ikusaraztea, besteak beste, botere-harremanekin daude lotuta; hala, dagokigun alor honetan argitu daiteke itzultzileak aktore sozialak direnetz. Garrantzi handia aitortzen dio Pymek arrazoitzeari eta, bere ustez, *zergatik?* da itzulpenaren historiako ikertztaileak bere buruari egin diezaiokene galderarik garrantzitsuena, ezen «A history that ignored causation would perhaps be able to describe actions and effects, it might even have a one-dimensional idea of progress, but it would not recognize the properly human dimension of documents and actions as processes of change» (1998: 5). Nolanahi ere den, itzulpenaren historiak hiru alorrik behar ditu, ez baitira inola ere aparteko sailak. Horrez gain, aipagarria da alor bakoitzak emaitzak plazaratzeko modu propioak dituela: «Archaeology is suited to lists; criticism is suited to analysis and argument; explanation is often best when close to good storytelling» (1998: 5-7). Bada, alor guztiak iker-tzaileen ikerketen baturak eta behaketa orokorrak emango digute itzulpenaren historiaren ikuspegi zabala (Pym 1998: 8-9).

Ildo horretan, hemen aztertzen diren euskal literatur historiografietan ez diote autoreek itzulpenari itzulpen-ikasketen talaiatik begiratu. Guk, jakin, badakigu literatur historiografiei begiratzen ari garela itzulpenaren historiaz ari den teorialari batek proposatutako ereduari jarraikiz, baina hala ere, guri oso baliagarri izango zaigu Pymen sailkapena literatur historiografiek egiten dituzten aipamenak eta itzulpenari buruzko diskurtsoa sailkatzen eta aztertzeko.

Esan dugunez, literatur historiografoen diskurtsoen azterketa egingo dugu, baina ez dugu soilik itzulpengintzari buruzko pasarteen bilduma bat egin gura:

One cannot start studying a field just by collecting fragments that look like they might have something to do with that field. There must also be careful through about what we are looking for, how we are likely to find it, and how the field itself is to be constituted. (Pym 1998: 11)

Metodoari buruzko gogoeta egiten ahaleginduko gara, Pymi jarraikiz, asko baitira itzulpenaren historiaz diharduten lanei buruz egin ditzakegungo galderak: euskal literaturaren historiografietan, nork idatzi du itzulpenez eta zein irizpideren arabera? Zein dira historiografo horien itzulpenarekiko ikuspuntuak? Nola definitzen eta deskribatzen dute itzulpena? Nor jotzen dute itzultzaietza? Halako galderai erantzun beharrez aztertu ditugu euskal literaturaren historiografiak. Aurrekoari gehitu behar zaio itzulpena bera definitzeko moduak ere alda daitezkeela lan batetik bestera: itzulpentzat jotako guztiak al dira itzulpenak? Egokitzapenak ere sartzen al dira itzulpenen bildumetan?

5. Euskal historiografia literarioen bilakaera eta azterketa honetarako hautatutako corpora

Lau aro nagusitan sailkatzen du Casenavek *Euskal literaturaren historiaren historia* (2012: 24-67):

1857-1907 urte-tartean biltzen ditu kanpotik etorritako aditu eta filologoek Euskal Herriari buruzko monografietan euskal literaturaz idatzitako aipamenak (Michel eta Vinson ditu hizpide, biak ere Frantziako probintzietako ondare-bilketaren mugimenduan kokatu beharrekoak).

Fundatzaileen garaia deritzo 1920-1950 tarteari: orduan egin ziren euskal literaturari buruzko lehen saio orokorrak (esaterako Lhandek, Orixek zein Lafittekin idatzitakoak; barneko ikuspegia zuten horiek, aurrekoen lanetako ikuspegiaren aldean).

Hirugarren aroa 1960an Mitxelenak idatzitako *Literatura vasca* lanarekin abiatzen da, eta beronek ekarri zuen, hain zuzen ere, eredu nazionala. Ildo horretan egindako lanak dira 1970eko eta 1980ko hamarkadetan giza zientzien teorien eta metodologien eraginaren eskutik etorritako jardunbidean eraikitakoak. Horien ezaugarriez honako hau zehazten du Casenavek:

Beraz, 60-eko hamarkadaren hastapenean Mitxelenarekin abiatu zen prozesuak ondorio argi batzuk bideratu zituen. 80-eko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen eredu historiografikoaren arabera, euskal literaturaren historian ondoko oinarriak kondutan hartuak ziren:

- Euskaraz idatzitako testuak dira euskal literaturan sartzen direnak.
- Europa mailako «Literaturaren definizio modernista» aplikatzen zaio euskal literaturari.
- Europa mailan, literaturaren historia egiterakoan erabiltzen diren bi metodologia nagusiak erakarriak izan dira euskal eremura: historikoa eta soziologikoa. (Casenave 2012: 67)

Laugarrenik, 1980ko hamarkadaz geroztik, eguneratze teorikoa gertatzen da: «Kanpoan erabiliak ziren metodologiak euskal literaturaren azterketari egokituak izan dira 80-eko hamarkadatik hona: semiotika, harreraren estetika eta irakurleriari buruzko teoriak, literaturaren soziologia, etb.» (2012: 77). Hiru puntuk ezaugarritzen dituzte ««patroi» berriaren oinarri «kontsensualak»: literaturaren «definizio gaurkotua»; euskal literatura «objektu konplexu gisa»; sorkuntza garaikidearen nagusitasuna» (2012: 84). Ordutik aurrerakoan, euskal literaturaren historia egiteko eredu berritu batez ari gaitezke Casenaveri jarraikiz.⁸

Casenavek azaltzen duenez (2012: 8-24), egun darabilgun euskal literaturaren eredu historiografikoa Mitxelenak finkatu zuen 1960ko hamarkadaren hasieran, eredu nazionalaren oinarri teorikoak eta historikoak baliatuta,⁹ eta orduz geroztik osatu egin da eredu hori, inguruko kulturretan gertatu bezala, indarrean egondako oinarri metodologikoak eta kritikoak baliatuta. Oro har, euskarazko testu idatzien his-

⁸ Zehaztasun gehiagorako, ikusi Casenave (2010).

⁹ «*Historia de la literatura vasca* liburutik, J.B. Orpustanen *Précis d'Histoire littéraire basque* (1996) obra arte, eredu historiografikoa berdina egon da nagusi euskal kulturan, preseseki K. Mitxelenak finkatu zuena» (Casenave 2012: 56).

toria egitik balio estetiko jakin bat duten testuen historia egitera igaro dira euskal literaturaren historiografoak.¹⁰

Mitxelenak 1960an finkatutako ereduaz gerotziko historiografietan jarri nahi genuke artikulu honetan arreta, hots Casenaveren bilakabidean euskal literatur historiografien hirugarren eta laugarren aroetan eta, horretarako, Casenavek berak zerrendatzen dituen historiografietako batzuk aztertuko ditugu.

Arestian aipatutako aroetan idatzitako literatur historiografiak literatur ikaskete-tako metodologiei jarraikiz egindakoak dira, eredu nazionalaren arabera egindakoak zein eguneratze teoriko-metodologikoen ildoan egindakoak. Hain zuzen ere, euskal itzulpen-eremuaren autonomizazio erlatiboaren prozesua euskal literaturaren bera-en autonomizazioarekin bat gertatu da (Ibarluzea 2017: 181-211), eta ikusi nahi dugu bide horretan zer nolako errepresentazioa izan duen itzulpengintzak Casenavek (2012) azaltzen duen literatur kritikaren garapen-prozesuan.

Bada, Casenavek, 1960-1980 bitartean kokatzen duen eredu nazionalaren eta giza-zientzien ekarpenari lotutako garaiaren erakusgarri, honako lan hauek aipatzen ditu *Euskal literaturaren historiarenen historia* (2012) lanean: *Historia de la literatura vasca*, Mitxelena (1960); *Historia de la literatura vasca*, Villasante (1961), sei liburukiz osatutako eta euskal kulturaren norabide nagusiak biltzen dituen *Euskal literatura*, Onaindia (1972-1990); Estornesek zuzendutako *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco* lanean literaturari eskaintzen zazkion bost aleak; Jon Etxaideren *Hamaika seme euskalerriko liburua*, (1958; historia ez den arren hurrengo literatur historiografiagileentzako hainbat datu eskaintzen ditu). Halaber, giza-zientzien ekarpenari loturik aipatzen ditu Casenavek Ibon Sarasolaren *Euskal literaturaren historia* (1971) eta *Euskal literatura numerotan* (1974), eta Joan Mari Torrealdaiaren *Euskal idazleak gaur* (1977) lanak. Azterketa honetarako euskal literaturari buruzko monografia orokorrak hautatu ditugu, hots, liburuki bakarrean emandakoak eta euskal kulturari buruzko obra zabala-goetan zati ez direnak. Hala, Casenavek zerrendatutako-en artetik alde batera utzi ditugu Onaindiarena, Estornesena, Etxaiderena eta Torrealdaiarena. Sarasolaren kasuan, Casenavek aipatzen dituen bi lanak konbinatzen dituen 1976ko gaztelaniazko edizioa hautatu dugu, Casenavek aipatzen dituen 1971ko eta 1074ko biak biltzen dituen aldetik eta autoreak aurreko lanak zuzentzeko eta argitzeko tartea izan zuen aldetik (argitalpenaren kronologiari dagokio hautua, hortaz, eta ez historiografiaren argitalpen-hizkuntzari). Berdin jokatu dugu gainerako historiografiek ere: historiografiek edizio bat baino gehiago izan dutenean, edo itzulita argitaratu diren kasuetan, azken bertsioa izan dugu aztergai.

Casenavek 1980az gerotziko eguneratze teorikoaren garaian, jarraian datozen «historia orokorrak» nabamentzen ditu (2012: 69):¹¹ *Historia de la literatura euske-*

¹⁰ «Egungo egunean, orotan egiten den gisa berean, euskal literatura aktibitate estetiko autonomo bezala definitzen da. Ondorioz, definizio kontsensuala ematen diogu literaturari: ez ditugu gehiago euskara idatziaren historia eta euskal literaturaren historia nahasten. Helburu estetiko jakin batekin idatziak izan diren testuak baizik ez ditugu onartzten literario bezala. Horregatik, xx. mende erdia baino lehen idatziak izan diren testuen parte handiena euskal literaturaren oinarrizko korpusetatik baztertuak dira» (Casenave 2012: 24).

¹¹ Garai eta literaturaren eremu bakarra jorratzen duten lanen zerrenda ere ematen du jarraian (Casenave 2012: 70), baina, hautaketarako-irizpideen berri ematean azaldu dugunez, ez dagokio gure ikerlanari.

rika (Mujika 1979), *Literatura Vasca* (Juaristi 1987), *Précis de littérature basque* (Orpustan 1996), *Euskal kultura gaur* (Torrealda 1997), *Euskal literaturaren historia txikia* (Kortazar 1997), *Historia de la literatura vasca* (Askoren artean, Urkizu zuz. 2000). Lan horien artetik Torrealdairena utzi dugu alde batera, lehenago azaldutako arrazoi berengatik. Horiez gain 2000. urtetik aurrera argitaratutakoentzat artean zerrendatzen ditu Casenavek Patri Urkizuren *Historia de la literatura vasca* (2000), Patxi Salaberri Muñoaren *Iraupena eta lekukotasuna*, 1900era arteko literaturaz ari dena, eta Iñaki Aldekoaren literatur historiografia, gazteleraez 2004an argitaratua (*Historia de la literatura vasca*) eta euskaraz 2008an emana (*Euskal literaturaren historia*). Horien arteko bakarra utzi dugu alde batera, Salaberri Muñoarena hain zuen ere, 1900. urtean geratzen delako. Aldekoaren lanen artean, lehenago zehaztu bezala, bigarrena aztertuko dugu, baina 2008ko itzulpenean (lehenago aipatutako irizpidearekin bat).

Casenavek egindako zerrenda 2008an geratzen da, eta ordurik gaur arteko tartean literatur historiografien bilakabidearen erakusgarri diren beste bi historiografia ere gehitu ditugu zerrendara, hain zuen ere, ordutik Olaziregik eta Gabilondok argitaratutako lanak.

Hona hemen, hortaz, lehenbizikoz argitaratu ziren ordenean emanik (ordena horretan aztertuko ditugu, kasu batzuetan lehen bertsioa aztertu ez dugun arren lehenago azaldu bezala), itzulpenaren agerpenari erreparatzeko hautatu ditugun lanen zerrenda:

1. taula

Azertutako historiografien zerrenda eta datuak

1. berts.	Ikerketa honetarako baliatutako bertsioa	
1960 1961 1971	Mitxelena (2011): <i>Historia de la literatura vasca</i> Villasante (1979): <i>Historia de la literatura vasca</i> Sarasola (1976): <i>Historia social de la literatura vasca</i>	Eredu nazionala ezartzea eta gizarte-zientzien ekarpenea
1979 1987 1996 1997 2000 2004	Mujika (1979): <i>Historia de la literatura euskerika</i> Juaristi (1987): <i>Literatura vasca</i> Orpustan (1996): <i>Précis de littérature basque</i> Kortazar (1997): <i>Euskal literaturaren historia txikia</i> Urkizu (2000): <i>Historia de la literatura vasca</i> Aldekoa (2008): <i>Euskal literaturaren historia</i>	Materialen ugaritzea & berritzte metodologikoaren gararia
2012 2016	Olaziregi (2012): <i>Basque Literary History</i> Gabilondo (2016): <i>Before Babel. A History of Basque literatures</i>	Azken hamarkadako lanak: eredu berriak

6. Euskal literatur historiografien azterketa

Aurreko atalean zehaztutako corpuseko historiografiak modu kronologikoan ekuazio ditugu jarraian, eta banaka-banaka ikusiko dugu bakoitzean itzulpenari lotutako zer-nolako tratamendua egiten duten lanen egileek.

6.1. Mitxelena ([1960] 2011): *Historia de la literatura vasca*

Hizkuntzalaria zen Mitxelena, baina literaturaz zabal eta zorrotz idatzi zuen; honela dio, Lasagabasterrek:

Si los escritos de Mitxelena sobre literatura —reseñas de libros, artículos, prólogos, etc.— pueden considerarse como textos «menores» en el conjunto de su obra y en comparación con sus trabajos lingüísticos y filológicos, vistos sin embargo en el contexto contemporáneo de la situación de la crítica literaria vasca, adquieren una dimensión si no nueva, sí al menos importante y decisiva. De hecho, a lo largo de más de treinta años, Mitxelena no deja de publicar en diferentes revistas del país su visión personal de la literatura vasca a través de reseñas de libros de autores vascos, tanto clásicos como modernos, pero también, y su curiosidad intelectual lo hace necesario y lo explica, escritores de otras literaturas. (Lasagabaster 2007: 238)

Izan ere, *Egan, Zeruko Argia, Anaitasuna* zein *Deia* agerkarietan eman zituen literaturari buruzko iruzkinak, eta, hortaz, 1950eko eta 1980ko hamarkada bitartean, Mitxelenaren irudia funtsezkoa izan zen literaturaren kritikan (Lasagabaster 2007: 238). Mitxelenak egindako ekarprena, orrialde-kopuruagatik ez eze, beste honegatik ere bada garrantzi handikoa: «por el excepcional conocimiento del euskera que sirve de base a su análisis de los textos literarios, por la serena lucidez de sus juicios, y por la excepcional cultura desde la que Mitxelena hace su crítica literaria» (*ibidem*).

1950eko hamarkadan Mitxelenak Orixeri eskatu zion 1927ko historiografia berritu zezala, baina Orixek ezezkoa eman zion. Mitxelena bera lotu zitzaison lan horri, hortaz, Guillermo Diaz Plajak Madriletik eskaria egin zionean (Casenave 2012: 56).¹² Emaitza Diaz Plajak zuzendutako *Historia General de las literaturas Hispánicas* (Barcelona, 1958) lanerako idatzitako *Literatura en lengua vasca* izan zen. Lan hori moldatuta ondu zuen gero Mitxelenak aztergai dugun historiografia-lan hau, eta Minotauro argitaletxean agertu zen, 1960an. Aurreko lan hartatik abiatu izanak azal lititzake historiografiaren beraren zenbait ezaugarri, eta Madrilen argitaratzeko egin izana izan daiteke zenbait kronología-hauturen arrazoia; adibidez, 1850. urtea hartu izana epemuga gisa aro bat sailkatzeko.

1960an Minotauro argitaletxean «Biblioteca vasca» bildumako VII. liburuki gisa agertutakoa, ondoren, 1988 eta 2001ean Erein argitaletxeak berrargitaratu zuen eta 2011n ere eman zuten *Luis Michelena. Obras completas* bilduman, XIII. liburukian.¹³

Casenavek azaltzen duenez, Mitxelenenak bi oinarri nagusi ditu: historialarien zehaztasuna eta ikertzailearen autonomía. Euskarazko testuekin osatu zuen euskal literaturaren corpora, metodología historikoari jarraitu zion, eta literaturaren historia kasu batzuetan gertakari politiko, ekonomiko eta kulturalekin lotu zuen. Corpora hautatzean aurrekoen kanon-aukerak ezeztatu zituen, eta hiru hautu metodologiko egin zituen (Casenave 2012: 56-60): «Mitxelenarentzat, Euskal literatura, euskaraz

¹² Are gehiago, Joseba Andoni Lakarrak Koldo Mitxelena katedraren III. Biltzarrean (2012ko urria), Casenaveren hitzaldi baten osteko solasaldian aipatu zuenez, halako proiektu batean Orixek ez zukeen tarterik izango, Plajaren proiektuko partaideak ikertzaile entzutetsuak baitziren (Ikusi aipamena esteka honetan <https://www.youtube.com/watch?v=s2cpkw5-FrM>, 53: 43tik aurrera).

¹³ Azterketa honetarako baliatu dugun edizioa *Luis Michelena Obras completas* bildumako XIII. liburukian argitaratutakoa da. Hortaz, darabilzagun orrialde-zenbakiek edizio horri dagozkio.

idazten den literatura da» (2012: 59); «Mitxelenaren bigarren aukera nagusia eredu «nacionala»-rena izan zen. Berritz ere erran behar da eredu «nacionala» finkatu zuela eta ez «nacionalista»» (2012: 59); «Hirugarren aukera nagusia, estetika mailan egin zuen, «literatura»-ren definizioan hain zuen. Hortan, Europako kulturan nagusitu zen modernitatearen aukera egin zuen» (2012: 60).¹⁴

Mitxelenak berak aitortzen du hizkuntzalaria zela, eta ez literaturan aditua, «Al lector» izeneko hitzaurrean; bada, hargatik saiatzen da bere alorreko gaietan ahalik eta zehatzena izaten (1960: 84). Itzulpenei buruzko aipamenei dagokienez, bere lanean itzulpenak (zein bestelako testuak) sartu izanaz ondo jakitun da, eta batez ere hizkuntzaren ikuspegitik begiratzen die, gainerako testuekin egiten duen legez; euskal testuen historia egiten duela argi uzten du hasiera-hasieratik. Berritzulpenak eta sasi-itzulpenak ere identifikatzen ditu. Nolanahi ere den, aipatutako testuen garaiak aurrera egin ahala, itzulpenei buruzko aipamen gutxiago ageri dira.

Mitxelenak bere historiografian itzulpenaz darabilen diskursoari dagokionez, hiruretarik egiten du: arkeología, azalpena eta kritika historikoa; ez du beti denetarik egiten, baina hirurak darabiltza antzeko neurrian, eta alde horretatik, orekatua da.

Mitxelenak ez dio produktuari soilik begiratzen, eta argi bereizten ditu itzulpenak eta sorkuntza-testuak: testu bat itzulpena edo sorkuntza-testua den ez dakienean, edo zalantzazkoa denean, beren-beregi aipatzen du. Berezketa hori argia da, halaber, testuak iruzkintzeko moduan, eta lehenago esan bezala, hizkuntzazkoak dira balorazio gehienak, hizkuntza-ezaugarriak, dialektalak... xeheki aztertzen ditu; izan ere, itzulpenak berak eta itzulpenaren funtzionalitateak xede-testuak ezaugarritzen dituen ustekoa da Mitxelena. Leizarragaren lanaz ari dela, adibidez, testuinguruak, testu motak eta testuaren hartzaileak zein ziren kontuan hartzeak egilearen hautu linguistikoak moldatu zituela azaltzen du (1960: 115-116). Ikusten dugunez, itzulpen-testuak iruzkintzen dituenean, itzulpen-prozesu osoari erreparatzen dio, ez soilik produktu testualari: baliatutako bertsioak, zubi-hizkuntzak, itzulpen-estrategiak... aipatzen ditu sarri, bai eta jatorrizko testuaren eta itzulpenaren arteko erkaketa egin ere.¹⁵ Ahal duenean, gainera, itzultzalearen habitusarekin eta itzulpenaren funtzioarekin lotzen ditu, eta funtzioko eta hizkuntza-ezaugarriak lotzeko saioak egiten ditu, batak besteari nola eragiten dion azalduta zenbait kasutan, hots, itzulpen diskurtsoen artetik azalpena eginez. Horrez gain, zenbait itzulpenen irismenari edo eraginei buruzko aipamenak ere egiten ditu (kritika historikoa). Adibidez, Mendibururen itzulpenak bertsolari baten baino gehiagoren inspirazioa piztu zuela esatean, itzulpenek

¹⁴ Casenavek aipatzen dituen hautuez mintzatu zen dagoeneko Lasagabaster (2007): «no hay propósitos innovadores, en cuanto a metodología y a los conceptos operatorios utilizados. El valor está en el rigor con que son tratados autores y textos, una periodización de la historia literaria vasca que, pese a su carácter provisional, está hecha generalmente con rigurosidad [...] y una conciencia clara en el autor de las limitaciones que tiene en el mismo punto de partida» (Lasagabaster 2007: 240-241).

¹⁵ Adibide baterako, begiratu Lardizábalen egokitzapenei buruz ari delarik egiten duen aipamena: «En el mismo límite del período que consideramos en este capítulo está Francisco Ignacio de Lardizábal, nacido y muerto en Zaldibia (1806-1855), autor de *Testamentu zarreco eta berrico condaira* (1855, reimpreso en 1887), arreglo del Royaumont como el del labortano Larreguy, para el que sin duda tuvo presente la versión de éste. Es probablemente la obra que ha sido más leída en Guipúzcoa en los últimos cien años, y no sin razón: aunque algo monótono, Lardizábal es un buen hablista y un buen narrador. Se le debe también una *Gramatica vascongada* (1856), basada en Larramendi» (Mitxelena 1960: 160).

izandako harreraren era zabalkundearen berri ematen du (1960: 168-169). Zenbait autoreren kasuan, gainera, bereizi egiten ditu unean uneko itzulpen eta idazketa estrategiak.¹⁶ Beste kasuren batean, ez da ausartzen testuari buruzko iruzkinik egiten, testuaren jatorrizko bertsioa ezagutzen ez duela eta.

Itzulpenen funtzioaz denaz bezainbatean, funtzio dialektologikoa, didaktikoa eta fundacionala aipatzen dira batez ere XIX-XX. mendeak baino lehen. Funtzio kulturalari dagokionez, Mitxelenak berak dioenez, itzulpen jakin batzuek literatur aroak markatzen dituzte, eta hori nabari da, batez ere, testu garaikideez ari delarik. «Entre dos siglos» azpiatalean, euskal literaturaren garai berri baterako zantzuak ikusten ditu Mitxelenak, eta itzulpenak ordura arte landu gabeko literatur esparruak jorratzeko bide gisa aurkezten ditu:

[...] se trata con empeño de buscar a la lengua nuevos campos de manifestación, de cultivar los que estaban sin cultivo, y por consiguiente es cada vez mayor el número de traducciones de obras profanas consideradas como modelos. En contraste con el cerrado utilitarismo anterior, la nueva literatura no deja a veces de ser demasiado desinteresada: no se sabe muy bien, en efecto, a qué público pueden estar destinadas algunas de sus producciones. (1960: 178)

6.2. Villasante ([1961] 1979): *Historia de la literatura vasca*

Luis Villasante frantziskotar eta euskaltzainari Julio de Urquijo Filología Mintegiak egin zion azterlan hau idazteko mandatua (1979: 17), eta 1961ean argitaratu zen *Historia de la literatura vasca*, Mitxelenaren historiarekin bateratsu.¹⁷ 1979an berregitaratu zen, zuzenduta eta osatuta;¹⁸ berrediziorako erreferentzia bibliografikoak, aukibideak eta autoreen inguruko datu osagarriak gehitu zituen Villasantek (1979: 10). Villasanterena euskal literaturaren ikerketarako mugarrietako bat izan zen, batez ere bertan bildutako datuen ugaritasuna dela eta. Lasagabasterrek dioen moduan, Villasanterena, Mitxelenaren atzetik etorri ziren lanekin batera, «más que historias propiamente dichas, son por lo general «materiales» para una historia de la literatura vasca [...]. Hay una acumulación exhaustiva casi, de los datos empíricos: autores, catálogo de obras, fechas, etc.» (Lasagabaster 2007: 240). Ezbairik gabe, horixe da lan honen kasua, eta datu-bilketa handia izanagatik, ez dago datuak ikuspegi literarioa kontuan hartuta lotzen dituen haririk (*ibidem*).¹⁹ Villasantek berak hitzaurrean aitortu zuen: «En fin, por todo lo dicho, se comprende que nuestro libro presente por fuerza un tanto abigarrado, una galería de personajes bilingües o

¹⁶ Begiratu Iztuetaren inguruko aipamen hau: «Como prosista Iztueta propende a la redundancia y no siempre supo manejar los neologismos manufacturados por Larramendi con la discreción que éste reservaba para las criaturas de su propia mente. Esto resulta particularmente evidente en las traducciones de documentos oficiales, cuyo texto vasco sería punto menos que ininteligible, como se ha solidado indicar, si no fuera acompañado del original. Cuando se olvida del ornato, sin embargo, el lenguaje de Iztueta es castizo y natural» (Mitxelena 1960: 162).

¹⁷ Bidenabar, izen bera dute bi historiografiek, eta Mitxelenak hitzaurrea idatzi zion Villasanterenari.

¹⁸ Azken edizio hori darabilgu ikerketa honetan.

¹⁹ Iritzi berekoa da Casenave: «erran daiteke datu-bilketa bat eskaini zuela eta euskal idatziaren historia egin zuela euskarazko literaturarena baino» (2012: 62).

trilingües, con un elenco de obras en vascuence y otro de obras sobre vascuence, pero no escritas en vascuence, etc.» (1979: 21).

Villasante jakitun zen, halaber, ez zituela soilik «literatur» testuak bildu «euskar literatura» izendapenaren abaroan: «Nosotros queremos tomar el vocablo en su sentido amplio de todo libro o publicación escrito en lengua vasca, sin que esto quiera decir tampoco que nuestra intención sea citar o enumerar cuanto se ha publicado en dicha lengua» (1979: 20). Hala, hizkuntzari buruz egindako lanak ere, euskaraz zein bestelako hizkuntzetan idatzitakoak, txertatu zituen Villasantek bere lanean. Alde batera utzi zituen, osteria, ahozko literaturako gaiak zein beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuetan txertatutako euskarazko testu txatalak (1979: 20). Aldez edo moldez, idatzizkoaren historia egin nahi izan zuen. Literatur kritikariekin nabarmendu bezala, datuak ahalik eta zehatzten biltzea zen Villasanteren xedea, eta berak ere hala aitor-tzen du, ez zedin berriz gertatu *Kempisaren itzulpena* lehenago inork egin ez zuelakoan berritzuli zuen itzultzalearena (1979: 18).²⁰

Casenavek, aztergai dugun lanaren ezaugarriak eta historiografia-hautuak laburbiltzean dioenez (2012: 60-61), Villasantek helburu didaktikoa zuen, literaturaren historia lantzen zuten ordura arteko lanei urri eta eskas iritzirik, hutsunea betetzera zetorren berea. Egitura kronologikoa hautatu zuen: mendeka sailkatu zituen auto-reak. Mitxelenaren eta Villasanteren obren arteko ezberdintasunari dagokionez, «Mitxelenak obra literarioen kanon bildu baten aukera egin zuelarik, harek egin ahal zabalera egin zuen. Gainera, sarreran garbi utzi zuen ber, ez zen literaturaren eremura mugatu. Euskaraz idatzi ziren idazlanen biltzera saiatu zen» (*ibidem*).

Villasanteren historiografian nabarmentzekoa da, halaber, euskarari buruzko ikerketak eta literaturaz haraindiko hainbat lan zerrendatu zituela, denak ere ordena kronologikoan emanak, menderik mende, eta mende bakotzerako azpiatal bi, mugaz alde bateko eta besteko autoreen berri emanez. Halaber, nabarmentzekoak dira editoreez zein ediziogintzaz egiten diren oharrak: sarri ematen du informazioa inprimategiez, edizio-zuzenketez, inprimatutako ale-kopuruez eta abarrez. Autore bakotzaren biografiaz eta bibliografiaz gain, autore horiei buruz egin izan diren lanen berri ere ematen du. Lantzean behin euskal obren iruzkin kritikoak egiten ditu, baina, oro har, beste ikertzaile edo kritikarien hitz eta ikerketak baliatzen ditu horretarako. Alde horretatik, itzulpengintzaren historiarako datu arkeologiko asko dakartzza.

Historia de la literatura vasca lanaren bukaeran, gaikako aurkibide bat txertatu zuen Villasantek (1979: 479-487), bai eta aurkibide onomastiko bat eta aurkibide toponimiko bat ere. Gaikako aurkibideko itzulpenaren presentziak berak islatzen ditu Villasanteren historian itzulpenari dagokion errepresentazioaren hainbat alderdi. Mende bakotzean aipatutako autore- eta obra-kopuruaren estimazioa eginik, eta kontuan hartuta argitaratutako itzulpenen kopuruak, liburuenak bezala, gora egin

²⁰ Honelaxe azaltzen du Villasantek: «Un buen cura de aldea, animado de los mejores sentimientos e intenciones, nos mostró hace aún pocos meses, una traducción que había hecho él al vasco de la *Imitación de Cristo*. Este creía ingenuamente que nadie anteriormente había hecho este mismo trabajo. Basta hojear nuestro libro para ver que el *Kempis* es tal vez el libro ascético que más veces se ha traducido en nuestra lengua, en todas las épocas y dialectos. Probablemente a más de uno de los anteriores traductores le pasó lo mismo, o sea, que ignoró la existencia de autores que le habían precedido en el mismo trabajo» (1979: 18).

zuela menderik mende, itzulpenen agerpen-kontzentraziorik handiena, historiografia honetan ere, xix. mendera arteko garaietan agertzen da, eta xx. mendean nabarmen gutxitzen da.²¹ Aipamen-kopurua handiagoa bada ere, kontuan hartzeko da berdin gertatzen dela publikatutako obra-kopurua osotara hartuta. Bestalde, azpimarratzeko da erlijio-gaietako obren itzulpenen multzoak historiografia honetan hartzen duen lekua (gaikako aurkibidean itzulpenari lotuta aurkezten diren 24 gaietatik 13 dagozkie testu erlijiosoen itzulpenei). Aurkibide onomastikoari begiratuz gero (1979: 447-467), «itzulpen» edo «itzultzale» gisa honako bi hauek baino ez dato sailkatuta: «Larreguy (uno de los traductores de Dasconaguerre)» (1979: 458) eta «Oteiza (traductor bíblico)» (1979: 462). Beraz, badirudi itzulpenari lotutako aipamen guziak ez direla aurkibide onomastikoan «itzultzale» gisa soilik sailkatutako autoreen inguruau egiten edo, bestela esanda, itzuli duen oro ez dela «itzultzale» gisa katalogatzen. Nabarmenzeko da, beraz, Villasantek zenbaitetan itzulpena eta idzketa mugatzeko edo bereizteko zaitasuna agertzen duela, eta itzultzale/egile bereizketak lausoak di- rela sarri.

Azalpena eta kritika oso modu apalean egiten ditu Villasantek, eta, batez ere, itzulpenen inguruko datu arkeologikoak ematen ditu. Villasanterean badago, ildo horretan, berezitasun bat; hain zuzen ere, eskaintzen dituen datuen ugaritasunari lotuta: aurreko historiografietan agertzen ziren ohiko datu arkeologikoez gain (nork-zer-noiz itzuli zuen, adibidez), datu gehigarriak ematen ditu ediziogintzaz, inprimategiez, lanen zabalkundeaz, argitaratu gabeko lanez, lanei buruz egindako oharrez eta ikerketez... Bestela esateko, edizioen historiografia egiten du, eta, alde horretatik, itzulpenen edizioaren historiarako datuak ematen ditu. Beste historiografo batzuentzako datu aberatsak uzten ditu, edo, Lasagabasterren hitzak parafraseatuta (2007: 240), «euskaritzapentzaren historiarako materialak» ematen ditu, datu arkeologiko horietatik abiatura itzulpengintzaren historiarako azalpena edo kritika egin ahal izateko.

Villasantek ez du modu esplizituan gogoetarak egiten bere historiografian itzulpenak txertatzeaz zein horien inguruko balio literarioaz. Edonola ere, bere diskurtso-tik ondoriozta daiteke batzuetan zalantza egiten duela auziaren inguruan. Hala izanik ere, Villasanteren hitzetan itzulpen batzuek literatur balio handia dute, baina nabarmenzeko da hori justifikatzeko ematen dituen adibideen artean egokitzapenak iza-tea nagusi; gure ustez, horrek eta kultur egokitzapenak goratzeko egindako aipuek egokitzapenak sorkuntzara lerratzeko joera adierazten dute.

Villasantek zenbait itzulpenen inguruko balorazioak egiten ditu, eta, oro har, bie- tarik baliatzen du itzulpenak iruzkintzeko: inoren arrazoiketa edo norberarena. Bes- teren hitzak darabiltzan aldetik, eta besteren ikerketak eta lanetako aipamenak dakar- tzan aldetik, Villasanteren lana, historiografo honen iritzi-iturri bainoago, bestelako testu eta literatur kritikariek zenbait itzulpen-lani buruz agertutako iritzi-iturritzat jo dezakegu. Villasantek itzulpenak iruzkintzeko bere hitzak darabiltzanean, batez ere bere ideia linguistikoak azalerazten ditu. Edonola ere, itzulpen-prozesuari begiratzean, hizkuntza-alda-keta hutsari begiratzeik haratago (testuaren egitura-alda-ketei

²¹ Agerpenei mendeka begiratuz gero, honako hau da sarreren banaketa: gaikako aurkibidean itzulpenari eskainitako 40 sarreretako 3 xvi. mendeko itzulpen-lanei buruzkoak dira, 3 xvii. mendekoei buruzkoak, 9 xviii. mendekoei buruzkoak, 14 xix. mendekoei buruzkoak eta 11 xx. mendekoei buruzkoak.

ere begiratzen diela nabarmentzekoa da), harrerari ere erreparatzen dio, eta zenbait itzulpenek izandako zabalkundeaz ere mintzo da, hartzaileak ere kontuan hartuta. Villasantek irakurleriak ontzat jotako itzulpenari irizten dio itzulpen ona, hots, ga-raiko irakurleen zaletasunetara egokitzen dena.

Orokorrean, auto-erreflexibilitatearen alde egiten du Villasantek maila diskurtsiboa (praktikan bere garaiko ideietatik ari bada ere): dioenez, itzulpenari buruzko iritziak aldatu egiten dira historian zehar, eta historia egiten duenak jakitun izan behar luke bizi duen garaitik egiten duela eta bizi duen garaiak baldintzaturik egiten dituela iruzkinak.

6.3. Sarasola ([1971] 1976): *Historia social de la literatura vasca*

Batez ere lexikologian eta lexikografian egindako ekarpenean zabala zor diote euskal ikasketek Sarasolari, baina bestelako langintzetan ere ibili izan da, eta hainbat lan argitaratu eta koordinatu ditu; esaterako, euskal testuen ediziogintzan zein euskal literaturaren esparruan. Saiakerak, poesia eta narrazioak idatzi izan ditu eta aztergai dugun literaturaren historiografia hau idatzi zuen garaian²² aritu zen batez ere literaturaren inguruan.²³ Sarasolak badu itzultzaietik ere, eta 1970ekoak dira, esaterako, besterekin elkarlanean itzulitako hainbat lan.²⁴ 1970eko hamarkadan emandakoak dira, halaber, *Euskal literaturaren historia* (Lur, 1971), *Txillardegi eta Saizarbitoriaaren nobelagintza (irakurlearentzat gidaria)* (Kriseilu, 1975), *Euskal literatura numerotan* (Kriselu, 1975) eta *Historia social de la literatura vasca* (Akal, 1976).

Bada, zehazki, azken lan hori 1971ko lana osatuta eman zuen: besteak beste, 1975eko *Euskal literatura numerotan* laneko zenbait datu txertatuta eta erdal irakurlearentzako ohar argigarriak emanez. *Historia social de la literatura vasca* (Akal, 1976) 1971n emandako *Euskal literaturaren historia* (Lur) gaztelaniazko bertsioa da, Jesús Antonio Cid-ek gaztelaniaz jarria eta Sarasolak zuzendua eta gainbegiratua, erdal irakurleak ezagutuko ez dituen alderdiak argitzearen (1976: 11-12).

Cidek Sarasolaren lanari egindako hitzurrean gaztelaniazko bertsio hau beharrezkotzat jotzen du euskal literaturaren ezaugarriak eta bilakabidea bestelakoak direlako gaztelaniazko literatuarenaren aldean, eta haren hitzetan, bertakoei dagokie tokian tokiko literaturaren berri ematea:

Tratándose de la literatura marginal de un país de cultura disglósica hace siglos, al lector peninsular tal vez le sea difícil admitir que una traducción al euskera del Kempis, unos sermones de Mendiburu, o un mismo poema social de Aresti, sean obras más «vascas» que, por ejemplo, La Leyenda de Jaun de Alzate. Debo confesar que ese

²² 1971koa da euskarazko bertsioa, aztergai dugun hau 1976an gaztelaniaz argitaratu bazen ere.

²³ 1967an, esaterako, *Kriseilu* argitaletxea sortu zuen beste hainbat lagunekin, bai eta *Lur* argitaletxea ere, 1969an; *Zeruko Argia, Jakin, Oh! Euzkadi* eta *Anaitasuna* aldizkarietako batzordekide izan zen; Euskaltzaindiaren Lizardi poesia-saria jaso zuen 1966an eta Mikel Zarate saiakera-saria 1971n.

²⁴ Arantzta Urretabizkairekin batera itzuli zuen Sarasolak *Afikar iraultzaren alde* (Frantz Fanon, Lur), eta Arantzta Urretabizkairekin eta Ramon Saizarbitoriarekin batera *Mendebaleko ekonomiaren historia: merkantilismotik 1914-era arte* (Lur). Bestelako itzulpenak ere egin izan ditu Sarasolak, esaterako *Kandido* (Voltaire, Lur) zein *Teseu* (André Gide, Elkar). Sarasolaren itzulpenen zerrenda EIZIE elkartea-ren Nor da Nor datu-basean dago ikusgai: <http://nordanor.eus/nor?id=702>

es mi caso, pero no se trata ahora de saber cuál es nuestro caso sino, por una vez, de entender cuál es el suyo, y la impresión es que cuando la parte sustancial de un pueblo decide mantener su identidad y no relegarla a residuo folklórico para usos turísticos, la claridad de formulaciones es una exigencia mínima y es a ellos a quienes compete tra-zarlas. (1976: 8)

Cidek jarraian adierazten du gaztelaniazko irakurleak lehenago ere Mitxelenaren eta Villasanteren lanak bazituela, baina Sarasolak lan honetan euskal literaturaren bi-lakabidea euskal gizartearen bilakabidearekin lotzeko saioa egiten duela, eta hargatik dela interesgarri (1976: 8-9).

Hala, 1976ko gaztelaniazko bertsiorako, Ciden hitzaurreaz gainera, Sarasolak beste hitzaurre bat gehitu zion 1971ko lanari. Hitzaurre horretan hizpide ditu izen-buruak eta autoreak izendatzeko baliatutako moldeak, *Euskal Herria* kontzeptu geo-grafikoari buruzko azalpenak, euskal hiztun-kopuruuen araberako zonaldeen sail-kapena, dialektoei buruzko argibideak, literatur ekoizpenari, idazleen profilei zein euskal irakurleei buruzko datuak, euskara batuaren historiari buruzko jakingarriak eta hizkuntza-molde hori darabilten obren eta idazleen joerak. Datu horietako asko, bestea beste itzulpenen zenbatekoa, Sarasolak hitzaurrean bertan zehazten duenez 1975eko *Euskal literatura numerotan* lanetik ekarriak dira.

Bi hitzaurre berri horien ondoren, 1971ko lanak zekartzan atalak datozen: «Prólogo a la edición vasca», «Primera parte 1545-1901», «Segunda parte 1901-1964» eta «Tercera parte 1964-1971». Azkenik, arestian aipatutako «Cuarto parte (Autores y obras)» atala dakar, gaztelaniazko argitalpenerako osatua eta moldatua.

Liburuaren mamiari dagokionez, ordura arteko historiografietan garrantzitsutzat jotako hainbat testuri balio literarioa kentzea eta ordura arteko historiografietan li-teratur ikuspegitik balioetsi ez ziren testuak goratzea da Sarasolaren asmoa. Izan ere, Sarasolaren ustez, literaturaren eta euskal testuen historia, biak bat ziren ordura arte, eta irizpide lingüistikoaren arabera aztertu ziren testu guztiak (1976: 31). Gisa berean, literatur eremuaren autonomizazioa dagokigun historia-lan hau idazten duen garaian gertatzen ari dela adierazten du, eta jakitun da berak idatzitakoa autonomizazio ho-rren eragile edo emaitza dela, aldez edo moldez. Literaturaren historia egiteko irizpide literarioak aintzat hartu behar direla uste du, ordura arte egin ez bezala (1976: 57).

Asmo zehatz batekin idatzi zuen Sarasolak bere historia soziala, eta, jakina, adi-tuek diotenez, egin zion ekarpenik euskal literatur historiografien historiari:

Había que hacer una historia social de la literatura vasca, en un intento de superar lecturas planas y meramente empíricas de nuestra historia literaria y ayudar a desmon-tar visiones demasiado ingenuas, beatíficas y provincianas de nuestro presente y sobre todo de nuestro pasado literario. Sin embargo, el estudio general adolece de una lectura demasiado mecánica y en el fondo de «reflejo» de la relación literatura-sociedad, limita-ciones que apenas se corrigen con las matizaciones, notas a pie de página o ampliación de la última parte del trabajo, que se han añadido a la versión castellana, la cual el autor ha titulado precisamente *Historia social de la literatura vasca*. (Lasagabaster 2007: 242)

Kritikak kritika, hainbat berrikuntza zor zaizkio Sarasolaren lanari. Aipatu dugu lehenago literaturaren ikuspegia soziala baliatzea. Bada besterik, hala nola haustura-ren kontzeptua baliatu izana: «Euskal literaturaren bi fetxa nagusiak, 1901 eta 1964, aldez edo moldez gertakizun politiko biri lotzen zaizkie» (Casenave 2012: 94). Bes-

talde, literatur ekoizpena zenbatestea ere berrikuntza da:²⁵ aurretik aztertu ditugun bi historiografietan, esaterako, ez zegoen halakorik. Bada, itzulitako obrak ere zenbatzen ditu literatur ekoizpenaren barruan, baina ez du irakurketa zehatzik egiten itzulpenek literatur ekoizpenean izandako lekuaz.²⁶

Berariaz aipatzen du Sarasolak badakiela euskal literaturaren historiografian itzulpen lanak sartu dituela, eta nolabait justifikatu egiten du, esanez gure literatura-ren ezaugarriekin lotu beharrekoa dela, baina beste literatura batzuetan albo batera utzik liratekeela egokitzapenak eta itzulpenak literatur historiografia batean (1976: 39). Ildo horretan, ordura arte literatur historiografietan kontuan hartutako zenbait lanen literatur balioa ukatzen du Sarasolak. Hain zuzen ere, itzulpenak direlako ezin dira sorkuntzarekin parekatu. Hara zer dioen Leizarragaren lanez ari dela:

[...] no contienen apenas una página que no sea traducción. Por este motivo, no se puede comparar al escritor Leizarraga con el escritor Axular, como ahora algunos pretenden hacer, pues en la labor de traducción que realiza Leizarraga no existen posibilidades para la creación literaria. Otra cosa muy distinta es comparar la lengua de Leizarraga con la de Axular. (1976: 40-41)

Itzulpen-lanak eta sorkuntza-lanak zaku berean sartzerik ez dago, beraz. Feno-meno bitxi bat agertzen zaigu jarraian: itzulpena bera baliatzen da lehenago ukatzeko erabil den modu berean. Izan ere, lan bat itzultzea lan horren legitimazio-bide da: «La obra de Axular ha podido ser traducida a otra lengua, como sucede con las obras maestras de todas las literaturas, lo cual no tendría sentido en el caso de Leizarraga» (Sarasola 1976: 41); alabaina, era berean, lerro batzuk lehenago zioenaren haritik, testuak literaturtasuna galtzen du xede-eremuan txertatzen denez gero.²⁷ Are gehiago, itzulpenean ere agertzen diren zenbait auzi, sormen-testuetan estetikoki balioets dai-tezke Sarasolaren ustez (ez, ostera, itzulpenen kasuan):

Como Leizarraga, Axular era consciente del problema de la falta de unidad lingüística, y en este sentido se expresa en su prólogo «Irakurtzaileari». Pero Axular ha sido el primero, y último hasta ahora, en nuestra literatura, que ha sabido convertir este problema en un valor estilístico. (1976: 45)

Leizarragarekin erabilitako ikuspegi beretik egiten ditu Orixeren itzulpenen aipamenak; izan ere, bere lana aurkeztean ere auzitan jartzen da itzulpenen literatur balioa:

El escritor más importante de este período, lo que no quiere decir que sea el mejor, es Nikolas Ormaetxea «Orixe». En esa opinión concurren todos los críticos.

²⁵ Gogoratzeko da argitalpenen kopuruak ematen dituela taula batean.

²⁶ Ekoizpena kuantifikatzeko eta sailkatzen aritu zeneko zaitasun baten berri ematen du Sarasolak laugarren kapituluaren bukaera aldera: «Otra de las clasificaciones fue obras originales/traducciones. También esta clasificación presentó dificultades, debido al gran número de adaptaciones de obras escritas en otras lenguas que presenta la literatura religiosa vasca» (1976: 179-180). Esan bezala, egokitzapenak literatur ekoizpenaren barruan jatorrizko sorkuntza-lanen edo itzulpenen artean sailkatzeko zaitasuna ageri zaigu pasarte horretan.

²⁷ Hona hemen beste adibide bat: «Desde un punto de vista estrictamente lingüístico, la obra de Leizarraga y otros autores está, en realidad, más lograda en algunos aspectos que la de Axular. No puede, en cambio, decirse lo mismo en cuanto al valor literario; desde este ángulo el caso del autor de *Guero* es excepcional dentro de la literatura vasca» (1976: 45).

Cuando se habla de «Orixé» es obligado decir que se trata de «el escritor más representativo de su tiempo» o que es «el mejor de los prosistas vascos»; pero, aunque muchos piensen lo contrario, no es serio atreverse a afirmar que es «el mejor autor de la literatura vasca». El caso de «Orixé» se asemeja en mucho al de Leizarraga. Si se analiza su obra con un criterio literario, sólamente pueden tenerse en cuenta sus poemas y algún trabajo en prosa, porque todo el resto de su producción son traducciones. (Sarasola 1976: 90)

Ideia bera berresteko balio digu lanaren hirugarren kapituluan, euskal literaturaren ikuspegia eta planteamendu berriak azaltzen dituenean, itzulpenaren aipamenik ez egitea. Betiore Sarasolaren hitzei jarraikiz, beraz, literaturutasuna jatorrizko lanean gordetzen da, eta ez itzulpenetan. Horrek ez du kentzen, ostera, itzulpen-testuak balio linguistikoia izatea eta hizkuntza lantzeko tresna izatea: «En lo que toca a la lengua, en cambio, no sucede lo mismo; «Orixé» conocía admirablemente el euskera y lo manejaba con igual maestría en las traducciones que en sus obras originales» (1976: 91).

Labur esanik, Sarasolaren xede nagusia da ordura arte irizpide linguistikoz iruzkin-dutako literaturari irizpide literarioz begiratu behar zaiola aldarrikatzea. Era horretan, saioa egiten du ordura arte behin eta berriz aipatutako zenbait lani balio literarioa kentzeko eta balio linguistikorik ez zutela-eta aipatu izan ohi ez ziren testu batzuk goratzeko; hain zuzen ere, arrazoitze horretarako darabil, sarri, itzulpenen aipamena: itzulpena bera baliatzen du itzulitako obrek xede-eremuko literatur lan gisa izan dezaketen balio literarioa ukatzeko. Bada, azken hori paradoxikoa gerta daiteke, literatur lanen legitimazio-bidetzat ere jotzen duelako itzulpena,²⁸ halere, nolabait, behin lan bat itzulita, balio linguistikoa besterik ez du itzuli den eremuan Sarasola-rentzat.

Itzulpenei buruzko gainerako aipamenak literatur ekoizpena kokatzeko darabiltza (datu arkeologikoak ematen dira, batez ere, denboran aurrera egin ahala desagertzeko joerari jarraituz). Halaber, zenbait testu fundacionalen berri emateko egiten dira aipamenak; esaterako, modu esplizituan ez badio ere, eleberrigintzaren lehen pausoez ari dela:

Tras la traducción de una obra de J.B. Dasconaguerre, que apareció en 1870 con el título *Atheka Gaitzeko Oihartzunak* (=Ecos del paso malo), el ensayo novelístico de Elissanburu antes citado y la adaptación por A. Apaolaza de un relato de A. Trueba. *Patxiko Txerren* (1890), la actividad novelística comienza con el siglo. (1976: 146)

Kritika historikoa egiten du, hortaz, itzulpenak eleberrigintzaren bilakaeran izandako tarte ikusaraziz. Antzoko zerbaitek gertatzen da saiakerari dagokionez, eta hara zer dioen «La literatura actual» azpiártalean, saiakera hizpide hartuta: «Índice significativo de este proceso constituyen las traducciones de las obras de clásicos marxistas que comenzaron a publicarse a finales de los años 60» (1976: 175). Genero horreta-

²⁸ Loidiren obra katalanera itzuli izana legitimazio-bidea dela-eta aipatzen duelakoan gaude: Ideia hori Loidiren lana aipatzean errepikatzen da: berariaz zehazten da Loidiren obra jakin bat beste hizkuntza batera itzuli izana, obraren harrera onaren adierazle gisa: «José Antonio Loidi (1916). Farmacéutico. *Hamabost egun urgain' en* (=Quince días en Urgain) (1955) novela policiaca bien estructurada de original desenlace, muy bien acogida por crítica y público. Ha sido traducida al catalán, *Quinze dies à Urgain* (1961)» (Sarasola 1976: 158).

rako sarbide izan ziren, hortaz, itzulpenak. Bide horretan, itzulpenaren kritika historikoak ere egiten duela esan dezakegu.

6.4. Mujika (1979): *Historia de la literatura euskerika*

Luis María Mujika irakaslearen lanen arteko²⁹ *Historia de la literatura euskerrak* ez du oihartzun handirik izan euskal ikasketetan. Lasagabasterrek ez du aipatzen 2007ko artikuluan. Casenavek, ostera, zerrendatu egiten du: izenburua eta egilea aipatzen ditu 2012ko lanean, «4. Euskal literaturaren historia berritua (1980-2000)» kapituluan, garai hartan unibertsitateetako sail berriek premiak agerrazita euskal literaturaren historien eskaria indartu eta eskaintza joritu egin zela azaltzean (1976: 69). Bada, aztergai dugun Mujikaren historia 1979an argitaratu zen, Haranburu argitaletxean. Badirudi kritikak eta ikerketak ez diotela lan honi tarte gehiegi eskaini, baina guk atal bat eman nahi diogu hemen, aldez edo moldez itzulpengintzari buruzko aipamen sistematikotasunik gabekoena, zehaztugabeen zein gaitzesleen erakusgarri baita. Kontraesana da gure ustez Mujikaren aldetik «itzulpen baino» ez direnak ez aipatzea xede izatea bere lanean, baina itzulpenak sarri izatea hizpide.

Gainerako historiografietan bezalaxe, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan egiten dira itzulpenei buruzko aipamenak, eta historiografiaren kronologiatik aurrera egin ahala zehaztapenak eta aipamenak nabarmen urritzen dira. Datu arkeologikoak eta kritika historikoa egiten ditu, baina ez modu orekatuan. Orokorean, itzulpenaren balio literarioa ukatu egiten da Mujikaren historiografian, eta sarreran itzulpenei tarterik egingo ez diela dioen arren («Nos parece improcedente el nombrar a una gran cantidad de autores, que en realidad no son sino traductores de obras extranjeras o bien simples acomodadores de temarios religiosos», 1979: 8-9), eskaini eskaintzen die tarterik historiografia osoan zehar. Sarri aurki ditzakegu itzulpenei buruzko adierazpide gutxiesleak; Sarako Etxeberriz ari denekoa,³⁰ adibidez, non sorkuntza-literatura goratzeko, itzulpena ukatzen den. Xurioren lanak ere ildo berean iruzkintzen ditu,³¹ «itzulpenak baino» ez direla esanez, bertako estiloan egindakoak «badira ere». Beste-lako balioa esleitzen dio itzulpenari Mujikak, linguistikoa,³² eta itzulpena ez igartzea goratzen da.³³ Nolabait, itzulpena hizkuntza zorrozteko tresna da, euskara lantzeko bidea, ez sormen-ariketa literarioa.

²⁹ Besteak beste, bereak dira *Diccionario General y Técnico* (Ediciones Vascas, 1977) gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania hiztegia eta Gipuzkoako hainbat herriko topónimia-biltzeko lanak. 1982an, *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran* (Sendoa) argitaratu zuen; 1985ean, *Euskal lirika tradicionala* (Haranburu); 1983an, *Lizardiren lirika bideak* (Haranburu); 1984an, *Miranderen poesíagintza* (Haranburu). Literatur sorkuntzan ere oparoa izan da Mujika: eleberriak, poesía- eta ipuin-liburuak argitaratu ditu 1963az gerrotzik gaur arte. 1990eko hamarkadaren erdialdean *Egan* aldizkariaren koordinazioa hartu zuen.

³⁰ «La obra euskérica de Etxeberri de Sara tiene valores intrínsecos. No se trata, como en algunos otros casos, de una producción de mera traducción o acomodación, su obra es original» (1979: 170).

³¹ «Xurio es de destacar, junto a otros autores labortano-suletinos, por su estilo castizo, aunque sus obras solo constituyen traducciones» (1979: 177).

³² Hemen argi ikus daiteke: «Aunque la producción literaria de Leizarraga (por ser traducción) no alcanza las cotas de la obra de Axular, tenemos en él un ejemplo válido de forjador del idioma, en situaciones más difíciles que hoy respecto a la validez literaria del euskera» (1979: 104).

³³ Adibide baterako: «El estilo de Xurio es natural, rico y transparente; no se notan forcejeos en su euskara» (1979: 178).

Hizkuntzazko ekarpena positiboa da kasu batzuetan: «Con todo, el hecho mismo de escribir supone, a veces, aportaciones positivas al cultivo del euskara, como en el caso de Pierre D'Urte o de Xurio» (1979: 179).³⁴ Eta negatiboa beste batzuetan: «Muestra de ese idioma de «*laboratorio*» es esta traducción *indigesta e ininteligible* del «Padre nuestro» (1979: 331) edo «Traduce a un euskara tortuoso esa obra, tantas veces vertida a nuestro idioma, de Kempis» (1979: 338) dioenean, adibidez.

Itzulpenen alderdi positibora igarota, poesian, esaterako, itzulpenek berrikuntzak ere ekarri dituztela ondoriozta daiteke Gazteluzarrez ari delarik eta itzulpenaren bidez metrika berriak landu direla dioenean.³⁵ Bestalde, «El «utilitarismo religioso» impulsa a los autores a trabajos de versión o de simple acomodación» (1979: 179) bezalako aipamenetik ondorioztatzen dugunez, egokitzapenak ere horixe dira: bertsioak edo moldaketa simpleak. Etxekotzea goresten da testu bat hizkuntzaz aldatzean, baina, era berean, egokitzapenak itzulpenetara lerratzen ditu, ez sormen-testuetara.

6.5. Juaristi (1987): *Literatura vasca*

Jon Juaristik Filología Erromanikoa ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean eta garaí berean idatzi zuen *Euskararen ideologiak. Etorkiak* (1976) izeneko lana. Idazlelangintzan ere hasi zen sasoi hartan eta, besteak beste, *Pott bandan* ibili zen Atxaga, Sarriónandia, Ertzilla, Iturrealde eta Ordorikarekin batera. Gabriel Arestiren obra aztertu zuen, baita gazteleraitzera itzuli ere. Hain zuzen ere, Arestik utzitako arrastoak agerikoa da azpiatal honetan aztergai dugun historiografian ere; izan ere, Juaristik aitortza egiten dio hitzaurrean, literatur idazleak bereizten irakatsi izanagatik.³⁶

Juaristik 1987an plazaratu zuen hemen aztergai dugun *Literatura vasca* (Taurus), «Historia crítica de la Literatura Hispánica» bildumako 29. alea.³⁷ Juaristiren historiografía honen berrikuntzetako bat da ikuspegi konparatista baliatu izana. Horrez gain, Mitxelenak egindako hautu historiko eta soziológicoak egiten ditu Juaristik, eta Sarasolaren lanean oinarritzen da (Casenave 2012: 72). Izan ere, eta aipatu berri du-

³⁴ Bide beretik egina da Ubillosen katiximaren izenburuari jarraitzen dion honako zehaztapen hau: «que no es sino la versión del catecismo de Fleury» (1979: 205); bada, esateko moduak garrantzia duela eta, kasu honetan bertsio bat «baino» ez du konsideratzen Mujikak beste hizkuntza batetik ekarritako lanaren egokitzapena.

³⁵ «Sin duda, Gazteluzar es un poeta superior a Argiñaratz, Harizmendi y Joanes de Etxeberri, especialmente, por la variedad de sus ritmos. Tal variedad hace que la tendencia a la monotonía de las estrofas de Etxeberri, Argiñaratz y de otros se vea en Gazteluzar remozada de mayor movimiento y claridad. Si bien en el origen de los muchos de los ritmos de Gazteluzar está el *latín litúrgico* de cantos e himnos, el hecho de salir de uno a dos modelos rítmicos hace que su poesía sea más espontánea y variada.

En el trasfondo de ciertos cuartetos, sextetos, etc. de Gazteluzar hay que ver una influencia (directa o indirecta) de cantos e himnos latinos. La misma labor de traducir los himnos latinos ha conducido a ciertos autores a seguir la métrica del original. En efecto, himnos como *«Pange Lingua»*, *«Dies Irae»*, *«Veni creator spiritus»*, *«Jesus corona celsior»*, *«Ave maris stela»* y otros han dejado impronta próxima, tanto en Gazteluzar, como en Argainaratz (al menos, en parte). No se ha de olvidar que una buena parte de la poesía románica de España, Italia, Francia etc. comporta una influencia de los cantoriales litúrgicos latinos. Tampoco nuestra poesía, más tradicional, es ajena a tal influencia» (1979: 149).

³⁶ «Aun cuando los criterios utilizados puedan resultar muy discutibles, he intentado en todo momento discernir entre los verdaderos literatos y los simples escritores, distinción ésta en la que me inició un día el ya desaparecido poeta Gabriel Aresti» (Juaristi 1987: 10).

³⁷ Bilduma berean atera ziren Kataluniako eta Galiziako literaturei buruzko azterketak.

gunez, Sarasolaren esanei lotzen zaie Juaristi hainbat eta hainbat iruzkin kritiko egi-teko. Sarasolaren historiografia ikuspegia soziologikoa aplikatzen duen historiografia-eredutzat jotzen du Juaristik, eta hala adierazten du zehazki bere lanaren amaieran (1987: 148). Sarasolak egin bezala, Juaristik euskal literaturaren barruko hausturak eta eztabaidea-uneak baliatzen ditu bere historiografia ardatzeko.³⁸ Horrez gain, nabarmenzekoa da xx. mendeko ekoizpenari egiten diola arreta batez ere; halaxe azpi-marratzen du Casenavek (2012: 72-73).³⁹

Garaikidetasunari lotuta aipatu beharrekoa da aztertutako aurreko historiografietan bezala, honetan ere gutxitu egiten direla itzulpenei buruzko aipamenak xx. mendera hurbildu ahala. Idazleen ideiak eta ideologia dira ardatz historiografia honetan eta Juaristik gogoeta egiten du testuetan islatzen ote den autoreen ideologia, eta, gainera, kontuan hartzen du idazleen posizio soziologikoak eta ideologikoak obraren harreran izandako eragina (azalpena).⁴⁰ Ildo horretatik egindakoak dira itzulpenei buruzko aipamenak ere.⁴¹ Itzulitako lanen harrerari erreparatzen dio, eta itzulpen-procedurei buruzko gertakariak beste mugimendu literario batzuekin erkatzen ditu (azalpena). Komeni da gogoratzea Juaristik bereizi egiten dituela egokitzapenak, itzulpenak eta sorkuntza-lanak. Juaristirenean ageri zaizkigu, halaber, gaur arte iraun duten itzulpenari buruzko hainbat ideia: batetik, itzultzairen egoera periferikoa agertzen digu zenbait itzultzailerekin lotuta⁴² eta, gainera, arrazoi soziologikoak ematen ditu harrera-urritasuna azaltzeko (azalpena). Bestalde, poesia poetek itzuli behar dutelako ideia ere agertzen da Juaristirenean. Lehenbiziko aldiz, zalantzan jartzen du Juaristik ordura arte jatorrizkotzat jotako hainbat testuren orijinaltasuna, eta, euskal literaturako gertakariak Europako eta Espainiako literatur mugimenduekin lotzeko edo ezberdintzeko saiakeran, Juaristi da, gure corpuseko historiografietan behintzat, ahozko literaturaren kapituluan ahozko testu batzuk itzulpenak izan daitezkeela aipatzen duen lehena.⁴³

³⁸ XVI. mendeko sorginen errepresioa, XVIII. mende bukaeran eta XIX. mende hasierako kontserbadoreen eta progresisten arteko haustura, eta, azkenik, XIX. mende bukaeran Unamunoren eta Aranaren arteko borroka ideologikoa.

³⁹ Izan ere, XX. mendeari buruzko kapitulua 94. orrialdean abiatzen da. Kontuan harturik «Historia» atalak 13-134 orrialde-tartea hartzen duela, euskal literaturaren historia osoaren herena hartzen du XX. mendeak (bi heren, ostera, XVI-XX. mendeek).

⁴⁰ Esate baterako, Odon Apraizen itzulpenaz egindako aipamen hau: «La tendencia representada por *Arrats-beran*, que intentaba conservar el nivel de autonomía de la lengua poética alcanzado por los poetas nacionalistas sin renunciar a nutrirse de fuentes tradicionales, no tuvo seguidores. Como no tuvo tampoco el acercamiento iniciado por «Lauaxeta» a la poesía de expresión castellana: únicamente —y como dato curioso— merece mencionarse, en esa misma línea, la traducción que el alavés Odon Apraiz hizo del poema de Alberti *Un fantasma recorre Europa* (1933), el mismo año de la publicación de *Arrats-Beran*. Pero Apraiz no era un poeta; por otra parte, el hecho de militar en un sector disidente del nacionalismo y situarse en un contexto marginal respecto a los circuitos de difusión de la literatura euskérica impidieron que su iniciativa tuviera continuidad alguna» (104).

⁴¹ Begiratu, esate baterako, itzulpen bibliko europarren eta euskaldunen kokatzea eta erkatzea 39-43 orrialdeetan.

⁴² XIX. mende bukaerako euskal literaturaren pizkundeaz ari dela, prosa-idazleen kokagune subalternoa gogorarazten digu Juaristik, eta zehatzago, Klaudio Otaegi itzultzairearen kasua.

⁴³ Baladez ari dela («Hiru Kapitainak», «Ura ixurirk», «Brodatzen ari nintzen»), itzulpenak izan daitzekeela proposatzen du: «se parecen sospechosamente a los temas correspondientes de la baladística francesa y sugieren la posibilidad de que se trate de traducciones tardías, realizadas probablemente en pleno siglo XIX» (1987: 20). Aurrerago ere proposatzen du halakorik Barrutiak idatzitako *Acto para la Nochebuena*

Hargatik, baina, ez die itzulpenei balio literarioa ukatzen, eta euskal literaturaren historiako testu fundazionaltzat jotzen ditu hainbat (kritika historikoa). Literatur eremu beraren barruan sortu eta gaztelaniatik euskarara isuritako lanak ere aintzat hartzen ditu,⁴⁴ bai eta berritzulpenak edo porrot egin duten itzulpenerak ere.

Beraz, Juaristik itzulpenei buruz egindako aipamenak aurreko historiografietako aipamenekin erkatuta, esan dezakegu itzulpenari buruzko ideia sistemikoagoa (baita soziologikoagoa ere) ageri duela, oro har.

6.6. Orpustan (1996): *Précis de littérature basque*

Jean Baptiste Orpustan Michel de Montaigne (Bordeaux 3) unibertsitateko irakasleak, itzulpenak egin izanaz gain,⁴⁵ itzulpenerako tresnak ere egin ditu: frantsesetik na-far-lapurtera klasikora itzultzeko metodoa eta lexiko hautatua eman ditu, adibidez.

1996an argitaratu zuen aztergai dugun *Précis d'histoire littéraire basque*, eta urte berean Daguerre saria eman zioten lan horregatik. Orpustanek berak laneko erraten berri jaso zuen txosten batean, bai eta atal osagarri bat gehitu ere Lazarraga eskuizkribuaren aurkikuntzaren karietara. Txosten hori Orpustanek sarean argitaratu zuen bere webgunean.

Casenaveren hitzetan, Orpustanen historiografia honek aro bat itxi zuen; Mitxelenaren eredu osatu zuen eta, haren ostean etorritakoek eguneratze teorikoa dakarte (2012: 76-78). Baditu berezitasunak eta, Aulestia kritikariak (1998: 223-224) esandako harira, Orpustanek bestelako historiografiek ahaztutako autoreak kontuan hartu zituen.⁴⁶ Iritzi berekoa da Casenave (2012: 74-75), eta dio, Orpustanen historiaren eredu historiografikoa Mitxelenarena bada ere, Orpustanenak Mitxelenarena zenbait alderditan osatu egiten duela: batetik, ordura arte gutxi aipatutako zenbait autoreren azterketa monografikoa, biografiatik haragokoa, eskaintzen duela.⁴⁷ Bestalde, Casenaveren ustez, Mitxelenak baino sakonago azertzen ditu Orpustanek gerakari sozio-historikoena eraginak literaturan. Horrez gain, euskal literaturaren estetika-joerak Europaren kokatzeko ahalegina egiten du; halaber, periodizazioan zenbait aldaketa txertatzen ditu Orpustanek gainerako historiekin alderatuta, eta periodizaziorako oinarritzko datak frantses kulturan eragina izan zuten gertakari historikoei lo-

(ca. 1710-1750) antzerki-lanaz ari dela: «Las discalias y los nombres de los personajes, en especial los de los papeles típicos o *empleos* (criado, mesonero, gracioso, etc.), van en castellano, lo que sugiere que, en parte al menos, pueda tratarse de una adaptación de alguna obra escrita en esta lengua» (1987: 61).

⁴⁴ Aranak gaztelaniaz idatzi eta euskarara itzularazitako kondairak aipatzen dira 88. orrialdean, esaterako.

⁴⁵ Historiografoaren beraren webgunean literatur itzulpenei eskainitako atalean daude Orpustanen itzulpenetarako estekak: Saint-John Perse, Proust, Baudelaire, Flaubert eta Rousseau eman ditu euskaraz, bestek beste.

⁴⁶ «Destacaría también el estudio realizado sobre varios autores poco conocidos por la mayoría de los lectores vascos (J. Egiateguy, S. Monho, J. Mendiague, etc.) así como el análisis de los textos y el tratamiento tan enriquecedor y tan distinto del otorgado a algunos escritores como A. Oyhénart (1592-1667) en los manuales tradicionales vascos» (Aulestia 1998: 223-224).

⁴⁷ «Liburu hortan, lehen aldirako sakonki aztertuak dira Oihenart, Monho eta Elizanburu bezalako idazleak. Halarik ere, erran daiteke monografía sakonenetan, iparraldeko autoreak hobetsiak direla, hegoaldekoak baino, nahiz badiren salbuespen interesgarri batzuk: Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca* edo Lizardiren obra poetikoa» (Casenave 2012: 75).

tutakoak dira (Casenave 2012: 74-76). Orpustanen habitusari lotutako zenbait ezau-garri azaleratzen dira, beraz, historiografia honetan: Frantziako gertakari historikoak hartzen ditu ardatz, eta bere bazter geografikoko autoreak ikusgai egin nahi ditu. Gauza bera esan daiteke itzulpeneren aipamenei buruz, esaterako alegia-itzulpenei es-kainitako tarteari erreparatuz gero, gogoratzeko baita Orpustan bera langintza ho-rettan aritu delarik eta interes berezia duela gai horretan.

Orpustanek berak aitzortzen duenez, bi arrazoi direla-eta txertatzen ditu itzulpenak bere historiografian: garai jakin bateko adierazle direlako eta aldaera dialekta-ten lekukotasunak direlako.⁴⁸ Beste historiografo batzuen aldean, badakar aldaketarik itzultitako testuei eskainitako tarteari eta tratamenduari dagokienez; izan ere, saiakera egiten du ordura arteko ikuspegitik apur bat aldentzeko. Esate baterako, testu erlijio-soen itzulpeneren aipatu egiten ditu soilik, eta tarte luzeagoa eskaintzen die, oro har, bestelako generoetako testuen itzulpenei. Ildo horretan egiten ditu «praktika inter-dialektal» izendatzen dituen barne-itzulpenei buruzko aipamenak, hots, hizkuntza beraren barruan aldaera edo dialektu batetik bestera egiten diren itzulpenei buruzko aipamenak: barne-itzulpenerak garai jakin batean egiten zirela dio, eta gaur egun halako praktiketarako joerarik ez dagoela gogorazten digu. Dialektoa eta itzulpena lotuz, gainera, Orpustanen esanetan, itzulpeneren bitartez dialektoen arteko aldeak murrizteko saioak egin izan dituzte zenbait itzultzailek (1996: 2); baina alderantziz-koia ere gertatu da euskal testuen historian: dialektoen arteko aldeak markatzeko ere egin izan dira itzulpenerak, eta horren adibidetzat jotzen ditu barne-itzulpenerak, dia-lektu batetik besterako testu-itzulpenerak.

Orpustanek argi agertzen du, hortaz, itzulpenerak funtzio linguistiko nabarmena izan duela euskal testuen historian. Nabamentzekoa da, baina, bestelako funtzioak ere esleitzen dizkiola itzulpenerari, eta, gainera, aipatzen dituen funtzioak aldatu egiten dira denborak aurrera egin ahala: funtzio dialektologikoa, pedagogikoa eta fundazio-nala (generoen lehenbizioko lanketa) aipatzen ditu, oro har, xx. mendera arteko tes-tuen kasuan.

Bestalde, literatura garaikideaz ari denean dakartzia itzulpeneren funtzio kultu-rari buruzko aipuak: mundu berrietarako irekidura eta idazleen luma zorrozteko tresna izatea, esaterako. Beren-beregi zehazten du aro garaikidean egindako obra klasikoien eta unibertsalen itzulpenerak euskal literaturaren irekiduraren isla direla.

Pourtant l'effort de création, selon des critères renouvelés (la langue basque aura son «nouveau roman»), dans l'ouverture accélérée à la littérature universelle par de nombreuses traductions des grands textes anciens et modernes (de Montaigne et Montesquieu à Yourcenar, pour ne donner que ces exemples français), reste globale-ment fort dense. Dans cette année 1950 où s'arrête ce précis d'histoire littéraire basque, la littérature de langue basque était loin d'avoir dit, au plutôt désormais écrit, son dernier mot. (Orpustan 1996: 283)

⁴⁸ «Pour que ces traductions ou paraphrases, manuels, recueils prennent place au rang de la littéra-ture au sens où l'entend la critique moderne, il faut ou qu'ils marquent une étape dans la production en prose comme la traduction du Testament de Lissarrague et ses annexes, ou l'apparition originale d'une mode d'écriture et de style plus dialectalement marqué comme le livre de Tartas, ou encore une person-nalité d'écrivain de stature exceptionnelle capable de réaliser au plus haut niveau d'expression un projet au départ strictement didactique et apologétique, comme Axular» (Orpustan 1996: 46).

Labur beharrez, esan dezakegu oro har dialektoen arteko itzulpenei berariaz erreparatuta eta testu erlijiosoen itzulpenak aipatu besterik ez eta alegia-itzulpenetan zein teatroan itzulpenak izandako lekuaz gooeta egiteko darabiltzala itzulpenen inguruko aipamenak Orpustanek, datu arkeologikoak eta kritika historikoa eginez batez ere.

6.7. Kortazar (1997): *Euskal literaturaren historia txikia*

Euskal literaturaren historiografien bilakabidean, bihurgune teorikoan aritutako irakasleen artean kokatzen du Casenavek Jon Kortazar UPV/EHUko irakasle katedraduna (2012: 77), ordura arte euskal literaturaren esparruan aplikatu gabeko literatur teoriak euren tesi lanetan baliatu zituzten beste ikertzaile batzuekin batera (Ana Toledo, Karlos Otegi, Lourdes Otaegi, Aurelia Arkotxa, Mari Jose Olaziregi, Iñaki Aldekoa, Paulo Iztueta, Xabier Altzibar eta Ur Apalategiren ikerlanak aipatzen ditu, zehazki, Casenavek). Kritika berritzearren lana unibertsitate-transmisioarekin bateratu izana ere nabarmenzen du (*ibidem*). Ugaria da Kortazarrek batez ere xx. mendeko literaturaz idatzitako aztergaien zerrenda, bai eta azterlanetatik ateratako ondorioak unibertsitateko ikasleen artean zabaltzeko («Euskal literatura saila» bilduma aipa daitze, generoz genero literatura garaikidearen ikuspegia eskaintzen duena) zein gizarteratzeko (besteak beste *El Correo*, *El País*, *Deia* egunkarietan zein *Babelia* gehigarriean egindako ekarpenak aipa daitezke) egindako ahaleginak ere.

Bada, hain zuzen ere, testuinguru horretan egindako lana da Kortazarren *Euskal literaturaren historia txikia*: ikertzaileak ordura arte egindako lanetako gogoeta eta ondorioetatik abiatuta eta unibertsitateko ibilbide akademikoan materiala sortzeko bidean egindakoa. Kortazarrek berak adierazten du aztergai dugun lanaren hitzauurrean «Testu honen azpian ikasketa proiektu bat dago, ideien moldaketa eskolari begira, 1992. urtean eginiko oposaketa baterako memoria gisa aurkeztua eta Juan Mari Lekuonren eskariei eta Juan Kruz Igerabideren laguntzari esker plazaratua» (1997: 7).

Erein argitaletxearen «Saiopaperak» bilduman argitaratu zen XVI. ea XIX. mendeen arteko literaturaz ari den *Euskal literaturaren historia txikia* saioa, bi atal nagusi dituena: batetik, ahozko literaturari dagokiona eta, bestalde, idatzizko literaturari dagokiona. Historiografia gisa bainoago, eskema gisa aurkezten du egileak saio-lana: «Txarrenean hau liburu hezurdura besterik ez da; onenean noiz edo noiz aurrera atera beharko dugun Euskal Literaturaren Historia Kritiko baten sarrerako abiapuntua litzateke hau, literatura ikuspegiaren bindikatzaile eta argitaratu diren zenbait lanei buruzko berbaldirako aukera» (1997: 7).

Itzulpenei buruzko aipamen oso bakanak ageri dira Kortazarren lanean. Ahozko literaturari eskainitako atalean, esaterako, bi aipamen egiten dira. Lehenbizikoa «Euskal baladari buruzko ikerketa» atalean egiten da; zehazki, J.A. Ciden lan bat dakar hizpidera Kortazarrek, *Peru Gurea* lanaren harira, eta zehazten du lan horretan Cid-ek aipatzen duela zenbait euskarazko lan frantsesetik ekarritakoak izan litezkeela (1997: 32).⁴⁹ Bigarren aipamena Pastoralari eskainitako kapituluan dator, «1. Defi-

⁴⁹ Hauxe dio zehazki: «Cid-ek kontsideratzen duenez, beharbada XIX. hasieran bazitekeen Euskal Iparraldean ‘juglaria berri’ bat izatea, zenbait erromantze frantses euskarara aldatu zituena. Horrela sorturiko baladek aldaera gutxi eskaintzen dute, eta frantses eredu oso gertutik jarraitzen (Cfr. Juaristi, 1987, 919)» (Kortazar 1997: 32).

nizioa. Sorrera eta historia» atalean (1997: 52): xviii. mendeko Zuberoako nekazal antzerkian egindako egokitzapenez ari da Kortazar, Troyesen «Bibliotheque bleu» izeneko bilduma pastoralierrentzako gai-iturri izan zela eta liburu horietako argumenduak birmoldatzen zituztela dio: «Horrela, ez zuten hizkuntza mailako itzulpen hutsa egiten —frantsesetik zubererara—, narrazio hizkeratik antzerki hizkerara ere egiten zuten. Honela, pastoralierrak —gurasoengandik ondorengoengana pasatuz joaten zen lanbidea— benetako testu berreragiletzat har daitezke» (*ibidem*). Ildo horretan, ahozko literaturan itzulpenak izandako eragina bistaratzen da, eta egokitzape-nek literatur genero jakinetan izandako garrantziaren berri ematen du.

Testu idatzien atalean ere bi aipamen egiten dira: bata, Errenazimenduaren garaian Joannes Leizarragaz ari dela, testamendu berriaren lehen itzultzalea izan zela aipatzen du Kortazarrek, eta egilea saio-lanean aipatzeko justifikazio bi ematen ditu: literaturaz kanpoko arrazoi gisa protestantismoa pertsona eta obraren bidez nola hedatzen den azter daitekeelako, eta literaturaren aldetik erregistro kultua sortzeko saia-kera egin zuelako (1997: 91). Kritika historikoa egiteko nahia nabari da aipamen horretan. Bigarren aipamena Barrokoaren garaian ematen du Kortazarrek; zehazki, testuinguru orokorraz ari dela: Pouvreau *Philotearen* itzultzalea izan zela aipatzen du, Axular eta Joanes Etxeberri buruzko azalpenak eman aurretik (1997: 93). Testuin-gurua kokatzeko baliatzen da garaiko itzultzaleen berri ematea kasu horretan.

Oro har aipamen oso bakanak egiten dira Kortazarren lanean; edonola ere, esan dezakegu badela kritika historikorako joera bat, bai eta itzulpenen funtzio kulturala (literatur eraginak bistaratzeakoa) ikusarazteko saiakera bat ere bere lau aipame-netan.

6.8. Urkizu (2000): *Historia de la literatura vasca*

Patrizio Urkizu UNEDeko irakasle izandakoa da, eta, hain zuen ere, UNEDek argitaratu zuen aztergai dugun historiografia hau. Hitzaurrean zehazten denez, unibertsitate-erabilerarako materialen beharrak eraginda plazaratu zuen (2000: 17).

Urkizuk idatzi du eskuartean darabilgun historia honen zati handi bat, baina obra kolektiboa da; izan ere, xx. mendera artekoak Urkizuk berak idatzitakoak badira ere, xx. mendekoak hainbaten artean idatzitakoak dira. Hala, Urkizuren lumakoak dira lehenbiziko kapituluak: generoka banatzen dira kapituluetako azpiatalak, eta, era beraean, azpigenerotan azpiatalak. xx. mendeari buruzko kapitulua, hainbaten artean egindakoa da: Chuecak egiten du sarrera historikoa, Garcíarena da «El bersolarismo del siglo XIX al XX», Aldekoarena «La poesía del XX», Olaziregirena «Un siglo de novela en euskera», Altzibar da «El ensayo del XX» azpiatalaren egilea eta, azkenik, Urkizu bera «Teatro del XX» azpiatalaren. Denbora eta generoak ardatz hartuta egitura-tutako lana da, hortaz, hitzaurrean bertan justifikatzen denez.⁵⁰

Kapituluen hasieran sarrera historikoa egiten da, testuinguru egokian uler ditzan irakurleak literatur gertakarien koordenada sozial, historiko eta politikoak. Alabaina, Lasagabasterrek dioenez, ez dira sarrera horiek behar bezala lotzen kapituluetan ema-

⁵⁰ «Por un lado en el primer capítulo hemos abordado la literatura de tradición oral, y en los siguientes una visión cronológica combinada con la separación por géneros» (2000: 18).

ten diren literatur jakingarriekin (2007: 245-246).⁵¹ Halatan ere, meritua aitortzen dio, eta azaltzen du ez dela bidezkoa lanaren kritika bere horretan utzita alderdi onak ez azpimarratzea:

Es una historia «distinta» que obedece a una visión, más teórica que práctica, si se quiere, de la literatura vasca no sólo diferente, sino superadora de un buen número de las limitaciones que a propósito de otras historias han quedado señaladas. Y esto resulta evidente en los capítulos dedicados a la literatura vasca del siglo xx. Capítulos como «El bersolarismo del siglo xx y xxI», de Joserra García, o «Un siglo de novela en euskera», de María José Olaciregui son un claro ejemplo de la historia de la literatura vasca que necesitamos seguir haciendo. (Lasagabaster 2007: 246)

Urkizuren historiografia horretan itzulpenei buruz egiten diren aipamenei mendez mende eta generoz genero erreparatu ostean, ondoriozta dezakegu batetik, egi-learen ibilbideak eta habitusak modelatutako historiografia dela, eta bestalde, historiografia hau bereizten duten ezaugarri nagusi biek, alegría, euskal eremutik kanpora begirakoa ere izateak eta ordura arte sakondu gabeko hainbat generori erreparatzek, isla dutela Urkizuren itzulpenari buruzko diskurtsoan. Halaber, gogoratu beharreko da ikuspegi konparatista darabilela sarri, eta edizioaren ezaugarriei, harrerari eta iris-menari erreparatzen diela. Horrela ulertzekoak dira, hortaz, Urkizuk itzulpenaz egi-ten dituen aipamenak.

Euskal testuak beste hizkuntza batzuetan eman izan direnean, beste hizkuntza batzuetara itzuli izan direnean, berariaz aipatzen du gertakaria Urkizuk.⁵² Halaber, testu elebidunen eta bertsioen berri emanet, itzulpenaren eta hizkuntzen tratamenduaren inguruko datuak azalarazten ditu. Bide beretik, testu elebidunen, berredizioen, itzulpenen zein inon txertatutako testu-zatiengen berri emanet zenbait testuren zergatiaren, harreraren eta irismenaren zantzuak azalarazten ditu.⁵³ Bereizgarri bat da hori aurreko historien aldean; izan ere, aurrekoetan batez ere itzulpenen hizkuntza-ezaugarriei egiten zitzaien erreferentzia, iruzkintzen baldin baziren. Urkizuk, euskal itzulpenaren historiarako datu arkeologiko berriak azaleratzen ditu, eta teatro-testuak, kazetaritza-testuak zein testu politiko-historikoak ere kontuan hartzeak literatur historiografietan ordura arte aipatu gabeko hainbat itzulpen identifikatzeko bide dira. Gainera, itzulitako testuen kritika historikoa eta azalpena egiteko bideak agerrazten

⁵¹ «Es importante, por supuesto, conocer el marco histórico y hasta social y político en que se inscribe la actividad literaria de los escritores vascos, así como las coordenadas culturales que pueden hacer más fácil y completa la comprensión de los textos. Pero el peligro de una yuxtaposición demasiado mecánica de ambos elementos deja lo que es propiamente historia de la literatura reducido a una construcción exhaustiva si se quiere, pero que sigue sin superar suficientemente el nivel empírico de las historias de la literatura vasca tradicionales» (Lasagabaster 2007: 245-246).

⁵² Hona hemen adibide bat. Bernardo Recioli laudoriozko olerki bat idatzi omen zuen 1757an, Belunzuko kondearen omenez, ingelesen aurka irabazitako gudu baten harira; bada, «Esta canción tuvo gran éxito, y fue editada por P. Lamazou, en una versión con acompañamiento de piano de Henri Weber, miembro del Instituto. El texto vasco fue traducido al francés por Simon Arnaud» (Urkizu 2000: 251-252).

⁵³ Adibidez, nabigazio-liburuez ari dela, gisa honestako aipamenak garai jakin bateko itzulpen-beharren zergatia ulertazteko egindakoak dira: «El que esta obra apareciera en euskera era del todo lógico, teniendo en cuenta que aún en 1790 los marineros de Ziburu y San Juan de Luz pidieron que los exámenes para capitanes y pilotos fueran traducidos al euskera, pues sólo conocían esa lengua, o era la que más dominaban» (Urkizu 2000: 212).

dituela esan dezakegu; izan ere, literatur garai batzuez ari denean, garaia itzulpen-joe-rekin lotzeko saioa egiten du Urkizuk, batez ere xx. mendeko literaturaren kasuan. Garaikako eta generokako itzulpen-sailen berri emateko eta multzokatzeko zein ezau-garritzeko ahalegina ere nabari da historiografia honetan; edonola ere, kapitulugile bakoitzak bere neurrian egiten du.

Bereziki nabarmendu gura dugu, xx. mendeko euskal eleberrigintzaz ari dela, Olaziregik osatutako atalean egiten duen itzulpenaren tratamendua; izan ere, hainbat aldaketa txertatzen ditu aztertu ditugun gainerako historiografietako egileen joeren aldean: bere kapituluaren modu sistematikoan aipatzen ditu euskal idazleek egindako itzulpenak zein izan diren, idazleen jardinari buruzko datuak osatze aldera. Gainera, euskal idazleak aberasteko tresnatztat jotzen du itzulpena, eta euskarara itzulitako obrek zenbait euskal autorerengan izandako eragina nabarmentzen du.

Beste historiagile batzuek eta Urkizuk berak bezala, Olaziregik ere hainbat generoren testu fundatzailetzat jotzen ditu hainbat itzulpen, eta literatur aldiekin lotzen ditu.⁵⁴ Euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenen berri ere ematen du modu sistematikoan, eta iruzkin positiboa egiten die beti, autorearen lana eta legitimazioa goresteko. Horrez gain, euskal sistemaz kanpoko kritikak euren sistemetara iritsitako euskal obra itzuliez nabarmendutakoa ere badakar Olaziregik bere saiora. Darabilgun ikuspegia dela eta, garrantzitsu deritzogu «euskar sistematiik» kanpoko kritika euskal literaturaren historian txertatzeari, ezen beste behin ere frogatuta geratzen da Bourdieuren eremuaren kontzeptua baliagarri zaigula euskal literaturaz aritzeko (Ibarluzea 2017: 181-211). Izan ere, teoria sistemikoan arabera, ingelesera itzulitako obra bat xede-sistemako parte bihurtuta, xede-sistemako kritikak ez luke lekurik izango jatorrizko literaturaren historian. Eremuaren kontzeptua baliatuta, baina, euskal literaturaren nazioarteko espazioan ingelesez emandako euskal literatura litzateke obra hori, eta, hortaz, Olaziregik egin bezala, nazioarteko kritikak obra horretaz esandakoak ere lekua luke euskal literaturaren eremua aztertzen ari garelarik. Gainera, funtsezko legitimazio-bide bihurtzen da gutxitasun ikuspegi batetik.

6.9. Aldekoa ([2004] 2008): *Euskal literaturaren historia*

Iñaki Aldekoa UPV/EHUko irakasle katedraduna euskal kritika literarioaren eguneratze teorikoaren ildoko autoreen artean kokatzen du Casenavek (2012), hau da, euskal literaturaren kritikak legitimitate zientifikoa lortzeko bidean lan egin dutenen artean; izan ere, aurreko kritikariek jarrera defentsiboa zutela dio Casenavek, nolabait, euskal literatura bat bazela aldeztu behar zutela. Alabaina, eta betiere Casenaveren hitzei jarraikiz, bihurgune teorikoaren ondoko autoreek, Aldekoak barne, bo-

⁵⁴ «En este sentido, son indicativos del momento de apertura y actualización de la vida literaria vasca de la época, las traducciones literarias que suceden en la década de los 50 (entre otros, se traduce a Shakespeare, Baroja, Homero o Juan Ramón Jiménez), línea que vendrá a ser confirmada con la lenta traducción, en las dos décadas posteriores, de obras de Hemingway, Tagore, Ionesco, Cela, Brecht, Camus, Kafka, Stevenson o Twain» (Olaziregi 2000: 523). Halaber, geroagoko garaietarako ere antzeko ai-puak ditu: «Al igual de lo que ocurriera en el entorno de la literatura española con el surgimiento, a mediados de los ochenta, de la colección «Etiqueta Negra» de la editorial Júcar, el panorama de la novela vasca de finales de los ochenta se enriqueció con las excelentes traducciones de obras de H. MacCoy, J.M. Cain, J. Thomson, R. Chandler, B. Vian, D. Hammet, etc» (Olaziregi 2000: 564).

rroka ideologikoetatik aterata testura mugatu zituzten euren azterlanak (Casenave 2012: 77). Gainera, historiagile berrieik, batez ere generoen banaketari dagokionez eta periodizazioei dagokienez, aldaketak ekarri dituzte euskal literaturaren historiografietara, eta Aldekoarenak berrikuntzak dakartzza, hala nola xix. mendeko poesia herrikoiaz egindako «balorazio berezia». Hala ere, Casenaveren hitzak gure eginez, oro har Mitxelenaz geroz finkatutako kanon bera darabil Aldekoak 1970eko hamarkadako idazletrainoko tartean (Casenave 2012: 84-86). Bestalde, euskal historiografietan gertatzen ari den joerarekin bat, Aldekoarenak garaikidetasunari ematen dio lehentasuna (Casenave 2012: 86-87).⁵⁵

Euskal testuetako poetikaren historia egitea du asmo nagusi Aldekoak, eta esan daiteke 2004a baino lehen metatutako esperientziaren eta jakintzaren ildotik, eta aurreko ikerlanek emandakoei tiraka idatzitakoa dela *Historia de la literatura vasca* (Erein, 2004). Lan hori berori lau urteren buruan argitaratu zen euskaraz, Muñozek itzulita: *Euskal literaturaren historia* (Erein, 2008).⁵⁶ Euskal testuak dagozkien testuinguru historiko, sozial, politiko eta ekonomikoetan kokatzetik haratago, Aldekoak ez da mugatzen bere azterketan idazleen biografiaren eta idazleek idatzitako obren zerrrenda ematera: autoreak sailkatu egiten ditu, garaian garaiko literatur joeren arabera kokatzeko, autoreen helburuaren berri ematen du, autoreak eta lanak konparatzen ditu, autoreen eraginen eta oihartzunen berri ematen du. Testuei dagokienez, ez du aurreko historietan bezainbesteko arreta jartzen autoreen idatzankeran, testuen gaiak, irudiak, motiboak, irakaspenak... ditu mintzagai nagusi.

Ildo horretan, eta euskarara eta euskaratik egindako itzulpenaz egiten diren aipamenetatik erauzitakoei erreparatuta, itzulpenak ez dira berariazko aztergai bere historiografian: zeharkako aipamenak egiten dira itzulpenei buruz, beste gai batzuei buruz ari dela txertatzen dira, testuinguruaz zein autore batez esaten dituenak osatzeko.

Euskaratik egindako itzulpenei dagokienez, testuen arrakastaren erakusgarri darrabiltza Aldekoak. Esate baterako, Jose Azurmendiren *Espaniolak eta euskaldunak* lanaren harrera onaren (2008: 233) zein *100 metro* nobelaren garrantziaren erakusgarri aipatzen ditu bi lan horien gaztelaniazko itzulpenak (2008: 233, 261).

Euskarara egindako itzulpenez denaz bezainbatean, interesgarria da Aldekoaren diskurtsoa, itzulpenaren funtzio kulturala agerrazaten hasten delako modu nabarmenagoan aurretik aztertu ditugun historiografien aldean, eta, gainera, erkatu ere egiten duelako beste literatur mugimendu batzuetako itzulpenaren funtzioarekin. Aldekoak, beste hainbat historiografok bezala, literatur joera eta eraginekin lotzen ditu euskarara egindako itzulpenak, eta, halaber, beste historiografo batzuek bezala, genero batzuen

⁵⁵ «Euskal literaturaren historia orokorra aurkezen du, hots, bost mende. Azken berrogeita hamar urteek, Bigarren Gerlatik landa Aresti, Mirande eta Txillardegirekin hasten diren garai moderno eta garaikideek, liburuaren erdia hartzen dute nonbait han. Eta, beti liburu berean, xx. mendeko azken berrogeita hamar urteek bederatzi sartze ezberdin baditzute, liburu osoak hogeitamar sartze dituelarik. Abantxu sartzeen erdia azken mende laurdenarentzat: aurreko historiek konparatuz periodizazioa erabat aldatua da eta badirudi literatura garaiak gero eta lasterrago iragaiten direla» (Casenave 2012: 87).

⁵⁶ Aipagarria da hemen jorratu ditugun beste historiografia batuen kontrako bidea egin zuela historiografien itzulpenari dagokionez: kanpora begira idatzitakoa euskarara dakar ondoren Aldekoak (Sarasolarenak, adibidez, kontrako bidea egin zuela esan dezakegu: bertorako idatzitakoa kanpora eramatea, alegia).

testu fundazionaltzat jotzen ditu.⁵⁷ Ez hori bakarrik, ordea: genero batzuetako alor eta estilo-aberastasuneko iturritzat ere jotzen ditu, adibidez, 1980ko hamarkadako haur- eta gazte-literaturaz diharduenean.⁵⁸ Halaber, esan dugunez, literatur joeren eta joera-aldaketen ildotik aipatzen ditu Aldekoak euskarara egindako itzulpenak, baina ez modu orokorrean soilik, ezen berariaz dio autore jakin baten asmo poetikoena eta haren literatur eraginen isphilu dela autore jakin batek itzulitakoa, beste behin ere itzulpenen funtziok kulturala agerrarako. Esaterako, Lauaxetak «bere itzulpenen bitartez bere asmo poetikoena berri» (2008: 205) ematen duela aipatzean, itzulpenek agerrarako dituzten eragin literarioak bistaratzen dira. Autoreek egindako itzulpenak literatur eraginen erakusgarri dira, beraz, Aldekoaren ustez, eta beste adibide bat aipatze aldera, Arrestiren literatur eraginak direla eta, bilbotar poetak Blas de Oteroren itzuli zituela dioskua Aldekoak: «*Egan* aldizkariak Blas de Oteroren hamar poema argitaratu zituen, Arrestik itzuliak. Blas de Oteroren *Pido la paz y la palabra* (1955) poema-liburuak zirrara handia egin zion *Harri eta herriko poetari*» (2008: 245). Itzulgaien zergatiak eta hautuen zirkuituak arrazoitzeko bidea ematen dute Aldekoaren gisa horretako aipuek. Ildo berean egindako aipamena da Sarrionandiaren itzulpenez egindako, eta itzulpen horiek idazle gazteagoengandik eraginaz ere mintzo da:

Atxagaren eta Sarrionandiaren aipamen literarioek lortu dute euskarako itzulpenen bidez poeta gazteenen sentiberatasuna aukilatzea, eta, kasu batean baino gehiagotan, bete-betean asmatu dute irakurleen barrukotasun sentibera hunkitzen. Horrela jarri ziren gurean lehenengo aldiz abian, alegia, euskaraz, Carl Sandburg edo Sylvia Plath bezalako poetak. (Aldekoa 2008: 366)

Hala, Aldekoaren historiografiako hainbat pasartetan euskarara egindako itzulpenak euskal idazleen luman izandako eraginari buzuko azalpenak ematen dira, batez ere euskal sortzaileek egindako itzulpenen datu arkeologikoak ematearekin bat. Euskarakit egindako itzulpenak, berriaz, euskaraz sortutako lanek irakurleen artean izandako harrera onari loturik azaltzen dira.

6.10. Olaziregi (2012): *Basque Literary History*

Mari Jose Olaziregi Alustiza UPV/EHUko literatur irakaslea gurean zein atzerrian ibili izan da literaturaren alorra lantzen eta sustatzen, eta, nolabait, ildo horretan bi-deak jorratzeko zuzendutako lana da *Basque Literary History*, euskal literaturari buruz ingelesez argitaratutako lehenbiziko historiografia. Kanpora begirako egindako lana da, eta proiektuaren helburua da mundu anglosaxoiko ikertzaileei euskal autoreei bu-

⁵⁷ Besteak beste, Isaac López Mendizabal euskal haur literaturan mugarriz izan zela aipatu eta segidan, ildo bereko zenbait autore itzuliren berri ematen digu: «Oscar Wilde, Schid, Giulio C. Croce eta Grimm anaien haur ipuinaren itzulpenak ere egin ziren garai hartan» (2008: 156). Eta haur eta gazte literaturako zein euskal fikziozko testu fundazional gisa ez eze, antzerki-taldeen suspertzearren harira, itzulitako hainbat obraren eta autoreren zerrenda ere ematen du (2008: 157).

⁵⁸ «Hainbat alor eta estilotako autoreak itzuli ziren: Giovanni Rodariren fantasia, Christine Nöstlinger-en errealsismo kritikoa, Roald Dahlaren fantasia edo Marie Gripperen errealsismoa. Ez ziren falta izan XIX. mendean lehenengo erdialdetik fantasia eta irudimena zerien haur literaturako liburuak. *Alicia*, Lewis Carrolena; *Pinocho*, Carlo Collodirena edo *Printze txikia*, Antoine de Saint-Exupérrena. Gerora ekarriko ziren orobat euskarazko haur literaturara Mark Twain, R.L. Stevenson, Julio Verne edo James M. Barriaren obrak» (2008: 376).

ruzko gaiak eskuragarri jartzea; nolabait, mendeka eta generoka erraz kontsulta zitekeen liburu egitea bilatu zen (komunikazio pertsonala, 2016/06/10).

Olaziregi editoreak berak zehazten duenez (komunikazio pertsonala, 2016/06/10), talde-lana baino gehiago, lan kolektiboa da; atal bakoitza egile aditu batek idatzi du, nork bere aldetik. Antolaketa horrek literatura munduan dagoen espezializazioari (garaika, generoka...) erantzun nahi zion, arlo zehatz bateko adituari arlo horri dagokion informazioa eskueran jartzeko.

Liburuak bi sarrera ditu: lehenengoan, Olaziregik «Preface» deitu eta sinatzen duean, egiturazko eta metodologiazko oharra egiten dira. Olaziregik xehetasunez azaltzen ditu liburuaren helburuak, hartzale potentzialak nahiz egituraren arrazoia. Jarraian datorren sarreran, Lasagabasterrek sinatu eta «Foreword» izenpean datorren horretan, Lasagabasterrek liburuko atalen oinarrian dagoen marko teoriko-metodologikoa azpimarratzen du, eta euskal literaturaren historiografian kokatzen. Olaziregik zehazten duen bezala, liburuak asko zor dio Even Zoharren polisistemen teoria gidatzen duen funtzionalismo dinamikoari (2012: 9). Bere aldetik, «Foreword» atal horretan Lasagabasterrek Even Zoharren baieztapen hori azaldu egiten du, esanez historiografiako parataideei emandako premisetako bat hau izan zela: testuak euskal literatur sistemaren barruan txertatzeko eta kontestualizatzeko ahalegina egin zezatela (Olaziregi 2012: 13).

Casenavek Aldekoaren historiografiari buruz agertzen dituen ideietako batekin bat eginik (2012: 86-87), historiografia honetan ere garaikidetasunari ematen zaio garrantzia: euskal literatura modernoari eskainitako atalak hartzen du bai espazio handiena, bai historiografia egiteko berrikuntzarako joera; izan ere, lehenagoko historiografietan agertu ez diren kapituluak txertatu ziren historiografía honetan: bat euskarara itzulitako literaturari eskainia, eta beste bat «Beste Euskal Literatura batzuk» deritzenei, hots, euskal idazleek euskararen lurraldeko beste hizkuntzetan idatzitako literaturari eskainia eta diasporan idatzitakoari eskeinia (ikuspegি postkolonialak laguntzen dio Estibaliz Ezkerrari gazteleraez eta frantsesez idazten duten euskal idazleez gainera, diasporan ingeleseez ari izan direnez jarduteko).

Olaziregik gertutik jarraitu izan du itzulpenaren balioa, eta literatur nazionaletatik haragoko literaturaren definizio transnacionaletan jarri izan du arreta behin baino gehiagotan. Hain zuen ere, hori isolaturik ageri da historiografia honetan, bai edukietan, bai proiektuan bertan (gogora dezagun kanpora begira ondutako lana dela). Zentzu horretan, azpimarratzeko da ikerketa sistemikoetan literatura itzuliak funtsezko garrantzia hartzen duela hausnarketa historiografikoetan. Hortik, segur aski, Olaziregiren liburu honetan literatura itzuliak duen ikusgarritasuna.

Hiru atal nagusitan emanik dator euskal literaturaren historia. Lehenik ahozko literaturari eskainitako atala dugu. Etxebarriak emana da baladak, esaera-bildumak, ahozko testuak... hizpide dituen kapitulua, eta Gartzia emana da bertsolaritzaren historiari buruzko kapitulua. Ahozko literaturari buruzko atal horretan ez dago itzul-pingintzari lotutako aipamenik. Bigarren atala euskal literatura klasikoari eskainitakoa da, XVII. mendean hasi eta XIX. mendera artekoak jorratzen dituena, hiru azpiataletan. Arcocha-Scarcia eta Oyharçabalek idatziak dira lehenbiziko biak: «The Sixteenth Century: The First Fruits of Basque Literature» eta «The Seventeenth Century: The Publishing and Development of Septentrional Basque Letters», hurrenez hurren. Hirugarren azpiatala, «The Eighteenth and Nineteenth Centuries: Bridge across Borders» Haritschelharrek emana da. Azkenik, hirugarren atala euskal litera-

tura modernoari eskainitakoa da; zehatzagoak izanda, xx. mendeko literaturari. Generoka banatuta dator: Olaziregik lantzen du fikzioa, Otaegik poesia, Urkizuk teatroa, Etxanizek haur- eta gazte-literatura, Altzibarrek saioa. Azkenik, badira, aldez edo moldez, historiografia berezi egiten duten bi azpiatal: euskarara itzulitako literaturari eskainitako azpikapitulua (López Gasenik idatzia) eta «*Beste Euskal Literatura batzuk*» izenburupean Ezkerrak emandakoa, hain zuen ere euskararen eremu geografikoan eta diasporan euskara ez beste hizkuntzetan emandako literaturari eskainia.⁵⁹ Lehenago esan bezala, orain arte aztertutako historiografien aldean, berritu egiten du horrek euskal literaturaren ikuspegia, edo, gutxienez, Ezkerrak berak azaltzen duenez, ordura arte Mitxelenak zein Lasagabasterrek iradokitakoa praktikan jartzen (2012: 329-330). Itzulpengintzari dagokionean ere halatsu gertatzen da: orain arteko historiografietai ez zaio kapítulurik eskaini beren beregi azaltzeko euskal itzulpengintzak euskal literaturaren sistemana izandako tarteari.

Olaziregik zuzendutako historiografiatik erauzitako itzulpenen aipamenei buruzkoak laburbilduta, ondorio gisa esan genezake kanpora begira egindako lan kolektibo hau berritzalea dela, baita itzulpengintzaren tratamenduari dagokionez ere: aurreko historiografietai ez bezala, euskarara itzulitako literaturari eskainitako kapitulu bereizi bat du, eta modu sistematiko samarrean ematen da euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako lanen berri. Nagusiki, itzulpena euskal literaturaren sistemaren barruko barne-sistematizat jotzeo saioa egiten da, eta historiografiako kapitulugileei euren ataletan itzulpenak ere kontuan hartzeko oharra egin zitzaien. Horren eraginez, zenbait datu eta ideia errepikatu egiten dira itzulpenen aipamenei dagokienez; baina Olaziregik azaldu bezala (komunikazio pertsonala, 2016/06/10), errepikapen horiek mantentzea erabaki zen, atalen irakurketa soltea eginez gero irakurleak daturik galdu ez zezan. Gainera, kapitulukako irakurketa egin ahal izatea da, hain zuen ere, historia honek eskaini nahi zuen aukera.

Kapitulugileen itzulpenari buruzko diskurtsoei erreparatuta, aldea dago itzulpenaren tratamenduari dagokionez.

Arcocha-Scarciak eta Oyharçabalek ahalegin berezia egiten dute jorratzen dituzten itzulpenak dagozkien testuingurueta kokatzeko, eta beste historiografia batzuetan agerrarazi (edo hainbeste nabarmendu) ez diren zenbait ideia plazaratzen dituzte, kritika historikoa eta azalpena eginik: euskal sorkuntza-lanen barruko zatikako itzulpenak, itzulpenak euskal alfabetoa finkatzeko bide izatea, barne-itzulpenak testuak kanonizatzeko bide izatea... Literatur itzulpenen funtzioei buruzko ideia berriak plazaratzen dituzte gisa horretan.

Bestelakoa da, ordea, itzulpenaren tratamendua Haritschelharren kapituluan: itzulpena prozedura linguistikotzat jotzen du, ez, ordea, prozedura literario gisa. Ar-

⁵⁹ «It is impossible to avoid the notion that both Castilian and French are seen as markers of non-Basque identity, although there are very few people in the Basque Country who cannot speak at least one of those two languages, depending on the region in which they live. From an essentialist perspective, of course, the Castilian and French languages are not Basque, the native language of Euskal Herria (understood as the territory that hosts the seven Basque provinces). The native language of Euskal Herria, as its name suggests, is Euskara. But this view obviates the reality of Basque citizens, who speak not only Euskara, but other languages as well. In other words, this view portrays a nation that does not correspond with the reality of the subjects who inhabit it; it portrays a reality that is as linguistically plural (and will be even more so in time) as it is linguistically singular» (Ezkerra 2012: 330).

cocha-Scarciaren eta Oyharçabalen diskursoaren aldean, hortaz, bestelakoa da Haritschelharrek itzulpenari begiratzeko duen modua, beharbada ikuspegi klasikoago bat lotua.

Haritschelharrena bestelakoa da, halaber, Olaziregiren ikuspegiaren aldean, ezen, azken horrek zenbait itzulpen euskal literaturako testu aitzindaritzat jotzen ditu, eta euskal idazleen profesionalizazio-bidean kontuan hartzeko jardueratzat jotzen du itzulpengintza: batetik, itzulpenak euskal idazleen testuak legitimizatzeko bidea dela aipatzen du; bestalde, euskal idazleak ekonomikoki beregainak izateko tresna dela aitortzen du. Horrez gain, autoreen bio-bibliografiak osatzeko datu gisa aipatzen ditu itzulpenak Olaziregik, eta lantzean, autore batek itzulitako obrak autore horren eragin eta inspiraziorako autore-ereduen erakusgarri ere badirela zehazten du. Gainerako autoreengandik bereizten da Olaziregi itzulpenaren tratamenduan, euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak aipatzean: modu sistematikoan ematen du horien berri (gainerako autoreek ez bezala); gainera, beren-beregi aipatzen du euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenen kopurua, eta oraindik ere kopuru hori txikia dela salatzen du, kanporako itzulpenak sustatu behar direla aldarrikatuz: arestian esan bezala, Olaziregiren ustez, kopurua handitzeak ez dakar euskal autoreen ikusgaitasuna soilik, euskal idazleen profesionalizaziorako bidea ere bada.

Urkizuk bere historiografian (2000) agertzen zituen joerak agertzen ditu historiografia honetan idatzi duen kapituluan: itzulpenak kontuan hartzen ditu euskal teatroaren osagai gisa; oro har, itzulitako teatroaren harrera eta kritika gaitzesleei buruzkoak gailentzen dira egiten dituen aipamenetan.

Urkizuk bezala, Etxanizek ere tokia egiten die itzulpenari buruzko aipamenei: zenbait itzulpen giltzarritzat jotzen ditu haur- eta gazte-literaturaren zenbait garaitan, bai testu fundazional izanagatik, bai aniztasuna bermatzeko bide izanagatik.

López Gasenik itzulpenari eskaintzen dio bere kapitulua beren-beregi. Lehenago esan bezala, ez dagokio soilik aro garaikideari, baina edonola ere, artean euskal literaturari buruzko historiografietan landu ez bezalako alderdiak plazaratzen ditu: euskaraz emandako itzulpenei buruzko kuantifikazioari buruzko zenbait datu dakartzza, eta arreta jartzen du itzulpenak euskal literaturan izandako rol nagusietan. Kapitulu honetan datu arkeologikoak interpretatzen ditu, eta itzulpenaren historiarako azalpena eta kritika egin. Oro har, beraz, López Gasenirena euskarara egindako itzulpenek euskarazko literatur sistemana izandako lekuaz gogoeta egiteko saioa da, itzulpengintzaren betaurrekoak jantzita, itzulpengintzatik itzulpengintzari begiratzeko saioa. Datu kuantitatiboei errepertzeko egiten duen lana nabarmenzekoa da, Sarasolaren historiografiaz geroztik ez baita halakorik egin aztergai izan dugun corpuseko historiografietan. Gogoratzeko da, gainera, Sarasolarenean ez zirela itzulpenei buruzko datuak interpretatzen.

Olaziregiren historiografian (2012), oro har, euskal itzulpenak izandako funtzieo artean nabarmendu gura denik baldin bada, literatur generoetako funtziok fundazio-nala eta itzulpenak literatur joeretan eta autoreengan izandako eragina (funtzio kulturala eta profesionala edo ekonomikoa) dira. Halaber, euskaraz sortu eta beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak aintzat hartzeko eta euskal literatura itzuliak atzerrian izandako harrera jasotzeko saioa ere egiten da lehenbizikoz modu nahiko sistematikoan euskal historiografien historian. Edonola ere, agerian daude oraindik aurretik zetozenten historiografietan nabarmendutako itzulpenari buruzko jarrera eta pertzepzioen arrastoak zenbait ikertzailerentzat habitusean.

6.11. Gabilondo (2016): *Before Babel. A History of Basque Literatures*

AEBetan egin du karrera akademikoa Joseba Gabilondo idazle eta literatur irakas-leak. Duke University, Bryn Mawr College, Renoko Center for Basque Studies eta University of Florida izan ditu lanleku, eta egun Michigan State Universityn ari da irakasle. Batez ere bere saio-lanak dira ezagun; esaterako, Euskadi Saria irabazi zuen *New York-Martutene* liburuarekin 2014an.

Euskal literatur historiografien esparruko Gabilondoren ikuspegia-aldaketa 2012ko la-nean aipatzen du Casenavek; zehazki, «Itsas haraindik heldu den kritika: Joseba Gabilondo» atalean (2012: 106-108) honela dio: «Azken urte hauetan, Estatu Batuetatik etorri da ‘eredu berritua’-ri egin izan zaion kritika berriena, Joseba Gabilondorengandik» (2012: 106). Casenaveren hitzetan, oihartzun handia izan zuen Gabilondok jada 1999an Antton Abadiaz egindako interpretazio postkolonialak, eta 2004ko *Nazioaren hondarrak: euskal literatura garaikidearen historia postnacional baterako hastapenak* artikulu-bilduma ere nabarmenzen du, ausarta bezain polemikoa izan zela adieraziz (2012: 107).

Betiere Casenaveren hitzei jarraikiz, hiru ardatz darabiltza Gabilondok literatur azterketarako: ikasketa postkolonialak, kultur ikasketak eta genero ikasketak (2012: 107), eta hiru proposamen egiten ditu euskal literatura aztertzeko molde berri baterako: periodizazio kontentsuala aldatzea, eredu nazionala alde batera uztea (eredu berriak post nazionala eta mestizatua behar du izan) eta Euskal Herriko gutxiengoak kontuan hartzea, dakarten ikuspegia berritzalea baita (2012: 108). Jarraian ikusiko dugunez, ildo horretan idatzitakoa da *Before Babel. A History of Basque Literatures*, aurrez egindako lan batzuk berridatzita eta ideia eta azalpen berriak txertatuta (Gabilondo 2016: 59), eta online argitaratua (paperezko edizio bat ere baduen arren, beranduago argitaratua).

Kritikarik ere jaso izan du gurean Gabilondoren ereduak. Olaziregik, adibidez, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren sorreraren 50. urteurrenaren kari antolatutako biltzarrean egindako hitzaldian aipatu zuenez, eredu berriak zalantza bat baino gehiago eragiten ditu, batez ere eredu berri horretan zein idazle eta obra sartu behar genukeen erabakitzeko orduan (Olaziregi 2020: 478).

Euskal literaturen historia postnacional gisa aurkezten du Gabilondok zuzenean ingelesez idatzitako bere historiografia, euskal herritarren hizkuntza guztietañ idatzitako lanak kontuan hartzen dituen historiografia gisa, eta euskal literaturek sortutako biolentzia, gatazka eta ezberdintasunak ikusarazten dituen lan gisa, bai eta nazionalismoaren posizioarekiko kritiko izanda idatzitako lan gisa ere (2016: 3). Gabilondok lanaren hitzurrean zehazten du bere historiografia-ereduaren aplikazioaren lehenbiziko pausoa dela lan hau, eta oraindik gehiago garatu nahiko lituzkeen hipotesi batzuk txertatu dituela bertan, urtero berritu nahiko lukeen lana izanik. Halaber, monografia gisa ez eze, testu pedagogiko gisa ere aurkezten du, eztabaiderako gida gisa (2016: 20).

Gabilondok honako atal hauek txertatzen ditu bere historiografiaren sarreran: «1. Writing Difference», «2. The Basque Country», «3. Origins of the Basques: On Materia Vasconica» eta «4. On the Open Structure of the Book», Euskal Herritik kanpoko irakurleari (zehazki, «to english readers», 58) testuingurua argitzeko. Literatur teoriaz eta literaturaren historiaz ari den kapitulu bat ere badu jarraian, postnacionalismoari buruzko ideiak biltzen dituena. Kapitulu horretan adierazten du Gabilondok bere asmoetako bat dela «to analyze how the discourse of the Other is intenalized, repressed, deflected, and transformed by Basque literature» (2016: 57).

Hala, esan dezakegu Gabilondoren historiografia hau dela eremu geografiko batean askotariko hizkuntzetan idatzi duten idazleek «bestetasunari» eta «bertokotasunari» lotuta agertutako diskursoen bilakaeraren deskripzioa; izan ere, Gabilondoren hitzeman, «In the Basque case, literature is defined as the discourse that organizes Basque subjects and classes around their geopolitical differences» (2016: 58).

Aipatutako bi kapitulu horien ostean, Gabilondok bost etapatan banatzen du euskal literaturaren historia, eta, bere hitzetan esanik, «this book describes and situates Basque culture in five moments or phases in which the negotiations between several imperialist states and the Basques are redefined and resituated both geopolitically and biopolitically across the subaltern/elite divide» (2016: 43).

Erdi Aroko garaiari eskainitako kapituluan (2. Middle Ages: The Age of Differences) honako hauek ditu hizpide: «1. Travelers and Outsiders *Picaud, Ibn Hayyan, Al Makkari*», «2. Jewish and Arabic Writing *Halevi and Benjamin of Tudela*», «3. Political Literature *Jimenez de Rada, Pactist Literature*» eta «4. The Aristocracy, Ballads, and Improvisational Poetry: *Milia Lastur, Lazarraga, Etxepare*». Kapitulu horretan itzulpenak duen presentziari dagokionez, 3 aipamen egiten dira: batetik, Garibaik errefau batentzat emandako itzulpena aipatzen da (2016: 88); bestetik, Lazarragaren testua garaian kokatzeko beste autore batzuk aipatzen dira, besteak beste Leizarraga, eta bibliaren lehenbiziko itzultzalea izan zela zehazten da, (2016: 92); hirugarrenik, Lazarragaren testuaz ari dela, gaztelaniara ekarritako *Arcadia* testua aipatzen du Gabilondok, garaian entzutetsu zen generoa zela nabarmenduz (2016: 94).

«3. Imperial Difference and the Atlantic» kapituluan honako hauek dakartzza hizpidera Gabilondok: «1. The Renaissance: Language Apologies *M. Zaldibia, Garibay, Poza, Echave*», «2. Baroque and Subalternity: The Iron Century *Loyola, Axular, Oihenart, Erauso, Aguirre*», «3. Atlantic Enlightenment *Larramendi, Munibe, Lyrical Poetry, Etxeberri*». Bada, itzulpenen aipamenei dagokienez, Luteroren itzulpenaz ari da Gabilondo, erreformaz aritzeko. Hain zuzen ere, parekatu egiten ditu Luteroren eta Leizarragarena, eta dio Leizarragarena hizkuntza-egoera berri baterako oinarri izan zela, nahiz eta ez zuen Luterorenak bezalako eragina izan (2016: 101-103, 109). Axularren *Geroz* ari dela aipatzen da itzulpena kapitulu honetan bigarren aldiz; zehazki, «a text in translation» (2016: 121) dela esaten baitu Gabilondok, palimpsesto bat, alegia. Kasu horretan itzulpena legitimaziorako bidea izan zela dio Gabilondok. Muniberen bio-bibliografia osatze aldera egiten da kapitulu honetan itzulpenaren azken aipamena, Munibek gaztelerara itzuli zuen lana aipatuz (2016: 138); halaber, Muniberen antzerki-lanetako euskarazko testu-zatiak idatziz zabaltzeko euskaratik gazteleurrara itzuli zirela aipatzen da, bertsio inprimatua Gipuzkoan zabal zedin, euskarazkoa ulertuko ez zelakoan (2016: 141).

«4. Colonial Difference and the Nation» kapituluan «1. The Tradition of Invention *Humboldt, Mogel, Chaho, Hugo, Mérimée*», «2. Anthropologists and Bertsolaris *Broca, Abbadie, Etxahun*», «3. Foundational Fictions and Tourism *Trueba, Loti, Navarro Villoslada*» eta «4. Basque and Spanish Nationalisms *Arana, Unamuno, Agirre*» azpiataletan itzulpenari lotutako aipamen bakarra egiten da: Mogelen *Peru Abarcan* latinezko zenbait testuren itzulpenak txertatzen direla aipatzen da (2016: 171), eta horrek testu polifoniko bihurtzen duela zehazten (2016: 175).

Itzulpenari lotutako aipamen bakarra egiten da, halaber, «5. State Difference and Nationalist Essentialism» kapituluan (honako azpiatal hauek ditu: «1. Modernism Li-

zardi, Lauaxeta, Orixo, Hermes», «2. National Allegories Txillardegi, Laxalt, Martín Santos», «3. Neolithic and Industrial Basques Krutwig, Oteiza, Aresti», «4. Modernity's Failure Saizarbitoria, Lertxundi, Guerra Garrido»). Itzulpenei lotutako aipamena Li-zardiren Bihotz begietanen edizioari dagokio: euskarazko jatorrizko testua ondoan gaztelaniako itzulpena txertatu zela adierazten da, testua zaila zelako orduko irakurleentzat, eta irakurlea jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean zegoela dio Gabilondok, ezin zuelarik nazionalista izan gaztelaniaren laguntha inpururik gabe (2016: 222-223).

Itzulpenen aipamenen neurria parekoa da «6. Global Difference and Postnationalism» kapituluuan (azpiat al hauek ditu: «1. Globalizing Basque Otherness Atxaga, Iri-goien, Pinilla», «2. Women's Literature and Exile Urretabizkaia, Mintegi, Borda, Jaio», «3. Postnational Hybridity Borda, Sagastizabal, Epaltza, Montoia, Osoro», «4. Neoliberalism, Autobiography, and Affect Juaristi, Savater, Onaindia, Uribe», «5. The End of the Long 20th Century Saizarbitoria, Rodriguez, Lujanbio, Galfarsoro»). Atxagaren *Obabakoak* lanaren euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak aipatzen ditu Gabilondok kapitulu honetan, euskal literaturaren errepresentazioa materializatzen dutela eta (2016: 246), baina gaztelaniako bertsiotik abiatuta egin direlarik, euskal literaturaren minorizazio egoera erakusten duela nabarmenduz (2016: 248).

Oro har, esan dezakegu Gabilondok bere historiografiarako aipatutako lanak komentatzeko egiten dituen itzulpen-aipamen bakanetan kritika historikoa eta azal-pena egiteko saia kera dagoela; edonola ere, ez dugu sistematikotasunik topatu itzul-penen aipamenetan. Euskarara egindako itzulpenen kasuan testuingurua kokatzeko baliatzen dira, eta itzulpenari esleitzen zaion funtzioa, kasu horietan, legitimazio-ko da. Halaber, Gabilondok hautatzen dituen autoreen euskarazko testuetan beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuak nabamentzeko joera dagoela esan dezakegu. Bestalde, Gabilondok egiten dituen itzulpenen aipamen bakanen artean, euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenen kasuan nabamentzen diren ideiak bi dira: batetik, euskararen eremu geografikoan bertan euskaraz irakurtzeko ezintasuna nabamentzen da (hortik itzulpenaren beharra), bai eta nazioartekotze-prozesuan gaztelaniarekiko mendekotasuna ere. Labur eta orokor esanik, euskarazko testuen historian beste hizkuntza eta kultura batzuekiko mendekotasuna agerian jartzen da itzul-penen inguruan egindako aipamenekin historiografia honetan.

7. **Ondorio gisa: itzulpenaren errepresentazioaren bilakabidea euskal historiografia literarioetan**

Aurrerago azaldu dugu Rubio Tobarren ustez tarte txikiak eskaini izan zaizkiola oro har itzulpenari literatur historiografietan (2013: 243). Azterketa honetarako hau-tatutako corpusean ikusi dugunez, euskal literaturari buruzko historiografietan itzul-pena ageri, agertzen da, eta errepresentazioa (hots, itzulpenari eskaintzen zaion tar-tea eta diskursoa) lantzen den literatur aroaren eta historiografia egiten den ikuspegi metodologikoaren araberakoa da. Halaber, nork bere ikuspegitik, nork bere habitu-sari eutsita, historiografoek itzulpenaren asktariko funtziaok agerrarazi dituzte.

Beheko taulan ikus dezakegu artikuluaren hasieran planteatutako lehen bi helbu-ruekin lotutako datuen laburpena (euskar historiografietako itzulpenari buruzko dis-kursoak aztertzea eta sailkatzea eta itzulpenak euskal literaturaren eraikuntzan izan-dako funtzia aztertzea):

2. taula

Azterkeraren ondorioak laburbilduz

1. arg.	Baliatutako bertsioa	Historiografien aroa (Casenave 2012)	Itzulpenari buruzko diskursoa	Itzulpenak euskal literaturaren eraikuntzan izandako tartea
1960	Mitxelena (2011): <i>Historia de la literatura vasca</i>	Eredu nazionala ezartzea eta gizarte-zientzien elkarpena	<ul style="list-style-type: none"> — Datu arkeologikoak, kritika eta arzapena, denetarik baina ez beti. — Euskarara egindako itzulpenen itzulpen-prozesua balioesteko, irizpide lingüistikoak ardatz. — Sormena/itzulpena bereizkera argia. 	<ul style="list-style-type: none"> — Euskara/ko testuen historia. — Denborak aurerra egin ahala itzulpenari buruzko aipamen guixago. — Aipatzen dira itzulpenaren funtzi dialektologikoak, didaktikoa eta fundazionala (landu gabeko literatur esparruak lantzeko bide da euskarara egindako itzulpena) eta funtzi kulturala (literatura garakiderako batez ere: jocera berrien erakusgarri).
1961	Villasante (1979): <i>Historia de la literatura vasca</i>		<ul style="list-style-type: none"> — Batez ere euskaratutako testuei buruzko datu arkeologikoak. — Inoiz itzulpenen bat itzulinduz geto, xede testuari eta harrerati etreparatzan zai. — Sormen testuen eta itzulpenen arteko muga lusoa. 	<ul style="list-style-type: none"> — Testuen bilketa (akumulazioa). — Itzulpenen aipamen gehienak xix. mendera bitartean. — Itzulpenak historiografiaren txertatu izanaren inguruko gogoatnik ez.
1971	Sarasola (1976): <i>Historia social de la literatura vasca</i>		<ul style="list-style-type: none"> — Datu arkeologikoak eta kritika historikoa. — Sormena/itzulpena bereizketa argia; egokitzapenak sailkatzeko zaltasunet buruzko aitorpena. — Euskarara itzulpena: testuen literaturasuna ukautzeko bide, itzulpenaren balioa lingüistikoa da. — Beste hizkuntzeta rako itzulpena: legitimazio bide. 	<ul style="list-style-type: none"> — Itzulpenak historiografiaren txertatu izanaren inguruko gogoeta: bestelako literaturan ez bezala balatu da, literatur txikienet eraugarriei men eginnez. — Funtzi fundazionala (eleberriaren eta saiakeraren kasuetan). — Itzulpena: autoreen ekoizpenaren osagarrir. — Denboran aurrerago, itzulpen aipamen guixago.

1. arg.	Baliatutako bertsioa	Historiografien aroa (Casenave 2012)	Itzulpenari buruzko diskurtsoa	Itzulpenak euskal literaturaren eraikuntzan izandako tartea
1979	Mujika (1979): <i>Historia de la literatura euskerika beritzte metodologikoaren garaia</i>	Materialen ugartzea & — Datu arkeologikoak eta kritika historikoa. — Euskarara egindako itzulpena: testuen literatura-suna ukatzeko bide. — Xede testuaren balioespen linguistikoa (sarri guexiesla). — Sormena/itzulpen bereizketa, egokitzapenak izulpenetara lerratuz. Itzultzaileak izendatzeko termino sistematikorik ez, ordea.	— Datu arkeologikoak eta kritika historikoa eta azal-pena. — Euskarara egindako itzulpenak izanagatik, itzul-tako berdin dute testuak balio literarioa. — Bereizi egiten dira egokitzapenak, itzulpenak eta sormen-ianak. — Ikupegi konparatista (berako itzulpen-prozedurak eta beste espartu batzuetakoak erikatu). — Itzulpenaren harrerari eta idazle-itzultzaileen posizio soziologikoari buruzko oharrak.	— XVII. eta XVIII. mendetean egiten dira itzulpenei buruzko aipamen gehienak eta ordutik aurrera-koak orokorrakoak dira. — Funtzio linguistikoak du itzulpenak: euskara lan-tzeko bide da. — Funtzio fundazionala du itzulpenak: genero jaki-netako lehenbiziko testuak itzulpenak dira.
1987	Juanisti (1987): <i>Literatura vasca</i>		— Datu arkeologikoak, kritika historikoa eta azal-pena. — Euskarara egindako itzulpenak izanagatik, itzul-tako berdin dute testuak balio literarioa. — Bereizi egiten dira egokitzapenak, itzulpenak eta sormen-ianak.	— XX. mendera hurbildu ahala itzulpen-aipamena gutxitu. — Funtzio fundazionala: itzulpenak genero-en garan-penean izandako garrantzia aitorzen da.
1996	Orpustan (1996): <i>Précis de littérature basque</i>		— Datu arkeologikoak eta kritika historikoa. — Euskarara egindako itzulpenari balio linguistikoak aitorzen zaio, idazkera literarioari loturik. — Hizkuntzen arteko ez ezik, hizkuntza beraren baitako prozedurazat jotzen da. — Euskaratik euskara egindako itzulpena dialek-toen arteko aldea muritzeko zein areagotzeko tresna.	— Itzulpena historiografin sartzeari buruzko go-gea esplicitua: itzulpenak garai era idazkera dia-lektal jakinen adierazgarri dira. — Funtzio dialektologikoa, pedagogikoa eta funda-zionala (genero-en lehenbiziko lanketa) xx. mendi-dera arteko testuuen kasuan. — Funtzio kulturala xx. mendetik aurrera (itzul-pena literaturariekidunaren irudi).

1. arg.	Baliatutako bertsioa	Historiografin atoa (Casenave 2012)	Irzulpenari buruzko distursoa	Irzulpenak euskal literaturaren eraikuntzan izandako tarteak
1997	Kortazar (1997): <i>Euskal literaturaren historia txikia</i>	Materialen ugaritzea & berritzerean metodologikoaren garaia (arrainpena)	<ul style="list-style-type: none"> — Irzulpenari buruzko aipamen bakanak. — Kritika historikoa egiteko saikera. 	<ul style="list-style-type: none"> — Itzultzailea aipatzeko justifikazioa: erregistroari egindako ekarpena. — Irzulpenaren funtziokultura: irzulpena ahozko literaturaren nolakotasunak ulertzeko bide. — Irzulpena garaiako testuingurua kolatzeko bide.
2000	Urkizu (2000): <i>Historia de la literatura vasca</i>		<ul style="list-style-type: none"> — Datu arkeologikoak, kritika era azalpena. — Testuen zergariaren, harreraren eta irismenaren zantzuak azalarazteko saikera. — Euskarara egindako irzulpenak ez eze, euskartik egindakoak aipatzen dira (legitimazio bidea euskaratik beste hizkuntza batzuearako itzulpena). — Irzulpena garaiaren garaiko literatur joeretkin lotzen da. — Bereiz jorratzen dira testu erlijioso irzuliak eta bestelakoak. 	<ul style="list-style-type: none"> — Aztertutako generoak ugariotzearekin batera, datu arkeologikoak eta irzulpenak generoaren garae-nean izandako tarteari buruzko azalpenak ugaitzen dira. — Azpiat al bereiziazk eskaintzen zaizkie irzulpenei. — Funtzio dialektologiko, didaktiko area fundazio-nala aipatzeari, baita kulturala ere.
2004	Aldekoa (2008): <i>Euskal literaturaren historia</i>		<ul style="list-style-type: none"> — Datu arkeologikoak (idazleak itzultaile direnekoak, batez ere) eta azalpena. — Testu irzulia ez da aztergai, datu osagari da. — Euskaratik egindako irzulpena: harrera onaren erakusgari. — Euskarara egindako irzulpena: joera literarioen eta eraginen erakusgari, estilo-aberastasunaren iurri. 	<ul style="list-style-type: none"> — Irzulpenari buruzko oiharrak orekatuak ezarritako literatur garaiei dagokionez. — Irzulpenei buruzko aipamenak idazleei eta testuinguruarri buruz esaten direnen osagari. — Funtzio fundacionala. — Funtzio kulturala, literarioa.

1. arg.	Baliatutako bertsioa	Historiografien aroa (Casenave 2012)	Izulpenari buruzko diskurtsoa	Itzulpenak euskal literaturaren eraikuntzan izandako tartea
2012	Olaziregi (2012): <i>Basque Literary History</i>	Azken hamarkadako lanak: eredu berriak	<ul style="list-style-type: none"> — Datu arkeologikoak (batzak ere euskaratik egindako itzulpenenak), kritika historiko eta azalepena. — Itzulpena euskal literaturaren barne-sistema gisa indikatzen da lehenbizikoz, kapitulu beregaina eskaintzen zaio. — Euskaratik eta euskarara egindako itzulpenen inguruko aipamenak sistematizatzeko jocera. 	<ul style="list-style-type: none"> — Itzulpenaren funtziokultura nabarmenzen da literatur sistemako parte, alfabetoa finkatzeko bide, autoreen inspirazio iurri, aniztasuna bermatzeko bidea, kanonizazioko bidea). — Itzulpenaren funtzioko ekonomika eta simbolikoa lehenbizikoz aipatzen da (itzulpena autoreen profesionalizazio bide da). — Funtzio lingüistiko. — Funtzio fundazionala.
2016	Gabilondo (2016): <i>Before Babel. A History of Basque Literatures</i>		<ul style="list-style-type: none"> — Izulpenari buruzko aipamen bakanak. — Kritika historikoa eta azalpena. — Euskara egindako itzulpenak: legitimazio eta testuen polifonia. — Euskaratik egindako itzulpenak: euskarakaraz irakurteko ezintasuna eta gaztelaniarekiko mendekotasunaren erakusgarri. 	<ul style="list-style-type: none"> — Funtzio lingüistiko: mezu ulergaitzaren transmisiōa. — Funtzio kulturala: itzulpena literatur joeren adierazle. — Funtzio sinbolikoa: itzulpena hizkuntzaren estatusa aldatzeko bide eta beste eremu batzuekiko mendekotasunaren isla.

Jarraian, aurreko taulan irudikatutako bilakabidea azaltzeko saioa egingo dugu. Lehenbizi, historiografietan itzulpena txertatzearaz egindako gogoetaz ariko gara; izan ere, itzulpenaz esaten denaz gain, garrantzitsu iritzi diegu hausnarketa metodologikoei, alegia, aztertzeari euskal historiografoek gogoetarik egin ote duten itzulitako testuak euren lanetan sartu izanaz. Horri loturik, Mitxelenak argi agertzen du hasiera-hasieratik: berea zenbait garaitarako euskal literaturaren historia bat baino gehiago, euskal testuen historia da, eta horregatik hartzen ditu kontuan historiografian txertatutako testu guztia (itzulpenak barne); hori dela bide, itzulitako testuei buruzko azalpenetan ez da testuen literaturtasuna auzian jartzen. Beste autore batzuek auzitan jartzen dute itzulpenen literaturtasuna edo balio literarioa, kasurako Sarasolak, Haritschelharrek eta Mujikak (azken horrek bietarik egiten du; alegia, zenbait testuri balio literarioa esleitzen die, beste batzuei ez, baina irizpideak azaldu gabe); edonola ere, denek txertatzen dituzte itzulpenak euren historiografietan. Aurrekoari lotuta, Villasantek zalantza agertzen du txertatu behar ote lituzkeen, baina zalantza ez da modu esplizituan agertzen, baliatzen dituen hitzetatik ondoriozta daiteke, nolabait; izan ere, ez du gaiari buruzko berariazko gogoeta metodologikorik egiten. Sarasolak, adierazten du lehenengo gure corpuseko historiografien bilakabidean itzulpenak historiografian txertatzeari buruzko zalantza esplizitua, nahiz eta justifikatu egiten duen txertatu izana: bere ustez, itzulpenek ez dute balio literariorik, baina bere historiografian txertatu egiten ditu, gure literatur sistemaren ezaugarriak direla eta. Azaltzen duenez, ez da hala egiten bestelako literaturetan. Orputanek ere gogoeta esplizitua egiten du, eta itzulpenak txertatu izana justifikatzeko bi arrazoi nagusi ematen ditu: itzulpenak garai jakin bateko adierazle izatea eta idazmolde edo dialekto zehatz baten adierazle izatea. Neurri batean edo bestean, balio eta eragin literario askotarikoak esleitzen dizkiete itzulpenei gainerako historiografoek (Juaristi, Urkizu, Aldekoa), nahiz eta gaiari buruzko gogoeta metodologiko espezifikorik egin ez. Ostera, hala egiten du Olaziregik: itzulpenak literatur historiografietan txertatzeari buruzko gogoeta esplizitua egiten du, eta nabarmentzekoa da bere historiografian itzulpenari egiten dion tarte, itzulpena literatur sistemako azpisistema bat dela eta. Kortazarrenean, Gabilondorenean bezala, ez da egiten itzulpenen inguruko gogoetarik, eta itzulpenari buruzko aipamenak, era berean, bakanak dira.

Historiografoek itzulpenak aipatzean darabilten ikuspegiari dagokionez, esan daiteke Mitxelenak itzulpenaren prozedura linguistikoari begiratzen ziola oro har, eta aipatzeko da Mitxelenak egindako oharrak baliatu izan dituztela aurrerantzean gainerako historiagile askok xx. mendea baino lehenagoko testuak iruzkintzean. Aztertutako lehen historiografietan itzulpenaren funtzio linguistikoa soilik agertzenik bestelako funtzio batzuk azalarazteko joera nabari da historiografietan aurrera egin ahala: batez ere funtzio kulturalak nabarmendu izan dira, baina ez horiek bakarrik; esate baterako, Olaziregiren azken historiografian itzulpenak literatur eremuan betetzen duen funtzio ekonomikoa eta sinbolikoa ere ikusarazten direla ikusi dugu. Aipamen gutxi egiten diren arren, balio sinbolikoa ageri da Gabilondorenean ere.

Etxanizek dioen moduan, «Euskararen egoerak, eremu urriko hizkuntza, populazio gutxikoa eta inguruko hizkuntzetatik nahiko berezia izateak izugarrizko pisua izan du gure literaturaren garapenean» (2010: 826). Hala, «sortzaileek euskara bera izan dute kezka eta idazlanak plazaratzearen arrazoi nagusia» (*ibidem*). Ideia horri berrari euts daki oike itzulpenek literatur historiografietan izandako agerpenari begiratuta:

euskal literaturaren historiografietait itzulpenak duen errerepresentazioa euskararen eta euskal literaturaren egoerari zor zaie besteak beste, bai eta itzulpen ikasketen garapen orokorrari, itzulpenaren kontzeptualizazioari zein horiek denek euskal kulturan izandako islari, hots, euskal itzulpenaren eremuak izandako bilakaerari ere. Bada, Mujikak bere historiografiatik hizkuntza zorrozteko tresna gisa aurkezten zuen itzulpena, eta sormen-lanei balio literario handiagoa eman zien itzulpenen aldean.

Bide horretan, «euskal» kultura eta literatura agerrarazi eta sustatu nahian baloratu izan dira, gainera, itzulpenak zenbait historiografiatan. Oro har, idazleak eta sortzaileak goratu izan dira historiografia horietan. Villasantek, esaterako, itzulpenen edo egokitzapenen bertakotzea modu positiboan zekusan, eta, nolabait, itzulpen sortzailearen alde lerratzen. Juaristiren historiografian gaur egun arte iraun duen ideia bat ageri da: poesia itzultzeko poeta hobesten da; sortzailea, hortaz. Villasantek itzulpenaz plazaratzen duen beste ideia bat hauxe da: itzultzaleak errazago du formari erreparatzea, ez duelako sortzen baliatu beharreko indarrak xahutu behar.

Ikusten dugunez, itzulpena prozedura formaltzat jo izan da, eta hala iruzkindu izan da literatur historiografietait, hizkuntza batetik besterako hizkuntza-aldaera balitz bezala. Denborak aurrera egin ahala, arean aldatu da ikuspegia, eta hizkuntza zorrozteko tresna izateaz gain, euskal literaturan lehenago jorratu gabeko hainbat literatur esparru jorratzen hasi izana ere agerrarazi dute zenbait historiografoak; horrela egin zuen Mitxelenak, esaterako, itzulpen profanoen kopurua handitzen hasi zenekoa aipatu zueean. Nolabait, itzulpenaren funtzio literarioa agertzen hasi zen Mitxelenarenean.

Casenavek definitutako historiografiaren eguneratzeko teorikoa gertatu aitzineko historiografietait, ia historiografia gehienetan, itzulpenaren balio linguistikoa goratu eta itzulpenaren balio literarioa ukatu egiten da. Sarasolaren historiografian, adibidez, itzulpena obra baten legitimazio-bidea dela onartzen bada ere, lan zehatzak itzulpen izatea baliatzen du historiagileak lan horiek jatorrizko euskarazko literatur lanekin erakatzean itzulpenen balio literarioa ukatzeko; beraz, aldi berean izango litzateke itzulpena literatur lan baten balioaren goraipatzale eta ukatzaile. Halatan ere, Sarasolak, euskal literatur lanak zenbatesten dituenean, aintzat hartzen ditu itzulpenak. Arestian aipatu dugun moduan, ordea, azaldu egiten du beste herrialde batzuetako literatur historiografietait ez liratekeela kontuan hartuko, eta euskal literaturaren kasuan hala egiten dela literatur sistemaren ezaugarriak direnak direlako.

Ikus dezakegunez, itzulpenak dagokigun literatur sistema txikiaren edo mende-koaren errepertorioa eta historia betetzeko eta osatzeko tresna gisa baliatu izan dituzte zenbait historiografoak (nahiz eta ez duten esplizituki zehaztu). Gure ustez, hala egin izanaren arrazoia, seguruenik, historiografiak eraikitzeko eredu nagusia eredu nazionala izan izana da, Casenavek zehaztu bezala (2012: 21); nolabait, euskarara egindako itzulpenak euskal literaturaren barneko osagaitzat jo izan dira euskal literatura bat badela frogatu eta justifikatu beharrez, euskal testuen corpora handitzeko. Nolanahi ere den, horrela egitea zilegi ote den esplizituki plazaratu izan du autore batek baino gehiagok. Horiek horrela, euskarara egindako itzulpenek funtzio sinboliko nabarmena bete izan dutela esan dezakegu, literatur esparrua bera autonomizatzen eta normalizatzen hasi arte, eta geroago ere bai. Gerora etorri dira euskal historiografietait itzulpenaren beste funtzio batzuk agerrazteko ahaleginak, batez ere literaturari ikuspegi sistemikotik begiratzeko ahaleginetik eta literatura konparatua egitetik: zenbait literaturaren historiografiatan zalantzaz jarri da, hainbat lani errepa-

ratuta, sormenaren eta itzulpenaren arteko muga edo zenbait obraren orijinaltasuna. Halaber, itzulpenaren balio literario askotarikoei (eraginak, erreptorioak osatzea eta aberastea...) buruzko aipamenak agertzen hasi dira.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenaz denaz bezainbatean, 1980ko hamarkadaz geroztik egindako literatur historiografietan hasten dira aipamenak agertzen. Historiografien banakako azterketetan ikusi dugunez, Urkizuren historiarekin hasten da, nolabait, joera hori (historiografia beren-beregi kanpora begira idazten denean), baina, batez ere Olaziregik integratzen ditu euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenen aipuak sistematikoki, bai Urkizuren historiografian (2000), bai berak zuzendutakoan (2012). Ez hori bakarrik, beste literatur eremu batzuetan kritikak euskal literaturaz egindako aipuak ere ekartzen ditu Olaziregik (2012). Euskal literaturaren «sistema» itzulpen bidez zabaltzeko edo sistema eremu zabala gotzat jotzeko ahalegina dakusagu hor.⁶⁰ Gabilondok, ostera, itzulpen horien parte bat (gaztelaniazko bertsioetatik egindakoa) bakarrik aipatzen du, hain zuen ere euskal testuen gaztelaniarekiko mendekotasuna nabarmenzeko.

Urkizuren historiografian ikusten hasten da itzulitako obren arabera ere egiten direla literatur joeren sailkapenak eta deskribapenak, eta Urkizuren historian agertzen da lehenbizikoz itzulpenak literatur molde tradizionalei aurre egiteko tresnatzat baliatu izanaren ideia. Lehenago esan bezala, modu horretan hasten dira itzulpenaren zenbait funtzi literario historiografietan agertzen. Izan ere, aurreko historiografietan batez ere itzulpenen balio fundacionala, pedagogikoa eta dialektoologikoa nabarmendu izan baziren ere, geroagoko historiografietan bestelako funtziok ere hasi ziren agerrazten. Olaziregiren kasuan, adibidez, itzulpenen funtzi ekonomikoa eta sinbolikoa ere hartzten dira kontuan. Aldekoak, zenbait itzulpen literatur genero jakin batzuen fundazio-testutzat jotzeaz gainera, autore jakin batzuek egindako itzulpenen bitartez bistaratzen ditu autore horien eragin literarioak: itzulpenak autoreen pentsamolde, lan eta ideiekin duten lotura azalduz aipatzen ditu. Aldekoarenean ere itzulpenari lotutako funtziok batez ere ideologikoak, pedagogikoak eta literarioak dira: ez dagozkio hizkuntzari.

Olaziregik zuzendutako historiografian, López Gasenik egiten du, bestalde, itzul-pengintzaren ikusgaitasunaren aldeko ekarpen handienetako bat historiografietan; izan ere, itzulpena beste genero bat balitz bezala txertatzen du Olaziregik (2012) editatutako literaturaren historian. Even Zoharren postulatuei jarraikiz, literatur erreptorioa osatzeko baliabidetzat dakusa López Gasenik itzulpena, eta itzulitako literaturak periferian egoteko joera duela onartzen badu ere, gurean zenbait itzulpenek posizio zentrala bete dutela ikusarazteko saioa egiten du:

Gure literaturaren historian, ordea, oso ohikoa da itzulpenak behin eta berriz agertzea gainontzeko testu literarioen ondoan, nahiz eta itzulpen horiek, askotan, literatur testuen itzulpenak ez izan. Itzultzialeak ere idazleen pare agertu ohi dira eta halakotzat hartuak izan dira. (López Gaseni 2010: 845)⁶¹

⁶⁰ Hara hor, esaterako, «itzulpenaren sistema» kontzeptuaren ordez «eremu» kontzeptua baliatzeko beharra. Ildo horretan, ikusi Ibarluzea 2019.

⁶¹ Edonola ere, gure ustez irizpide filologikoaren arabera literaturaren historiari atxikitako itzulpenen datu arkeologikoak gorde izanak on egin dio zelanbait, itzulpenaren historiari: bestelako sistematan aipatuko ez lirratekeen testuak zerrendatuta eta izendatuta geratu dira, ezen, irizpide literariotik soilik egin izan balitz bilketa, agian ez genuke hainbeste itzulpenen berririk izango.

López Gaseniren ustez, itzulpenak gure historiografietan sarri erdigurenko posizioan agertu izana une jakin batean instituzioari oso loturik egotearekin lotu behar da: «testu kanonikoak izan direla, kanonikotasun horren arrazoia, «beren estatusa aldatu» izana, garbiegi azaldua izan ez den arren» (2010: 845-846). Arrazoien bila ari dela zehaztasun gehiago ematen ditu: «Normalean, Leizarragaren kasuan bezala, hizkuntza-eredu gisara hartu izana euskalkiren edo hizkuntza-aldaeraren batean eta, horrekin batera, irakurleen artean nolabaiteko arrakasta izana, *instituzioan* eliza nagusi zen garaietan» (2010: 846).

López Gasenik testu erlijiosoen itzulpenak, sasi-itzulpenak eta literatura didaktikoaren kasuak azaltzen ditu, eta antzeko beste kasu batzuen azalpen sistemikoak emateko beharrari buruzko deia egiten du: «erakusteko nola eta zergatik zenbaiten ohikoak ez diren zenbait testuk erdigurenko posizioak erdietsi dituzten, hizkera literarioak sortzen edo hobetzen lagundu duten, erreptorio eta erdu berriak ekarri eta zaharkituta zeudenak berritu dituzten» (2010: 851-852).

Oro har, esan daiteke literatur historiografiek historia literario izatetik literatur historia izatera egindako bidean (cf. Toledo 2010), oro har, itzulpen- eta sormen-lanak ez banatzetik itzulpenaren eta sormenaren eremuak bereizteria jo dutela historiografoek; are gehiago, literatur itzulpenea euskal literaturaren barruan genero bat balitz bezala lantzen da aztertu Olaziregirenean. Horrez gainera, historiografiaz historiografia egindako azterketan ikusi dugunez, itzulpenei buruzko aipamen eta azalpenak nabarmen murrizten dira historiografoak XIX eta XX. mendetik aurrerako literaturaz ari direnean. XX. mendea baino lehenagoko itzulpenei buruzko oharrak, gainera, zehatzagoak dira; testu zehaztei buruzkoak dira, eta, ia gehienetan, ohar linguistikoak. XX. mendetik aurrerako itzulpenei buruzko oharrak, ostera, orokorragoak dira, eta itzulpenak multzotan iruzkintzen dira; nolabait, joerez ari dira gehiago. Era berean, baina, historiografien bilakabideari begiratuz gero, berritze metodologikoa gertatu aurreko historiografietan datu arkeologiko hutsak edo datu arkeologikoen zerrenda-zeak jasotzen ziren batez ere, eta itzulpenei lotutako azalpenak eta kritika gehiago jasotzen dela berritze metodologikoaz geroztik literatur historietan (1980ko hamarkadaz aurrerakoetan).

Nabarmentzekoa da XX. mendea baino lehenagoko testuei buruzko iruzkinak ez direla ia aldatu historiografien bilakabidean eta, denborak aurrera egin ahala, historiografoen itzulpenei buruzko aipamenak desagertu egiten direla, oro har. Badirudi, hortaz, hizkuntzari buruzko oharrak desagertzen joan ahala, desagertu egin direla itzulpenari buruzko oharrak. Izan ere, horrek adieraz lezake, beharbada, itzulpenari buruzko azalpenak emateko tresnak falta dituztela literaturaren historiografoek, edo «literatur eremuaren» parte sentitzen direla, eta ez «itzulpen-eremuaren» parte, paradoxikoa baita itzulpenaren eremua autonomoagoa eta ikusgarriagoa bihurtu ahala, historiografietako errepresentazioa gutxitzea. Hori dela bide, interesgarri deritzogu eremuko eragileen bidezko itzulpenen azterketari, itzulpenak literatur eremuan bainan duten sarea eta eragina azaleratu ahal izateko (cf. Ibarluzea 2017).

Bibliografía

- Aulestia, Gorka. 1998. Précis d'histoire littéraire basque (1545-1950) (Jean-Baptiste Orputtan). *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca* 8. 223-224.

- Bush, Peter. 2001. Literary translation practices. In Mona Baker (arg.), *Routledge encyclopedia of translation studies*, 127-130. Londres & New York: Routledge.
- Casenave, Jon. 2010. Euskal Literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa. *Euskera* 55-2. 802-821.
- Casenave, Jon. 2012. *Euskal literaturaren historiaren historia*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- D'Hulst, Lieven. 1995. Pour une historiographie des theories de la traduction: questions de méthode. *TTR: traduction, terminologie, rédaction* 8(1). 13-33.
- Etxaniz, Xabier. 2010. Euskal literaturaren historia; begirada berriaz. *Euskera* 55(2). 823-839.
- Ibarluzea, Miren. 2017. Euskal literatur itzulpengintza garaikidea: egituratzen ari den barne-eremua. *Euskera* 62(2). 343-373.
- Ibarluzea, Miren. 2019. Itzulpenaren soziologia itzulpen-ikasketetan: Euskal itzulpengintza-ren historia aztertzeko ildoak. *Uztaro* 108. 53-76.
- Lambert, José. 2001. Literary translation, research issues. In Mona Baker (arg.), *Routledge encyclopedia of translation studies*, 130-133. Londres & New York: Routledge.
- Lasagabaster, Jesus Maria. 2007. Sobre la historia de la literatura vasca: diagnóstico y perspectivas. *ASJU* 41(1). 237-248.
- Lasagabaster, Jesus Maria. 2010. Euskal literaturaren historia eta historiografía. *Euskera* 55(2). 761-765.
- López Gaseni, Jose Manuel. 2010. Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren histriietan. *Euskera* 55(2). 841-852.
- Olaziregi, Mari Jose. 2020. Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez. In Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga & Borja Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari*, 467-484. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Rubio Tobar, Joaquín. 2013. *Literatura, historia y traducción*. Madril: Ediciones de La Discreta.
- Toledo, Ana María. 2010. Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak. *Euskera* 55(2). 767-800.
- Pym, Anthony. 1998. *Method in translation history*. Manchester: St Jerome Publishing.
- Woodsworth, Judith. 1998. History of translation. In Mona Baker (arg.), *Routledge encyclopedia of translation studies (1st edition)*, 100-105. Londres: Routledge.

Aztertutako historiografiak:

- Aldekoa, Iñaki. 2008. *Euskal Literaturaren Historia*. Donostia: Erein.
- Gabilondo, Joseba. 2016. *Before Babel. A History of Basque Literatures*. Estatu Batuak: Barbaroak.
- Juaristi, Jon. 1987. *Literatura vasca*. Madril: Taurus.
- Kortazar, Jon. 1997. *Euskal Literaturaren historia txikia*. Donostia: Erein.
- Mitxelena, Luis. 2011. *Historia de la literatura vasca*. In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas. XIII. Historia de la literatura vasca. Literatura vasca del siglo XX*, 81-205. Donostia & Gasteiz: «Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mujika, Luis Mari. 1979. *Historia de la literatura euskerika*. Donostia: Luis Aramburu.
- Olaziregi, Mari Jose (arg.), 2012. *Basque Literary History*. Reno: University of Nevada.
- Orpustan, Jean-Baptiste. 1996. *Précis de littérature basque*. Baigorri: Izpegi.
- Sarasola, Ibon. 1976. *Historia social de la literatura vasca*. Bartzelona: Akal.
- Urkizu, Patrizio. 2000. *Historia de la literatura vasca*. Madril: Uned.
- Villasante, Luis. 1979. *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Editorial Aránzazu.

Hitz-bukaerako herskariak: kontsonante talkak¹

Word-final plosives: Consonant clashes

Jose Ignacio Hualde^{*a}, Ander Beristain^a, Ane Icardo Isasa^{a,b}, Jennifer Zhang^a

^a University of Illinois at Urbana-Champaign

^b California State University, Northridge

ABSTRACT: In Basque word-final stop consonants have very low lexical frequency, but very high token frequency in discourse, since final /-t/ and /-k/ appear in very common suffixes. Here we undertake an acoustic investigation of the phonetic realization of word-final stops, with a focus on consonant clusters that arise across word boundaries. Our analysis is based on a corpus of conversational speech. Measurements of relative intensity show that such clusters are usually greatly reduced. A more detailed spectrographic analysis confirms a tendency for /-k/ and /-t/ to be deleted or reduced to approximants preconsonantly. On the other hand, the devoicing phenomena reported in the dialectological literature (e.g. /k#b/ → [p]) appear to be infrequent.

KEYWORDS: plosives, consonant clusters, acoustic phonetics, Basque, phonetics.

LABURPENA: Euskaraz hitz-bukaerako herskariekin oso maiztasun txikia dute hiztegian, baina oso maiztasun handia solasean; /-t/ eta /-k/ kontsonanteek maiztasun handiko atzizki batzuetan aurkitzen baitira. Lan honetan hitz-bukaerako herskarien gauzatzeko fonetikoa aztertzen dugu, eta bereziki bi hitzen arteko kontsonante taldeetan jartzen dugu arretxa. Datuak elkarrizketa libretik atera ditugu. Intentsitate neurketak erakusten du talde horietan kontsonanteak oso abulak direla gehienetan. Espektrogramak miatuz baieztagaten dugu /-k/ eta /-t/ kontsonanteak beste kontsonante baten aurrean gehiengoetan galtzen edo hurbilkari ahostun gisa ahoskatzen direla. Bestalde, ahoskabetze gerakariak (adib. /k#b/ → [p]) ez dira batere normalak gure corpusean.

HITZ GAKOAK: herskariak, kontsonante taldeak, fonetika akustikoa, euskararen fonetika.

¹ Gure esker ona bihoakie Ander Egurzegiri eta aldizkari honen beste ebaluatzaleei beren iruzkinengatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Jose Ignacio Hualde. Dept. of Spanish and Portuguese/Dept. of Linguistics. 4080 FLB, University of Illinois at Urbana-Champaign. Urbana, IL 61801 (USA) – jihualde@illinois.edu – <https://orcid.org/0000-0003-4969-2995>

Nola aipatu / How to cite: Hualde, Jose Ignacio; Beristain, Ander; Icardo Isasa, Ane; Zhang, Jennifer (2021). «Hitz-bukaerako herskariak: kontsonante talkak», *ASJU*, 53 (1-2), 83-106. (<https://doi.org/10.1387/asju.22412>).



1. Sarrera

Lan honetan, gure helburua euskararen herskarien gauzatze fonetikoari buruz dugun ezagutza osatzea da, hizkera libreen azterketa akustikoaren bidez. Aurreko lan batean (Hualde, Beristain, Icardo Isasa & Zhang 2019) bokalarteko herskari ahoskabeen lenizioa aztertu dugu, hiru testuinguru morfosintaktiko konparatz (V#CV, VCV, VC#C). Hemen hitzen arteko kontsonante multzoak gehitzen dizkiogu ikergaiari; hau da t#C, k#C talkak miatzen ditugu bereziki eta aipatutako beste hiru kontestuetan dauden herskariekin konparatzen ditugu.

Dakigunez, gaur egungo euskaran baditugu (behintzat) sei herskari, hiru ahoskabe /p t k/ eta hiru ahostun /b d g/ (zenbait hizkeraren hasperendunak eta tt idazten den herskari sabaikaria /c/ albora utzita) (ikus, adib., Hualde 2003). Sei herskari hauek silabako hasieragunean bereizten dira, bai hitzaren hasieran (adib. *buru, puru; tema, dema; kai, gai*) bai hitz barnean ere (adib. bokalartean: *apar, abar; eten, edan; ekin, egin*; beste kontsonante baten ondoren: *erbi, erpin; arto, ardo; hanka, hango*). Hitz barneko silaba bukaeran aldiz, herskariak ez dira batere ohikoak. Mailegu berri batzuetan agertzen badira ere (adib. *dialekto, etniko*), mailegu zaharragoetan eta hitz elkartuetan galdu dira (*rektori > erretore, doktore > dotore, begi-gain > *bet-gain > bekain*, etab.). Hitz bukaerari dagokionez, bi herskari besterik ez ditugu kausitzen, /t/ eta /k/ (*eup!* bezalako onomatopeiak kenduta). Hitz bukaerako herskariak oso urriak dira lexikoian, baina oso maiztasun handia dute testuetan, maiztasun handiko atzizki batzuetan agertzen baitira (ergatiboa -k, absolutibo plurala -ak, ablatiboa -tik, partitiboa -rik, benefaktiboa -entzat, 1.sg -t, etab.)

Badakigu, hala ere, garai batean /-t/ eta /-d/ oposatzen zirela hitz-bukaeran, aditzen singularreko lehen pertsonaren atzizkia ahostuna baitzen: *bat* vs *dud* (< **duda*). Baina gaur egun oposaketa fonemiko hori galduzat eman dezakegu.²

Esan bezala, lan honetan euskararen hitz-bukaerako herskariak aztertzen ditugu, beste testuinguru ahuletan dauden herskari ahoskabeekin erkatuz. Bereziki hurrengo hitza kontsonantez hasten denean sortzen diren kontsonante talkak ditugu aztergai nagusi. Artikulua honelaxe dago antolatuta: 2. atalean euskararen herskari ahoskabeen ahultzeaz —batez ere hitz-bukaerako herskariei buruz— dakiguna laburbiltzen dugu. 3. atalean gure corpora deskribatzen dugu. 4. atalean gure aukera metodologikoak azaltzen ditugu. 5. atalean lenizio testuinguru desberdinatan dauden herskari ahoskabeak konparatzen ditugu (adib., VtV, V#tV, Vt#V, Vt#CV) intentsitatea eta ahostuntasuna lenizioarekin lotutako parametro akustikotzat hartuz. 6. atalean t#C eta k#C taldeak zehazkiago aztertzen ditugu analisi espektrografikoaren bidez. Buktzeko, 8. atalean gure emaitzak laburbiltzen ditugu eta zenbait ondorio ateratzen ditugu.

² Oihenarteren idazki batzuetan aurkitzen dugu eta erronkarieraz /-d/ hori mantendu zen euskalkia suntsitu arte, nahiz eta azken belaunaldietan dardarkari bakunarekin neutraltzeko joera bat egon, *dud-dur* (Mitxelena 1977: 236; Estornés Lasa 1968). Horretaz gain, Araitz-Betelu *ezaytud ‘ez zaitut’* aurkitzen dugu 1611ko dokumentu batean (Reguero 2017: 124). Era berean, pentsatzeko da inoiz /-g/ izan genuela hitz bukaeran: e.g. *duk < *dug < *duga*; baina hori hipotesi hutsa da, horretarako ez baitago datu historikorik.

2. Herskari ahoskabeen alofonia

Lan dialektal ugarietan erakutsi da euskaraz hitz artean aurkitzen diren kontsonante taldeek sinplifikatzeko joera dutela (Salaburu 1984; Salaburu & Lakar 2005; Hualde & Bilbao 1992; Hualde, Elordieta & Elordieta 1994; Erdozia 2001; Epelde 2003; Montoya 2004; Mugarza 2006, beste askoren artean). Oso antzeko gertaerak aurkitzen dira euskalki guztietañ. Konkretuki, /-t/ eta /-k/ askotan galtzen dira beste kontsonante batean aurrean. Hona adibide gisa, Etxebarria Ayestaren (1991) Zeberrioko hizkeraren azterketan aurkitzen ditugun adibide batzuk (egilearen transkripa-pena parentesi karratuetan ematen dugu, baina IPAra egokitu gabe):

- (1) Etxebarria Ayesta (1991): /-t/ eta /-k/ kontsonanteen galera
- | | | |
|-------------|----------------------------|-------------------------|
| /t+k/ → [k] | zeuretzat katea hori | [sautzakate ori] |
| /t+l/ → [l] | solo bat landu | [solobalandu] |
| /t+s/ → [s] | jan dot sagarra | [yandosagarra] |
| /k+t/ → [t] | erein dok tomatea, ez dok? | [erain dotomatea estok] |

Euskarazko kontsonante talken egokitzapenean gertakaririk interesgarriena herskari (ahoskabe) + herskari ahostun multzoetan aurkitzen dugu. Multzo hauetan lehen kontsonantea galtzen den arren, bigarrena asimilatzen zaio aurrekoari, ahoskabe bihurtuz, Etxebarria Ayestaren (1991) hurrengo adibideetan bezala:

- (2) Etxebarria Ayesta (1991): hitz-hasierako herskarien ahoskabetzea
- | | | |
|-------------|-----------------|---------------|
| /t+b/ → [p] | bat bai | [bapai] |
| /t+d/ → [t] | ez dakit dana | [estakitana] |
| /t+g/ → [k] | zeuretzat gorde | [sautzakorde] |
| /k+b/ → [p] | nik badakit | [nipakit] |

Hala ere, badirudi ahoskabetze prozesua ez dela lehen kontsonantearen galera bezain normala eta bere aplikazio-eremua mugatuta dagoela. Deskribapenetan aurkitzen ditugun adibideetan ahoskabetzea pairatzen duen elementua gehienetan partikula bat (*ba*, *bai*) edo aditz trinko bat da (*dator*, *dakit*). Antzeko adibideak aurkitzen ditugu beste lan dialektologikoetan, nahiz eta differentzia batzuekin, ikus adib. Hualde, Elordieta & Elordieta (1994: 31-33) Lekeitioko hizkerarako, Hualde & Bilbao (1991: 16-21) Getxoko hizkerarako, Mugarza (2006: 60-61), Mallabiko euskalarako, Salaburu & Lakar (2005: 44), Bartzango mintzorako, Montoya (2004: 82-83) Urdazubi eta Zugarramurdiko euskalarako, Epelde (2003: 80) Larresoroko hizkerako.

Aipatu ditugunak ez dira herskari ahoskabeek pairatzen dituzten gertakari alofoniko bakarrak. Salaburuk (1984: 236) adierazten duenez, bere Bartzango euskararen deskribapenean, /p t k/ fonema herskari ahoskabeak hurbilkari ahostun bezala gauzatzen dira maiz, adib. *ja[y]in*, *harri[ð]u*. Hualde, Lujanbio & Zubirik (2010) ere gertakari hori egiaztatzen dute Goizuetako hizkeran espektrogrammekin; adib. *ta olako kontuk* [taólayoyòntuk], *baratzatikan e(r)e* [baràtsaðiyane], *bost kotxe* [bógyòtse].³

³ Gaztelaniaz ere gertatzen da bokalarteko ahultze hori, differentzia handiekin hizkeren artean (ikus, adib., Hualde, Simonet & Nadeu 2011 eta hor emandako erreferentziak). Frantsesez, aldiiz, /p t k/ fone-mak indartsuagoak dira; lenizio guttiago erakusten dute bi bokalen artean (Torreira & Ernestus 2011).

Hitz bukaerako kontsonanteei dagokienez, hauek ere ahostundu eta ahuldu daitezke hurrengo hitza bokal batekin hasten denean, VC#V testuinguruan, *txistularik e(r)e bai* [tʃistulariyeʃbáj] (ikus, baita ere, Nadeu & Hualde 2015).

Noski, dauzkagun azterketa dialektologiko gehienetan transkribapen fonetikoak hizkuntzalariaren belarriaren eta hiztunaren intuizioetan oinarritzen dira. Metodologia horren bidez egindako deskribapenak baliagarriak badira ere, zaila da jakitea askotan gertakari desberdinaren maiztasuna zein den (aipatutako lan dialektaletan ez baitago kuantifikaziorik); baita ere, egia esateko, transkribatzale guztien belarria fina den ala ez.

Lan honetan ekarpen bat egin nahi dugu euskararen fonetikaren arloan ahozko corpus baten azterketa akustikoaren bidez (ikus Egurtzegi & Carignan 2020 antzeko metodologia eta helburua dituen beste lan berri baterako). Bereziki, hizkera libreaten sortzen diren {k, t} + C kontsonante talken aldakortasuna aztertzen dugu, gai horri buruz daukagun ezagutza zehazteko asmoz.

3. Gure corpora

Argi dago euskaraz hitz-bukaerako kontsonanteen ahoskera aldatzen dela formalitate mailaren arabera, beste edozein hizkuntzatan bezala. Kontsonanteok ez dira modu berean ahoskatzen testu bat kontuz irakurtzen dugunean eta eguneroko hizkera libreaten. Gure ikerketarako lagunarteko hizkera librea aukeratu dugu. Gure corpora Azpeitian egindako grabaketak dira. Elkarrizketatzalea ere azpeitiarra zen (eta artikulu honen egileetariko bat da) eta elkarritzeten gaia eguneroko kontuak eta hiztunen bizitzaren pasadizoak ziren. Espero bezala, baldintza hauetan hiztunek «natul-natul» hitz egiten zuten, Azpeitiko esapidea erabiltzeko. Grabaketen kalitatea bermatzeko elkarrizketak leku isil batean egin genituen eta MicroTrack 24/96 grabagailu digital bat erabili genuen SONY F-720 kanpoko mikrofono batekin. Hemen 6 hiztunen emaitzak aztertzen ditugu, 4 emakumezko (4f, 5f, 6f, 8f) eta 2 gizonezko (1m, 2m).

4. Aukera metodologikoak analisi akustikoan


Lan honetan hitz bukaerako herskariak ditugu aztergai; batez ere hurrengo hitza kontsonantez hasten denean sortzen diren kontsonante taldeak. Esan bezala, azterketa akustikoa egin dugu. Badira bi modu nagusi kontsonante hauen analisi akustikoa egiteko.

Alde batetik, espektrogramak miatzu fonema bakoitzaren alofono desberdinak bereiz daitezke. Bestalde, alofono desberdinak identifikatu gabe, parametro akustikoen neurketak atera daitezke (iraupena, intentsitatea, ahostuntzea). Bi teknika horiek era-biltzen ditugu hemen.

Lehen metodologia erabiliz, /-k/ fonemarako, [k] herskari ahoskabea, [x] frikari ahoskabea, [g] herskari ahostuna eta [y] frikari edo hurbilkari ahostuna bereiz ditzakegu, adibidez, [ø] kontsonantearen galera gain; eta beste horrenbeste egin dezakegu /t/ fonemarekin. (Frikariak eta hurbilkariak sinbolo berdinekin errepresentatzen dira IPAn, baina diakritiko bat erabil daiteke hurbilkariak adierazteko; adib. [ð] hurbilkari horzkaria. Arrazoi tipografikoengatik hemen ez dugu diakritikorik erabiliko.

Gehien-gehienetan [β], [ð], [ɣ] alofonoak hurbilkariak dira euskaraz, gaztelaniaz bezala, ez frikariak. Aldiz, hurbilkaria oso ahula eta laburra denean ikur ttikiago baten bidez adieraziko dugu, adib. [ð]).

Hala ere, errealitatean fonetikoan alofonoak ezin daitezke beti zehazki identifikatu. Konkretuki herskarien kasuan, hersketa osoa ez dugunean artikulatzaleen mugimenduaren tamaina oso aldakorra izan daiteke, eta ondorioz espektrograman energia gehiago edo gutxiago ikusiko dugu. Martinez-Celdrán-ek & Regueira-k (2008), adibidez, alofona hurbilkarien artean hurbilkari itxiak eta irekiak bereizten dituzte. On-doko eskeman, konstrikzioan izan ditzakegun posibilitateak erakusten ditugu (ikus 1. irudia):⁴



1. irudia

Konstrikzio graduak:

- Artikulatzaleak aktiboak kontaktu osoa egiten badu artikulatzale pasiboarekin, airearen iraganbidea itxiz, herskari bat izango dugu.
- Artikulatzaleen artean pasabide estu bat uzten badugu, frikari baten turbulentzia izango dugu.
- Artikulatzale aktiboa asko hurbiltzen bada pasibora baina uzten den iraganbidea zabalegia bada turbulentzia izateko, hurbilkari itxia izango dugu.
- Hurbilkari ireki batean, artikulatzaleen arteko airearen iraganbidea oraindik zabalagoa da, eta espektrograman formakin intentsoak ikusiko ditugu.
- Azkenik, artikulatzale aktiboa ez bada mugitzen eta dugun airearen iraganbidea bokal batekoa bezain zabala bada, kontsonantearen galera dugu, zero alofona.

Noski, ez dago arrazoi objektiborik bost konstrikzio maila aukeratzeko, goiko irudian egin dugun bezala, eta ez lau edo zazpi; errealitatean konstrikzio *continuum* bat baitugu. Ez dago irizpide objektiborik iraganbide estua eta zabala duten alofonoen artean bereizteko. Ez dago biderik bi kategoria fonetiko horien muga zehazteko. Hala ere, modu honetako sailkapen bat argigarria izan daiteke, nahiz eta espektrogramak aztertzeraikoan askotan zalantzak izango ditugun alofona desberdinak konfianza osoaz identifikatzeko.

Subjektibilitatea saihesteko modu bat konstrikzioa parametro kontinuo bezala analizatzea da, horretarako ezaugarri akustiko bat edo gehiago aukeratuz. Ezaugarri hori kontsonantearen energia kopurua izan daiteke. Herskari ahoskabe batean oso energia

⁴ Martínez-Celdránentzat (2013) frikarien eta hurbilkarien arteko diferentzia tentsioan datza.

gutxi pasatzen da ahotik iraganbidea blokeatuta baitago. Aldiz, artikulatzaireen arteko iraganbidea zenbat eta irekiagoa izan, orduan eta energia gehiago ikusiko dugu espekrograman.

Gauza bera esan daiteke ahostun/ahoskabe bereizkuntzari buruz. Ezagarri fonologiko bezala tasun bitarra bada ere (adib. /k/ ala /g/), fonetikoki ezaugarri kontinuoa da.

Aipatutako bi metodologiak erabilgarriak izan daitezke aztertzen ari garen datuak ulertzeko. Esan bezala, artikulu honetan bi metodologiak erabiltzen ditugu. Alde batetik, herskari ahoskabeen lenizioa aztertzeko intentsitatea eta ahostuntasuna lenizio-adierazle bezala hartzen ditugu. Intentsitatea parametro kontinuoa bezala neurten dugu. Aldiz, ahostuntasuna era bitar batean aztertzen dugu, beherago esplikatzen ditugun arrazoi metodologikoengatik: kontsonantea guztiz ahostuna ala ez, (arrazoi metodologiengatik ere, iraupena ez dugu neurtu, gero azaltzen dugun bezala). Bokalarteko herskarien kasuan parametro horiek gauazte fonetikoaren irudi zuzena ematen digute. Aldiz, VC#CV sekuentzia bat dugunean, parametro horien neurketak ematen digun informazioa oso partziala da. Adibide bat emateko, /ata/ bezalako sekuentzia fonologiko bat [ata] bezala ahostzen bada, parametro akustikoen neurketaren bidez jakin dezakegu kontsonanteak ez duela leniziorik pairatu kasu honetan. Baina /ak#da/ sekuentzia batean ere [ata] izan dezakegu eta kasu honetan hitz-bukaerako kontsonantea galdu da. Horregatik, t#C, k#C kontsonante talken transkribapen fonetikoa egin dugu espektrogramak aztertuz.

5. Parametro akustikoen neurketa

5.1. Metodologia eta gure ikerketaren orain arteko emaitzak

Gure asmo orokorra euskararen herskari ahoskabeen ahultze prozesuak aztertzea da. Honetarako, goian aipatutako corpusean /t/ eta /k/ kontsonanteak identifikatu eta aztertu ditugu, *Praat* izeneko programarekin (Boersma & Weenink 2020), lau testuinguru bereiziz:

- (3) Testuinguruak
 - (a) Hitz-bukaeran eta beste kontsonante baten aurrean: VC#C, adib. *nik_dakit, zenbat dira*
 - (b) Hitz-bukaeran eta bokal baten aurrean: VC#V, adib. *nik ikusi, bat eman*
 - (c) Hitz-hasieran bokal baten ondoren: V#CV, adib. *dena kendu,*
 - (d) Hitz-erdian bi bokalen artean: VCV, adib. *ikusi, etorri*

Guztira, 2482 token analizatu ditugu (/k/ = 1204 + /t/ = 1278). Hitzen arteko testuinguruetan bakarrik pauza edo etenik gabeko sekuentziak hartu ditugu kontuan. Testuinguruaren arabera datuak 1. taulan erakusten dugun modura banatzen dira, (a)-(c) testuinguruetan herskaria bi bokalen artean dago, baina muga morfologikoen kokagunea aldatzen da. Parentesien artean analisia eta irudiak egiteko erabili ditugun ingelesezko laburdurak ematen ditugu:

1. taula

Token kopurua

(a) VC#CV	=	220	(fc = final before C)
(b) VC#V	=	263	(fv = final before V)
(c) V#CV	=	201	(i = initial)
(d) VCV	=	1798	(m = medial)

GUZTIRA = 2482

Taulan ikusten denez, kokagunerik arruntena, differentzia handiz, hitz-erdikoa da, (d). Espero bezala, hitz-hasieran herskari ahoskabeak (c) ez dira oso maiz agertzen, edo behintzat, ez hitz-erdian bezain maiz. Dakigunez, historikoki euskaraz hitz-hasierako herskariak ahostuntzeko joera bat aurkitzen dugu (*corpus > gorputz, corbata > gorbata*) eta ondorioz herskari ahoskabeek maiztasun erlatiboki ttikia dute. Gehienetan egokitu gabeko maileguetan aurkitzen dira (adib. *pasau, kontau*), nahiz eta ondare zaharreko hitz batzuetan ere agertu (adib. *kendu*). Hitz-bukaeran herskariak arruntagoak dira diskurtsoan, baina bi talde desberdinatan sailkatu ditugu ondoko testuinguruaren arabera: C edo V den, (a) eta (b) taldeak. Hitz-hasierako kontsonantea kontuan hartuz, (a) taldeko kontsonanteak, 2. taulan erakusten dugun bezala banatzen dira:

2. taula

Kontsonante talka motak (VC#CV)

Token kopuruak	
{t,k} + {p, t, k}	= 38
{t,k} + {b, d,g}	= 108
{t,k} + {f,s,x}	= 47
{t,k} + {l, m, n}	= 27

GUZTIRA = 220


Herskarien ahultze fenomenoa aztertzeko printzipioz hiru parametro har ditzakegu kontuan: intentsitate erlatiboa, ahostuntza eta iraupena (ikus, adib., Hualde, Simonet & Nadeu 2011). Aurreko lan batean hiru bokalarteko testuinguruak (b, c eta d) analizatu ditugu energia kopuru erlatiboa (bi bide desberdinatan) eta ahostasun maila neurtuz (Hualde, Beristain, Icardo Isasa & Zhang 2019). Hau da, lan horretan gure helburua zen bokalarteko lenizioa aztertzea hiru testuinguru horietan. Gure hipotesia hitz-bukaerako /t/ eta /k/ kontsonanteek lenizio handiago erakutsiko zutela zen, kogune horretan /d/ eta /g/ fonema ahostunekin ez baitira kontrastatzen.

Konstrikzio maila den bezain batean, analisi horren emaitza nagusiak ziren, alde batetik, /k/ eta /t/ ahulagoak direla hitz-bukaeran, hau da (b) VC#V testuinguruuan, (c) V#CV eta (d) VCV testuinguruetan baino, gure hipotesia baieztagatuz; eta beste aldetik, /k/, /t/ baino ahulagoa dela (hurbilkaria izateko joera argiagoa erakusten duela) hiru testuinguruetan.

Bestalde, gure datuen arabera /k/ eta /t/ herskariak ahostunagoak ziren hitz-bukaeran, hots, VC#V testuinguruan, VCV eta V#CV testuinguruetaen baino. Gainera, ahostuntzeko joera argiena erakusten duen kontsonantea hitz-bukaerako /k/ da. Beste esanda, aztertutako kontsonantea eta testuinguruaren artean, lenizio nabarmenena *nik ikusi* bezalako tokenetan aurkitzen da, [niyikusi].

Hitz-bukaerako kontsonanteei dagokienez, aurreko lanean, beraz, VC#V testuingurua aztertu genuen, beste bokalarteko testuinguruekin konparatuaz. Lan honetan, aldiz, kontsonante talketan, hau da, VC#CV testuinguruan, ipini nahi dugu arreta, euskal herskarien alofoniari buruz dugun irudia osatzeko.

Beste kontsonante baten aurrean dauden hitz-bukaerako herskariak beste hiru testuinguruetaen daudenekin konparatu nahi ditugu hemen. Gure aurreko lanean intentsitatea neuritzeko bi metodo desberdin erabili bagenituen ere, bi metodoen emaitzak antzekoak ziren. Hemen horietariko bat aukeratu dugu: intentsitatea diferenzia C#CV sekuentzietaan (IntDiff, ikus Hualde, Simonet & Nadeu 2011). Neurketa hau egiteko, aipatutako sekuentziako intentsitate baliorik txikiena (IntMin, kontsonante edo kontsonante taldearen intentsitate guttieneko puntuoa) eta handiena (IntMax, hurrengo bokalean) atera ditugu automatikoki *Praat*-ek ematen duen intentsitate kurbatik, *script* bat erabiliz, eta bien arteko desberdintasuna (IntDiff) kalkulatu dugu, 2. irudian erakusten den bezala.



2. irudia

Intentsitate kurbaren neurketa (IntDiff).


Irudian, *bateze* (*batez ere*) adibidearen [te] silabako intentsitate kurba erakusten da. *min* = intentsitate minimoa (kontsonantean), *max* = intentsitate maximoa (hurrengo bokalean). Bi puntatako geziak *script*-ak ateratzen duen intentsitate desberdintasuna erakusten du (*max-min*)

Intentsitate kurbatik ateratako neurketa hau kalkulatzeko ez da beharrezkoa mugak kontuz ipintzea. Nahikoa da minimoa eta maximoa interbalo berean edukitzea. Puntu hau funtsezkoa da hurbilkarien kasuan oso zaila baita mugak era guztiz zehatz batean jartzea.

Intentsitateaz gain, herskari ahoskabeen lenizioa iraupenenean eta ahostuntzean ere nabari daiteke. Hemen ez dugu iraupena neurtu, horretarako segmentuen mugak zehazki jartzea beharrezkoa baita; eta, esan bezala, lenizioak iluntzen ditu segmentuen arteko mugak. Arazo hori zeharka konpontzeko proposamenak egin badira ere (Eager 2016; Ennever, Meakins & Round 2017), konponbide horiek bakarrik CV sekuentzietan aplika daitezke, ez kontsonante talka bat dugunean. Arrazoi beragatik ahostuntzea aldaki bitar bezala neurtu dugu. Kalkulatu duguna da neurtutako interbaloa guztiz ahostuna den ala ez.

5.2. Lau testuinguruen konparaketa: Intentsitate eta ahostuntasunaren analisiaren emaitzak

Esan bezala, herskari ahoskabeen lenizioaren azterketaren lehen etapa batean hiru bokalarteko testuinguruak konparatu ditugu (VCV, V#CV, VC#V). Aurreko azpiatlean analisi horren emaitzak laburbildu ditugu. Hemen laugarren testuinguru bat sartzen dugu erkaketan: Kontsonante talketan dauden hitz-bukaerako herskariak.




3. irudia

/k/ eta /t/ kontsonanteen intentsitatea lau testuinguru desberdinetan. Testuinguruak: fc (*final before C*) = VC#CV, fv (*final before V*) = VC#V, i (*initial*) = V#CV, m (*medial*) = VCV

3. irudian intentsitate desberdintasuna erakusten dugu neurtu ditugun sekuentzietan. Azaldu dugun bezala, kontsonante edo kontsonante taldearen intentsitatea hurrengo bokalekoarekin konparatzen dugu. Intentsitate desberdintasun hori txikia bada, horrek esan nahi du kontsonante hori oso bokalikoa dela, hersketa oso ahula izanik. Aldiz intentsitate desberdintasunik handiena izango dugu hersketa osoa dugunean. Ezkerreko irudian /k/ dugu eta eskuinaldekoan /t/. X-ardatzean lau testuinguruak ditugu.

Hitz-bukaeran dauden herskarien portaera fonetikoa hobeki ikusteko, 4. irudian bi taldetan banatu ditugu datuak, lau talde egin beharrean: hitz-bukaerakoak talde batean (*final*) eta fonologikoki silaba-hasieragunean daudenak beste taldean (*onset*).



4. irudia

/k/ eta /t/ kontsonanteen intentsitatea kontestuaren arabera:
hitz bukaeran (final= fc + fv) vs fonologikoki silabaren hasieragunean (onset= i + m)

Irudiak ikusiz, argi dago hitz-bukaerako kontsonanteak besteak baino ahulagoak direla eta, bereziki, VC#C (fc) testuinguruoak ahulenak direla. Begiz ikusten duguna estatistikoki baiezatzeko, IntDiff datuak erregresio batean (*linear mixed effects regression*) sartu ditugu *lme4* pakete estatistikoa (Kuznetsova, Brockhoff & Christensen 2017) erabiliz R-programan (R Core Team 2017; RStudio Team 2016), hurrengo egiturarekin:

- (4) Erregresioaren formula (*linear mixed effects regression*)
 $\text{IntDiff} \sim \text{Kontsonantea} + \text{Testuingurua} + (1|\text{Hitztuna}) + (1|\text{Hitza})$

Non:

Kontsonantea = /k/, /t/
 Testuingurua = fc, fv, i, m
 Hitztuna = 6 hiztunak, ausazko faktore bezala
 Hitza = neurrtutako hitzak, ausazko faktore bezala

CV#C testuinguruan dauden kontsonanteak beste kontsonanteekin konparatuz, 3. irudian ikusten diren desberdintasun guztiak esanguratsuak dira: VC#C taldeetan hitz-bukaerako herskariak beste edozein testuingurutan daudenak baino ahulagoak dira. Lau konparaketetan, $p < 0.001$.

Analisi honetan, bi faktoren eragina kontsideratu dugu: kontsonantearen ahoskunea, hau da belarra edo horzkaria den (/k/ edo /t/) eta testuingurua. Posible izango li-

Varco ΔC (Figura 8) y Varco ΔV (Figura 9): Los valores de Varco ΔC del euskera de EZ y de EB son estadísticamente más altos que los del español de EZ ($p = 0.011$ y $p = 0.004$ respectivamente) y que los del japonés (ambas diferencias significativas al nivel $p < 0.001$). Asimismo, el japonés muestra valores más bajos que el español de EB ($p < 0.018$). Los valores de Varco ΔV del español de EZ y de EB resultan ser estadísticamente más bajos que los del japonés y que los del euskera de EZ y EB (todas las diferencias significativas al nivel $p < 0.001$). A su vez, los valores del japonés son más altos que los del euskera de EZ ($p < 0.001$) y el euskera de EB ($p < 0.005$).

Tabla 2

Diferencias significativas entre grupos para los ocho medidores de ritmo
(NA = No aplicable, * = $p \leq 0.05$, ** = $p \leq 0.01$, *** = $p \leq 0.001$)

	Español EZ	Español EB	Euskera EZ	Euskera EB	Japonés
Español EZ	NA		V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV *** Varco ΔC *	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV *** Varco ΔC **	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** nPVI C *** Varco ΔV ***
Español EB		NA	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV ***	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV ***	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** nPVI C *** Varco ΔV *** Varco ΔC *
Euskera EZ	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV *** Varco ΔC *	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV ***	NA		ΔC *** nPVI C *** Varco ΔV *** Varco ΔC ***
Euskera EB	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV *** Varco ΔC **	V% *** C% *** ΔV *** nPVI V *** Varco ΔV ***		NA	ΔC *** nPVI C *** Varco ΔV ** Varco ΔC ***
Japonés	V% *** C% *** ΔV *** ΔC *** nPVI V *** nPVI C *** Varco ΔV ***	V% *** C% *** ΔV *** ΔC *** nPVI V *** nPVI C *** Varco ΔV *** Varco ΔC *	ΔC *** nPVI C *** Varco ΔV ** Varco ΔC ***	ΔC *** nPVI C *** Varco ΔV ** Varco ΔC ***	NA

Las comparaciones rítmicas intergrupales presentadas en las Figuras 3 a 9 se resumen conjuntamente en la Tabla 2. Basándonos en los cruces vacíos en dicha tabla podemos inferir que las diferencias entre el español de los *euskaldunberris* (EB) y de los *euskaldunzaharras* (EZ) no resultaron ser estadísticamente significativas en ninguna de las medidas utilizadas para cuantificar el ritmo. La misma observación aplica a las producciones de ambos grupos en euskera. Todas las demás comparaciones intergrupales sí que arrojaron contrastes estadísticamente significativos, si bien los más numerosos fueron entre el japonés y el español de los *euskaldunzaharras* con siete medidores, y entre el japonés y el español de los *euskaldunberris* con los ocho medidores. Las diferencias entre el japonés y el euskera de los dos grupos no fueron tan extremas y se observaron en tan solo cuatro de los medidores rítmicos en ambos casos.

4. Discusión y conclusión

Este estudio partía con el doble objetivo de a) determinar si las producciones de hablantes bilingües de español y euskera con diferentes perfiles lingüísticos muestran patrones rítmicos semejantes o diferentes en cada una de las lenguas y b) situar el euskera en el continuo rítmico con respecto al español y al japonés. Los resultados obtenidos después de comparar las producciones de los diversos grupos con múltiples técnicas para cuantificar el ritmo lingüístico presentados en la Sección 3 nos brindan la posibilidad de llegar a varias conclusiones.

Las diferencias entre el grupo de *euskaldunzaharras* (EZ) y el de *euskaldunberris* (EB) no son significativas para ninguna de las medidas de ritmo ni en euskera ni en español. Dado que sí se pueden apreciar múltiples contrastes entre las dos lenguas cuando son producidas por el mismo grupo, podemos concluir que, independientemente de cuándo y cómo se hayan aprendido, las interferencias rítmicas entre ellas no son apreciables. Estas observaciones contrastan con las ofrecidas en otros estudios sobre el ritmo de hablantes de segundas lenguas donde el uso de las elisiones y las reducciones vocálicas se aleja del de los hablantes nativos (Gut 2003; Carter 2005; Dellwo, Fourcin y Abberton 2007; Nava 2010; Robles-Puente 2014, 2019). Por ello, podemos inferir que las diferencias rítmicas entre el euskera y el español no surgen de esos procesos fonético-fonológicos segmentales implementados por los hablantes, sino que están ligadas a las estructuras y secuencias silábicas propias de cada lengua.

A pesar de la falta de contrastes rítmicos intra-idiomáticos, existen múltiples ejemplos de otras diferencias grupales. Las dos lenguas que muestran más contraste son el japonés y el español. En el caso del grupo EB, todos los valores de los indicadores rítmicos (C%, V%, ΔC, ΔV, nPVI C, nPVI V, Varco ΔC, Varco ΔV) resultan ser diferentes a los del japonés, mientras que en el caso de EZ lo son siete de los ocho, con Varco ΔC como única excepción. Estos resultados indican que las diferencias rítmicas entre ambas lenguas son notables y, por lo tanto, coinciden con las clasificaciones de estudios previos (Ramus, Nespor y Mehler 1999; Nespor, Shukla y Mehler 2011). Si las preferencias silábicas y las propiedades rítmicas del español fueran idénticas a las del euskera, esperaríamos que este último mostrara contrastes similares con el japonés. Sin embargo, las diferencias entre la lengua vasca y la asiática no son tan extremas y el euskera producido por los grupos EB y EZ contrasta con el ja-

ponés solo en la mitad de las medidas rítmicas (ΔC , nPVI C, Varco ΔC y Varco ΔV). De hecho, atendiendo a estas medidas, el euskera tiene más similitudes con el japonés que con el español. El ritmo del español del grupo EB muestra diferencias en cinco de los ocho medidores de ritmo (C%, V%, ΔV , nPVI V, Varco ΔV) con respecto al euskera producido por el mismo grupo y por el grupo EZ. En el caso del ritmo del español de EZ, los mismos medidores y Varco ΔC resultan ser diferentes al euskera del propio grupo EZ y del grupo EB. Basándonos en estos datos, y aunque el español y el euskera han sido generalmente catalogadas como lenguas de ritmo silábico, es necesario reconsiderar la clasificación de esta última por compartir características del español y del japonés. La lengua vasca es similar al japonés y diferente al español por la mayor presencia y variación de sus intervalos vocálicos (C%, V%, ΔV , nPVI V) y al mismo tiempo es similar al español y diferente al japonés por su variación en la duración de sus intervalos consonánticos (ΔC , nPVI C) —Figuras 10 y 11—. Finalmente, los resultados de Varco ΔV (y parcialmente Varco ΔC), indican una distinción entre las tres lenguas (Figura 12).

Aunque cabe la posibilidad de que los medidores de ritmo empleados en el presente estudio no sean los más idóneos para clasificar otras lenguas consideradas no prototípicas (Arvaniti 2009; Brown y Mandal 2013), sí que parecen adecuados para hacer una triple comparación entre euskera, español y japonés, y detectar similitudes y diferencias entre estas tres lenguas no relacionados tipológicamente. A pesar de que es necesario corroborar los presentes resultados con producciones espontáneas y otros dialectos, todo apunta a que el ritmo lingüístico del euskera es ligeramente diferente al del español y comparte características con el japonés. Estas observaciones coinciden con estudios previos basados en otros materiales como las descripciones al nivel de la sílaba de Hurch (1988), los análisis de complejidad silábica de Adsett (2008) y los resultados de producción y perceptuales de Gago (2018) y Molnar, Gervain y Carreiras (2011, 2013). Por ello creemos necesario hacer diferenciaciones más detalladas dentro de las lenguas catalogadas como de ritmo silábico y clasificar el euskera como una lengua de ritmo intermedio en el continuo isosilábico-isomoraico.






Figura 10

V% vs. ΔC (con desviaciones estándar) en español, euskera y japonés

**Figura 11**

$n\text{PVI V}$ vs. $n\text{PVI C}$ (con desviaciones estándar)
en español, euskera y japonés

**Figura 12**

Varco ΔC vs. Varco ΔV (con desviaciones estándar)
en español, euskera y japonés

5. Referencias

- Abercrombie, David. 1967. *Elements of general phonetics*. Edimburgo: Edinburgh University Press.
- Adsett, Connie R. 2008. *Automatic syllabification in European languages: a comparison of data-driven methods*. Halifax, Nueva Escocia: tesis de máster de Dalhousie University.
- Arvaniti, Amalia. 2009. Rhythm, timing and the timing of rhythm. *Phonetica* 66. 46-63.
- Bertinetto, Pier Marco. 1988. Reflections on the dichotomy ‘stress’ vs. ‘syllable-timing’. *Quaderni del Laboratorio di Linguistica* 2. 59-84.
- Boersma, Paul & David Weenink. 2018. *Praat: Doing phonetics by computer* [software]. <http://www.praat.org/>.
- Brown, Jason & Sam Mandal. 2013. Rhythm, metrics, and the link to phonology. In Sarvnaz Karimi & Karin Verspoor (eds.), *Proceedings of the Eleventh Australasian Language Technology Association Workshop (ALTA 2013)*, 112-117. Brisbane, Australia: Queensland University of Technology.
- Carter, Phillip M. 2005. Quantifying rhythmic differences between Spanish, English, and Hispanic English. In Randall Gess & Edward J. Rubin (eds.), *Theoretical and Experimental Approaches to Romance Linguistics: Selected Papers from the 34th Linguistic Symposium on Romance Languages*, 63-75. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Cenoz, Jasone. 2008. Achievements and challenges in bilingual and multilingual education in the Basque Country. *AILA Review* 21. 13-30.
- Dauer, Richard. 1983. Stress-timing and syllable-timing reanalyzed. *Journal of Phonetics* 11. 51-62.
- Dellwo, Volher, Adrian Fourcin & Evelyn Abberton. 2007. Rhythmic classification based on voice parameters. In Jürgen Trouvain & William J. Barry (eds.), *Proceedings of the 16th International Congress of Phonetic Sciences*, 1129-1132. Saarbrücken: Universität des Saarlandes.
- Donegan, Patricia. 1993. Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer. *Linguistics of the Tibeto-Burman Area* 16(1). 1-43.
- Gago, Clara. 2018. *El ritmo lingüístico del español en el País Vasco y el euskera*. Manuscrito inédito, West Virginia University.
- Grabe, Esther, Brechtje Post & Ian Watson. 1999. The acquisition of rhythmic patterns in English and French. In John J. Ohala, Yoko Hasegawa, Manjari Ohala, Daniel Granville & Ashlee C. Bailey (eds.), *Proceedings of the 14th International Congress of Phonetic Sciences*, 1201-1204. ICPHS Archive, <http://www.internationalphoneticassociation.org/icphs/icphs1999>.
- Grabe, Esther & Ee Ling Low. 2002. Durational variability in speech and the rhythm class hypothesis. In Carlos Gussenhoven & Natasha Warner (eds.), *Papers in Laboratory Phonology* 7, 377-401. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Gut, Ulrike. 2003. Prosody in second language speech production: The role of the native language. *Fremdsprachen Lehren und Lernen* 32. 133-152.
- Hiki, Shizuo, Kuniko Kakita & Hideo Okada. 2011. A panphonetic version of the text of ‘The North Wind and the Sun’ for the illustration of the IPA of Japanese (Tokyo Dialect) consonants. In Wai Sum Lee & Eric Zee (eds.), *Proceedings of the 17th International Congress of Phonetic Sciences*, 871-873. Hong Kong: City University of Hong Kong. <https://www.internationalphoneticassociation.org/icphs-proceedings/ICPhS2011/OnlineProceedings/RegularSession/Hiki/Hiki.pdf>.

- Hurch, Bernhard. 1988. Is Basque a syllable-timed language?. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* 22(3). 813-825.
- Jun, Sun Ah (ed.). 2005. *Prosodic typology: The phonology of intonation and phrasing*. Oxford: Oxford University Press.
- Low, Ee Ling, Esther Grabe & Francis Nolan. 2000. Quantitative characterizations of speech rhythm: syllable-timing in Singapore English. *Language and Speech* 43(4). 377-401.
- Molnar, Monika, Judit Gervain & Manuel Carreiras. 2011. Language separation in monolingual and bilingual infants of Spanish-Basque. Trabajo presentado en Neurobiology of Language Conference, Annapolis, EE.UU.
- Molnar, Monika, Judit Gervain & Manuel Carreiras. 2013. Within-rhythm class native language discrimination abilities of Basque-Spanish monolingual and bilingual infants at 3.5 months of age. *Infancy* 19. 326-337.
- Nava, Emily. 2010. *Connecting phrasal and rhythmic events: Evidence from second language speech*. Los Ángeles, CA: Tesis doctoral de la University of Southern California.
- Nava, Emily & María Luisa Zubizarreta. 2009. Order of acquisition of prosodic prominence patterns: Evidence from L1Spanish/L2English Speech. In Jean Crawford, Koichi Otaki & Masahiko Takahashi (eds.), *Proceedings of the 3rd Generative Approaches to Language Acquisition North America (GALANA 2008)*, 175-187. Somerville, MA: Cascilla Proceedings Project.
- Navarro Tomás, Tomás. 1925. Pronunciación guipuzcoana. Contribución al estudio de la fonética vasca. *Homenaje a Menéndez Pidal*, vol. 3, 593-653. Madrid: Hernando.
- Nespor, Marina, Mohinish Shukla & Jacques Mehler. 2011. Stress-timed vs. syllable-timed languages. *The Blackwell Companion to Phonology* 2. 1147-1159.
- Ortega, Ane, Jacqueline Urla, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri & Belen Uranga. 2015. Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language* 2015 (231). 85-105. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2014-0033>.
- Pike, Kenneth. 1945, *The Intonation of American English*. Ann Arbor: The University of Michigan Press.
- Ramus, Franck. 2002. Acoustic correlates of linguistic rhythm: Perspectives. In Bernard Bel & Isabel Marlin (eds.), *Proceedings of Speech Prosody 2002*, 115-120. Aix-en-Provence: Université de Provence.
- Ramus, Franck. Marina Nespor & Jacques Mehler. 1999. Correlates of linguistic rhythm in the speech signal. *Cognition* 73. 265-292.
- Robles-Puente, Sergio. 2014. *Prosody in contact: Spanish in Los Angeles*. Los Ángeles, CA: Tesis doctoral de la University of Southern California.
- Robles-Puente, Sergio. 2019. Rhythmic Variability in Spanish/English Bilinguals in California. In Yolanda Congosto & Laure Morgensthaler (eds.), *Prosodic Issues in Language Contact Situations*, 419-437. Philadelphia & Amsterdam: John Benjamins (= número especial de *Spanish in Context* 16(3)).
- Somers, Harold. 2006. Faking it: synthetic text-to-speech synthesis for under-resourced languages. Experimental design. In Timothy Baldwin, James Curran & Menno van Zaanen (eds.), *Proceedings of the Australasian Language Technology Workshop 2005*, 71-77. Sydney: University of Sydney. <https://www.aclweb.org/anthology/U05-1000.pdf>.
- Trubetzkoy, Nikolái. 1992 [1938]. *Principios de fonología*. Madrid: Editorial Cincel.

Apéndice

Texto 1 (Fábula «El viento norte y el sol»)

Español: *El viento norte y el sol porfiaban sobre cuál de ellos era el más fuerte, cuando acertó a pasar un viajero envuelto en ancha capa. Convinieron en que quien antes lograra obligar al viajero a quitarse la capa sería considerado más poderoso. El viento norte sopló con gran furia, pero cuanto más soplabla, más se arrebiajaba en su capa el viajero; por fin el viento norte abandonó la empresa. Entonces brilló el sol con ardor, e inmediatamente se despojó de su capa el viajero; por lo que el viento norte hubo de reconocer la superioridad del sol.*

Euskera: *Ipar haizea eta eguzkia bietako indartsuena nor zen eztabaidan ari ziren, bidaia bat azaldu zenean kapa handi batean bilduta. Bidaia kapa kentzera behartzen lortzen zuen lehenengoa boteretsuena izango zela erabaki zuten. Ipar haizeak sortizkeria handiz jo zuen, baina zenbat eta gogorrago jo, hainbat eta gehiago estaltzen zuen bere burua bidaiaiak; azkenean ipar haizeak etsi egin zuen. Orduan eguzkiak gogo handiz distira egin zuen, eta bat-batean bidaiaia bere kapaz gabetu zen; horregatik ipar haizeak eguzkiaren nagusitasuna onartu behar izan zuen.*

Japonés: 北風と太陽が、どちらが強いかで言い争っているところへ、偶然に田んぼ道を、旅人が暖かそうな上着にくるまってやってきました。そこで、その旅人の上着を脱がせた方が強い、ということにしようときめました。まず始めに、北風が旅人に向かってせいいっぱい吹きつけました。しかし、乱暴に吹けば吹くほど、逆に旅人は上着をしっかりと体に巻き付けるので、脱がせることができません。北風はくたびれて、とうとうあきらめました。今度は太陽の番になりました。太陽が旅人の上から暖かい光をやんわり注ぐと、やがて旅人は、自分から上着を脱いでしました。それで北風は残念ながら、太陽の方が強いと認めなければなりませんでした。

Texto 2 (Extracto del preámbulo de la «Declaración Universal de los Derechos Humanos»)

Español: *La Asamblea General proclama la presente Declaración Universal de Derechos Humanos como ideal común por el que todos los pueblos y naciones deben esforzarse, a fin de que tanto los individuos como las instituciones, inspirándose constantemente en ella, promuevan, mediante la enseñanza y la educación, el respeto a estos derechos y libertades, y aseguren, por medidas progresivas de carácter nacional e internacional, su reconocimiento y aplicación universales y efectivos, tanto entre los pueblos de los Estados Miembros como entre los de los territorios colocados bajo su jurisdicción.*

Euskera: *Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal hau egiten du, herri eta nazio guziek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzen irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatuetako herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurralteetan ere.*

Japonés: これらの権利及び自由に対する共通の理解は、この誓約を完全にするためにもっとも重要であるので、よって、ここに、国連総会は、社会の各個人及び各機関が、この世界人権宣言を常に念頭に置きながら、加盟国自身の人民の間にも、また、加盟国の管轄下にある地域の人民の間にも、これらの権利と自由との尊重を指導及び教育によって促進すること並びにそれらの普遍的措置によって確保することに努力するように、すべての人民とすべての国とが達成すべき共通の基準として、この人権宣言を公布する。

Texto 3 (Extracto de noticia sobre el mismo suceso)

Español: *El Museo Nacional de Río de Janeiro, el más antiguo y de mayor acervo de Brasil pero que fue destruido por un incendio el domingo, carecía de seguro sobre su patrimonio y tampoco contaba con una brigada de bomberos para combatir posibles focos de fuego. La falta de un seguro y de una brigada de incendios ha sido admitida este miércoles por la subdirectora del museo, Cristiane Serejo, y se agrega a las otras carencias denunciadas y que han provocado indignación entre los brasileños, como el recorte de los fondos públicos para su manutención y los problemas de infraestructura de la edificación, como goteras y filtraciones. Serejo ha asegurado que la contratación de un seguro y la creación de un grupo de funcionarios habilitados para combatir incendios habían sido descartadas por la institución por tratarse de costos adicionales que no podrían ser cubiertos.*

Euskera: *Rio de Janeiroko Museo Nazionala, Brasilgo zaharrena eta ondare handiena duena, igandean suntsitu zen, sute baten ondorioz, eta ez zuen ez asegururik ez suhiltzaile brigadarik. Cristiane Serejo museoko zuzendariordeak asteazken honetan onartu du ez zutela ez asegururik ezta suhiltzaile brigadarik ere. Faktore horiez gain, beste batzuk salatu zituzten herritarrek, besteak beste, mantentze lanetarako funts publikoen murriketa eta eraikuntzaren azpiegitura arazoak (hala nola, itoginak eta ura sartzeak). Serejok azaldu duenez, erakundeak baztertu egin zuen asegurua kontratatzeara eta suteei aurre egiteko funtzionario talde bat sortzea, ordaindu ezin ziren kostu gehigarriak zirelako.*

Japonés: ブラジルのリオデジャネイロにある国立博物館で火災が発生し、貴重な収蔵品の数々が失われたとみられる問題で、地元の消防当局は館内の防火システムに不備があったことを4日までに明らかにした。システムの改修は1カ月後にも始まる見通しだったが、それに間に合わないタイミングでの火災発生となつた形だ。リオデジャネイロ消防署の広報担当者は、博物館に設置された消火栓2基について、2日夜の時点で水圧が不足しており、消防士らは池から水を引いて消火に当たらなくてはならなかつたと説明した。

Gipuzkoako osagarri pluraldun adizki tripertsonalen erroez¹

*On the roots of Gipuzkoan tripersonal verbal forms
with plural object*

Olatz Leturiaga Angoitia*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In this article, we examine the development of tripersonal verbal forms for a plural direct object in the Basque of Gipuzkoa. The fact is that it is not always obvious whether a given form is based on the root of the reconstructed verb **eradun* or on that of **nin*. That being the case, our goal here is to try to determine whether some specific forms that are found in old texts from Gipuzkoa (a few of which still survive in some local dialects) are based on one or the other of these two roots. To begin with, we examine *diozka* ‘s/he Vs them to him/her’ (Standard Basque *dizkio*) and present arguments both for and against each of the two hypotheses: that this form historically belongs to **eradun* and that it belongs to **nin*. We argue that *diozka* and *diezte* ‘s/he Vs them to them’ (St Bq *dizkie*) are more likely to be based on **nin* (*dio* + *-zka-* > *diozka*; *die* + *-zte-* > *diezte*). Then, we show that the same hypothesis can be extended to forms like *dizkol/dizka* (St Bq *dizkio*) eta *diztel/dizk(o)e* (St Bq *dizkie*). Thus, we propose that, after a contraction *diozka* > *dizka*, the morphological structure of this form was reinterpreted and other forms of the same paradigm were created by analogy: *diozka* /d-i-o-zka-Ø/ > *dizka* /d-i-z-ka-Ø/ and, then, by analogy, *dizko* (St Bq *dizkio*), with the same meaning, and also *dizku* ‘s/he Vs them to us’ (St Bq *dizkgu*), *ditzu* ‘s/he Vs them to you’ (St Bq *dizkizu*) *diztan* ‘that s/he Vs them to

¹ Artikulu hau nire Master Amaierako Lanaren zati bat da (*Gipuzkoa erdialdeko testuetan barrena: aditz-morfologíako ezaugarri batzuen azterketa*). Eskerrak eman nahi dizkiot Iñaki Caminori master-tesiaren zuzendari moduan egindako ohar eta zuzenketengatik; baita Mikel Martínez-Areta eta Urtzi Reguerori ere, defentsa egunean egindako iruzkin eta oharrengatik. Lan honek *Monumenta Linguae Vasconum 5: periodización y cronología* (MINECO, FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren laguntza izan du.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Olatz Leturiaga Angoitia. Hizkuntzalaritz eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea, UPV/EHU. Unibertsitateko ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz) – oleturiaga001@ikasle.ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: Olatz Leturiaga Angoitia (2021). «Gipuzkoako osagarri pluraldun adizki tripertsonalen erroez». *ASJU*, 53 (1-2), 127-162. (<https://doi.org/10.1387/asju.22414>).

me' (St Bq *dizkidan*), etc. In addition, we consider the possible influence of literary Gipuzkoan. As a matter of fact, in Gipuzkoan texts of the 18th-19th centuries, seemingly old forms like *diozka* and *diezte* are still very frequent. In our opinion, some relatively recent authors may have preserved those forms because of the prestige of literary Gipuzkoan. Besides considering the root of these verbal forms, we also offer a hypothetical chronology of the different verbal roots and pluralizers that we find in the texts.

KEYWORDS: tripersonal verbal forms, plural direct object, verb root, innovation, analogy.

LABURPENA: Artikulu honetan Gipuzkoako osagarri pluraldun adizki tripertsonalak dira aztergai. Izan ere, beti ez da erraza jakiten adizki batzuen oinarrian zein erro dagoen: *eradun *ala**nin. Hori horrela izanik, saio honen helburua da Gipuzkoako testu zaharretan ageri diren —eta gaur egun zenbait hizkeratan dirauten— adizki batzuen oinarrian zein erro dagoen argitzen satztea. Lehenetabizitz, diozka 'dizkio' erakoez arituiko gara, eta *eradun eta *nin hipotesien aldeko nahiz aur-kako argudioak aurkeztuko ditugu; hala, saio honetan defendatzen dugu diozka 'dizkio' & diezte 'dizkie' adizkiek *nin erroa izateko itxura dutela (dio + -zka- > diozka; die + -zte- > diezte). Ondoren, hipotesiek bera dizko/dizka 'dizkio' eta dizte/dizk(o)e 'dizkie' erakoetara hedatzekeen iku-siko dugu, gure ustean hala baita; horren arabera proposatzen duguna da diozka > dizka gertatu eta, beharbada, haren analogiaz sortuak izan daitezkeela azken horien gisako paradigmako gainerako adizkiak: hau da, diozka (d-i-o-zka-Ø) > dizka (d-i-z-ka-Ø) > dizko 'dizkio'; dizku 'dizkigu', ditzu 'dizkizu', distan 'dizkidan', etab. Bestalde, literatur gipuzkeraren balizko eraginaz ere jardungo dugu. Izan ere, XVIII-XIX. mendetako Gipuzkoako testuetan ugari dira oraindik diozka 'dizkio' & diezte (eta diozkate) 'dizkie' erako adizkiak 3. pertsona datiboarekin, nahiz eta, ustez, forma zaharrak izan; gure iritzian, literatur eredutzat hartu izan ziren idazleen lanetan —besteak beste, Larrramendiren 1729ko gramatikan— diozka & diezte erako adizkiak agertzeak lagundi zezakeen, beharbada, geroagoko idazleen testuetan (Lariz, Ubillos, Agirre Asteasukoa, Lardizabal, etab.) adizkiok hedatzen. Aipatutako adizkietako erroez jarduteaz gain, erroaren eta erro bakoitzak hartzen zuen pluralgilearen araberako (balizko) kronologiaz bat ere eskainiko dugu.

HITZ GAKOAK: adizki tripertsonalak, osagarri plurala, aditz erroa, berrikuntza, analogia.

1. Sarrera²

Aurreko hainbat lanetan esan izan denez, Euskara Arkaiko eta Zaharrean **eradun oinarria* erabiltzen zen Gipuzkoan osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan; **nin erroa, al diz, osagarri singularrarekin* (Mounole & Gómez 2018; Mounole & Lakarra 2018).³ Haatik, beti ez da erraza jakiten adizki batzuen oinarrian zein erro dagoen: esate baterako, Gipuzkoako testuetan ageri diren *diozka* ‘dizkio’ erakoak ziurtasunez esan al dezakegu **eradun oinarrikoak* direla, eta ez **nin errokoak?* Eta *dizka/dizko* ‘dizkio’ erakoak? (cf. Ariztimuño, *apud* Lakarra 2011: 197).

Esan behar da Gipuzkoan bakarrak ez, Lapurdin ere ageri direla testu zaharretan *diozka* ‘dizkio’ modukoak “hari” datiboarekin, adiera bereko *diotza*-rekin batera. Adibidez, Haraneder donibandarraren ebanjelioan (1740) *diotça* ‘dizkio’ & *ciozcan* ‘zizkion’ daude (*vs.* beste pertsona datiboetako *daretçuet* ‘dizuet’, *daroçquitçuetet* ‘dizkizuet’, etab.; Camino 2018: 106); Martin Harismendy arbonarrak ere *diosquate* ‘dizkiote’ (1767: 63) & *dioscan* ‘dizkion’ (70) ditu (cf. Elosegi 2018), eta 1757ko Donibane Lohizuneko idazki batean *dijotza* ‘dizkio’ ageri da (Le Dauphin: euskarazko gutunak (1757), *apud* Lamikiz *et alii* 2015: 95-161).

Lapurdiko *-io-dun* adizkiei dagokienez, **nin errokoak* baizik ezin daitezke izan. Izan ere, Ipar Euskal Herri eta Nafarroan **eradun oinarriko adizkiek* *derau-*, *drau-*, *darau-*, *daro-*, *derei-* itxura dute (Camino 2018: 103-110), *vs.* Gipuzkoako *dirau-/zirau-*. Hori horrela izanik, Lapurdin **eradun oinarriko -erau-, -arau- & -aro-* ezin daitezke fonikoki *-io-* bihurtu, eta hortaz, Lapurdiko *diozka* & *dio-tza* ezin daitezke **eradun* izan. Gainera, badakigu adizki tripertsonaletan **nin & *eradun* banaketa osagarrian zeudela Lapurdin, ekiäldean bezala: **nin erroa* era-biltzen zen “hari” datiboko adizkietan, eta **eradun*, berriz, gainerako kasuetan (Camino & Mounole 2014; Mounole 2015). Alegia, **nin erroa* era-biltzen zen *-io-* duten adizkietan.

Gipuzkoako testuetan ageri diren *diozka* ‘dizkio’ gisako adizkiak, aitzitik, **eradun oinarrikoak* ere izan daitezke. Izan ere, Gipuzkoan, Lapurdin ez bezala, **eradun*

² Aztertutako testuen laburdurak (gehienak EHHE-200tik, beste batzuk OEItik edo moldatuta): Azkoitiko *Sumario Brevea: SumBrev* (1614; cf. Urkizu 2008-2009); Otxoa Arinen dotrina: OArin (1713); Lasarteko bertssoak: LasartBerts (1716; cf. Satrustegi 1987); Lubietaren gramatika: Lubierta (1728); Larramendiren *El imposible vencido* gramatika: LarmEIV (1729); Larramendiren Azkoitiko sermoia: AzkSerm (1737; cf. Lakarra 1985); Azpeitiko altzagatar familiaren gutunak: AzpGut (c. 1738; cf. Madariaga, Azpiazu & Elortza 2009); Irazustaren dotrina: Iraz (1739); Kardaberatzen *Kristaberen bizitza*: Kardab (1744); Peñafloridaren *Gabon Sariak: GabS* (1762); Peñafloridaren *El borracho burlado: BorrB* (1764); J. Altzibarren *Grand Tour* antzerkia: GTour (1772; cf. Aldekoa 2007); Larizen dotrina: Lariz (1773); Oikiako dotrina: OikiaDot (1784; cf. Lakarra 1987); Ubillosen dotrina: Ubill (1785); Itziarko Andramariaren omenezko bederatzurrena: Itziar (1790 [1768]); Goierriko platika: GoiPlat (xviii; cf. Murugarren 1984); Loiolako dotrina: LoiolaDot (xviii; cf. Altuna 1995); Agirre Asteasukoak: AgirAst (1803); Iztuetaren *Gipuzkoako dantza gogoangarrrien kondaira edo historia*: Izt (1824); Azpeititik Errromara bidalitako eskaria: AzpEsk (1840; cf. Madariaga, Azpiazu & Elortza 2009); Lardizabalen *Testamentu Berri eta Zaharreko kondaira edo historia*: Lardiz (1855); Etxagarai: Etxag (xviii-xix; cf. Zavala 1964); Otaegi Beizamakoa: Otaegi (xviii-xix; cf. Otaegi 1993).

³ Nahiz eta saio hau diakronia beteko berreraiketa lan bat ez izan, erosotasunagatik eta argitasuna lortzeko asmoz, **eradun* & **nin* moduan izendatu ditugu adizki tripertsonaletako aditz laguntzaileen oinarri edo erroak (cf. Lakarra 2018).

& **nin*-en hautaketa ez zen datibo pertsonaren araberakoa, eta osagarri pluraldun “hari” datiboko adizkietan ere **eradun* oinarria erabiltzen zen: *dirautza* ‘dizkio’, *zirauzkan* ‘zizkion’, etab. (cf. OArin 1713). Halaber, aipatu dugunez, *dirau-/zirau-* gisa ageri dira **eradun* oinarriko adizkiak Gipuzkoan; honenbestez, itxuraz, -io-dun adizkiak **nin* erotik hurbilago daudela dirudien arren (cf. singularreko *dio*), bali-teke **eradun* oinarriko -*irau-* > -*io-* bihurtu izana ere, -*irau-* > -*iau-* > -*iu-* > -*io-* ger-tatuta (Ariztimuño, apud Lakarra 2011: 197). Hipotesi hori, gainera, *dizka* ‘dizkio’ erako adizkietara ere heda daiteke *diozka* > *dizka* gertatu zatekeela pentsatuta (Lakarra 2011).

Gipuzkoako *diozka* & *dizka* ‘dizkio’ erako adizkiak zein errotakoak diren az-tertzeak Gipuzkoako euskara hobeto ezagutzeko aukera ematen digu; are gehiago, erdialdeko Euskal Herriko aditz laguntzaileen bilakaeraren eta historiaren ezagu-tzan aurreratzen ere lagundi gaitzake. Izan ere, aipatutako adizkiok erro batekoak ala bestekoak direla frogatzeak Gipuzkoako berrikuntza baten lehen ager-pena erakutsiko liguke; galdera litzateke ea berrikuntza hori zein den: a) **eradun* oinarriko adizkietan -*i(ra)u-* > -*io-* gertatzea —eta ondoren, -*io-* > -*i-* behar-bada—; edo b) osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan ere **nin* erroa erabil-tzen hastea.⁴ Itxuraz, bi aukerak posible direnez, eztabaidea hori argitzen saiatuko gara jarraian.

Lehendabizi, *diozka* ‘dizkio’ erako adizkiak izango ditugu hizpide, eta **eradun* eta **nin* hipotesien aldeko nahiz aukako datuak aurkeztuko ditugu. Iku-siko dugun moduan, badirudi **nin* errokoak direla pentsatzeko hainbat arrazoi ditugula, nahiz eta gerora gertatutako analogiak tarteko, zaila den ziur jakitea noiz, non eta nola sortu ziren horrelako adizkiak. Jarraian, *dizkal/dizko* ‘dizkio’, *diztel/dizk(o)e* ‘dizkie’ erako adizkietan jarriko dugu arreta, hipotesi bera adizki hauetara ere heda daitekeen edo ez ikusteko; oraingo, behintzat, hipotesi egiantzekoa dirudi *diozka* > *dizka* gertatu zela pentsatzea, eta, beharbada, *dizka* horren analogiaz sortu bide zirela *dizko* ‘dizkio’, *ditzu* ‘dizkizu’, *dizku* ‘dizkigu’ erakoak. Ondoren, *diozka* ‘dizkio’ & *diezte* ‘dizkie’ adizkien hedaduraz jardungo dugu; ohartu baikara XVIII-XIX. mendeetako auto-reen testuetan nabarmen ugaritzen direla adizkiok. Horregatik, eta testuak zein diren iku-sita, uste dugu balitekeela ugaltze hori literatur gipuzkeraren eraginari zor izana. Amaitzeko, ondorioak laburbildu eta erroaren eta erro bakoitzak hartzen zuen plu-ralgilearen araberako (balizko) kronologia bat eskainiko dugu, betiere, saio honetan proposatutako ildoei jarraituta.

⁴ Testu zaharrek erakusten digute Euskal Herriko mendebal zabaleko berrikuntza zaharrak Gipuz-koako mendebal eta erdialdera hedatu zirela. Aldiz, *diozka* ‘dizkio’ (& *diezte* ‘dizkie’) erako adizkiak **nin* errokoak direla frogatuko bagenu —b) aukera proposatu dugun bezala—, berrikuntza honetan Gipuz-koa (edo adizki hauek ageri diren Gipuzkoako alderdia) Lapurdirekin batera joango litzateke.

2. *diozka erako adizkiak*

2.1. Lehenengo hipotesia: *eradun oinarriko adizkiak izatea

2.1.1. di(r)auzka > diuzka > diozka *disimilazioa*

Larramendik jakinarazten digu, besteak beste, Azkoitian eta Azpeitian *eradun oinarriak jarraitzen zuela XVIII. mendean: “Aqui en Azpeitia y Azcoitia, hallo una terminación verbal, y es *dirautzat, dirauzquit*, por *diozcat, diauzcat, dizquit, diauzquit* pero no las siguen en todas las transiciones del verbo” (Larramendi 1745: xxvi, *apud* Lakarra 1985: 257).⁵ Era berean, Urolaldeko testu batzuek ere erakusten dute XVII-XVIII. mendeetan bazegoela oraindik *eradun NOR-NORI-NORK saileko osagarri pluraldun adizkietan: *dirauze ‘dizkie’* (*SumBrev* 1614: 17. agindua), *diauzcu ‘dizkigu’* (AzkSerm 1737: 2), *dirauzanac ‘dizkionak’* (AzpGut c. 1738: 10), *diaustela ‘dizkiela’* (LoiolaDot XVIII: 38), etab.; baita Gipuzkoako beste eskualdeetan ere: *dirautza ‘dizkie’* (OArin 1713: 66), *diuscu ‘dizkigu’* (LasartBerts 1716: 8. lerroa), *diuztegun ‘dizkiegung’* (Iraz 1739: 6), etab.

Haatik, XVIII. mendearren bigarren erditik aurrera, ordura arte Gipuzkoako testuetan ageri diren *di(r)au-/zi(r)au-* erako adizkiak itzalean geratu eta *diozka* (& *dizkal/dizko*) ‘dizkie’ gisakoak nagusitzen hasten dira. Aukera bat izan daiteke pentsatzea *eradun oinarrian *-i(r)au- > -iu- > -io-* bilakabidea gertatu zela (Aritzmuño, *apud* Lakarra 2011: 197), eta hortaz, *diozka* gisako adizkiak ere *eradun oinarrikoak direla:

- (1) D-IO-Z-KA-Ø
TAM3-*eradun-NOR3pl-NORI3sg-NORK3sg

Ildo beretik, hau da, *eradun oinarriko adizkietan bilakabide fonologikoak geratu izan zitezkeela onartuta, espero izateko da forma zaharrak (*-i(r)au-* erakoak) urrituz joatea eta, pixkanaka, berriak (*-io-* erakoak) nagusitzea. Urolaldeko Azkotikoa Sermoia (1737) testuan, adibidez, *-i(r)au-* duten adizki askorekin batera, *-io-* formako adizkiren bat dago: *Orain bada oec cecusalá beregan Virgiñac, ta zor CIOZ-CALA ‘zizkiola’ bere semeari* (1737: 6). Esan bezala, geroago *diozka* ‘dizkie’ gisakoak nagusitu zirela dirudi, XVIII. mendearren bigarren erditik aurrera ez baitago *di(r)au-/zi(r)au-* modukorik Gipuzkoako testuetan:⁶

⁵ Larramendik hori dioen arren, Urolaldeko testuetan ez dugu topatu *di(r)auzkit* ‘dizkit’ gisako [**eradun + -zki-*] egituradun adizkirkirik, vs. Gipuzkoako testuetako [**eradun + -(t)za- & -z-*]. Horri lotuta, gogoan izan behar da Larramendi gramatikagilea dela, eta beraz, haren lanetan ageri diren adizkiak oso kontuz aztertu dira; batez ere, delako adizki bat hark bakarrik dakarrenean, *dirauzkit* kasu.

⁶ Testuetako adizkien adibideak erabili dugun bertsioan ageri den grafia berean eman dira; horregatik, grafia gaurkotuan daude adibide batzuk, baina beste batzuk, aldiz, ez.

1. taula

-io-dun adizkiak (cf. *diozka*) Gipuzkoako testuetan

Urolaldean	AzkSerm (1737): <i>ciozcala</i> (6); OikiaDot (1784): <i>diozcan</i> (21) / <i>ciozcan</i> (25), <i>diozagu</i> (33); Otaegi (xviii-xix): <i>diozcatzu</i> (344), <i>diozte</i> (274) / <i>ciozten</i> (274), <i>diozque</i> (378) / <i>ciozquen</i> ⁷ (374, 381); AzpEsk (1840): <i>diozcala</i> (19), etab.
Goierrin	OArin (1713): <i>diozcan</i> (156) / <i>ciozcan</i> (19); GoiPlat (xviii): <i>ciozcaten</i> (5); Izt (1824): <i>diozca</i> (67), <i>diozcaten</i> (48) / <i>ciozcatenac</i> ⁸ (5); Lardiz (TZ eta TB, 1855): <i>ziozkan</i> , <i>ziozkatzen</i> , <i>diozkatute</i> , etab.
Tolosaldean	Iraz (1739): <i>diozcatzu</i> (27); Ubill (1785): <i>ciozten</i> (32), <i>ciozcan</i> (17), <i>ciozquenac</i> (33); AgirAst (1803): <i>diozcat</i> (23), <i>diozca</i> (214), <i>diozagu</i> (261), <i>diozcatzu</i> (68), etab.
Beterrin	Lubieta (1728): <i>diozatt</i> (6) / <i>niozcan</i> (245), <i>diozca</i> (240); Kardab (1744): <i>ziozkanak</i> (3), <i>diozkatzula</i> (4), <i>ziozkatzen</i> (14); Lariz (1773): <i>diozagu</i> (53), <i>diozcatzu</i> (70); Etxag (xviii-xix): <i>diozagu</i> (222), etab.

Gainera, -i(r)au- > -iu- > -io- bilakabideari jarraituta, -iau- eta -io- erako adizkien tarteko forma litzatekeen -iu- ere aurkitu da idazkietan, Otxoa Arinen dotriinan (1713), Lasarteko Bertsoetan (1716) eta, batez ere, Irazustaren dotriinan (1739). Hona hemen adibide batzuk: *egin diutzudan* ‘dizkizudan’ (& *dirautzut*; OArin 1713: 145); *jan diuscu* ‘dizkgu’ (LasartBerts 1716: 8. lerroa); *barcatcen diuzcun* ‘dizkgun’ (Iraz 1739: 18), *eman ciuzcun* ‘zizkgun’ (Iraz 1739: 46), *barcatcen diuztegun* ‘dizkiegun’ (Iraz 1739: 6), *eguiten diuztezun* ‘dizkiezun’ (Iraz 1739: 61-62) eta *emango diuzca* ‘dizkio’ (Iraz 1739: 53; & *diozcatzu* ‘dizkiozu’ 27).

Aipatutako datuak aintzat hartuta, Gipuzkoako testuetan bildutako adizkiak zerrrendatu eta balizko jarraipen edo norabidea irudikatu dugu; hala, badirudi Ariztiumuñok proposatutako hipotesiaren noranzkoa erakusten dutela testuetako zenbait adizkik. Adibidez:⁹

- (2) a. *diuzkat* > *diozkat* ‘dizkiot’
- b. *diuzka* > *diozka(n)* > *dizka* ‘dizkio’
- c. *diuztazu(la)* > *diztazu(la)* ‘dizkidazu(la)’

⁷ “Haiei” nahiz “hari” datiboa izan daitete: *Icusten cituan Jesusuc lurreco gendeac, baita berac eguiten cituen ta besteai eraguiten CIOZQUEN ‘zizkieten’ gauzac ere* (Otaegi xviii-xix: 374), vs. *Naaman sorayo edo leprosoari bere morroiac esan CIOZQUEN ‘zizkieten’ itz amoriotsuac esatearequin* (Otaegi xviii-xix: 381).

⁸ Lehenaldiko *ciozcaten* adizkiak “haiei” datiboa dela dirudi: *joco cituzten soñu anciña anciñaco chit particularrac [...] guciac jostaqueta oni egoquidatzen zaiozcanac eta mendietan lenago abelgorri oei beren zainac sarritan jo oí CIOZCATENAC ‘zizkietenak’* (Izt 1824: 5); aitzitik, orainaldiko *diozcate* adizkiak “hari” datiboa dirudi: *Ghilibituari eraguiten DIOZCATEN ‘dizkieten’ arrigarrizco gauza aundi aundi oriec dirade fusac, semi fusac, escala diatonicoac* (Izt 1824: 48), vs. Otaegiren “haiei” datiboko *diozcate* eta “hari” datiboko *ciozcaten*: *An condenatu bacoitzac bere burua ta besteac icusico ditu orrelaco pena genero gucietan betico. An deabruac burutic eta beguietatic sartuko DIOZCATE ‘dizkie’ burni gorizco lanzac eta* (xviii-xix: 390); *Ezarry zuen [‘zuten’, vs. zuan ‘zuen’] gurutzearen ganean, iltze gogorraquin onac ta escuac josi CIOZCATEN ‘zizkieten’* (xviii-xix: 312). Beraz, *diozcatel/ciozcaten* “hari” nahiz “haiei” izan zitezkeen. Gainera, egielik egilera ez ezik, egile beraren testuan ere adiera ezberdinak dute: batzuetan, -ka-te- da morfemen banaketa “hari-haiek”, eta beste batzuetan -kate osorik “haiei” datibo morfema da.

⁹ Adizkien norabidea argiago ikus dadin, ez dugu erreferentziarik eman, baina adizki guztiak aztertutako Gipuzkoako testuetan bildutakoak dira.

- d. *di(r)auztan* > *diuzta(la)* > *diztan* ‘dizkidan’
- e. *di(r)autzut* > *diutzudan* ‘dizkizut/dizkizudan’
- f. *di(r)auzku(n)* > *diuzku(n)* > *dizku(n)* ‘dizkigu(n)’
- g. *diuztezu(n)* > *diztetzu(n)* ‘dizkiezu(n)’
- h. *diaustegu(n)* > *diuztegu(n)* ‘dizkiegu(n)’

Adibide horiekin ikus daiteke, hain zuzen, *eradun oinarriak bilakabideak jasan zi-tuela. Gainera, autore berak forma zahar nahiz berriak ere erabiltzen ditu zenbaitetan: Otxoa Arin (1713) dugu, esate baterako, horren adibide: *dirautzut* (145) ‘dizkizut’ & *diutzudan* (145) ‘dizkizudan’ biak ditu; baita -io-dun *diozcan* (156) ‘dizkion’ / *ciozcan* (19) ‘zizkion’ ere. Irazustak (1739) ere *diuzca* (53) ‘dizkio’ & *diozcatzu* (27) ‘dizkiozu’ ditu. Honenbestez, esan daiteke balitekeela *eradun oinarriko adizkietan -iu- > -io- disimilazioa gertatu izana, *diozka* gisakoak *diuzka* gisakoetatik urrun ez daudela aintzat hartuta.

2.1.2. di(r)auzka > diozka *monoptongazia*

Testuetan bildutako adizkien jarraipen edo norabidea irudikatu dugunean, adizkiak modu sistematikoan bildu ditugu, baina esan beharra dago Gipuzkoako es-kualde guzietan ez direla ageri adizki horiek guztiak. Hori dela eta, eskualde guzietan ez da hain garbi ikusten *eradun oinarriko adizkien bilakaera -i(r)au- > -iu- > -io- izan zitekeenik. Gainera, forma zahar eta berriagotzat hartu ditugun horiek ez dira eskualde guzietan garai berean ageri; esate baterako, Goierrin *diutzudan* (145) ‘dizkizudan’ dago 1713an (OArin), baina Urolaldean 1737an oraindik *diauzcu* (2) ‘dizkigu’ edo *diauztan* (11) ‘dizkidan’ adizki luzeagoak ageri dira (AzkSerm); Tolosaldean 1739an *diuzca* (53) ‘dizkio’ dakar Irazustak, baina garai bertsuan *dirauzanac* (10) ‘dizkionak’ ageri da Azpeitiko altzagatarren gutunetan (c. 1738). Beterriin ere *diuscu* (8. lerroa) ‘dizkigu’ gisakoak 1716rako jada bazirela erakusten dute Lasarte-ko bertsoek, Urolaldean ez bezala:

2. taula

*eradun oinarriko adizkiak Gipuzkoako testuetan, eskualdearen eta urtearen arabera

Urolaldea	Goierrri	Tolosaldea	Beterri
1614: <i>dirauze</i>			
	1713: <i>diutzudan</i> (& <i>dirautzut</i> , <i>dirautza</i> , etab.)		1716: <i>diuscu</i>
1737: <i>diauzcu</i> , <i>diauzten</i> , <i>diauztan</i>			
c. 1738: <i>dirauzanac</i>			
		1739: <i>diuzcun</i> , <i>ciuz-</i> <i>cun</i> , <i>diuztegun</i> , <i>diuzca</i> , etab.	
xviii: <i>diaustegun</i> , <i>diauz-</i> <i>cazu</i> , <i>ciauzcan</i> , etab.			

Are gehiago, eskualdez eskualde begiratuta, Beterri, Tolosaldean eta Goierrin bai, baina Urolaldean, adibidez, ez dugu *-iu-*dun adizkirkirik aurkitu; *-i(r)au-* edo *-io-* erakoak ageri dira bertan, baina ez bi forma horien tarteko *-iu-*. Jarraian ageri den taulan bildu ditugu Urolaldeko testuetan aurkitu ditugun eta **eradun oinarrikoak* di-ren edo izan daitezkeen zenbait adizki.¹⁰

3. taula

**eradun oinarrikoak* izan daitezkeen adizkiak Urolaldeko testuetan

<i>SumBrev</i> (1614)	<i>dirauze</i> (17)
<i>AzkSerm</i> (1737)	<i>diauzcu</i> (2), <i>diauztan</i> (11), <i>diauzten</i> (11), <i>ciauzcan</i> (13) <i>ciozcala</i> (6)
<i>AzpGut</i> (c. 1738)	<i>dirauzanac</i> (10)
<i>LoiolaDot</i> (xviii)	<i>diauzcazu</i> (17), <i>diauzcun</i> (8), <i>diaustegun</i> (16), <i>diaustela</i> (38)
<i>OikiaDot</i> (1784)	<i>diozcan</i> (21), <i>diozcagu</i> (33), <i>diozcat</i> (44)
<i>Otaegi</i> (xviii-xix)	<i>diozcat</i> (310), <i>diozcatzu</i> (299), <i>diozca</i> (337) / <i>ciozcan</i> (353), <i>diozcagu</i> (320), <i>diozque</i> (281) / <i>ciozquen</i> (281), <i>diozcate</i> (364) / <i>ciozcaten</i> (301), <i>diozte</i> (237) / <i>ciozten</i> (274), <i>dioztecenac</i> (338)
<i>AzpEsk</i> (1840)	<i>diozcala</i> (19)

Errealitate hori aintzat hartuta, eta *-io-*dun adizkiak **eradun oinarrikoak* di-rella pentsatuta, beharbada, baliteke Urolaldean *-iu-* > *-io-* disimilazioaren ordez, *-iau-* > *-io-* monoptongazia gertatu izana. Gainera, kontuan hartu behar da beste es-kualdeetan ere *-iu-*dun adizkiak ez direla testu askotan ageri, eta agerraldi gehienak autore berarenak direla; Irazusta alkizarrarenak, hain zuzen. Lekukotasun horretatik kanpo, *-iu-*dun adizkiak gutxi batzuk dira Gipuzkoako testuetan (cf. OArin *diutuzdan* eta LasartBerts *diuscu*). Egia da lekukotasun gutxi horiek adierazgarri diruditela, Ordizia eta Lasarte elkarrengandik gertu ez egonagatik, Oria ibaieren arroan baitaude bi herriak; aitzitik, esan bezala, mendiz bestaldeko Urola eskualdean ez dira ageri.¹¹

Nolanahi ere, adizki batzuk Urolan ez ezik, beste eskualdeetan ere ez dira aur-kitu: esate baterako, “hari” datiboko *dirauzkagu* ‘dizkiogu’, *dirauzkazu* ‘dizkiozu’ eta

¹⁰ Zerrendan ez dira sartu Urolaldeko *GabS* (1762), *BorrB* (1764) eta *GTour* (1772) testuak, horie-tan *dizkal/disko* ‘dizkio’ gisakoak ageri direlako; § 3n jardungo dugu adizki horiez.

¹¹ Adibideren bat aurkitu da Itziarko Andramariaren omenezko liburuan: *cerren zere Seme Jaunac comunicatu ziutzun* ‘zizkizun’ *gracia andi oec, eta cerren misterio onetan eracutsi ziñuzcun* ‘zenizkigun’ (< *ziniuzkun) *virtute andiac* (1790 [1768]: 22). Dena dela, agerraldi bakar horiekin ezin dezakegu ziur-tasunez esan Urolaldean ere honelakoak erabiltzen zirela; izan ere, Zuloagak honako hau dio testu ho-rreten bertan *a + a* > *ea* erregela ez dela betetzen dioenean: “Aldazabalen 1768ko liburuan zein Ama Bir-jinaren omenezko bertsio eta kantetan (ItziarBerts, ItziarKant) ez da erregela betetzen, dirudienez testu batzuk eta bestetzuk erdialderagoko (Beterriko) euskarara begira idatzি zirelako, ez Itziaren/Deban erre-gelarik ez zelako” (2019: 227). Agian, arrazoi bera egon daiteke gure gaiari dagokionez ere; aipatu dugu-nez, *-iu-* erako adizkiak Oria ibaieren arroan aurkitu baititugu, besteak beste, Beterri aldeko Lasarteko Bertsoetan (1716).

zirauzkan ‘zizkion’ adizkiei dagokienez, ez ditugu **diuzkagu*, **diuzkazu* eta **ziuzkan* formak topatu, ezta *-iu-* dun adizkiak badiren inguruan ere. Bai, ordea, *diozkagu* ‘dizkiogu’, *diozkazu* ‘dizkiozu’ (*-iu-* ugarien duen Irazustak (1739) ere *diozcatzu*) eta *ziozkan* ‘zizkion’. Delako adizkiok testuetan ez aukturzeak, noski, beti ez du frogatzen horrelakorik ez zegoela; baina Euskal Klasikoen Corpusean (Euskara Institutua 2013; hemendik aurrera EKC) bilaketa eginda ere ez dago (ia) agerraldirik. Salbuespen bakarra da *ziuzkan* ‘zizkion’ adizkiaren xx. mendeko agerraldi bat, Pierre Lhanderena: *zan bezelakoaz beste bat izango balitz, laixter Flamendarraren gogoeta tzarrak Yolanda-ren aitari salatuko ZIUZKAN*. Honekin esan nahi duguna da ditugun datuekin, behintzat, ezin daitekeela ziurtatu **eradun oinarriko -i(r)au-* guztiak *-iu-* bilakatu zirela, eta ondoren *-io-*, nahiz eta adizki batzuetan bilakabide hori egon zitekeela dirudien.

Hori horrela izanik, behartu samarra izan daiteke adizki batzuetan *-iu- > -io-* disimilazioa (*-iau- > -iu-* sinkopa bitarte; cf. *diuzkat* > *diozkat*; *diuzka* > *diozka*), eta beste adizki batzuetan, aldiz, *-iau- > -io-* monoptongazioa (cf. *ziauzkan* > *ziozcala*) gertatu zela defendatzea. Izan ere, ikertzaileak datuetatik teoriara eraiki behar du hipotesia, eta ez eraiki duen teoriara datuak *ad hoc* egokitzen eta interpretatzetan saiatu, datuok komeni zaizkion erara interpretatzuz. Horregatik, beste aukera bat izan daiteke pentsatzea *-iu-* dun adizkiak direla **eradun oinarriaren azken hondarrak*, eta *-io-* erako adizkiak, aldiz, Gipuzkoan osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan **nin* erroa erabiltzen hasi zen garaiko lehen agerraldiak.

2.2. Bigarren hipotesia: **nin* erroko adizkiak izatea

2.2.1. dio → diozka

Gipuzkoako testu zenbaitek NOR-NORI-NORK sailean osagarri singulararekin *dio* eta pluralarekin *diozka* ‘dizkio’ formak dituzte. Hala, beste aukera bat izan daiteke pentsatzea *-z-* pluralgilea eta *-ka-* “hari” datibo morfema, biak batera, pluralgile oso gisa interpretatu zirela: *dio → diozka* (*dio + -zka-*):

- (3) D-I-O-ZKA-Ø
TAM3-**nin*-NORI3sg-NOR3pl-NORK3sg

Lehenago esan bezala, hipotesi hau onartzeak esan nahiko luke XVIII. menderako Gipuzkoan NOR-NORI-NORK saileko osagarri pluraldun adizkietan **nin* erroa ere era-biltzen zela (*ante quem OArin* 1713). Aukera hau ziurtatzeko edo baztertzeko asmoz, testuek eskaintzen dizkigutenean datuak aztertuko ditugu jarraian.

Alde batetik, osagarri pluraldun adizkiei erreparatuta, badirudi *-io-* 3. pertsona datiboaarekin bakarrik ageri dela; batez ere, “hari” singular datiboaarekin, baina Otaegi Beizamakoak (XVIII-XIX) “haiei” datiboko *diozten* ‘dizkie’ eta *ciozten* ‘zizkien’ adizkiak ere badakartzza (cf. Gipuzkoako hizkera askotako *dio(t)e* ‘die’):

- (4) a. *Au bera eguiten du demonio animen lapurrac, cenec animac ostu ta infernura eramateagatic ichitzen DIOZTEN aoac pecatuac confesatu ez ditzaten* (Otaegi XVIII-XIX: 283)
b. *Orobat David Erreguec barcatu CIOZTEN bidebagueac Sauli, Absalon bere semeari ta Semei gaiztoari* (Otaegi XVIII-XIX: 337)

Bada, *-io-* erako adizkiak **eradun* oinarriak izandako aldaketa fonologikoen ondorio balira, berrikuntza 3. pertsona datibodun adizkietan ez ezik, 1. eta 2. pertsona datibodunetan ere gertatzea esperoko genuke; are gehiago, *diozka* gisako adizkiek testu idatzietan duten hedadura aintzat hartuta. Ez dago, ordea, **diozta* ‘dizkitan’, **diozku* ‘dizkigu’, **diotzu* ‘dizkizu’ eta **diotzue* ‘dizkizue’ gisako adizkiriekin (*vs. di(r)auztan & diztan, dirauzku & dizku*, etab.). Dena dela, kontuan hartu behar da berrikuntzak 3. pertsonan gertatu ohi direla eta, aitzitik, 1. eta 2. pertsonen ezaugarri zaharrei eutsi ohi dietela.¹² Alde horretatik, baliteke *-iu- > -io-* disimilazioa edo *-i(r)au- > -io-* monoptongazioa 3. pertsona datiboan gertatu, eta berrikuntza bertan amaitzea, beste datibo pertsonetara hedatu gabe.

Alabaina, arrazoi gehiago ere badaude *diozka* gisakoak **nin* errokoak izan daitezkeela pentsatzeko. Izan ere, testuetan aurkitutako adizkien balizko jarraipen edo norabidea proposatu dugunean, aipatu dugu *-io-* erako adizkien ondoan adiera bereko *-i(r)au-* edo *-iu-* formadun aldaerak ere aurkitu ditugula, eta hortaz, **eradun* oinarritik eratorriak izan daitezkeela —dela asimilazioz edo dela monoptongazioz—. Hain zuzen, *-iu-* erako aldaerarik ez duten adizkien kasuan, monoptongazioa gertatu ahal izan zela proposatu dugu. Haatik, esan beharra dago proposamen horrek ere ez dituela **eradun-en* aldeko hipotesiak izan ditzakeen ahulguneak guztiz konpontzen; adizki batzuetan *-iu-* erako adizkiak ez ezik, ustezko jatorrizko *-i(r)au-dun* adizkiak ere falta baitzaizkigu. Besteak beste, honako adizki hauetan:

- (5) a. *diozka* ‘dizkio’ < *diuzka* (Irazustarena agerraldi bakarra) < **dirauzka*¹³
- b. *diozke* & *diozkate*¹⁴ ‘dizkiote’ < **diuzk(a)e* & **diuzkate* < **dirauz(k)a(e)* & **dirauzkate*
- c. *ziozken*¹⁵ & *ziozkaten*¹⁶ ‘zizkieten’ < **ziuzk(a)en* & **ziuzkaten* < **zi- rauz(k)a(en)* & **zirauzkaten*
- d. *ziozten* (& *ziezten*) ‘zizkien’ < **ziuzten* < **zirauzten*

Egia da ‘dizkiote’, ‘zizkieten’ eta ‘zizkien’ adizkiei dagokienez, ez dugula adiera horretako adizkirenei bat eskatzen duen testuingururik topatu XVIII. mendearren bigarren erdia baino lehenagoko testuetan; hots, **eradun* oinarriak irauten zuela dakigun garaian.¹⁷ Beraz, ezin dezakegu ziurtatu aztertutako testuetan aurkitu ez izanagatik adizki

¹² Reguerok (2019) honako hau dio **nin* erroko erdiguneko berrikuntzat hartzeo arrazoia ematen dituenean: “Ez dago arazorik pentsatzeko hirugarren pertsona dela berriu dena; izan ere, hizkuntza askotan hirugarren pertsonak aldaketa jasaten ditu; aitzitik, lehen eta bigarren pertsonan ez da aldaketarik egoten” (Mañczak 1957: 301-312, *apud* Reguero 2019: 446).

¹³ Orainaldiko ‘hari’ datibodun adizkietan [**eradun + -z-*] egitura bildu da 1. eta 2. pertsona ergatiboezin —cf. *dirauzkagun* eta *dirauzkazu*—, baina ez, aldziz, ergatibo nahiz datiboa 3. pertsona direlarik —cf. orainaldiko *dirautzanak* baina **dirauzka*, *vs. lehenaldiko zirauzkan*—. Egia da Irazustak *diuzca* ‘dizkio’ dakarrela (1739: 53), eta beraz, baliteke **di(r)auzka* osoagoa ere inoiz egon izana; dena dela, aipatu dugu Irazusta alkizarraren testuan *-iu-* erako adizkiak beste idatzietan baino ugariago ageri direla. Ez dirudi, oro har, *-iu-* erako adizkiak Irazustak islatu bezaindun Gipuzkoan.

¹⁴ Baina ‘dizkie’ ere izan daiteke; cf. LarmEIV (1729) eta Otaegi (XVIII-XIX). Iku 8. oin-oharra.

¹⁵ Baina ‘zizkieten’ ere izan daiteke; cf. Otaegi (XVIII-XIX). Iku 7. oin-oharra.

¹⁶ Baina ‘zizkien’ ere izan daiteke, cf. LarmEIV (1729); eta ‘zizkieten’ ere bai, cf. Izt (1824). Iku 8. oin-oharra.

¹⁷ Azkoitiko Sermoian ageri den *diauzten* adizkiak ‘dizkieten’ dirudi —Lakarrak ‘dizkidaten’ gisa dakkaren arren (1985: 257)—: *daguigun [negar] gueure culpa itsusiagatic, ceñac Virgiñari ematen DIAUZ-*

horiek bazeuden, edo benetan ez ziren existitzen. Esate baterako, “hark-haiei-haiek” testuinguruan -tza- pluralgiledun *dirautze* ‘dizkie’ adizkiarekin batera, -z- pluralgiledun *diaustela* ‘dizkiela’ ere jaso dugu orainaldian; baina iraganeko **zirauzten* ‘zizkien’ adizkia ez dugu topatu, adizki hori eskatuko lukeen testuinguruk aurkitu ez dugulako.

Aldiz, “hark-hari-haiek” testuinguruan, adibidez, iraganeko *zirauzkan* ‘zizkion’ bildu dugu, baina orainaldian, beriz, -tza- pluralgiledun *dirautza* ‘dizkio’, eta ez **dirauzka*; era berean, -tza pluralgiledun **zirautzan* erakorik ere ez dago iraganaldian, *zirauzkan* baizik (cf. OArin 1713). Honenbestez, azken adibide honek erakus dezake orainaldiko eta iraganaldiko adizkien artean aldeak egon daitezkeela, eta bata izateak ez duela bestea izatea ziurtatzen. Hortaz, momentuz, esan daitekeena da adizki batzuetan -i(ra)u- erako jatorrizko aldaera zaharrak falta zaizkigula -io-dun adizkiak **eradun* oinarrikoak direla ziurtasunez frogatu ahal izateko.

2.2.2. die → diezte

Orain arte esandakoaz gain, **nin* erroaren hipotesiaren alde egitera garamatza beste datu batek ere. Izan ere, -io- 3. pertsona datiboarekin ageri dela esan badugu ere —nagusiki “hari” datiboarekin, baina *diozten/ziozten* adizkiek ‘dizkien/zizkien’ adiera ere izan dezakete—, “haiei” datiboko adizki batzuetan -ie- ere badago: *dieztegun* ‘dizkiegun’ (OikiaDot 1784: 3; & *dizten* ‘dizkien’), *dieztetu* ‘dizkiezu’ (Otaegi XVIII-XIX: 315; & *diztetzun*); *diezte* ‘dizkie’ (Otaegi XVIII-XIX: 274; & *dizten*) / *ciezten* ‘zizkien’ (Otaegi XVIII-XIX: 300; & *cizten*), etab. XVIII-XIX. mendeetako testuetan ageri dira gisa horretako adizkiak Gipuzkoan; hala nola, Lariz (1773), Oikiako doctrina (1784), Ubillos (1785), Agirre Asteasukoa (1803), Lardizabal (1855) eta Otaegi Beizamakoaren (XVIII-XIX) testuetan.

Hori horrela izanik, eta aurretik esandakoa aintzat hartuta, zaila da 3. pertsona datiboko adizki horiek guztiak **eradun* oinarrikotzat hartzea, -i(r)au-k beharbada -io- eman bailezake, baina ez -io- (*diozka* ‘dizkio’) & -ie- (*diezte* ‘dizkie’) aldi berean. Baliteke *di(r)auzten* > *diuzte* (> *diozte*) ‘dizkie(n)’ adizkitik abiatu eta, ondoren, “haiei” datiboko -te- morfemak eraginda, *diuzte* (> *diozte*) > *diezte* asimilazioa gertatu izana. Baina horrek, berriz ere, **eradun* oinarriko teoriara datuak *ad hoc* egokitutu eta interpretatu izanaren kutsua hartzen du.

Dena dela, azken hipotesi hau litekeena den ala ez jakiteko, Gipuzkoako testuetan **eradun* oinarrikoak diren “haiei” datiboko adizkiak bilatu ditugu: -tza- pluralgiledun *dirauze* ‘dizkie’ adizkiarekin batera (< **dirau(t)zae*; SumBrev 1614: 17. agindua), -z- pluralgiledun *diaustela* (38) ‘dizkiela’ & *diaustegun* (16) ‘dizkiegun’ adizkien agerraldi bana aurkitu dugu Loiolako doctrinan (XVII);¹⁸ *diuztegun* (6)

TEN *naibagueric andienac* (1737: 11). Aldiz, Urolaldeko LoiolaDot (XVIII: 38)-n aurkitu dugun *diaustela* adizkiak ‘dizkiela’ adiera du. Bada, sermoiaz gain, Urolaldeko testuetan ‘dizkioten’ adizkiaren beste age-rraldirik topatu ez dugunez, eta Azkoitiko Sermoia Larramendi andoaindarra idatzitako testua dela aintzat hartuta, ez dugu uste Urolaldean *diauzten* adizkiak ‘dizkioten’ adiera (ere) izan zezakeela ziur esan dezakegunik. Izan ere, *diauzten* adizkiak ‘dizkioten’ adiera izateko -te 3. pertsona plural ergatiboko morfematzat hartu beharko genuke, eta ez “haiei” datiboko morfematzat, *diaustela* ‘dizkiela’ adizkian bezala —cf. Urolaldeko “haiek” ergatiboko -e morfema eta “haiei” datiboko -te- (& -k(o)e)—.

¹⁸ Azkoitiko Sermoian (1737) ere ageri da *diauzten*, baina, 17. oin-oharrean esan bezala, “hari” datiboko ‘dizkioten’ dirudi.

‘dizkiegun’ eta *diuztezu* (61-62) ‘dizkiezun’, berriz, Irazustaren testuan (1739). Esan beharra dago, ordea, berriz ere Irazustarenak direla *-iu-* erako adizkien age-rraldi bakarrak, EKCn bilaketa eginda ere ez baita emaitzarik jaso. Lehenago esan bezala, iraganeko *ziozten* & *ziezten* ‘zizkien’ adizkiak **eradun*-etik azaldu ahal iza-teko behar dugun **zirauzten* ez dugu topatu, ezta **ziuzten* ere Gipuzkoan, ez testuetan eta ez EKCn.¹⁹ Hortaz, “hari” nahiz “haiei” datibodun adizkiak aintzat har-tuta, honako datu hauek ditugu:

4. taula

Gipuzkoako testuetan bildutako *-io-* & *-ie-dun* adizkiak
eta adizki horien **eradun* oinarriko ustezko jatorrizko formak

Testuetan aurkitutako adizkiak	* <i>eradun</i> oinarriko ustezko jatorrizko formak
<i>diozte</i> & <i>diezte</i> ‘dizkie’	<i>diaustela</i> (& <i>dirauze</i>)
<i>ziozten</i> & <i>ziezten</i> ‘zizkien’	* <i>zirauzten</i>
<i>diozka</i> ‘dizkio’	* <i>dirauzka</i> (<i>diuzka</i> Iraz-en agerraldi bat)
<i>diozke</i> & <i>diozkate</i> ‘dizkiote’	* <i>dirauzk(a)e</i> & * <i>dirauzkate</i>
<i>ziozken</i> & <i>ziozkaten</i> ‘zizkioten’	* <i>zirauzk(a)en</i> & * <i>zirauzkaten</i>

Esan daiteke, beraz, ditugun datuekin zaila dela testuetan ageri diren adizki horiek guztiak **eradun* oinarritik eratortzea. Aldiz, erraz azal litezke adizkiok NOR-NORI-NORKEKO *-io-* & *-ie-* erako adizkietan **eradun* oinarria ez, baizik eta **nin* erroa dagoela pentsatuta; **nin* erroko *-i-* eta “hari” datiboko *-o-* (*d-i-o-Ø*) eta “haiei” datiboko *-e-* morfemak (*d-i-e-Ø*), hain zuzen (vs. **eradun* oinarriko *d-io-z-ka-Ø*). Era berean, *diozka* & *diezte* adizkietako *-zka-* eta *-zte-* [pluralgile + datibo morfema] egituraz osatutako pluralgiletzat hartuko genituzke; “hari” datiboarekin *-z-ka->-zka-* interpretatuta, eta “haiei” datiboarekin *-z-te->-zte-*:

- (6) a. D-I-O-ZKA-Ø
TAM3-**nin*-NORI3sg-NOR3pl-NORK3sg
- b. D-I-E-ZTE-Ø
TAM3-**nin*-NORI3pl-NOR3pl-NORK3sg

Egia da Gipuzkoako testuetan²⁰ datibo morfemak osagarriaren pluralgilearen on-doren ageri ohi direla (cf. *diuztegu* & *diztegu* ‘dizkiegun’), eta ez aurretik (Ariztimuño 2016: 32), aurreko adizki horietan ageri den moduan. Haatik, nola Ariztimuño (2016: 32), hala Reguerok (2019: 210) adierazi bezala, Tolosalde ondoko Areson bada horrela eratutako adizkiren bat **nin* erroarekin; cf. *diezcun* ‘dizkiegun’. Beraz, badirudi “datibo morfema-pluralgile” hurrenkera ez dela ezinezkoa **nin* erroa-

¹⁹ EKCn bilaketa eginda *ziuzten* adizkiaren bost agerraldi ageri dira, Lapurdikoak guztiak, eta ez dira ‘zizkien’ adierakoak, NOR-NORKEKO ‘zituzten’ adierakoak baizik.

²⁰ Baita Nafarroa Garaiko, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko testuetan ere (Ariztimuño 2016).

rekin (*vs.* **eradun* oinarriko ***d-irau-o-tza-*Ø ‘dizkio’, ***d-irau-gu-tza-*Ø ‘dizkigu’). Baliteke, hortaz, Aresoko adizki horren egitura bera izatea Gipuzkoako testuetan aurkitu ditugun *diozka* ‘dizkio’ & *diezte* ‘dizkie’ adizkiek.

2.2.3. NOR-NORI saileko zaiozka & zaiezte

Hipotesi honetan defendatu bezala -*zka*- & -*zte*- egiturak pluralgile oso moduan interpretatu izan baziren, orain arte aipatutako adizkietan ez ezik, pluralgile horiek adizki gehiagotan ere topatzea esperoko genuke. Bada, NOR-NORI saileko adizkietan ere badago horrela eratua dirudien adibideren bat Gipuzkoako testuetan: *zaio/zaiozka* ‘zaizkio’ & *zaiel/zaiezte* ‘zaizkie’. Urolaldean, esate baterako, ez da *zaiozka* & *zaiezte* bezalako adizkirik topatu NOR-NORIN, ezta NOR-NORI-NORKEN *diozka* & *diezte* gisako adizkiak nahiko ugari diren Urolaldeko testuetan ere. Horien ordez, *zaizka* ‘zaizkio’ & *zaizte* ‘zaizkie’ gisakoak ageri dira (cf. OikiaDot 1784 eta Otaegi XVIII-XIX). Aldiz, Goierriko, Tolosaldeko nahiz Beterriko testu batzuetan badira adibideak; hona hemen horietako batzuk:

- (7) a. *eta onembestez barcatcen ZAIOZCA ‘zaizkio’ guiac Sacramentu orren virtutez* (OArin 1713: 75)
- b. *cergicic ofensa gustocoaq ala ere animari tocacen ZAIOZCA ‘zaizkio’* (Lubieta 1728: 235)
- c. *G. Nola ofrecitu GUINZAIOZCAN ‘gintzaizkion’ orduan? E. Gure bioz gucia-requin bera servitzera, deabruaren lan guciaz errenunciaturic* (Lariz 1773: 74)
- d. *baldin aiec bear bezala eta zucenquiro arratzaren otsarequin adierazotcen BAZAIOZCA ‘bazaizkio’* (Izt 1824: 48)
- e. *auzpez jarri ZITZAIOZKAN ‘zitzaizkion’ eta urea, inzensua eta mirra eskeñi ziozkaten* (Lardiz TB 1855: 4)
- f. *orduan begiak argitu ZITZAIEZTEN ‘zitzaizkien’ eta Jauna ezagutu zuten, eta ezkutatu zitzaien* (Lardiz TB 1855: 61)

NOR-NORI-NORK saileko *diozka*-ren kasuan **eradun* edo **nin* errokoa den era-bakitzea zalantzagarria izan bidaiteke ere, NOR-NORIKO *zaiozka* argi dago *izan* erroa baino ezin dela izan, eta hortaz, badirudi *zaio* > *zaiozka* ‘zaizkio’ & *zaie* > *zaiezte* ‘zaizkie’ bezalako bilakabideren bat egon zela adizki horietan. Gainera, Gipuzkoako testu idatzietan -*zka*- XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera ugari-tzen bada ere, badirudi XVIII. mende hasierarako jada bazegoela; horren lekuko da Otxoa Arinen doctrina (1713): NOR-NORI-NORKeko *diozcan/ciozcan* adizkiekin batera, NOR-NORIKO *zayo* dauka NOR singulararekin, eta *zaiozca* NOR pluralarekin (& *zaizcal/citzaizcan*, *zaizcol/citzaizcon* ‘zaizkio/zitzaizkion’); cf. P. Altuna (1992: 578), Aranburu *et alii* (1999: 99).

2.3. Datibodun adizkietako analogiak

Orain arte esandakoa aintzat hartuta, esan daiteke **nin* hipotesiaren alde egiteko hainbat arrazoi daudela. Ikusi dugu, gainera, hipotesi horretan proposatutako -*zka*- eta -*zte*- pluralgileak datibodun adizkietan ageri direla; nola NOR-NORI-NORKEN, hala

NOR-NORIN. Baino non dute jatorria pluralgile horiek, NOR-NORI-NORKEKO *diozka* & *diezte* adizkietan ala NOR-NORIKO *zaiozka* & *zaiezte* adizkietan? Edo beste modu batera esanda, zein sailetan interpretatu dira lehendabizikoz pluralgile oso moduan? Ba ote liteke iragangaitz datibodunetako *zaiozka* & *zaiezte-ren* analogiaz, geroago, *diozka* & *diezte* tripertsonaletara hedatzea pluralgileak? Edo alderantziz gertatu da, hau da, *diozka* & *diezte-tik zaiozka* & *zaiezte-ra*? EKCn begiratuta, *diozka* & *diezte*-ren agerraldiak ugari dira, *zaiozka* & *zaiezte-renak*, ostera, gutxiago, eta batzuek eta besteek garai beretsuan dute lehen agerraldia:²¹

5. taula

NOR-NORI-NORKEKO diozka & diezte
eta NOR-NORIKO *zaiozka* & *zaiezte* adizkien emaitzak EKCn bilaketa eginda

<i>diozka</i> ‘dizkio’ (521 agerraldi):	xviii-1	xviii-2	xix-1	xix-2	xx-1	xx-2
	44	151	48	206	49	23
bizkaiera (15); gipuzkera (325); lapurtera (180); goi nafarrera (1)						
Gipuzkoako lekukotasunen artean: Iraz, Kardab, Ubill, AgirAst, Izt, Lardiz						
<i>diezte</i> ‘dizkie’ (129 agerraldi):	xviii-1	xviii-2	xix-1	xix-2	xx-1	
	9	47	18	49	6	
gipuzkera (125); goi nafarrera (4)						
Gipuzkoako lekukotasunen artean: Kardab, AgirAst, Izt, Lardiz						
<i>zaiozka</i> ‘zaizkio’ (67 agerraldi):	xviii-1	xviii-2	xix-1	xix-2	xx-1	
	1	0	22	42	2	
gipuzkera (61); lapurtera (6)						
Gipuzkoako lekukotasunen artean: OArin, Izt, Lardiz						
<i>zaiezte</i> ‘zaizkie’ (13 agerraldi):	xviii-2	xix-1				
	1	12				
gipuzkera (13)						
Gipuzkoako lekukotasunen artean: Lardiz, Kardab						

²¹ Bilaketa egitean, *diozka* & *diezte* eta *zaiozka* & *zaiezte* adizkiak osorik begiratu ditugu; hau da, jarraian aurkezen diren datuak adizki horien agerraldiak baizik ez dira, eta ez dira kontuan hartu atzizkiren bat dutenak (cf. OArin 1713: *diozcan*); era berean, ezta “hark” ez den beste pertsona ergatibo bat dutenak ere. Beraz, pentsa daitete, berez, adizki bakoitzaren agerraldiak hemen erakutsi baino gehiago direla. Azken finean, ikuspegi orokorra eskaintzea da oraingo gure asmoa, eta ez adizki bakoitzaren kopuru zehatzak erakustea.

Hala ere, NOR-NORI-NORKEKO *diozka* & *diezte* gehiago izanagatik, ezin esan daiteke ziurtasunez zaharrago direnik, bi sailetako adizkien lehen agerraldiak XVIII. mendearen lehen erdikoak baitira. Izatekotan, esan daiteke denboraren aldetik ez, baina kopuruaren aldetik nagusi direnez, *diozka* & *diezte-tik zaiozka* & *zaiezte-ra* hedatutako ustezko pluralgile horiek; hau da, adizki tripertsonaletatik iragan-gaitz datibodunetara. Hipotesi beraren alde egitera bultzakete beste datu hauek ere:

6. taula

NOR-NORIKO *zaizka* eta *zaiozka* adizkien emaitzak EKCn bilaketa eginda

<i>zaizka</i> ‘zaizkio’ (237 agerraldi)	xvi	xvii-1	xvii-2	xviii-1	xviii-2	xix-1	xix-2	xx-1	xx-2				
	3	3	0	22	54	34	46	74	0				
bizkaiera (18); gipuzkera (212); lapurtera (7)													
Gipuzkoako lekukotasunen artean: OArin, LarmEIV, Iraz, Kardab, AgirAst, Ubill, Izt													
<i>zaiozka</i> ‘zaizkio’ (67 agerraldi)	xviii-1	xviii-2	xix-1	xix-2	xx-1								
	1	0	22	42	2								
gipuzkera (61); lapurtera (6)													
Gipuzkoako lekukotasunen artean: OArin, Izt, Lardiz													

Datu horien arabera, badirudi *zaizka* zaharragoa dela *zaiozka* baino; adibidez, Lapurdi Leizarragak jada badarabil *zaizka* XVI. menderako. Guk aztertutako testuetan ere joera bera ikusi dugu: *zaizka* Otxoa Arinek (1713) jada badauka, baita Irazustak (1739) ere —ordiziarrak *zaiozka*-rekin batera—. Aldiz, geroagoko Larizek (1773) eta Lardizabalek (1855) *zaiozka* luzeagoa dakarte; hortaz, itxuraz, badirudi *zaiozka* > *zaizka* bilakabidea ez dela egiantzekoa, eta *zaizka* baino geroago sortua eta hedatua dela *zaiozka*. Bada, NOR-NORI-NORK saileko adizkiak ugariago direla aintzat hartuta, beharbada, pentsa daiteke *diozka* ‘dizkio’-ren analogiaz sortu zela *zaiozka* ‘zaizkio’.

Are gehiago, bi sailetan, itxura denez, “hari” datibodun adizkiak gehiago dira “haiei” datibodunak baino. Hala, baliteke [pluralgile + datibo morfema] egitura pluralgile osotzat hartzea “hari” datibodun adizkietan gertatu izana lehendabizi (-z-ka- > -zka-); eta ondoren, “haiei” datiboko *diezte* ‘dizkie’ & *zaiezte* ‘zaizkie’ adizkietara hedatzea egitura bera, analogiaz (-z-te- > -zte-). Gainera, datuetan ikus daiteke, batik bat, Gipuzkoan ageri direla -zka- & -zte-dun adizkiok.

Honenbestez, esan bezala, NOR-NORI adizkietako analogiak -zka- pluralgilea egon bazegoela erakusten du, eta beraz, balitekeela *dio* → *diozka* ‘dizkio’ bilakabidea gertatu izana —are gehiago, *eradun oinarriko hipotesiaren alde egiteko -i(r)au- nahiz -iu- erako adizkiak falta zaizkigula aintzat hartuta—. Hortaz, zergatik ez pentsatu Gipuzkoan osagarri pluraldun adizki tripertsonaletara *nin erroa iritsi eta *eradun ordezkatu berritan, -zka- pluralgilea izan zela erro berriak adizki

batzuetan²² hartu zuen pluralgilea, ondoren, analogiaz, iragangaitz datibodunetara hedatu zela, eta, era berean, egitura beraz eratutako -zte- pluralgilea ere sortu zela?

2.4. XX. mendeko ahozko datuak

2.4.1. Oiartzun eta Pasaiako diozka & diozkate

Ikusi dugunez, Gipuzkoako hainbat eskualdetan aurkitu ditugu *diozka* ‘dizkio’ gisakoak testu idatzietan. Hala ere, Bährek (1926-1935) bildutako adizkiak ikusita, badirudi, ahozkoan, Beterri-Oiartzualde inguruan erabiltzen zirela honelakoak xx. mendean; zehatzago esateko, Pasaia eta Oiartzun herrietan:²³

7. taula

Pasaiako eta Oiartzungo osagarri pluraldun adizki tripertsonalak, datiboa 3. pertsona delarik (Bähr 1926, 1931, 1934)

“hari” datiboa:

diozkat [dizkat ere bai Oiartzunen] ‘dizkiot’, *diozkak/diozkan* ‘dizkiok/dizkion’, *diozka* ‘dizkio’, *diozkagu* ‘dizkiogu’, *diozkazu* ‘dizkiozu’, *diozkatzute* ‘dizkiozue’, *diozkate* ‘dizkiote’ [Pasaia eta Oiartzun] (1926: 382)

niozkan ‘nizkion’, *iddozkan* ‘hizkion’, *ziozkan* ‘zizkion’, *geniozkan* ‘genizkion’, *zeniozkan* ‘zenizkion’, *zeniozkaten* ‘zenizkieten’, *ziozkaten* ‘zizkieten’ [Pasaia] (1931: 269)

“haiei” datiboa:

diozkatet ‘dizkiet’, *diozkatekl/diozkaten* ‘dizkiek/dizkien’, *diozkatet* ‘dizkie’, *diozkategu* ‘dizkiegu’, *diozkatezu*²⁴ ‘dizkiezu’, *diozkatzute* ‘dizkiezue’, *diozkate* ‘dizkiete’ (1926: 386)

niozkan ‘nizkien’ [ni(o)zkaten Oiartzunen], *iddozkaten* ‘hizkien’, *ziozkan* ‘zizkien’, *geniozkaten* ‘genizkien’, *zeniozkaten* ‘zenizkieten’, *ziozkaten* ‘zizkieten’ [Pasaia] (1934: 67)

Osagarri singularrarekin, berriz, honako adizki hauek jaso zituen bi herri horietan: alde batetik, “hari” datiboarekin *diddot*, *diddok/diddon*, *diddo*, *diddogu*, *diddozu*, *diddozute* eta *diddote* (Bähr 1926: 382); beste aldetik, “haiei” datiboarekin *diddotet*, *diddotekl/diddoten*, *diddote*, *diddotegu*, *diddotezu*, *didd(ot)ezute* [Oiartzun] & *diddo(te)zute* [Pasaia] eta *diddote* (386). Honenbestez, esan daiteke -zka- morfema gehitzen zaiela osagarri pluraldunei, eta hortaz, hori dela osagarriaren pluralgilea 3. pertsona datibodun adizkietan.²⁵

²² “Hari” datiboko adizkietan, hain zuzen. Izan ere, Leturiaga (2020)-n azaldu bezala, badirudi Urolaldean, esate baterako, -(t)zi- & -(t)xi- pluralgilea ere bazegoela *nin erroko beste adizki batzuetan, eta -zki- pluralgilea, berriz, Gipuzkoako beste eskualdeetan.

²³ Oiartzunen *di(o)zka* & *di(o)zkate* erakoak ageri dira orainaldian (Bähr 1926), eta beraz, badirudi *dizka* ‘dizkio’ & *dizkate* ‘dizkie’ bezalakoak ere erabiltzen zirela bertan; gainera, oharra gehitzen du Bährek: “Parece que las flexiones con -o- son las primitivas” (1926: 382). Iraganaldeko adizkietan Pasaian baizik ez daude -o-dunak.

²⁴ Oiartzunen ‘dizkiezu’ nahiz ‘dizkiezue’ adierazteko *di(o)zkatzute* dakar. Akatsa ote da?

²⁵ Morfemen banaketa egiterakoan *diddote* & *diozkate* adizkiak “hark-haiei” ‘die & dizkie’ adiera-rekin aztertu ditugu; hala ere, Bährek (1926-1935) bildutako datuen arabera, “haiek-hari” ‘diote & dizkiote’ eta “haiek-haiei” ‘diete & dizkiete’ adierak ere izan ditzakete Pasaia nahiz Oiartzunen. Azterga dago Gipuzkoako hizkera askotan dagoen -o(t)e- ‘haiiei’ datibo morfema (“hari” datiboko -o- + “haiiei” datiboko -(t)e-z osatua) noiz, nola eta non sortu den.

- (8) a. D-I-DD-O-Ø
TAM3-**nin*-EPENT-NORI3sg-NORK3sg
b. D-I-O-ZKA-Ø
TAM3-**nin*-NORI3sg-NOR3pl-NORK3sg
- (9) a. D-I-DD-OTE-Ø
TAM3-**nin*-EPENT-NORI3pl-NORK3sg
b. D-I-O-ZKA-TE-Ø
TAM3-**nin*-NORI3sg-NOR3pl-NORI3pl-NORK3sg

EHHAn begiratuta (Euskaltzaindia 2014), Gipuzkoan, gaur egun Pasaian bai-zik ez dira ageri *ddozka* (1375) ‘dizkio’ / *ziyozkan* (1389) ‘zizkion’ eta *ziyozkaten* (1393) ‘zizkioten’ adizkiak; NOR-NORIKO *zayozka* (& *zayozkate* (?), *zaizkiyote*) ‘zaizkio’ / *zitzaozkaten* (?) ‘zitzaizkion’ eta *zaiozkate* ‘zaizkie’ ere badaude bertan (EHHA: 1311, 1312, 1322).²⁶ Oiartzunen, aldiz, *dizka* (1375) ‘dizkio’ dago; beraz, badirudi xx. mendetik gaur egunera *diozka* > *dizka* gertatu dela.

Oiartzungo lehengo eta oraingo adizkiak alderatzeak erakuts dezake, hain zuzen, *dizka* ‘dizkio’ gisako adizkien jatorria *diozka* gisakoetan egon daitekeela, eta § 2.2n aipatu dugu azken horiek **nin* errokoak diruditela. Izan ere, gogora dezagun **era-dun* oinarriko adizkiei dagokienez, testuetan iraganeko *zirauzkan* ‘zizkion’ aurkitu dela “hari” datiborekin, baina ez orainaldiko **dirauzka* ‘dizkio’, -*tza-* pluralgile-dun *dirautza* baizik; cf. OArin (1713). Aztertutako testuetan bakarrik ez, EKCN bilaketa eginda ere ez dago **dirauzka* bezalakorik —eta hortaz, ez dirudi *diozka*-ren jatorria adizki horretan zegokeenik—. Egia da Irazustak (1739) **eradun* oinarriko *diuzca* (53) ‘dizkio’ daukala; baina ez dirudi *diuzka* oso hedatuta zegoenik, Irazustarena baita “hark-hari-haiek” testuinguruan, orainaldian, [**eradun* + -*z-*] egitura daukan agerraldi bakarra (*vs. dirautza & dizkal/dizko, dizkio*). Hala, ez da oso egian-tzekoa pentsatzea *diuzka* adizki bakar horren aldaerak direla gaur egun Gipuzkoako hainbat hizkeratan arruntak diren *diozka* & *dizka* adizkiak.

Halaber, “haiei” datiboko adizkiei dagokienez, honako datu hau ere kontuan izan behar da; Pasaia eta Oiartzungo *diozkate* erakoak **eradun* oinarrikoak direla pentsatuz gero, **di(r)auzkate* gisako adizki batetik eratorriko genituzke: adibidez, **di(r)auzkate* (> **diuzkate*) > *diozkate*. Dena dela, adizki zaharren morfema banaketa ikusita, **di(r)auzkate* hari ‘dizkiote’ litzateke (**d-irau-z-ka-te*; cf. testuetako *dirauzkagun* ‘dizkiogun’, *diauzkazu* ‘dizkiozu’, etab.), haiei ‘dizkie’ adierazteko *diauste(la)* gisakoak ageri baitira. Hala, badirudi Pasaia eta Oiartzungo *diozkate* ‘dizkie’ erako adizkiak bestela eratuak direla, eta ez dutela **eradun* oinarriko adizki zaharren morfema banaketa bera; nahiz eta balitekeen —analogiaz edo berranalisisiz, esate baterako— lehen “hari” zena geroago “haiei” adieraztera igarotzea.

²⁶ “Pluralari dagokionez, [Pasai] Donibanen bereziki, hirugarren pertsonetan erabiltzen duten datiboko pluralgilea ‘-zka-’ da gainerako pertsonetan ez bezala, hauetan ‘-zki-’ erabiltzen baitute. Hirugarren pertsonako datibo plurala eraikitzeko singularretik abiatzen dira bai orainaldian eta bai lehenaldian, hirugarren pertsonako ‘te’ erantsiz: *sayoska* → *sayoskate*; *sisayoskan* → *sisayoskaten*” (Agirretxe et alii 2000: 124). NOR-NORI-NORKEKO adizkiez ari direnean ere honakoa diote: “Oro har ‘-zki-’ pluralgilea erabiltzen bada ere, datiboa hirugarren pertsonei dagokienean ‘-zka-’ datiboko pluralgilea agertzen da: (*di)yoskat*, (*di)yoskau*, (*di)yoskate*, *si(y)oskan*” (2000: 125).

2.4.2. -zka- & -zte- pluralgiledun adizkiak Urolaldean eta ondoko herrietan

2.4.2.1. Iraganaldiko zenbait adizki

Iraganaldiko adizkiei erreparatuta, herri gehiagotan ere bildu zituen Bährek (1926-1935) Oiartzun eta Pasaiako adizkien egitura antzekoa izan dezaketen zenbait adizki; esate baterako, osagarri pluraletutzen NOR-NORI-NORKEKO “hari” datiboden adizkietan honelakoak ageri dira Bidania, Albiztur eta Alkizan (Bähr 1931):²⁷ *giñuzka(u)n* ‘genizkion’, *ziñuzkan* ‘zenizkion’, *ziñuzkatzuen* ‘zenizkioten’ (267) [Bidania]; *giñuzkan* ‘genizkion’ (266) [Albiztur]; *giñozkan* ‘genizkion’, *ziñozkan* ‘zenizkion’ (266) [Alkiza]. Adizki horiek ikusita, badirudi honelako —bokal fusio— bilakabideren bat egon zatekeela: adibidez, *giñuzka(u)n* [Bidania] & *giñuzkan* [Albiztur] & *giñozkan* [Alkiza] < **giniozka(gu)n*/**geniozka(gu)n* ‘genizkion’; edo *ziñuzkan* [Bidania] & *ziñozkan* [Alkiza] < **ziniozkan*/**zeniozkan* ‘zenizkion’:

- (10) a. *GIN/GEN-I-O-ZKA-(GU)-N²⁸
NORK1pl-*nin-NORI3sg-NOR3pl-(NORK1pl)-IRGN
- b. *ZIN/ZEN-I-O-ZKA-N
NORK2sg-*nin-NORI3sg-NOR3pl-IRGN

Aipatutako herriez gain, Urolaldeko herri batzuetan ere badira antzeko adizkiak iraganaldian; *giñozkan* ‘genizkion’, *ziñozkan* (& *zinizkon*) ‘zenizkion’, *ziñozkatzuen* ‘zenizkioten’ (268) [Getaria]; *giñuzkan* ‘genizkion’, *ziñuzkan* ‘zenizkion’, *ziñuzken* ‘zenizkioten’ (267) [Beizama]; *giñozkun* ‘genizkion’, *ziñozkun* (& *zizkotzun*) ‘zenizkion’, *ziñozkuen* (& *zizkotzuen*) ‘zenizkioten’ (267) [Azkoitia]. Getaria, Beizama²⁹ eta Azkoitiko adizki horiek ere, Bidania, Alkiza eta Albizturkoen antzeko jatorria izan dezakete; esate baterako, Getariako *ziñozkan* < **ziniozkan*/**zeniozkan* ‘zenizkion’ (**zin/zen-i-o-zka-n*). Azkoitiko adizkietan, ordea, badirudi *-zka-* beharrean *-zko-* (-*z-ko-*) [pluralgile + datibo morfema] egitura dagoela: *ziñozkun* < *ziñozkon* < **ziniozkon*/**zeniozkon* ‘zenizkion’ (**zin/zen-i-o-zko-n*). Izan ere, Urolaldeko hainbat herriean *-ko* da “hari” datibo morfema NOR plural nahiz singularrarekin; cf. Urolaldeko herri batzuetako *zako* ‘zaio’ & *zaizko* ‘zaizkio’ NOR-NORI sailean (Irizar 1991-I) eta *dizko* ‘dizkio’ / *zizkon* ‘zizkion’ NOR-NORI-NORKEN (Bähr 1926, 1931). “haiei” datibo pluralarekin, berriz, Beizaman eta Getarian beste adizki hauek dakartza Bährek:

²⁷ -zki- pluralgiledunekin batera Albizturen (*nizkion*, *izkion*, *zizkion*, etab.); eta *nizkan*, *izkan*, *zizkan* erakoekin batera Alkiza eta Bidanian (Bähr 1931: 266-267).

²⁸ *Giñuzka(u)n* < **giniozka(gu)n*/**geniozka(gu)n* ‘genizkion’ adizkian subjektu morfema bikoitztuta dago, osagarri singularreko *ziozun* ‘zenion’ adizkian bezala (1931: 266). Bestalde, Bidania, Albiztur eta Alkizan osagarri singulardun adizki batzuetan ere badago *-ka*: *giñuka(u)n* & *giñokan* ‘genion’, *ziñukan* ‘zenion’, *ziñukazuen* ‘zenioten’ (Bähr 1931: 266-267). Baliteke singularreko adizkiak arkaismoak iza-tea, eta beraz, osagarri pluraldun adizkietako pluralgilea -*z-* izatea eta ez -*zka*. Baina baliteke, era berean, *-ka-* datibo morfema izatea osagarri singularreko adizkietara hedatu dena, *-zka-* pluralgilearen berranaliz: demagun, *-z-ka->-zka->-z-ka-*. Izan ere, jarraian ikusiko dugun moduan, ez dira herri horiek *-zka-* pluralgilea duten bakarrak.

²⁹ Beizama “hari” datiboko adizkietan Bidania, Albiztur eta Alkizarekin batera zohoala dirudi; osagarri singularrarekin *giñukan* ‘genion’, *ziñukan* ‘zenion’ gisakoak daude, vs. Urolaldeko herrietako *giñon*, *ziñon*, etab. (Bähr 1931: 266-269).

8. taula

Getariako eta Beizamako iraganaldiko adizki tripertsonalak,
datiboa 3. pertsona plurala delarik (Bähr 1934)

<p>Getaria: <i>giñen</i> ‘genien’ & <i>giñezkan</i> ‘genizkien’, <i>ziñen</i> ‘zenien’ & <i>ziñezkan</i> ‘zenizkien’; <i>ziñoen</i> ‘zenieten’ & <i>ziñezken</i> ‘zenizkieten’ (1934: 66)</p>
<p>Beizama: <i>giñ(uk)en</i> ‘genien’ & <i>giñezten</i> (& <i>giñuzken</i>) ‘genizkien’, <i>ziñuken</i> ‘zenien’ & <i>ziñezten</i> ‘zenizkien’, <i>ziñuken</i> ‘zenieten’ & <i>ziñezten</i> ‘zenizkieten’ (1934: 65)</p>

Osagarri singular eta pluraldun adizkiak alderatuta ikus daiteke *-zka-* eta *-zte-* gehitzen zaiela pluralekoei; Getarian *-zka-* (*giñen* > *giñezkan*) eta Beizaman *-zte-* (*giñen* > *giñezten*), hain zuzen ere.³⁰ Beharbada, adizki horien atzean honelako bilakabideren bat egon daiteke: *giñezkan* < **giniezkanl***geniezkan* ‘genizkien’, *ziñezkan* < **ziniezkanl***zeniezkan* ‘zenizkien’, *ziñezken* < **ziniezkaenl***zeniezkaen* ‘zenizkieten’ [Getaria]; eta *giñezten* < **ginieztenl***geniezten* ‘genizkien’, *ziñezten* < **zinieztenl***zeniezten* ‘zenizkien’, *ziñezten* < **ziniezteenl***zeniezteen* ‘zenizkieten’ [Beizama]. Morfemen banaketa, aldiz, honako hau izan daiteke:³¹

- (11) a. *GIN/GEN-I-E-ZKA-N
 NORK1pl-**nin*-NORI3pl-NOR3pl-IRGN
- b. *GIN/GEN-I-E-ZTE-N
 NORK1pl-**nin*-NORI3pl-NOR3pl-IRGN

Esandakoa aintzat hartuta, badirudi *-zka-* pluralgileduen adizkiak xx. mendean Oiartzunen eta Pasaian erabiltzen zirela, batik bat (datiboa 3. pertsona denean). Alabaina, ikusi dugu Urolaldeko eta ondoko herri batzuetan ere badirela ustezko *-zka-* & *-zte-* pluralgileen aztarnak iraganaldiko adizkietan.

2.4.2.2. Beizamako eta Errezilgo adizki alokutiboak

Iraganaldiko adizki neutroetan ez ezik, hitanoko adizki alokutibo batzuetan ere *-zka-* pluralgilea dagoela dirudi Urolaldeko herri batzuetan; Beizaman eta Errezilen, hain zuzen (Bähr 1927):³²

³⁰ Baino Beizaman bada *giñuzken* ‘genizkien’ ere, beharbada, **giniozkaenl***geniozkaen* bezalako adizki batetik datorrena, eta beraz, *-zka-* pluralgilea izan dezakeena: **gin/gen-i-o-zka-e-n* (cf. Pasaia eta Oiartzungo *d-i-o-zka-re-Ø* ‘dizkie’).

³¹ Adizki hauetan ere datibo morfema pluralgilearen aurretek ageri da; cf. *diezcun* ‘dizkiegun’ (Ariztimuño 2016; Reguero 2019).

³² Hitanoko adizki alokutiboan ere badago *-zka-* Pasaian eta Oiartzunen: *ziozkatl/ziozkanet* ‘zizkioat/zizkionat’, *ziozkal/ziozkan* ‘zizkiok/zizkion’, *ziozkagu/ziozkaneu* ‘zizkiaoagu/zizkionagu’ eta *ziozkatl/ziozkatet* ‘zizkiotek/zizkioten’ daude “hari” datiboarekin (Bähr 1927: 469); eta “haiet” datiboarekin *ziozkatetl/ziozkatenet* ‘zizkieat/zizkienat’, *ziozkatekl/ziozkatet* ‘zizkiek/zizkien’, *ziozkategul/ziozkateneu* ‘zizkieagu/zizkienagu’ eta *ziozkatekl/ziozkatet* ‘zizkietek/zizkieten’ (1928: 295). Erreenterian ere badaude horrelako adizki alokutiboak “hari” datiboarekin, nahiz eta Pasaian eta Oiartzunen besteko hedadurak ez izan bertan *-zka-* pluralgileak.

9. taula

Errezilgo eta Beizamako adizki alokutibo tripertsonalak, datiboa 3. pertsona singularra delarik (Bähr 1927)

osagarri singularra:

zeo(a)t/zeonat ‘zioat/zionat’, *zeok/zeon* ‘ziok/zion’, *zeoa

ul zeonau* ‘zioagu/zionagu’, *zeoel/zeone* ‘ziotek/zioten’ [Beizama eta Errezil] (463, 465)

osagarri plurala:

zeuzkat/zeuzkanat ‘zizkioat/zizkionat’, *zeuzkak/zeuzkan* ‘zizkiok/zizkion’, *zeuzkaul/zeuzkanau* ‘zizkioagu/zizkionagu’, *zeuzkel/zeuzkene* ‘zizkiotek/zizkieten’ [Beizama] (467)

zeozkat/zeozkanat ‘zizkioat/zizkionat’, *zezkak/zezkan* ‘zizkiok/zizkion’, *zeozkaul/zeozkanau* ‘zizkioagu/zizkionagu’, *zeozkel/zeozkene* ‘zizkiotek/zizkieten’ [Errezil] (469)

Badirudi adizki alokutibo horietan *zi-* > *ze-* asimilazioa gertatu dela;³³ Beizaman baita *zeo-* > *zeu-* disimilazioa ere osagarri plurala duten adizkietan: *ziozkat* > *zeozkat* > *zeuzkat*. Horrez gain, eta guri dagokigun gaiari lotuago, “hari” datiboko osagarri singularreko *zeoat* (< *zioat*) eta pluraleko *zeozkat* (< *ziozkat*) ‘zizkioat’ alderatuta, adibidez, ikus daiteke -*zka-* gehitzen zaiela pluralekoei:

- (12) a. Z-I-O-A-T
 ALOK-**nin-NORI3sg-ALOK-NORK1sg*
 b. Z-I-O-ZKA-A-T³⁴
 ALOK-**nin-NORI3sg-NOR3pl-ALOK-NORK1sg*

Bestalde, “haiiei” datiboarekin honako adizki hauek ageri dira Errezilen eta Beizaman (Bähr 1928):

10. taula

Errezilgo eta Beizamako adizki alokutibo tripertsonalak, datiboa 3. pertsona plurala delarik (Bähr 1928)

Errezil:

*zeit*³⁵ & *zeet/zeiñat* ‘zieat/zienat’, *zeek/zeiñ* ‘ziék/zien’, *zeoa

ul zeiñau* ‘zieagu/zienagu’, *zeoel/zeiñe* & *zizenete* (?) ‘zieate/zienate’ (291)

zeeztet/zeeztenet ‘zizkieat/zizkienat’, *zeeztek/zeezten* ‘zizkiek/zizkien’, *zeeztegul/zeezteneu* ‘zizkieagu/zizkienagu’, *zeeztel/zeeztene* ‘zizkietek/zizkieten’ (295)

Beizama:

zeet/zeenat ‘zieat/zienat’, *zeek/zeen* ‘ziék/zien’, *zégu/zeenau* ‘zieagu/zienagu’, *zeel/zeene* ‘zieate/zienate’ (289)
zeeztet/zeeztenet ‘zizkieat/zizkienat’, *zeeztek/zeezten* ‘zizkiek/zizkien’, *zeeztegul/zeeztenau* ‘zizkieagu/zizkienagu’, *zeeztel/zeeztene* ‘zizkietek/zizkieten’ (293)

³³ *Zitiat* (*z-it-i-a-t*) > *zetiat* ‘ditiat’ gisako hitanoko adizkietan bezala (Bähr 1927: 443, 445), baina beste hauetan disimilazioa gertatu da.

³⁴ Baliteke *ziozkaat* > *ziozkat* gertatu izana.

³⁵ *Zie(a)t* > *zeit* metatesia gerta zitekeen, edo *zieat* > *zieet* > *ziet* > *ziit* > *zeit*; baliteke beste bilakabideren bat gertatu izana ere.

“haiei” datibodun adizki horietan ere *zi-* > *ze-* asimilazioa gertatu dela dirudi bi herrieta, edo zehatzago esateko, *zie-* > *zee-*; baliteke “haiei” datiboko *-e-* morfemak eraginda gertatu izana asimilazioa. Era berean, “haiei” datiboko osagarri pluraldun adizkiek “hari” datiboko adizkien egitura bera dutela dirudi (cf. *z-i-o-zka-a-t*), baina beste hauek *-zte-* pluralgilea dute, *-zka-* beharrean:

- (13) a. Z-I-E-A-T³⁶
ALOK-**nin-NORI3pl*-ALOK-NORK1sg
- b. Z-I-E-ZTE-A-T
ALOK-**nin-NORI3pl*-NOR3pl-ALOK-NORK1sg

Datuok ikusita, badirudi arrazoiak egon badaudela, inoiz, [pluralgile + datibo morfema] egituraz eratutako *-zka-* & *-zte-* pluralgileak egon zirela pentsatzeko. Ikusi dugunez, Pasaian iraun du gehien *-zka-* pluralgileak, baina xx. mendeko ahozko datuek erakusten dute eremu geografiko zabalagoan ere egon zela, baita egitura bereko *-zte-* pluralgilea ere. Adibidez, Urolaldeko eta ondoko herri batzuetan, hitanoko adizki alokutibotan eta neutroko lehenaldiko adizkietan aurkitu ditugu pluralgile zaharren³⁷ aztarnak.

2.4.2.3. Beizamako eta Errezilgo -ii-

Aipatu berri ditugunez gain, baliteke adizki gehiagotan ere *-zka-* & *-zte-* pluralgileak egotea. Adibidez, Bährek xx. mende hasieran honako adizki hauek bildu zituen Beizaman eta Errezilen:

11. taula

Errezilgo eta Beizamako *-ii*-dun adizki tripertsonalak, datiboa 3. pertsona plurala delarik
(Bähr 1926)

Errezil (1926: 386):

diit ‘diet’, *diikl/diīn* ‘diek/dien’, *dii* ‘die’, *diigu* ‘diegu’, *diizu* ‘diezu’, *diizue* ‘diezue’, *diize* ‘diete’
diiztet ‘dizkiet’, *diiztek/diizten* ‘dizkiek/dizkien’, *dizte* ‘dizkie’, *diiztegu* ‘dizkiegu’, *diiztetzu* ‘dizkiezu’,
diiztetzue ‘dizkiezue’, *diizte* ‘dizkiete’

Beizama (1926: 384):

diddet ‘diet’, *diddek/didden* ‘diek/dien’, *didde* ‘die’, *diddeg* ‘diegu’, *diddezu* ‘diezu’, *diddezue* ‘diezue’, *didd(u)e* ‘diete’
diiztet ‘dizkiet’, *diiztek/diizten* ‘dizkiek/dizkien’, *dizte* ‘dizkie’, *diiztegu* ‘dizkiegu’, *diiztetzu* ‘dizkiezu’,
diiztetzue ‘dizkiezue’, *diizte* ‘dizkiete’

Beharbada, osagarri pluraldun adizkiei dagokienez, zalantza izan dezakegu *-ii*-ren atzean **eradun* edo **nin* erroa dagoen. Izatez, *i* bokalaren bikoizketa hau adizki

³⁶ *Zieat* > *ziet* > *zeet* gerta zitekeen, edo *zieat* > *zeeat* > *zeet*; baita pluraleko adizkian ere: esate baterako, *ziezteat* > *zieztet* > *zeztet*.

³⁷ “Zahar” deitu diegu geroago beste batzuek ordezkatu dituztelako; izatez, berrikuntzak lirateke.

gehiagotan ere badago Beizaman: *diitzut* ‘dizkizut’ (116), *diitzuet* ‘dizkizuet’ (120), etab.³⁸ Bada, osagarri pluraldun adizkiak ikusita pentsa genezake -*ii*- duten adizki horietan tripertsonaletako **eradun* oinarria egon daitekeela, beharbada; izan ere, erro zaharraren azken gordelekua izan daiteke Beizama, Gipuzkoaren erdi-erdian egonagatik, oso bakartuta baitago.

Errezilen, ordea, osagarri singularreko adizkietan ere badago -*ii*-, eta horietan **nin* erroa baizik ezin daiteke egon. Hortaz, badirudi -*i-e-* > -*ii*- asimilazioa geratu dela; hots, “haiei” datiboko -*e*- morfema **nin* erroarekin elkartzean *diet* > *ditt* gertatu dela. Beraz, pentsa daiteke pluraleko adizkietan ere *dieztet* > *diiztet*, *diezte* > *diizte*, etab. gerta zitekeela; *dieztet* ‘dizkiet’, *diezte* ‘dizkie’ erako jatorrizko adizkietan, hain zuzen, [pluralgile + datibo morfema] egituraz osatutako -*zte*- litzateke pluralgilea:

- (14) a. D-I-E-T
TAM3-**nin-NORI3pl-NORK1sg*
- b. D-I-E-ZTE-T
TAM3-**nin-NORI3pl-NOR3pl-NORK1sg*

Adizki gehiagotan ere badago -*ii*- Errezilen: iraganaldiko *ziin* ‘zien’ & *zizten* ‘zizkien’, *giindun* ‘genien’ & *giiztendun* ‘genizkien’ adizkietan, besteak beste (1934: 67). Beizaman ere badaude *diitzit* ‘dizkiat’ (112), *diitzik* ‘dizkik’ (112), *diitzut* ‘dizkizut’ (116), *diitzuet* ‘dizkizuet’ (120) eta gisa bereko adizki gehiago (Bähr 1926).³⁹ Hori horrela izanik, badirudi -*ii*- adizki gehiagotara hedatu zela, analogiaz.

3. *dizka/dizko* & *dizte/dizk(o)e* erako adizkiak

Pasaia eta Oiartzungo *diozka* ‘dizkio’ & *diozkate* ‘dizkie’ bezala, Gipuzkoako hainbat hizkeratan *dizkol/dizka* ‘dizkio’ & *diztel/dizk(o)e* ‘dizkie’ gisakoak erabiltzen dira NOR-NORI-NORKEN 3. pertsona datiboekin; beste pertsona datiboekin ere gisa bereko *diztan* ‘dizkidan’, *ditzu* ‘dizkizu’, *dizku* ‘dizkigu’ eta *ditzue* ‘dizkizue’ daude. Iza-tez, Urolaldean, Tolosaldean, Goierri sortaldean nahiz Beterri aldean entzun daitezke honelakoak, baina Urolaldeko herrietan erabiltzen dira batez ere (Bähr 1926-1935; cf. Leturiaga 2020).

Orain arte bi bide proposatu izan dira aipatu berri ditugun adizki horien jatorri-rako. Alde batetik, **eradun* oinarrikotzat hartu izan dira, Ariztimuñok *diozka*-ren ja-torrirako proposatutakoa adizki hauetara ere hedatu:

Borja Ariztimuñori zor diot *diozka*-ren arrarotasunaz (eta jatorriaz) ohartzea; hark esandakoari, *diuzka* < *diauzka* < *dirauzka* katebegiak gehituz gero, egungo egunean ere —itxura- eta funtzio-aldaturik, hori bai— **eradun*-en formaren aztarnak G-n bizi-

³⁸ Beizaman “zuri” datiboarekin: *diitzut/niitzun* ‘dizkizut/nizkizun’, *diitzul/ziitzun* ‘dizkizu/zizkizun’, *diitzuu* ‘dizkizugu’, *diitzue* ‘dizkizue’ (1926: 116; 1931: 259); “zuel” datiboarekin: *diitzuet/niitzuen* ‘dizkizuet/nizkizuen’, *diitzuel/ziitzuen* ‘dizkizuel/zizkizuen’, *diitzeu* ‘dizkizuegu’, *diitzuel/ziitzuen* ‘dizkizuete/zizkizuete’ (1926: 120; 1931: 263).

³⁹ Eta Azkoitiko *GTour* (1772: 82) antzerkian ere *ciisten* ‘zizkidaten’ ageri da. § 5en ikusiko dugu-nez, Goierriko Ataunen ere -*ii*- dute adizki batzuek.

rik direla frogatzen digu. *Diozka-ri* buruzkoak, *dizku*, *dizt* eta “barneko z plurala” duten giztientzat baliagarri bide dira. (Lakarra 2011: 197)

Beste aldetik, ordea, *diztegun* ‘dizkiegun’ **nin* errokotzat hartu du Reguerok (2018: 685). Guk ere *diozka* **nin* errokoa izan daitekeela aipatu dugu, eta, Oiaratzungo adizkiak ikusita, *diozka* > *dizka* gerta zitekeela; hortaz, *dizka* adizkia ere **nin* errokotzat hartuko genuke. Ildo beretik, Gipuzkoako hainbat hizkeratako *dizko* (& *dizka*), *dizte* & *dizk(o)e* erakoak ere hipotesi beraren bidez azal daitezkeen edo ez aztertuko dugu atal honetan. Izan ere, hipotesi sendo batek adizki “bitxi” bat azaltzeko baino areago, gisa horretako adizki gehiago ere azaltzeko gai izan beharko luke.

Horretarako, NOR-NORI-NORKEKO osagarri pluraldun **nin* erroko adizkiei errepaturatuko diegu: **nin* erroko adizki “ziurrak” —*diozka* gisakoak alde batera utzita, momentuz— 1728ko Lubietaren gramatikan bildu ditugu lehen aldiz Gipuzkoako testuetan: *cisquiran* ‘zizkidan’ (245), *cisquiraten* ‘zizkidaten’ (247); era berean, 1729ko Larramendiren gramatika ikusita pentsa daiteke ordurako erabiltzen zirela Gipuzkoan *dizquitl/cizquidian*, *dizquitzut/nizquitzun* (& *diztzutl/niztzun*) gisakoak (1729: 94-110). Beraz, badirudi 1730 aldera, behintzat, osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan **nin* erroa erabiltzen hasiak zirela Gipuzkoan, zein eskualdetan bai eta zeinetan ez ziur ez badakigu ere.⁴⁰ Are gehiago, Lubieta (1728) eta Larramendiren (1729) lanetako lehen agerraldiei erreparatuta, pentsa daiteke **nin* erroa osagarri pluraldun adizki tripertsonaletara -*zki*- pluralgileari itsatsita iritsi zela Gipuzkoara, edo Beterri ingurura, behinik behin.⁴¹

Aitzitik, Urola eskualdeko datuek bestelako errealtitatea islatzen dute. Izan ere, Leturiaga (2020)-n aipatu bezala, behin *di(r)au-/zi(r)au-* erakoak itzalean geratu ostean, Urolaldeko testuetan *dizkal/dizko* ‘dizkio’, *diztan* ‘dizkidan’, *dizku* ‘dizkigu’ erakoak ageri dira (*vs.* Beterri aldean jasotako [**nin* + -*zki*-] erakoak). Peñafloridaren *Gabon Sariak* (1762) lanean ageri dira lehen aldiz eskualdean: *dizkuuen* ‘dizkiguten’ (49) eta *dizka* ‘dizkio’ (66); 1764ko *El Borracho Burlado* lanean ere *diztate* ‘dizkide’ (128) ageri da. Hala, badirudi Urolaldean honelako adizkiak agertzen hasten direnerako jada bazegoela **nin* osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan Gipuzkoan; cf. Lubieta (1728); LarmEIV (1729), Kardab (1744). Kardaberatzen 1744ko testuak erakusten digu Urolaldean lehen aldiz idatziz agertu baino lehenago ere bazirela *dizka* gisakoak; dena dela, Kardaberatzen testuko *dizka* ‘dizkio’ (25) eta *zizten* ‘zizkien’ (24) adizkien agerraldiak ere Gipuzkoako testuetan lehen aldiz [**nin* + -*zki*-] adizkiak agertu ondo-koak dira:

⁴⁰ Hala ere, 1730 aldera **eradun* oinarriko adizkiak ez ziren guztiz desagertu; cf. Iraz (1739): *diuz-cun*, *ciuczun*, *diuztegun*, *diuztezun*, *diuztazula*, etab.

⁴¹ Gipuzkoara iritsi egin zela diogu, ustez, Nafarroan [**nin* & **eradun* + -*zki*-] eta Lapurdin [**eradun* + -*zki*-] egituradun adizkiak Gipuzkoan testuetan -*zki*- pluralgilea agertu baino lehenagokoak direlako (EKC). Dena dela, sakonago aztertu beharreko gaia dugu hau.

12. taula

**nin* erroko osagarri pluraldun adizki tripertsonalak Beterriko eta Urolaldeko testuetan⁴²

Beterriko testuetako adizkiak	Urolaldeko testuetako adizkiak
1728: <i>cisquiran</i> , <i>cisquiraten</i>	
1729: <i>dizquit/cizquidan</i> , <i>dizquitzut/nizquitzun</i> , <i>dizquigul/cizquigun</i> , etab.	
1744: <i>dizkigun</i> , <i>dizkitzut</i> , <i>dizkitzu</i> , <i>dizkizute</i> , etab. + <i>dizka</i> , <i>zizten</i> , etab.	1762: <i>dizkuen</i> , <i>dizka</i> 1764: <i>diztate</i> 1772: <i>dizco</i> , <i>ciisten</i> + <i>disquit</i>

Honenbestez, esan daiteke **nin* erroko adizkiak izateko aukera badutela Urolaldeko *dizka/dizko* ‘dizkio’ & *diztel/dizk(o)e* ‘dizkie’ erako adizkiek. Halaber, badago auzi honetan aintzat hartu beharreko beste datu bat; izan ere, Leturiaga (2020)-n azaldu bezala, badirudi -*zki*- pluralgilea Gipuzkoako beste eskualdeetara —Beterrira, Tolosaldera eta Goierrira— baino geroago iritsi bide dela Urolaldera. Beraz, aintzat hartuta:

- a) *dizka* adizkiaren jatorria **nin* erroko dirudien *diozka* adizkian egon daitekeela;
- b) *dizka*-ren gisa bereko *diztan*, *dizko*, *dizku* erako adizkiak testuetan ageri direnerako osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan **nin* erroa erabiltzen hasiak zirela Gipuzkoan —Beterri inguruan, behinik behin—; eta
- c) Urolaldera -*zki*- pluralgilea ondoko eskualdeetara baino geroago iritsi bide dela

proposatzen duguna honako hau da: beharbada, baliteke Gipuzkoan —osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan— **eradun oinarria* abaildu eta **nin* erroa iritsi berritan erro berria -*z*- pluralgileari lotu izana lehendabizi; edo zehatzago esateko, -*zka*- pluralgileari (cf. OArin 1713: *dio* & *diozca* ‘dizkio’). Hastapenetan -*z*- pluralgilea -*ka*- datibo morfemari lotu zitzaion, agian, “hari” datiboko *dio* adizkiak -*z*- pluralgile soila hartzeko nahikoa euskarri fonikorik ez zuelako. Ondoren, baliteke *diozka* > *dizka* gertatu —*d-i-z-ka-Ø* moduan interpretatu— eta, analogiaz, *diztan* ‘dizkidan’, *ditzu* ‘dizkizu’, *dizko* ‘dizkio’, *dizku* ‘dizkigu’, *ditzue* ‘dizkizue’ eta *diztel/dizk(o)e* ‘dizkie’ eratu izana. Alabaina, Gipuzkoako Beterri ingurura, behintzat, XVIII. mendearen lehen erdirako -*zki*- berrikuntza iritsia zela dirudi, eta pluralgile berriak -*z*- pluralgile zaharra ordezkatu zuela —hots, [**nin* + -*z*-] → [**nin* + -*zki*-] gertatu zela—.

⁴² Baliteke eragin literarioari zor izana Azkoitian XVIII. mendean -*zki*- pluralgilea agertzea, XX. mendeko ahozko datuetan *ditzit* & *dixit* ‘dizkit’ ageri baitira bertan, Urolaldeko zenbait herrian bezala (Bähr 1926: 372; cf. Leturiaga 2020).

Dena dela, Beterrira, Tolosaldera eta Goierrira [**nin + -zki-*] egitura Urolaldera baino lehenago iritsi dela badirudi ere (Bähr 1926-1935), zaila da eremu bakoitzean [**nin + -z-*] → [**nin + -zki-*] berrikuntza noiz gertatu zatekeen zehaztea: Tolosaldeko testu zaharretan, adibidez, XVIII. mendearren lehen erdia baino lehen **eradun oinarriko adizkiak* baino ez daude —*diozcatzu-ren* (27) agerraldi batekin batera— (Iraz 1739). Bigarren erditik aurrerako idazkien artean, berriz, Ubillosen dotrinan (1785) ageri dira aztergai ditugun osagarri pluraldun adizki tripertsonalak: besteaak beste, *dizquitzut* (77) eta *dizquigu* (122) ditu —*diztet* (17), *cizten* (14) & *ciozcan* (17), *ciozten* (32) erakoekin batera—, baina ezagun da idazle honek garai hartako eredu literarioari jarraitu ziola (ikus § 4). Hortaz, ditugun datuekin zaila da XVIII. mendean jada [**nin + -zki-*] egituradun adizkiak Tolosaldean ere erabiltzen ziren edo ez ziurtasunez jakitea.

Goierrri eskualdeko lehen testuetan ere **eradun oinarriko adizkiak* daude nagusiki —*diozcan* (156) eta *ciozcan* (19) adizkiekin batera— (OArin 1713); halaber, plural komunztadurarik egiten ez den adibideak ere badaude eskualde honetan nahiko aspalditik (OArin 1713 [adibide gutxi]; ZegDot 1741; GoiPlat XVIII; cf. Lakarra 1986, 1996); aldiz, aztertutako testuetan ez dugu aurkitu [**nin + -zki-*] egituradun adizkirik, nahiz eta gaur egun honelakoak erabiltzen diren Goierrin —osagarri plural komunzadura egiten den lekuetan, behintzat—, Tolosaldean bezala (Hurtado 2001: 98).

Honenbestez, esan daiteke beti ez dela erraza testuetatik ondorio garbirik ateratzea. Nolanahi ere, ahozko jardunetik bildutako datuak ikusita, badirudi XX. mendeko, behintzat, bazirela [**nin + -zki-*] egituradun adizkiak, nola Tolosaldean, hala Goierri sortaldean —Urolaldean ez bezala—. Jarraian ageri den taulan adierazi ditugu, eskualdez eskualde, Bährek bildutako adizki motak:

13. taula

Gipuzkoako osagarri pluraldun adizki tripertsonal batzuk, eskualdearen arabera banatuta
(Bähr 1926, 1931, 1934)

Beterri & Tolosaldea ⁴³	Goierrri	Urolaldea ⁴⁴
“hari” datiboa (Bähr 1926, 1931)		
<i>dizkat/nizkan, dizkal/zizkan</i> , etab. eta <i>dizkiot/nizkion, dizkiol/zizkion</i> , etab.	<i>diot/nion, diol/zion</i> , etab. eta <i>dizkiot/nizkion, dizkio/zizkion</i> , etab.	<i>dizkat & dixkat / nizkan & nixkan, dizka & dixka / zizkan & zixkan</i> , etab. eta <i>dizkot & dixkot / nizkon & nixkon, dizko & dixko / zizkon & zixkon</i> , etab.

⁴³ Diozkat erakoak ez ditugu sartu, esan bezala, Beterri aldeko herrien artetik Pasaien soilik ageri dirako eta taula honetan eskualde bakoitzeko ikuspegia orokorra eskaini nahi izan dugulako, herri bakoitzeko xehetasunak eman gabe. Bestalde, Beterri eta Tolosaldea batera jarri ditugu, Tolosaldeko herri batzuk Beterri direlako.

⁴⁴ Beterritik hurbilena dauden herriean *-zki-/xki-* pluralgiledun adizki batzuk ere jaso zituen, baina badirudi XX. mendetik hona hedata Urolaldeko herri gehienetan horrelakoak (cf. Leturiaga 2020).

Beterri & Tolosaldea	Goierrri	Urolaldea
“haiei” datiboa (Bähr 1926, 1934)		
<i>dizk(at)et/nizk(at)en, dizk(at)el/zizk(at)en, etab.</i> eta <i>dizki(ot)et/nizki(ot)en, dizki(ot)el/zizki(ot)en, etab.</i>	<i>diet/nien, diel/zien, etab.</i> eta <i>dizkiet/nizkien, dizkiel/zizkien, etab.</i>	<i>diztet/nizten, diztel/zizten, etab.</i> eta <i>dizk(o)et & dixk(o)et / nizk(o)en & nixk(o)en, dizk(o)e & dixk(o)e / zizk(o)en & zisk(o)en, etab.</i>

Beraz, ahozko jardunetik nahiz testuetatik bildutako datuak kontuan hartuta, badirudi, esan bezala, Beterrira, Tolosaldera eta Goierrira baino geroago hedatu bide dela Urolaldera -zki- berrikuntza —xx. mendetik eta gaur egunera bitartean, ziurrenik— (cf. Leturiaga 2020). Beharbada, baliteke horregatik eutsi izana Urolaldean Gipuzkoako beste eskualdeetan baino adizki gehiagotan eta luzaroago [**nin + -z-*] egituran adizki zaharrei;⁴⁵ era berean, horrek erakus lezake -zki- berrikuntza Gipuzkoan hedatu baino lehenagoko aldi batekoak direla Urolaldeko adizkiak.

4. Testuetako *diozka* & *diezte* gisako adizkien hedaduraz

Testuei kronologikoki begiratu ondotik, aipatu dugu **nin* erroko *diozka* > *dizka* bilakabideak baduela egiantzekotasunik. Izan ere, Urolaldean, esate baterako, *diozka* adizkia XVIII-XIX. mendearen hasieran ageri bada ere (cf. OikiaDot 1784 eta Otaegi XVIII-XIX), Gipuzkoako beste eskualdeetan lehenago ere baditugu agerraldiak: lehen aldiz, Otxoa Arinen dotrinan (1713) ageri da *diozka* ‘dizkio’; eta mende beraren lehen erdiko Lubietaren gramatikan (1728) nahiz Irazustaren dotrinan (1739) ere badaude adibideak. 1744rako, ordea, *diozka* > *dizka* gertatua zela erakusten digu Kardaberatzen lekukotasunak, eta “haiei” datiboko *zizten* ‘zizkien’ ere bazela. Aitzitik, *diozka* ‘dizkio’ & *diezte* ‘dizkie’ erako adizkien agerraldiak nabarmen ugaritzen dira geroagoko Lariz (1773), Ubillos (1785), Iztueta (1824), Lardizabal (1855), Agirre Asteasuko (1803) eta Otaegi Beizamakoa (XVIII-XIX) bezalako idazleen testuetan. Zergatik ugaritzen dira, ordea, XVIII-XIX. mendeetan berriz ere *diozka* & *diezte* gisako adizki luzeagoak, 1744rako jada *dizka* & *zizten* gisako laburtuak baizeuden?

Kontuan hartu behar da literatur gipuzkera sortu eta haren eragina hedatu zen garaia dela, hain zuzen ere, XVIII-XIX. mendeen bitarteko. Urolaldean, adibidez, *diozka* adizkiaren lehen lekukotasuna Azkoitiko sermoian ageri da (*zor ciozcala* 1737: 6), Larramendi andoaindarra idatzitako sermoian, alegia (Lakarra 1985). Are gehiago, lehen lekukotasun horretan ez ezik, honelako adizkiak ageri diren Urolaldeko beste testuetan ere (OikiaDot 1784 eta Otaegi XVIII-XIX) literatur eragina nabari daiteke

⁴⁵ Izan ere, aipatu dugunez, Urolaldeko testuetan ez da jaso **eradun* oinarriko *diuzku* gisakorik, eta beraz, zaila dirudi *diauzku* > *dizku* gertatu zela pentsatzea. Gainera, -iu- gisakoak jaso diren eskualdeetan ere ez dirudi oso hedatuta zeudenik, ezta luzaroan egon zirenik ere, agerraldi gehienak egile berarenak baitira; Irazustarenak, alegia. Horregatik, uste dugu arrazoiak egon badaudela, besteak beste, Urolaldean ageri diren *dizku*, *ditzu*, *dizko* erako adizkiak **nin* errokoak direla pentsatzeko.

(cf. Lakarra 1987: 516; B. Otaegi 1992: 107). Hala nola, Beatriz Otaegiri esker da-kigu Otaegi Beizamakoaren aintzindariak izan zirela Mendiburu, Mogel eta Agirre Asteasukoak; horrez gain, Axular ere ezagutzen eta miresten zuela uste du eta Zarauzko frantziskotarrak ere kontuan hartu behar direla dio Otaegi aztertzerakoan (B. Otaegi 1992: 107-110). Bestalde, Oikiako dotrinari (1784) dagokionez, Larrak honako hau dio (1987: 516): “Delako euskalki edo hizkera baten ordezkarri den aldetiko garrantziaz landa [...] hizkuntzaren historiatikoa, hobe, literatur hizkuntza-ren historiatik datorrena, du doctrina honek”.⁴⁶

Halaber, *diozka* & *diezte* ugaritzen diren Gipuzkoako gainerako eskualdeetako testuetan ere literatur eragina nabari da; Urolaldeko testuetan eragin hau zenbaterainokoak den asko aztertu izan ez bada ere, beste eskualdeetan gehiago aztertu da. Hala, ezaguna da Larramendik eta literatur gipuzkerak zenbait autorerengen izan zuten eragina, eta badirudi XVIII. mendearren bigarren erditik aurrerako idazleek euskaraz idazten zuten gainerako idazleen berri ere bazutela (Alzibar 1992: 327-330): hala nola, badakigu Ubillosek Mendibururen —eta lapurteraren— eragin handia izan zuela. Lardizabalen 1856ko gramatikaren iturburua ere Larramendi omen da, eta beraz, Terriko aditza aurki daiteke bertan (Urgell 1999: lxxviii); gainera, pentsatzen da Larramendi ez ezik, euskara gaiez idatzi zuten beste zenbait autoreren lanak ere ezagutu zituela Lardizabalek —Mendiburu, Kardaberatz, Ubillos, Agirre Asteasukoak, etab.— (Lardizabal 1856: 30, *apud* Urgell 1999: lxxviii; Mendizabal 1956: 185).⁴⁷ Bestalde, honako hauek aipatzen ditu Fidel Altunak (1998: lxcvi-cxix) Agirre Asteasukoaren lanetan eragina izan zezaketen autoreen artean: Larramendi, Mendiburu, Ubillos, Mogel eta baita iparraldeko zenbait egile ere. Hain zuzen ere, Ubillos, Lardizabal eta Agirre Asteasukoaren lanetan topatu ditugu, besteak beste, *diozka* & *diezte* gisako adizkiak.

Honekin ez dugu esan nahi *diozka* & *diezte* bezalako adizkiak literatur eraginaren baitan sortutakoak direnik. Izan ere, lehenago aipatu bezala, XVIII. mendearren bigarren erdia baino lehenago, Otxoa Arinen dotrinan (1713) eta Lubietaren gramatikan (1728) ere ageri da *diozka*,⁴⁸ eta badakigu, halaber, ahozkoan ere erabiltzen zela XX. mendean bildutako ahozko datuei esker (Bähr 1926-1935). Honenbestez, esan nahi duguna da literatur eraginak baldintzatu zezakeela, beharbada, geroagoko testuetan, ustez, zaharragoak eta luzeagoak diren adizki horiek agertzea; edo bestela esanda, literatur eredutzat hartu izan ziren idazle eta lanetan agertu izanak lagundu zezakeela geroagoko autoreek ere honelakoak erabiltzea. Hala nola, Larramendiren gramatikan (1729) ageri dira *diozka* ‘dizkio’ eta *diozkate* ‘dizkie’ gisako adizkiak:

⁴⁶ Aldiz, XVIII. mendearren bigarren erdia baino lehenagoko idazkietan, edo ahozkoik gertuago ego-tea espero dugunetan —cf. *SumBrev* (1614); *AzpGut* (c. 1738); *GTour* (1772)— ez dugu *diozka* & *diezte* gisako adizkirik topatu Urolaldean.

⁴⁷ “Nik uste dut zer ontan gauza oker xamar bat dala, alegia, Lardizabal Zaldibiakoa zan eta badirudi Lardizabalek Zaldibiko izkuntza egin nai zukeala, eta nik eztut uste ori ala danik. Nik uste dut Lardizabalen oñiarriak lenagoko autoreetan daudela” (Mitxelena, *apud* Alzibar 1992: 335).

⁴⁸ Dena dela, baliteke Lubietak urtebeteko geroago argitaratuko zen Larramendiren gramatika ezagutzea; izan ere, Gidor Bilbaok ohartarazi bezala (2012: 646), bere gramatikan Larramendiren *Artea* aipatzen du, Manuel Vicente Etxeberrirenarekin batera: *el Arte de Fr. Manuel Vizente de Echeverria y de Larramendi Libros nuevos / Arte Fr. Manuel Vizente Echeverrirena etta Larramendiren Libru berriac* (Lubieta 1728: 443).

14. taula

Larramendik bere gramatikan (1729) dakartzan osagarri pluraldun adizki tripertsonalak, datiboa 3. pertsona delarik

“hari” datiboa:

orain. *diozcat, diozcac/diozcan, diozca, diozcagu, diozcatzue, diozcate; lehen. niozcan, iozcan/ciniozcan, ciozcan, guiniozcan, ciniozcaten, ciozcaten* (1729: 116-117)

“haiet” datiboa:

orain. *diozcatet, diozcatec/diozcaten/diozcatzute, diozcate, dioztagute ‘dizkiegu’, diozcate; lehen. niozcaten, ciniozcaten, ciozcaten, guiniozcaten, ciniozcaten, ciozcaten* (1729: 135)

Hori ikusita, pentsa daiteke Pasaien eta Oiartzunen xx. mendean bildutako adizkien gisakoak bazirela Beterri eta Oiartzualde inguruan XVIII. mende hasieratik, gutxienez. Horiez gain, “haiet” datiboarekin *dieztet, dieztezu, diezte... / niezten, ciniezten, ciezten...* ere erabiltzen zirela dio andoaindarra (LarmEIV 1729: 135); 1. eta 2. pertsona datiboekin, ostera, -*zki*- pluralgiledun adizkiak dakartz La Ramendik, eta ondoko zenbait autoretan ere joera bera ikus daiteke:

15. taula

Literatur gipuzkeraren eragina hedatu ondoko testuetan bildutako osagarri pluraldun adizki tripertsonal batzuk

Kardab (1744)	<i>dizka</i> (25), <i>ziztela</i> (14), <i>zizten</i> (24) <i>dizkigun</i> (4), <i>dizkitzut</i> (4), <i>dizkizute</i> (16), <i>dizkitzu</i> (13) <i>ziozkanak</i> (3), <i>diozkatzula</i> (4)
Lariz (1773)	<i>dizquitzut</i> (14), <i>dizquidatzula</i> (14), <i>dizquigun</i> (26), etab. <i>diozagu</i> (53), <i>diozcatzu</i> (70), etab. <i>dieztezu</i> (<i>irakurleari</i> atala)
Ubill (1785)	<i>dizquigu</i> (122), <i>dizquitzut</i> (77), etab. <i>diozca</i> (211), <i>diozcagu</i> (140), <i>badiozcatzue</i> (151), <i>ciozcan</i> (17), etab. <i>dieztegun</i> (81)
AgirAst (1803)	<i>dizquidan</i> (25), <i>dizquitzut</i> (295), <i>dizquidatzun</i> (325), <i>dizquigun</i> (78), <i>nizquitzun</i> (120), etab. <i>diozcat</i> (23), <i>diozca</i> (214), <i>diozcagu</i> (261), <i>diozcatzu</i> (68), etab. <i>diezte</i> (1), <i>ciezten</i> (53)
Lardiz (TZ eta TB, 1855)	<i>dizkit, dizkizuten, dizkitut, zizkiguten</i> , etab. <i>ziozkan, ziozkatzen</i> , etab. <i>diezte, dieztee, diezten, ziezteneak</i> , etab.

Honenbestez, ez dirudi kasualitate hutsa Larramendik bere gramatikan bildutako adizki horiek berak agertzea ondoko idazleen idazkietan; jakin badakigu ondoko autore askoren eredu izan zela andoaindarra. Testuak nahi adina ez ditugunez, ezin an-

tzeman daiteke garbi non, noiz eta nola sortu ziren *diozka* & *diezte* gisakoak; dakin-guna da XVIII. mendean jada osagarri pluraldun adizki tripertsonaletan **nin* erroa erabiltzen zela Gipuzkoan (cf. Lubieto 1728; LarmEIV 1729), eta *diozka* & *diezte* gi-sako adizkien lehen agerpenak ere garai berekoak direla, nahiz eta geroago hedatu.

Ahozko daturek jakitera ematen digute “hari” datiboko *diozka* —nahiz horren gai-nean eratua dirudien “haiet” datiboko *diozkate*— bezalakoak ohikoak zirela Beterri-Oiartzualde inguruan XX. mendean (Bähr 1926-1935). Hori aintzat hartuta, eta artikulu honen hasieran aipatu bezala Lapurdin ere honelakoak zeudela ikusita, pentsa ote daiteke Lapurditik heldu zirela Oiartzualde-Beterri ingurura, eta Oiartzualde-Beterritik Gipuzkoako gainerako eskualdeetara? EHHAn begiratuta, horixe pentsatzera garamatza *diozka/dizka* adizkiaren hedadura erakusten duen mapak (Euskaltzaindia 2014: 1375):



1. irudia

EHHAn ‘dizkio’ adizkiarekin ageri den mapa (Euskaltzaindia 2014)

Hau guztia esanda, badirudi aukera bat izan daitekeela pentsatzea Gipuzkoako *diozka* erako adizkiak **nin* errokoak direla, eta hauek Lapurditik irits zitezkeela. Horren lekuko lirateke, besteak beste, Pasaian gaur egun ere irauten duten adizki tri-pertsonalak; cf. Agirretxe *et alii* (2000). Dena dela, Gipuzkoa ekiäldeko lekukotasun zahar asko ez ditugunez, zail da jakiten zehazki noiztik dauden *diozka* erako adizkiak bertan, eta beraz, Lapurditik heldu ote ziren, edo Lapurdin baino lehenago Gipuzkoako ekiäldean jada bazeuden.

Bestalde, Beterri eta Oiartzualde inguruko herri gehienetan badirudi *diozka* > *dizka* gertatu dela.⁴⁹ Egitura berekoak lirateke Gipuzkoako hainbat hizkeratan —batik bat, Urolaldean— gaur egun ere entzun daitezkeen *dizku*, *dizko*, *diztel* *dizk(o)e* gisakoak, beharbada, *dizka*-ren analogiaz sortuak, eta hortaz, [**nin* + -*z-*] egi-tura dutenak. Pixkanaka, -*zki-* pluralgilea hedatu eta -*z-* zaharra ordezkatu bide zuen, Urolaldean baino lehenago Beterrin, Tolosaldean eta Goierri sortaldean.

⁴⁹ Hala ere, Zizurkilen hiztun zaharrengandik *niozkan*, *ziozkan* erakoak oraindik entzun daitezkeela dioskute Ensunza & Reguerok (2011: 19).

5. Antzeko beste adizki bat: Ataungo *diotza*

Atal honetan Gipuzkoako testuetan ageri ez den baina *diozka*-ren antzerakoa dirudien beste adizki batez jardungo dugu: Ataungo *diotza* ‘dizkio’ gisakoez, hain zuzen ere. Zaharra da adizki horietako *-tza-* pluralgilea (< *-za-*; Ariztimuño 2013: 370); Gipuzkoako hizkera gehienetan adizki gutxi batzuetan baino iraun ez badu ere, Atauen beste inon baino gehiago erabiltzen da pluralgile hau oraindik ere; NOR sailaz gain, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailetan ere bai (cf. Leturiaga 2020: 373-374).

Aukera bat izan daiteke pentsatzea gaur egun NOR-NORI-NORK sailean ataundarrek erabiltzen dituzten *diotza* ‘dizkio’ gisako adizkiak arkaismoak direla; hots, pluralgile zaharrarekin joan ohi zen **eradun* oinarrikoak direla (*di(r)autza* > *diutza* > *diozka*; cf. *di(r)auzka* > *diuzka* > *diozka*):⁵⁰

- (15) D-IO-TZA-Ø-Ø
TAM3-**eradun*-NOR3pl-NORI3sg-NORK3sg

Honenbestez, honela azal liteke Ataungo *diotza* ‘dizkio’ bezalako adizkiak **eradun* oinarrikoak izatea: alde batetik, Leturiaga (2020: 372)-n azaldu bezala, badirudi *-(t)za-* pluralgile zaharrak “hari” datiboa barnehartzen zuela, eta beraz, ez litzateke harrigarri adizki horietan datibo morfema Ø izatea. Dena dela, hori onartuta ere, datuak ez genituzte guztiz alde *dirautza* > *diozka* defendatzeko: Goierrin Otxoa Arin (1713) ordiziarrak, esate baterako, *dirautza* ‘dizkio’ (66) dakar, baina **diozka*-ren ordez *diozcan* ‘dizkion’ (156), *-ka-* eta guzti.

Gainera, esan bezala, *diozka* ‘dizkio’ adizkia **eradun* oinarrikoak izan daitekeen arren, paradigmako Ataungo gainerako adizkiak modu berean azaldu ahal izateko, onartu beharko genuke **eradun* oinarriak datibo pertsona bakoitzarekin bilakabide desberdin bat izan zuela: batzuetan, *-io-* (*diozka* ‘dizkio’), bestetan *-iu-* (*diutza* ‘dizkigu’) eta baita *-ie-* (*dietza* ‘dizkie’) ere; baina *-irau-* k ezin eman litzake *-io-*, *-iu-* eta *-ie-* guztiak batera, eta gainera, hipotesi honetan pluralgilearen ondoko datibo morfemak faltako lirateke:

- (16) a. D-IO-TZA-Ø-Ø
TAM3-**eradun*-NOR3pl-NORI3sg-NORK3sg
b. D-IU-TZA-Ø-Ø
TAM3-**eradun*-NOR3pl-NORI1pl-NORK3sg
c. D-IE-TZA-Ø-Ø
TAM3-**eradun*-NOR3pl-NORI3pl-NORK3sg

Beste aukera bezala, pentsa genezake *diozka* ‘dizkio’ adizkian, *-io-* beharrean, *-i-* dela **eradun-en* hondarra (*dizku* ‘dizkigu’ gisako adizkietarako proposatu izan den bezala; cf. Lakarra 1985: 257) eta *-o-*, berriz, 3. pertsona singularreko datibo morfema. Azalpen hau ontzat emango bagenu, modu berean azal litezke *dietza*, *diutza* eta gainerako adizkiak ere:

- (17) a. D-I-O-TZA-Ø
TAM3-**eradun*-NORI3sg-NOR3pl-NORK3sg

⁵⁰ Ez da erraza jakiten erroa **nin* ala **eradun* den. Izan ere, oraindik [**eradun* + *-tza-*] egitura dago Ataundik gertu, Nafarroako Etxarri-Aranatzetan; cf. Irizar (1991-II: 394).

- b. D-I-E-TZA-Ø
TAM3-*eradun-NORI3pl-NOR3pl-NORK3sg
- c. D-I-U-TZA-Ø
TAM3-*eradun-NORI1pl-NOR3pl-NORK3sg

Haatik, bigarren azalpen honek ere ez dirudi oso sendoa. Izan ere, adizki horiean “aditz erroa + datibo morfema + osagarriaren pluralgilea” egitura dagoela onartu beharko genuke, eta hori ez da oso ohikoa (Ariztimuño 2016: 32); esate baterako, historikoki ez daukagu *eradun oinarriko ***d-irau-o-tza-Ø* ‘dizkio’, ***d-irau-gutz-a-Ø* ‘dizkigu’ egiturarik.

Bestalde, berriz ere testu zaharretara itzuliz, nola liteke XVIII. mendean Otxoa Arin (1713) ordiziarrak dakartzan adizkietatik abiatuta, Ataunen Bährek (1926) bil-dutakoak azaltzea?

- (18) a. *dirauztaçu(la)* (1713: 145) → *diitzazu* (1926) ‘dizkidazu’
 b. *dirautzut* & *diutzudan* (1713: 145) → *ditzatzut* (1926) ‘dizkizut’
 c. *dirautza* (1713: 66) & *diozca(n)* (156) → *diotza* (1926) ‘dizkio’
 d. *dirauzcagu(n)* (1713: 58) → *diotza(g)u* (1926) ‘dizkiogu’
 e. *dirauzcu* (1713: 58) → *diutza* (1926) ‘dizkigu’

Egia esan, adizkiok formalki nahiko urrutti daude bata bestetik. Horregatik guztiagatik, aproposagoa dirudi pentsatzea Ataungo *diotza* ‘dizkio’ gisakoak bestela era-tuak direla, eta ez iraganeko *eradun oinarrikoetik eratorrita. Aukera bat izan daiteneke pentsatzea hauek ere **nin* erroko adizki singularretatik abiatuta sortuak direla, *diozka* bezalako adizkietarako proposatu bezala; Ataungo kasuan, singularreko adizkiari *-tza-* pluralgilea atzetik gehituta. Hau da: *dio* > *diotza* (*dio* + *-tza-*) ‘dizkio’; *diu* ‘digu’ > *diutza* ‘dizkigu’; *die* > *dietza* ‘dizkie’, etab. Ondoren, analogiaz, egitura bera adizki gehiagotara hedatu zatekeen, beharbada. Egia da bigarren aukera honetan ere datibo morfema osagarriaren pluralgilearen aurretik dugula, baina, aipatu dugunez, badira horrelako adibide gehiago **nin* erroarekin; cf. *diezcun* ‘dizkiegun’ (Ariztimuño 2016: 32; Reguero 2019: 210). Gaur egun ere, Pasaien badira *siaskien* ‘zizkidan’, *siaskiten* ‘zizkidaten’, *seniaskisuten* ‘zenizkidaten’, etab. (Agirretxe *et alii* 2000: 126).

Hau guztia ikusita, pentsa daiteke Ataungo *diotza* & *dietza* eta Gipuzkoako testuetako *diozka* & *diezte* adizkiek egitura bera dutela, eta hortaz, **nin* hipotesiaren alde egiteko elkarren osagarri direla. Izan ere, badirudi hipotesi honekin adizki bat baino gehiago azal litezkeela, eta horrek, aldi berean, hipotesia indartzen duela.

6. Ondorioak

Artikulu honetan Gipuzkoako testu zaharretan ageri diren osagarri pluraldun adizki tripertsonal batzuk izan ditugu hizpide. Alde batetik, *diozka* ‘dizkio’ erakoez aritu gara eta, *eradun oinarrikotzat hartu izan diren arren (Ariztimuño, *apud* Laka-rra 2011: 257), ikusi dugu **nin* errokoak ere izan daitezkeela; are gehiago, **nin* errokoak izateko aukera gehiago dutela, beharbada. Hipotesi horren alde honako argudio hauek aipatu ditugu:

— Jatorrizko adizkien hutsunea: Urolaldeko testuetan ez dugu *-iu-* erako adizki-rik topatu — Itziar (1790 [1768]) testuko bi adibideak salbuespentzat hartuta,

- erdialderagoko hizkera islatzen baitute ziurrenik, cf. Zuloaga (2019)—; honen-bestez, *eradun-en hipotesiari eusteko adizki batzuetan -i(r)au- > -iu- > -io- di-similazioa eta beste batzuetan -i(r)au- > -io- monoptongazioa gertatu dela de-fendatu beharko genuke, eta horrek datuak *ad hoc* interpretatzera garamatza. Gainera, adizki batzuetan *eradun oinarriko -i(r)au-dun forma zaharrak ere falta dira; cf. *dirautza* & *diozka* baina **dirauzka* (OArin 1713).
- NOR-NORI-NORKEKO *diezte* eta NOR-NORIKO *zaiozka*: “haiei” datiboko adizki tripertsonaletan *diezte* erakoak ere topatu ditugu; -irau-k, beharbada, eman lezake -io-, baina ez -io- & -ie-, aldi berean. Halaber, NOR-NORIKO *zaiozka* & *zaiezte* adizkiak aurkitu ditugu Beterri, Tolosalde eta Goierri eskualdeetako testu batzuetan; horiek *izan* erroa baizik ezin dira izan, eta beraz, erakusten dute inoiz *zaio* > *zaiozka* (*zaio* + -zka-) eta *zaie* > *zaiezte* (*zaie* + -zte-) bilakabi-deak gertatu zirela, *dio* > *diozka* (*dio* + -zka-) tripertsonaletarako proposatu be-zala.
- -zka- & -zte- pluralgileen agerraldiak ahozkoan: alde batetik, -zka- aurkitu dugu Pasaiān eta Oiartzunen (*diozka*, *diozkate*); beste aldetik, Urolaldeko nahiz ondoko herrietako iraganaldiko adizki neutro batzuetan eta hitanoko adizki alokutibo batzuetan -zka- ez ezik, -zte- ere topatu dugu (besteak beste, *ziñozkan* < **ziniozkan*/**zeniozkan*; *giñezten* < **giniezten*/**geniezten*). Horrek erakusten digu -zka- eta -zte- [pluralgile + datibo morfema] egituraz osatutako pluralgileak inoiz egon direla, eta *dio* > *diozka*; *die* > *diezte*; *zaio* > *zaiozka* bila-kabideak posible direla.

Beste aldetik, Gipuzkoako hainbat hizkeratan —gaur egun, batez ere, Urolaldean— entzun daitezkeen *dizkal/dizko* ‘dizkio’, *diztel/dizk(o)e* ‘dizkie’ erako adizkiez jardun dugu. Gainera, ikusi dugu Gipuzkoako testuetako *diozka* **nin* errokoak dela frogatzeak erakutsi lezakeela, agian, aurreko horiek ere **nin* errokoak direla. Izan ere, Oiartzungo adizkiek pentsarazten digute *diozka* > *dizka* gertatu ahal izan zela (Bähr 1926-1935; EHHA: 1375), eta beraz, *dizka* ere **nin* errokoak dela. Ildo bere-tik, proposatu dugu *dizka* horren analogiaz sortuak izan daitezkeela beste pertsona datibodun adizkiak. Hau da: *diozka* > *dizka* > (*d-i-z-ka-Ø* interpretatu) > *dizku* (*d-i-z-ku-Ø*), *ditzu*, *diztan*, etab. Nolanahi ere, badirudi -zki- berrikuntza iris-tean, [**nin* + -zki-] egituradun adizkiak nagusitu zirela, aurreko [**nin* + -z-] egitu-radunak atzean utzita. Testu zaharren eta ahozko datuen arabera, pentsa daiteke [**nin* + -z-] → [**nin* + -zki-] berrikuntza lehenago gertatu dela Beterrin, Tolosaldean nahiz Goierri sortaldean, eta geroago, aldiz, Urolaldean; hain zuzen ere, hori izan daiteke arrazoia Urolaldean *dizkol/dizka* ‘dizkio’, *dizku* ‘dizkigu’, *ditzu* ‘dizkizu’ modukoei luzaroago eta adizki gehiagotan eusteko.

Esandakoa aintzat hartuta, argi dago orain arte esan izan den moduan Gipuzkoako historian bi garai nagusi bereizi behar direla osagarri pluraldun adizki triper-tonalei dagokienez: 1) *eradun oinarria erabili izan den garaia; eta 2) **nin* erroa era-bili izan dena. Hala ere, badirudi **nin* erroa pluralgile bati baino gehiagori lotu izan zaiola. Hori horrela izanik, guk, saio honetan, honako kronologia hau proposatu dugu:

1. *eradun oinarria erabiltzen zen, -(t)za- eta -z- pluralgileekin batera; cf. *dirautza*, *zirauzkan*, *ziuzkun*, etab. (a quo Iraz 1739)

2. **nin* erroa iritsi eta **eradun* ordezkatu zuen (3. pertsona singular datibotik hasita, Lapurdin bezala), -*zka*- pluralgileari lotu zitzaiolarik; cf. *dio* → *diozka* ‘dizkio’ (*ante quem* OArin 1713)
3. *diozka* > *dizka* soiltzea gertatu, *d-i-z-ka-*Ø moduan interpretatu, eta haren analogiaz [**nin* + -*z*-] egituradun *diztan* ‘dizkidan’, *ditzu* ‘dizkizu’, *dizku* ‘dizkigu’ erakoak sortu ziren (*ante quem* Kardab 1744)
4. -*zki*- berrikuntza iristean [**nin* + -*zki*-] egituradun *dizkidan*, *dizkigu*, *dizkizu* erako adizki berriek *diztan*, *dizku*, *ditzu* zaharragoak ordezkatu zituzten —es-kualde batzuetan lehenago [Beterri, Tolosaldea eta Goierri sortaldea] eta bestetean geroago [Urolaldean]—.

Egia da ez datorrela bat kronologia honenkin XVIII-XIX. mendeetako Gipuzkoako testuetan *diozka* & *diezte* erakoak agertzea; cf. Lariz (1773), Ubill (1785), AgirAst (1803), Lardiz (1855), Otaegi (XVIII-XIX). Haatik, uste dugu balitekeela geroagoko agerpen horiek literatur gipuzkeraren eraginari zor izana. Izan ere, Larramendiren gramatikan (1729) ageri dira, besteak beste, *diozka* ‘dizkio’ & *dieztel/diozkate* ‘dizkie’ erako adizkiak 3. pertsona datiboarekin, eta gogoan izan behar dugu zenbait idazleren eredu izan zela andoaindarra. Hori dela eta, gure iritzian, ez da kasualitate hutsa Larramendiren gramatikan bildutako adizki horiek berak aurkitzea, hala nola, Kardaberratz, Lariz, Ubillos, Agirre Asteasuko, Lardizabal eta Otaegi Beizamakoaren testuetan. Ildo beretik, proposatu duguna da literatur eredutzat hartu izan ziren idazle eta lanetan agertu izanak lagundu zezakeela geroagoko autoreek ere —ustez, *dizka/dizkio* & *diztel/dizkie* baino zaharragoak diren— *diozka* & *dieztel/diozkate* adizkiak erabiltzea.

Bibliografia

- Agirre, Juan Bautista. 1803. *Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldiac*. Tolosa: Francisco Lama.
- Agirretxe, Joxe Luix, Mikel Lersundi & Ortzuri Olaetxea. 2000. *Pasaiako bizkera*. Pasaia: Pasaiako Udala.
- Aldazával y Murguía, Pedro Joseph. 1790 [1768]. *Ama Virgina santissima Yciarcuaren bederatci urrena*. Tolosa: Fermin Huarte eta Arlegui.
- Aldekoa, Iñaki. 2007. Antzerkiaren transkripzioa eta hainbat ohar. *Egan* 60(1-2). 69-91.
- Altuna, Fidel. 1995. Loiolako doctrina. *ASJU* 29(2-3). 611-649.
- Altuna, Fidel. 1998. *Erakusaldiak. Antología. Juan Bautista Agirre*. Donostia: Elkarlanean.
- Altuna, Patxi. 1992. Ochoa de Arin-en *Doctrina Christiana*-ren (1713) hizkeraren labur-pena. *Euskera* 37(1). 573-589.
- Altzibar, Xabier. 1992. Larramendi eta literatur-gipuzkera. In Joseba A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena 1690-1990*, 325-360. Andoain: Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Aranburu, Pello Joxe. Marian Bidegain, Anton Idiakoz & Iñaki Rezola. 1999. *Jose Otxoa Arin (1672-1743), gipuzkera literarioaren aitzindari*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia & Lazkaoko Udala.
- Ariztimuño, Borja. 2013. Finite Verbal Morphology. In Mikel Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction* [= *Mikroglossika* 5], 359-427. Frankfurt am Main: Peter Lang.

- Ariztimuño, Borja. 2016. Euskararen dialekto zaharrak aztertzeko saioa: aitagureen *mithridates* baten deskribapena. In Gotzon Aurrekoetxea, Jesus Mari Makazaga & Patxi Salaberri Muñoa (arg.), *Hire bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz*, 21-40. Bilbo: UPV/EHU.
- Bähr, Gerhard. 1926. Estudio sobre el verbo guipuzcoano. *RIEV* 17. 98-122, 370-394.
- Bähr, Gerhard. 1927. Estudio sobre el verbo guipuzcoano. *RIEV* 18. 437-469.
- Bähr, Gerhard. 1928. Estudio sobre el verbo guipuzcoano. *RIEV* 19. 287-312.
- Bähr, Gerhard. 1931. Estudio sobre el verbo guipuzcoano. *RIEV* 22. 245-269.
- Bähr, Gerhard. 1934. Estudio sobre el verbo guipuzcoano. *RIEV* 25. 63-77.
- Bilbao, Gidor. 2012. Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian. In Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, 621-649. Bilbo: UPV/EHU.
- Camino, Iñaki. 2018. Hizkuntza-ospearen eta eragin lektalaren zirurikak Ipar Euskal Herriko jende, mintzo eta idazkietan. *ASJU* 52(1-2). 93-131.
- Camino, Iñaki & Céline Mounole. 2014. *Pregarioac Bayonaco Diocezacotz* (1651) [pdf]. In Ricardo Gómez, Borja Ariztimuño, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole, Urtzi Reguero & Eneko Zuloaga (arg.), *Euskal Testu Zaharren Bilduma Berria*. Gasteiz: UPV/EHUko lan argitaragabea.
- Elosegi, Xabier. 2018. *Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean*. Senpere: Lapurdi 1609 elkartea.
- Ensunza, Ariane & Urtzi Reguero. 2011. *Zizurkil ahoz aho* [pdf]. http://www.zizurkil.eus/barrena/hizkera/Zizurkil%20ahoz%20aho_definitiboa%20def.pdf (2020/10/10).
- Euskara Institutua. 2013. *Euskal Klasikoen Corpusa (EKC)*. Leioa: UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/ehg/kc/> (2020/09/21).
- Euskaltzaindia. 2014. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*, 6. lib. Bilbo: Euskaltzaindia (= EHHA).
- Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Euskaltegia & Lazkaoko Udala.
- Irazusta, Juan. 1739. *Doctrina Christiana egun zuana erdaraz: Aita Gaspar Astete Jesuitac. Ipini du eusqueraz D. Juan Irazusta, erretore Hernialdecoac*. Iruñea: Joseph Joaquin Martínez.
- Irizar, Pedro. 1991. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, 2 lib. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Iztueta, Juan Ignacio. 1824. *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*. Donostia: Ignacio Ramón Baroja.
- Kardaberatz, Agustín. 1744. *Christavaren vicitza*. Iruñea: Anchuela (Bittor Hidalgoaren argit. elektr. erabili dut: *Klasikoen gordailua* <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/KardaberatzKristabaI.htm> (2020/10/10)).
- Lakarra, Joseba A. 1985. Literatur gipuzkerarantz: Laramendiren Azkoitiko sermoia. *ASJU* 19(1). 235-282.
- Lakarra, Joseba A. 1986. Bizkaiera zaharra euskalkien artean. *ASJU* 20(3). 639-681.
- Lakarra, Joseba A. 1987. Oikiako dotrina (1759). *ASJU* 21(2). 515-564.
- Lakarra, Joseba A. 1996. *Refranes y sentencias-en hizkeraz eta bizkaiera zaharraz*. *Refranes y sentencias* (1596), 147-198. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, Joseba A. 2011. Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, 155-241. Bilbo: UPV/EHU.

- Lakarra, Joseba A. 2018. Euskararen historiaurrea. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 23-229. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Segurola. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lardizabal, Francisco Ignacio. 1995 [1855]. *Testamentu Zarreko kondaira (I eta II)*. Blanca Urgell (arg.). Donostia: Labayru (Argit. elektr. erabili dut: *Klasikoen gordailua* <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LardizabalZarreko.htm> (2020/10/10)).
- Lardizabal, Francisco Ignacio. 1998 [1855]. *Testamentu Berriko kondaira*. Blanca Urgell (arg.). Donostia: Labayru (Argit. elektr. erabili dut: *Klasikoen gordailua* <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LardizabalBerriko.htm> (2020/10/10)).
- Lardizabal, Francisco Ignacio. 1856. *Gramática Vascongada*. Donostia: Ignacio Ramón Barroja.
- Lariz, Xavier. 1773. *Cristau dotrinaren esplicacioa aur-enzat ta andienzat: galdeuaz ta eranzunaz Maisuaren ta Iracaslearen artean*. Madrid: Antonio Sancha.
- Larramendi, Manuel. 1729. *El imposible vencido*. Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaráz (Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979).
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero. (Berrargit. faksim. Donostia: Txertoa, 1984).
- Lekuona, Manuel. 1956. Gabon-kantak. *Egan* 5-6. 9-44.
- Leturiaga, Olatz. 2020. Gipuzkoa erdialdeko pluralgileen azterketa. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*, 367-402. Bilbo: UPV/EHU.
- Lubietá, Joséph Domingo. 1728. *Diccionario en Castellano y Basquenze que sirve para la enseñanza de la bascongada*. Donostia: eskuizkribu argitaragabea (Gidor Bilbaoren transkripzioa erabili dut).
- Madariaga, Juan, José Antonio Azpiazu & Jerardo Elortza. 2009. xviii. eta xix. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk. *FLV* 110. 5-45.
- Mendizabal, Fernando. 1956. Lardizabal'en euskeraz zertxobatt. *Euskeria* 1. 183-205.
- Mounole, Céline. 2015. Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz. In Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*, 473-490. Bilbo: UPV/EHU.
- Mounole, Céline & Ricardo Gómez. 2018. Euskara Zahar eta Klasikoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 469-541. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Mounole, Céline & Joseba A. Lakarra. 2018. Euskara Arkaikoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 345-468. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Munibe, Xabier Maria. 1762. *Gabon-sariak*. In Gabriel Aresti (arg.), 1965, *Teatro zaarra*, 47-77. Tolosa: Auspoa.
- Munibe, Xabier Maria. 1764. *El borracho burlado*. In Gabriel Aresti (arg.), 1965, *Teatro zaarra*, 78-160. Tolosa: Auspoa.
- Murugarren, Luis. 1984. Una plática del Goyerri. *ASJU* 18(2). 185-197.
- Otaegi, Beatriz. 1993. *Felipe Agustín Otaegui Beizamako erretorearen eskuizkribuak (1767-1840)*. Beizama & Donostia: Beizamako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia & Kutxa Fundazioa (Berrargit. elektr., 2014. https://www.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Beatriz_Otaegi_TESIA.pdf (2020/10/10)).

- Otxoa Arin, José. 1713. *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itz eguiten dan moduan*. Donostia: Pedro de Ugarte.
- Padilla, Manuel & Xarles Videgain. 2015. Le Dauphin: euskalzko gutunak (1757). In Xabier Lamikiz, Manuel Padilla & Xarles Videgain, *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsason-tziko euskalzko gutunak (1757)*, 95-161. Baiona: Centre de Recherche Iker (= *Lapur-dumen ale bereziak* 2).
- Reguero, Urtzi. 2018. NOR-NORI-NORK saileko perifrasietako aditz laguntzaileak goi-nafarreraz: azterketa eta proposamen berria. *ASJU* 52(1-2). 683-695.
- Reguero, Urtzi. 2019. *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskalzko testu zaharretan barrena (1416-1750)* (*ASJU*ren gehigarriak 71). Bilbo: UPV/EHU.
- Satrustegi, José María. 1987. *Euskal testu zaharrak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ubillos, Juan Antonio. 1785. *Christau doctriñ berri-ecarlea christauari dagozcan Eguia sinis-beharren-berria dacarrena*. Tolosa: Francisco de la Lama.
- Urgell, Blanca. 1999. *Testamentu Berriko kondaira. Francisco Ignacio Lardizabal*. Donostia: Labayru.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen euskara modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Jo seba A. Lakarra (arg.), *Euskalaren historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Urkizu, Patri. 2008-2009. Un texto olvidado del siglo XVII: *Sumario brebea...* (Azkoitia, 1614). *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca* 14. 207-217.
- Zavala, Antonio. 1964. *Jose Vicente de Echagaray. Festara. (Bere bertso guzien bilduma)*. Tolosa: Auspoa.
- Zuloaga, Eneko. 2019. *Mendebaleko euskalaren azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. Gasteiz: UPV/EHUko doktoretza tesia.

Hizkuntza aldakortasunaz eta barietateen sailkapenez: aspektu ez-perfektuaren bariazioa Igorreko euskaran¹

*Linguistic variation and variety classification:
variation of the imperfective aspect in Igorre Basque*

Naia Eguskiza*, Iñaki Gaminde, Aitor Iglesias

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: The aim of this work is to emphasize the use of the objective quantitative methods to classify varieties and informants. For that, the morpho-phonological rules used by young speakers from Igorre to make the imperfect particle have been described and analyzed. According to SKDM theory, after the study of different forms and after the linguistic analysis, three classifying techniques have been used to classify informants: analysis of hierarchical conglomerates, the DAE method and K-means conglomerates (KM) (based on fuzzy logic). Along with the explanation of the techniques, we also explain the results of the whole study at the end of the paper.

KEYWORDS: Linguistic variation, variety classification, informant classification, methodology, Fuzzy C-means.

LABURPENA: *Hizkuntza aldakortasunaren ikerkuntzan barietateen zein informatzaileen sailkapenak egiterakoan metodo kuantitatibo objektiboen baliagarritasuna nabarmenitza da lan honen xedeoa. Horretarako, Igorreko hiztun gazteek aspektu ez-perfektua egiteko erabiltzen dituzten arau morfo-fonologikoak deskribatu eta aztertu dira. Sistema Konplexu Dinamiko Moldagarriaren (SKDM) teoriari jarraiki, azaleko forma butsen azterketatik harago, azterketa linguistikoaren beharra aldarrikatu ondoren, hiru teknika sailkatzaile erabili dira informatzaileak sailkatzekotan: multzokatze azterketa hierarkiko, DAE metodoa eta K-batezbesteko multzokatzea (KM) (logika lausoaren hartsarretan oinarritzen dena). Tekniken azalpenekin batera azterketa osoaren emaitzak ere aurkezten ditugu lanaren amaieran.*

HITZ GAKOAK: *hizkuntza aldakortasuna, barietateen sailkapenak, informatzaileen sailkapenak, metodologia, logika lausoa.*

¹ Ikerketa hau IT1208-19 proiektuaren barnean burutu da.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Naia Eguskiza. Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU). Sarriena Auzoa, z/g (48940 Leioa-Bizkaia) – naia.egusquiza@ehu.eus – <http://orcid.org/0000-0002-8928-7006>

Nola aipatu / How to cite: Eguskiza, Naia; Gaminde, Iñaki; Iglesias, Aitor (2021). «Hizkuntza aldakortasunaz eta barietateen sailkapenez: aspektu ez-perfektuaren bariazioa Igorreko euskaran». *ASJU*, 53 (1-2), 163-181. (<https://doi.org/10.1387/asju.22415>).

1. Sarrera

Ohikoa da informatzaileak edo hizkerak sailkatuta ikustea dialektologia tradizionalak proposatu izan dituen metodoen arabera. Urteak joan urteak eterri, era hone-tako sailkapenak oraindino egiten diren arren, uste dugu unea heldu dela adierazteko euren bidez erakusten den aldakortasunaren errealitatearen gaineko argazkia gutxiez-nez desenfokatu samarra dela (Eguskiza, de Pablo & Gaminde 2017). Ez ditugu ukatu nahi dialektologia tradizionalak egin dituen ekarpen guztiak, ez da hori gure hemengo helburua ez eta asmoa ere. Bai, ostera, bere hatsarreetan eta metodoetan, gure iritziz, dauden arazo batzuk agerian jarri nahi genituzke.

Dialektologia tradizionalaren sailkapenen arazo nagusiak hiru esparrutan behintzat, agertzen dira: datuen aukeraketan, datuen trataeran eta sailkapenak egiteko metodologian. Lehen arazoa izaten da jakitea zeintzuk diren irizpideak ezaugarri batzuk aukeratzeko eta beste batzuk baztertzeko; irizpide horiek askotan ez dira zehazten, eta irakurleak suposizioak egin behar izaten ditu. Aukeratzen diren ezaugarriak sarri askotan guztiz homogeneotzat eta absolututzat hartzen dira hiztun komunitate osoak beti berdin erabiliko balitu bezala, era honetara hiztunen arteko aldakortasuna eta hiztunen baitakoa ere ukatzen dira, euskaldunak komunitate isotropikoetan biziko balira bezala. Lan honetan eta beste askotan (Ensanza 2015; Lujanbio 2016) erakutsi den bezala, informatzaile guztiak ez dute berdin egiten hiztun komunitate berean, ez eta hiztun berak egoera guztieta. Hemen morfologiaren aspektu batez arduratuko bagara ere, arazo bertsuak topatzen ditugu hizkuntzaren arlo guztieta, fonologian, morfologian, sintaxian (Eguskiza 2019) eta lexikoan (Gaminde, Etxebarria, Eguskiza, Romero & Unamuno 2016).

Bigarren arazoa datuen trataerari dagokio. Alde batetik, zehaztasun falta dugu, aldakiak agertzen direnean, aldaki guztiak maila berean agertzen dira sarritan. Esate bat-terako *i* eta *u* ondoren *a* > *e* egiten dela mendebal gehienean aipatzen du Zuazok eta indartsuagoa dela sartaldeko azpieuskalkian (2017: 69); bertan esaten dena irakurrita, pentsa daiteke arau bera testuinguru guztieta berdin erabiltzen dela araua aplikatzen duten herri guztieta; hau badakigu ez dena horrela gertatzen lehenagotik ere (Gaminde 2002, 2007). Beste alde batetik, ematen du ezaugarri guztiak maila berekoak direla, parean daudela eta berdin erka daitezkeela; hau da, inventario fonologiko edo morfologikoetan dauden aldeak, arauetan daudenak, eta sintaxi arloko ezaugarriak, elkarrekin nahasirik agertzen dira, baita hitz honen edo bestearen erabilerarekin batera (ezaugarrien erkatzeaz ikus daiteke Gaminde 2007).

Hirugarren arazoa da, barietateen sailkapenak lortzeko metodologia sarri askotan ez dela zehazten, ez da jakiten metodo objektiboren bat erabili den edo ikertzailearen begi zorrotzaren arabera egin den aurkezten den sailkapena. Batzueta, adibidez, isotlossen metodoa aipatzen da, baina metodo hori nola aplikatu den ez da esaten esplizituki.

Arazo horien aurrean aurkitzen da noizbait ikertzailea, hizkerak, hiztunak edo hiztunek dauzkaten ezaugarri linguistikoak sailkatu nahi dituenean. Horretarako, Igorreko hiztun gazteek aspektu ez-perfektua egiteko darabiltzaten arau morfo-fonologikoak erabiliko dira. Funtsean erakutsi nahi duguna da metodologia berritzaleak erabiliz (3 metodo objektibo kuantitatibo planteatzen ditugu hemen) errealitatearen argazkia erreala gozogotik eta begi zorrotzetik urruntzen dela.

Igorren badira ildo honi jarraituz antzoko lan batzuk eginak ere, baina batek ere ez dio eusten hemen planteatzen den azterketari, hots, aspektu ez-perfektuaren baria-zioaren azterketari (Iglesias 2014; Iglesias, Eguskiza, Gaminde & Unamuno 2017; Eguskiza, Unamuno & Iglesias 2018).

Horrenbestez, lan honen helburua bikoitza da; alde batetik, Igorreko hiztun gatzteek aspektu ez-perfektua egiteko erabiltzen dituzten arau morfo-fonologikoak deskribatu nahi dira eta, bestetik, arlo honetako datuek islarazten duten aldakortasuna aztertzeko metodo kuantitatibo batzuk aurkeztu eta euren erabilgarritasuna azaldu nahi da.

Hemen aldakortasuna aztertzeko proposatzen dugun metodologiak, sistema konplexu dinamiko moldagarrien teoriaren ildotik (Léonard *et al.* 2015; Gaminde *et al.* 2016; Gaminde, Eguskiza, Romero & Etxebarria 2017), aldi nagusi batzuk dauzka (Eguskiza *et al.* 2017):

- (a) Datuen azterketa linguistikoa.
- (b) Datuen azterketa kuantitatiboa.
- (c) Informatzaileen sailkapena.

Beste inon adierazi dugun bezala (Etxebarria *et al.* 2016; Gaminde *et al.* 2016), hartu behar den lehen erabakietako bat izaten da zer erkatuko dugun definitzea, hau da, azaleko moldeak erkatuko ditugun edo, azterketa linguistiko xehearen ondorioz, arauak, inventario arloko aldeak, erabilerak, e.a. konparatuko ditugun.

Azterketaren bigarren aldian aspektu ez-perfektuaren alomorfo bakoitzaren agerpen maiztasunean oinarrituta, bakoitzaren agerpen probabilitateak kalkulatzen dira eta probabilitate horiek erabiltzen dira datu-matriseak egitean eta ez “0” eta “1”. Beste lan batzuetan (Gaminde *et al.* 2017; Eguskiza *et al.* 2017) erakutsi dugun moduan, “0” eta “1” erabiltzeak moldeak maila berean jartzea dakar eta sailkapenen emaitzak desberdinak izaten dira. Bakoitzaren probabilitateak kalkulatzeak emaitzak doitu egiten ditu eta zehaztasun handiagoa ematen du.

Azkenik, informatzaileen sailkapenaren helburua datuen azpian datzan egituraketa geolinguistikoa edo soziolinguistikoa azaleratzea da, sistema konplexu dinamiko moldagarrien ikuspuntutik (Gell-Man 1994; Beckner *et al.* 2011; Ellis 2011; López Rivera 2013; Moreno Cabrera 2008; Léonard *et al.* 2015). Gehienetan metodo hauek gurean hizkerak sailkatzeko erabili dira (Aurrekoetxea 1992, 1995, 2003, 2004, 2005, 2008, 2009, 2016; Aurrekoetxea & Ormaetxea 2006, 2010; Aurrekoetxea, Gandarias, Gaminde & Iglesias 2014; Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias & Iglesias 2014; Gaminde 2007; Iglesias 2014; Ensuna 2015). Hala ere, berdin-berdin erabil daitezke hiztun komunitate linguistiko baten hiztunak sailkatzeko aldagai sozialen arabera (Gaminde *et al.* 2012, 2016; Lujanbio 2016). Gehienetan erabili den metodoa multzokatze hierarkikoa izan da eta gutxiagotan dimentsio anizkun eskalarena (DAE). Azkenaldion metodo hauen gabezia bat azpimarratu da, mugan dauden hizkeren edo hiztunen sailkapenei dagokienez eta beste metodo batzuk proposatu dira logika lausoaren hatsarreak kontuan hartuta (Clua *et al.* 2017). Uste dugu metodo hauen bidez zehaztasun handiagoa lortuko dela eta hemen saio txiki bat aurkezten dugu horien logika erakusteko. Gure azterketan aipatutako metodo biak ez eze, K-batezbesteko multzokatzea ere erabiliko dugu hobeto egoki daitekeelako logika lausoarekin.

Datu linguistikoak tratatzeko metodo kuantitatiboak erabiltzea ez da gauza berria aldakortasunaren azterbidean, dela soziolinguistikaren ikuspuntutik, dela dialekto-metriaren ikuspuntutik. Euskal Herrian ere metodo hauek, nekez izan bada ere, aurrrera egin dute aspaldiko urteotan, batez ere hizkerak sailkatzeko saioetan, nahiz euron fidagarritasuna kuestionatu den esanez “eredu matematikoa hotz geratzen dela dialektologian aritzeko” (Apalauza 2010: 164).

Lana zazpi ataletan banatuta aurkezten dugu: sarrera honen osteko bigarren atalean corpusaren ezaugarriak eta berori jasotzeko metodologia aurkezten dira; hirugarren atalean datuen azterketa linguistikoa egiten da; laugarren atalean datuen azterketa kuantitatiboa erakusten da; bosgarren atalean informatzaileen sailkapenak ematen ditugu azaldutako hiru metodoen arabera; seigarren atalean, emaitzen eztabaida aurkezten da; eta azkenik, zazpigarrrenean, ondorio nagusiak laburbiltzen dira.

2. **Corpusa eta metodologia**

Gure azterketa burutu ahal izateko 351 sarrerako corpora erabili dugu. Horretarako, 35 partizipio aukeratu dira; aukeratu ditugun partizipioak 1. taulan erakusten dira amaieren arabera sailkatuta. Aditz partizipio hauek aukeratu dira, Igorren deskribatu den bezala (Iglesias 2014), silaba kopuru eta amaieren arabera alomorfo bat edo beste aukeratzen delako; datuak kuantitatiboki aztertzeko lagintzat jo behar dira.

1. taula

Corpusean erabili diren aditz partizipioak euren amaieren arabera sailkatuta

Amaiera	Partizipioak
-a	atara, bota
-o	yo, ito
-e	erre, gorde
-i	busti, ipini, ekarri, erosi, yosi, ikusi, itxi, yantzi
-tu/-du	berotu, garbitu, agindu, eskondu, eskatu, mogidu, yokatu, sabaldu, segidu, saldu, sartu, artu, galdu, aistu, postu
-au/-eu	akabau/akabeu, kantau/kanteu, preguntau/pregunteu, topau/topeu
-n	esan, emon

Gure corpora biltzeko hamar informatzaile izan ditugu, bost andrazko eta bost gizonezko. Informatzaile guztiak Igorrekoak dira, 1990-1992 urteen bitartean jaiotakoak eta D ereduan euren ikasketak burutu dituztenak.

Datuak jasotzeko zerrendan ez dauden aditz partizipio batzuen bidez zer lortu nahi genuen adierazi zitzaien, hau da, *etorri* aditzarekin *etorten* egiten dela adierazi zitzaien eta horrela beste zenbait adibiderekin. Behin zer egin behar zen argi edukiz gero, zerrendako aditzak egiteari ekin zitzaion eta hauek grabatu egin ziren. Datu hauek izan dira datu-basea egiteko erabili direnak.

Datuenez azterketa linguistikoa egin ondoren, datuen azterketa kuantitatiboa egin da (metodologia hori hirugarren atalean azalduko da xehero) gero informatzaileak sailkatzeko, bai generoaren² arabera eta aditz partizipio sailen arabera, alderik dagoen ikusteko eta baita informatzaileak sailkatzeko ere. Informatzaileak sailkatzeko metodologia xehetasunez azalduko da bosgarren atalean.

3. Datuen azterketa linguistikoa

Igorren aspektu ez-perfektua egiteko lau alomorfo erabiltzen dira: *-ten*, *-tan*, *-tzean/-txean* eta *-etan*. Alomorfo ez markatua edo orokorra *-ten* da, berau da kasu gehienetan erabiltzen dena eta gainerakoentzako ordez, analogiaz sortutako moldeetan ere erabiltzen dena, aditz erroari *-tu/-du* gehituta (adibidez: *saltzean* > *salduten*; *galtzean* > *galduten*; *sabaltan* > *sabalduten*; *agintan* > *aginduten*; e.a.).

-etan alomorfoa proposatu da hainbat lanetan (Gaminde 2007; Zuazo 2017, bestek beste) eta Iglesiasek (2014) bere Igorreko lanean *-tan* proposatu bazuen ere, mendebaldeko barietateetako datuen argitara hemen *-etan* proposatzea hobetsi dugu. Iglesiasek egiten duen proposamena ez dugu guztiz baztertzen; izan ere, *-au* eta *-eu* amaitutako partizipioekin erabiltzen da eta diptongoaren bilakaeraren arau fonologikoak deskribatu ere egin beharko lirateke. Gure hemengo helburuetarako honek ez du garrantzi handirik, eta horregatik hartu dugu gure erabaki hau.

Alomorfo hauek aukeratzeko partizipioen tasunak kontuan hartzen dira, amaierak eta silaba kopuruak eskuarki; alomorfoa gehitzearekin batera, kasurik kasu, gerta daitezkeen arau fonologikoak ere kontuan hartu behar dira. Arau orokorrak ematean, orpoz orpo jarraituko diegu Gaminderen (2007) eta Iglesiasen (2014) lanei.

Esan bezala, gure corpusean erabili ditugun aditz partizipioak 35 izan dira denean (2. atalean zerrenda osoa ematen da); euron amaierak kontuan hartzen baditugu honako sailkapena dugu: *-a*, *-o*, *-e*, *-i*, *-tu/-du*, *-au/-eu* eta *-n*. Hurrenkera horretan es-kainiko dira datozen azalpenok.

Amaieran *-a* eta *-o* daukaten partizipioen kasuan *-ten* alomorfoa gehitzen da zuzenean inolako arau fonologikorik aplikatu barik: *ataraten*, *botaten*, *yoten*, *itoten*. *-e* amaierakoekin *-ten* alomorfoaren ordez *-tan* erabiltzen da (*gordetan*, *erretan*), nahiz berau bigarren *aren* disimilazioagatik azal daitekeen ere bai.

-i amaierako partizipioekin hiru aukera agertzen dira; *iri* aurreko silaba bereko hasierako kontsonantea herskaria denean, *iri* eusten zaio eta *-ten* alomorfoa eransten zaio partizipioari (*bustiten*, *eukiten*). *i* dagoen silabaren hasieran dagoen kontsonantea frikaria, sudurkaria edo dardarkaria denean, *-ten* erabiltzen da eta *i* desagertzen da (1) arau fonologikoaren arabera (*ekarten*, *yosten*, *ipinten*, e.a.)

$$(1) \quad i > \emptyset / \left\{ \begin{array}{l} [+fri] \\ [+sud] \\ [+dar] \end{array} \right\} __ -ten$$

² Generoa da hemen aztergaitzat hartu dugun gizarte-aldeagaia. Generoaren araberako aldeei kasu berezia emango zaie lan honetan, hizkuntzaren aldakortasunaren azterketan generoa kontuan hartuta egin diren beste azterketa batzuei jarraiki. Asko baitira andrazkoen eta gizonezkoen artean dauden al-deak agerian utzi dituzten ikerlanak. Zehaztasun gehiagorako ikus bedi Eguskiza (2019).

Azkenik, silaba bereko hasieran afrikatua dagoenean *-ten* alomorfoarekin batera joera batzuk agertzen dira. Informatzaile bakar batzuek zuzenean eransten diote alomorfoa partizipioari ezelako arau fonologikorik aplikatu barik (*yantziten*, *itxiten*). Alta, informatzaile gehienek *i* galtzeko (2) araua aplikatzen dute eta geroago afrikatua frikari bihurtzeko (3) araua.

(2) i > Ø / +Afri ____ -ten

(3) Afri > fri / ____ -ten

(2) eta (3) arauak aplikatuta 2. taulan erakusten diren deribazioak lortzen dira; kontuan hartu behar da afrikatu laminarrari [tʂ] zein hobien ostekoari [tʃ] dagokien frikaria bat bera dela, hau da, apikaria [ʂ].

2. taula

(2) eta (3) arauak aplikatuta lortzen diren deribazioak

	[j̪aŋt̪ʃi] [ten]	[iʃi] [ten]
Afijaziao	[j̪aŋt̪ʃiten]	[iʃiten]
(2)	[j̪aŋt̪ʃten]	[iʃten]
(3)	[j̪anʂten]	[ʂten]
Azkenik	[j̪anʂten]	[ʂten]

Informatzaile batek beste arau bat erabili du *ns* silabaren kodan agertzen den taldea sinplifikatzeko eta *n* kentzeko; arau hau (4) da eta emaitza *yasten* dugu.

(4) n > Ø / ____ s#t

Esan dezagun, bidenabar bada ere, kasu hauek ikertzea interesgarria izango litza-tekeela; izan ere, Iglesiasen (2014) agertzen diren informatzaile zaharren testuetan *itxiten* bi aldiz agertzen da eta *isten* behin baino ez. Uste dugu *yasten* eta *isten* moduko moldeak berriagoak direla *yantziten* eta *itxiten* baino; baina hau susmo bat bai-zik ez da.

-nz amaitutako partizipioekin *-ten* alomorfoa erabiltzen da kasu guztieta: *emoten*, *esaten*. Alomorfoarekin batera (5) araua aplikatzen da.

(5) n > Ø / ____ -ten

-au/-eu amaierako partizipioekin *-etan* alomorfoa erabiltzen da kasu guztieta: *topetan*, *preguntetan*, *akabetan*. Partizipio hauek guztiak erdaratik mailegatuak dira eta -ADO partizipioaren bilakaeraren bidez sortu omen dira (Zuazo 2017: 51).³

-tu/-du amaiera daukaten partizipioekin, alde batetik bereizi behar dira -tu/-du horien aurreko silabaren kodan frikaria daukatenak (*aitstu* eta *postu*), eta bokala edo kontsonante ahostuna daukatenak (*saldu*, *yokatu*, *agindu*, *sabaldu*, e.a.). -turen au-

³ Diakronikoki ez dugu zalantzan jartzen hori horrela izan denik. Sinkronikoki, zalantzan jar dai-teke hau; izan ere, gaztelaniatik -ar infinitibozko markako aditzak mailegatzen direnean -au/-eu/-a jasotzen dute euskaraz, -ado delakotik pasatu barik.

rreko silabaren kodan frikaria dagoenean *-tu* ez da kentzen eta *-ten* alomorfoa erabilten da zuzenean (*aistuten, postuten*). Gainerako kasuetan bereizi behar ditugu silaba bi eta hiru silabakoak. Silaba bi dauzkaten partizipioetan aukera bi daude; batean *-ten* alomorfoa zuzenean ezartzen zaio partizipioari: *salduten, sartuten, galduen, ar-tutuen*, eta bestean *-tzean/-txean*⁴ alomorfoak erabiltzen dira, behin *-tu* eta *-du* kenduz gero: *saltzean, sartzean, galtzean, artzean*.

Hiru silabako partizipioen kasuan ere aukera bi agertzen zaizkigu; batean *-ten* alomorfoa zuzenean eransten zaio partizipioari: *aginduten, yokatuten, segiduten, sabaldu-ten* e.a.; eta bestean, *-tan* alomorfoa erabiltzen da, baina horretarako arinago *-tu* eta *-du* amaierak ezabatu behar dira: *agintan, yokatan, segitan, sabaltan*, e.a.

Azken kasu honetan zein aurrekoan, *-ten* alomorfoaren bidez sortzen diren moldeak analogiaz sortutakoak direla pentsa dezakegu. Analogiarik egiten ez den kasuetan alomorfoen banaketa 3. taulan erakusten da (bertan partizipioaren azken aurreko silabaren koda (koda), partizipioaren amaiera (amaiera), silaba kopurua beharrezkoa denean (s.k.) eta erabiltzen den alomorfoa erakusten dira).

3. taula

Alomorfoen erabilera *-tu/-du* amaierako partizipioen azken aurreko silaba koden eta partizipioen silaba kopuruen arabera

Koda	Amaiera	s.k.	Alomorfoa	Adibidea
s	-tu		-ten	aistuten
Ø/n/r/l	-tu/-du	2 silaba	-ten -tzean/-txean	salduten saltzean/saltxeen
Ø/n/r/l	-tu/-du	3 silaba	-ten -tan	aginduten agintan/eskatan

Aztertzen ari garen kasu honetan, bi eta hiru silabako *-tu/-du* amaierako partizipioekin nahikoa da alomorfoak kontuan hartzea; izan ere, alomorfo bat edo beste aukeratzeak implikatzen du arau fonologikoa betetzea edo ez, hots, *-ten* erabiliz gero partizipioaren *-tu/-du* ez dira ezabatzen. 4. taulan implikazio horiek adierazten dira.

4. taula

Alomorfoen erabilera eta arau fonologikoen implikazioak

Amaiera	s.k.	Alomorfoa
-tu/-du	2 silaba	-tzean/-txean → -tu/-du > Ø
-tu/-du	3 silaba	-tan → -tu/-du > Ø

⁴ Datuen azterketaren atalean alomorfo bien hedadura erakutsiko da.

4. Datuen azterketa kuantitatiboa

Jaso ditugun 35 partizipioetak 20 (% 57,14) informatzaile guztiekin berdin erabiltzen dituzte eta beste 15ak dira aldaketak eduki dituztenak (% 42,86).

Aldaketarik gabe informatzaile guztiekin berdin erabiltzen dituzten aspektu ez-perfektuak 5. taulan adierazten dira partizipioen arabera. Taulan adibide batzuk baino ez ditugu paratu, baina denak berdin erabiltzen dira salbuespenik gabe.

5. taula

Informatzaile guztiekin berdin erabiltzen dituzten aspektu ez-perfektuen adibideak partizipioaren arabera

Amaiera	Partizipioa	Ez-perfektua
-a	atarra, bota	ataraten, botaten
-o	ito, yo	itoten, yoten
-e	erre, gorde	erretan, gordetan
herskaria + i	busti	bustiten
frikaria, sudurkaria, dardarkaria + i	ekarri, ipini	ekarten, ipinten
-n	emon	emoten
-au/-eu	akabau/akabeu	akabetan
frikaria + tu	aistu	aistutenean

Aldaketak gertatzen dira bi eta hiru silabako *-tu/-du* gainerako partizipioekin. Lehenago adierazi den bezala, silaba bikoak direnean, *-ten*, *-tzean* eta *-txean* alomorfoak har ditzakete eta hiru silabakoak direnean *-ten* eta *-tan*. Bestalde, *tz* amaitutako partizipioek azken silabaren hasieran afrikatua daukatenean ere aldaketak gertatzen dira. Jarraian datuen azterketa hiru multzo horien arabera banatuta aurkeztuko dugu.

6. taula

Hiru silabako *-tu/-du* amaierako partizipioekin erabiltzen diren *-ten* eta *-tan* alomorfoen banaketa eta agerpen probabilitateak

Informatzailea	-ten	-tan
N01	0	1
N02	0	1
N03	0,667	0,333
N04	0,556	0,444
N05	1	0
M01	0,778	0,222
M02	0	1
M03	0	1
M04	0,556	0,444
M05	0,222	0,778

Hiru silabako *-tu/-du* amaierako partizipioekin erabiltzen diren *-ten* eta *-tan* alomorfoen banaketa eta agerpen probabilitateak erakusten dira 6. taulan.⁵ Bertan ikus-ten den moduan *-tan* gehiagotan erabiltzen da mutilen artean (batezbesteko: 0,689; desbideraketa estandarra: 0,346) nesken artean baino (batezbesteko: 0,555; desbideraketa estandarra: 0,438); aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Medianek alde han-diagoa erakusten dute, mutilena 0,778 da eta neskena 0,444.

Silaba biko *-tu/-du* amaierako partizipioekin hiru alomorfo erabiltzen dira *-ten*, *-tzean* eta *-txean*; 7. taulan bakoitzaren agerpen probabilitateak erakusten dira informatzaileen generoaren arabera.

7. taula

Silaba biko *-tu/-du* amaierako partizipioekin erabiltzen diren hiru alomorfoen (*-ten*, *-tzean* eta *-txean*) banaketa eta agerpen probabilitateak

Informatzailea	<i>-ten</i>	<i>-tzean</i>	<i>-txean</i>
N01	0	1	0
N02	0,2	0,8	0
N03	1	0	0
N04	0	1	0
N05	0,5	0,5	0
<hr/>			
M01	1	0	0
M02	0,75	0	0,25
M03	0	0	1
M04	1	0	0
M05	0	0	1

Taulan erakusten den bezala, *-ten* alomorfoa neskek eta mutilek erabiltzen dute; *-tzean*, ostera, neskek erabiltzen dute; eta *-txean* mutilek. Hori gertatzen da inbentario fonologikoan neskek afrikatu laminarra [tʃ] erabiltzen dutelako eta mutilek afrikatu sabai aurrekoia [tʃ] (Gaminde, Eguskiza, Iglesias & Unamuno 2017). *-ten* alomorfoaren agerpen probabilitate orokorra 0,445 da; nesken artean 0,34 eta mutilene artean 0,55 (aldea ez da estatistikoki esanguratsua). Nesken *-tzean* alomorfoaren agerpen probabilitatea 0,66 da eta mutilene *-txean* alomorfoarena 0,563.

Azken silabaren hasieran afrikatua dagoen kasuetan, sarreran ikusi dugun bezala, aukera bi agertzen dira, batean *i* galtzen da eta bestean ez. *i* galtzen ez denean *-ten* alomorfoa zuzenean eransten zaio partizipioari. *i* galtzen bada, afrikatua frikari bihurtzen da. Lehen aukera agertzeko probabilitatea 0,8 da eta bigarrena agertzeko 0,2. Neskek beti erabiltzen dute lehen aukera eta mutilene artean agertzen dira aldeak; lehen aukera agertzeko probabilitatea 0,6 da eta bigarrena agertzeko 0,4. Joera nagu-

⁵ Alomorfo baten agertzeko probabilitatearen balioa 0 denean, agertu ez dela adierazten du. Era berean, alomorfo baten probabilitatea 1 denean, hori baino ez dela agertu adierazten du. Tarteko probabilitateetan, zenbat eta gehiago aldendu 0tik eta gertuago egon 1etik orduan eta agerpen probabilitatea al-tuagoa dauka alomorfoak (Bully 2017).

sia *yansten* eta *isten* egiteko bada ere, badago mutil bat talde honetatik guztiz aldetzen dena *yantziten* eta *itxiten* egiten duelako.

5. Informatzaileen sailkapena

Atal honetan azterketa linguistikoaren eta azterketa kuantitatiboaren datuak era-bilera informatzaileen sailkapenak egingo ditugu hiru metodo erabilita.

Erabiliko dugun lehen metodoa multzokatze azterketa hierarkikoa da. Teknika hau sailkatzailea da eta beronen helburu nagusia da elementu batzuk multzokatzea talde homogeneotan, euren artean dauzkaten antzekotasunetan eta desberdintasunetan oinarrituta. Oso garrantzitsua da ulertzea teknika deskribatzailea dela eta berak ematen dituen multzoak dakigunarekin eta teknika kualitatiboekin eta geografikoekin erkatu behar direla (De la Fuente 2011). Teknika honen xehetasunak Gaminde *et al.* (2017) lanean ematen dira. Hemen metodo hau erabiltzeko datu-matrize bat egiten da lehenengo eta behin. Aditz bakoitzeko egin daitezkeen aukera guztiak paratzen dira eta informatzaile bakoitzak erabili duena “1” en bidez kodetzen da eta gainerakoetan “0” erabiltzen da (1. irudian matrizearen zati bat erakusten da). Matrizea eraikitzean datu dikotomikoak erabiltzen badira, aldaki guztiak maila berean jartzen dira.


Lekuko	berotan	berotuton	garbitan	garbituton	eskatan	eskatuton	agintan	aginduton
N01	1	0	1	0	1	0	1	0
N02	1	0	1	0	1	0	1	0
N03	0	1	1	0	0	1	0	1
N04	0	1	1	0	0	1	1	0
N05	0	1	0	1	0	1	0	1
M01	1	0	0	1	0	1	0	1
M02	1	0	1	0	1	0	1	0
M03	1	0	1	0	1	0	1	0
M04	1	0	1	0	1	0	1	0
M05	1	0	1	0	0	1	1	0

1. irudia

Multzokatze hierarkikoa egiteko matrize dikotomikoa

Informatzaileen sailkapena egiteko hurrengo urratsa informatzaileen arteko distantzia matrizea kalkulatzea da (lehenengo teknika honetan eta baita gainontzekoan ere), gure azterketa hau burutzeko distantzia euklidear karratua erabili dugu. Azkenik, multzoak sortzen dira eta horretarako, *Ward* izeneko algoritmoa aukeratu dugu. Programa baten bidez multzokatza automatikoki egiten da eta irudikapen grafikoa lor daiteke 2. irudian erakusten den dendrograman. Bertan ikus daitekeen bezala, A multzoan hiru neska eta mutil bi kokatzen dira eta B multzoan alderantzik neska bi eta hiru mutil.

Dimentsio anizkun eskalak (DAE) objektu edo kasuen arteko distantzia neurrien multzoaren egitura bilatzen du. Hau lortzen da behaketei egongune zehatzak emanet dimentsiobiko edo hiruko espazio kontzeptual batean (hemen dimentsiobikoa erabiliko dugu); horrela bada, espazioko puntuen arteko distantziak erlazionatuta daude objektuen edo kasuen arteko berdintasunekin eta desberdintasunekin. Beraz, helburua izaten da objektuen arteko distantziak dimentsiobiko edo kasuen arteko distantzia neurriaren espazioan proiektatzea (Pérez 2005).



2. irudia

Informatzaile sailkapen orokorra erabili diren ezaugarri guztiak arabera


Bigarren teknika hau aplikatzeko, arteragokoan erabili ditugun “1”en ordez elementu bakoitzari dagokion agerpen probabilitatea esleitu diogu, 3. irudian ikus daitekeen bezala.

N01	N02	N03	N04	N05	M01	M02	M03	M04	M05
0,7	0,7	0	0	0	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7
0	0	0,3	0,3	0,3	0	0	0	0	0
0,8	0,8	0,8	0,8	0	0	0,8	0,8	0,8	0,8
0	0	0	0	0,2	0,2	0	0	0	0
0,5	0,5	0	0	0	0	0,5	0,5	0,5	0
0	0	0,5	0,5	0,5	0,5	0	0	0	0,5
0,7	0,7	0	0,7	0	0	0,7	0,7	0,7	0,7
0	0	0,3	0	0,3	0,3	0	0	0	0
0,5	0,5	0	0	0	0	0,5	0,5	0	0,5
0	0	0,5	0,5	0,5	0,5	0	0	0,5	0
0,6	0,6	0,6	0	0	0	0,6	0,6	0	0,6
0	0	0	0,4	0,4	0,4	0	0	0,4	0
0,5	0	0,5	0	0	0,5	0,5	0,5	0	0
0	0,5	0	0,5	0,5	0	0	0	0,5	0,5

3. irudia

Dimentsio anizkun eskala egiteko matrizearen zatia

Gure hemengo datuen dimentsio anizkun eskalaren azterketa egiten badugu, 4. irudiko dispersio grafikoa lortzen dugu; bertan ikus daitekeen bezala informatzaileak nahikoa nahasirik agertzen dira, espazioan zehar sakabanaturik.



4. irudia

Informatzaileen banaketa lauan dimentsio anizkun azterketaren arabera

Hemen lortu ditugun emaitzak multzokatze hierarkikoaren bidez lortu ditugunekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu bigarren azterketa honetan, A multzoan sei informatzaile agertu direla eta B multzoan lau. Aurreko azterketan multzo bakoitzean bosna informatzaile agertu dira. M02 informatzailea da oraingo honetan B multzoan agertu ordez A multzoan sailkatu dena.

Informatzaileak sailkatzeko erabiliko dugun hirugarren metodoa K-batezbesteko multzokatzea da. Teknika hau erabiltzeko logika lausoaren (*fuzzy logic/lógica difusa*) hatsarreetan oinarrituko gara. Horretarako, datu-matrizea eraiki dugu eta aldatzen diren alomorfoen arabera informatzaile bakoitzari [0 1] heinaren arteko balioa esleitu zaio izan dituen agerpen kopuruen arabera. 5. irudian matrizea erakusten da.


Lekukoa	tan	ten	tzean	txean	ten	iten	ten
N01	1	0	1	0	0	0	1
N02	1	0	0,8	0	0,2	0	1
N03	0,333	0,667	0	0	1	0	1
N04	0,444	0,556	1	0	0	0	1
N05	0	1	0,5	0	0,5	0	1
M01	0,222	0,778	0	0	1	0	1
M02	1	0	0	0,25	0,75	1	0
M03	1	0	0	1	0	0	1
M04	0,444	0,556	0	0	1	0,5	0,5
M05	0,778	0,222	0	1	0	0,5	0,5

5. irudia

K-batezbesteko multzokatze azterketa egiteko erabili den datu-matrizea

Matrizearen datuen bidez K-batezbestekoaz azterketa egin dugu informatzaileak multzo bitan sailkatuta. 6. irudian sortutako dispersio grafikoa erakusten da.

K batezbestekoak



6. irudia

Informatzaileen sailkapena dispersio grafikoaren bidez K-batezbesteko metodoan oinarrituta multzo bi erabilita

8. taulan informatzaile bakoitzaren multzoa eta distantziak adierazten dira K-batezbesteko metodoaren bidez informatzaileen sailkapena multzo bitan eginda.

8. taula

Informatzaileen sailkapena K-batezbesteko metodoen bidez eginda,
multzo bi erabilita

Informatzailea	Multzoa	Distantzia
N01	A	0,903
N02	A	0,728
N03	A	0,856
N04	A	0,694
N05	A	0,829
M01	A	0,930
M02	B	0,642
M03	A	1,214
M04	B	0,761
M05	B	0,860

Azterketa honen emaitzak ikusita, aldaketa nabarmena agertzen zaigu aurrekoen aldean, oraingo horretan hiru mutilek osatzen dute aparteko multzoa eta hau da azaleratu zaigun azpiko egitura. Egia da multzoen arteko distantziak ez direna oso handiak, baina mutil batzuek multzoa osatzen dutela erakusten dute eta gainerakoengandik aldentzen direla.

6. Emaitzen eztabaidea

Ikusi berri dugun bezala, metodoen araberako emaitzak ez dato bat. 9. taulan informatzaileen banaketa erakusten da multzokatze hierarkikoaren (1), dimentsio anizkun eskalaren (2) eta K-batezbestekoaren (3) metodoen arabera.

9. taula

Informatzaileen sailkapena metodo bakoitzaren arabera

Metodoa	A multzoa	B multzoa
(1)	N01, N02, N04, M03, M05	N03, N05, M01, M02, M04
(2)	N01, N02, N04, M02, M03, M05	N03, N05, M01, M04
(3)	N01, N02, N03, N04, N05, M01, M03	M02, M04, M05

Lehenengo metodoa datu-matrizetik dikotomikoan oinarrituta aplikatu da eta dendrograma izan da emaitza. Multzo bi agertu zaizkigu, A eta B multzoak. Bakoitzean bosna informatzaile agertu dira. A multzoan hiru neska eta mutil bi eta B multzoan alderantzizkoak, neska bi eta hiru mutil.

Bigarren metodoan, bakoitzari agerpen probabilitateak esleitura sortu da matrizea eta horretan oinarrituta dimentsio anizkun eskalaren teknika aplikatu da. Sortutako dispersio grafikoan ikusi da A multzoan sei informatzaile sailkatu direla eta B multzoan lau. Aurrekoarekin alderatuta egon den aldaketa M02 informatzailearen multzo aldaketa izan da. Horrela bada, A multzoan hiru neska eta hiru mutil sailkatu dira eta B multzoan neska bi eta mutil bi.

Azkenik, hirugarren metodoan, K-batezbestekoenean, multzo bi sortarazi dira. Metodo hau aplikatzeko, oinarrian erabili dugun matrizean aldatzen diren alomorfoen arabera informatzaile bakoitzari [0 1] heinaren arteko balioa esleitu zaio izan dituen agerpen kopuruen arabera. Lortutako dispersio grafikoan, A multzoan zazpi informatzaile sailkatu dira eta B multzoan hiru. A multzokoak neska guztiak eta mutil bi izan dira eta B multzokoak hiru mutil.

Gure lanaren helburuak bete direlako ustea dugu. Izan ere, Igorreko hiztun gazzteek aspektu ez-perfektua egiteko erabiltzen dituzten arau morfo-fonologikoen deskripzio linguistikoak deskribatu ditugu eta horiek baliatu ditugu informatzaileak sailkatzeko hiru metodo kuantitatibo ezberdin erabilita. Horien oinarrian egon diren matrizeak ere ezberdinak izan dira. Hemen erakutsi dugun moduan, abiapuntutzat datu berberak erabili arren, oinarrian osatutako datu-matrizeen kodetzeek eta sailkatze teknika ezberdinak erabiltzeak emaitza ezberdinak eragiten dituzte. Horiaz, garrantzitsua da erabaki zuzenak hartzea, horretarako, ikertzaileak darabiltzan datuak ezagutzea beharrezkoa da, bai eta hartutako hautu metodologikoak justifikatzea ere.

Beste lan batzuetan erakutsi dugun moduan (Eguskiza *et al.* 2017; Gaminde *et al.* 2017), uste dugu datu gordinak erabili beharrean, harago joan behar dela eta ezin gera gaitezkeela datuen kodetze dikotomikoetan oinarritutako analisiengatik. Hori dela eta, defendatzen dugu, hiru metodoetatik zehatzena logika lausoaren hartsarrean oinarritzen dena dela, hots, K-batezbesteko multzokatzea. Izan ere, multzoen araberako distantziak kontuan hartzen ditu eta horiek matematikoki zehazteko aukera ematen du, gainerako biek ez bezala. Gainera, oinarrian osatu den datu-matrizean informatzaile bakoitzari aldatzen diren alomorfoen araberako [0 1] heinaren balioak esleitu zaizkio. Eta horrek datu dikotomikoetatik urrunduz, zehaztasun gehiago jasotzen ditu eta analisiak eta emaitzak zehatzagoak dira.

Kontuan hartu behar da, bestalde, metodo hauek ez dutela inferentziarik egiten, aukeratzen diren distantziengatik eta multzokatze metodoen arabera emaitza desberdinak lortzen dira eta ikertzaileak erabaki behar du zein den bere datuak ondoen deskribatzen dituena.

7. Ondorioak

Azken atal honetan datuen azterketan lortu ditugun ondoriorik nabarmenenak laburbiltzen ahaleginduko gara.

Lehenengo eta behin esan behar da aldakortasuna gertatzen dela aukeratutako partizipio guztien % 42,86an; beraz, homogeneotasun eza agerian geratzen da.

Aldaketa nagusiak hiru partizipio multzotan gertatzen ari dira eta hiru alomorfoen erabilerari eragiten diote eta beste kasu batean arau fonologikoei.

Hiru silabako *-tu/-du* amaierako partizipioekin *-tan* morfemaren ordez *-ten* erabilten da partizipioari zuzenean erantsita gero eta gehiagotan, honetan neskak berrizaleagoak dira mutilak baino.

Silaba biko *-tu/-du* amaierako partizipioekin neskek *-tzean* erabiltzen dute eta mutilek *-txean*; honetan ere analogiaz *-ten* hasi da nagusitzen informatzaile batzuen artean; hemen mutilak berrizaleagoak dira neskak baino.

-tzi edo *-txi* daukaten partizipioekin *yantziten* eta *itxiten* agertu arren, joera nagusia *yansten* eta *isten* erabiltzea da berau euskara estandarraren eraginez gertatzen dela pentsa daiteke; *yantziten* eta *itxiten* modukoak mutilek baizik ez dituzte erabiltzen. *yansten* eta *isten* moldeek berriagoak diruditela esan dugu 3. atalean, *yantziten* eta *itxiten* baino. Etorkizunean hemen planteatutako susmo hori ikertzeari eta argitzeari interesgarri deritzogu.

Orokorrean genero aldagaia ez da estatistikoki esanguratsua; ikusi dugu *-tz/-tx* be-reizketa ezak eragina duela eta hemen garrantzia eman zaio bereizkuntza honi, horregatik neska batzuek *-tzean* alomorfoa erabiltzen dute eta mutil batzuek *-txean*. Era berean *-txi/-tzi* amaierako partizipioekin neska guztiak eta mutil batzuek *-sten* erabiltzen dute, *-tziten/-txiten* mutil batzuek baino ez dituzte erabiltzen. Hala ere, informatzaileen sailkapena K-batezbesteko teknikaren bidez egiten dugunean hiru mutil agertzen dira multzo bereizi batean; honek zalantza barik generoaren bidezko bereizkuntzarako dagoen joera nabarmena islatzen du.

Ondorioz, metodo kuantitatibo objektiboek dakartzaten aukera ezberdinak agerian utzi dira. Horien kasuan ere, ikertzalea ezinbestekoa da teknika bat edo beste aukeratzeko orduan. Behin honezkerro, datu-matrize zehatzenetan oinarriztearen beharra aldarrikatu nahi dugu azterketa linguistikoak eginda. Lan honetan, erakutsi dugu hirugarren teknika dela emaitzarik zehatzenak ematen dituena. Erakutsi dugu bidenabar, matematika malgua dela eta emaitzak errepresentatzeko aukera handiak eskaintzen dituela.

Bibliografia

- Apalauza, Amaia. 2010. *Nafarroako Ipar-Mendebaleko Hizkeren Egitura Geolinguistikoa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktore tesi.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 1992. Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa. *Uztaro* 5. 59-109.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 1995. *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Leioa: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 2003. Euskalkiak estandarraren uholdepean (Arratiako kasua). In *Ahozkotasuna aztergai*, 167-177. Bilbo: Mendebalde Kultur Elkartea. [http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2003/Euskalkiak%20estandarraren%20uholdepean%20\(arratiako%20kasua\).pdf](http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2003/Euskalkiak%20estandarraren%20uholdepean%20(arratiako%20kasua).pdf) (2018/05/23).
- Aurrekoetxea, Gotzon. 2004. Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak, ikuspuntu teorikotik begirada bat. *Uztaro* 50. 45-57.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 2005. Nafarroako euskararen sailkapenaz. In Pilartxo Etxeberria & Henrike Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, 109-124. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 2008. Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran. *Euskalingua* 12. 17-26. <http://mendebalde.eus/euskalinguak/Euskalingua%2012/Bariazio%20soziolinguistikoa%20dimako%20euskaran.pdf> (2018/04/17).

- Aurrekoetxea, Gotzon. 2009. Barazio sinkronikoa aztertzeko metodologia(k). *Lapursum* 13. 43-59.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 2016. Distantzia geografikoaren eta hizkuntza distantziaren arteko korrelazioa. In Gotzon Aurrekoetxea, Jesus Mari Makazaga & Paxi Salaberri (arg.), *Hire bordatxoan: Txipi Ormaetxea omenduz*, 53-72. Bilbo: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Iñaki Gaminde, Leire Gandarias & Aitor Iglesias. 2014. Prosodic variation in the Basque language: intonational areas. In Ana Díaz-Negrillo & Javier Díaz Pérez (arg.), *Specialisation and variation in language corpora*, 35-51. Berna: International Academic Publishers.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Leire Gandarias, Iñaki Gaminde & Aitor Iglesias. 2014. Variación prosódica en vasco: áreas acentuales. In Yolanda Congosto, María Luisa Montero & Antonio Salvador (arg.), *Fonética experimental, educación superior e investigación*, 11-28. Madrid: Arco Libros.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Jose Luis Ormaetxea. 2006. Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa ikerketa proiekta. *Euskalingua* 9. 157-163.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Jose Luis Ormaetxea (arg.). 2010. *Tools for linguistic variation*. Bilbo: UPV/EHU. <http://mendebalde.eus/euskalinguak/Euskalingua%209/%22euskararen%20atlas%20sozio-geolinguistikoa%22%20ikerketa-proiekta.pdf> (2018/02/13).
- Beckner, Clay, Richard Blythe, Joan Bybee, Morten H. Christiansen, William Croft, Nick C. Ellis, John Holland, Jinyun Ke, Diane Larsen-Freeman & Tom Schoenemann. 2011. La lengua es un sistema adaptativo complejo. *Lingüística en la Red* 9. 1-25. http://www.linred.es/articulos_pdf/LR_articulo_04092011.pdf (2018/07/20).
- Bully, Paola. 2017. *Análisis de datos con SPSS: nivel medio*. Leioa: UPV/EHU (“Análisis de Datos con SPSS” ikastaroaren apunte argitaragabeak).
- Clua, Esteve, Aitor Iglesias, Iker Usobiaga & Miquel Salicrú. 2017. Nola identifikatu ezau-garri esanguratsuenak barazio dialektalean: DiaTech nabarmentzeko aukera. In Aitor Iglesias & Ariane Ensunza (arg.), *Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara*, 25-34. Bilbo: UPV/EHU.
- de la Fuente, Santiago. 2011. *Análisis conglomerados*. Madrid: Universidad Autónoma de Madrid.
- Eguskiza, Naia. 2019. *Hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian*. Leioa: UPV/EHUko doktore tesi.
- Eguskiza, Naia, Irati de Pablo & Iñaki Gaminde. 2017. Hizkuntz hizkeren sailkapena metodo kuantitatiboen bidez. In Cristina Arriaga & Asier Romero (arg.), *XXIV. Psikodi-daktikako ikerkuntza jardunaldiak*, 403-416. Bilbo: UPV/EHU.
- Eguskiza, Naia, Lorea Unamuno & Aitor Iglesias. 2018. Hizkuntza-bariazioa Igorreko hizkeran. In Aintzane Etxebarria, Aitor Iglesias, Hiart Legarra & Asier Romero (arg.), *Traineru bete lagun*, 387-396. Bilbo: UPV/EHU.
- Ellis, Nick C. 2011. The emergence of language as a complex adaptive system. In James Simpson (arg.), *Routledge Handbook of Applied Linguistics*, 666-679. Londres: Routledge.
- Ensunza, Ariane. 2015. *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. Gasteiz: UPV/EHUko doktore tesi.
- Etxebarria, Aintzane, Iñaki Gaminde, Ander Olalde & Ursua Gaminde. 2016. Hizkuntza aldakortasuna Larrabetzuko aditz morfologian. In Aitor Iglesias, Asier Romero & Ariane

- Ensunza (arg.), *Linguistic variation in the Basque language and education – II / Euskaren bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza – II*, 104-119. Bilbo: UPV/EHU. https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=UHPDF164658 (2018/06/03).
- Gaminde, Iñaki. 2002. Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan. *Euskal kalingua* 1. 1-14. <http://mendebalde.eus/euskalingua/Euskalingua%201/Bizkaiko%20euskararen%20ezaugarri%20fonologikoak.pdf> (2018/09/29).
- Gaminde, Iñaki. 2007. *Bizkaian zehar: euskararen ikuspegi orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea & Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, Iñaki. 2010. *Bizkaiko gazteen prosodia: euskaraz eta gaztelaniaz*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea & Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, Iñaki, Aintzane Etxebarria, Naia Eguskiza, Asier Romero & Lorea Unamuno. 2016. Lexikoaren bariazioa eta multzokatze-azterketa. *Euskal kalingua* 28. 19-32. <http://mendebalde.eus/euskalingua/Euskalingua%2028/Lexikoaren%20bariazioa%20eta%20multzokatze-azterketa.pdf> (2018/06/04).
- Gaminde, Iñaki, Asier Romero, Hiart Legarra. 2012. *Gramatika eta hizkuntza bariazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Gaminde, Iñaki, Asier Romero, Aintzane Etxebarria & Naia Eguskiza. 2016. Bizkaiko aditz laguntzaileen bilakaeraren azterketaz. In Aitor Iglesias, Asier Romero & Ariane Ensunza (arg.), *Linguistic variation in the Basque language and education – II / Euskaren bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza – II*, 120-141. Bilbo: UPV/EHU. https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=UHPDF164658 (2018/06/03).
- Gaminde, Iñaki, Naia Eguskiza, Asier Romero & Aintzane Etxebarria. 2017. Informatzai-leen sailkapenerako arazo metodologiko batzuen gainean. In Lorea Unamuno, Asier Romero, Aintzane Etxebarria & Aitor Iglesias (arg.), *Linguistic variation in the Basque language and education – III / Euskaren bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza – III*, 29-42. Bilbo: UPV/EHU. https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=UHPDF187987 (2018/10/16).
- Gaminde, Iñaki, Naia Eguskiza, Aitor Iglesias & Lorea Unamuno. 2017. Sexuaren eragina Igorreko afrikatu bizkarkarien tasun akustikoetan. *Euskal kalingua* 30. 6-12. <http://mendebalde.eus/euskalingua/Euskalingua%2030/Sexuaren%20eragina%20Igorreko%20afrikatu%20bizkarkarien%20tasun%20akustikoetan.pdf> (2018/10/16).
- Gell-Mann, Murray. 1994. *El quark y el jaguar: Aventuras en lo simple y lo complejo*. Bartzelona: Tusquets.
- Iglesias, Aitor. 2014. *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktore tesiak.
- Iglesias, Aitor, Naia Eguskiza, Iñaki Gaminde & Lorea Unamuno. 2017. Igorreko azentuaren korrelatu akustikoez. In Aitor Iglesias, Asier Romero, Aintzane Etxebarria & Lorea Unamuno (arg.), *Linguistic variation in the Basque language and education – III / Euskaren bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza – III*, 73-86. Bilbo: UPV/EHU. https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=UHPDF187987 (2018/10/16).
- Leonard, Jean Léa, Els Heinsalu, Marco Patriarca, & Pierre Darlu. 2015. Modeling regional variation from EAS: Complexity and communal aggregates. In Gotzon Aurrekoetxea, Asier Romero & Aintzane Etxebarria (arg.), *Linguistic variation in the Basque language and education – I / Euskaren bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza – I*, 73-86. Bilbo: UPV/EHU. https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=UHPDF152784 (2018/10/16).

- López García, Pedro & Denisse Argote. 2009. Lógica difusa: un método de clasificación de materiales arqueológicos. *Arqueología* 40. 96-114.
- López Rivera, Juan José. 2013. Aplicación del marco de los sistemas complejos adaptativos a un modelo de variación lingüística. *Moenia* 19. 5-24.
- Lujanbio, Oihana. 2016. *Hizkuntza-aldaakortasuna euskaran. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktore tesi.
- Moreno Cabrera, Juan Carlos. 2008. *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Bartzelona: Ediciones Península.
- Pérez López, César. 2005. *Métodos estadísticos avanzados con SPSS*. Madril: Thomson.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

Euskararen lerrokadura ergatiboaren sorreraz¹

On the rise of the ergative alignment of Basque

Mikel Martínez Areta*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In this paper, the rise of the ergative morphological alignment of Basque is discussed. The process which caused this rise is to be located before Aquitanian and the beginning of the contact with Latin, at some point of Proto-Basque.

Following Trask's (1977) proposal, it will be assumed that, since the initial slot of all the finite verbs of present conjugations and many of the past/irrealis conjugations is occupied by a P (= Patient) marker, an application of Givón's principle according to which “today's morphology is yesterday's syntax” (e.g. *nator* 'I come' < *ni da-tor) should lead to the logical conclusion that these transitive finite verbs come from passive predicates (e.g. *nakus* '(s)he sees me' < *ni da-kus 'I am seen').

The previous postulate can also provide an explanation for some classical problems, both morphological and syntactic, of Basque linguistics, such as the split ergativity, the rise of the ergative marker -k in the noun-declension, the rise of the agreement markers of non-pronominal origin -t and -k, and the drift AVO > AOV in the order of constituents.

KEYWORDS: ergativity, Basque verbal morphology, agent/patient salience, mood-prominent languages, topic-prominent languages.

¹ Lan hau hiru ikerketa-proiekturen esparruan egin da: 1) Espaniako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatzen duen eta Blanca Urgell ikertzaile nagusi duen *Monumenta Linguæ Vasconum 5: Periodización y cronología (MLV5)*, FFI2016-76032-P; 2) Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen eta Joaquín Gorrochategui ikertzaile nagusi duen *Historia de la lengua vasca y lingüística histórica-comparada (HMLV-LHC)*, IT 1344-19; eta 3) Euskal Herriko Unibertsitateak finantzatzen duen eta Myriam Uribe-Etxebarria ikertzaile nagusi duen *Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara (HiTeDi)*, UFI11-14. Bihoazkie nire eskerrak bi berrikusle anonimoei, testuaren irakurketa arretatsuagatik eta beren iruzkin estilistiko zein edukiaren aldetikoengatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Mikel Martínez Areta. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea. UPV/EHU (Vitoria-Gasteiz) – josemiguel.martinez@ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: Martínez Areta, Mikel (2021). «Euskararen lerrokadura ergatiboaren sorreraz». *ASJU*, 53 (1-2), 183-223. (<https://doi.org/10.1387/asju.22416>).

Jasoa/Received: 2019-09-27; Onartua/Accepted: 2020-01-09.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2021 (UPV/EHU) «Julio Urkixo» Euskal Filologia Institutu-Mintegia



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorrrikGabe 4.0 Nazioarteko licentzia baten mende dago

LABURPENA: Lan honetan, euskararen lerrokadura morfologiko ergatiboaren sorrera ikertzen da. Hau eragin zuen prozesua akitaniera eta latinarekiko kontaktuaren hasiera baino lehenago kokatu behar dugu, aitzineuskararen uneren batean.

Trask-en (1977) proposamenari jarraikiz, onartuko da orainaldiko joskeretako eta lehenaldi irrealeko joskera askotako aditz jokatu iragankorren hasierako slot-a P-ak (= Patient) okupatzen duenez, “today’s morphology is yesterday’s syntax” Givón-en printzipioa (adib. nator < *ni da-tor) aplikatuz aditz jokatu iragankorrok predikatu pasiboetatik datozaela (adib. nakus ‘nakusa’ < *ni da-kus ‘ni ikusia naiz’).

Aurrekooa onartzeak euskal hizkuntzalaritzaren arazo morfologiko eta sintaktiko klasiko batzuei konponbide bat eskain diezaike, hala nola ergatibilitate hautsia, izen-deklinabideko -k marka ergatiboaren sorrera, jatorri ez-izenordainezkoko -t eta -k komunzadura marken sorrera, eta aditu gehienek onarturiko AVO > AOV osagai-hurrenkeraren aldaketa.

HITZ GAKOAK: ergatibilitatea, euskal aditz morfologia, egilearen/jasailearen salientzia, modu-goraguneko hizkuntzak, topiko-goraguneko hizkuntzak.

1. Sarrera

Lan horretan euskararen aditz jokatuaren sorreraren arazoak sintetizatuko ditut, eta hipotesi berri bat proposatuko. Honen muina Martínez Areta (2013)-n aurkeztu zen, baina orain zabalduko dut, eta hainbat xehetasunetan sartuko naiz. Euskalaritza diakronikoan, hau gai klasiko bat dugu, eta halabeharrez estu-lotuta dago euskararen ezaugarriei buruzko gainerako eztabaidekin, batik bat hitzen eta osagaien hurrenkerarekin, eta lerrokadura morfologiko ergatiboarekin (hortik lanaren izenburua). Hartsara, hauetarako garapena eta jatorriaren azalpen bat ere eskaíniko da.

Dakikegunez, 70eko hamarkadatik garatu den ikerketan, erlazio gramatikalei buruzko bibliografian rol semantiko nagusien laburdurak honela irudikatu dira: P = Patient (edo Jasiale), S = Intransitive Subject (edo Subjektu Iragangaitz), A = Agent (edo Egilea). Hauexek dira muinezko argumentuak (“core-arguments”), aditz joktuaren errazenik pertsona-komunztadura eragiten dutenak, eta hortaz garrantzitsuenak erlazio gramatikalak eta ergatibilitatea aztertzeko.² Haietaz gain, R = Recipient ere badugu, baina hau nolabait ez da aurreko hirurak bezain argumentu muinezkoa (euskararen pertsona-komunztadura eragiten badu ere), eta ergatibilitatearen inguruko arazoei tan garrantzi txikiagoa izan ohi du.³

Euskara hizkuntza morfologikoki ergatiboa da, edo behinik behin horrela definitzetan da tradizionalki. Definizio honi jar daki okeen eragozpena lerrokadura morfologiko ergatiboa eskatzen duten baina semantikoki iragangaitzak diren hainbat aditzetan izatea da: inergatiboak. Aditzon esparrua oso zabala dela baderitzogu, Dixon-en (1994) terminologia erabiliz split-S sistematzat jo beharko dugu euskararena.

Aldaiak (2009) bikain laburbildu ditu aditz inergatiboen arazoia eta beronek dakartzan aspektu diakronikoak.⁴ Ez naiz sartuko haren analisian, baina sintetizatu nahi nuke diakroniaren ikuspegitik haren baieztapen nagusia dena: aditz inergatiboen esparrua aldakorra da euskalkitik euskalkira. Ekialdeko muturrean, zuberera predikatu inergatibo gutxiengoei dituen euskalkia da, eta nagusiki aditzaren balentzian oinarrituriko lerrokadura-sistema zaharra mantendu du. Mendebaldeko muturrean, bizkaieraz, ekialdean iragangaitzak diren hainbat predikatuk morphologia ergatiboa eskatzen dute, hala nola *dantzatu* edo *bazkaldu* aditzek. Autore mendebaldar moderno batzuek tradizioan beti iragangaitzak izan diren aditz batzuk iragankorki darabiltzate, hala nola Gaudiagak eta N. Etxanizek *jostatu* aditzarekin (ikus *OEH*).

² Termino hauek Comrie-ren lanetatik abiatzen dira. Dixon-ek bere aldetik termino berberak erabili ditu S eta A roletarako, baina besterako O = Object hobetsi du. Bi termino-sortek bizirik irau dute gaurdaino, ez bata ez bestea nagusitu ez delarik. Dixon-en lanareniko nire atxikimendu berezia gorabehera, lan horretan nik P erabiliko dut, azaldu nahi diren gertakariak eta postulatu nahi diren hipoteesiak irudikatzeko Jasiale terminoa argigarragoa delakoan.

³ Bil ditzagun, bide batez, artikulu osoan zehar erabiliko ditugun laburdurak: S = Intransitive Subject (Subjektu Iragangaitza), A = Agent edo Transitive Subject (Egilea edo subjektu iragankorra), P = Patient (Jasialea, perpaus iragankor batean), R = Recipient (Jasotzailea, edo Nori argumentua). Agertuko diren beste laburdura garrantzitsu batzuk: aor. = aoristoa, EBZ = Euskara Batu Zaharra, IS = Izen Sintagma, LA = Lehenaldia, OA = Orainaldia, *OEH* = *Orotariko Euskal Hiztegia* (= www.euskaltzaindia.eus/oeh), Os.Eg. = Osagarri Egilezkoa, RS = *Refranes y Sentencias*, TAV = *Textos Arcaicos Vascos* (= Mixelena 1964).

⁴ Ikus, orobat, Trask (2002). Euskalari amerikarrak (2002: 269) aditz inergatiboei “VITM verbs” deritezte (‘verb intransitive with transitive morphology’).

Badira, hala ere, euskalki eta garai guztieta inergatiboak diren hainbat predikatu. Hauetako gehienak *X egin* egiturako “aditz arinak” ditugu. Behintzat *lo egin*, *ihes egin* eta *igeri egin* OEH-an zehaztapen horrekin ageri dira (orokorrak edo quasi-orokorrak). Trask-ek (2002: 271) dioskunez, “etymologically, they are collocations with such literal senses as ‘do sleep’, ‘do laughter’, ‘do snoring’, ‘do good’, ‘give pain’ and ‘give word’, and so their transitive morphology can be entirely explained by their origin, with no appeal to semantics”. Aurrekoet landa, joskeria trinkoa duten, eta horrenbestez ondare lexiko zaharrekoak diren hiru aditz inergatibo ditugu: *irudi*, *iraun*, *irakin*. Marka bedi *iraun*-ek erabilera iragangaitzko agerpenik baduela XVIII. mendeko zubereraz (*Ürrhia ta zilharra dirade lüziago ireiten*. Egiat 190; OEH, s.v. *iraun*), eta *irakin*-ek XVII. mendekoaz (*Haren odola nahasirik, herakitzten da*. Tt Onsa 140s; OEH, s.v. *irakin*). Dena den, ez dirudi morfologia ergatiboa eta semantika iragangaitzaren arteko desdoitza jatorriz iragangaitzak zirelako azal daitekeenik. Aitzitik, Trask-en arabera (2002: 271), aditz hauek “look as if they might be ancient causatives which have undergone a change of meaning since Basque ancietly formed causatives by prefixing a morph -ra- to the verbal root”.

Euskalari amerikarraren honako hitzok argiro laburbiltzen dute gainerako inergatiboek izan lezaketen azalpena:

The remainder appear to be little more than puzzles with miscellaneous histories, especially since some two dozen of them are VITM verbs only in western varieties but simple intransitives in the eastern varieties, which tend on the whole to be syntactically more conservative. (Trask 2002: 272)

Mendebaldearen eta ekialdearen arteko aldakortasun hau da Aldaik (2009) atertu zuena. Honen arabera (2009: 823-827), aspektu honetan ekialdea gordetzailea da eta euskara zaharra ergatibilitate puruago batetik gertuago zegoen. Predikatu jakin batek morfologia markatua edo ez-markatua hartzen zuen: aukera predikatuaren balentziaren araberakoa zen, eta ez semantikaren araberakoa. Gerora, mendebaldeko euskalkietan inergatiboen kopurua areagotu zen, semantikak baldintzaturiko inergatiboen eta inakusatiboen arteko bereizketa batera igaro zelarik.

Izen-morfologian, tipologiaren aldetik euskara erlatiboki markatua da, IS guztiek P=S≠A lerrokadura erakusten baitute, Silverstein-en (1976) biziduntasun-eskala osoan zehar, inongo hausturarak gabe. Salbuespen bakarrak pluralean topatzent dugu. Batetik, baliabide suprasegmentalak albo batera uzten baditugu, IS plural orok P=S=A lerrokadura morfologikoa du mendebaldeko euskalkietan (bizkaieraz, araberaz, gipuzkeraz eta goi-nafarreren hizkera batzuetan): *-ak* / *-ak* / *-ak*. Bestetik, era-kusleen pluralak (*hau-ek* / *hau-ek* / *hau-ek*, etab.)⁵ eta *zu-ek* pertsona-izeinordainak ere P=S=A lerrokadura morfologikoa erakusten dute,⁶ bai eta *batzu(e)(k)* determinatzaileak edo izenordainak hegoaldeko euskalkietan.⁷ Euskaran pluralaren sorrera

⁵ Zubererak 3. graduko erakusleen pluralean P=S≠A lerrokadura ezarri du, abs. (*hura* →) *hura-k* forma analogikoaren sorreraren bidez (≠ erg. *hek*).

⁶ Orobak, badirudi mendebaldeko euskara zaharrean (eta glosa emiliotarretan beretan: *gu-ek ajutu ez dugu*), *gu zu-ek* bezala deklinatzeko saio bat garatu zela. Lazarragak bi erak agertzen ditu (ikus OEH, s.v. *gu*).

⁷ Iparraldeko euskalkietan, XVI.-XVII. mendeetan P=S≠A daukagu, dela P/S. *batzu* ≠ A. *batzuk* (adib. Leizarraga), dela P/S. *batzuk* ≠ A. *batzuek* (adib. Axular). Hegualdean, P=S=A lerrokaduraren haustura berria da. Tradizio bizkaitarreko ohiko forma *batzuk* da; gipuzkoarreko *batzuek* (ikus OEH, s.v. *batzuk*).

berankorra denez (ikus Santazilia 2013: 227-239), printzipioz nahiago dut mugaga-beari erreparatu, eta lerrokadura hauek sorrera berankorragokotzat jo.

Aditz-morfologian, ordea, euskarak split edo haustura oso interesarria erakusten du: OA-ko joskeretan lerrokadura zeharo ergatiboa da: singularrean *n-* / *n-* / *-t* (-*da*- alomorfoarekin), etab., pluralean *g-* / *g-* / *-gu*, etab. LA-ko eta irrealiseko joskeretan, singularrean *n-en-* / *n-en-* ditugu⁸ S eta P-ren adierazle; A-rena, ordea, *-da*- izango da bakarrik P-a 1. edo 2. pertsonakoa eta A-a 1. edo 2. pertsonakoa baldin badira; baina P-a 3. pertsona eta A-a 1. edo 2. pertsona baldin badira, orduan A-a *ne-* formapean agertuko zaigu. Horrela, P=S≠A lerrokadura nola edo hala mantentzen da, baina ez aurizki / aurizki / atzizki patroiarekin. Bestalde, pluralean, kasu gehienetan P=S≠A lerrokadura ergatiboa desagertzen da (*gen-* / *gen-* / *gen-*), kasu bakan batzuetan beste forma baten pean mantentzen bada ere (*gen-ekarr-en* ‘guk-hura’, etab.).

Egoera korapilatsu hau 1. figuraren eskematizatua ageri da.

- | | |
|--------------------------------------|--|
| a) OA-ko joskeretan → | lerrokadura zeharo ergatiboa (aurr./aurr./atz. formakoa): <i>n-</i> / <i>n-</i> / <i>-t</i> (~ <i>-da</i> -) |
| b) LA eta irrealiseko joskeretan → | <i>n-en-</i> / <i>n-en-</i> / baina A... |
| b.1) P = 1./2. p. eta A = 1./2. p. → | A atzizkitua: <i>-da</i> -, <i>-gu</i> ... (aurr./aurr./atz. lerrokadura mantentzen da) |
| b.2) P = 3. p. eta A = 1./2. p. → | <i>n-en-</i> / <i>n-en-</i> , eta <i>gen-</i> / <i>gen-</i> / baina A... |
| b.2.1) sg.ean → | <i>ne-</i> (lerrokadura ergatiboa mantentzen da, baina ez aurr./aurr./atz. patroiarekin) |
| b.2.2) pl.ean → | <i>gen-</i> (ez dago lerrokadura ergatiborik, <i>gene-karr-en</i> bezalakoetan izan ezik) |

1. figura

Euskal aditz jokatuaren ergatibilitate hautsiaren irudikapena

Ondoko ataletan, aditz-morfologiaren egoera hain bihurri hau nola sortu zen azaltzen saiatuko naiz. 2. atalean, euskararen dabetesia eta zehazkiago pasibotasunaren inguruko eztabaidea laburbilduko dut, argudioen korapiloa askatzeko modu bat proposatuz. 3. atalean, soluzio horren arabera OA-ko morfologia eta lerrokadura morfoligikoa nola eratu zen aztertuko da, eta 4. atalean LA eta irrealisekoa. 5. atalean, ikertuko da zergatik izan dezakegun hain lerrokadura morfoligiko bitxia OA-n eta LA/irrealisean (1. figuraren irudikatua), eta nola batera daitekeen tipologiaren printzipioekin (ergatibilitate hautsiaren auzia, Martínez Areta 2013-n jada azaltzen saiatu nintzen arazo bat). 6. atalean, iradokiriko hipotesiaren bidez jatorri izenordainezko-koak ez diren A.1sg.eko *-da* eta A.2sg.eko **-ga* pertsona-marken sorrerari azalbide bat eskainiko diot. 7. atalean, izen-morfologiako *-k* ergatiboko markarako Lakarrak (2005) proposaturiko jatorria nire hipotesiarekin bateratzen saiatuko naiz. 8. atalean, aditu gehienek onarturiko AVO > AOV garapena nola gertatu zatekeen har-tuko dut hizpide.

⁸ Hertsiki harturik, zatiketa zuzena *n-en-* (S/P.1sg-TAM.morf-) litzateke (vs *n-a-*, etab.), baina lerrokadura-jokoak hobeto irudikatze aldera, hemen *n-en-* morfema amalgamatutzat joko dut.

9. atalean neurri batean espekulazio maila goratzen da, baina komunztadura-sistemen sorreraren inguruko bibliografia tipologikoan murgiltzean topatu dudan gai bat izaki, aipatzeko utzi ezin den gaia iruditu zait Li & Thompson-ek (1976) postulaturiko topiko-goraguneko eta subjektu-goraguneko hizkuntzen arteko bereizketa. Izan ere, topiko-goraguneko hizkuntzen ezaugarri bat —pasibo edo diatesi eza— hain zuzen ere nire berreraiketatik espero genukeena da. 10. atalean, hausnarketa orokor apur batzuekin amaiera emango diot lanari.

2. Euskararen aditzaren diatesia

Hizkuntza jakin baten diatesi, boz gramatikal edo lerrokadura morfo-sintaktikoen sorrera arakatzeko, aditz jokatuaren morfologiari erreparatu behar zaio. Euskaran kasuan, honek fokua aditz trinkoetan eta laguntzailetan jartzea implikatzen du.

Horretarako, lehen aditz konposatuen kronología bat zehazten saiatu beharko genuke. Ez dago zalantzak mend. [participio burutugabe + *egon*] ~ erd. ek. [participio burutugabe + *ari izan*] eraikuntza progresiboa garai historikoetan garatzen direla. Bere aldetik, [participio burutugabe + **zan/*dun* laguntzaile] eraikuntzaz esan dezagun, gehiago zehaztu gabe —ez baita erabakigarria aztergai dugun auzian—, Erdi Aroan izan zuela garapen nagusia (ikus Urgell 2006; Mounole 2008); orobat, [participio geroldikoa + **zan/*dun* laguntzaile] eraikuntzak ere aldakortasun dialektala erakusten du bere eraketa morfologikoan (asko orokortuz mend. *-ko* / erd. *-ko* / *-en* / ek. *-(r)en*), eta aurrekoarekin bateratsu edo agian lehentxeago ulertu behar dugu haren garapena (ikus Martínez Areta 2019), erromantzearen eredupean sortu zatekeela gogoan (erka gazt. *he DE ir / hacer*, etab.; ikus Mitxelena 1987 [1981]: 48).

Besterik da [participio burutu + **zan/*dun* laguntzaile] eta [aditzoin + **din* / **zan* (**gin*, **iro-*...)] eraikuntzen arazoa. Hala Trask (*apud* Mounole 2014: 301) nola Mounole bera (2014: 301-302) [participio burutu + **zan/*dun* laguntzaile] eraikuntza perfektuak latin/errromantzetik hartu zirelako ohiko ikuspuntuaren aurka azaldu dira. Nire ustez, eraikuntzok ez baziren hizkuntz ingurutik mailegatu, behintzat haien sorrera Europa mendebaldeko hizkuntzekiko nolabaiteko konbergentzia batean sortuak izan behar ditugu, [participio + ‘*izan, eduki*’ ideia lexikoko laguntzaile] eraikuntzak perfektuak —eta hortik lehenaldiak— adierazteko Standard Average European-aren —behintzat mendebaldarraren— ezaugarrieta bat baita (ikus Martínez Areta 2019). Zernahi gisaz, [aditzoin + **din* / **zan* (**gin*, **iro-*...) laguntzaile] eraikuntzak, gainerako aditz konposatuen bultzadaz bazterreko funtzoetara zokoratuak izan direnak, edozein eragin kanpotar baino lehenagokoak dira, EBZ-rako postulatu beharrekoak, eta itxura guztien arabera hartan fase historikoan baino funtziogehiago zituzten. Esandakoa laburbiltze aldera, 2. figura deskribatu dudan aditz konposatu-en estratifikazio kronologikoa irudikatzen da.

Aditz trinko edo sintetikoak geratzen zaizkigu. Hauak gainbehera maldatsuan egon dira historian zehar. Mounole-ren (2014: 15) zenbaketaren arabera, 68 dira xv. eta xvi. mendeetako euskaran. Egungo euskararako, ostera, Euskaltzaindiak (1987) 26 arautzen ditu, haietako zenbait oso gutxitán, edo bakarrik estilo oso jasoan, era-biltzen badira ere.

[partiz. btg. + <i>egon</i>] ~ [partiz. btg. + <i>ari izan</i>]	xvi. mendetik aurrera
[partiz. btg. + * <i>zan/*dun lgtz.</i>]	Erdi Aroan
[partiz. GA.koa + * <i>zan/*dun lgtz.</i>]	Erdi Aroan
[partiz. bt. + * <i>zan/*dun lgtz.</i>]	Latin/erromantzetik hartua edo behintzat inguruko hizkuntzekiko konbergentzian sortua
[aditzoin + * <i>din / *zan (-iro-...)</i> lgtz.]	Latin/erromantzearen eraginaren aurrekoia

2. figura

Euskararen aditz konposatueng (gutxi gorabeherako) estratifikazio kronologikoa

Egon al zen inoiz hizkuntzak aditz sintetikoak bakarrik zituen garai bat? Uste dut ez gaudela —eta lan honetan ez nagoela— behartuta galdera hau erantzutera. Mungatuko naiz esatera edozein tradizio linguistikotan bezala diatesi eta erlazio gramatikalen egoerarik zaharrena arakatzeko, aditz jokatutik, eta ez beste inondik, tiratu beharko dugula. Eta horixe egingo dut nik honetan eta ondoko ataletan (bestenaz, gaia ikertu duten gainerako autore guztiak bezala).

Aditz sintetikoek EBZ-an garai historikoetan baino indar askoz handiagoa omen bazuten ere, horrek ez du esan nahi haien morfologiak —aditz konposatuetako laguntzaileenak bezalaxe— ez duenik aldaketarik jasan. Aitzitik, EBZ-ko aditz jokatuanen morfologia historikoa ez bezalakoa izango zen. Argumentu indexatuen arabera, euskara historikoko aditz jokatuak lau sail ditu, zortzi joskera alokutiboak barne hartzen baditugu. Baino —arazorik gabe konbergentzia prozesu baten bidez sortua izan daitekeen Nor sailekoa albo batera utzita (*naiz* → *nau-k/n*, etab., euskalki guztietan)— eratorpen alokutiboek aldakortasun dialektal handia erakusten dute, eta horrenbestez Erdi Aroan —eta Modernoan— zehar sortu eta garatu zirela pentsa dezakegu. Argumentu jasotzaile bat (Nori bat) gehitzen duten eratorpen aplikatiboek ere euskalkien arteko alde handiak dituzte, eta, Mounole-k (2015) erakutsi duenez, laguntzaile batzuetara ez dira inoiz zabaldu ekiarde muturrean. Nor → Nor-Nori eta Nor-Nork → Nor-Nori-Nork eratorpenek, beraz, EBZ-aren ondorengoak dirudite; gehienera jota hastapenetan egon litezke EBZ-an.

Aitzitik, terminologia modernoan Nor / Nor-Nork sailak deritzegunak EBZ-an jada eratuta zeudela onartuko dut. Aditz iragangaitzen eta iragankorren arteko hain bikoizketa zorrotz honek ez dauka paralelorik inguruko hizkuntzeten, eta hortaz hemen eragin kanpotarraren presiopeko konbergentzia prozesuak ez dira argudio gisa erabili ahal. Gainera, joskera hauetan hala TAM morfemak —oi-narrizkoenak eta zaharrenak bederen— nola (behinik behin 1. eta 2. pertsonako) pertsona-markak formalki identikoak dira euskalki guztietan. Itxura guztien arabera, beraz, ergatibilitate morfológikoa euskarak berarekin zekarren ezaugarria dugu. Hau nola sortu zatekeen eztabaidatzeko, EBZ-a baino lehenagoko garai batera jo beharko dugu, aitzin-euskarara, eta barne-berreraiketa izango dugu tresna bakarra.

Aditz iragangaitzen eta iragankorren arteko aipaturiko bereizketa aspaldi dute eztabaidagai euskalariek. Stempf-en aurrekaria albo batera utzita (ikus Trask 1997: 57),

Schuchardt-ek proposatu zuen aditz iragankorrik sakonean pasiboki interpretatu behar zirela. Honela mintzo zen erromanista eta euskalari austriarra:

Das transitive Zeitwort des Baskischen ist passiv gedacht. *Na-kar-zu*, ‘Sie tragen mich’ heisst eigentlich ‘ich werde getragen von Ihnen’, und von dieser weitschweifigen Uebersetzungswise lässt sich hier als in einer sprachgeschichtlichen Darstellung nicht abgehen. (Schuchardt 1893: 2)

Teoria honen oinarrian aditz iragangaitzen eta iragankorren arteko antzekotsuna dago. Schuchardt-en beraren (1893: 3) adibideen bidez, *na-go* eta *na-kar-zu* aditz jokatuetako lehen elementuak identikoak izateak sakoneko rol baten erreflexua izan behar du: “die des Subjekts”. Bestela esan, “wer?” zehazten duten markak ditugu biak. Baina, *na-kar-zu* formaren lehen elementua subjektu-marka izan dadin, adizkiaren interpretazio pasibo bat ulertu behar dugu, *-zu* “von wem?” galderari erantzuten diolarik. Predikatu edo perpaus oso batean, *zu-k* osagarri egilezkoa litzateke.

Trask-en arabera (1997: 57), xx. mendean zehar oro har euskalari atzerritarra teoria honen alde azaldu ziren, euskalari euskaldunek arbuiatu zutelarik. Ez naiz sartuko eztabaidea honen historian. Ene iritziz, haren atzean sinkronia eta diakroniaren arteko nahasmen bat dago, eta Trask-en honako hitz ezin argigarriok auziari amaiera jarri beharko zioketen:

Now, while I utterly reject the notion that the present day ergative should be regarded as passive in nature, I propose instead that it arose historically from a passive construction which was reanalyzed as active. This exactly accounts for the order of elements found in the Basque transitive verb [...]. (Trask 1977: 208)

Hau da, euskara historikoko Nor-(Nori-)Nork saileko adizkiak eta haien predikatuak ez dira pasiboki interpretatu behar. Egun eta XVI. mendetik, adizki eta predikatu iragankorrik dira. Haatik, zegozkien predikatuak pasiboak ziren garai bateko aztarnak ditugu, tartean haien berranalisi aktibo bat gertatu delarik.

Aipaturiko pasartea baino lehentxeago, Trask-ek ikusmolde hau hobeto zehazten du:

I propose that the SVO morphological order of Basque intransitive verbs should be taken as evidence for an older SVO syntactic order. That is, I propose that the originally independent pronouns came to be bound to the verb at a time when the structure of the Basque sentence was SVO, and that when this structure changed to SOV, the pronominal elements, being bound, could not move, but remained morphologically “frozen” in their earlier *syntactic* position. / Of course, we must still account for the quite different order shown by most transitive verbs in Basque, with the direct object marker in initial position. But transitive verbs behave differently from intransitive verbs in another respect, in that they show the morphological property of ergativity. Now an ergative structure is one in which the patient of the verbal action appears in the form which is otherwise associated with the subject (and often in the position of the subject), while the agent carries an overt marking of a different kind. In other words, it has a good deal in common with a passive construction [...]. (Trask 1977: 208)

Horrela, Trask-ek proposatzen duena “today’s morphology is yesterday’s syntax” Givón-en printzipioa aplikatzea da. Printzipio honek pertsona-marka guztien sorrera azaltzen ez duen arren —ezta hurrik eman ere—, ondoko ataletan erakusten saiatuko

naiz euskararen pertsona-marka atzizkituena bai egiten duela, eta hortaz Trask-en hipotesia ondo bideratuta zegoela.

Aditz jokatu iragankorrik predikatu pasiboetatik baldin badatoz —Trask-ek darrai—, orduan morfema pasibizatzairen baten aztarnak gera litezke nonbait. Hau ez da hertsiki beharrezko, polinesiar hizkuntzeta ikusten denez pasibo → ergatibo berrialisi prozesuan morfema hori desagertu bide delako, baina hala ere hizkuntzalari amerikarrak haren aztarnak lehenaldiko aditz jokatu batzuetan aurkitu uste zuen:

If the ergative is simply a reinterpreted passive, then we might expect to find the remains of an old passive marker in Basque transitive verb forms [...]. / While there is no certain evidence for the reflex of a passive marker in Basque, it seems to me that there is an obvious candidate to be considered: the prefix *n-* which appears in most past tense forms. This morph *n* is always sandwiched between the personal prefix and the verbal root: e.g. *ninduen* 'he had me', *ginduzun* 'you had us'. (Trask 1977: 210)

Edozein kasutan, Trask-en planteamenduan jatorrizko eraikuntza pasiboak age-riki markatzen zirela onartzen da. Hauxe da, hain zuzen, euskal aditz iragankorren jatorri pasiboaren teoriari —berau orain Schuchardt-en interpretazio sinkronikoa eta Trask-en diakronikoa biltzen dituen zentzu orokor batean ulerturik— egotzi zaion eragozpen nagusia. Horrela, Mitxelenaren esanak gogoraraziz, Lakarrak (2005: 442) markatu zuen euskal gramatikariek ez dutela boz pasiboa sekula atsegin izan, eta, bes-talde, "boz pasibo" kontzeptuak ez duela zentzurik "boz aktibo"-rik gabe.

Egiazki, lehenaldiko *-n-* morfema pasibizatzairen bat zelako hipotesiak ezin konta ahala arazorri aurre egin behar die, Trask-ek berak onartu legez. Besteak beste: 1) zergatik ez dago morfema bera hasierako pertsona-marka 1. edo 2. pertsonakoa ez de-nean (**ze-n-karr-en, etab.)?; 2) zergatik azaltzen da morfema pasibizatzairen hau baita 1. eta 2. pertsonako S marketan ere (*ne-n-torr-en*, etab.)?, eta 3) zergatik ez da azal-tzen -Ø vs -n- oposaketa 1. eta 2. pertsona pluraletan (**ge-karr-en vs **ge-n-karr-en, etab.)?⁹ Arazo hauetara 4. atalean itzuliko naiz.

Badago, hala ere —eta hauxe da proposatuko dudan hipotesiaren ardatzetako bat—, arazo hauek guztiak gainditzeko posibilitate errazago bat: euskararen aditz-erro historikoki iragankorrik diatesiaren aldetik garai batean zehaztugabeak zirela onartzea. Horrela, **tor* erroak 'etorri' adieraziko lukeen bitartean, **kar* bezalako beste batek 'ekarri' edo 'ekarria izan' adieraziko luke, testuinguruaren arabera. Hau da, erroak **aditzeko ideia hutsa** adieraziko luke, espezifikazio diitetikorik gabe.

Europako nahiz mundu osoko hizkuntza gehienetan, aditz guztiak diatesi lexikoki zehaztua dute: aditzak iragangaitzak edo iragankorrik dira, eta horren arabera diatesi jakin bat dute. Hala ere, ingelesez adibidez badira diatesi zehazgabeko zenbait aditz:

- (1) a. *John reads the book*
- b. *The book reads well*

Hizkuntza bakan batzuetan (gehienak Asiako hego-ekialdekoak), hau lexiko osoan gertatzen da, era batean non predikatu bat bikoitza izan daitekeen. Txineraz adibidez:

⁹ Honi gehi geniezaiokeen beste bat honakoa da: zergatik ez dago morfema pasibizatzairen aztar-nik OA-an (**da-n-kar, **na-n-kar, etab.)? Badirudi Trask-ek (1977: 210) honetarako daukan azal-pena dela hizkuntza polinesiarretan bezala berau desagertu datekeela, zantzurik utzi gabe.

- (2) a. *yú chī-le*
 arrain jan-jana.izan-PFB
 ‘Arrainak jaten du’ ~ ‘Arraina jana da’
 [apud Norman (1988: 164)]
- b. *tā shéi dōu pà* (eraikuntza topikalizatua)
 hora nor guzti beldur.izan
 ‘Hari jende guztiak beldurra dio’ ~ ‘Hark jende guztiari beldurra dio’
 [Sun (2006: 185)]

Zergatik ez onartu berau (hots, aditz-erroak aditzezko adiera hutsa adierazten zuela, zehaztapen diabetikorik gabe), EBZ-a baino zaharragoa litzatekeen garai baterako, hots aitzin-euskararako? Hala balitz, 3. atalean ezarriko diren berreraiketa formalak aintzat harturik, eta behin-behinik OA-ra mugatuz, eskematikoki 3. figurako berreraiketok postula genitzake.

- | | | |
|--|---------------|--|
| a. *ni da-tor etxe-ra > etxe-ra nator | | |
| b. *ni da-kus Peru > Peru nakus ‘Peru ikusten dut’ | (kus aktiboa) | |
| c. *ni da-kus Peru-ga > Peru-k na-kus(a) ‘Peruk ikusten nau’ | (kus pasiboa) | |

3. figura

Aitzin-euskararako postulaturiko hiru predikatu, eta posibilitate aktiboaren desagerpena

Hau da, **nakus ‘nik ikusten dut’¹⁰ bezalakoak euskara historikotik desagertu direnez, horrek esan nahi du, proposatu dudan hipotesia zuzena bada, OA historikoari dagozkion aitzin-euskararen predikatu aktiboa oro desagertu zirela. Zergatik? Predikatu horiek adierazteko zegozkien aldaera pasiboa nagusitu zirelako. 4. figuran postulaturiko eskemaren arabera predikatu berbera adierazteko ziratekeen bi posibilitateak irudikatzen dira.

- | | |
|--|----------------------|
| [‘ikusi’, OA-ari dagokion sektore morfologikoan, egilea → ni, jasailea → Peru] | |
| a. *ni da-kus Peru | posibilitate aktiboa |
| b. *Peru da-kus ni-ga | posibilitate pasiboa |

4. figura

Aitzin-euskararako postulaturiko eskemaren arabera,
 OA historikoari dagokion sektore morfologikoan [‘ikusi’, egilea → ni, jasailea → Peru]
 adierazteko leudekeen bi posibilitateak, aktiboa eta pasiboa

Iradokitzen ari naiz 3. figurako b. posibilitate aktiboa desagertu zela predikatu hori adierazteko 4. figurako b. posibilitate pasiboa nagusitu zelako.¹¹ Ikus dezagun

¹⁰ Hau ziur aski jatorriz imperfektibo edo progresibo bat den arren, erosotasunaren mesedetan OA arrunteko itzulpenez baliatuko naiz, lan osoan zehar.

¹¹ Trask-ek (1997: 245-247) “A speculative synthesis” atalean hemen postulatu dudanaren oso antzeko garapen bat iradoki zuen, beste formalismo batzuen bidez.

jarraian xeheki euskararen aditz-morfologiaren sektore bakoitzaren berreraiketarako honek zein implikazio izan litzakeen.

3. OA-ko joskerak

OA-ko joskeretan, Nori-dun sailak zein *-te(ke)*, *-ke* eta erroaren ondoko beste edozein TAM morfema albo batera utzita, euskararen aditz jokatuaren elementuen hurrenkeria 5. figuraren agertzen dena da.

aditz iragangaitzetan	S.marka - TAM.morfema - aditz.erroa
aditz iragankorretan	P.marka - TAM.morfema - aditz.erroa - A.marka

5. figura

Euskararen OA-ko aditz jokatuaren elementuen hurrenkeria

Berreraiketa formalari begira, Trask-ek jada *na-*, *ha-*, etab.eko formak izenordainaren eta aspektuzko morfema baten aglutinazioaren bat-egitik zetozela proposatu zuen, gorago esan bezala Givón-en “today’s morphology is yesterday’s syntax”—berriaz edo ez—aplikatuz. Ondorengo autore gehienak ildo bertsutik joan dira, aglutinazio eta bat-egite prozesu hori finduz joan direlarik. Oro har, ideia honen formalizazioaren historia 6. figurako eskeman —argigarritasunaren mesedetan neronek egokitua— laburbil dezakegu.

-
- a. Trask (1977)
- | | |
|-----|---------------------------------|
| 1sg | * <i>na-da-go</i> > <i>nago</i> |
| 2sg | * <i>ha-da-go</i> > <i>hago</i> |
| 3sg | <i>da-go</i> > <i>dago</i> |
-
- b. de Rijk (1992)
- | | |
|-----|--------------------------------|
| 1sg | <i>n(i) dago</i> → <i>nago</i> |
| 2sg | <i>h(i) dago</i> → <i>hago</i> |
| 3sg | <i>dago</i> → <i>dago</i> |
-
- c. Gómez & Sainz (1995)
- | | |
|-----|---------------------------------|
| 1sg | * <i>ni-da-go</i> > <i>nago</i> |
| 2sg | * <i>bi-da-go</i> > <i>hago</i> |
| 3sg | <i>da-go</i> > <i>dago</i> |
-
- d. Lakarra (2006)
- | | |
|-----|--|
| 1sg | * <i>ni da-tor</i> > * <i>ni-da-tor</i> > * <i>nyator</i> > <i>nator</i> |
| 2sg | * <i>bi da-tor</i> > * <i>bi-da-tor</i> > * <i>hyator</i> > <i>hator</i> |
| 3sg | <i>da-tor</i> > <i>da-tor</i> > <i>dator</i> > <i>dator</i> |
| 1pl | * <i>gu da-tor</i> > * <i>gu-da-tor-(t)za</i> > * <i>gwator-(t)za</i> > <i>gatoz</i> |
| 2pl | * <i>zu da-tor</i> > * <i>zu-da-tor-(t)za</i> > * <i>zwator-(t)za</i> > <i>zatoz</i> |
| 3pl | <i>da-tor</i> > * <i>da-tor-(t)za</i> > * <i>dator-(t)za</i> > <i>datoz</i> |

6. figura

Azken urteotako autoreen OA-ko aditz jokatuaren berreraiketak

Lau planteamenduetan onartzen da jatorriz aditzak ez lukeela pertsona-komunzatadurak izango. Trask-ek (1977) *na-, *ha-, *ga-, *za- forma aurritzituak postulatzen ditu; de Rijk-ek (1992) *d-ago* bezalako formetako *d*-ren ordezkatze bat pertsona-izenordainen atzizkiekin. Gómez & Sainz-ek (1995: 250), ordea,¹² iradokitzen dute 1. eta 2. pertsonako pertsona-izenordainak, beren egungo formetan (*ni*, *hi*, *gu*, *zu*), aditzari klitzatuak izan zirela.¹³ Azkenik, Lakarrak (2006) pauso bat harago eman du, gidoia kenduz, horrela izenordaina burujabe, eta aditza pertsona-komunzataduragabeko bihurtuz. Ariztimuño (2013a, 2013b) ildo beretik jarraitu du, eta halaxe egin nuen nik ere Martínez Areta (2013)-n, eta egingo dut lan honetan.

Semantikari dagokionez, Lafon (1943) arte ikuspegi tradizionala *d*- 3. p.ko komunzadura-marka zela pentsatzea zen. Trask-ek (1977), ordea, TAM morfema bat —*z*- eta *l*-ri kontrajarria— zela proposatu zuen (ikus baita Oregi Aranburu 1974), eta geroztik autore guztiak onartu dute. Adieraz den bezainbatean, *da*- aspektuzko morfema bat zela postulatu zuen Trask-ek. De Rijk-ek (1992) “nunc”, hots aldizko morfematzat jotza nahiago zuen, baina arestiko ikerketa (Lakarra 2006; Ariztimuño 2013a, 2013b; Martínez Areta 2013) Trask-en alde azaltzen da auzi honetan (arrazoia 5. atalean azalduko dira), eta honela egingo dut hemendik aurrera.

Lakarra (2008) harago joan eta *da*- morfemaren jatorri lexikoan **dar* erroa (← **e-daR-i*, zeina > *jarri*) ikusi du. ‘SIT, PUT’ progresiboen ohiko sorburu dugu. Lan honetan proposaturiko hipotesia ideia honen menpe ez dagoen arren, ontzat joko dut eta aurrerantzean aurkeztuko ditudan berreraiketa batzuk **da(r)*- formarekin emango ditut.

6. figurako d. berreraiketa 2. atalean ezarri dudan hipotesiarekin elkartzan budugu (hots, OA historikoari dagokion sektore morfológikoan edozein predikatu semántikoki iragankor adierazteko posibilitate pasiboa nagusitu zela), P singularretarako 1. taulan dugun eskema postulatu beharko da.

1. taula

OA historikoari dagokion sektore morfológikoko jasaile singularreko predikatuen garapena

1. fasea (zehazgabetasun diatetikoa)	2. fasea (hautaketa diatetikoa)	3. fasea (osagarri egilearen topikalizazioa, berranalisi aktiboa)	4. fasea (euskarra historikoa)	Nagusitzen den aukera
[A Peru, O ni, ‘ikusi’] <i>Peru da(r)-kus ni</i>	<i>Peru da-kus ni</i>			aktiboa
<i>ni da(r)-kus Peru-ga</i>	<i>ni da(r)-kus Peru-ga</i>	<i>Peru-ga n(i)(-)d(a)-kus</i>	<i>Peru-k nakus</i>	pasiboa
[A Peru, O hi, ‘ikusi’] <i>Peru da(r)-kus hi</i>	<i>Peru da-kus hi</i>			aktiboa
<i>bi da(r)-kus Peru-ga</i>	<i>hi da(r)-kus Peru-ga</i>	<i>Peru-ga h(i)(-)d(a)-kus</i>	<i>Peru-k hakus</i>	pasiboa
[A ni, O Peru, ‘ikusi’] <i>ni da(r)-kus Peru</i>	<i>ni da-kus Peru</i>			aktiboa
<i>Peru da(r)-kus ni-ga</i>	<i>Peru da(r)-kus ni-ga</i>	<i>ni-ga Peru da-kus</i>	<i>ni-k Peru da-kus-da</i>	pasiboa

¹² Egia esan, ez dute figurako formekin egiten, **gu-da-it-du-zu* > **gwa-it-u-zu* > *gaituzu* eta **zu-da-it-du-gu* > **zwa-it-u-gu* > *zaitugu* formekin baizik, baina haien planteamendua erabiltzen ari naizen forma egokitu dut.

¹³ Zehaztu behar da bere formalismo glosatuan **na-da-go*, etab. proposatu arren, testuan Trask-ek (1977: 205) **ni-da-go*, **hi-da-go*, etab. bezalako berreraiketak jada postulatzen dituela.

4. LA eta irrealiseko joskerak

LA eta irrealiseko joskera historikoei dagokien sektore morfologikoan, gauzak konplikatuxeagoak dira, eta aditz iragankorren barnean A-a eta P-a zeintzuk diren arabera 3 posibilitate ditugu. Berriro Nori-dun sailak zein *-te(ke)*, *-ke* eta erroaren ondoko beste edozein TAM morfema albo batera utzita, 7. figurak irudikatzen daitezke.¹⁴

aditz iragangaitzetan	S.marka+TAM.morfema - aditz.erroa (-a/en LA-an)
aditz iragankorretan	3 posibilitate:
a) P = 1./2. p.	P.marka+TAM.morfema - aditz.erroa - A.marka (-a/en LAAn)
b) P = 3. p. eta A = 1./2. p.	A.marka+TAM.morfema - aditz.erroa (-a/en LAAn)
c) hala P zein A = 3. p.	TAM.morfema - aditz.erroa (-a/en LAAn)

7. figura

Euskararen LA-ko eta irrealiseko aditz jokatuaren elementuen hurrenkera

Zer dela eta gertatzen da ergatititatearen haustura hau? Martínez Areta (2013)-n galdekitzen honi erantzuten saiatu nintzen. 4. eta 5. ataletan, hartan esandako sintetizatuko dut, eta ohar gehigarri batzuez hornituko.

Gaurko morfologia atzoko sintaxia delako Givón-en printzipioa aintzat hartzen badugu, aditz jokatu bateko pertsona-markak aurreko garai bateko argumentuak izango dira. Hala bada, LA-ko eta irrealiseko aditz jokatuetarik, 7. figurako a) posibilitatekoak predikatu pasiboetatik eterriko dira —OA-ko aditz jokatuak bezalaxe—,¹⁵ b) posibilitatekoak predikatu aktiboetatik. Aitzitik, c) posibilitatekoak bikoitza dira, haietan ez dagoelako 1. edo 2. pertsonako marka agerikorik ez aditzaren aurretik ez atzetik.

Ene iritziz, honek azal lezake zergatik diren *ne-karr-en* [A *nik*, P *hura*, ‘ekarri’] eta *nen-karr-en* [A *hark*, P *ni*, ‘ekarri’] bezalako bi forma hain antzekoak: jatorriz forma bera ziren. Aditz-forma hauek hautatzen ditut esandako irudikatzeko, trinkoen agerpenen urritasuna gorabehera, lekukotu egiten direlako. (3)-ko agerpenek interesatzen zaizkigun hiru forma dakartzate, RS-ko bi errefrautan bildua.¹⁶

- (3) a. *Adiunza onean nentorre / baia ezer ez nekarre* (RS, 332)
 ‘En buena sazón vine, / mas no truxe nada’ (RS, 438)
- b. *Lar janak eta edanak / gitxitara nenkarre*
 ‘Demasiado comer y beber / me ha traído a poco’

Iradokitzen ari naizena da bi formok hain antzekoak baziren jatorriz forma berbera zirelako dela. Haien *nen-* elementua —A-markak jatorriz forma hau izango zuen (ikus beherago)— hasieran A edo P izango zen, zerraion aditzaren balio diatektikoaren arabera, eta *nen-karr-en* forma osoak ‘ekarri nuen’ edo ‘ekarria izan nintzen’

¹⁴ + ikurrak amalgamatzea adierazten du.

¹⁵ OA-ko adizkien hasierako hutsunea TAM morfema batek okupatzen du, baina A-ren pertsona-marka amaieran dago, eta horrek predikatu pasibo batera garamatzta.

¹⁶ Adibideok *-n* -ren erorikoa agertzen dute, ohikoa Bilbotik hurbileko kostaldeko herrietan, baina gertakari bigarrenkaria da (ikus Lakarra 1996: 166-169).

adieraziko zuen, testuinguruaren arabera. Euskara historikoko A.marka+TAM.morfea-aditz.erro-*a/en* egiturako formak (hots, *ne-karr-en* motakoak) predikatu aktiboen jarraitzaile izango genituen, P.marka+TAM.morfema-aditz.erro-A.marka-*a/en* egitura-koak predikatu pasiboen jarraitzaileak liratekeelarik. Marka bedi hurrenez hurreneko emaitza historikoan erlazio gramatikalak bata bestearen kontrakoak direla. Hauxe da, nire iritziz, Heath-ek (1977) proposaturiko “inversion” gertakariaren azalpen dia-kronikoa (eta ez antipasiboen erabilera A.marka- hasieradun formetan). 8. figuraren garapen honen behin-behiniko¹⁷ irudikapena aurkezten dut.

a. <i>nen(-)karr-en</i>	> <i>ne(n)(-)karr-en</i>	> <i>ne-karr-en</i>
‘ekarri nuen’	‘ekarri nuen’	
b. <i>nen(-)karr-en</i>	> <i>nen(-)karr-en</i>	> <i>nen-karr-en</i>
‘ekarria izan nintzen’	‘ekarri ninduen’	

8. figura

Ne-karr-en eta *nen-karr-en* formen proposatu behin-behiniko berreraiketa, forma bakar batetik abiaturuz

Horrela, 8. figuraren osagarri, LA/irrealiserako 2. taula postula genezake (berriro, P singularretara mugatuko naiz).

2. taula

LA/irrealis historikoari dagokion sektore morfologikoko jasaile singularreko predikatuen garapena

1. fasea (zehazgabetasun diatetikoa)	2. fasea (hautaketa diatetikoa)	3. fasea (osagarri egilearen topikalizazioa, berranalisi aktiboa)	4. fasea (euskarra historikoa)	Nagusitzen den aukera
[A Peru, P ni, ‘ikusi’] Peru Ø/z//b-e-kus(-en) ni nen kus(-en) Peru-ga	Peru Ø/z//b-e-kus(-en) ni nen kus(-en) Peru-ga	Peru-ga nen(-)kus(-en)	Peru-k nen-kus(-en), -ke	aktiboa pasiboa
[A Peru, P hi, ‘ikusi’] Peru Ø/z//b-e-kus(-en) hi hen kus(-en) Peru-ga	Peru Ø/z//b-e-kus(-en) hi hen kus(-en) Peru-ga	Peru-ga hen(-)kus(-en)	Peru-k hen-kus(-en), -ke	aktiboa pasiboa
[A ni, P Peru, ‘ikusi’] nen kus(-en) Peru Peru Ø/z//b-e-kus(-en) ni-ga	nen kus(-en) Peru Peru Ø/z//b-e-kus(-en) ni-ga	Peru ne(n)(-)kus(-en)	Peru ne-kus(-en), -ke	aktiboa! pasiboa

¹⁷ Behin-behiniko diot, 5. atalean esango den bezala uste baitut trinkotzea gauzatu zen unean *-a/en* *en-dun* formak ez zirela eratuak. Hortaz, 8. figurako formak berez ezinezkoak dira. Hala ere, irrealiseko forma trinkoak LA-koak baino are urriagoak direnez (*ekarri* aditzerako, behintzat, LA-an RS-eko leku-kotasun ezin aproposagoak dauzkagu; ikus (3)), arrazoi didaktikoengatik nahiago ditut 8. figurako fik-ziozko formak erabili.

Orain galdekizun gaiztoa datorkigu: zer ote da *-n-* edo —zatiketaren arabera—*-en-* morfema? Puntu honetan euskalarien arteko eztabaida izugarri katramilatzen da.¹⁸ Azterzaile gehienek *en*₁ (*n*-, *h*-, *g*-, *z*- -rekin batera, S/P-marka) eta *en*₂ (bakarrik argumentu pluralen A-marka, *en*₁-ekiko analogiaz sortua) bereizten dituzte. Haiek azaltze aldera planteatu diren hipotesi (behintzat nagusiak honakoak ditugu.

- a) Oregi Aranbururen arabera (1974), *en*₁, batetik, *lehen* aditzondotik letorke; *en*₂, ostera, **g(u)-en*, **z(u)-en* formetatik letorke, berauek izenordainaren gehi genitiboaren aglutinaziotik sortuak liratekeelarik. Baina LA historikoa ziur aski perfektibo edo aoristo batetik dator (ikus beherago, 5. atalean), eta hortaz espero genuke aspektuzko morfema bat, ez aldizkoa. Bestetik, *-en* genitiboen forma berria da (erka *zu-r-e*, *aita-re-kin*, etab.).
- b) Trask-en (1977) arabera, *en*₁ morfema pasibizatzalea da. Hipotesi honek dauzkan arazoak —hein batean Trask-ek berak onartuak— 2. atalean aipatu dira.
- c) Heath-ek (1977), bere aldetik, *en*₁ → *e* inbertsioa (1./2. p.ko markak aurreratzen dituen —“fronts”— baliabide sinkronikoa) eragiten duen eratorpen anti-pasibizatzalea dela proposatu zuen. Ortiz de Urbinak (1989: 62) ondo laburbiltzen ditu azalpen honen arazoak. Eraikuntza antipasiboen antzeratsu euskal aditz jokatuaren egituraren A-k absolutibo bezala markatzen diren arren, paralleloa hor bukatzen da. Eskimo, dyirbal, maya etab.eko hizkuntzetan ez bezala, euskaraz ez dago eraikuntza antipasibo baten aztarnarik perpaus mailan, ez perpaus mailako IS-en hurrenkeran (promoziorik, demoziorik...), ez berauen markaketa morfologikoan (*nik neraman...*, ez ***ni neraman...*). Are gehiago, ustezko antipasibazioak ez dauka inongo funtzio pragmatikorik (diskurtsoaren beharren arabera, fokuaren arabera, galderen edo erlatibozko perpausen eraketaren arabera...), eraikuntzok dituzten hizkuntzetan ez bezala. Azpimarra dezagun Heath-en proposamena gertakariaren azalpen sinkroniko bat besterik ez dela.
- d) Aldai (2000) Heath-en (1977) azalpenari dimentsio diakroniko bat ematen saiatu zen. Haren arabera, eraikuntza antipasiboa LA-an eraikuntza perfektiboak eraikuntza iragankor imperfektibo bihurtzeko behinolako baliabideak izan ziren. Aditz-morfologian ihartuak ditugu, baina gaur ez diraute bizirik. Hemen aztergai dugun arazoaren ikuspegitik, Aldairen arabera *en*₁ morfemaren *-n-* inesiboko *-n* litzateke, progresiboen iturri lexikoa. Oregi Aranbururen hipotesiarekin bezalaxe, arazoa da XVI. mendeko agerpenek perfektibo edo aoristo batera begira jartzen gaituztela (ikus 5. atala). Hortaz, ez da argi ikusten zergatik bilatu behar dugun aspektu imperfektibo baten aztarnarik.¹⁹

¹⁸ Eztabaidagai honetarako, Ariztimuñoren (2013b: 50-52) sintesiaz baliatuko naiz.

¹⁹ Aldairen (2000) arabera, garairik zaharrenean euskalaren aditz-morfologia zeharo ergatiboa izango zen (**e-kar-da* ‘nekarren’ bezalako formekin), eta ondoren eraikuntza antipasibizatzale baten bidez aditzaren sektore bat “desergatibizatuko” zen. Lan honetan proposatzen ari naizenaren justu kontrako ideia da, baina bi teoriak zentzu batean bata bestearen ispilu-irudiak ditugu, eta hortaz antzekotasunak ere agertzen dituzte. Uste dut, hala ere, hemen proposatzen den ibilbidea Aldairen faseen ibilbide bihurria ([A] faseko LA perfektibo > [B] faseko LA imperfektibo > [C] faseko LA perfektibo] garapena barne) baino askoz simpleagoa dela.

- e) Azkenik, Lakarraren (2008) hipotesia dugu. Haren arabera, LA eta irrealiseko aditz jokatuetako *-en-* morfeman, *eten* edota *ats-eden* bezalako hitzetako **den* ‘FINISH’ aditz-erroa izango genuke jatorriz, aspektu perfektiboaren iturri lexiko ohikoa. Nire iritziz, proposamen honek ondoren aipatuko ditugun arazo orokoretako bi dauzka.

Hipotesi bakoitzari egotzi dizkiogun arazo partikularrez landa, badira hiru arazo zenbaitetan ikusten ditugunak.

1. *-(e)n-* elementuan TAM morfema bat ikusten duten hipotesiek —a), b), d), e)— ez dute azaltzen zer dela eta ez den paradigma osoan agertzen (***ze-n-torr-en*, ***le-n-kar-ke*, etab.).
2. a) eta c) —edozein kasutan azalpen sinkroniko bat— albo batera utzirik, gainekoek ez dute azaltzen zergatik coda sudurkaria ez den agertzen lehen hutsunea A-marka denean (***nen-karr-en* ‘ekarri nuen’, etab.), eta —oraingoan a) eta c) ere barnean sarturik— zergatik hau gertatzen den singularrean baina pluralean ez.
3. *en₁* eta/edo *en₂* LA-ko edo perfektiboko morfema(k) d(ir)ela proposatzen duten hipotesiak —a) eta e)— 5. atalean eztabaidaratuko dudan Comrie-ren egilearen goragunearen aspektuzko hierarkiarekin kontraesanean daude.

Martínez Areeta (2013)-n beste azalbide bat eskaini nuen. Hura berriro sintetizatu aurretik, azpimarratu nahi nuke aditz morfologiaren zati hau bereziki korapilatsua dela, eta planteatuko dudan azalbidea hipotesi orokorraren (funtsean, 2. eta 3. ataletan, gehi 4. atal honetan 2. taularaino esandakoa) modulu bat besterik ez dela. Hipotesi orokorraren balioticsuna ez dago modulu honen zuzentasunaren menpe. Hala ere, nire ustez gutxienik txarra da, aipaturiko arazoei aurre egiten saiatzen den bakkra baita.

Hori zehazturik, esango dut bideragarriagoa dela pentsatzea *-n-* 1./2. pertsonako izenordainaren parte zela, eta, Ariztimuñorekin (2013b: 46, 57) batera, *nen-*, etab. “tensed pronouns” edo orokorkiago “TAM-ed pronouns” ditugula. Hala balitz, 1. eta 2. pertsonako izenordainen bi serie izango genituzke, 3. taulan irudikatuak.

3. taula

Aditzaren trinkotzearen garairako proposaturiko izenordainen bi serieak

1./2. pertsonen izenordainen A seriea	1./2. pertsonen izenordainen B seriea
<i>ni</i>	<i>nen</i>
<i>hi</i>	<i>hen</i>
<i>gu</i>	<i>gen</i>
<i>zu</i>	<i>zen</i>

Bi serieetako formen lehen segmentuak berbera izatea, noski, ezin da kasualitatea izan. *nen* < *ni* + *X* etor liteke, hots izenordainaren forma oinarrizkoaren eta ezin identifika dezakegungo beste elementu baten aglutinaziotik. Iradoki dudana da aditzaren trinkotza (**ni da-tor* > *nator*, **nen tor* > *nentor*, etab.) gauzatu zen unean, B seriea jada eratuta zegoela.

Funtzioaren aldetik, A seriea testuinguru batzuetan agertuko zen, B seriea beste batzuetan. 5. atalean iradokiko dut aitzin-euskara modu-goraguneko hizkuntza izan zatekeela, Bhat-ek (1999) proposaturiko sailkapenaren arabera. Leku hartan honen inguruko xehetasunetan sartuko naiz. Orain markatuko dut Bhat-en (2004) beraren arabera modu-goraguneko hizkuntzei loturiko ezaugarri bat bi izenordain-serie izatea dela hain zuzen, bata realisean, bestea irrealisean erabiliak.

One of the characteristics that can be associated with languages that give prominence to mood is that they tend to possess distinct sets of personal pronouns that are to be used in a sentence depending upon the mood of its predicate (Bhat 1999: 135). This correlation appears to derive from the fact that modal distinctions represent either (i) distinctions in the speaker's assessment of the reliability of information or (ii) distinctions in the illocutionary force of a speech act. Both are directly related to speech contexts and speech roles and hence their influence on the form and occurrence of personal pronouns can perhaps be regarded as supporting the claim that the primary function of personal pronouns is to indicate speech roles.

There are several languages in which personal pronouns have two distinct sets forms of which one occurs in realis sentences and the other one in irrealis sentences. (Bhat 2004: 87-88)

Aurreraxeago autore berak diosku badirela modu-goraguneko beste hizkuntza batzuk, zeinetan izenordain-serie ezberdinen erabilera perpausaren indar ilokuzionarioaren arabera baldintzatuta dagoen. Niger-Congoko gur familiako supyire hizkuntzan, adibidez, izenordain-serie bat erabiltzen da adierazpen perpausetan, beste seriea ez-adierazpen perpausetan (agindu, debeku, galdera, bedeinkapen, bokatibo eta harridura perpausetan). Ondoko 4. taulan eta (4) adibidean hurrenez hurren supyire hizkuntzaren pertsona-izenordainak eta berauek irudikatzen dituzten bi adibide ematen dira.

4. taula

Supyire hizkuntzaren 1. eta 2. pertsonako izenordainak
[apud Bhat (2004: 88)]

Perpaus adierazpenezkoetan		Perpaus ez-adierazpenezkoetan	
Sg.	Pl.	Sg.	Pl.
1 <i>mi</i>	<i>wuu</i>	<i>na</i>	<i>wu</i>
2 <i>mu</i>	<i>yii</i>	<i>ma</i>	<i>yi</i>

- (4) a. *mu* *a* *mi* *káñhá* Supyire (niger-congo)
 hi (adierazp.) PF ni (adierazp.) nekatu
 'Hik gogaitu nauk'
 b. *ma* *pa*
 hi (ez-adierazp.) etorri
 'Etor hadi!'
 [apud Bhat (2004: 88)]

Bhat-ek dakartzan modu-goraguneko hizkuntzetan aldeak dauden arren (ikus 2004: 87-89 eta 1999: 65-70, 135-136), ezaugarri hau honako hizkuntzek agertzen dute: warí' (Brasilgo mendebaldeko chapacura familiako hizkuntza), caddo (irokesa), manam (ozeaniarra), amele (gum familiakoa, papuarra), supyire (gur familiakoa, Níger-Kongo hizkuntza), pirahá (mura familiakoa, arro amazoniarrean), eta nicobarera (munda familiakoa, australiarra).

Itzul gaitezen euskarara, iradokiriko hipotesia onarturik. Nola sortu zatekeen *S nen- / P nen- / A ne-* oposaketa? Hona hemen azalpen saio bat. Mitxelenak (1977 [1961]: 309) dioskunez, “[e]n algunos compuestos de aspecto arcaico, *n* en final de primer miembro desaparece o es sustituido por *r*: [c]om. *agin* ‘muela, diente’: RS 270 *agika* ‘a dentelladas’ [...] [c]om. *egun* ‘día’: a.-nav. etc. *egu(b)erri* ‘navidad’, vizc. *egubakotx* ‘viernes’, etc.”. Hau gertatzearren arabera, bizk. *zantar* vs *zatar* edota *minkatz* vs mend. *mika(i)tz* bezalako bikoteak sortu dira euskararen historian zehar. Aditz-morfologian berean Etx. *nin-zan-de* (< -zan- + -te) vs *nin(t)za-te(-ke)* (*nin-za-te-n* ‘nintzatekeen’ birritan Etxeparegan beragan) daukagu. Bikoteok kronologia ezberdinak ditugu, baina badirudi errekurtsiboa izan dela euskararen historia-ren tarte batean. Nire proposamena honakoa da: aditzaren trinkotzea gauzatu zen unean, / _ T (= herskari) testuinguruan zegoen -n-ren mantentzearen eta galtzearen arteko duda-muda $P=S\neq A$ lerrokadura ergatibo bat sortzeko profitatu zen, horrela OA-an (*na- / na- / -da*) eta izen-morfologian (-Ø, -Ø, *-ga) jada bazegokeen bereiz-keta LA/irrealisera hedatu.²⁰

Pluralean, gehienetan *gen- / gen- / gen-* (eta *zen- / zen- / zen-*, etab.) lerrokadura daukagu (*gen- > gin-* motako ixte prozesuak albo batera utzita). Pluraleko formak agerpen-maiztasun txikiagokoak direnez, onartu beharko dugu ez zela $P=S\neq A$ lerrokadura haitara zabaltzeko beharra. Lerrokadura eza, egoera zaharraren aztarna, adiz-kiren batean badugu. Axularren *Gero-n*, adibidez, *ginitue[n]* formak 2 aldiz ‘gintuen’ adierazten du, behin ‘genituen’. Forma beretik, **gen-it-dun-a/e-n* edo antzeko batek, abiatu beharko dugu. Beste hizkera batzuetan, guk-haiek eta hark-gu adierak formalki banatu omen dira.²¹

²⁰ Trask-ek (1977: 211) Bizkaiko hizkera batzueta *enkarren* ‘hekarren, ekartzen huen’ bezalako formak gogorazten ditu. Haindik azaltzean, forma jatorriz pasiboetatik hedatu direla dio, agian mend. *ekarren* ‘zkarren’ bezalakoekiko nahasmena ekiditeko. Singularreko adizki aktibo -n-dun hauak, 1. p. sg.ekoak barne, Bizkaiko mendebaldeko lerro batetakoak dira: *nendun* ‘nuen’, *nendusen* ‘nituuen’, etab. (ikus Zuazo & Goiti 2016: 40, eta 169. orrialdeko mapa argitarria). Ez dira oraintsu sortuak, Mikoletak behin *nendud* ‘nuen’ badakarrelako. Zuazo & Goiriaren iritziz (2016: 40), behintzat 1. p. sg.ekoetan -n- pluraletik zabaldu da (hots, *ge-n-dun*, *ze-n-dun*, etab. bezalakoetatik). Proposaturiko hipotesistik, arkaismoak izan litezke, **nen-du(n)(-an)* bezalakoetan $P\neq A$ eragingo zukeen -n-ren erorikoa basterreko hizkera gauzatu ez zela onarturik. Nolanahi ere den, hau ez da funtsezkoa, eta azalpen analogiko berankor bat ere arazorik gabe onar daiteke.

²¹ 2. atalean aipatu dudan hirugarren arazoari (zergatik ez da azaltzen -Ø- vs -n- oposaketa 1. eta 2. pertsona pluraletan?) aurre egiteko asmoz, Trask-ek (1977: 211) pertsona pluralen -n- hau analogiaz sortuak direla dio: “Thus it is probable that the earlier form of *genuen* was something like **guen*, from original **g-e-du-en*, just as modern *nuen* ‘I had him’ results from **n-e-du-en*”. Izan ere, Lazarragaren hizkeran baditugu *cebelia* ‘zenuela’ (AL: 1151v), *ceben* ‘zenuen’ (AL: 1153r), *ceguian* ‘zenegian, zenegan’ (AL: 1153v), *ceucala* ‘zeneukala’ (A26: 96, 98) eta *ceucan* ‘zeneukan’ (A26: 106). Aramaion eta Deba Goienean ere honelako formak geratzen dira (Aramaion adibidez *gen - geuen - gauen* ‘genuen’, *sen - seuen* ‘zenuen’ eta *seuen* ‘zenuten’ topatzen ditugu; ikus Ormaetxea 2002: 97). Haatik, Lazarra-gak *Ez ceeguidan* ‘ez zenida(te)n egin’ (A26: 59), *baceequi* (AL: 1151v), *ezpaceeguit* (A7: 99) eta *cee-*

Hala ere, aditz batzuek *gen-* / *gen-* / *gene-* (eta *zen-* / *zen-* / *zene-*, etab.) lerrokadura agertzen dute (ikus *gene-karr-en*, *zene-za-n*, etab.). Hau P=S#A forma plurale-tara zabaltzeko beste modu bat izan liteke, *gen-* eta *zen-* uztartuz, ez aditz-erroarekin (*kar*), aditzoin osoarekin (*ekar*) baizik. Adizki jokatugabeetan ez ezik, aditzoina LA/irrealiseko jokatuetan ere agertzen da, P zein A = 3. p. direnean, *l-*, *z-* (baina mendebaldean biluzik, aditz gehienekin: bizk. *ekarr-en*, etab.), edo *b-* aurritziturik (ikus Ariztimuño 2013a: 373-381, aditzoinari buruzko xehetasunetarako). Posibilitate gehiago dago, dena den. Azalbide tradisionalaren arabera (ikus Heath 1977: 198; Trask 1977: 211; Aldai 2000: 53), formon *-e(n)-*, hau da *-en₂-*, *-en₁-*-rekiko analogiaz sortu zen (**ge-karr-en* → *gene-karr-en*). Hau ez da inondik ere hemen proposatu den (singularrean oinarrituriko) hipotesiarekin bateraezina, **ge-karr(-en)* aurreko **gen-karr(-en)* batetik etor dadin bitartean.²²

Atal hau bukatzeko: ba al dago **nен*, **hen*, **gen*, **zen* izenordainen ustezko B serie baten aztarnarik aditz-morfologiatik kanpo? Nire ustez, bai, onartzen badugu *ene* < **nен-e* datorrela (hots B serieko izenordaina gehi genitiboaren forma zaharra).²³ Lakarrak 1995etik honelatsuko etimologia zenbait proposatu ditu, **nol-nol* > **onol* > *ohol* (erronk. *ol*) eta **na-nar* > **anar* > *ar* (bizk. *aar*, erronk. *ár, narras*) argienak direla. Iradoki berri dudan **nен-e* forma ez bezala, azken biok erreduplikazio morfologikoak lirateke jatorriz, baina eraketa morfologikoa gorabehera, **nен-e* formaren lehen sudurkaria **nol-nol* eta **na-nar* formen lehen sudurkariaren testuinguru berdinean legoke (_VNV- testuinguruan, alegia),²⁴ eta beronetan sudurkari-disimilazio bat aplikatuz gero, **nен-e* ere > *en-e* garatzea ere esperoko dugu.

²² Aldai (2000: 53) *-en₂-* 1. pertsonaren eredupean sortu delako posibilitatea ere aipatzen du, paralelo tipologikoak dituen prozesu baten arabera. Horrela, *ge-nekarren-i* aurritzituko zitzaiokeen, eta horritik → *ge-nekarren*. Posibilitate hau Ariztimuñok (2013b: 51) ere gogorarazten du, aldi berean beste au-kera bat eztabaidaratzu: *-e*- bokal epentetiko hutsa izatea.

²³ Hertsiki harturik, postulatu beharrekoa **neN-e* litzateke. Izan ere, 1. p. sg.ekoan ez ezik, B serieko gainerako izenordainak ere amaierako fortisarekin berreraiki beharko genitzke: **heN*, **geN*, **zeN*. Alabaina, Mitxelenaren fortis / lenis oposaketaik bakarrak lexema disilabikoetan hartzentzu du zentzua, oinarrri monosilabikoetan fortisak eta lenisak kokagune-aldaerak baino ez baitira. Hortaz, aditz jokatuenen morfologia aztergai nagusi duen lan honetan fortisen eta lenisen irudikapenak (**N*, **L*, etab.) albo batera uzten ari naiz. Dagozkien kasuetan, fortisaren erabilera gainulertzen dela onartzen dut, *eN-e* barne, non gidoiak aurreko segmentua fortis bihurtzen duen hesi morfematiko bat ezartzen duen. Erdi Aroko *Enne-co* antropónimoaren erroan ‘ene’ dagoela onartzen badugu, fortis horren irudikapen grafikoa topatzen dugu harten. Urrutirago joanez, Antzinateko Montsérié-ko aldareko *Enne-box* antropónimoan, eta Ascoliko Brontzeko *Enne-ges* segienseen patronimikoan zein *Enne-gensis* etnonimikoan aztergai dugun erroa ikusten badugu, orduan **neN-e* > *eNe* disimilaziorako *terminus ante quem* bat izango genuke (K.a. 89 urte, alegia).

²⁴ Non N = sudurkari. Esandakoaren arabera, **no-nol* > **onol* bezalako kasu batean bigarren sudurkaria lenisa litzateke; proposatu **neN-e-an*, ordea, fortisa.

Postulatu dudan izenordainen B serieak, noski, A seriearekiko nolabaiteko harreman etimologiko bat izan beharko du, era batean non **nen* < **ni X*, **hen* < **hi X* etab. etor litezkeen. Ez dut *X* hori ezein elementurekin identifikatuko. Iradokitzen ari naizena da, zer-nahi ere den, aditz jokatuaren trinkotzea gauzatu zenean (**ni da-kar* > *nakar*, **nen kar* > *ne(n)-kar*, etab.), izenordainen B seriea jada eratuta zegoela, eta LA/irrealisean azaleratzen zen alomorfoa izateaz gain, izenordainen deklinabidean ere aztarnarik utzi zuela.

Markatu nahi nuke, halaber, *ene* izenordainaren < **nen-e* etimologia onartzen baldin bada, honek berak *nen-* elementua aditz paradigmaren barnean sortu zelako onarpena are pentsaezinago egiten duela. Alegia, *nen-kar-* < **ni-den-kar-* edo **ni-lehen-kar-* baletor, onartu beharko genuke ondoren *nen-* aditz jokatutik “erauzia” izan zela, desgramatikalizazioaren bidez, eta izenordainen paradigman sartu zela (baina bakarrik lehen pertsonan). Desgramatikalizazioa posible da, baina kontrako norabidea printzipioz bideragarriagoa da.

5. Ergatibilitate hautsiko fenomenoekiko desadostasuna

Orain arte postulaturikoa 9. figuraren irudikatzen da.

OA (agian < ipfb.) →	predikatu pasiboetatik datozi	
LA (agian < pfb.) / irrealis	a) P = 1./2. p. →	predikatu pasiboetatik datozi
	b) A = 1./2. p., P = 3. p. →	predikatu aktiboetatik datozi
	c) A zein P = 3. p. →	ezin esan

9. figura

Aditz morfologiaren sektore bakoitzaren jatorri diatetikoa

OA-aren jatorri inperfektiboa, progresiboa, edo behintzat ez orainaldikoa (hots, aldizkoa) onartu ohi da egun (ikus Trask 1977; Lakarra 2006; Ariztimuño 2013b). Honen aldeko argudio erabakigarri bat honakoa da: OA konposatua sortu zenean, hau trinkoen OA-arekin parekatu zen ('ekarri' → *dakart*, 'hartu' → *hartzen dut*), eta OA konposatuak jatorri argiro progresiboa du (< **har-(t)ze-n naiz*), Mounole-k (2008) frogatu duenez. Orokorkiago, [aditz-izen + -n (inesiboa) + *egon*] (mendebaldean), [aditz-izen + -n (inesiboa) + *ari izan*] (erdialdean eta ekialdean) eta antzeko beste eraikuntzen garapen berankorra —xvi. mendetik aurrera (ikus Mounole 2014: 33-34)— behatzten badugu, irudi du aurreko forma progresiboek (hots, *dakart* eta *hartzen dut* < **har-(t)ze-n naiz*) zeukaten adiera progresibo baten galera erreparatzeko sortu zirela.

LA-ko aditz trinkoek, beren aldetik, LA inperfektiboa adierazten dute egun. XVI. mendeko euskaran, ordea, bakan batzuk adiera perfektiboa adieraz dezakete, testuinguruaren arabera (Mounole 2014: 50-51). Haietako gehienak aditz dinamiko te-likoak ditugu (*egin*, *etorri*, *ekarri*, *joan*, **edin*, *esan*, **i*), baina **edun*, *egon*, *eduki* edota *ibili* ere sartzen dira multzo honetan. Hau arkaismo bat bada —eta badu hala izateko itxura—, LA-ko aditz trinkoak aoristoak —edo LA narratiboak, Mounole-ren terminologian, edozein kasutan LA-ko gertaera burutuak—izan ziratekeen.

Zer dela eta daukagu 9. figuraren azaltzen zaigun egoera? Derragun hasteko LA/irrealisaren barneko banaketa guztiz bateragarria dela tipologiaren gertaerekin. 1. eta 2. pertsonak definizioz bizidunak, definituak eta informazio ezaguna izaten dira. Hortaz, erraz topikalizatuko dira, P izanez gero. 3. pertsonak, ostera, sarriago bizigabeak, indefinituak eta informazio berria izaten dira. Hortaz, ez dira hain erraz topikalizatuko, P izanez gero. Trask-ek berak (1979: 392) markatzen du nootka hizkuntzan 10. figuraren irudikatzen den egoera daukagula, makah, eta —ezberdintasun apur batzuekin— squamish, yanaz eta yurok hizkuntzena antzekoa delarik.

A = 1./2. p.	→ predikatuak aktiboak dira
A = 3. p. eta P = 1./2. p.	→ predikatuak pasiboak dira
A eta P = 3. p.	→ predikatuak aktiboak zein pasiboak izan daitezke

10. figura

Nootka hizkuntzaren egoera

Banaketa hau euskararen LA/irrealisaren barnekoaren gogoragarri dugu, berontan fase aurreratuago, morfologizatuago bat izango genukeen arren.

Harrigarria, euskararen egoeran, beste gauza bat da: (agian progresibo batetik datorren) OA-ak beti lerrokadura ergatiboa izatea, (agian aoristo batetik datorren) LA-ak eta irrealisak noiz lerrokadura ergatiboa, noiz lerrokadura aktiboa duten bitartean. Harritzeko arrazoia LA/irrealisaren sektorean jatorrizkoa LA-ari iriztetik dator, normalean egiten den bezala, hala bada OA-a LA-a baino ergatiboagoa baita. Ortiz de Urbina (1989: 13-15) jada markatu zuen tipologiarekiko desadostasun hau, ergatibilitate hautsia dagoen kasuetan patroi ergatiboa lehenaldian (georgiera) edo aldi perfektuetan (maia hizkuntzak) dagoela ohartazirik.

Nola azal daiteke tipologiarekiko desadostasun hau? Martínez Areta (2013)-n Comrie-k (1981) aspektuaren eta bozaren arteko elkarreraginari buruz egiten zituen oharrei erreparatzearia proposatu nuen. Gogora ditzagun hemen. Ikus ditzagun lehen bere analisia aintzat hartzen dituen nozio aspektuzkoen definizioak:

By PERFECT, I mean that a given form describes a state that is the result of an earlier situation by giving expression to the earlier situation [adibidez, “John has broken the cup”]. [...]

The PROSPECTIVE is the inverse of this [perfektuarena, alegia]: A state is related to some subsequent situation, such that the seeds of this subsequent situation are already present in the earlier state, by giving expression to the subsequent situation [adibidez, “John is going to break the cup”]. [...]

In the IMPERFECTIVE, reference is to a single situation, which is viewed as ongoing, as if one were positioning oneself internal to the situation as a whole, with the possibility of looking both backward and forward at the rest of the situation [adibidez, “John is breaking the cup / breaks the cup”]. (Comrie 1981: 66-67)

Hiru baliook koordinazioan jartzea neurri batean nahasgarria da. Inperfektiboak, berez, perfektiboarekin osatzen du dikotomia aspektuzko bat; perfektua, ostera, balio berezia da, osagai aspektuzko bat (burututa dago) eta aldizko bat (urreko une batean burutu da, eta burutze horrek oraingo egoeran garrantzia du) biltzen dituena. Bainan

hau gogoan, hirurak koordinazioan jartzeak aldizko balioekiko eta bozarekiko korrelazio bat ezartzea ahalbidetzen du.

Comrie-ren arabera, aspektu perfektua jasaile-orientazio handiena du. Kasu batzuetan P- eta A-orientazioa bata bestea bezain bideragarriak diratekeen arren, gehienetan —eta batez ere aditzak egoeraren aldaketa bat dakarren kasuetan, “John has killed Bill” edo “John has moved the chair” perpausetan bezala—, P-orientazioa nagusituko da:

With the perfect, one is interested in a state resulting from an earlier situation, and, as I am restricting the discussion to two-place predicates, one may therefore ask the question: To which of the two participants is the resulting state primarily attributed, that is, is the state A-oriented or P-oriented? [Zenbait adibide argigarrien ondoren, honela darraiku:] Thus the resultant change of state is attributed primarily to P, rather than A, in the perfect. Given this, one might expect the perfect to favour P-orientation, that is, that the perfect would be more likely than other aspects to correlate quite highly with passive-ergative. (Comrie 1981: 70)


Aspektu prospektiboan, ordea, justu kontrakoa izango dugu. “John is going to kill Bill” perpausaren ideia nagusia Bill-i gertatuko zaiona adieraztea izan litekeen arren, aspektu hori erabiliz gero probableena da hiztunak John-en asmoa, John-en gogoaren egoera, nabarmendu nahi izatea:

The prospective introduces precisely the opposite correlation. If one takes sentences like *John is going to kill Bill* or *That falling rock is going to hit Bill*, then one is attributing a certain potential to John or to the falling rock, rather than to Bill. Although *John is going to kill Bill* might serve to indicate Bill's state as a potential victim, it is much more likely to be used to inform of John's state of mind. More generally, potentialities are more likely to be attributed to A than to P, so that we would expect prospective, future, potential, and **irrealis** to favour A-orientation, to correlate with active-accusative. (Comrie 1981: 71) [Iodia neurea, MMA]

Bien erdian, inperfektiboa izango genuke:

Imperfective aspect occupies an intermediate position: If one is observing a situation internally to that situation, then in principle one could orient oneself either to A or to P, though given the overall tendency of language to favor A-orientation one would expect the result to be predominance of A-orientation. One of the subdivisions of imperfective aspect, however, namely habitual aspect, might be expected to lead to some increase in the level of A-orientation, given that referring to a habitual occurrence —where no instance of the occurrence need be taking place at the moment of speaking— is in some ways akin to a potential mood. (Comrie 1981: 71)

Horrenbestez, Comrie-k esplizituki egiten ez badu ere, aipaturiko hiru balioen artean 11. figuran islatzen den egilezko goragunearen mailaren hierarkia aspektuzkoa proposa daiteke.



Egilezko goragunearen mailaren hierarkia aspektuzkoa, Comrie-ren (1981) arabera

Hots, *ceteris paribus*, zenbat eta ezkerrerago egon esku artean dauagun aspektua, orduan eta goragune handiagoa hartuko du egileak. Zenbat eta eskuinerago, orduan eta goragune handiagoa hartuko du jasaileak.

Bada, euskara hierarkia honekin bateragarri egiteko bururatzen zaidan aukera batarra Martínez Areta (2013)-n proposatu nuen, eta honakoa da: LA (< pfb.) / irrealisaren sektore morfologikoan, oinarrizko, diakronikoki jatorrizko balioa, irrealisa zen (*n-en-tor*). Hau potentzialtasunekin lotuta dago, hartan A-ak dauka goragune nagusia, eta ezkerreko muturretik hurbil izango dugu 11. figurako hierarkian. *Nen-tor* formatik, aditzaren trinkotzearen ondoren, *n-en-torr-a/en* eratorri zen, agian aoristo bat.

Proposaturikoaren arabera, bi eraikuntza nagusitatik abiatu beharko genuke: batetik [A serieko izenordain + *da(r)* + aditz.erro], eta bestetik [B serieko izenordain + aditz.erro]. Adibide batekin: batetik **ni da(r)-tor* (> *n(i)(-)da-tor*), eta bestetik **n-en tor* (> *n-en-tor*). Edo, euskara historikoan aditz iragankor baten bidez irudikatzeko: batetik **ni da(r)-kar* (> *n(i)(-)da-kar*), eta bestetik **n-en kar* (> *n-en-kar*).

Zein balio gramatikal izan zezakeen hauetako eraikuntza bakoitzak? Gorago esan legez, [A serieko izenordain + *da(r)* + aditz.erro] eraikuntzak adiera progresibo batera begira jartzen gaitu. [B serieko izenordain + aditz.erro] eraikuntzaz den bezainbatean, euskara modernoan perpaus baldintzazko irrealisekin lotuta dago. Batueraz, *ba-* aurritzkiak protasiak eratzen dira; *-ke* edo *-teke* atzizkiez, ordea, apodosiak. Hizkitzerik gabe, bakarrik RS (284) *ez lemaio* “no la daría” (trinkoa, eta Nori-duna), mend. *nei* (< **ne-gi*) edota ek. *niro*, Leiz. *laidi* (< **le-gi-di*) bezalako aditz jokatu urrietan iritsi zaigu [B serieko izenordain + aditz.erro] eraikuntza (ikus Lafon 1980 [1943]: 435-438). Dena den, badirudi bazterreko eginkizun hauetara mugatua izan aurretik, eraikuntzak eremu zabalxeago bat izan zukeela. XVI. mendeko Iparraldeko euskaran, *al-bait-* aurritzkiaren bidez Lafon-ek “preskribitboa” izendatu zuena era zitekeen, 2. eta 3. pertsonako subjektuko injunkzio bat adierazteko erabiltzen zena (ikus Mounole 2014: 97, eta haren iraungitzerako 224). Haren bidez, baldintza baten betetzearen menpeko agindu bat, edo etengabeko agindu bat, adierazten zen (ikus *ibid.* adibideetarako eta testuinguru gehiagotarako). Garai berean, Leizarragaren lekukotasun batzueta eta dirudienez Garibairen errefrau batean, *ai-* aurritzkiaren bidezko optatiboa ere badugu (ikus Mounole 2014: 98, eta 225 haren iraungitzerako ondorengo men-deetan).

Adiera horien guztien oinarrian hondar irrealis bat dago. Hala izanik, eta kontuan hartuta euskararen aditz-morfologiaren eraikuntza zaharrenak [A serieko izenordain + *da(r)* + aditz.erro] eta [B serieko izenordain + aditz.erro] ditugula, zergatik ez lotu bikote hau Bhat-ek (1999) proposaturiko hizkuntz tipologiarekin, zeinen arabera “tense-prominent” eta “aspect-prominent” hizkuntzez gain “mood-prominent” hizkuntzak ere badiren, eta onartu aitzin-euskara modu-goraguneko hizkuntza zela? Hizkuntza hauetan, aditza egituratzen duen oposaketa nagusia realis-irrealis dugu. Horrek ez du kentzen bikotearen kide batek beste aditz-kategoria bat —aspektuari, adibidez— dagozkion bereizketak garatzeko posibilitatea. Mexikoko chalcatongo mixtec hizkuntzan esaterako (ikus Bhat 1999: 65-66), aditzek bi erro dauzkate: realis bat eta irrealis bat. Erro realisa azpieraketa progresiboan, ohitura-zkoan eta egoerazkoan ager daiteke. Erro irrealisak, bere aldetik, geroaldia, agintera, gertaera-aurkakoa (“counterfactual”), baldintzazkoa, eta antzeko beste adiera moduzko batzuk adierazten ditu.

Aurreko atalean aipatu dut modu-goraguneko hizkuntzen ezaugarri bat 1. eta 2. pertsonako izenordainen bi serie izatea dela. Ikus dezagun hizkuntzon beste ezaugarri bereizgarri bat. Aldi-goraguneko, aspektu-goraguneko eta modu-goraguneko hizkuntzen ezaugarri errekurtsibo nagusiez ari dela, honatx zer dioskun Bhat-ek hirugarren motari buruz:

(v) The tendency of mood-prominent languages to show a pronominal ergative split and of tense- and aspect-prominent languages to show a temporal or aspectual ergative split [...]. (Bhat 1999: 102) [lodia neurea, MMA]

Eta aurrerago:

The ergative system, in these split-ergative languages, will be restricted to (i) non-controlled verbs, (ii) third person arguments, and (iii) past or perfective verbs, respectively (see Dixon 1994).

This ergativity split appears to be correlatable with the verbal category that is most prominent in a given language. This is especially true of the second and third type of ergativity splits mentioned above. That is, mood-prominent languages tend to show a personal (or nominal) split whereas tense or aspect-prominent languages tend to show a tense-based or aspect-based split respectively. (Bhat 1999: 146)

Korrelazio hau (modu-goragunea eta izenordainezko ergatibilitate hautsia) nabarmena da zenbait hizkuntza tibeto-burmarretan (ikus Bhat 1999: 148). Modu-goraguneko hizkuntza den tangut hizkuntzan adibidez (ikus *ibid.*), ez dago komunztadurak 3. pertsonarekin. A-a edo P-a 3. pertsona bada eta bestea 1. edo 2. pertsona, aditzak 1. edo 2. pertsonarekin egingo du komunztadura; A-a 1. pertsona bada eta P-a (edo alderantziz), orduan komunztadura P-arekin egingo da. Euskararen LA/irrealisean bezalaxe!

Egoera hau *a priori* ere espero izatekoa da, moduaren aditz-kategoria mintzatzai-le-orientatuagoa baita, aldia eta aspektua egoera-orientatuagoak direlarik. Hortaz, behintzat 1. pertsona bat eta bestetik 3. pertsona bat argumentuak badira, predikatu iragankorretan gertaera edo ekintza beti planteatuko da mintzatzairen ikuspegitik, dela berau A-a, dela P-a. Faktore hauxe dago euskararen *nен-karr-en* ‘hark-ni’ eta *ne-karr-en* ‘nik-hura’ formen antzekotasunaren oinarrian, nire iritziz.

5. taulan proposatu garapena irudikatzen da. Zuhurtzia handiz interpretatu behar da, noski, aitzin-euskarak izan zitzueen forma guztiak erreprroduzitzea baino gehiago proposaturiko garapen estrukturala eskematizatzea baitu helburu. Ideia nagusia hauxe da: aitzin-euskararen aditz jokatuaren berezketa nagusia, aditzak pertsona komunztadurak ez zeukan garai batekoak, moduzkoak izan zen: realis / irrealis (iritsi zaigun realisa forma progresibo bat izan bide bada ere). Predikatu iragangaitzen eta iragankorren arteko berezketa gramatikalizatuta ez zegoen arren, predikatu semantikoki iragankorrik realis progresiboa pasiboki adierazten ziren beti; irrealisean, ordea, pasiboki P-a 1. edo 2. pertsona bazen, aktiboki P-a 3. pertsona eta A-a 1. edo 2. pertsona (A-a zein P-a 3. pertsonakoak baziren, ez dago esaterik). S/A izenordaina + aditza trinkotu zirenean, izenordainezko ergatibilitate hautsi hau morfologizatu zen, eta singularreko 1. eta 2. pertsonako B serieko izenordainen -n-ren galera fakultatiboa P=S≠A lerrokadura sortzeko baliatu zen. Azkenik, irrealisetik aoristo bat eratorri zen, agian menpeko perpausen be-

rranalisisitik,²⁵ eta realis / irrealis oinarrizko bereizketa zaharraren gainean beste aspektuzko —edo bestelako— bereizketak nagusitu ziren, hizkuntza modu-goragunekoa izatetik aspektu- edo aldi-goraguneko motara igaro zelarik.

5. taula

Realis (progresiboa) / irrealis bereizketa nagusitik abiaturik proposaturiko garapena

<u>1. fasea.</u> Bi eraikuntza: [A serieko izenord. + <i>da(r)</i> + aditz.erro] (realis, prog.) eta [B serieko izenord. + aditz.erro] (irrealis)	<u>2. fasea.</u> Aditzaren trinkotzea	<u>3. fasea.</u> Irrealisetik aoristo bat eratortzen da (modu-goragunetik aspektu-goragunera)_
*ni <i>da(r)-tor</i> ‘etortzen ari naiz’	*n(i)(-)d)a-tor	nator
*ni <i>da(r)-kar</i> ‘ekartzen ari naiz ~ ekarria izaten ari naiz’	*n(i)(-)d)a-kar ‘ekartzen ari naiz ~ ekarria izaten ari naiz’	nakar ‘hark ni nakar’
*nen tor ‘~ etor nadila, etorriko banintz...’	*nen-tor	*nentor
*nen kar ‘~ ekar dezadala, ekarriko banu... ~ ekarria izan nadila, ekarria izango banintz...’	*ne(n)-kar ‘~ ekar dezadala, ekarriko banu... ~ ekarria izan nadila, ekarria izango banintz...’	*ne-kar ‘~ ekar dezadala, ekarriko banu...’ *nen-kar ‘ekar nentzala, ekarriko banindu...’
		→ nentorr-en → nekarr-en ‘ekarri nuen’ nenkarr-en ‘ekarri ninduen’

Honen arabera, OA-a LA/irrealisa baino ergatiboagoa litzateke aditza trinkotu zen garaian beste sektore morfologikoa baino eskuinerago zegoelako egilezko goragunearen mailaren hierarkian. Comrie-ren (1981) hierarkia honek aspektua hartzen du ardatz nagusi, baina aldizko (*past, present, future*) eta moduzko kontzeptuak (*irrealis, potentialities*) ere aipatzen ditu bere azalpenean (eta aipatzen dira, ergatibilitate hau-tsiaaren inguruko bibliografian). Postulatu ditugun irrealisa eta realisa aintzat harturik, lehena izango dugu ezkerrerago 11. figurako hierarkian, hartan A-aren edo egi-learen goragunea altuena baita. Realisa, ordea, eskuinerago dago, bizirik iraun duen eraikuntza progresiboa zen arren.

Hasierako hutsunean beti P-marka duen OA-ko aditz bat —inperfektibo batetik etorri edo ez— egotea berez bitxikeria tipologiko bat dugu. Baina are bitxiago dugu

²⁵ Ildo bertsutik doaz Aldairen (2000: 61-62, 70-71) eta Ariztimuñoren (2013b: 52-58) azalbideak. Aldairen planteamenduan, *nen-tor*, *nen-kar* eta *ne-kar* [B] faseko LA inperfektiboko formak ziren (*ne-kar* antipasibo batetik sortua, jatorrizko forma aktiboa **ekar-da* litzatekeelarik). Hurrengo [C] fasean, -(e)n atzizki menderatzalearen berranalisiaren bidez, → *nentorr-en*, → *nenkarr-en* eta → *nekarr-en* LA perfektiboa sortu ziren. Ariztimuñok Aldairen lotura semantikoa onartzten du, baina atzizki menderatzalearen beste jatorri bat nahiago du. Forma askotan bazterreko euskalkietan lotura bokala -a-, erdialdeko euskalkietan -e- dela ohartazarik, zaharra -a- dela eta -e-n berranalisisitik sortu date-keela dio (-an → -n mozketa okerraz, → -e-n bokal epentetikoaz, → -en berranalisisiz; ikus 2013b: 53). Areago, erlatibozko -an atzizkiaren oinarrian *han* aditzondoa izan litekeela dio (*[gizon etorri da] [han] → *[gizon etorri da]-an) (*ha*) → *gizon etorri da/ena*), eta kompletibozko -ala atzizkiaren oinarrian *hala* aditzondoa ([etorriko da], [hala esan du] → [etorriko da-la] esan du).

haren alboan aktiboagoa den LA bat aurkitzea (noiz P-, noiz A-marka duelarik hasierako hutsunean). Atal honetan, bigarren bitxikeria hau saihesten saiatu naiz, sektore morfologiko horretan jatorrizkoa LA-a ez baizik eta irrealisa zela proposatuz.

Horrek esan nahi du 1. eta 2. tauletako 2. fasean predikatu aktiboak nagusitzeko, bi baldintza bete behar zirela: a) predikatuaren A-a 1. edo 2. p., eta P-a 3. p. izatea; eta b) predikatuaren sektore morfologikoa 11. figurako egilezko goragunearen mailaren hierarkian ezkerrerago egotea (hots, irrealisa izatea).

6. Pertsona-marka egilezko atzizkituak

Trask-ek proposaturiko berranalisiiek jatorri izenordainezkoak ez diren 1. eta 2. pertsonako S/P/A-marka bakarren jatorriari ere azalpen bat eskain liezaiokete. 1. p. sg.eko *-t* (- *-da*) A-markaz eta 2. p. sg.eko *-k* (- *-a*) A-markaz ari naiz. Ondoko analisian, albo batera utziko dut, bigarrenkaria delakoan (ikus adib. Oyharçabal 1991: 265), 2. p. sg.eko *-n* (- *-na*) A-marka femeninoa. Ezer baino lehen, azpimarratu nahi nuke atal honetan aurkeztuko den hipotesia bereziki espekulatiboa dela, eta lanaren gainerako proposamenak ez daudela inondik ere atal honetan esandakoaren menpe. Hala ere, argi dago marka egilezko atzizkitu hauek ez direla izenordainak; ez direla aditz-erro zaharrak (edo ez du inork horrelakorik proposatu); eta ez direla, finean, identifikagarria den ezein elementu gramatikaletatik eratorriak. Zilegi da, beraz, orain arte proposatutako planteamenduaren ildotik lihoakeen azalpen-saio bat egitea.

Printzipioz, bi marken alomorfoek honako berreraiketa gomendatzen dute: *-da* eta **ga*. Bada, 1. taulako garapenak aintzat hartzen baditugu, eta geure burua har-tako 3. fasean kokatzen badugu, orduan hurrenez hurren [A ni, P Peru, ‘ikusi’], [A hi, P Peru, ‘ikusi’] eta [A Jone, P Peru, ‘ikusi’] predikatuak OA-an adierazteko, ondoko 6. taulako ezkerreko zutabeko berreraiketak onartu beharko genituzke. Taula bereko eskuineko zutabeen, aldiz, forma historikoak jarriko ditut.²⁶

6. taula

A.1sg. eta A.2sg.eko marken iradokiriko sorrera

1. fasea. Osagarri egilezkoa topikalizatua da eta perpausa aktiboki berranalizatua	2 fasea (euskarra historikoa)
<i>*ni-ga Peru da-kus</i> ‘Peru nik ikusia da ~ nik Peru ikusten dut’	<i>ni-k</i> (< <i>*-ga</i>) <i>Peru da-kus-t</i> (< <i>-da</i>) ‘Nik Peru ikusten dut’
<i>*bi-ga Peru da-kus</i> ‘Peru hik ikusia da ~ hik Peru ikusten duk’	<i>hi-k</i> (< <i>*ga</i>) <i>Peru da-kus-k</i> (< <i>*-ga</i>) ‘Hik Peru ikusten duk’
<i>*Jone-ga Peru da-kus</i> ‘Peru Jonek ikusia da ~ Jonek Peru ikusten du’	<i>Jone-k</i> (< <i>*-ga</i>) <i>Peru da-kus-Ø</i> ‘Jonek Peru ikusten du’

²⁶ Ezkerreko zutabeko itzulpenek berez progresiboak izan beharko lukete (ikus 5. atala): ‘Peru nik ikusia izaten ari da ~ ni Peru ikusten ari naiz’, etab. Baino *kus* aditz-erroaren iragankortasuna eta **ni-ga Peru da-kus* bezalakoen irakurketa aktiboa hobeto bistaratze aldera, atal honetan orainaldiiko itzulpenez baliatuko naiz.

Erka ditzagun bi zutabeak. Ez al da deigarria izenordainezko jatorrikoak ez diren elementu misteriotsuak, -da eta *-ga, abiatu behar dugun perpausetan beretan jada izatea? Izate hori nabarmenzeko helburuz, elementu horiek lodiz markatu ditut.

Iradokitzen ari naizena aipaturiko 6. taulan irudikatu dut eta honakoa da. Aditzaren trinkotzeak 1. eta 2. pertsonako komunzadura sortu zuen. Bain, harekin batera predikatu pasiboen berranalisi aktiboa gauzatu zenez, prozesutik sorturiko adizkien egitura formalki berdinak baina gramatikaren aldetik ezberdinak izango ziren. *ni da-tor > *n(i)(-)(d)a-tor > n-a-tor edota *hi da-tor > *h(i)(-)(d)a-tor > h-a-tor bezalako adizki iragangaitzetan, egitura izango zen: S-TAM.morf-aditz.erroa. Aitzitik, *ni da-kus > *n(i)(-)(d)a-kus > n-a-kus, *hi da-kus > *h(i)(-)(d)a-kus > h-a-kus bezalakoetan hasierako hutsunean ez genuke S- izango, P- baizik.

Har dezagun perpaus hipotetiko osoa. Abia gaitezen *ni da-kus hi-ga ‘ni hik iku-sia naiz’ predikatutik. Osagarri egilezkoa topikalizatu (\rightarrow *hi-ga ni da-kus), berranalisi aktiboa gertatu, eta izenordain askea morfema uztartu bihurtzen baldin bada (> *hi-ga n-a-kus), orduan predikatu berriaren muinezko argumentuak ez dira bat, bi baizik! Bestela esan, ez dugu izango, iragg. / iragk. bereizketa gramatikalizatuta ez zegoenean bezala, S bat eta osagarri egilezko periferiko bat, P bat eta A bat baizik. Bain, adizki iragangaitzetako S-ak eta iragankorretako P-ak ez bezala, A-ak ez daude aditzean indexatuta. Zilegi da pentsatzea gabezia hau konpontze aldera presio funtzional handi bat izan behar izan duela hizkuntzak, garai honetan. Nola egin, baina, berau? Nire proposamena: perpusean berean dauden elementuak kopiatuz (*hi-ga Peru da-kus \rightarrow *hi-ga Peru da-kus-ga > hi-k Peru da-kus-k) edo bikoitzuz (*ni-ga Peru da-kus \rightarrow *ni-ga Peru da-kus-da > ni-k Peru da-kus-t).

Ohartarazi nahi nuke topatzten dugun markaketaren banaketa, hau da A.1sg. \rightarrow ageriko marka, A.2sg. \rightarrow ageriko marka, A.3sg. \rightarrow EZageriko marka (hots, overt A / overt A / covert A), espero izateko dela kontuan hartzen badugu hala S nola P markek ere banaketa bera garatu zutela, ni eta hi izenordainak indexatuz zire-lako hain zuzen: *ni da-tor > na-tor / *hi da-tor > ha-tor / Peru da-tor > Peru da-tor (hots, overt S / overt S / covert S), eta, bestetik, *Peru-ga ni da-kus > Peru-k na-kus / *Peru-ga hi da-kus > Peru-k ha-kus / *Peru-ga Jone da-kus > Peru-k Jone da-kus (hots, overt P / overt P / covert P). Sintaktikoki ergatiboak ez diren hizkuntzetan, S eta A ezaugarri estrukturalak partekatzen dituzte, koordinaziozko testek agertzen duten moduan.

(5) Gizon-ak (S_i) etorr-i d-ir-a eta Ø (A_j) ogi-a eros-i d-u-te

Dyirbal-ez, perpaus honen bigarren zatia antipasibo baten bidez adieraziko litzake, horrela lehen zatiko S-aren rol semantikoa bigarrenean harekin erreferentziakidea den elementu ezagerikoan mantenduz. Ergatibilitate morfologikoa bai baina sintaktikorik ez duten hizkuntzetan, ordea, Dixon-en (1994: 172-175) terminologian S/A motako pibote sintaktikoak deritzenak ditugu. Perpaus bateko S bat erreferentziakidea izan daiteke koordinazioan dagoen bigarren perpaus bateko A-rekin. Bi rol semantikoen arteko zubi honek markaketa-banaketa berbera (overt / overt / covert) garatzearen alde jokatu behar du, logika ororen arabera.

Egiari zor, komunzadurari buruzko lan klasikoetan (esaterako Fuß 2005; Corbett 2006) ez dut aurkitu iradokiriko komunzaduraren sorreraren paralelo zehatzik. Corbett-en terminologian, balizko kopiateta-prozesu honetan kontrolatzalea (“con-

troller") IS litzateke; jomuga ("target"), ordea, aditz jokatua. Lehenak kasua pasako lioke kasu-marka bigarrenari. Tipologo honen arabera (2006: 123-124), kasua sintaxiak ezarririko izenen ezaugarri testuinguruzkoa ("contextual feature") dugu. Izan ere, kasu-marken kopiaketa-prozesuak aztertzen ditu (ikus 2006: 133-135), baina bakarrik kontrolatzalea izen bat eta jomuga IS beraren barneko beste elementu bat (izenondo bat, erakusle bat, etab.) edo atributuko kokagunean dagoen beste IS bat, diren adibideetan. Aditz bat ez da kasurako markatu ahal, baina baliteke aztergai du-guna bezalako kasu batean aditzak dagokion IS ergatibotik marka morfologikoa nola edo hala "erakartzea", aktibo bihurtzeko eta **kus* bezalako erroaren zehazgabetasun diatetikoa desanbiguatzeko. Azkenik, **ga* aditz jokatua aktibo bihurtzeko baliabide bakarra ez zenez (ikus beherago), A.2sg.eko markatzat berranalizatuko zatekeen.

Bego hor tipologiako esku-liburuetan iradokiriko prozesuaren paralelo zehatzik aurkitu ez dudalako aitorpena. Baina baimen bekit argudiaketa nola bukatuko litzatekeen azaltzea.²⁷

A.1sg.eko markaren sorrera azaltzeko, adizkiaren hasierako elementuaren bikoizketa onartu behar dugu: **ni-ga Peru da-kus* → **ni-ga Peru da-kus-da*. Berriro, ez dugu ahaztu behar berranalisi aktiboaren ondoren lehen perpausak bi argumentu dituela, eta 1. eta 2. pertsonako izenordain guztiak komunzadura agerikoa behar dutela. Iradoki liteke, beraz, *da-* bikoiztu zela (*da-kus* → **da-kus-da*) hemen ere **kus* erroaren zehazgabetasun diatetikoa desanbiguatzeko, eta aldi berean A.1sg.eko argumentua aditz jokatuan indexatzeko? Bi gertakari nabarmendu nahi nituzke. Batetik, **ni da- > na-*, **hi da- > ha-* garapenen eta berranalisi aktiboaren ondoren *da-z* hasitako aditz jokatu gehienak iragankorrak izango ziren (eta izaten dira, egungo euskarazko testu gehienetan, *dio, du, dezala...* bezalakoak ere aintzat harturik). Horrek haien interpretazio aktiboaren alde jokatu zukeen. Proposamena, beraz, izango litzateke: *-da* aurritzkiaren bikoizketan izango luke jatorria, morfema aktibatzaile edo iragankortzaile bezala abiatuko zen, eta azkenean A.1sg.eko markatzat berranalizatuko zatekeen. Era alternatibo batean, pentsa liteke *-da* bikoiztu zela perpuseko A sortu berriak A.1sg.eko marka bat behar zuelako aditz jokatuan, besterik gabe.

Laburbilduz: baliteke **-ga* eta *-da* hasieran (aldakortasun librean zeudekeen) morfema iragankortzaileak izatea, ondoren hurrenez hurren A.2sg.eko eta A.1sg.eko marka bezala berranalizatu zirelarik; edo baliteke **-ga-ren* kopiaketa eta *-da-ren* bikoizketa zuzenean gertatu izana berranalisi aktiboaren ondoren perpaus mailan sorturiko 1sg.eko eta 2sg.eko A-ek indexaketa behar zutelako. 6. taulako ezkerreko zutabetik eskuineko zutaberako igarotzea zehazki nola gauzatu zen azaltzeko, itsumustuka gabiltza. Modu orokor batean proposaturik, uste dut A.1sg.eko *-da* eta A.2sg.eko **-ga* komunzadura-markak predikatu pasiboen berranalisi aktiboak sortu

²⁷ Nago, hala ere, euskarak berak subjektu edo objektutik adizkirako kopiatze prozesu baten paralelo bat eskaintzen duela: *-(t)za* atzizkiarekin gertatua alegia. Ondo interpretatzen badut, Lakarrak (2006: 602-606) ere elementu hau izen-morfologian sortua dela onartzen du, eta, hala bada, ISetatik aditz jokaturako jauzia gertatu behar izan da noizbait. Egia da izen-morfologian atzizki honek duen adiera (ugaritasuna, multzoa, leku hutsa hainbat toponimotan) ez dela zehazki aditz-morfologian komunzadura eragiten duena (pluraltasun zenbakarria eta definitua), eta hortaz nolabaiteko desbiderapen semantiko bat onartu beharko dugu, prozesuaren uneren batean.

zituen beharrei erreparatuz azaldu behar direla, perpusean berean zeuden elementuak kontuan hartuz.

Perpusean adiera aktiboko beste morfemarik edo A-ko komunztadura-marka bezala interpreta zitekeen beste elementurik geratzen ez zenez, A.1pl.eko eta A.2pl.eko marka pluralak izenordaina bera kopiaturaz eratu ziren:²⁸ **gu-ga Peru da-kus* → **gu-ga Peru da-kus-gu* > *gu-k Peru dakus-ku*, eta bestetik **zu-ga Peru da-kus* → **zu-ga Peru da-kus-zu* > *zu-(e)k Peru dakus-zu*. Hemen, kontrolatzailletik jomugara igarotzen dena ez da ezaugarri testuinguruzko bat, berezkoa (“inherent feature”) baizik. Azalpen honen arabera, *-ga eta -da A-markak OA-an sortuko ziratekeen. Ondoren, jakina, LA/irrealiseko morfologiari zabalduko ziratekeen, P-a ≠ 3sg. eta A-a 1. p. (ikus *zintu-da-n*, *zintu-gu-n*) edo 2. p. (ikus *nindu-a-n*, *nindu-zu-n*) ziren kasuetan.

Trinkorze prozesuak singularrean hiru pertsona sortu zituenez (3.ak Ø markarekin edozein argumentutarako), baina pluralean bi, paradigma simetrikoa izango bazen S zein P eta A.3pl.eko markak behar ziren. Onartu den garapenaren arabera, S/P.3pl.eko marka izen-morfologiatik kopiatu zen (-t)za morfema). A.3pl.eko markarako, ziur aski -de aldaeratik abiatu behar dugu (bizk. mend. *dau-de*, bizk. *dakar-de*, etab.), zeinetatik Trask-en legearen arabera -e- eta -te aldaerak sortu ziren. Lakarrak (2008: 484), morfema honen jatorrian *den ‘FINISH’ (erka *eten*, *ats-eden*) ikusi uste du.

Honekin bateratsu, A.2sg.eko marka femenino bat sortu zen, -na (> -na- ~ -n), *-ga (> -a- ~ -k) zaharragoarekiko banaketa osagarrian, eta horrez gain hizkera alokutiboa, euskararen beste ezaugarri oso bereizgarri bat. Honen azterketa lan honen egitasmotik kanpo geratzen da. Derradan bakarrik, bukatze aldera, eratorpen datiboden sorrrera aurreko prozesuen ondoren gertatu zela, eta datiboko markak egilezkoak berrerabiliz sortu zirela, bestela esan, haiei beste funtzio gehigarri bat esleitzuz (3sg. ean izan ezik, non marka ageriko bat sortu zen). Azkenik, jada garai dialektalean, zu ‘zuek’ begiruneko 2sg.eko izenordaina bihurtu zen, eta honela sorturiko hutsunea betetzeko zuek izenordaina zein honi zegozkion komunztadura-markak eratu ziren (-zu-ri -e- edo -te gehituz), mendebaldean komunztadura-markok garai historikoe-tara arte ez direla garatu.

7. Ergatibilitatea izen-morfologian. -k morfema ergatiboa

Izen-morfologiari igaroz, Lakarrak (2005: 442-444) marka ergatiboa bividunen lekuzko kasuetako -ga elementuarekin lotu zuen (*aita-ga-n*, etab.), hasieran lokatibo orokor baten marka zela (*aita-ga-*), eta ondoren lokatibo espezifikoak (→ *aita-ga-n*, *aita-ga-n-a*, *aita-ga-n-ik*, etab.) adierazteria igaro zela proposatuz. Hala -k < *-ga era-torpena nola lekuzko kasuekiko harreman estu hau bat letozke hemen proposatzen den ikusmoldearekin. Toponimiako -aga atzizkiaren kutsu lekuzkoa (jatorrizkoa, 1468an lekukoturiko *Arespacochaga* bezalako deiturek eta toponimoek erakutsi legez; ikus Mitxelena 1997 [1953]: 36-37) kontuan hartuta, -a-ga zatikatuko bagenu bigarren elementua ere berbera izan liteke. Nire iritziz, baina, *-ga jatorriz osagarri egilezkoaren marka litzateke. Hau espero izatekoa da, eraikuntza ergatiboa predikatu pasi-

²⁸ Ikus Corbett (2006: 99-112), izenordaineko jatorriko komunztadura-marken sailkapen eta tipologia baterako.

boetatik datozena onartu eta kontuan hartzen badugu pasiboetan osagarri egilezkoak osagai zeihar baten bidez adierazten direla, dela hau PrepI bat (*por el médico, by the doctor...*), dela kasu zeihar baten bidez (sanskr. *naro mayā smaryate* ‘gizona nik gogoratua da’, pers. zah. *manā kartam* ‘nik egina izan zen’, biek osagarri egilezkoan instrumentalean dutela), dela bien bidez (lat. *a puella regina amatur*) etab.

Bada, hala ere, kontuan hartu beharreko beste gauza bat: Silverstein-en (1976) hierarkiaren arabera, split-a dagoenean A marka IS bizigabeetatik hasten da hedatzen, P eta S-ren markaketatik bereizten hasten den kasu guzietan. 1. atalean azaldu den moduan, euskararen kasua bitxia da, ez duelako izen-morfologian inongo hausturari. Egile diren IS guztiekin -k daramate euskarazko tradizio idatzien hasieratik, eta Euskara Batu Zaharretik horrela beti izan dela pentsatzeko arrazoi irmoak daude (ez dago inolako hausturari ezein euskalkitan). Hemen iradoki den hipotesiaren arabera, aditz jokatu historikoki iragankorrik aitzin-euskararen predikatu pasiboetatik dator, OA osoan eta LA/irrealiseko kasu askotan.

Bada, marka bedi berranalisi hau gertatu aurretik, 4. atalean proposaturikoaren arabera gure banaketa bat letorkeela Silverstein-en (1976) hierarkiarekin: split-a edo haustura dagoenean, IS bizigagabeak lehenago markatuko lirateke *-ga-rekin biziundunak baino, etab. Horrela, ‘nik harria suntsituko nuke’ aktiboki adieraziko litzateke; ‘harri ni suntsituko ninduke’, ordea, pasiboki. Nolabait irudikatzearen, ‘nik harria suntsituko nuke’ → **n̩en̩ ‘suntsitu-suntsitua.izan’ + IRR harri*, vs ‘harriak ni suntsituko ninduke’ → **n̩en̩ ‘suntsitu-suntsitua.izan’ + IRR harri-ga* (hitzez hitz, ‘ni suntsitua izango nintzateke harriak’). Osagarri egilezkoen markaketa, gerora A-en markaketa bihurtuko zena, bizigabeetatik hasiko zen, nonbait hasi bazen (gogora bedi, hala ere, progresibotzat jo dugun OA-aren aurrekarian, predikatu guztiak pasiboki adierazten zirela).

8. Hitz hurrenkera. AVO > AOV

Aitzin-euskara edo euskararen uneren batean aldaketa hau, edo behintzat VO > OV zabalagoa, gertatu dela, Trask (1977), Gómez & Sainz (1995) eta Lakarra (2005) bat dator. Hemen defendatu den ikusmoldeak aldaketaren azalbide pragmatiko bat eskaintzen du. Predikatu pasiboak nagusitzen badira, egile semantikoa amaieran egongo da. Berau tipikoki biziunduna, definitua eta informazio ezaguna denez, aukera asko izango du perpausaren hasierara aurreratua izateko edo topikalizatua izateko.²⁹ Une honetatik aurrera, berranalisi aktiboa gauzatu zenean, AVO > AOV aldaketa burutu zen.

Interpretazio hau ez da berria. Aldeak alde, ikus bedi Trask-ek orain hogeい urte zioena:

That leaves the ergative morphology to be accounted for, and here even speculation becomes difficult. The change from VO to OV syntax, if it occurred, would probably have come about via the increased use of an originally marked construction,

²⁹ Berrikusle anonimo batek gogorarazten dit informazio ezaguna perpausaren hasieran jartzea ez dela ezaugarri unibertsala, eta kontrakoa ere lekukotzen dela, informazio berria perpausaren hasieran jartzea alegia, batez ere hurrenkera libreko hizkuntzetan (ikus adibidez Mithun 1992 coos, ngandi eta ca-yugari hizkuntzen adibideekin, eta Payne 1992 ’o’odham hizkuntzaren adibideekin). Berrikusle berari biziundutasuna eta definitutasuna faktore garrantzitsuagoak iruditzen zaizkio.

and that construction could have been a passive or a ‘get’-construction. For example, an original canonical transitive like ‘John hit Peter’ might have been replaced by something along the lines of ‘Peter got his hitting from John’, a construction type well attested in the world’s languages and one which often develops into a passive. So, using purely modern words and forms, we might hypothesize an ancient **Jon jo zuen Kepa* being replaced by a marked form **Kepa jo zuen Jon-ek* (which in fact is fully grammatical in modern Basque in the sense of ‘It was Peter that John hit’); reanalysis of this as an unmarked form, followed by movement of the new subject to initial position, would have produced the modern *Jonek Kepa jo zuen*. Such a development would imply that the absolute NP was once the subject of the innovating transitive construction, and hence a period of ergative syntax. (Trask 1997: 247)

Prozesua irudikatzeko prozedura ezberdin bidez egiten bada ere (Trask-ek forma modernoen bidez, nik berreraiketa-ahaleginen bidez), planteamendua ia bera da. Derragun bakarrik **Kepa jo zuen Jon-ek* bezalako eraikuntza jatorriz markatuak agian abiatu zirela osagarri egilezkoa Silverstein-en hierarkian P-a baino beherago ze-goen kasu berezietatik (adibidez **Kepa jo zuen harri-ak*). Eraikuntza hau predikatu semantikoki iragankor guztieta zabaldu zenean (*ne-kar-* bezalakoetara izan ezik), ordea, osagarri egilezko gehienak Silverstein-en hierarkian gorago egongo ziren, eta honek eragin zuen haien topikalizazioa.³⁰

9. Pertsona-komunztaduraren sorrera, topikalizazioa eta hitz-hurrenkera

6. atalean pertsona-marka atzizkituak nola sortu ziratekeen azalpen bat eskaini dut. Pertsona-marka aurritzkei dagokienez, 1. eta 2. pertsonakoek nola edo hala jatorri izenordainekoak izan behar dute, eta 1. eta 2. tauletan haien sorreran zein elementu morfologikok parte hartu zuketen erakutsi dut (**ni da(r)-kar > nakar*, etab.). Iku dezagun orain zein izan ziratekeen trinkotze prozesu hau eragin zuten baldintza-pen sintaktiko eta pragmatikoak.

Pertsona-marken sorreraren tipologiarekin ikerketa modernoa Givón-en (1976) lan garrantzitsutik abiatzen da. Hartan, gorago aipatu den “today’s morphology is yesterday’s syntax” aforismoa argudiaketa batez hornituz, Givón-ek markatu zuen zenbait kasutan pertsona-marka aurritzkei eraikuntza markatu topikalizatuetatik argiro garatu direla, hala nola ingeles amerikarrean, eta orokorrean ingeles amerikar ez-estandarreko zenbait hizkeratan. Prozesua (6)-n irudikatzen da.

- | | | |
|------------------------------|--------------------------|------------------------------|
| (6) Topikalizazioa (markatu) | Neutroa (berranalizatua) | Beltzen ingeles amerikarra |
| <i>The man, he came</i> | \rightarrow | <i>The man he-came</i> |
| Topikoa iz.ord. | | Subjektua komunztadura.marka |
| [Givón (1976: 155)] | | |

Horrela, S-a topikoko kokagunera aurreratzen duen eraikuntza markatu baten gainerabilera erakuntza horren *demarking*-a edo arrunt bihurtzea ekarri du. Hortik, topikoa S bihurtu da eta aldaketa honek perpuseko S-a aditzeko komunztadura-marka bihurtzea sustatu du. Hau berau Ameriketako beltzen ingelesko hizkera batzuetan ger-

³⁰ Bide batez, ohar bedi Trask-en argudiaketan nire 1. eta 2. tauletako 2. faseko predikatu aktiboen desagerpena ere proposatzen dela (“**Jon jo zuen Kepa* being replaced by... ”).

tatu da, baina perpaus nagusietan bakarrik (hauek berbeta joriago, arinagoari lotuago daudelarik). Beltzen hizkerotan erlatibozko perpausak eratzeko erlatibozko izenordaina (*who, which ...*) usu omititzen denez, sortu den oposaketa honako erakoa da:

- (7) a. *The man he-came to dinner* (nagusia) Beltzen ingeles amerikarra
 ‘Gizona afaltzera etorri zen’
 b. *The man came to dinner* (erlatibozkoa)
 ‘Afaltzera etorri zen gizona’
 [Givón (1976: 170)]

1. eta 2. pertsonetan, eraikuntza topikalizatuen bidezko izenordain > kliniko > pertsona-marka uztartu motako garapenak zailagoak dira aurkitzen bibliografian. Haien aurkitzezko leku apropos bat hizkuntza bantuen familia da, nahiz, idatzizko tradiziorik gabeko hizkuntzak izaki, eraikuntza beraren garapenak ez diren normalean banako hizkuntzen historian lekukotzen (hizkuntzen arteko konparazioaren bidez ondoriozta daitezke soilik). Nolanahi ere, batzuetan hizkuntza berak agertzen ditu 1. eta 2. p.ko klinikoak, haien forma izenordainezko beteagoak, bai eta lehena bigarrenetik sortu datekeen eraikuntza topikalizatua, Givón-en beraren bembra hizkuntzaren adibideak erakutsi legez:

- (8) a. *n-di* múu-suma ‘Ni ona naiz’ Bemba (hizkuntza bantua)
 u-li múu-suma ‘Zu ona zara’
 múu-suma ‘Hura ona da’
 tu-li báa-suma ‘Gu onak gara’
 mu-li báa-suma ‘Zuek onak zarete’
 báa-suma ‘Haiek onak dira’
 b. *ine,* *n-di* múu-suma ‘Niri dagokidanez, ni ona naiz’
 ive, *u-li* múu-suma ‘Zuri dagokizunet, zu ona zara’
 ulya, múu-suma ‘Hari dagokionez, hora ona da’
 [Givón (1976: 166-167)]

Bembaren egoera honetan, aditz jokatua oraindik pertsona-komunzadurak gabea dugu, baina izenordainen forma beteak —eraikuntza topikalizatuen topikoko kokagunean— eta berauen forma klinikoak —adierazpen predikatuetan haikein (bakarrik) derrigorrezkoa den kopula batekin batera— bai azaltzen dira parez pare, eta hurrengo pauso bat izan liteke klinikoek pertsona-marka uztartu bihurtzea.

Hauxe litzateke, beraz, pertsona-marka anitzen jatorria: eraikuntza topikalizatu markatuetan, perpausak topikoko IS-rekin erreferentziakidea den izenordain anaforiko kliniko baten bidez topikoa bikoitzu behar du. Eraikuntza hauek arrunt eta ez-markatu bihurtzen badira, topikoko IS subjektu bihurtuko da A edo S baldin bada haren rol semantikoa, eta izenordain klinikoak pertsona-komunzadura bihurtuko.

Givón-ek (1976: 151-167) honelako prozesuen bidez sorturiko komunzaduren azterketa diakronikoan kontuan hartu beharreko hierarkiak ikertzen ditu. Hierarchyok IS-ren topikalizagarritasun mailaren menpe daude. Errazenik topikalizatzen diren IS-ak A/S-ak ditugu (oro har, subjektuak zentzu orokorrean), ondoren R-ak, eta ondoren P-ak. Hau honela da A/S-ak eta R-ak tipikoki definituak eta bividunak —gehienetan gizatiarrak— izaten baitira. P-en barnean, errazago topikalizatzen dira gizatiarrak ez-gizatiarrak baino, definituak indefinituak baino, parte-hartziale implika-

tuak parte-hartziale ez-inplikatuak baino, eta azkenik 1. pertsona 2. pertsona baino, eta 2. pertsona 3. pertsona baino.³¹

Printzipioz, hierarkia honek, hots A/S > R > P (eta honen barnean giz. > ez-giz., etab.) hierarkiak, topikalizagarritasuna ez ezik, pertsona-komunztadura ere baldintza-tzeko joera agertzen du, era batean non ezkerrerago dauden elementuak aditz jokatuan errazago indexatzen diren. Hala ere, aipaturiko kategoria guztiak beren artean katra-milatzen dira, eta segidaren pauso batzuek salbuespenak agertzen dituzte (adibidez, hungarieraz P definituak indexatzen dira baina R-ak ez; ikus Givón 1976: 163-164).

Gainera, eraikuntza topikalizatu guztietai kokagune klítikoan geratzen den ize-nordaina ez da beti topikoko IS-rekin erreferentziakidea. Beltzen ingeles amerikarreko edo bembako adibideetan bezala, aitzin-euskaran ere honelako eraikuntzak pertsona-komunztaduraren iturri bat izan dirateke (*ni, ni da-tor ‘niri dagokidanez, ni nator’ → *ni n(i)(-)d(a)-tor > ni nator, etab.), baina 1. eta 2. tauletan irudikatu ditudan komunztadurak ez ziren horrela sortuko, haietan pertsona-marka uztartu bihurtzen den izenordaina ez baita topikoko IS-rekin erreferentziakidea. *ni da-kus Peru-ga → *Peru-ga(,) ni da-kus bezalako garapen bat perpausaren antolaketaren ikuspegitik bi eratan interpreta dezakegu: 1) osagarri egilezkoaren aurreratze edo promozio hustsat (operazio derragun ez-markatua), edo 2) topikalizaziotzat (operazio markatua). Bigarren eran interpreta bageneza, hura zein aurreko *ni, ni da-tor → *ni n(i)(-)d(a)-tor > ni nator bezalako kasuak (non izenordainak topikoko IS errepruduzitzen duen), zein imajina genitzakeen bestelako kasu iragangaitzak, adibidez³² *etxe-ra, ni nator → *etxe-ra n(i)(-)d(a)-tor > etxe-ra nator (non izenordain klítikoa ez den IS-arekin erreferentziakidea), eta horrelako guztiak, prozesuaren formulazio barkeraren barnean sar litezke: guztietai, pertsona-komunztadura sortzen da topikalizazio markatu bat predikatu arrunt, ez-markatu bihurtzen delako.

Posibilitate hau gogoan, aintzat har dezagun Givón-en aipaturiko lanaren monografia berean Li & Thompson-ek (1976) proposatu zuten hizkuntzen tipología. Autoreon arabera, eraikuntza topikalizatuen markatutasun mailaren arabera, hizkuntzak bi eratakoak izan daitezke:

- a) Subjektu-goraguneko hizkuntzak (“subject-prominent languages”), Subjektu-Predikatu egiturako perpaus-antolamenduarekin.
- b) Topiko-goraguneko hizkuntzak (“topic-prominent languages”), Topiko-Iruzkin egiturako perpaus-antolamenduarekin).

Kontsidera ditzagun ingelesezko honako perpausok:

- (9) a. *John hit Mary*
 Subjektua Predikatua
 b. *As for education, John prefers Bertrand Russell's ideas*
 Topikoa Iruzkina
 [Givón (1976: 459)]

³¹ Ikus honen inguruan goi-aleman zaharreko eta Suabiako alemaneko adibideak aztertzen dituen Bynon (1992). Dena dela, Givón (1976)-n bezala lan honetan ere 3. pertsonako izenordainak eta klítikoak baino ez dira azaltzen.

³² Ondoko adibidean, *etxe-ra* adizlaguna euskara batuko formaren bidez irudikatzen dut.

Ingelesa subjektu-goraguneko hizkuntza izaki, eraikuntza arrunta edo ez-markatua (9a) da. (9b) markatua, nolabait arruntago batetik eratorria dugu. Topiko-goraguneko hizkuntzetan, ordea, (9b) eraikuntza ez-markatua dugu. Topiko-Iruzkin eraikuntzek sintaxi lausoagoa dute. Izan ere, topikoak ez ohi du harreman sintaktiko esturik izan dagokion iruzkineko aditzarekin; subjektuak bai, usu A/S-komunzaduraren formapean. Bestetik, topikoen funtzioa perpausaren esparrua ezartzear da, eta horregatik definitua izango da beti; subjektuaren funtzioa, ordea, dagokion aditzak implikatzen duen ekintza, esperientzia, edo estatuaren protagonista zehaztea izango da, eta ez da halabeharrez definitua izango.³³

Topikoak eta subjektuak, hala ere, zenbait ezaugarri partekatzen dituzte, eta nola edo hala subjektu bat topiko gramatikalizatu bat da. Gramatikalizazio hau topikoak iruzkinarekin duen harreman semantiko-diskurtsiboak sintaxiari ere erasaten dionean gauzatzen da. Honek dugun aditz komunzaduraren marken iturrietako bat, (6)-ko *The man, he came → The man he-came* adibidean ikusi dugun moduan.

5. atalean Bhat-en (1999) hizkuntz sailkapenaren arabera aitzin-euskara, TAM-eko kategoriei dagokienez, “modu-goraguneko hizkuntza” zela proposatu badut, 9. atal honetan Li & Thompson-en (1976) hizkuntz sailkapenaren arabera aitzin-euskara, perpausaren antolamendu pragmatikoaren ikuspegitik, “topiko-goraguneko hizkuntza” zela iradoki nahi nuke. Are gehiago, euskararen pertsona-komunzadura Topiko-Iruzkin perpaus antolamendu batetik Subjektu-Predikatu erako beste baterako igarotzearekin batera sortu zatekeela deritzot. 12. figuraren iradokizun honek lekarzkeen zenbait garapen imaginagarri irudikatzen dira (forma modernoekin), topikoaren izaeraren arabera.

<i>Topiko-Iruzkin</i>		<i>Subjektu-Predikatu</i>
a. *ni, ni dator	→ ni nator	(Topikoa: S)
b. *etxera, ni dator	→ etxera nator	(Topikoa: Adizlagunezko osagarria)
c. *gaur, ni dator	→ gaur nator	(Topikoa: Aditzondoa)
d. *Peru, Ø dakus	→ Peru dakus(a)	(Topikoa: P)
e. *Peru-ga, ni dakus	→ Peruk nakus(a)	(Topikoa: Os.Eg.)

12. figura

Topiko-Iruzkin > Subjektu-Predikatu perpaus antolamenduaren aldaketak ekar litzakeen zenbait garapen

Horrela, txineraz bezala Topiko-Iruzkin erako perpausaren antolaketa arrunta zela onartzen badugu, topikalizagarritasun hierarkia (A/S > R > P, beronen barnean giz. > ez-giz., etab.) neurri batean lausotu egiten da (topikoak printzipioz definituak izango diren arren), eta bestetik indexatzen den izenordaina ez da beti izango topikoko IS-rekin erreferentziakidea.

Aitzin-euskaran pertsona-komunzaduraren sorrera Topiko-Iruzkin → Subjektu-Predikatu erako perpaus-antolamenduaren aldaketa batekin batera gauzatu zelako

³³ Topiko eta subjektu kategoriak definitzen dituzten parametro gehiagotarako, ikus Li & Thompson (1976: 461-466).

onarpenak lan honetan proposatu dudan hipotesiari —alegia, aitzin-euskarak diatesi gramatikalizaturik ez zuelakoari— aldeko argudio gehigarri eta burujabe bat ematen diola deritzot. Li & Thompson-ek (1976: 466-471) topiko-goraguneko hizkuntzei esleitzen dizkieten ezaugarrien artean badago arras interesarria den bat. Bigarrena alegia: eraikuntza edo eratorpen pasibork eza! Hauetan arruntak dira subjektu-goraguneko hizkuntzetan, baina topiko-goraguneko hizkuntzetan ez dago horrelakorik (lahu eta lisu hizkuntzak), edo bazterrekoak dira (txinera mandarina). Dena den, hizkuntza hauetan azaltzen dena, Li & Thompson-en adibideetan beretan ikusten denez (ikus txinera mandarineko (2), eta lisukoak behereago (10)-en), ez da pasibork eza, diatesi gramatikalizaturik eza baizik. Hau espero izatekoa da, parametroaren barnean balio bakarra badago honek testuinguruaren arabera malgutasun diatetikoa hartuko baitu.

Biziki interesarria da zergatik den hau horrela (hots, zergatik ez duten diatesi gramatikalizaturik topiko-goraguneko hizkuntzek). Li-ren arabera (2005: 184; beste Li bat dugu hau), aurreko lan batzuk aipatzen dituela: “whenever VOICE exists in a language, its major function is to control the flow of information in text”. Horrela, diskurtso batean subjektu berbera mantentzen daiteke, eta aditza hari egokitzen behar zaio eratorpen morfologiko baten bidez (dela hau pasibo bat, dela antipasibo bat, dela kausatibo bat, dela antzekoren bat). Aitzitik, Li & Thompson-ek dioskutenez:

The relative insignificance of the passive in Tp languages can be explained as follows: in Sp languages, the notion of subject is such a basic one that if a noun other than the one which a given verb designates as its subject becomes the subject, the verb must be marked to signal this “non-normal” subject choice. [Eta beheraxeago:] In Tp languages, it is the topic, not the subject, that plays a more significant role in sentence construction. Any noun phrase can be the topic of a sentence without registering anything on the verb. It is, therefore, natural that the passive construction is not as widespread in Tp languages as it is in Sp languages. (Li & Thompson 1976: 467)

Topiko-goraguneko hizkuntzak ez dira hain zehatzak perpausen barneko erlazio gramatikalak adierazteko, baina informazioaren kudeaketan ez ohi dira sortu espero litzkeen nahasmenak. Adibide bat Li & Thompson-ek berek (1976: 472-475) eskaientzen digute. Lisu hizkuntza tibeto-burmandarra topiko-goragunekoa eta aditza amaieran duen hizkuntza dugu. Aditzaren aurrean IS bat baino gehiago baldin badaudet, maiz ez dago jakiterik zein den egilea eta zein jasailea, perpausa bikoitz da tekeelarik. Aditz iragankorreko baiezko perpaus simple batean, ageriko egiturak argituko du zein izango den topikoa, baina ez zein izango den egilea. Bikoitzasun hau (10a-b) adibideotan ikus dezakegu:

- (10) a. *Làthyu nya áñà khù - a* Lisu hizk.
 Jende TOPIKO.MARKA txakur ausiki BAIEZTAPENEKO.MARKA
 ‘Jendea (topikoa), — haiiek txakurrak ausikitzen dituzte’
 — txakurrek ausikitzen dute’
- b. *Áñà nya làthyu khù - a*
 Txakur TOPIKO.MARKA jende ausiki BAIEZTAPENEKO.MARKA
 ‘Txakurrak (topikoa), — haiiek jendea ausikitzen dute’
 — jendeak ausikitzen ditu’

[Li & Thompson (1976: 472-473)]

(10a) zein (10b) bikoitzak dira: ‘Jendeak txakurrak ausikitzen ditu’ edo ‘Txakurrek jendea ausikitzen dute’ dateke haien adiera, testuinguruaren arabera. Pentsa liteke honelako hizkuntza batean bikoitzasunak sarri gertatzen direla. Baina Li & Thompson-en esanetan:

The fact is, however, that this total disregard for agency or subjecthood in the structure of the language does not impair its communicative function, as much as might be expected. First of all, the context, whether linguistic or extra-linguistic, provides a great number of semantic cues. Secondly, semantic properties such as humanness and animacy play a significant role in disambiguating sentences which may be otherwise ambiguous because of the lack of any indication of agency or subjecthood. In terms of pragmatics, one may safely assume that when one hears either 34 or 35 [gure (10a) eta (10b)], the intending meaning would be dogs bite people [azpimarratua L&T-ena], since people are normally not expected to bite other creatures. Thus, although 34 and 35 are theoretically ambiguous, they do not present a communicative problem in most circumstances. (Li & Thompson 1976: 473)

Diatesi gramatikalizaturik eza, beraz, topiko-goraguneko hizkuntzen ezaugari bat dugu.³⁴ Lan horretan ezarri den hipotesiaren arabera, lisurako Li & Thompson-ek deskribatzen duten egoera —edo antzeko bat— 1. eta 2. tauletako 1. fasean egon zitekeen, harrezkerotik IS bietako bati Os.Eg.-ko atzizki bat atxikiz aditzari adiera pasiboa esleitu eta bikoitzasuna ekiditen zelarik. Azkenik, behintzat OA-ko joskeretan pasibo horiek hain ugari bihurtu ziren ezen aktiboki berrinterpretatu ziren, hizkuntza ergatiboa izatera igaro zelarik. Honekin batera aditzaren argumentukiko komunztadura-markak sortu ziren, eta atal horretan iradokitakoaren arabera perpausaren antolamenduan Topiko-Iruzkin → Subjektu-Predikatu aldaketa gauzatu zen.

Derragun, atal honi bukaera emateko, hartan onarturikoak 8. atalean postulaturiko hitz hurrenkeraren garapenari ñabardura bat egitera behartzen gaituela. AOV ez letorke zehazki AVO-tik, TAV(O)-tik baizik. Topikoa objektu zuzena bazea, berau ez lego ke aditzaren ondoren.

³⁴ Li & Thompson-ek (1976: 466-471) topiko-goraguneko hizkuntzei esleitzen dizkieten ezaugari guztiak honakoak dira: 1) topikoaren ageriko markaketa, baina ez halabeharrez (iruzkineko) subjektuarena (mandarinean, adibidez, topikoa perpaus hasieran dago beti); 2) eratorpen edo eraikuntza pasibor eza (lahu edo lisu hizkuntzetan ez dago horrelakorik, mandarinean bai baina bazterreko da); 3) adierarik gabeko subjekturik eza (“dummy subjects”) direlakoak ditugu hauek, inglesaren eta subjektu-goraguneko beste hainbat hizkuntzaren tipikoak: *ing. it, al. es, etab.*); 4) subjektu bikoitzak izan ohi dituzte (txineraz adibidez: *tā tóu téng* hora-buru-min.egin ‘Hark buruko mina dauka [lit. ~ ‘hora, buruak min egiten dio’]’); 5) topikoaren kontrol erreferentziakideketa (“controlling co-reference”; perpuseko osagai erreferentziakidetu baten ezabaketak tipikoki topikoa, eta ez (iruzkineko) subjektuak, kontrolatzen du); 6) aditza amaieran (horrela japonieraz, koreeraz, lahuz eta lisuz, eta autoreen arabera txinera mandarina norabide bertsuan garatzen ari da; *pace* Hsu McWilliam 2009 eta beste lan berankorrago batzuk, berrikusle anonimo batek gogorazten didan bezala); 7) edozein osagai ager daiteke topikoko kogagunean (subjektu-goraguneko hizkuntzetan, ordea, murriztapen ugari egon ohi da); 8) topiko-iruzkin eraikuntzen oinarritzotasuna.

Hauek orain lau hamarkada ezarririko joerak ditugu, ez hertsiki hartu beharreko arauak. Haien eguneraketan eta bakoitzaren egokitasuna aitzin-euskalarako proposatu berreraiketan ez naiz sartuko.

10. Amaitzeko

Aurreko ataletan, euskararen morfologia ergatiboaren jatorria azaltzeko modurik bideragarriena “hipotesi pasiboa” dela defendatu dut, Trask-ek (1977) ezarririko zentzu diakronikoan ulerturik. Horrez gain, Trask-ek berak bere lan aitzindarian topatu zituen zenbait arazo konpontzen saiatu naiz, aitzin-euskararen aditz-erroek diatesirako espezifikazio lexikorik ez zutela onarturik. Honek implikatzen zuen aditz-erro guztiak “diathetical software” berbera zutela, guztiak funtzionamendu morfo-sintaktiko berbera baitzuten, zein-nahi ere zen harturiko osagarria (ikus 3. figura).

Uneren batean, imperfektibo osoan eta jatorriz irrealistaz jo dudan sektore morfologikoaren zati batean, predikatu semantikoki iragankorrik oro pasiboki adieraziak izatera igaro ziren (ikus 1. eta 2. taulak). 8. atalean azaldu diren arrazoiengatik, honek osagarri egilezkoaren promozioa —edo agian topikalizazioa— eragin zuen, eta ondoren perpausaren berranalisi bat, elementu topikalizatu zeiharra aditzaren muiñecko argumentu bihurtu zuena. Hartara, jatorriz argumentu bakarreko predikatuak argumentu biko predikatu bihurtu ziren. Euskal gramatika tradizionalaren terminologian, Nor sailetik Nor-Nork saila sortu zen, Atenea Zeus-en burutik bezala.

Ikusmolde honek euskararen aditz-morfologiaren zenbait arazo klasikori azalbide berri bat eskain diezaieke, hala nola ergatibilitate hautsiari eta jatorri ez-izenordaineko A.marki (-da, *-ga). Lehenari dagokionez, euskararen ergatibilitate hautsiaren bitxitasuna tipologiaren printzipioekin bateratzen saiatu naiz, LA/irrealisaren sektore morfologikoan forma zaharrenak irrealisak direla argudiatuz, gerora —aditzaren trinkotzea gauzatu ondoren— haietatik -a/en atzizkidunak eratorri zirelarik. Haien aldetik, -da eta *-ga A-marken jatorria ulertzeko, giltza da ulertzea aditzaren trinkotzeak S-ren komunztadura sortu zuela, eta perpausaren berranalisi aktiboak S- batzuen P-gisako berrinterpretazioa, eta aldi berean perpaus iragankorretako A-en indexaketen beharra.

Honen guztiaren osagarri, 70eko hamarkadatik aurrerako ikerketa tipologikoan egin diren bi sailkapen tipologikoren barnean saiatu naiz euskara kokatzen. Bhat-en (1999) aldi-, aspektu- eta modu-goraguneko hizkuntzen arteko sailkapenean, aitzin-euskara modu-goraguneko hizkuntza zela eta haren aditzaren bereizketa nagusia realis (imperfektibo) vs irrealis zela onartu dut. Lehena [A serieko izenordain + da(r) + aditz. erro] eraikuntzen bidez adieraziko litzateke; bigarrena [B serieko izenordain + aditz. erro] eraikuntzen bidez. Modu-goraguneko hizkuntzen ohiko ezaugarrietako bat euskara historikoaren izaerarekin bat dator (izenordaineko ergatibilitate hautsia, euskaran hau bakarrik irrealisean azaltzen den arren), eta beste bat proposaturiko berreraiketa-rekin bat letorke (1. eta 2. pertsonako bi izenordain-serie izatea).

Bestalde, Li & Thomson-ek (1976) postulaturiko subjektu-goraguneko eta topiko-goraguneko hizkuntzen arteko sailkapenean, aitzin-euskara topiko-goraguneko hizkuntza zela onartu dut. Hizkuntza hauetan, edozein IS izan daiteke topikoa bere rol semantikoa adierazten duen pertsona-marka bat aditzean indexatu gabe. Horregatik hain zuzen, hizkuntza hauetako aditz-erroak maiz lexikoki zehazgabek dira diatesirako. Zehazgabetasun hau bat dator berreraiki den aitzin-euskararekin, baina gainera topiko-iruzkin > subjektu-predikatu garapenak azal lezake nola gertatu zen hasieran osagarri egilezkoaren topikalizazioa, bai eta nola uztartu ziren behinolako izenordain askeak, pertsona-marka aurritzkitu bihurtzeko.

Proposatu diren berreraiketa edo ideia guztiekin, jakina, ez dute sinesgarritasun maila berbera izango. Funtsezkoenak laburbildu behar banitu, honakoak lirateke:

1. Euskararen aditz jokatu iragankorrik predikatu pasiboetatik datoz, berranalisi aktibo baten bidez (hau Trask-ek 1977 jada postulatu zuen).
2. Aitzin-euskararen aditz-erroak diatetikoki zehazgabek ziren.
3. OA-ko aditz jokatu iragankor guztiak predikatu pasiboetatik datozen bittarlean, LA/irrealisean $P = 1/2$. p. denean predikatu pasiboetatik datoz, $A = 1/2$. p. eta $P = 3$. p. direnean predikatu aktiboetatik datoz, eta A zein $P = 3$. p. direnean predikatu aktiboetatik zein pasiboetatik etor litezke.
4. Osagarri egilezkoaren topikalizazioak eta perpaus iragankorren berranalisi aktiboak eragin zituzten: a) IS-en lerrokadura morfologiko ergatiboa; eta b) AVO > AOV aldaketa (hau Trask-ek 1997: 247 jada postulatu zuen).

Uste dut tesi hauen alde aurkeztu diren argudioak aintzat hartzekoak direla. Ira-doki diren gainerako berreraiketak (-t eta -k atzizki egilezkoena batik bat) askoz es-pekulatiboagoak direla onartu beharra dago, eta ez nituzke maila berean kokatuko, baina hala ere esango nuke banaka eztabaidea daitezkeela, ergatibilitatearen eta aditz-morfologiaren inguruko debatea susper eta aberats dezaketelarik.

Bibliografía

- Aldai, Gontzal. 2000. Split ergativity in Basque. The pre-Basque antipassive-imperfective hypothesis. *Folia Linguistica Historica* 21. 31-98.
- Aldai, Gontzal. 2009. Is Basque morphologically ergative? Western Basque vs. Eastern Basque. *Studies in Language* 33. 783-831.
- Ariztimuño, Borja. 2013a. Finite verbal morphology. In Mikel Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-internal and typological approaches to linguistic reconstruction*, 359-427. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Ariztimuño, Borja. 2013b. Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar. In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelenaren III. Biltzarra*, 41-60. Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Bakker, Peter. 1984. The order of affixes in the Basque synthetic verb. *ASJU* 18(2). 63-87.
- Bhat, D. N. Shankara. 1999. *The prominence of tense, aspect and mood*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Bhat, D. N. Shankara. 2004. *Pronouns*. Oxford: Oxford University Press.
- Bynon, Theodora. 1992. Pronominal attrition, clitic doubling and typological change. *Folia Linguistica Historica* 13. 27-63.
- Carlson, Robert. 1994. *A grammar of Supyire*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Comrie, Bernard. 1981. Aspect and voice: some reflections on perfect and passive. In Philip Fedesch & Annie Zaenen (arg.), *Syntax and semantics (Vol. 14). Tense and aspect*, 65-78. New York, Londres, Toronto, Sydney & San Francisco: Academic Press.
- Corbett, Greville G. 2006. *Agreement*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Dixon, Robert M. 1994. *Ergativity*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1987-2005. *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. 6. argit. 2019: <https://www.euskaltzaindia.eus/oeh> (2020/07/12).

- Fuß, Eric. 2005. *The rise of agreement*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Givón, Talmy. 1976. Topic, pronoun and grammatical agreement. In Charles N. Li (arg.), *Subject and topic*, 149-188. New York, San Francisco & Londres: Academic Press.
- Gómez, Ricardo & Sainz, Koldo. 1995. On the origin of the finite forms of the Basque verb. In José Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*, 235-274. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Heath, Jeffrey. 1977. Remarks on Basque verbal morphology. In William A. Douglass & Richard W. Etulain (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: essays in honor of Jon Bilbao*, 193-201. Reno: University of Nevada.
- Hsu McWilliam, Michelle. 2009. *Chambers Chinese grammar*. Edinburgh: Chambers.
- Lafon, René. 1943. *Le système du verbe basque au XVIIe siècle*. Bordele: Delmas (Berragrit. fak-sim. Baiona & Donostia: Elkar, 1980).
- Lakarra, Joseba A. 1996. *Refranes y sentencias (1596)*. Ikerketa eta edizioa. Bilbo: Euskal-tzaindia.
- Lakarra, Joseba A. 2005. Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco. *Palaeohispanica* 5. 407-470.
- Lakarra, Joseba A. 2006. Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco. In Joseba A. Lakarra & José Ignacio Hualde (arg.), *R. L. Trasken oroitzañetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritzaz historikoak* (= ASJU 40), 561-621. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Lakarra, Joseba A. 2008. Aitzineuskaren gramatikarantz (malkar eta osinetan zehar). In Xabier Artigoria & Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez* (ASJUren Gehigarriak 51), 451-490. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Li, Charles N. & Thompson, Sandra A. 1976. Subject and topic: a new typology of language. In Charles N. Li (arg.), *Subject and topic*, 457-489. New York, San Francisco & Londres: Academic Press.
- Li, Eden Sum-hung. 2005. Voice in Chinese. A systematic functional perspective. *Function of Language* 12(2). 181-203.
- Martínez Areta, Mikel. 2013. Ergatibitate hautsiaz. Zergatik ote da orainaldia iraganaldi/irrealisa baino ergatiboa? In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelenaren III. Biltzarra*, 353-367. Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Martínez Areta, Mikel. 2019. Latin and Romance influence on the Basque verbal morphosyntax (prestatzen).
- Mithun, Marianne. 1992. Is basic word order universal? In Doris L. Payne (arg.), *Pragmatics of word order flexibility*, 15-61. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Mitxelena, Koldo. 1953. *Apellidos vascos*. Zarautz: Icharopena (Berragrit. Donostia: Txertoa, 1997).
- Mitxelena, Koldo. 1961. *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (2. argit. osatua, 1977. Berragrit. in ASJUren Gehigarriak 4, Donostia: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua & Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990).
- Mitxelena, Koldo. 1964. *Textos arcaicos vascos*. Minotauro (Berragrit. in ASJUren Gehigarriak 11, Donostia: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua & Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990).

- Mitxelena, Koldo. 1981. Lengua común y dialectos vascos (Berragít. in *Palabras y textos*, Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 1987, 35-55).
- Mounole, Céline. 2008. Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: inperfektibozko perifrasiareni sorreraz. *ASJU* 51(1/2). 585-603.
- Mounole, Céline. 2014. *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique* (= *ASJU* 48). Gasteiz: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Mounole, Céline. 2015. Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz. In Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*, 473-490. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Norman, Jerry. 1988. *Chinese*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Oregi Aranburu, Josu. 1974. Euskal aditzaz zenbait gogoeta. *Fontes Linguae Vasconum* 17. 265-283.
- Ormaetxea, Txipi. 2002. *Aramaioko euskara*. Aramaio & Gasteiz: Aramaioko Udala & Arabeako Foru Aldundia.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris Publications.
- Oyharçabal, Bernard. 1991. *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne* (*ASJUren Gehigarriak* 16). Donostia: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Palmer, Frank R. 2001. *Mood and modality*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Payne, Doris L. 1992. Nonidentifiable information and pragmatic order rules in 'O'odham. In Doris L. Payne (arg.), *Pragmatics of word order flexibility*, 137-166. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1992. 'Nunc' Vasconice. *ASJU* 26(3). 695-724.
- Santazilia, Ekaitz. 2013. Noun morphology. In Mikel Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-internal and typological approaches to linguistic reconstruction*, 223-281. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Schuchardt, Hugo. 1893. Baskische Studien I: Über die Entstehung der Bezugsformen des Baskischen Zeitworts. *Denkschriften der Kaiserlichen Akademie der Wissenschaften. Philosophisch-Historische Classe* 42. 1-82.
- Silverstein, Michael. 1976. Hierarchy of features and ergativity. In Robert M. Dixon (arg.), *Grammatical categories in Australian languages* (Linguistic Series, 22), 112-171. Canberra: Australian Institute of Aboriginal Studies.
- Sun, Chaofen. 2006. *Chinese. A linguistic introduction*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Trask, Robert L. 1977. Hystorical syntax and Basque verbal morphology: two hypotheses. In William A. Douglass & Richard W. Etulain (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: essays in honor of Jon Bilbao*, 203-217. Reno: University of Nevada.
- Trask, Robert L. 1979. On the origins of ergativity. In Frans Plank (arg.), *Ergativity. Towards a theory of grammatical relations*, 385-404. Londres, New York, Toronto, Sydney & San Francisco: Academic Press.
- Trask, Robert L. 1997. *The history of Basque*. Londres: Routledge.
- Trask, Robert L. 2002. Ergativity and accusativity in Basque. In Kristin Davidse & Béatrice Lamiroy (arg.), *The nominative & accusative and their counterparts*, 265-284. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.

- Urgell, Blanca. 2006. Para la historia del sustantivo verbal en vasco. In Joseba A. Lakarra & José Ignacio Hualde (arg.), *R. L. Trasken oroitza penetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoak* (= ASJU 40), 921-948. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Zuazo, Koldo & Urtzi Goiti. 2016. *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

XVIII. mendeko doctrina argitaragabe bat: aurkezpena eta edizioa¹

*An unprinted doctrine of the 18th century:
Presentation and edition*

Urtzi Reguero-Ugarte*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: The main aim of this study is to present a critical edition of a doctrine written in High-Navarrese dialect at the end of the 18th century. This text has been recently discovered in the library of the Basque Parliament. This paper will highlight the importance that this text can have to Basque dialectology, and will outline the principal characteristics of the manuscript such as its size, its source and the approximate date of its translation. In addition, some dialectal characteristics are presented to show that the text was composed in the Basque variety of Leitza and that the identity of the writer could be traced to Tiburtzio Sagastibeltza. Finally, a critical edition is offered with palaeographic and explanatory notes to help to understand the main text.

KEYWORDS: doctrine, philology, editions, Basque dialects, dialectology.

LABURPENA: *Saio honetan XVIII. mende bukaeran goi-nafarreraz idatzitako doctrina baten edizioa aurkezten da. Orain arte ezezaguna izan den eskuizkribu hau Eusko Legebiltzarreko liburu-*

¹ Lan hau MINECOK finantzatutako *Monumenta Linguae Vasconum* (V): periodizazioa eta kronología (FFI: 2016-76032-P) ikerketa proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzak lagundutako eta Joaquín Gorrochategui gidatutako *Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada* (HMLV-LHC; IT 1344-19) ikerketa taldearen baitan egin da. Biziki eskertu behar ditut lan honen aurreko bertsio batí egindako ohar eta iruzkinengatik: Ricardo Gómez, Ekaitz Santazilia, Borja Ariztimuño, Iker Salaberri, Eneko Zuloaga eta aldizkariko ebaluatzale anonimoak. Halaber, Txaro Valverde Legebiltzarreko liburutegiko langileari ere eskerrak eman behar dizkiot eskuizkribua ikusteko eta zalantzak argitzeko eman-dako laguntzagatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Urtzi Reguero-Ugarte. Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (UPV/EHU). Juan Ibáñez de Sto. Domingo kalea, 1 (01006 Vitoria-Gasteiz) – urtzi.reguero@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0003-1549-0738>

Nola aipatu / How to cite: Reguero-Ugarte, Urtzi (2021). «XVIII. mendeko doctrina argitaragabe bat: aurkezpena eta edizioa». *ASJU*, 53 (1-2), 225-359. (<https://doi.org/10.1387/asju.22417>).



tegian agertu da berriki. Beraz, euskal dialektologiarako izan dezakeen garrantzia aipatu ostean, eskuizkribuari buruzko zenbait ohar egiten dira; besteak beste, erakusten da gaztelaniazko zein liburu duen jatorri, noizkoa izan daitekeen itzulpena, liburuaren tamaina, etab. Areago, laburki aurkezten diren hizkuntza ezaugarri batzuk kontuan izanda, Leitza inguruko hizkera erabiltzen dela erakusten da eta anonimotzat hartu izan bada ere, proposatzen da Tiburtzio Sagastibeltza izan daitekeela dotrinaren egilea. Jarraian, testuaren edizio kritikoa eskaintzen da, bi motatako oharrez lagundurik: batetik, ohar paleografikoak daude eta, bestetik, testua ulertzan lagundi nahi duten azalpen oharrak.

HITZ GAKOAK: dotrina, filologia, edizioak, euskalkiak, dialektoologia.

1. Sarrera

Artxiboek dituzten materialak digitalizatu eta sarean guztiak jartzen egindako lan esker, orain arte ezagutzen ez genituen euskarazko testuak agertu dira. Horien artean daude, besteak beste, Goizuetan 1753an irakurri zen sermoi bat (Reguero 2015b) edo orain hemen aurkezten den doctrina.

Hain zuzen ere, sarean zenbait kontu bilatzen ari nintzela, Eusko Legebiltzarren Liburuklik artxibo digitalean aurkitu nuen² ordura arte, ustez bederen, gutako askorentzat ezezaguna zen doctrina hau. Dotrinaren lehen begiratuan aise da ikus-ten euskal filologiarentzat eta euskalkien historiarentzat izan dezakeen garrantzia: 300 orrialde baino gehiago dituen eskuizkribua da, osorik euskaraz; gainera, goi-na-farreraz idatzita dago, Gipuzkoarekin muga egiten duen Nafarroako eskualderen bateko mintzoan.

Esan bezala, sarean idoro daiteke *Doctrina santuaren explicacioa San Carlos Borromeoren doctrinatatic ta libruatatic ateraa* izenburua daraman lekukotasun idatzi hau, aski kalitate onean digitalizaturik. Paperezko jatorrizkoa Gasteizen dago, Eusko Legebiltzarreko liburutegian, Juan Ramon Urkixoren ondareko gainerako lekukotasunekin batera. Erosotasunagatik, digitalizaturiko irudiak erabili ditut edizioa paratzeko; dena den, Gasteizen bertan dagoen eskuizkribua ere esku artean izan dut edizioa prestatzeko, deskribapen zehatzagoa egiteko eta izan ditudan transkripzio zaintza batzuk argitzeko.

2. Dotrinaren aurpezpenea

Aurreratu dudanez, *Doctrina santuaren explicacioa San Carlos Borromeoren doctrinatatic ta libruatatic ateraa* da obra luze honen izenburua, eta 360 orrialde inguru ditu euskara hutsean idatzirik. Ezbarrik gabe, beste hizkuntza batetik, ziurrenik gaztelaniatik, euskarara ekarritako obra bat da. Irudiz, Joaquín Molesek 1769an Madriden argitaratu zuen *Doctrina christiana para niños y adultos a la mente de San Carlos Borromeo y del catecismo romano sacado a instancias suyas por el Bmo. Padre San Pio V y por decreto del sacrosanto Concilio Tridentino. Confirmado con ejemplos curiosos libruaren itzulpen/egokitzapena* da. Hori da, beraz, *post quem* data.

Ez da erraza Joaquín Molesi buruzko berri asko ezagutzea, baina Prebisteroa izan zen, katedratikoa eta nuntziaturako examinatzaile. Erliejo liburu zenbait idatzi zituen gaztelaniaz eta itzuli zituen hizkuntza horretara. Ondorengo adibideek argi erakusten dute euskarazko doctrina hori idatzi zuenak Molesen doctrina zuela oinarri; ezkerreko zutabeen Molesen liburutik ateratako pasartea dago, bere horretan; eskuinean pasarte horri dagokion euskarazkoa:

² Hauxe da helbidea: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/8722> [azken kontsulta: 2020/07/27].

Refiere Vincencio Belvacense, que San Roman Martyr, al despedazarle sus carnes, dixo al tirano Aselepiades: si no crees lo que te digo, pregúntalo a aquel niñito inocente, que como ni sabe hablar, no sabe mentir. Era este un niño de pocos meses, que estaba a los pechos de su madre Christiana entre el concurso. Al punto, soltando los labios del pecho el tierno infante, buelve la carita al tirano, y en clara voz le dice: Jesu-Christo es el Dios verdadero; y diciéndole: pues quien te ha dicho a ti eso? Entonces con mil gracias la criaturita: a mi, respondio, a mi me lo ha dicho mi madre, y a mi madre se lo dixo Dios. La Iglesia, que lo dice a nosotros, es nuestra madre, y a esta le ha dicho Dios, quanto nos enseña.

El emperador del Mogol Echevar resistia por sus torpezas a convertirse. Hizo que una monilla, pues gustaba como muchos de monerías, sacase de una urna la cedula de la ley verdadera. Y estaban la de Lycurgo, la del Japon y la de Mahoma. Saco la de Mahoma, la miro y la rasgo e hizo lo mismo con las otras, menos con la de Christo, que con reverencia dio al Emperador. Bolvieronlas a poner, menos la cedula de la Ley de Christo. Hizo lo mismo con las otras, y no encontrando la de Christo, fue oliendo a los presentes, y asiendo fuertemente al que la tenia, se la hizo soltar y diola al Emperador. O ley soberana, reconocida aun las fieras.

San Roman Martirearen vicizan leicen dugu, martirezazean arquicen zela emacume bat, iru ilabete aurra bularrean zuela presente, esan ciola santuac juez tiranoari: «Nic esaten dudena ezpaldin baduc sinistecen, galde zayoc araco aur ari. Bada, nola eztaquien itz eguiten, eztic guezurric esanen». Galdetu cion tiranoac burler aurrari, baño aurrac utciric vere amaren bularra era[n]zun cion voz altuan: «Jesu Christo da Jaungoico eguiazcoa». Galdetu cion Juezac berriaz aurrari eya norc esan cion, eta aurran eranzun zion: «Niri esan dit nere amac, eta nere amari esan cion Jaungoicoac». Eliza santua, gure ama ona, eta onec eracusten digun guzia Jaungoicoa verac aguertu dio Elizari.

Echevar Mogolco emperadoreac zeuzquen cajon batean auniz legue, Lycurgorena, Japonena, Mahomarena eta Jesu Christoren. Eta chimu bati aguindu zion atera ce[za]lla cajonatic leguea eguiazcoa. Atera zuan Mahomarena. Vegiratu cion, eta velera puscatu zuan. Orobak egui zuan bes-teaquin. Baño Jesu Christoren leguea atera zuanean, reverencia audiarequin eman cion emperadoreari. Paratu cituan berriz cajonean Jesu Christoren leguea ez beste guziac. Orobak egui zuan leguea falsoaquin, eta ez arquituric cajonean Jesu Christoren leguea, atsi zan utsai eguiten presente zeuden gu-tzai. Eta llegaturic zeuquenagana, utciraci-
cion eta eman zion emperadoreari. O, legue divinoa! Azquenik animaliac eta fierac eza-gucen zaitua.

Edonola ere, euskarazko zatian badira eskuratu ahal izan dudan gaztelaniazko doctrinan ez dauden pasarte batzuk; jarraian lagin bat:

El Dios Todopoderoso, de quien hemos hablado, tiene un Hijo verdadero y natural que se llama *Jesu-Christo*. Y para que en algún modo entiendas como se ha engendrado a este su Hijo, toma la semejanza del espejo: quando uno se mira en él, luego produce una imagen de si mismo, tan semejante a si, que no se puede hallar diferencia alguna, pues no solo es semejante en las facciones, sino en el movimiento; porque si el hombre se mueve, también la imagen se mueve. Esta imagen no se hace con trabajo ni tiempo ni instrumentos, sino en instante y con solo mirar.

Euskarazko pasartean beltzez markaturik dagoen zatia ez da agertzen gaztelaniazko zatian. Beraz, edo itzultzaleak gehitu du pasartea bere ezagutzan edo beste iturriren batean oinarritura, edo doctrinaren beste edizio bat erabili zuen, nik oraindik ezagutu ez dudana. Bestalde, ez da liburu osoaren itzulpena; izan ere, gaztelaniazko liburuaren lehen eta bigarren kapituluak falta dira euskarazkoan; edo hobeki esanda, hasieran laburbiltzen ditu bi kapitulu horiek: sarrerak orrialde oso bat eta besteko lau lerro hartzen ditu, eta *Au bacarra doctrinaren sarrera* esanez bukatzen du.

Ematen du itzulpena ez zela argitaratzeko prestatu, baizik eta apaizak, ziurrenik, bere kautan erabiltzeko prestatu zuen. Hori erakusten dute testuan aurki daitezkeen huts ugariek, lerro arteko erantsiek eta aditz laguntzaile ezak; izan ere, perpaus askotan aditz laguntzailea falta da eta beste askotan lerro artean erantsi da, geroago. Lerro arteko erantsiak ohar paleografikoetan markatu dira. Gainerakoan, idazkera aski txukuna da, erraz ulertzen da, nahiz eta kasu batzuetan <z> eta <r> bereizteko zaitasuna egon.

3. Eskuizkribuari buruzko informazio laburra

3.1. Deskribapena

Eskuizkribuak 360 orrialde inguru ditu, aurkiak bakarrik darama orrialde zenbakia, 179ra iristen da eta 15×21 eko tamaina du liburuak. Enkoadernazio gogorra du, geroago jarria³ eta liburuaren bizkarrean *Sagastibelzaren doctrinac* jartzen du.

Ur markez den bezainbatez, bizpahiru agertzen dira doctrinaren orrialdeetan. Dena den, datazioari begira, interesgarriena azken orrialdean bakarrik agertzen den ur marka da:

³ Edonola ere, Txaro Valverde Legebiltzarreko liburutegiko langileak esan digunez, Urkixoren eskuetara iritsi aurrekoia izan daiteke enkoadernazioa.

Esan nai du gure Jaungoicoac baduela egua[z]co seme bat bacarra, ceñí derizcoo Jesu Christo. Articulo eta misterio au guri adicera emateco Eliz[a]co doctoreac paracen dariazquigae auniz exemplo eta semejanza, baño an guzian artea derizquot dela onena *San Anselmoc paracen digun exemplo eta semenjanza*, eta dacar santuac ispilla batequin. Persona bat veguirecen denean ispilla batean, verela formacen du vere iduria eta semejanza, eta au eguiten du batere trabajuric eta demboraric costa gave, instantane batean, veguirece bacar batequin.



1. irudia

Eskuizkribuaren azken orrialdeko ur-marka

Ikus dezakegunez, lehen bi zenbakiek argi eta garbi ikusten dira eta 18 irakur daiteke, baina ez da garbi ikusten ondoko biak zer diren. Dena den, 1802 proposa daitekeela dirudi; izan ere, Legebiltzarreko liburutegian dagoen beste eskuizkribu batean, akatsik gabe, baina berbera izan daitekeen ur-marka aurki dezakegu:



2. irudia

Beste eskuizkribu bateko ur-marka

Ematen duenez, 2. irudiko ur-marka berbera dago 1. irudian, baina arrazoi batetik edo besteagatik gaizki atera zen eskuizkribuaren ur-markako azken zenbakia. <2> zenbakiaren oina 1. irudiko zenbakiko oinarekin erkatuz gero, zenbaki beraren

aurrean gaudela dirudi. Hori hala izatekotan, doctrina honen eskuizkribua kopiatzeaz 1802. urtearen ondoren bukatu zuten.

3.2. Itzultzalea eta data

Dotrinaren itzultzalea dela eta ezer gutxi dakigu. Legebiltzarreko liburutegiak sarean jarritako informazioaren arabera, eskuizkribu anonimoa da. Halere, arestian esan dudanez, liburuaren bizkarrean *Sagastibelaren doctrinac* jartzen du, baina hori ez da ikusten digitalizaturikoan:



3. irudia

Dotrinaren enkoadernazioaren bizkarreko informazioa

Horrezaz landara, Legebiltzarreko liburutegian, Urkixoren ondarea jasotzen duen paperezko katalogoan honelaxe dator:

[Doctrina Santuaren explicacioa San Carlos Borromeoren Doctrinatatic, ta libratura ateraa...]

[Manuscrito del siglo xviii (?) tomado de la Doctrina Cristiana y otros libros de San Carlos Borromeo]. 1+179 hojas.

En la ficha original de este manuscrito se mencionan a Sagastibeltza (?) como traductor.

Euskera Guipuzcoano.

Traductor: Sagastibeltza.

Honek, beraz, beste galdera batzuk sortzen ditu: Nor da Sagastibeltza? Zer lotura du dotrinarekin? Bera ote da itzultzalea? Tamalez, ez dakigu katalogoan jasotzen den itzulpenaren egileta horren berri nork emana eta nondik aterea den. Areago, Sagastibeltza nor izan zen ere ez da aise jakiten.

Sagastibeltza abizenak, testuaren hizkerak bezala, Nafarroaren mendebaldera, Leitzaldera garamatzza, baina besterik ez. Nafarroako Elizbarrutiko prozesuen katalogoan «Sagastibel(t)za» duten XVIII. mende bukaerako eta XIX. hasierako prozesuak begiratzen baditugu, ohart gaitezke ez dela oso abizen zabaldua, eta gehientsuetan Areso, Leitzal eta Gorriti inguruko prozesuetan agertzen da. Hain zuzen ere, XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasiera bitarte horretan, Leitzako elizako onu-

radunetako bat Tiburtzio Sagastibeltza izan zen. Aipatu artxiboko C2340, 16. prozesuan, 1789an, Tiburcio de Sagastibelza de Areso delakoa agertzen da, eta Leitzako elizako onuradunetarik bat da. Irudiz, Iruñeko gotzainak Tiburtzio Sagastibeltzari eta ondorengoei kargu hori ematean, zenbait lan agindu zizkion: konfesatzea, gaixoei laguntzea eta kristau dotrina erakustea. Antza denez, Miguel Ignacio Zabaleta Leitzako apaizak salaketa jarri zuen Sagastibeltzak ez zuelako agindua behar bezala betetzen. Zenbait urte geroago, 1801eko prozesu batean (C2809, 8) berriro agertzen dira Miguel Ignacio Zabaleta eta Tiburtzio Sagastibeltza. Horretan ere, abadeak onuraduna salatzen du San Joan eguneko mezetan Tiburtzio eserlekutik altxatu eta predikatzen ari zen apaizari ondoko hitzak esateagatik: *Abadea, iolas oric utcite vие enfermotara* ‘abadea, solas horiek utzita, bihoa gaixoengana’.⁴ Sermoilari astuna bide zen apaiza eta bere lana egitera bidali zuen Sagastibeltzak apaiza. 1795-1802 bitartean, ordura arte presbitero zen Tiburtzio Sagastibeltza Leitzako bitarteko Kapilau izendatu zuten, adin txikiko zen Josef Frantzisko Arribillagak prima tontsura egin arte. 1802an geratu zen hori. Beste prozesu batean ikusten denez (C2694, 8), 1802-1809 bitartean kargutik kendu zuen Leitzako abadeak Sagastibeltza.

Garaiagatik eta lekuagatik, Tiburtzio Sagastibeltza izan daiteke dotrina honen itzultzalea, eta Iruñeko gotzainak 1789an emandako aginduaren fruitu izan daiteke dotrina hau, hamarkada baten buruan kopiatua edo orduan kopiatzeaz bukautua.

Arrazoi asko dago pentsatzeko eskuizkribu hau lehendik zegoen beste zaharrago baten kopia dela.⁵ Dotrina honen kasuan, nahiko modu garbian idatzirik dago, zirriborro eta ezabadura gutxirekin, nahiz eta lerro arteko eransketak badituen. Horrik ondorioztatzen da aurreko bertsio baten kopia dela. Gainera, lerro artean dituen gehiketak edo perpusek maiz falta duten aditz laguntzaileak horrela azal litezke: ematen du errazagoa dela laguntzailea kopiatzeaz ahaztea itzultzeaz ahaztea baino. Gainera, eskuizkribuan agertzen diren taxadura batzuek eta egindako zuzenketek erakusten dute kopistak berdinak berdinera jauzia egin zuela eta gero zuzendu. Adibidez, 69v orrialdeko lehen galderaren erantzun moduan, bigarren galderari dagoion erantzunaren hasiera agertzen da, taxaturik. Beraz, badirudi kopiatzean ondoko galderaren erantzunera jauzi egin zuela. Kopia izatearen beste erakusgarri izan daiteke testuan agertzen diren zenbait <c> <t> esperoko genukeen lekuak: *duc ‘dut’, jacen ‘jaten’*.

Beraz, eskuizkribu hau, beti ere, 1769. urtearen ondoren idatzitako dotrina baten kopia da, 1802 ondoren bukatua.

3.3. Hizkeraz ohar batzuk

Eskuizkribu hau idazteko baliatu zen euskarak azterketa sakon eta serioa merezi du, eta ez da hori ez azpiatal honen helburua ezta lan honena ere (ik. Reguero presatzen. Edonola ere, oin-oiharretan zenbait alderdi linguistiko azaltzen duten iruzkin

⁴ Esaldi labur honetan agertzen den *joan-en* adizkiaren forma bat dator dotrinan agertzen denarekin. Pertsona eta denbora horretako *bie* (129v) dago dotrina honetan, eta paradigma bereko *cien, ciela* ‘zihohan, zihoa’ ere agertzen dira eskuizkribuan. Egileta ez du aitortzen, jakina, esaldiak, baina geografikoki Leitza eta inguruan kokatzeko laguntzeko aingura testutzat har dezakegu bederen.

batzuk daude).⁵ Nolanahi ere den, testua geografikoki kokatze aldera, eskuizkribuan agertzen diren zenbait ezaugarri aipatuko ditut jarraian.

Testu hau hizkeraz nongoa den gutxi gorabehera zehaztea ez da bizi zaila, dialektalki nabarmenak diren ezaugarriak baititu. Hasperenik ezak eta *duzu* gisako adizkiek, *izanen* motako geroaldiek eta *cajon* ‘kaxoi’ bezalako formek zuzenean Nafarroara begira jartzen gaituzte. Behin bakarrik agertzen da -e- errodun aldaera: *badezua* (2v).

Edonola ere, goi-nafarreraren barnean diren hizkerak ezagututa, zehatzagoak ere izan gaitezke. Nafarroaren barnean, mendebaldeko eskualderen batekoa, Gipuzkoatik gertuko dela pentsatzeko arrazoia egon badaude. Besteak beste, testuan agertzen diren *sermove* (44v, 72r), *leobe* (74r, 143v), *razove* (*passim*) hitzen -obe bukaera horiek Nafarroako Larraun eta Basaburu Handi eta Txikira garamatzate (ik. Apalauza 2012). Era berean, *ciceon* ‘zitzaison’ agertzen da eskuizkribu honetan eta *zitzion* jaso du Apalauzak (2012: 363-364) Larraunen eta Basaburu Nagusiko iparraldean. Horiekin batera, *zagü* ‘zaigu’, *zadanic* ‘zaidanik’ agertzen dira testuan, eta Apalauzak (2012: 348) dioenez, «diptongoa murrizturik ageri da» Larraungo ipar-mendebaldean eta Araitz-Betelun, eta *zat*, *zazo* eta *zitzazon* adibideak ematen ditu. Horiekin batera, Leitza aldera begira jartzen gaituzte: *bie* ‘doala’, *zila* ‘zihoala’, *badique* ‘joango balitz’, *cin* ‘zihoan’.⁶

Orotariko Euskal Hiztegiari jaramon egiten badiogu, lexiko aldetik ere Nafarroako ipar-mendebaldera begira jartzen gara; hiztegian bertakotzat ematen dira eskuizkribuan agertzen diren zenbait aldaera: *leurritu* (*passim*), *velarrizaldeco* (10v), *erruti* (*passim*), *turmove* (110r), (*er*)*ristatu* ‘errieta egin’ (174v), etab. Badira, halere, *OEHN* jasotzen ez diren zenbait aldaera; hauek, besteak beste: *eyo* ‘igo’ (*passim*), *egaizte* ‘hegazti’ (3v; baina ik. dagokion oharra), *lendavico* ‘lehendabiziko’ (*passim*), *augitz* ‘hagitz’ (*passim*), *componcen* ‘goldatzen’ (7r), *carogui* ‘karobi’ (72v), *obartu* ‘ohartu’ (*passim*).

Eskuizkribuan aurki daitekeen ezaugarri berezi bat, beste inon aurkitzea zail dena, *zarazquio* ‘zaizkio’ eta *zarazquigu* ‘zaizkigu’ gisako adizkiak dira. NOR-NORI saileko adizki horietan -ra- agertzen da sistematikoki.⁷ Beharbada, **eradun* aditz laguntzalearen formek eragindako analogia izan daiteke, *darazquioa* ‘dizkio’ moduko adizkiek eraginda; gaur egun hortik eratorritako *dazkioa* modukoak erabiltzen dituzte Leitzako adinekoek.

Testuak dituen ezaugarri batzuek Gipuzkoarekiko hurbiltasuna erakusten dute. Besteak beste, **edun* aditz laguntzailaren objektuaren pluralgilea -e da; beraz, *due* eta *ditue* erabiltzen dira, eta ez *dute* eta *dituzte*; testu zaharretan Tolosa eta inguruko hizkeretan agertzen da forma hori (Reguero & Gómez 2016). Horrekin bateran, -i(n)-laguntzailearekin ere *dioe* agertzen da.

⁵ Are gehiago, huts batzuek pentsatzera garamatzate kopiatzaileak ez zekiela euskaraz. Estate baterako, <c> ordez <t> kopiatu da kasu askotan; huts mekanikoa izan daiteke, baina, hainbestetan gertatzea eta, gainera, huts horiek euskarazkoak ez diren horrenbeste hitz ematea eta ez zuzentzea aski susmagarri dirudi.

⁶ Leitzako hiztun batek jakinarazi didanez, adineko hiztunen artean halako formak entzuten dira; halere, gazteen artean *nijoia* moduko forma giputzak nagusitu dira.

⁷ Edonola ere, *joan oy zariçca* ‘joan ohi zaizkio’ dago Tolosako bertso iraingarrietan, -r-rekin (Mixelena 1964: 127).

Hizkuntza ezaugarri horiek eta arestian autoreaz esandakoak kontuan izanda, do-trinako hizkera Leitzan ingurukoa izan daitekeela dirudi⁸ —edonola ere, testuaren fidagarritasun dialektalaz, ik. Reguero (prestatzen) eta, oro har testuak dialektologiaz erabiltzeko metodologiaz, Ulibarri (2013)—.

4. Ediziorako irizpideak

Sánchez-Prietok (2011: 15) iradokitzen duenez, edizio kritiko edo filologiko batetik ikertzailearen beharrak ase behar ditu eta, aldi berean, testuak ulergarriak izan daitezten saiatu behar du. Edizio paleografiko hutsak geroko hizkuntza azterketa zaildu lezake, kontuan izan behar baita orduko idazmoldea eta gaurkoa ez direla berdinak; gainera, paleografikoan hutsak zuzendu gabe geratuko lirateke. Horretaz gain, grafia ezberdina da kasu batzuetan, eta hitz banaketa eta puntuazio sistema beste modu batekoak izan litezke (cf. Pérez Priego 2011: 156-157). Hortaz, editorearen lana da oreka mantentzea eta beharrezko aldaketak, irizpide zehatz batzuei jarraituz finkatutakoak, egitea.

Dotrina honen edizioa egiteko orduan, batetik, kontuan izan dut bertatik atera daitezkeen informazio eta datuak ahalik eta gardenenak izateko testuan grafiari da-gozkion aldaketa beharrezkoenak egitea eta, bestetik, beste ikertzaile, irakurle zein interesantuengat testua egokia izan dadin saiatu naiz. Ediziorako irizpideak hautatu eta finkatzeko, bereziki, CHARTAk (Red CHARTA 2013) aurkezten duen edizio kritikoak egiteko eredu oinarrituko naiz, beti ere eredu euskarazko testuetara egokitzuz.

Ondorioz, jarraian datorrena edizio kritikoa da, transkripzio erdipaleografikoan oinarrituta. Behar-beharrezko aldaketak bakarrik egin ditut, grafia sistematizatzeko (ezen ez gaurkotzeko) eta hutsak zuzentzeko helburuz eginak. Idazlearen grafia sistemari eta idazmoldeari leial izan natzaio, eta egindako aldaketa guztien berri eman dut: orokorrak direnak irizpideetan, berezixeagoak direnak oharretan.

Testuan, beraz, bi motatako oharrek daude: batetik, ohar paleografikoak egin ditut, zeinetan testuan agertzen diren hutsen, lerro arteko eransketen, beltzunee eta halakoenei berri ematen baita; bestetik, azalpen oharrek egin ditut testua errazago uler-tze aldera. Azken ohar horietan, batez ere hizkuntzari buruzko iruzkinak egin ditut, baina bestelako informazioa ere agertzen da batzuetan. Lehen motako oharretan lemak biribilez daude,] batez itxirik; bigarrenetan, ordea, lemak etzanaz emanda daude. Lekua aurrezteko, batez ere hizkuntzazko oharrek ezaugarria agertzen den lehen agerraldian bakarrik eman ditut.

4.1. Laburdurak

Agiri eta idatzi zaharretan ohikoak diren laburdurak osorik eman dira: *-mente* atzizkidun maileguak, *Sⁿ* → *San*, *Chto* → *Christo*, *Chtau* → *christau*, etab.

⁸ Bada beste eskuzkribu argitaragabe bat, Bilbaok (2015) ezagutzera eman zuena; gure dotrina honena ez den beste esku batek idatzitakoa edo kopiatutakoa bide da eta hizkeran desberdintasun txiki batzuk daude, baina hasiera batean ematen du eskualde berekoan dela testua.

4.2. Grafia

Grafiari dagokionez, hona puntuz puntu egin diren aldaketak:

4.2.1. <h>

Euskarazko testu zaharretan <h> grafema hainbat arrazoirengatik ager daiteke, baina testu honetan hitz mailegatuetan edo grafia etimologikoa dutenetan agertzen da, batez ere: *honratu*, *humilatu*... Zeinahi delarik ere <h> grafema agertzeko arra- zoia, bere horretan geratu da.

4.2.2. Txistukariak

Eskuizkribu honetan apikaria adierazteko, <s> eta kasu batzuetan <ss> agertzen da, batez ere mailegu batzuetan; <ss> hala mantendu dut.

Txistukari bizkarkaria adierazteko <z> eta <c> erabiltzen dira; azken hori, jakina, <e> eta <i> aurretik. Grafia horiek guztiak halaxe mantendu ditut.

Kasu batzuetan, <c> ager daiteke <a>, <o> eta <u> bokalen aurretik, hitz amaieran edo kontsonante aurrean, txistukaria adierazi nahirik: *jactera* ‘jazterá’, *citecquean* ‘zitezkeen’, *anic* ‘anitz’, *graciac* ‘graziaz’, esaterako. Horrelakoetan, irakurketa errazte aldera, <z> batekin erregularizatu dut eta ohar bidez adierazi.

Afrikatuei dagokienez, maiz, ez da grafikoki afrikatu eta frikarien arteko desberdintasunik egiten. Halakoetan ere ez dut afrikatua markatu eta bere horretan utzi ditut edizioan. Afrikatuak markatzeko saioak halaxe utzi ditut: batzuetan <qu> agertzen da, afrikatua esperotako lekuetan. Horiek horrelaxe utzi ditut eta dagokien irakurketari buruzko oharra egin.

4.2.3. Sudurkari sabaikaria

Beste batzuetan, grafia defektiboa izaten da eta <n> ager daiteke sudurkari sabai-karia islatzeko; halakoetan, ziur gauden kasuetan, <ñ> editatu eta aparatu kritikoan adierazi dut.

4.2.4. Dardarkariak

Dardarkariei dagokienez, batzuetan, anizkuna adierazteko <R> erabiltzen da; horiek <rr> digrafoarekin erregularizatu ditut, hitz hasierakoak izan ezik. Kontsonante aurretik, ondoren edo hitz amaieran, ahoskera aldetik anizkuna izan eta <rr> idatzi bada, hala mantendu dut: *honraren*.

4.2.5. Diakritikoak

Testuan, batzuetan, zenbait hitzek diakritikoa dute. Hala mantendu dut.

4.2.6. Idazkera kultua

Ohituragatik, etimologia mantentzeagatik edo eragin kulturalagatik, bereziki latinetik hartutako mailegu erlijiozkoek jatorrizko idazkera mantendu dute testu zaharretan, eta guk bere horretan utzi ditugu: *Christau, Catholico...*

4.2.7. Letra larri eta xeheak

Letra larri eta xehee dagokienez, testuek maiz ez dute inolako sistematikotasunik. Gure edizioan gaurko usadioari jarraitu diogu.

4.2.8. Ezohiko kontsonante multzoak

Dotrinan, batzuetan, ezohikoak diren kontsonante multzoak daude: *etseriric* ‘eseririk’, *etracusten* ‘erakusten’, *gutzian* ‘guzian’, *gutraso* ‘guraso’, *otso* ‘oso’. Halakoak bere horretan utzi ditut, eta interpretatzeko zailtasunik eragiten badu, ohar bidez saiatu naiz argitzen.

4.3. Hitzen banaketa

Hitzen banaketari dagokionez, egungo euskara estandarrean erabiltzen den ohiko banaketari jarraiki diogu, honako salbuespen hauetan izan ezik:

- Evezko perpausak sortzeko *ez* partikula adizki jokatu bati loturik ageri bada eta aldaketa morfofonologikorik gertatu bada, bere horretan mantendu dut: *ezuen ezela, eztago*.
- Halaber, aditz nagusiaren azken kontsonantea eta laguntzailearen aurrenекoa asimilatu direnean, bere horretan utzi dut: *erranion*. Inolako asimilazio edo aldaketarik ez bada, bereizi egin ditut.
- Bestalde, *-gatic* batzuetan hitzari loturik ageri da, beste batzuetan lotu gabe. Sistematikoki eman da loturik.
- Batzuetan hitza eta ondoko atzizkia edo partikula marratxo batez daude loturik eskuizkribuan. Halakoetan marratxoa kendu eta gaurko usadioaren arabera idatzi dut; beraz, *Jaungoico-tasunean* → *Jaungoicotasunean*, baina *badireere* → *badire ere*.
- Inoiz hitz banaketa birmoldatzearen ondorioz gelditu diren ezohiko adibideak egokitu egin ditugu, testuaren ohiko idazkerari jarraituz: *ezerquere* → *ezercere*. Hori horrela, batzuetan, <n>-z bukatzen den hitzari -z hasten den batetik jarraitzen badio, hitza batera idatzi eta <mb> idatzi izan da, bi hitzak batuta. Halakoetan, bi hitzak banatu egin ditut eta <n>-ra aldatu hitz bukaera: *ombat* → *on bat*.

4.4. Puntuazioa

Puntuazio ikurren erabilera dela eta, gaur egungo ohiko erabilerari jarraitu diot. Horrela, testua ulerterrazagoa izateaz gainera, orduko sintaxia ulertzeko ere lagunagari dateke.

4.5. Testuaren antolamendua: lerroak, paragrafoak eta orrialdeak

Edizio honetan paragrafoak bere horretan utzi ditut eta lerroak modu jarraian idatzituz. Orrialdeak direla eta, jatorrizkoan orrialde berria hasten denean <> ikurren bidez adierazi dut, barruan orriaren zenbakia eta *r* eta *v* laburdurak erabiliz. Orrialdea amaitzean hitza banatzen bada, *salvado<5r>rea* kasu, orrialde zenbakia hitzaren bukaeran jarri dut: *salvadorea <5r>*.

4.6. Hutsak

Begi bistakoak diruditen hutsak daudenetan, *<sic>* laburdura saihestu eta zuzendu egin ditut eta oharren bidez jakinarazi. Hutsa ote den zalantza badago, testuan dagoen bezala mantendu da, dagokionean ohar bat eginez. Hitzen batean letraren bat falta denean, hutsagatik, [] artean eman dut.

Bibliografia

- Altuna, Fidel. 1995. Pleonasmox baten historiaz: *debea* «dute» bezalako adizkien inguruan. *ASJU* 29(1). 219-244.
- Amat, Félix. 1807. *Tratado de la iglesia de Jesucristo, ó historia eclesiástica. Tomo undécimo. Segunda edición.* Madril: Benito García.
- Apalauza, Amaia. 2012. *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa.* Iruña & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Beriaín, Juan. 1621. *Tratado de como se ha de oyr missa.* Iruña: Carlos de Labayen.
- Bilbao, Gidor. 2015. *Eliceo Istoria laburqui aldaturic: c. 1785eko unibertsitateko ikasliburua.* In Beatriz Fernandez & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre, homenatge, homenaje*, 157-171. Bilbo: UPV/EHU.
- Camino, Iñaki. 1999. Gofierriko hizkera (I). *ASJU* 33(1). 1-74.
- Camino, Iñaki. 2000. Gofierriko hizkera (II). *ASJU* 34(1). 137-196.
- Camino, Iñaki. 2001. Gofierriko hizkera (III). *ASJU* 35(2). 445-509.
- Camino, Iñaki. 2003. *Hego-nafarrera.* Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Echaide, Ana M. 1989. *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967).* Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Elizalde, Frantzisko. 1994. Apezendaco dotrina christiana uscaraz. *FLV* 65. 41-66.
- Erdozia, Jose Luis. 2004. *Sakanako hiztegi dialektologikoa.* Iruña: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Garziandia, Jose Agustín. 2004. *Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak.* Donostia: Auspao.
- Gómez-López, Ricardo & Joseba Zulaika. 2020. *El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario anónimo manuscrito euskera-español.* Bilbo: UPV/EHU.
- Ibarra, Orreaga. 2007. *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia.* Iruña: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- Kamino Kaminondo, Peio & Patxi Salaberri Zaratiegi. 2007. *Luzaideko euskararen hiztegia.* Iruña: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- Mitxelena, Koldo. 1964. *Textos arcaicos vascos.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mitxelena, Koldo et alii. 1987-2015. *Orotariko Euskal Hiztegia.* Bilbo: Euskaltzaindia.
6. argit. elektr. 2019: <<http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>> (2020/07/27).

- Ondarra, Frantzisko. 1993. Goñerrin aurkitutako testuak (VIII). *Euskeria* 38(1). 59-124.
- Pagola, Rosa Miren *et alii*. [d.g.]. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak - Fondo Bonaparte*. Bilbo: Tesitek, Deustuko Unibertsitatea & Bizkaiko Foru Aldundia. <<http://bonaparte.deusto.es/bonaparte>> (2020/07/27).
- Pérez Priego, Miguel Ángel. 2011. *La edición de textos*. 2. argit. osatua eta eguneratua. Madrid: Síntesis.
- Red CHARTA. 2013. *Criterios de edición de documentos hispánicos (Orígenes-siglo XIX) de la Red Internacional CHARTA* [PDF]. 2013ko apirileko bertsioa. <<http://www.redcharta.es>> (2020/07/27).
- Reguero, Urtzi. 2015a. Mendebaldearen eta ekialdearen erdian: goi-nafarrera zaharraren azterketa diakronikorantz. In Beatriz Fernandez & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre, homenatge, homenaje*, 587-598. Bilbo: UPV/EHU.
- Reguero, Urtzi. 2015b. Goizuetako 1753ko sermoia: edizioa eta azterketa. *ASJU* 49(1/2). 205-230.
- Reguero, Urtzi. 2019. *Filologiatik dialektologiara Nafarroako testu zaharretan barrena (1416-1750)*. Gasteiz: UPV/EHU.
- Reguero, Urtzi. (prestatzen). *Larramendiren eragina idazle nafarrengan. Lehen Goi-Nafarrera Modernoraneko urratsak*.
- Reguero, Urtzi & Ricardo Gómez. 2016. Joanes Erauskinen aditz taulak: azterketa gramatikografiko eta linguistikoa. In Gotzon Aurrekoetxea, Jesus Mari Makatzaga & Patxi Salaberri Muñoa (arg.). *Hire bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz*, 237-248. Bilbo: UPV/EHU.
- Sánchez-Prieto Borja, Pedro. 2011. *La edición de textos medievales y clásicos. Criterios de presentación gráfica*. Donemiliaga Kukula: Cilengua.
- Satrategi, Jose María. 1987. *Euskal testu zaharrak I*. Iruña: Euskaltzaindia.
- Ulibarri, Koldo. 2013. Testuak kokatuz dialektología historikoan: egiteetatik metodologiarra. In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra – III Congreso de la Cátedra Luis Michelena – 3rd Conference of the Luis Michelena Chair*, 511-532. Gasteiz: UPV/EHU.
- Yrizar, Pedro. 1910-2004, *Compendio/Índice/Index del la morfología del verbo vasco*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Yrizar, Pedro. 1985. Aparición y desaparición de las formas verbales en *-ako-*, *-eko-* en el alto-navarro meridional. *Hizkuntza eta literatura* 4. 257-290.
- Yrizar, Pedro. 1999. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental (estudio dialectológico)*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Zelaieta, Edu. 2008. *Baztan-Bidasoako bizkeren azterketa dialektologikoa*, Iruña & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2013. *Mailopeko euskara*. Bilbo: UPV/EHU.

Testua

Doctrina santuaren explicacioa

San Carlos Borromeoren doctrinatatic ta libruatatic ateraa⁹

San Phelipe apostoluac, Jerusalengo Concilio¹⁰ sagradu artan, esan zuen modu onetan: «Eyo¹¹ zan ceruetara, dago etsereric¹² aita Jaungoico guziz poderosoaren alde escuñetic. Andic etorrico viciac eta illac juzgacera». Eta au da credoaren seigarrengoa articulua edo misterioa.

G. Cembalet demboran egondu zan munduan, resucitatu ta ondorean, eta cer motivo-gatic?

E. Verroguei egunean. Bada, verroguei egun dira resurrecioco egunec, ascensioko egunaraño; cergicat nai izandu zuan Christoc auniz aguerreraquin probatu eta confirmatu vere eguiazko resurrecioaren misterioa, ceiñ den casik gaizena sinistecen. Eta misterio au sinistecen duenak, erraz sinistetu ditu gure legue santuaren misterio guziac. Au bacarra doctrinaren sarrera.

<1r> Doctrina santuac ditu lau parte, ceiñ jaquin vear dituen Christauac vere etzaguzera llegatu¹³ ezquero. Eta dirade jaquitea cer sinistetu vea duen, cer oracioa edo erregu eguna vea duen, jaquitea cer obratu vea duen eta jaquitea cer recevitu vea duen. Jaquiñen du Christauac cer siñistetu vea duen daquilaric credoa. Credoan arquicen dire gure fedea santuco amabii¹⁴ art[ic]ulo edo amabi misterio principalac. Credoan esan zuen¹⁵ apostolo sagraduac, Jerusalen[en] arquicen¹⁶ zirela vearen concilio santuan. Etracusi zen Jesu Christoren magestadeac, eta San Pedroc, apostoluan burua¹⁷ zen¹⁸ vezala, esan zuen modu onetan lendaci[c]oa: «Nic sinistecen dut¹⁹ Jaungoicoa guziz poderoso²⁰ batengan,²¹ ceruaren eta luraren criadoreangan».

⁹ ateraa: ‘aterrea, aterata’.

¹⁰ Concilio] esk. *Concielo*. Normalean *concilio* erabiltzen du; beraz, hutsa dateke.

¹¹ Eyo: ‘igo’. Aldaera hau ez da *OEHn* jasotzen, baina testu honetan behin eta berriz agertzen da. Dena den, adibide honetan <y> azpian <g> dagoela dirudi.

¹² etsereric: ‘eseririk’.

¹³ llegatu: ‘ailegatu’. *OEHn* (s.v. *legatu*) aldaera honen adibide bakarra ematen da, Bergarakoa. Doctrina honetan maiz agertzen da aldaera hau, eta beste bitan *allegatu*.

¹⁴ amabii] eskuizkribuan halaxe dator, <ii> duela. Ez dakit, ordea, zehazki zer islatzen duen. Testuan bertan *etsaii* eta *ii* ‘hi’ agertzen dira. Dena den, hutsa izan daiteke: pixkat bat aurrerago *amabi* dator.

¹⁵ esan zuen: ‘esan zuten’; plurala da; beraz, segidan dagoen *apostolo sagraduac* ere pluraltzat hartu behar da. Testuan askotan agertzen da *zuen* pluralean eta *zuan* singularrean. Dena den, batuetan *zuen* erabiltzen da singularrean ere.

¹⁶ arquicen] esk. *arquicecen*.

¹⁷ burua] jarraian <c> tatxaturik.

¹⁸ zen] jarraian <an> tatxaturik.

¹⁹ dut] esk. *duc*. Bistan denez, hutsa da, subjektua *nic* baita.

²⁰ poderoso] esk. *poderosa* jartzen duela dirudi.

²¹ batengan] jarraian bi hizki daude tatxaturik.

G. Eta cer esan nai due credoan arquicen diren articulo eta misterio oie?

<1v> E. Esan nai du articulo eta misterio otan²² arquicen den²³ guztia da egua eta gauza ciertoa, cergicatic Jaungoicoac verac eracusi zioan apostoluac Eli-zari eta Elizac guri. Eta nola den imposible Jaungoicoac guezurric esatea, veragatic articulo eta misterio oc²⁴ sinistecen ditut seguroago eta ciertoago, veguiquin ecusten eta²⁵ escuaquin uquicen duden²⁶ gauza baño.

San Roman martirearen vicizan leicen dugu martirezazean arquicen zela ema-cume bat iru ilabete aurra bularrean zuela presente, esan ciola santuac juez tiranoari: «Nic esaten dudena ezpaldin baduc sinistecen, galde zayoc araco aur ari. Bada, nola eztaquien itz eguiten, eztic guezurric esanen». Galdetu cion tiranoac burler²⁷ aurri, baño aurrac utciciric vere amaren bularra <2r> era[n]zun cion voz altuan: «Jesu Chris-to da Jaungoico eguiazcoa». Galdetu cion juezac berriz aurri era norc esan cion, eta aurrac eranzun cion: «Niri esan dit nere amac, eta nere amari esan cion Jaungoicoac». Eliza santua, gure ama ona, eta onec eracusten digun guzia Jaungoicoa verac aguertu dio Elizari.

Credoaren lendacicco articulo edo mister[i]o onetan esaten da: «Nic sinistecen dut Jaungoicoagan».²⁸

G. Eta cergicatic esaten da «Jaungoicoagan»?

E. Cergicatic sinistetu vear dugun dela Jaungo[ico] bacar bat. Eta argatic esaten «Jaungoicoagan» eta ez «Jaungoicoetan». Eztugu pensatu vear Jaungoicoa dela gure beguiac ecus dezaquean edo gure belarriac adi dezaquean gauzaric aundia[na] edo ederrenaren semejanzcoa edo iduricoa dela, cergicatic den Jaungoicoa gure belarriac adi dezaquen edo gure beguiac <2v> ecusi dezaquen aundiana edo ederrena baño infinitamente audiago eta ederragoa. Au verau esaten digu San Pablo apostoluac.

G. Cergati[c] esaten da Jaungoicoa dela «aita»?

E. Cergicatic den eguiazqui vere seme bacarraren aita. Da on guztian aita, ez naturalezaz, baicic adopcioz eta graciaz. Da creatura guztian aita, ez naturalezaz, baicic creacioz, cergicatic guziac creatu cituan.

G. Cergicatic esaten da «guztiz podorosoa»?

E. Cergicatic den titulo au propioa Jaungoicoarena, eta itzanagatic Jaungoicoac beste auniz titulo propioac, nola diren itzatea eterno, infinitoa, imensoa eta beste ti-

²² *otan*: ‘hauetan’.

²³ *den]* lerro artean.

²⁴ *oc*: ‘hauek’.

²⁵ *eta]* aurretik ezabaturik hauxe: *duden gauza baño*. Besteak beste, hau da kopia delako seinaleetako bat.

²⁶ *duden*: ‘dudan’. Aurrerago, beste adibideetan ikusten denez, /a/ bokala itxi egiten da, bokal itxi baten ondoren. Ez da sistematikoki gertatzen, ordea.

²⁷ *burler*: ‘bular’. Ez dut beste inon aurkitu aldaera hori; beharbada, lehen <r> hurrengoak eragindako hutsa da, eta <> aurreko bokal itxiak eragindako ixtea dateke. Ohart gaitezen, halere, lehenago *bu-larrean* idatzi duela, eta jarraian *bular* datorrela.

²⁸ Euskarazkoan halakorik esaten ez bada ere, gaztelaniazkoan esaten da (15. orrialdean) gertakari hori Vicencio Belvacensek kontatzen duela.

tuloac, orrengatic propioena da itzatea Jaungoicoa guziz poderosoa, ez iduriceagatic guri gauza dificultosoa eta gaiza sinistea Jaungoicoac excere ezetic²⁹ egun zuela cerua eta lurra. Eta esaten badezua³⁰ Jaungoicoa ezin il ditequeala, Jaungoicoac ezin pecaturic egun dezaqueala eta ezin izan ditequeala guziz poderosoa, <3r> nic esaten dizuat,³¹ ilcea eta pecatua eguitea eztela podorea,³² baicic podorearen falta eta flaqueza. Eta nola Jaungoicoa ezcin il ditequean eta nola Jaungoicoac pecaturic ezcin egun dezaquean, veragatic dela Jaungoicoa guziz podorosoa.

G. Cer esan nai du «criadoreac»?

E. Esan nai du Jaungoicoac excere ezetic egun dituala gauza guztiac, eta verac barric gauza guztiac biurtu dizequela ezere³³ ezera. Eta aingueruac, guizonac eta demonioac egun eta deseguin badizequea gauzaren bazcuac,³⁴ ezcin egun dicequea excere ezetic, eta ezta biurtu ere excere ezara. Eta, ala, officiale batec eguiten badu obraren bat edo echeren bat, eguiten du arriarequin, care eta mortero eta onelako gauzaquin, eta abicen³⁵ bada deseguiten, eztu biurcen excere ezara, baicic lenagoco arrire eta autsara. Baño Jauncoicoac ez onela, eztu ezer ere vear³⁶ verac nai izatea baicic, gauza <3v> guztioc ezere ez[e]tic eguiteco eta gauza guztiac ezere ezera biurceco, eta veragatic derizquierdo criadorea.

G. Eta cergatic esaten da «ceruaren eta lurraren criadorea»? Cer, eztitu, ba, criatu aicea, ura, arbolac eta beste gauza guztiac?

E. Ceruagatic eta lurragatic adicen dirade ceruan eta lurran arquicen diraden gauza guztiac. Nola esaten dugunean guizonac dituela corpua eta anima entendicen diren corpuzaren ezurrac, odola, zaiñec³⁷ eta beste parteac eta animan arquicen diren memoria, entendimentua eta vorondatea. Ála modu onetan, ceruagatic adicen da lurren gañean dag[o]an lecua: airea. Eta, argatic, esaten dugu ceruco egaizteac,³⁸ ce-

²⁹ *excere ezetic*: ‘ezer ezetik’.

³⁰ *badezua*: ‘baduzue’. Testuan agertzen den *-e-* duen aldaera bakarra da. Gainera, besteetan *dizue* erabiltzen da, *-e-rekin*, ez *-a-rekin*. Azken pluralgile hori beste adizki batzuetan agertzen da, *ditua* ‘dituzte’ *dicequea* ‘ditzakete’ gisakoetan, adibidez. Otxoa Arinek (1713), besteak beste, *debea* ‘dute’ erabiltzen du, eta gaur egun Tolosa inguruko eta Goierriko herrietan *dezuea* ‘duzue’, *duea* ‘dute’, *daukea* ‘daukate’ eta antzeko adizkiak entzuten dira —gisu honetako adizkiez ik. Altuna (1995)—.

³¹ *dizuat*] esk. *dizuac*. Irakurketa aldetik, *diruac* ere izan liteke; halere, posible da *dizuat* edo *dizuet* izatea benetan idazleak jarri nahi zuena; behin baino gehiagotan agertzen da <> <t>-ren ordez hitz bukaeran. Hartara, *esaten dizuet* genuke. Interpretazio hau bat dator gaztelaniazko aldaerarekin: *responderé que poder morir, y pecar, no es poder, sino flaqueza*. Ikuisten denez, hor ez da *dinero* edo ordainik ageri. Testuan beste behin erabiltzen du *dizuet*, baina *badezua* eta *ditua* ere badirela kontuan izanda, *-a* plural-gilearen hedaduraren adibide izan daiteke.

³² *podorea*] esk. *poderoa*.

³³ *ezere*] esk. *ezece*.

³⁴ *bazcuac*: ‘batzuak’.

³⁵ *abicen*: ‘abiatzen, hasten’.

³⁶ *vear*] lerro artean.

³⁷ *zaiñec*] esk. *zaiñez*.

³⁸ *egaizte*: ‘hegazti’; ez dut aldaera hori beste inon aurkitu; *OEHn* ez da agertzen. Testuan aurrerago *egaztia* eta *egaztiac* agertzen dira; beraz, hutsa izan daiteke.

ruco odoiac,³⁹ ceruco izarrac eta ceruco aingueruac; eta lurragatic, itsasoac eta lurra, lurrean arquicen diran belarrac, arbolac, arriac, meazeac eta beste gauza guztiac, eta itsasoan arquicen diren array guztiac.

<4r> G. Bada, Jaungoicoac creatu baditu gauza guztiac, cergatic apostoluac esaten Jerusalengo concilio sagradu artan, Jaungoicoa dela ceruaren eta lurraren criadorea?

E. Cergatic Jaungoicoac criatu zituan aingueruac ceruan eta guizona lurrean, cein diren bi gauza principalenac eta nobleanac, eta lurrean arquicen diren gauza guziac dauden guizonaren servicioraco, eta aingueruac eta guizona Jaungoicoa alabaceco.

Credoaren vigarren[g]o articuluaren edo misterioaren explicacioa

San Andres apostoluac Jerusalengo concilio sagraduan esan zuen modu onetan: «Eta aren seme bacar Jesu Christo gure Jaunagan».

G. Eta cer esan nai du «aren seme bacar Jesu Christo gure Jaunagan»?

E. Esan nai du gure Jaungoicoac baduela <4v> egua[z]co seme bat bacarra, ceñi derizcoon Jesu Christo. Articulo eta misterio au guri adicera emateco Eliz[a]co doc-toreac paratcen dariazquigue⁴⁰ auniz exemplo eta semejanza, baño an guzian artea[n] derizquiott dela onena San Anselmoc paracen digun exemploa eta semenjanza. Eta dacar santuac ispilli⁴¹ batequin. Persona bat veguirecen denean ispilli batean, verela formacen du⁴² vere iduria eta semejanza, eta au eguiten du⁴³ batere trabajuric⁴⁴ eta demboraric costa gave, instante batean, veguirece bacar batequin. Ala, aita Jaungoicoac⁴⁵ veguireturi vere entendimentu divinoaren veguiarequin vere divinidadeco ispilluan, formacen du vere semejanza bat, ematen diola semejanza oni vere substancia eta vere itzate guzia. Eta, argatic, Jaungoicoaren semea da Jaungoicoa, aita vezala, eta Jaungoico bat bacarra aitarequin.

G. Cer esan nai du «Jesu Christoc»?

E. Jesusen itcenac esan nai du «salbadoreea», <5r> eta Christoc, cein duen nom-brea[c] esan nai du «ungitura» eta da sacerdote sumoa eta reguean reguea. Cergatic guizon eguiñic gu redimiceco vere odolarequin eta ceruco videa eracusteco, artu zuen salbadorean itzena. Bada, etorri cen gu salbaceco, eta vere aitac honratu zuen sacer-dote sumoaren eta regue supremoaren tituluarequin.

³⁹ *odoiac*: ‘hodeiak’. Nafarroan ohikoa den *o-e* > *o-o* bilakabidearen adibide bat da (ik. Reguero 2019: 398). Aldaera honi dagokionez, *OEH*ten arabera, (s.v. *hodei*) besteak beste goi-nafarreraz hitz egiten den Gipuzkoako zatian erabiltzen da. Echaidek (1989: 37) egindako galdeketetan, Nafarroako bi le-kutan bakarrik jaso zuen *odoi*: Zaraitzuko Espartzan eta Aranon, Nafarroako mendebaldean, Gipuzkoarekin mugan.

⁴⁰ *dariazquigue*: ‘dizkigute’. Irudiz, *eradun laguntzailearen adizkia da. Dena den, ez da erraza forma horretara nola heldu den azaltzea.

⁴¹ *ispilli*] aurretik bi letra tatxaturik.

⁴² *du*] lerro artean.

⁴³ *du*] lerro artean.

⁴⁴ *trabajuric*] esk. *trabajuric*.

⁴⁵ Jaungoicoac] aurretik zerbait idatzita eta ezabatua; badirudi *Jang*. dela.

Jesusen itcen santuan ecarcen zagu⁴⁶ memoriara Jaungoicoaren semearen encarnacioa, erioza eta pasioa gu salbaceco. Aita bat eta seme bat itsasoan zicela⁴⁷ iriqui ciceoan onzia, eta biac itsasoan ondatu⁴⁸ ciren, eta aita verela ito zan. Eta semeac, zevillela igariten,⁴⁹ topatu zuan vere aitaren corpoza, eta ateraric itsasoaren bazterrera, enterratu zuen vere aitaren corpoza. Eta modu onetan libratu zuen. «Llegatu ninzan», dio Jesu Christoc regue Daviden <5v> abatic, «Calvari[o]co mendico penazco itsasoaren alturera, eta tempestade audi batec ondatu ninduen». Bada, il zan, eta guc aren corpuzaren eriozarequin izan guíñuan animaren viciza, eta argatic salbacen gara obra onac eguitearequin.

G. Cergicic Jesus nombracen denean guziac sombrelac quencen ditua⁵⁰ edo inclinacen eta aburcen⁵¹ dire, eta ez beste Jaungoicoaren itzenac nombracen direnean?

E. Cergicic den Jaungoicoaren semearen itzen propio eta beste itcenac diren comunac, eta cergicic representacen duen nola Jaungoicoa gugatic humildu zen guizoneguitarequin. Eta agradecimentuz humilcen gaizquicceo,⁵² ez gu bacarric, baita ainguerauc eta demonioac ere; lendavicoac⁵³ amorioz eta bigarrenac vildurraz, cergicic Jaungoicoac nai izandu duen criatura guziac humilacea aren semeari, bada gure amo-rioagatic vera humildu zen grucean⁵⁴ ilceraño.

Christave bat <6r> etzen velaricacen credoan cantacen zenean «*et incarnatus est*». Aguertu ciceon⁵⁵ Demonioa eta eman cion golpe audi bat. Eta esan zion: «Velari-cadi;⁵⁶ bada, guregatic jetsi baliz lurrera eta guízon eguiñ, egonen guíñucen⁵⁷ lurreri muñ eguiñaz⁵⁸ agradecimentuz».

⁴⁶ *zagü*: ‘zaigu’. Dotrinan beti dugu aldaera hau, diptongo gabea. Apalauzak (2012: 348) dioenez, «diptongoa murrizturik ageri da» Larraungo ipar-mendebaldean eta Araitz-Betelun, eta *zat*, *zazo* eta *zi-tzazon* adibideak ematen ditu. Testu honetan, *zagü* adizkiaz gain, behin *zadanic* ‘zaidanik’ agertzen da.

⁴⁷ *zicela*: ‘zihoazela’.

⁴⁸ *ondatu*: ‘hondoratu’.

⁴⁹ *igariten*: ‘igeri egiten’.

⁵⁰ *ditua*: ‘dituzte’.

⁵¹ *aburcen*: ‘agurtzen’. OEHren arabera (s.v. *abur*) *abur* aldaera Nafarroan Artzibarren eta Aezkoan agertzen da, baina *aburtu* ez dut inon aurkitu. Testu honetan *inclinacen* aditzaren sinonimo bide da, gaztelanazko *se inclinan* bakarrak baitago.

⁵² *humilcen gaizquicceo*: ‘humiltzen gatzazikio’ dela dirudi. Gaztelaniazko *nos humillamos* aditzaren ordaina da.

⁵³ *lendavicoac*: testuan *lendavicico* eta *lendavico*, biak agertzen dira. Azken hori ez da usu lekukotu Nafarroan eta OEHn ez da jasotzen. Dena den, Unanuko xx. mendeko lekukotasunetan agertzen da *len-dabiko* (Garziandia 2004).

⁵⁴ [grucean] testuan gainerakoetan *guruce-* agertzen da; dena den, sinkopadun adibideak ez dira ezezagunak Nafarroan, eta *gruze* dago behin eta berriz Goñerriko XVII. mendeko dotrina batean (Ondarra 1993).

⁵⁵ *ciceon*: ‘zitzaison’. Testuan beti agertzen da adizki hori; irudiz, *a* > *e* bilakatu da, /i/ ondoren. Bestalde, ikus daitekeenez, ez dago erroaren eta datiboaren arteko *-i-*. Apalauzak (2012: 363-364) *zitzion* jaso du Larraunen eta Basaburu Nagusiko iparraldean. Adizki hori, ezbairik gabe, testuan aurkitutakoaren hurrengo pausoa besterik ez da.

⁵⁶ *Velaricadi*: ‘belarika hadi, belaunika hadi’. Aditzoina mantentzen da *-tu* bukaera duten aditzekin.

⁵⁷ *guiñucen*: ‘gintuan’. Testuan beste leku batzuetaan *genituen* eta *gintuen* adierak ere izan ditzake adizki honek.

⁵⁸ [eguiñaz] <az> lerro artean.

G. Cergatic esaten da Jesu Christo dela gure Jauna?

E. Cergatic Aitarequin batean criatu guiñucen.⁵⁹ Eta da gure javea eta gure jauna, eta cergatic vere trabajaquin eta vere pasioarequin rescatatu eta redimitu guiñucen Demonioaren podoretic.

Credoaren irugarrengo articuluaren explicacioa

Jerusalengo concilio sagraduan San Tiagoc esan zuan⁶⁰ modu onetan: «Concebitu zan Espiritu Santuaren obraz eta jayo zan Santa Maria virginagandic». Eta au da credoaren irugarrengo articulua <6v> edo misterioa.

G. Eta cer esan nai du «Concebitu zan Espiritu Santuaren obraz. Eta jayo zan Santa Maria Virginagandic»?⁶¹

E. Declar[ac]en eta aguercen zagu Jaungoicoaren semearen encarnacioco modu maramillosoa. Guizon guztiac jayocen dire aitagandic eta amagandic. Eta ama, concebitu eta erdi ezquiero, ezta gueldicen virgina, baño Jaungoicoaren semeac, guizon eguitean, etzuen nai izandu aitaric munduan eta lurrean, baicic ama, ceñen itcena den Maria. Eta au itzandu zen beti virgen purisima, cergatic Espiritu Santuac, cein den irugarren persona divina eta Jaungoico vera aitarequin eta semearequin batean, vere podore infinitoarequin, Maria santissimaren odol purissimotic eta Maria santissimaren entrañetan formatu zuen corpuz bat. Eta dembora artan bertan criatu zuen anima bat, juntacen ciola anima au corpuzari, eta biac Jaungoicoaren semearen personari, <7r> ceñ zan len Jaungoicoa bacarra, guero guelditu zan Jaungoicoa eta guizon. Eta nola Jaungoicototasunean zuen aita ama gave, guero izandu zuen guizontasunean ama aita gave.

G. Etsazu nola virgina batec concebitu dezaquean?

E. Jaungoicoaren secretoac preciso da siñistecea. Ezin comprenditu eta entenditu badire ere, cergatic Jaungoicoac egun dezaquean creaturac entenditu eta ezagu dezaqueun baño gueyago. Eta, argatic, esaten da credoaren principioan dela Jaungoicoa guztiz poderosa. Ala ere, munduaren creacion arquicen dugu Escritura Sagraduan articulo eta misterio onen semenjanza eta exemplo bat auguzi⁶² ona. Lurrac eztu ematen fructuric, baldin lenagotic ezpaldin bada componen,⁶³ ereiten, <7v> eu-

⁵⁹ *guiñucen*: ‘gintuen’. Testu nafarretan ezaguna da *edun aditzaren iraganeko laguntzaileetan -z-pluralgilea erabiltzea: Beriainek *cinducela* ‘zenituela’, *cinducen* ‘zenituen’, *bayquinduce* ‘baikenituen’ ditu, eta Elizaldek 1735eko dotirnan *guinduzan* ‘genituen’ dauka. 1744 inguruko Obanosko bertsotan *cíñuzan* ‘zintuen’ agertzen da (Reguero 2019: 457).

⁶⁰ zuan] lerro artean.

⁶¹ Virginagandic] esk. *Virgina gandiz*.

⁶² *auguzi*: ‘hagitz’. OEHn ez da aldaera hau jasotzen, eta egun ez dut inon erabiltzen denik aurkitu. Halere, testu honetan sistemotikoki erabiltzen da. Ezbairik gabe, *a* > *au* bilakabidearen beste adibide bat da, *aunitz* eta *aundi* aldaerekin batera.

⁶³ *componer*: testuinguru horretan adiera ‘goldatu’ dela ematen du. Gaztelaniazko bertsioan hone-laxe agertzen da: «La tierra no produce trigo, si antes no la aran, la siembran, la mojan las lluvias y la caliente el sol». OEHn ez da adiera hau jasotzen. Testuan beste adiera batekin ere erabiltzen dira *compondu* eta *compundu*.

riac busticen eta eguzquiac verozen. Ala ere, lurrac lendavicico fructuac eman zituan compondu⁶⁴ gave, erein gave, euriaren eta eguzquiaren necesidate gave, bacarric Jaungoico omnipotentearen aguincearequin. Ala, orobat baitere, Maria santissimaren entrañaç guizon gave, bacarric Espiritu Santuaren obraz eta podorez eman zuen Jaungoicoaren semea, Jesus Divinoa.

G. Veraz, Jesu Christo concebitu bacen Espiru Santuaren obraz, Espiritu Santua izanen da⁶⁵ Jesu Christoren aita guizonaren partetic?

E. Ezta ala, cergatic aita izateco ezta asco⁶⁶ eguitea gauza bat, baicic preciso da gauza ure vere itzatetic eta vere substanciatic. Eta, argatic, eguinagatic officiale batec eche bat oficialea, ezta echearen aita, cergatic eztuen eguiten echea vere izatetic eta vere substanciatic, baicic beste materialaquin. <8r> Espiritu Santuac egui[n] zuen Jaungoicoaren semearen corpuza, baño egui zuen Maria santissimaren entraña purissimoatatic eta ez vere substanciatic. Eta, argatic, Jaungoicoaren semea ezta Espiritu Santuaren semea, baicic Aita Jaungoicoaren semea Jaungoicototasunean, cergatic aitaganadic duen di[vi]nidadea eta Ama Virginaren semea guizatasunean, cergatic Ama Virginagandic duen naturaleza humanoa.

G. Cergatic esaten da Espiritu Santuac egui zuela encarnacioco obra miragarri au? Cer, etzuen egui Aitac eta Semeac ere?

E. Persona divino batec eguiten duena eguiten due beste biac ere, cergatic duen podore bat, sabiduria bat eta bondade bat, baño, gure adiceraco moduan,⁶⁷ podo-rezco obrac⁶⁸ tocacen zarazquio⁶⁹ Aitari, sabiduriaco obrac Semeari <8v> eta amorioco obrac Espiritu Santuari. Eta nola baite en[c]arnacioco obra miragarri au amoriozcoa, egui zuen Espiritu Santuac.

G. Aguer ezazu, bada, baldin iru persona divinoac juntatu baciren encar[n]aciora, nola bacarric Semea guelditu cen guizon eguiñic.

E. Jarcen da persona bat jatzen⁷⁰ eta beste⁷¹ bi personac laguncen dioe jancen. Iru dire concurrecen edo juntacen direnac jaztera,⁷² eta bat bacarra gueldicen da jancia. Ala, iru persona divinoac juntatu ciren jancicera semea naturaleza humanoaz,⁷³ eta semea bacarric guelditu zan guizon eguiñic.

⁶⁴ *compondu*: ik. arrestiko oharra.

⁶⁵ da] aurretik *Jes* taxtaturik.

⁶⁶ *asco*: ‘aski’. Erabilera hau oso ohikoa da, bai testu honetan bai Nafarroako beste testu zaharretan.

⁶⁷ *gure adiceraco moduan*: irudiz, ‘gure ulertzeko moduan, gure arabera, gure ustez’ da esanahia, baina ez dago garbi. Gaztelaniazko bertsioan ez dago halakorik.

⁶⁸ *obrac*] <r> lerro artean gehitua.

⁶⁹ *tocacen zarazquio*: ‘tokatzen, egokitzen zaizkio’. Testuan sistematikoa da aditz laguntzaile horren erabilera NOR-NORI sailean, baina ez dut beste inon gisa honetako adizkirik aurkitu; beharbada, *izan* laguntzailearen forma horiek doctrina honetan ere erabiltzen diren *eradun-en zarazkion gisako adizkien analogiaz sortu dira.

⁷⁰ *jatzen*: irakurketa garbia bada ere, ez da hala interpretazioa. Gaztelaniazko ordaina *Se pone uno un vestido* da. Beharbada *ja(n)zten* da, baina jarraian *jancicen* dago.

⁷¹ *beste] esk. besti.*

⁷² *jaztera] esk. jactera.*

⁷³ *humanoaz] esk. humunoaz.*

G. Cergatic añadican da «eta jayo zan Santa Maria virginagandic»?

E. Cergatic onetan dagoan novedade audi bat. Bada, Jaungoicoaren semea bederazigarren illebetean atera cen vere amaren sabeletic, vere amac ure ateracean edo jaiotzean⁷⁴ recibitu gave dañuric eta <9r> artu gave oñaceric eta señaleric, nola resucitatu cenean Jesu Christo atera cen sepulturetic,⁷⁵ sepultureco⁷⁶ arria movitu gave eta sartute. Eta atera egun zuen cenaculotic Jesu Christoren discipuloac, cenaculoco ateac itsiac zezquela.⁷⁷ Eta, argatic, da Jesu Christoren ama beti virgen, erdi baño len, erdicean eta erdi ezquiero.

Religioso sabio bat cicola⁷⁸ consultacera V. Fr Gil franciscanori⁷⁹ nola cen posible señora bat itzatea ama eta virgen batetan. Jaquindu zuen venerableac revelacioz nola frailea eldu ciceon consultacera eta atera ciceon videra eta fraileac itceguin baño len, eta jo zuan lurra esaten ciola: «Aita predicadorea, Jaungoicoaren ama itzandu cen virgen erdi baño len». Eta verela lurretic atera zen lore auguiz eder bat.⁸⁰ Jo zuan lurra ciorra-requin⁸¹ bigarrenean, esaten ciola: «Aita predicadorea, Jaungoicoaren ama izandu cen virgen erdiecean». Eta jayo zan lurretic beste lore eder⁸² bat. Jo zuan lurra ciorra-requin <9v> irugarren aldian, eta esan cion: «Aita predicadorea, Jaincoaren ama izandu zan virgen erdi ezquiero». Eta jayo zan irugarren lore eder bat. Eta frailea guelditu zan milagro onequin duda guzietatic aterata eta confirmaturic Maria santissimaren iru purezan misterio onetan. Eta, argatic, christau devotoac rosario santua esan da⁸³ ondorean añadican ditue iru Ave Maria, Jaungoicoac egun dicen puruac eta castoac.

Credoaren laugarrengoa articuluaren explicacioa

San Juan evangelistac Jerusalengo concilio sagraduan esan zuan modu onetan: «Padecitu zuan Poncio Pilatosen aguientearen⁸⁴ azpian,⁸⁵ izandu zan crucificatua, illa eta enterratua». Eta au da credoaren laugarrengoa articulu edo misterioa.

G. Eta cer esan nai du articulo eta misterio onec?

E. Esan nai du gure redencioko misterioa. Jesu Christo vicituric munduan oguetat⁸⁶ <10r> urte, eta eracusiric vere viciza santissimoarequin, vere doctrinarequin eta

⁷⁴ edo jaiotzean] lerro artean.

⁷⁵ sepulturetic] esk. *sepulteritic*. Hutsa izateko itxura du, gainerakoetan *sepulture-* erabiltzen da; dena den, jarraian *sepultero* ‘sepulturako’ dago.

⁷⁶ sepultero] esk. *sepultero*. Ik. aurreko oharra.

⁷⁷ *zezquela*: ‘zeuzkateda’; erdialdeko hizkeretan ohikoa den *eu* > *e* bilakabidearen adibideetarik bat.

⁷⁸ *cicola*: irakurketa garbia da eta, kontuan izanda ondoan datiboa duela, ‘zihoakiola’ esan nahi duela ematen du; gaztelaniaz “Al i un docto religioso” dago.

⁷⁹ V. Fr Gil Franciscano: ziurrenik Asisko Gil Beato frantziskotarras (1190-1262) ari da (<http://www.franciscanos.org/santoral/gildeasis.htm>).

⁸⁰ eder bat] lerro artean.

⁸¹ *ciorrarequin*: ‘zigorrarekin’.

⁸² eder] esk. *erder*.

⁸³ *esan da*: ‘esan eta’.

⁸⁴ aguientearen] esk. *aguincearen*.

⁸⁵ azpian] esk. *azpiaz*.

⁸⁶ ogueta] hurrengo zenbakia falta dela dirudi. Gaztelaniaz, «treinta y tres años» dator.

milagroaquin⁸⁷ salbacioco eta ceruco videa, Poncio Pilatos Judeaco governadorean aguinterz⁸⁸ izandu zan azotatua eta ilzatu[a] guruce batean, ceñetan il zan eta guizon santu bazuec enterratu zuen.

*G. Baldin bada Jesu Christo Jaungoico guziz poderosaren semea, nola vere aitac ezuen libratu Pilatosen mendic?*⁸⁹ *Eta baldin bada Jesu Christo vera Jaungoicoa,*⁹⁰ *nola ezuen libratu bere burua?*

E. Bacitequean libratu nai izandu⁹¹ mille moduz, ez au bacarra, baicic verac nai izandu ezpalu, etzen mundu guzia capaz eguiteco Jesu Christori den dañuric eta gai-zic chiquiena ere. Eta au claro, cergicic baciquian. Eta lenag[o]⁹² esan cioan vere discipulai billatuco zuela judi[o]ac ilceco, eta azotatuco zuela, burlatuco zuela eta viciza quenduko cioala. Eta orrengatic etzen ezcutatu, baicic atera ciceoan vere etsaiai videra, ezuan ezagucen, preso eguin nai zunean <10v> eta verac etsan cioan: «Ni naiz villacen duzuena». Iz oiequin desmayaturic erori ciran⁹³ guziac lurrera, eta etzen escapatu, zezaquean verala, baicic esperatu cioan, verengan viur citecen, eta jequi citecen. Eta utci zuen arrapacen, lotucen eta eramatzen atzuri⁹⁴ bat vezala.

G. Cergicic Jesu Christoc, itzanic inocentea, utci zuen crucificacen?

E. Asco razovegatic:⁹⁵ principala itzandu zan, Jaungoicoari satisfacioa emateagatik gure pecatuana, cergicic ofensa leurricen⁹⁶ persona ofendituaren dignitate[a]ren conforme. Eta satisfacioa leurricen da, satisfacioa ematen duen personaren conforme, nola criadu batec emanen valio velarrizaldeco⁹⁷ bat principe bati, izanen liceteque delito bat auguiz aundia, principearen⁹⁸ grandezagatic. Eta principe batec emanen valio velarrizaldeco bat criaduari, juzcatuco liceteque gauza chiqui bat⁹⁹ criaduaren bajezagatic. Eta baldin criadu batec sombrera quenduko valio vere principeari, artuco liceteque gauza ciquizat, <11r> baño principe batec quenduko valio sombrera vere criaduari, artuco liceteque gauza aundizat. Orobak guertacen da misterio onetan, cergicic gure lendavico guraso Adanec, eta arequin bat guzioc, ofenditu guñuan Jaungoicoa,

⁸⁷ *milagroaquin*: ohart gaitezen plurala dela; *milagroekin*. Esaldi berean, singularrako *-arekin* dakin.

⁸⁸ *aguinterz*] esk. *aguincez*.

⁸⁹ *mendic*: ‘menetik’.

⁹⁰ *Jaungoicoa*] esk. *Juangoicoa*.

⁹¹ *izan*] lerro artean. Esk. *naidu*.

⁹² *lenago*] amaiera zalentzatsua; <a> erraz irakur liteke, baina ondoren datorrena ez da aise jakiten. <g> izan daitekeela dirudi, beherantz duen buztanagatik, baina zerbaiztutxaturik dagoela ematen du.

⁹³ *ciran*] lerro artean.

⁹⁴ *atzuri*: ‘axuria, arkumea, bildotsa’. *OEHn* ez da aldaera hau jasotzen. Dena den, ezin ziur jakin <tz> horrek afrikatua islatzen duen, zenbaitetan digrafo hori frikaria adierazteko agertzen baita; adibidez testuan berehala *itzanic* ‘izanik’ dago.

⁹⁵ *razovegatic*: ‘arrazoigatik’. Testu honetan adibide gehiagotan ikus daitekeenez, *-obe* dute *-onis* bukaera duten latinezko maileguek; *leobe* ‘lehoi’ ere agertzen da, esate baterako. Ezaugarri hau Nafarroan Areson, Leitzan eta Basaburu Nagusiko eta Larraungo herri batzuetan egiten da (Apalaiza 2012: 330).

⁹⁶ *leurricen*: ‘neurtzen’. *OEHn* Ultzama eta Larraungo aldaeratzat hartzen da.

⁹⁷ *velarrizaldeco*: ‘belarrondoko’ *OEHn* arabera (s.v. *belarrizaldeko*), aldaera hori Larraunen (Nafarroa) erabilten da. Beriaiek *bearraqaldeco* dakar tratatuan (Reguero 2019: 312).

⁹⁸ *principearen*] esk. *princepearen*.

⁹⁹ *chiqui bat*] aurretik *chibat* tatzaturik.

magestade infinitoa. Ofensa onec escacen zuan sacrificioa infinitoa. Eta nola etcen ez guizonic eta ez aingueruric alaco dignidadecoric, argatic Jaungoicoaren semea, dignidade infinitocoa, guizon eguinic Jaungoicoaren honragatic, sujetatu zan eriozara guruce batean. Eta eman cion Jaungoicoari satisfacio otsoa gure pecatu eta culpena.

G. Eta cer beste motivogatic Christoc nai izandu zuen padecitu?

E. Eracusteagatic guri vere exemploarequin pacientzia, humildade[a], obediencia eta caridadaea. Bada, ecin izan diteque pacientzia audiagoric¹⁰⁰ padecicea injustamente, baño erioza bat ain afrenta aundicoa;¹⁰¹ humildade audiagoric sujetacea baño Jaun guzian <11v> jauna¹⁰² crucificatua izatera napurran¹⁰³ artean. Izan diteque obediencia audiagoric, naiego izatea il, cumplitu gave uztea baño vere aitaren mandamentua. Eta izan diteque caridada audiagoric vere etsaiacgatic vere viciza ematea baño. Caridada obequi etzagucen obraquin itzacquin baño, obequi padecicearequin eguitearequin baño. Eta, ala, Jesu Christoc eguiñaz campora, guri beneficio infinitoak padecitu zuan eta il zan gugatic. Eta onetan agertu cigun guri cigun amorioa.

G. Baldin bada Christo Jaungoicoa eta guizona, eta Jaungoicoac etcin padecitu dezaque eta ezta il, nola padecitu zuan eta il zan?

E. Orrengatic veragatic, cergatic den Jaungoicoa eta guizona padeci zezaquean eta ez padecitu, il eta ez il. Jaungoicosunean etcin padeci zezaquean eta etcin il citematean, eta guizatasunean padeci cezaquean eta il citequean. Eta argatic esan nuen Jaungoicoa itzanic eguiñ zela guizon, eta gure pecatuan satisfacioa emateagatic recivitu zuela erioza. <12r> Eta au etcin eguiñ zezaquean guizona izan gave.

Christo aparecitu ciceon religioso devoto bati gurucea bizcarrean zuela, eta esan zion: «Ezcin eguiñ dizadequec¹⁰⁴ servicio audiagocoric niri laguncea baño eramaten guruce pisu au. Eraman dezquec¹⁰⁵ viozarequin betico memorian, compasioan eta meditacioan; aban graciac ematen dituala, cergatic redimitu indudan, velarritan adiceco deseоarequin cembaizandu ciran nere penac, espaldetan corpuzaren eta araguiaaren mortificacioarequin». Eta ala procuratu zuen religios[o]ac beti empleaza exercicio santu onetan. San Buenaventurac¹⁰⁶ contacen San Francisco Asisengatik betecen ciduala mendiak¹⁰⁷ suspirioz, eta claro negar eguiten egon baliz vezala pasio santuari veguira. San Alberto Magnoac¹⁰⁸ esaten digu pasio santuaren meditacioa

¹⁰⁰ audiagoric] esk. *audiagoaric*.

¹⁰¹ ...baño erioza bat ain afrenta aundicoa: alegia, ‘... hain afrenta handiko heriotza baino’. Hurrengo esaldian ere, baño perpausaren hasieran dago.

¹⁰² jauna] aurretik tattaturik *jaungoi* agertzen da.

¹⁰³ napurran: ‘lapurren’. OEHk (s.v. *napur*) *napur* ‘lapur’ esanahiarekin Otxoa Arinen adibide bat dakar. Testu honetan hitz hori eta eratorriak agertzen dira: *napurreta* eta *napurraria*. 1579ko Untzueko prozesu batean *napura* agertzen da (begira Reguero 2019: 545).

¹⁰⁴ *dizadequec*: ‘diezadakek’.

¹⁰⁵ *dezquec*: ‘dezakek’.

¹⁰⁶ *San Buenaventura*: fraile frantziskotar italiarra (1218-1274) <http://www.franciscanos.org/bac/buenaventura.html>.

¹⁰⁷ mendiak] esk. *mendioac*. Gaztelaniazkoan *los bosques* dago.

¹⁰⁸ *San Alberto Magno*: XIII. mendeko elizgizon eta Elizako doktore alemaniarrak, Alejandro IV.a Aita Santuak Ratisbonako gotzain izendatu zuen. Dominikoa zen, eta San Buenaventurarekin aritu zuen, besteak beste. <https://www.dominicos.org/quienes-somos/grandes-figuras/santos/san-alberto-magno/>.

eta memoria batec gueyago valio duela, urteco ostirel¹⁰⁹ guztiac ogui eta ur baruceac baño, <12v> disciplina bat corpuz guzia odolcen de[n] moduan arceac baño.

G. Christoc eman bacion vere aitari guizon guztian satisfacia, nola ambeste condencen dira, eta eguin vear dugu penitencia pecatuacgatic?

E. Christoc eman zuan satisfacia guizon guzian pecatuacgatic, baño preciso da satisfacia au aplicacea pecatu bacoizagatic. Eta au eguiten sacramentuan fedearequin eta principalmente penitenciarequin eta obra onaquin, Jesu Christoc emanagatic pecatu guztian satisfacia. Eta ala condenacen dire auniz, eta gueldicen dira Jaungoicoaren etsayac, cergatic edo eztue nai recivitu fedeak judioac, turcoac, eta heregeac vezala, edo eztue nai eguin eguiazco confesioa eta eguiazco penitencia, eta vici Jaungoicoaren leguearen conforme.

G. Aguer ezazu au exemplo batequin?

E. Guizon atberas batec parecen du banco <13r> edo botiga¹¹⁰ batean ciudade aundi bateco gendeac dituan zor guztiac pagaceco dina eta gueyago diru eta interesa, baño condicio batequin: zor duen guztiac dicela¹¹¹ arengana letraren esque, eta letra-requin botiguetic aterazeco zorra pagaceco veiar duen diru guzia. Onelaco guizonac pagatu ditu ciudadeco zor guztiac, baño ciudade artaco gendeac preciso zorra pagaceco artea etra.¹¹² Ala, Jesu Christoc pagatuagatic mundu guztiko pecatuan zorrac, preciso da Christauac arcea sacramento santuan eta eguiazco penitenciaren letra pagaceco vere pecatuan zorrac.

Credoaren bostgarren[g]o articuluaren explicacioa

Santo Thomasec esan zuen Jerusalengo concilio sagraduan: «Jecsi zen infernuela[ra]». Eta concilio artan verean, Santiagoc esan zuen: «Resucitatu zan irugarren egunea[n]». Eta au credoaren bostgarrengo articulua edo misterioa.

<13v> *G. Cer gauza da infernua?*

E. Da munduaren ondarra, cein dagoan luraren centroan. Eta argatic Escriturac paracen digu asco lecutan cerua lecuric altuana eta infernua lecuric bajoena. Munduaren ondar artan edo luraren centro artan badire lau cueba edo lau lecu aundiac: lecu bata condenatuanzat eta lecu au da bajoena,¹¹³ cergatic justo da demonio soberbioac eta ayen lagun condenatuac dauden lecuric bajoenean eta cerutic errutieean;¹¹⁴ bigarrengo lecuan, cerbait altuagoan daude purgatorioco animac; irugarren-

¹⁰⁹ ostirel] esk. *oltirel*.

¹¹⁰ *botiga*: 'botika, denda'. Gaztelaniazkoan «banco» bakarrik dator.

¹¹¹ *dicela*: 'doazela'.

¹¹² artea etra] ez da irakurketa eta interpretazio errazekoa. Digitalizazioan *letra* jartzen duela dirudi, baina jatorrizkoa begiratuta ziurta daiteke <l> orriaren beste aldeko letra dela, eta *etra* jartzen duela. Gaztelaniazkoak ez du laguntzen.

¹¹³ *bajoena*] esk. *bojona*.

¹¹⁴ *errutienean*: 'urrutienean'. OEHk (s.v. *erruti*) Larraungo aldaeratzat dakar, baina *Orreaga* baladaren Larraungo aldaeran bakarrik agertzen bide da, testu idatzietan. Eskuzkribuan lau aldiz agertzen da aldaera hori. Apalauzak (2012: 253) Aldatzen, Errazkinen, Azpirotzen eta Gaintzan jaso du *erruti*.

go¹¹⁵ lecuan bigarrena baño altuagoan¹¹⁶ daude aun inocentean,¹¹⁷ batayatu gave, ilcen direnan animac, ceiñec eztuen padecicen suaren tormenturic, baicic betico Jaungoicoaren aurpeguia ecin ecusia; laugarrengo lecuan, altuanean, ceuden patriarcan, profetan eta beste santuan animac, cein il ciren Christo etorri baño len, cergatic <14r> ez izanagatic zorra Jaungoicoaren justiciari, ala ere ezcín sartu citezquean¹¹⁸ ceruan Jesu Christoc vere eriozarequin cerua iriqui¹¹⁹ zuen artean. Eta argatic ceuden lecuric altuanean, limboan edo Aitaren escoan, etzuen padecicen batere penaric, bai-cic, al contrario, zeuden consuelo eta alegría audi batean, esperacen Jesu Christoren etorrera. Eta, ala, esaten digu evangelio sagraduac ainguerauc eraman zuela Lazaro pobraren¹²⁰ anima Abranen senora, eta etzusi¹²¹ zuan aberas¹²² avarientoac, cergatic veguir[at]uric¹²³ infernuco ondarretatic gora, etcusi zuan Lazaro lecu altuan cegoala Lazaro, alegre eta consueloz beteric, gozacen vere pacienciaren premioa.

G. Eta infernuco lau parte oietatic ceñetara jetsi cen Christo?

E. Abranen senora edo patriarca santuan limbora, ceñetan¹²⁴ zeuden santuac, eta ver-tatic Christoc egunitutu bienaventura[tu]ac, eta guero eraman cituan verequin <14v> cerura. Baita ere jecsi zan infernuco beste iru lecuetara, icaracen citua[n] demorioac victoriosoac vezala. Amenazacen citua[n] condenatuac juez supremoac vezala, eta consola-cen cituala purgatorioco animac, ayen abogaduac eta librazalleac vezala,¹²⁵ eta jecsi zan Christo infernura regue bat joaten veza[la] carceletara visitacera eta nai duena libraceria.

G. Nola resucitatu zan irugarren egunean? Bada, ostirel arrasaldetic, ceñetan¹²⁶ izandu zan enterratua, iandearen goiz alderño, ceñetan resucitatu zan, eztire bi egun osooac.

E. Etcen resucitatu iru egunac pasatuta, baicic irugarren egunean. Eta au cier-toa da, cergatic ostirelean egondu zan sepulturan, cein den lendavico eguna, egun osoa ezpacen ere, larumbet osoan, cein den bigarren eguna, eta egondu zan iyandean, egun guzian ezpacen ere, cein dan <15r> irugarren eguna.

G. Christo il da verala cergatic ezen resucitatu, baicic nai izandu zuen esperatu iru egunaz?

E. Ecus zedin eguiazqui il zela. Eta argatic egondu zan sepulturan, eguiia au aguerceco eta probaceco, asco zan demboran. Nola vicitu zan guizonan artean ogue-

¹¹⁵ irugarrengoa] <e> eta <n> artean, iduriz, <a> tatxaturik.

¹¹⁶ altuagoan] lerro artean.

¹¹⁷ aun inocentean: ‘oraindik inuzente zirela’.

¹¹⁸ citezquean] esk. citecquean.

¹¹⁹ iriqui] eskuizkribuan ez dago argi -e ala -i dagoen bukaeran, baina -e dela ematen du. Halere, gainerako kasu guztietaan iriqui erabiltzen du.

¹²⁰ pobraren] esk. probearen. Zenbait lekutan probe aldaera erabiltzen bada ere, testu honetan, gainerako kasu guztietaan pobre erabiltzen da beti; beraz, ziurrenik huts baten aurrean gaude. Bestalde, ondotik letra bat tatxaturik dago.

¹²¹ etzusi: ‘ikusi’.

¹²² aberas] esk. Aderas. Gaztelaniazkoan, Rico da ordaina.

¹²³ vegiraturic] aurretik, veri tatxaturik.

¹²⁴ ceñetan] esk. cenetan.

¹²⁵ vezala] jarraian berriro vezala.

¹²⁶ ceñetan] esk. cenetan.

ta¹²⁷ amairu edo ogueta amalau urtean, ala egondu nai izandu zuen illen artean: ogueta amairu edo ogueta amalau ordutan. Bada, onembeste ordu ateracen dire, baldin contacen badire, cergicatic ostirelean pasatu cituan zazpi ordu, bada ordu batez illundu baño len enterratu zan, larumbetean ogueta lau ordu eta iyandean bi edo iru ordu, cergicatic gau erdia pasatuta, goiz aldera resucitatu zan.

G. Cergicatic Christogatic esaten da «resucitatu zan», eta beste illacgatic, nola Lazaro-gatic eta alargunaren semeagatic <16r>¹²⁸ esaten da «izandu ciren resucitatuac»?

E. Cergicatic Christo, nola cen Jaungoicoaren semea, vere virtute propioz resucitatu zan; au da, vere divinidadearen virtutez, berriz, unitu cion vere anima vere corpuzari, eta berriro re¹²⁹ atsi zan vicizan, baño beste illac ezin atsi ditezque vicizan veren virtute propioz. Eta argatic esaten da izandu cirela resucitatuac, nola guzioc izanen garan resucitatuac azquen ju[i]zioco egunean, Jesu Christoren virtutez.

G. Eta bada beste diferenciaric?

E. Bai, jauna. Besteac resucitatu ciran mortalac edo illcorrac.¹³⁰ Eta argatic il ciren, baño Jesu Christo resucitatu zan imortalala edo ecin ill citequeana.¹³¹ Eta argatic ecin il diteque gueyago.

San Estanislao¹³² obispoac¹³³ Elizarenzat erosi cion Pedro zerizquion¹³⁴ guizon bati alor bat. Pedro il eta iru urte pasatuta ondorean, aren herederoac regueri atseguien eguiteagatic paratu cioan pleitura <17r>¹³⁵ obispoari alorra edo heredadea ezuela verea. Obispoac ezuen escritureric, eta eraman zuen pleitura reguearen tribunalera eta testiguac eziren atrevicen egquia esatera. Lance onetan esan cioan santuac irugarrengو egunean ecarrico cioala Pedro il zana. Eguin cioan parra santuari, baño ala ere esan zioan ongui zela. Atera zan santua tribunaletic, eta pasaturic iru egun oracioan Jaungoicoari eguiten ciola erregu aguertu cezala¹³⁶ egquia. Eta Meza esan eta ondorean, joa[n] cen sepulturera eta esan cion Pedrori segui cizola¹³⁷ reguearen tribunalera. Eta Pedroc, ateraric sepulturetic, seguitu cion obispoari eta esan cion santuac: «Ona non den Pedro, Jaungoicoac resucitatu du¹³⁸ esan dezan egquia». Eta claro esan cioan obispoac erosi ciola alorra eta pagatu ciola dirua, eta aren herederoac eguin zezala¹³⁹ penitencia santuari eguin cioan injuriagatic. Eta santuaren compañian, viurtu zan elizera eta sartu zan sepulturan, eta berri zil zan.

¹²⁷ ogueta] aurretik zerbait tatzaturik.

¹²⁸ <15v> zuri dago.

¹²⁹ berriro re] esk. *berrirora*.

¹³⁰ edo illcorrac] lerro artean.

¹³¹ edo ecin ill-citequeana] lerro artean.

¹³² Estanislao] badirudi eskuizkribuan bi <o> daudela.

¹³³ San Estanislao obispoa: Krakoviako gotzaina; 1030ean jaio eta 1076an hil zen. <https://www.franciscanmedia.org/saint-stanislaus/>.

¹³⁴ *zerizquion*: ‘zeritzion, deitzen zitzzion’.

¹³⁵ <16v> zuri dago, baina orrialdearen bukaeran *Boleslau Poloniaco Regaea* jartzen du.

¹³⁶ cezala] <za> lerro artean.

¹³⁷ *segui cizola*: ‘segí ziezaiola’.

¹³⁸ du] lerro artean.

¹³⁹ zezala] <za> lerro artean.

<18r>

Credoaren seigarrengo articuluaren explicacioa

San Phelipe apostoluac Jerusalengo concilio¹⁴⁰ sagradu artan esan zuen modu onetan: «Yo zan ceruetara, dago etseriric aita Jaungoico guziz podoresoaren alde es- cuñetic.¹⁴¹ Andic etorrico da viciac eta illac juzgacera». Eta au da credoaren seigarrengo articuluaedo misterioa.

G. Cemba demboran egondu zan¹⁴² munduan Christo resucitatu ta ondorean? Eta cer motivogatic?

E. Berroguei egunean. Bada, berroguei egun dira resurrecioco egunetic ascensioco eguneraño; cergicat nai izandu zuan¹⁴³ Christoc auniz aparecioequin¹⁴⁴ eta aguerre-raquin probatu eta confirmatu vere eguiazco resurrecioaren misterioa, ceiñ den casic misterioetan gaizena sinistezan. Eta misterio au sinistecen duenac eztu dificultaderic izanen beste misterioac sinistecen, cergicat resucitatu zena dudericquen <18v> gave il zan, eta il cena, dudericquen gave, yayo zan. Eta, ala, Christoren resurreccioa sinistecen duenac, erraz sinistetu du Christoren erioza eta yayoza, eta nola ezayoan conveni corpuz gloriosoai¹⁴⁵ mundo viciza, baizic ceruco viciza eta gloria. Eta argotic Christoren resurreccioa sinistecen duenac erraz sinistetu du Christoren ascensioa eta ceruetaco eyoza.¹⁴⁶

G. Cergicat Christogatic esaten da «Eyo zan ceruetara» eta Christoren ama Maria Santissima[ga]tic esaten da¹⁴⁷ eyo¹⁴⁸ zuela?

E. Cergicat Christo, nola zan Jaungoicoa eta guizona, eyo zan vere virtute propioz, nola resurrexitatu zan vere virtute propioz, baño Maria santissima, izanagatic beste creatura guciak baño magestade¹⁴⁹ eta excelencia audiagocoa, ala ere zen creatura utsua,¹⁵⁰ ezzen resurrexitatu vere virtute propioz, baicic Jaungoicoaren virtutez, eta Jaun[goy]coaren virtutez izandu zan eramana <19r> ceruco reinura.

¹⁴⁰ concilio] esk. *conciolo*. Normalean *concilio* erabiltzen du, baina birritan du *conciolo*. Hutsak dirudite.

¹⁴¹ escuñetic] aurretik *ecus* taxtaturik.

¹⁴² egondu zan] esk. *egondo zan*; lerro artean gehitua.

¹⁴³ zuan] lerro artean.

¹⁴⁴ aparecioequin] esk. *aparecio erequin*.

¹⁴⁵ gloriosoai] <so> lerro artean.

¹⁴⁶ eyoza: ‘igotza,igoera’; gaztelaniaz ‘Subida’ dago.

¹⁴⁷ da] lerro artean.

¹⁴⁸ eyo] ez dago garbi *ego* den ala *eyo*; <g> eta <y> biak bide daude idatzirik, baina ezin jakin zein idatzi zen azkena. Edonola ere, *OEHn* ez dago igotza jasota.

¹⁴⁹ magestade] <de> lerro artean.

¹⁵⁰ utsu: ez dago argi afrikatu edo igurzkari ahoskatu behar den. Akaso, errata izan liteke eta *creatura utsa* irakurri beharko litzateke, Pouvreauk eta Arbelbidek erabiltzen dute *kreatura huts*. Gaztelaniazko dotrinan ez da hitz horri dagokion ordainik. Dotrinan aurrerago *utsuaren* agertzen da ‘usoaren’ adieran, baina ez dirudi gauza bera denik hemen.

*G. Cer esan nai du: «Dago etseriric aita Jaungoico guziz poderosoaren alde ecusnetic»?*¹⁵¹

E. Eztuzue pensatu vear Aita dagoala Semearen ezquerretic, ezta ere Aita dagoala erdian, duela Semea ecusenetik¹⁵² eta Espiritu Santua ezquerretic corporalmente, nola corpuz bat egoten den; cergatic nola Aita, nola Semea eta ala Espiritu Santua Jaungoicototasunean edo divinidadean daude lecu guzian, eta propiamente eztago bata bestearen escuñetic¹⁵³ edo ezquerretic. Eta ala egoteac alde escuñetic, esan nai da dagoala altura batean, gloria¹⁵⁴ batean eta magestade batean; cergatic aldamean eta ondoan dagoana, eztago bestea bañio ez altuago eta ez bajoago. Eta entendi dezagun regue Daviden salmoa,¹⁵⁵ cein atsicen den: «Esan cion Jaunac nere Jaunari». Bein esaten du Semea dagoala Aitaren <19v> escuñetic, eta bestean Aita dagoala Semearen escuñetic. Guzia da esatea Aita eta Semea daudela altura batean eta altura igualean. Eta, ala, Christo ceruetara eyocean, eyo zan ainguera eta beste verequin zeramazquioan santu¹⁵⁶ guzian gañean. Eta llegatu zanean Jaungoico altissimoaren tronura, an jarri zan ezela gorago eyocen¹⁵⁷ eta ez veragoan gueldicen, baicic gueldicen zela Aitaren aldamean, iguala vezala glorian eta grandeza.

G. Christo bada Jaungoicoa eta guizona, dago etseriric Aitaren alde escuñetatic¹⁵⁸ Jaungoicotatasunean edo badago guizatasunean ere?

E. Christo Jaungoicotatasunean da iguala vere aitarequin, baño guizatasunean da aita baño guichiago, baño ez orregatic dire bi Christo, baicic Christo bat eta persona bat bacarra. Argatic, esaten da Christo dela Jaungoicoa eta guizona, dagoala <20r> eseriric Aitaren escuñetic.¹⁵⁹ Eta, ala, Christoren humanidadea edo naturaleza eta anima daude trono divinoan, Jaungoico aitaren escuñetic,¹⁶⁰ ez dignidade propioz, baicic cergatic Christoren naturaleza humana eta anima dauden unituric eguiazco Jaungoicoaren semearen personari. Au aguer diteque comparacioa edo exemplo onetan: regue bat dagoanean vere tronoan jancircic vere purpurarequin, reinuco principeac egoten dire eseriric lecu bajoagoan; reguearen purpura egoten da principeac eta reinuco grandeac baño lecu altuagoan, cergatic dagoan reguearen silian vertan, ez cergatic purpura den dignidade igualaco reguearequin, baicic cergatic dagoan unitua regueari, vere soñeco propioa vezala. Ala, Christoren naturaleza hu-

¹⁵¹ *ecusnetic*: ‘eskuinetik’. Testuan, oro har, *escuñ* aldaera darabil, baina behin *ecusne* eta beste behin *ecusene* agertzen da. Gainera, beste bi lekutan, gutxienez, aldaera orokorra erabili aurretik *ecu* dakar taxaturik. Hori dela eta, bere horretan uztea deliberatu dut, errata izan daitekeela jakitun.

¹⁵² *ecusenetik*] begira aurreko oharra.

¹⁵³ *escuñetic*] esk. *escunetic*. Aurretik *ecu* taxaturik; begira goragoko oharra.

¹⁵⁴ *gloria*] esk. *glorioa*.

¹⁵⁵ *Daviden salmoa*: pasarte honestan, Itun Zaharreko 110. salmoari egiten dio erreferentzia. Elizzen Arteko Bibliaren itzulpenaren arabera honela da salmoaren hasiera: «Hona Jaunak ene jaun erregeeari esana». Eta hauxe da Jaunak esan bide ziona: «Eseri tronuan nire eskuinean: etsaiak oinaulki jarriko dizkizut». Edizio horretan esaten denez (905. or.), Itun Berrian gehien aipatzen den salmoa da.

¹⁵⁶ *santu*] aurretik *ganean* taxaturik.

¹⁵⁷ *eyocen*] iduriz, <y> baino lehen <g> idatziz zuen.

¹⁵⁸ *escuñetatic*] esk. *escunetatic*.

¹⁵⁹ *escuñetic*] esk. *escunetic*.

¹⁶⁰ *escuñetic*] esk. *escunetic*.

manoa eta anima dago eseriric aingueru eta bienaventuratu guzian gañean, Jaungoico altissimoaren sillan, <20v> cergatic dagoan unituric Jaungoico altissimoari.

Credoaren zazpigarrengo articuluaren explicacioa

San Phelipe apostoluac Jerusanlengo concilioan esan zuen modu onetan: «Andic etorrico da viciac eta illac juzgacera». Eta au da credoaren zazpigarrengo articulua edo misterioa.

G. Noiz etorrico da?

E. Munduaren fiñan edo acaberan, ceñetan suzco dilubio batec guzia acabatuco duen eta abrasatuco dituen munduko gauza guziac. Eta, ala, ezta izanen gueyago ez egunic eta gauic, ez ezconzaric, ez tratoric eta contratoric eta ez oraiñ ecusten dugun beste gauzaric. Ala, munduaren azquen egun artan, cein noiz izanen den iñorc ere eztaquian, etorrico da Jesu¹⁶¹ Christo cerutic eguitera juicio universal. Eta iz oie, «andic etorrico da», eracusten digue eztiozaguele¹⁶² sinistetu <21r> inori, arc esanagatic dela Christo, cergatic munduaren azquena urbilcen denean, aunicec engañatu¹⁶³ naico gaitue anteChristoc vezala, cergatic eguiazco Christo ezta etorrico mendi orientatic eta munduaren bazterretic, baicic etorrico da¹⁶⁴ cerutic, aiñ magestade eta gloria aundian, alaco moduz ezce iñorc ere ezcin dudatuco du Christo den edo ez, nola eguzquia ateracen denean,¹⁶⁵ iñorc ezin duda dezaque eguzquia den edo ez.

G. Cergatic esaten da «viciac eta illac juzgacera»? Cer, eztire egonen guizon guziac, illac eta resucitatuac?

E. Viciagatic entendi¹⁶⁶ ditezque justoac, ceiñ vici diren graciaren vicilan; eta illagatic enten[di] ditezque pecatariac cein dauden illac pecatuaren eriozarequin, baño etorrico da Christo viciac eta illac juzgacera, cergatic egun artan izanen dire auniz¹⁶⁷ illac eta vici direnac, zarrac eta gazteac, chiquiac, aundiac, guziac punto <21v> eta instante batean illen dire eriozaren zorra pagaceco, eta verela izanen dire resucitatuac.¹⁶⁸

G. Pecatu mortalean ilcen dena joaten da infernura, eta Jaungoicoaren graciaren ilcen dena joaten da purgatoriara edo ceruco gloriara. Nola, bada, guziac izan vear due juzgatuac, emana badago sentencia?

E. Bacoizaren¹⁶⁹ eriozan eguiten da¹⁷⁰ juicio parti[cu]llarra anima arena,¹⁷¹ baño guero azquen egun artan eguiñen da juicio universal mundu guziaren presencian.

¹⁶¹ Jesu] esk. *Jusu*.

¹⁶² eztiozaguele: ‘ez diezaiogula’.

¹⁶³ engañatu] -na- lerro artean.

¹⁶⁴ da] lerro artean.

¹⁶⁵ denean] <ne> lerro artean.

¹⁶⁶ entendi] <ten> lerro artean.

¹⁶⁷ auniz] esk. *aunic*.

¹⁶⁸ resucitatuac] aurretik zerbait tatzaturik.

¹⁶⁹ bacoizaren] esk. *baizoizaren*.

¹⁷⁰ da] lerro artean.

¹⁷¹ arima arena: ‘arima harena’ eta ez ‘arimarena’. Gaztelaniaz *de aquella alma* da ordaina.

G. Bacoizaren eriozan eguiten bada juizio particularra, cergatic guero eguin vear du juicio universalac mundu guziaren aurrean?

E. Auniz motivogatic. Lendavicicoa Jaungoicoaren gloriagatic, cergatic ecustear-quin munduan atberatsac ondasunequin eta fortunaquin, eta pobreac eta onac eta justoac afluxuac, pensacen due eztuela <22r> Jaungoicoac mundu au ongi governacen, baño orduan ecusico da claro nola Jaungoicoac guzia ecusi duen, eta guzia reparatu duen, eta nola Jaungoicoac justicia audiarequin eman dioan gaiztoai munduan cerbait fortuna eta ondasuna premiaceagatic aien cerbait obra on, eman vear dioan ezquero, guero, pena eterno veren pecatuagatic. Eta nola justoai eta onai eman dioan trabaju eta afilio temporala castiguezeagatic aien pecatu venialen bat edo emateagatic pacienciaren eta meritoaren gaie,¹⁷² guero atberastu vear dituan ezquero glosaria infinitoaren tesoroquin aien obra onacgatic.

Vigarrengoa¹⁷³ motivoa cergatic eguin vear den juicio universal da Jesu Christoren gloriagatic, cergatic nola Christo izandu zen injustamente <22v> condenatua, aunicec ez etzagutua eta aunicec vear vezala ez honratua, baicic deshonratua. Justo eta razove da egunen batean mundu guziac ezagu dezan eta honra dezan, eguiazco reguea eta mundu guziaren jauna vezala, edo consueloz eta alegriaz edo pena eta desesperacioz. Irugarrengoa motivoa da santuan gloriagatic, guziac ecus dezan nola Jaungoicoac honracen eta glorificacen dituan munduan izandu direnac perseguituac eta maltratatuac. Laugarrengoa motivoa da Jaungoicoaren etsai sobreviatioan confusioa eta penagatic. Bostgarrengoa motivoa da corpuzac animari unituric izan dezan sentencia edo gloriarena edo penarena.

<23r>

Credoaren zorzarren articuluaren explicacioa

San Bartolome apostoluac Jerusalengo concilio sagraduan esan zuen modu oneitan: «Sinistecen dut Espiritu Santua,¹⁷⁴ Eliza ama santu catholicoa».¹⁷⁵ Eta au da credoaren zorzarren articulu edo misterioa.

G. Cer esan nai du «Espiritu Santuac» edo cer adicen da «Espiritu Santuagatic»?

E. Trinidadeko irugarren persona, nola lendavico articulan declaracen den lendavico persona, eta beste seietan vigarren persona. Espiritu Santua ezta Aita eta ez Semea, baicic irugarrengoa persona bat, ceñec procedicen duen Aitagandic eta Semeagandic. Eta da eguiazco Jaungoicoa, nola Aita eta Semea. Eta da Jaungoico vera, cergatic duen divinidade bat Aitarequin eta Semearequin.

<23v> *G. Aguer ezazu exemplo edo semejanza batequin.*

E. Gauza divinoac etzin explica ditezque ongi gauza criatuaquin, batez ere badiria corporalac. Ala ere, aguertu¹⁷⁶ di[te]que eta au explica diteque balsa batequin cein eldu dan iturria batetic. Emen dira iru gauza: iturria, balsara dien¹⁷⁷ erreca eta

¹⁷² *gaie*: ‘gaia, materia’.

¹⁷³ Vigarrengoa] esk. *Viagarrengoa*.

¹⁷⁴ *Santuac*] -gan ezabaturik.

¹⁷⁵ *catholicoa*] -gan ezabaturik.

¹⁷⁶ *aguertu*] esk. *aguerti*.

¹⁷⁷ *dien*: ‘doan’.

balsan gueldicen den ura. Eta irurac dira ur bat. Ala, Aita eternoac, iturriac vezala, producien du semea erreca bat vezala, eta Aitac eta Semeac Espiritu Santua balsa bat vezala. Eta orrengatic eztira iru Jaungoico, baicic Jaungoico bat bacarra.

G. Cergatic irugarrenko personari deicen zayo «Espíritu Santua»? Cer, eztira espíritu santuak aingueruak eta anima bienaventuratuak?

<24r> E. Jaungoicoari derizquio¹⁷⁸ Espíritu Santua excelenciaz, cergatic den espíritu sumoa eta sumamente santua, eta espíritu criatu guzian autorea eta santidade guziaren javea, nola guizonan artean itzanagatic auniz aita eta auniz santu, nola obispoac, apezac, re[li]giosoac eta beste auniz. Ala ere, bacar bacarric Christoren vicioari lurrean derizquio Aita Santua, cergatic ari bacar[r]ic excelenciaz tocacen zayon itzen au, cergatic den beste preladu guzian burua eta cergatic vere bicizaz itzan veatuan santuenak, nola den vere oficioaz.

G. Baldin Espíritu Santuaren itzena excelenciaz tocacen bazayo Jaungoicoari, cergatic atribuicen zayo irugarren personari? Cer, excelenciaz eztire Espíritu Santuac Aita eta Semea ere?

<24v> E. Ala da; baño cergatic lendavico personac duen vere itzen propioa Aita, eta bigarrenac Semea, irugarrenari guelditu zayo itzen comuna, distinguiceagatic beste bietaric. Eta esatearequin dela Espíritu Santua, bi itz oieç egun due itzen bat bacarra, nola guizon bat baderizcoa Luis Antonio eguiten due itzen bat, beste moduz itzanagatic bi itzen Luis eta Antonio.

G. Cergatic Espíritu Santua pintacen da utsuaren¹⁷⁹ figuran, batez ere, Christoren eta Ama Virginaren gañean?

E. Eztuzu pensatu veat Espíritu Santuac duela corpuzquic,¹⁸⁰ eta beguiaquin etcus ditequeala, baicic pintacen da onela adicera emateagatic guri, guizonetan egutien dituan efectoac, eta cergatic utsua den simplea, pura, zelosoa, abundantea edo fecundoa. Eta pintacen da Christoren eta Ama Virginaren gañean adicera emateco guri, bete izanduac cirela gracia <25r> guziaz eta Espíritu santuaren dohaiez¹⁸¹ eta, batez ere,¹⁸² simplicidade santa batez, pureza eta Jaungoicoaren honraren zeloz eta animan ongui espiritualaz.

G. Apostolu sagraduan gañean pintacen da Espíritu Santua susco mingan bazuen figura, eta oñec cer etsan nai du?

E. Amar egun pasatuta, ascensioaren ondorean, Espíritu Santua jetsi zan apostoluan gañera eta bete zituan cienciaz, caridadeaz eta eloquenciaz, etracusten cioala itz egutien lengoaque¹⁸³ guziac, predicaceco mundu guzian fede santua.

¹⁷⁸ derizquio] esk. *dericquio*.

¹⁷⁹ *utsuaren*: ezbairik gabe, *usuaren*, hau da, ‘usoaren’ irakurri behar da; gaztelaniaz *paloma* dator.

¹⁸⁰ gorpuzquic] lerro artean. Irudiz, <zqu>-k afrikatua markatzen du eta ‘gorputzik’ da adiera; gaztelaniaz *cuerpo* da.

¹⁸¹ *dohaiez*: ‘dohaiez’. OEHn (s.v. *dohain*) *dobai* aldaera jasotzen bada ere, Azpeitiko gipuzkerazkoztat dakar. Gainera, *doai* ematen du Gipuzkoako eta Nafarroako aldaeratzat. Dotrina hotentan sistematikoki agertzen da *dobai* aldaera.

¹⁸² batez ere] esk. *bateeze ere*.

¹⁸³ *lengoaque*: ‘lengoaje, hizkuntza’.

Credoaren bederatzigarrengoa articuluaren explicacioa

San Bartolome apostoluac Jerusalengo concilio sagraduan esan zuen modu one-tan: «Nic siñisten¹⁸⁴ dut Eliza ama santa catholicoa». Eta au da credoaren bederatzigarrengoa articulu eta misterioa.

<25v> Emen atsicen da credoaren bigarren partea, cergicaren lendavico partea tocacen zayo Jaungoicoari eta vigarren partea aren esposa Elizari. Eta nola siñistecen dugun Jaungoicoagan divinidad bat eta iru persona, ala siñistecen dugu¹⁸⁵ dela Eliza bat bacarra, eta dituala iru ondasun principalak: lendavicoa animan, ceiñ den pecatuan barcacioa; vigarrena corpuzan, ceiñ den araguiaren resurrecioa eta irugarrena animan eta corpuzan, ceiñ den viciza seculacoa.

G. Cer esan nai du «Elizac»?

E. Convo[ca]cio edo congregacioa bat guizonena, ceiñ batayecen diran eta eguiten duen profesioa fedearena eta Christoren leguearena, Aita Santuaren obediencia-ren azpian, eta derizquierdoa «congregacioa» edo «convocacioa», cergicaren yayozen Christauac nola yayozen españolac, francesac, yitalianoac edo <26r> beste reinuocac, baicic Jaungoicoac deituac gara eta sarcen gara congregacioa onetan bautismoagatic. Eta preciso da siñistecea eta confesacea fede santua eta Christoren leguea, Elizaren preladuac eta predicadoreac eracusten diguan vezala. Eta ezta au¹⁸⁶ asco, baicic preciso da gueyago egotea Aita Santuaren obediencian Elizaren burua den vezala,¹⁸⁷ eta Christoren vicarioa lurrean.

G. Eliza bada guizonaren congregacioa bat, nola etsaten diogu Elizac eguiten dituenai, ceñetan etsaten diran mezac eta eguiten diran beste oficio divinoac?

E. Cergicaren christau¹⁸⁸ fielac, cein diran eguiazco Eliza, juntacen diran aietan eguiteko exercicio santuac, batez ere badaude dedicatuac eta consagratuac Jaungoicoari, baño articulo onetan eztugu itceguiten zurez eta arriz eguindako elizaz, baicic christau fielaz eta obedienteaz, Christoren vicarioari, ceiñ diran Eliza vicia.

G. Cergicaren etsaten da «Eliza» eta ez «Elizac», bada, badira munduan christau fielan auniz congregacio?

E. Cergicaren Eliza dan bat, eta onen abrazacen ditu christau fiel guziac, munduan vici direnac zabalduric. Eta ez bacarric oraiñ vici direnac, baicic, baita ere, munduan principiotik oraiñdaño itzandu direnac, eta itzanen direnac munduaren azquereraño. Eta argatic etsaten da Eliza au dela bacarra, baita ere dela catholicoa, cefiecen etsan nai duen universalra, cergicaren zabalzen den leku guzietara eta dembora guzietara.

G. Cergicaren etsaten da Eliza dela bat bacarra baite ambeste milloi persona?

E. Cergicaren Elizaren burua den bacarra, ceiñ den Christo ceruan, eta lurrean aren vicarioa Aita Santua, eta cergicaren vici den espiritu batetic, eta cergicaren duen legue bat,

¹⁸⁴ siñisten] esk. siñiscen.

¹⁸⁵ dugu] lerro artean.

¹⁸⁶ au] amaieran hizki bat tatxaturik.

¹⁸⁷ vezala] esk. velaza.

¹⁸⁸ christau] esk. Chtoau.

nola etsaten reinu batengatic dela bacarra, cergicatic duen regue bat eta legue bat, itzaganagotic reinu artan auniz <27r> provincia, ciudadate eta erri.

G. Cergicatic esaten da Eliza au dela santua, badire¹⁸⁹ Eliza onetan auniz gaiztoac?

E. Iru razovegatic: lendavicoa, vere burua Christo dun¹⁹⁰ santissimoa; vigarrenatik cergicatic fiel guziac diren santuac fedez eta profesioz, cergicatic duen federatu eguzkia eta divina, eguiten due sacramentuan profesioa eta due legue bat justoa; bacar baccarric aguincen ditu gauza onac, eragozten ditu gauza gaiztoac. Eta irugarrena: cergicatic Elizan diren auniz santu, ez bacarric fedez eta profesioz, baita ere virtutez eta costumbratik santuz, itzanic gauza ciertoa, judi[o]an, turcoan, heregean eta beste Elizatic campoan dauden artean, iñor ere etcin itzan ditequeala eguzkia santua.

<27v>

Credoaren amargarrengoko¹⁹¹ articuluaren explicacioa

San Mateo apostoluac esan zuen Jerusalengo concilio sagraduan modu onetan: «Nic sinistecen dut santuan comuni[o]a». Eta au da credoaren amargarrengoko articulu edo misterioa.

G. Cer adicen da santuan comuniogatic?

E. Eliza ama santuaren corpoa dagoala aiñ unitua etze christau baten ondasuna espiritualetan¹⁹² comunicacen eta participacen duela beste guziac, alako moduz eze egonagotic auniz leku errutietan, eta gure aiec ez ezagutugatic, aien mezac, oracioa, oficio divinoak eta beste obra onac valiacen zarazquigu eta laguncen digue guri. Eta ezta emen lurrean edo munduan comuniogatik santo au bacarric,¹⁹³ baita ere gure mezac, oracioak eta beste obra ona[c] laguncen dioa purgatorioa dauden animai, eta ceruco¹⁹⁴ anima bienaventuratu <28r> oracioak laguncen digue guri eta purgatorioan animai.

Durano Tolosa Franciaco arzobispoagatic contacen du Surio¹⁹⁵ munduan esan zituan iz alper bazuagatic padecicen zuela auniz purgatorioan, eta aguertu ciceola San Hugon abadeari escacen santuari aren eta aren monasterioko oracioak. Arzobispoaren sufragi[o]an, santuak aguindu cioan zazpi mongeri zazpi egunez guarda ze[za]la silencio. Monge batec itz egun zuan eta etzuan guardatu. Aguertu zen berriz arzobispoa quejacen arengatic ezela atera purgatoriotic. Santuak aguindu cion beste monge bat, eta onec guardatu zuan. Eta orduan aguertu zan arzobispoa graciak ematen.

Contacen due Francian, Bretañaco reinuan, vici zala guizon bat purgatorioko animan auguiz devotoa.¹⁹⁶ Enfermedade audi batec arrapatu zuan guizon au, eta gau

¹⁸⁹ badire] esk. *badere*.

¹⁹⁰ dun] beharbada errata da, eta *dan* behar luke. Gaztelaniaz *es* dago.

¹⁹¹ *amargarrengoko*: gaztelaniazkoan, jarraian datorrena bederatzigarrengoko articuluaren barruan dago.

¹⁹² espiritualetan] <tan> lerro artean.

¹⁹³ bacarric] lerro artean.

¹⁹⁴ ceruan] <co> lerro artean.

¹⁹⁵ *Surio*: Lorentzo Surio, XVI. mendeko monje kartusiarra. Liburu anitz idatzi zituen: kontzilioei buruz, santuen bizitzari buruz, memoriak, etab. 1578an hil zen, 56 urte zituela (Amat 1807).

¹⁹⁶ devotoa] lerro artean.

erdian escatu zuan viaticoa, eta verala parrocoac <28v> eraman cion. Zuen costumbre guizon onec¹⁹⁷ ziminterioan eta sepulturetan pasacen zenean, an enterratu¹⁹⁸ zeuden animac encomendacea. Eta parrocoa, viaticoa eman eta ondorean, viurtu¹⁹⁹ zenean elizara, ziminteriora llegatu zenean guelditu²⁰⁰ zuen indar audi batec. Eta aditu zuan voz audi bat esaten zuela: «Emen enterratuta zauten fiel guztiak, jequi zaizte eta zoazte Elizara erregea eguitera Jaungoicoari gure devotoaren animangatic, eta pagacera moneda verarequin». Jequi ciran eta ecustean²⁰¹ torchac²⁰² zeuzquela eta armonioaco vozaquin cantatu cioan difuntuan oficio divinioa, eta aien devotoa verela eyo zan cerura.

G. Christau fiel guzian ondasun espiritualac badire comunac, cer casotara datozen eguitatea oracioa eta esatea mezac onelako personagatic eta alako animagatic?

E. Cergatic meza, oracioa eta obra onac izanagatic comunac guzai, ala ere, <29r> gueyago valicen eta aprovechacen zarazquio personal²⁰³ edo animai²⁰⁴ ceingagtic particularmen[te] apliquecen diran.

G. Eta excomulgatuac participacen due christau fielan ondasun espiritu[a]/latatic?

⁶⁴⁹ bazayo] esk. *bayago*. Beharbada aurrerago dagoen *eztago* hitzaren bukaerak eragindako hutsa izan daiteke, jatorrizko eskuizkribuan izan zezakeen kokapenaren arabera.

⁶⁵⁰ obarcen: ‘ohartzen’.

⁶⁵¹ prohivicen] <hi> lerro artean.

⁶⁵² itzandu] <du> lerro artean.

zaco trincea, eta orduan cebillen aren quartoaren entradan paseacen mancebo eder bat. <105r> Imprudenciarequin veguiretu cion, saltatu ciceon⁶⁵³ pensamentu gaitzo bat, consentitu zuan, etzuan confesatu eta estadu onetan il zan eta condenatu zan. Au da vicio bat munduan ceñequin Demonioac eguiten dioan⁶⁵⁴ guerraric aundiana, ez bacarric mancebo escandaloso eta doncellari zoratu orri, baita ere Jaungoicoaren siervoric onenai eta christau virtudosonai. Bestela⁶⁵⁵ etsan dezala Santa Catharina de Sena batec, Santa Gertudesec, Santa⁶⁵⁶ Rosac eta besteac, eta ies eguiteco eta garai-zezo medioa da istea vioceco atea eta contu aundia eduquicea sentidu guziazaz. «O! auguiz molestoac dire tentacio oieç» etsaten cion⁶⁵⁷ Santa⁶⁵⁸ Brigidac Jaungoicoari, eta Jaunac eranzun cion: «Justo da nere alaba, nola len deleitacen ziñen munduko vanidadean nere vorondatearen contra, ala orain itzan dicen pensamentuac molestoac eta penosoac zure vorondatearen contra».

<105v>

Amargarrengoa mandamentuaren explicacioa

G. Ceñ da Jaungoicoaren legueco amargarrengoa mandamentua?

E. Jaungoicoac Sinaico mendian⁶⁵⁹ vere leguea entregatu cionean Moisesi amargarrengoa mandamentu santu au escrivitu zuan iz oiequin: «Eztuzu deseatuco besteren interesario». Au da, ez interesa raizic,⁶⁶⁰ nola diren echeac, alorrac, arbolac eta beste olenaco gauzac; ez interesa libreric, nola diren dirua, ganaduac, lurreco frutuac eta beste onelaco gauzac, cergatic onela cumplicen da justicia, ezayola eguin bear⁶⁶¹ proximoari injuriaric, ez obraz, ez itzaz, ez pensamentuz eta ez deseoz.

G. Cergatic munduko legeatan ezta provivicen beiñ ere deseoa, Jaungoicoaren leguean vezala?

<106r> E. Cergatic guizonac itzanagatic ere, Aita Santuac, regueac edo emperadoreac eztitue ecusten viozac, baicic bacarric aguirri dena. Eta argatic nola etzin juzgatu dicequen pensamentuac eta deseoa, etzin castigatu ere dizequea. Eta veragatic etzin provivi dizequea. Baño nola Jaungoicoac ecusten dituan guizonan viozac, castigatu diceque pensamentu eta deseoa gaiztoac. Eta argatic provivicen ditu vere legue divinoan.

Pirro Albaniaco regueac etsan cion Cineas vere ministroari: «Goacen⁶⁶² Roma conquistacera eta romanoac⁶⁶³ sigetacera». ⁶⁶⁴ Etranzun ministroac: «Itzanen da triumpho aundia, baño, jauna, guero zer eguienen dugu?» Etsan zuen regueac: «Con-

⁶⁵³ ciceon] aurretik *cio* taxtaturik.

⁶⁵⁴ dioan] <> lehenago zegoen <e> bat gainean.

⁶⁵⁵ bestela] <la> lerro artean.

⁶⁵⁶ Santa] lerro honetan dauden hiru *santa-k* *S^{ta}* laburdurarekin agertzen dira.

⁶⁵⁷ cion] lerro artean.

⁶⁵⁸ Santa] esk. *S^{ta}*.

⁶⁵⁹ mendian] esk. *mendioan*.

⁶⁶⁰ raizic] <ic> lerro artean.

⁶⁶¹ bear] lerro artean.

⁶⁶² Goacen] <o> eta <a>-ren artean, iduriz, beste letra bat dago taxtaturik.

⁶⁶³ romanoac] esk. *Romonoac*.

⁶⁶⁴ sigetacera] eskuizkribuan irakurketa nahiko ziurra da, baina beharbada *sugetacera* behar luke.

quistatuco dugu Sicilia, ceiñ dagoan urbil. Baño, jauna, Sicilia conquistatuta guerra acabatuco dugu? <106v> Ez por cierto, ez, ez» etsaten zuen regueac, «pasatuco gara Africara, eta conquistatuco ditugu Carthago eta Africaco beste ciudadeac. Auguiz ongui, jauna, eta guero? Viurtuco gara onera eta conquistatuco dugu Grecia. Eta au guzia conseguituta, cer eguiñen dugu? Vici», etsan zuen regueac, «soseguan eta gozatu interesac eta riquezac».⁶⁶⁵ «Baño cer fiñetaco, jauna», etsan zuen ministroac, «dicha au lograceco, pasatu itsasoac, padecitu fatigac eta trabajuac, eta galdu⁶⁶⁶ osasuna? Onetaraco eztuzu asco cere⁶⁶⁷ reinuan? Certaco deseatu besteren interesac, asco baditugu guerenac?»⁶⁶⁸ «Contenta gaitecen» dio San Pabloc, «itzatearequin cer jan eta cer janzi». Jauna, eztugu guc besteric deseacen, baño acaso au deseacen duzu, cergatic au eztuzun, eta au itzan ezquiero norc <107r> daqui cer deseatuco ciñuquean. Eta argatic etsaten du ongui San Bernardoc, mundu onetan itzateac interesac eta riquezac baño itzateco deseоac dañu gueyago eguiten duela. Eta veragatic proseguicen du San Pabloc itzan nai duenac aberasac erorcen direla tentacioan eta Demonioaren lazoan, eta auniz deseо dañoso eta perniciotan, ceiñec guizonac eramatene ditua perdiciona eta erioza tristena, cergatic gaiz guzian zañe dà codicia, ceiñec beñ ere eztuan etsaten «asco da», eta ceiñ seguizeagatic bazuac apartatu ciren fede[ti]c, eta sartu ciren auniz dolore eta trabajutan, ceiñ dituan verequin vicio onec. Au guzia da San Pabloren Doctrina.

Gaizquitu⁶⁶⁹ cen guizon codicioso bat⁶⁷⁰ eta aguindu cioan emateco olicio⁶⁷¹ santua. Joan cen sacerdotea eta oliotu zarazquion veguiac, <107v> verrariac, sudura, aba, escuac; oliaceco aguindu zion atera cicella escuac. Verela atera zuan ezquerreco escua, etsan cion escuñequo escua ere bai, baño etzuan atera nai escuñeco escua. Gueyago gordecen⁶⁷² zuan obapean. Orduan etsan cion: «Eya, Pedro Aharas, atera izazu bi escuac verela». Ateracen cion ezquerreco escua, eta beti gorde escuñeco escua. Larritu sacerdotea, eta etsan cion nescameac: «Jauna, escuñeco escuan dauque gordea diruaren guilza». Miserablea duda gave condenatuco zan vere diruaquin, eta diruan guilzarequin, baño, ala ere, parte arrazove ceucan lance artan ez emateco⁶⁷³ dirua eta diruaren guilza asco sacerdoteri. Bada, badira munduan sacerdoteac, ceiñec daquian ongui explicacen asco personari direnean urbilcen estadu artara. Pater nosterraren peticio au: «egun erozco gueren oguia, egun iguzu».

<108r> Zenon philosoac etsaten zuan rhetorica⁶⁷⁴ zala escua zabaldua vezala, eta dialectica zala escu ura vera itsia vezala. Bata iriquicen denean eta bestea isten deean. Bada nola amar beazac encerracen diren bi escuetan ustean direnean, ala amar mandamentuac encerracen dire bitan: servicean eta amacean Jaungoicoa gauza guzian gañean eta gueren proximoa gueren burua vezala. Escuacgatic Escritura Sagra-

⁶⁶⁵ riquezac] lerro artean *ondasunac* dakar.

⁶⁶⁶ galdu] aurretik *lo* taxtaturik.

⁶⁶⁷ cere: ‘zeure’.

⁶⁶⁸ guerenac] hasieran *guerenean*, ondoren *-ean* taxtatu eta *-ac* erantsi zen lerro artean.

⁶⁶⁹ Paragrafo hau ez dago gaztelaniazko dotrinan.

⁶⁷⁰ bat] lerro artean.

⁶⁷¹ olicio: ‘oliazio, oliadura’.

⁶⁷² gordecen] <de> lerro artean.

⁶⁷³ emateco] azken letra ez da garbi ikusten.

⁶⁷⁴ rhetorica] aurretik taxtaturik *Rherro*.

duan entendicen dira obrac, eta eguiñen dugu bi escutera gueren animaren negocioa, baldin obracen badugu bi mandamentu divino oiequin, evangelioco mancebo noble arc vezala, ceñetan Jesu Christoc etsaten digu bacoizari: «Sartu nai baduzu viciza eternoan, guarda aizazu mandamentuac».

<108v>

Eliza ama santaren mandamentuan explicacioa

Explicaturic Jaungoicoaren legueco mandamentuac, oraiñ eldu da explicacea Elizaren bost mandamentuac, ceiñ Eliza ama santac paratu cituan obequi guardaceco mandamentu divinoac.

G. Ceiñ da lendavicicoa?

E. Meza otsoa enzutea.⁶⁷⁵ Eta mezac ditu iru parte: consagracioa, oblacia eta sumpcioa. Mezan ofrecicen da Christo vera edo aren lecuan sacerdoteac ofrecicen du Aita Jaungoicoari gurutcean ofrecitu zena vera. Baita ere ofrecicen due christau fielac eta, batez ere, mezara asisticen direnac. Ofrecicen da Jesu Christoren pasioaren memorian, graciac emateco, satisfacioan viciacgatic eta purgatorio animacgatic, alcanzaceco gracia eta pecatuan barcacioa, libraceutu mundu onetaco eta besteco gaiz gutzietatic. <109r> Santa Getrudisec ecusi zuan extasi edo revelacio batean meza atsicean Jesu Christo vera, revestituric zegoala, ofrecicen, eta llegatucean ofertoriora, Jaunaren vioza alchatu zala vere pechuaren gañera urezco aldere⁶⁷⁶ baten figuran, eta gacacen⁶⁷⁷ cirela meza enzuten zuan ainguero gua[r]diacoac, aldere purissimo artan paracen cituala egazti churi bazuac, ceiñ ciren aien oracioac. Proseguitu zuan Jesu Christo⁶⁷⁸ jaunac meza, Ama Virginac cantacen zuela *sancus* eta Jaunac goracen cituala escuac, ofrecicen citzaioala⁶⁷⁹ vere Aita Eternoari vere viozean ceuzquen⁶⁸⁰ ofrenda gutziaquin. Arrebaturic santa onela mezan, alzaceco jo zuenean chincharria, viurtu zan veregan⁶⁸¹ eta arquitu zuan. Orduan veguaquin ecusten zuan ura ver vera zela, len arrebatean⁶⁸² espirituan ecusten zuena. Plinioc etsaten du otsoa animalia <109v> gutzian artean golosona eta borazcena, cembat eta gueyen jaten duan, dagoala flacoena. Eta cergatic? Cergatic araguia aban eztuen chiquicen eta gozacen, baicic tragicen eta iristen⁶⁸³ duan chiquitu gave. Eta argatic eztio eguiten provechuric. Ô! Cembat christavec asisticen du mezara, consideratu gave eta pensatu gave cer eguiten duan, ceiñengatic etsan ditequean Jesu Christoc etsan ciona samaritanari: «Zuec adoracen duzue eztaquizuena». «Ez» pensacen due instante batean. Cer eguiten

⁶⁷⁵ enzutea] esk. *encutea*.

⁶⁷⁶ *aldere*: 'aldare'. Testuan bi aldaerak agertzen dira, *aldare* eta *aldere*. OEHn ez da azken hori jasotzen.

⁶⁷⁷ *gacacen*: 'hegaka, hegan egiten'. Gaztelaniaz *volando* jartzen du. Ziurrenik huts baten aurrean gaudie, eta *e-* falta du hitzak; beraz, *egacacen* litzateke behar genukeen forma. Edonola ere, *hegakatu* ez da agertzen OEHn.

⁶⁷⁸ Jesu Christo] lerro artean *Jesu Chto*.

⁶⁷⁹ *citzaioala*] hasieran *ciceoala* zegoen idatzirik; ondoren <e> tatxatu zen, eta bigarren <c> gainean <e> eta lerro artean <za> gehitu.

⁶⁸⁰ *ceuzquen*] lerro artean.

⁶⁸¹ *verean*] <eg> lerro artean.

⁶⁸² *arrebatean*: beharbada *arrebatoan* dela ulertu behar da; gainera, bigarren <e> ordez, bukatu gabeko <o> ere izan liteke. Gaztelaniazkoak ez du ordainik.

⁶⁸³ *iristen*: 'irensten'.

duan eta ez, eguiten due Jauna goracean acto fedeco bat, eta ez caridadeco acto bat. Bada, cer frutu atera vear due, badin badiauquea veren anima gutzia ocupatua veren gaucetan eta negociotan? Iru emacumetaic,⁶⁸⁴ cein ceuden meza enzuten, ecusi zuan religioso batec, viri, ceiñac pensacen zuten⁶⁸⁵ batac Jaunaren bondadean eta besteac Jaunaren Pasioan, aingueruac paratu ciola batari <110r> rosa zuriz eguiñeco coroa bat eta besteari rosa gorriz⁶⁸⁶ eguiñdecoa eta irugarrengoa demonio itsusi batec parras ematen zazquiola buruan golpe bazuac aforru⁶⁸⁷ batzuquin, cergatic etzuan bes-tetan pensacen baicic cer aforru emanen cion eguin vear zuan soñeco bati. Eta zegoan inquieto cergatic etcen verela acabacen meza. San Antoninoc contacen du bi guizon abarrapatu⁶⁸⁸ cituala tempestade eta turmove⁶⁸⁹ audi batec mendi batean, eta adituri c voz espantagarri au, «yo zac, eritu zac», erori zan rayo bat eta il zuan bata, ceiñec egun artan, izanic yaya, etzuan enzun meza. Berriz aditu zan voza, «yo zac, eritu zac», eta eriozaren⁶⁹⁰ esperan zegoala bestea, aditu zuan etsaten: «Etzin dezaquec,⁶⁹¹ cergatic aditu du *eta guizon eguin da*» ceiñ etsaten den mezaren azqueneco evangelioan.⁶⁹²

Jaquiña da⁶⁹³ eguiten duela pecatu mortala <110v> vere culpaz uzten duenac meza enzun⁶⁹⁴ gave, baita ere jarcen denac vorondatez peligroan meza ez entzute-co,⁶⁹⁵ guero egun artan vertan enzuten badu ere.

Dificultadea⁶⁹⁶ dago eguiteco peccatu mortala vorondatez mezaren ceiñ parte utzi vear duen enzun gave. Bada, onetan theologoac eztaude conforme: batzuac etsaten due faltacea epistolaraño dela⁶⁹⁷ pecatu mortala; besteac etsaten due au eztela pecatu mortala, eta nic, zuen artean escrupuluac quenceco, diot faltacea lendavicio evange-lioraño eztela pecatu mortala. Au da, zuec etsaten duzuan vezala, librua aldaceaño, baño emendic aurrera faltacea diot dela pecatu mortala. Aunizec meza ongi enzuten due, baño obe liceteque, beste auniz elizara ezpaldin balira etorcen, eta daudela veren condenacioarequin, baño espera dut etorrico dela beste dembora bat ceñetan etsanen dudan nola enzun <111r> veer den meza.

G. Ceiñ da Eliza amaren vigarrengo mandamentua?

E. Urtean bein, guchienaz, confesacea edo lenago esperacen badu ilceco peligruric, edo comulgatu vear badu. Eguiten duenac vorondatez⁶⁹⁸ confesio gaiztoa, losaz uzten

⁶⁸⁴ emacumetaic] <ta> lerro artean.

⁶⁸⁵ zuten] lerro artean.

⁶⁸⁶ gorriz] esk. *gorric*.

⁶⁸⁷ *aforru*: ‘forru’. OEHn ikus daitekeenez, ez da maiz erabili den hitza.

⁶⁸⁸ *abarrapatu*: ‘harrapatu’ dela dirudi, baina OEHn ez da forma hori jasotzen. Gaztelaniaz *cogidos* dago. Eskuzkribu honetan *arrapatu* agertzen da beste pasarte batuetan.

⁶⁸⁹ *turmove*: ‘trumoi’. OEHn (s.v. *trumoi*) Larraungo aldaeratzat jasotzen da.

⁶⁹⁰ eriozaren] esk. *eriorozaren*.

⁶⁹¹ *dezaquec*] beharbada, hutsa da, *dezaquet-en* ordez.

⁶⁹² Ezaguna da istorio hau eta, besteak beste, mende eta erdi lehenago Beriainek jaso zuen meza en-tzuteko tratatuau.

⁶⁹³ da] lerro artean.

⁶⁹⁴ enzun] esk. *encun*.

⁶⁹⁵ entzuteco] esk. *enztuteco*.

⁶⁹⁶ Dificultadea] esk. *Difucultadea*.

⁶⁹⁷ dela] aurretik taxtaturik *falteat*.

⁶⁹⁸ vorondatez] esk. *vorondatec*.

duela confesatu gave pecatu graveren bat, edo cergatic vere partetic eztuen paratu vear vezalaco cuidadoa⁶⁹⁹ eguiten concienciaren examina edo beste vere culpazco defectoren batengatic, eztu cumplicen mandamentu eta precepto onequin; eta baldin onela pasatu bazayo urtea, dago obligatua laster edo luzatu gave confesacera cumpliceo mandamentu onequin. Eriozaco peligroagatic adicen da noiz [...]e⁷⁰⁰ batec prudencia-requin vildurcen den, etorri daquioqueala <111v> erioza, nola emacume batec lenda-vici[c]oa erdizea⁷⁰¹ espero⁷⁰² duenean, baita ere, beste erdiceatan, baldin izaten baditu erdice necosoac, eta nola batec atsi vear duenean bide luze bat edo navegacio bat.

G. Cein da Eliza⁷⁰³ ama santaren irugarrengo mandamentua?

E. Pazcoa resurrecioetan comulgacea. Dembora au da bi aste: Pazcoaren aurreco astea eta Pazcoaren urrengo astea. Vere parroquia propian comulgacen eztenac, eztu cumplicen mandamentu onequin, ezta ere eztu cumplicen comulgacen denac gaizqui edo sacrilegamente. Comulgaceo vear dire iru gauza: lendavicicoa eguitea baru naturalean, au da vezpera gau egu[e]rditic atsi eta comulgatu artean ezer ez jatea eta edatea, <112r> vezperan ortz arteatan guelditu ciran janari ondarren batzuc pasaceac eztu ausitzen baru au, ezta ere aurpeguria garvicean pasatu cen ur tantac vorondatearen contra; vigarren gauza da jaquitea eta etzagusea nor dien⁷⁰⁴ recivicera, cein den Jesu Christo jaun bat ain altua eta poderosa, nola dagoan ceruan; irugarren gauza da ematea Jaungoicoari graciak, beneficio bat ain audiagatic.

Alemanian apez bat cien gure jaunarequin viaticoaz,⁷⁰⁵ topatu zuan Rodulfo As-purgoco condeac. Eta jetsi zan vere zalditic condea eta paratu zuan atpeza zaldi⁷⁰⁶ gañean, oñez laguncen ciola eta vere caparequin estalcen zuela. Eta leor eguiten ciola, revelatu cion Jaungoicoac conde oni <112v> izanen zela emperadorea, eta auniz regue eta emperadoreren aita. Eta ala guertatu zan. Lisboan Tudesco deicen zioan zacur batec artu zuan verez costumbrea servicecoo aldareco sacramentuari. Jauna cienean viaticozi enfermoren batengana, adicen zuenean ezquillaren otsa, joaten zan verela, eta esperacen cion jaunari enfermoaren echean atarian, eta guero seguicen cion elizaco ateraraño. Paratu cituan medio guziac eragozteco zacurrari, deitu vere nagusiac, bota araguia, baño batec ere etzuan servicen jauna. Elizatic ateraceco ezquilla aditu ezquiero, guziac utziric joaten zan acompañacera, eta baldin iñorc ezpaldin bacion eguiten reverenciaric, itsasten ciceon. Jauna calean pasacean, cavallero bat zegoan zaldi gañean, embestitu cion eta bota zuan zaldi gañetic. Orduan, <113r> zaldiac austi zion anca bat, baño iru ancaren gañean acompañatu zion gure jaunari elizaraño. Ostegun Santuan eta Ostirel Santuan egondu zan ogueta lau orduan santissimoari monumentuan guardian, apartatu gave eta janaz casoric eguin gave. Au egun zuan animalia batec jaunaren reverencion eta veneracion christavec lotsa gaitecen jaun sa-

⁶⁹⁹ cuidadoa] esk. *cuidadea*.

⁷⁰⁰ ...e] beltzune bat dago eta ez da ikusten jartzen duena. Gaztelaniazko bertsioak ez du laguntzen hitza identifikatzten.

⁷⁰¹ erdizea] aurretik tattaturik *ed.*

⁷⁰² espera] esk. *espera*.

⁷⁰³ Eliza] esk. *Ezila*.

⁷⁰⁴ dien: 'doan'.

⁷⁰⁵ viaticoaz] <z>-ren aurretik <c> dago tattaturik.

⁷⁰⁶ zaldi] esk. *caldi*.

cramentuari diogun respeto chiquiagatic. Bada, jaun sacramentua cemba aldi ateracen da elizatic enfermotara sacerdoteac, ez joatean eta ez elizara viurcean, eztuela laguncoco vi mutico besteric?

G. Ceiñ da Ama Eliza santuaren laugarrengo mandamentua?

E. Ama Eliza santac aguinzen duenean barucea. Baruza da ez jatea ez araguiric, ez arraulceric eta ez ezne gauzaric, eta egunean eguitea otordu bat, <113v> cergicat colacioa, ceiñ ezin pasa ditequean zorci onzatic, eztà otordua, baicic refacioa bat, Elizac permituta. Bula duenac jan diceque arraulzac eta ezne gauzac baru dela.

Baruce au, Elizaren mandamentu onetan, eztà beti itzandu modu batean, bada lendavico christauac zapitan eun urtean ezuen jaten eguzquia sartu artean. Eta orduan ere jaten cituan oraíñ colacionaco servicen diguan gauzac. Guero ver[r]eun urtean jaten zuen arratsa aldeco lauetan,⁷⁰⁷ eta iruren eun urtean ordu bietan. Eta guero atsi ciran jaten egurdian, eta oraíñ iruren urtean atsi zan colaciaceco costumbrea, ceiñ permiticen digun gure Eliza ama santac, ceiñen espiritu dan⁷⁰⁸ gu mortificacea eta gularen deseoa desordenatuac garaicea.

Ogeieta bat urte cumplitu artean ezta <114r> obligacionioc baruceco.

G. Ceiñ da Ama Eliza santaren bostgarrengo mandamentua?

E. Amarrenac eta primiciac pagacea, amarrenac eta primiciac eguiten direla oneitic onetic vezala, adiñotic adiñotic⁷⁰⁹ vezala eta charretic charretic vezala. Jaungoicoac ematen dituan vezala. Mandamentu santu au da precepto naturala, precepto divina eta precepto ecclesiasticoa, eta veragatic aiñ claroa, etze iñorc ere eztu uts eguiten mandamentu onen contra ignoranciaz, baicic maliciaz.⁷¹⁰ Eta, argatic, mandamentu onen contra eguiten diren pecatuac erorcen dire Jaungoicoaren iraren azpian, eta itzanen dire castigatuac ondore⁷¹¹ gaiztoaquin. Ala guertatu zan Cain tristearequin. Cain zan necazaria, eta ematen zarazquion Jaungoicoari lurreco fructuetaic charrenac, eta veragatic aren pecatuaren castiguan lurrac <114v> ucatu zion. Sartu ciceon viozean inbi[di]a aiñ aundia vere anaya Abel justoaren contra, eta pasatu zan eguitera pecaturic eta maldaderic aundiana, nola itzandu zan ilcea vere anaya Abel. Eta vere pecatuaren castiguan, corpuz gutzia arrapatu cion icararia batec, ceñequin vere viciza guzian ibilli zan⁷¹² munduan batetic bestera. Eta azquenic erioza triste batequin jo zuan infernua. Ona cer guertu⁷¹³ ciceon Caiñi amarrenac ez eguitetic Jaungoicoari vere videan.

Contra guertatu ciceon Abrahan patriarchari. Patriarca⁷¹⁴ santu onec batalla eta guerra batean garaitu cituan bi regue eta quendu zarazquioan interesa aundiak. Eta in-

⁷⁰⁷ lauetan] esk. *lautean*.

⁷⁰⁸ dan] lerro artean.

⁷⁰⁹ *adiñotic adiñotic*: ‘adiondik adiondik’. Gaztelaniaz ‘mediano’.

⁷¹⁰ maliciaz] esk. *maliaciaz*.

⁷¹¹ *ondore*: ‘ondorio’.

⁷¹² zan] lerro artean.

⁷¹³ guertu] eskuzkribuan hala badio ere, *guertatu* behar lukeela dirudi.

⁷¹⁴ Patriarca] esk. *Patriarco*.

teresa oietatic amarrgarrengo partea eman cion Melquisedec Salengo regueari, cergatic zen Melquisedec Jaungoicoaren sacerdote sumoa.⁷¹⁵ Eta Abranen obsequio au Jaungoicoac aimbeste estimatu <115r> zuan eze bota cion vere bendicioa, alaco moduz eze esan cion Jaungoicoac Abrani, dio Escritura Sagraduac, aumentatuko zuela aren generacioa ceruco itzarrac adiña eta itsasoaren ondarzaco⁷¹⁶ area vezala. Eta Jaungoicoaren bendicioa itzandu zan Abranen interesetan aiñ abundantea eze, etsaten digu Escriturac verac, Abranen ondasunac ya lurrac etzin cabitu cituala. Eta, azquenic,⁷¹⁷ etsan cion Jaungoicoac Abrani aren generaciotic jayoco zala ondasun gutzian javea, Mesias, mundocon redenptorea. Ala guertatu zan. Bada, evangelista sagraduac paracen digunean Jesu Christoren ydalguia Abrahantic atsi eta linea zuzenean contacen darazqui gu begorreta⁷¹⁸ bat generacio, eta azquenic Jesu Christoren yayozea.

Orra Cain tristearen fina, cergatic Jaungoicoac aguindu vezala, amarrenac etzi-tuan egui. ⁷¹⁹ Eta ona Abranen dicha, cergatic <115v> ongui⁷²⁰ egui cituan. Auniquec⁷²¹ imitacen⁷²² due vide onetan Abrahan patriarcha, baño aunizquec eta aunizquec Cain tristea. Eta argatic eguiten ditu dembora gaiztoac eta argatic dire aciendatan eta ganaduetan enfermedadeac eta desgraciac, eta cosecha laburrac eta escasac. Onezaz, veraz, quejacen zan⁷²³ San Agustin vere demboran, eta etsan zuan modu onetan: «Gure aurrecoac cituan cosecha abundanteac, cergatic Jaungoicoari eguiten zarazquioan amarrenenac,⁷²⁴ ya faltatu zarazquio eta ucatu zarazquio Jaungoicoari amarrenac, eta guri ucatu⁷²⁵ digu lurrac.

Evangelico consejuan⁷²⁶ explicacioa

[G.] Mandamentu santuaz campora, evangelio sagraduan bada consejuric viciceco ongui eta perfocioarequin?

E. Badira auniz conseju santuac eta onac, perfocioarequin guardaceco mandamentu <116r> divinoac, baño principalac dire iru: vorondatezco pobreza, castidadea eta obediencia.

G. Certan dago pobrezaren consejua?

E. Ez itzatean gauza propioric, eta lenago ematean hacienda eta interesa guzia pobrai. Eta conseju au Christoc eracusi zuan itzaquin eta exemploarequin, eta guero Christori seguitu cioan apostolu sagraduac eta Jerusalenen lendavicico Christauet. Eta religioso guziac eguiten due votoa guardaceco. San Franciscuren chroniquetan

⁷¹⁵ sumoa] esk. *sumuoa*.

⁷¹⁶ ondarzaco] esk. *ondorzaco*.

⁷¹⁷ azquenic] ez dago garbi zein den azken letra.

⁷¹⁸ *begorreta*: ‘berrogeita’. Hutsa izan daiteke, gainerako guztietan *berrogei* erabiltzen baitu.

⁷¹⁹ egui] lerro artean.

⁷²⁰ ongi] lerro artean.

⁷²¹ Auniquec] <que> afrikatu moduan irakurri behar da.

⁷²² imitacen] esk. *imitaten*.

⁷²³ zan] lerro artean.

⁷²⁴ amarrenenac] bigarren <e> dagoen lekuan, lehenago <g> idatzi zela dirudi.

⁷²⁵ ucatu] esk. *ucatatu*.

⁷²⁶ *Evangelico consejuan*: gaztelaniazko en el consejo evangelico.

leicen da batec trucatu zuela vere habitua canongia batengan,⁷²⁷ baño gaizquitu zan verela, eta ezuan nai izandu confesatu, etsaten zuela condenatua zegoala, cergatic Jaungoicoac deitu zuela estadu bat perfecioagana, eta arc ezuan nai itzandu. Enrique Grandeac contacen du beste mancebo batec utzi zuela religioa vere aitaren reguacgatik, eta illa bat baño <116v> len aita eta semeac viac repente il ziran.⁷²⁸

G. Certan dago castidadearen consejua?

E. Nai itzatean beti purua eta castoa, eta apartacean araguiaren pecatu guzietatic eta matrimoniotic. Conseju au etracusi cigun Jesu Christoc itzaquin eta exemploarequin, eta seguitu zioan Jesu Christori Ama Virginac, San Juan Baup[tis]tac eta apostulu sagradu⁷²⁹ guziac, Jesu Christoc deitu ezquiero. Eta religioso guziac eta sacerdoteac eguiten due voto particulara.

G. Certan dago obedienciaren consejua?

E. Renunciazean vere juicio propioaz eta vere vorondate propioaz eta, evangelio sagraduac etsaten duen vezala, humillacean eta etzaguzean vere etceretza,⁷³⁰ eta subjetacean vere vorondatea superioraren vorondatera, Jaungoicoaren contra ezen guzian. Conseju au Jesu Christoc eracusi zuan itzaquin eta exemploaquin: obedicicen ciola gauza guzietan vere aita eternoari, eta aurra zala sujetacen zala <117r> vere amari eta San Jose aita ordecoari eta ustecoari, ezpaldin bacen ere San Jose aita naturala eta propioa; bada, Jesu Christo jayo zan Maria beti vir[gi]nagandic.

G. Cergatic dire evangelico consejuac iru principalac eta ez gueyago?

E. Cergatic servicen duen quenceco impedimentuac perfeccioarenac, ceiñ dagoan caridadean. Impedimento oiec dire iru: haciendaren amorioa, eta quencen da pobrezarequin; araguiaren gustoan amorioa, eta quencen da castidadearequin; honraren eta podorearen amorioa, eta quencen da obedienciarequin, bada guizonac eztu mundu onetan iru suerte ondasunic baicic: animarenac, corpuzarenac eta campoco ondasunac, nola diren diruac eta beste interesac, ceiñ ematen zarazquion Jaungoicoari pobrezarequin, corpoza castidadearequin eta anima obedienciarequin, eguiten diola Jaungoicoari <117v> sacrificio bat duen guziaz eta disponicen dela al duan perfeciora eta itzatera caridadea eta caridadearequin logracera cerua.

Ama Eliza santaren sacramentuan explicacioa

G. Cembat dire ama Eliza santaren sacramentuac?

E. Dire zazpi.

G. Cein dire?

E. Bauptismoa, confirmacioa, penitencia, comunioa, extremauncioa, ordena⁷³¹ eta matrimonioa.

⁷²⁷ batengan] lehenengo <n> lerro artean.

⁷²⁸ ziran] esk. zaran.

⁷²⁹ sagradu] esk. sagrudu.

⁷³⁰ etceretza: ‘ezereza’.

⁷³¹ ordena] esk. ordona.

G. Cer gauza da sacramentua?

E. Da misterio sagradu bat ceñequin Jaungoicoac ematen digun gracia, eta campora aguercen digun animan barrenean graciac⁷³² eguiten duan efectoa. Baldin ba-guiña gu corpuz gave espiritualac ainguerauc vezala, Jaungoicoac emanen <118r> ci-gun gracia espiritu[al]mente, baño cergatic garan compoduac animaz eta corpuzaz, acomodacen dala Jaungoico gure naturalezarequin, ematen digu gracia, acio campo-co⁷³³ eta corporal bazuan medioz, señec⁷³⁴ semejanzaren batzuan medioz declaracen eta aguercen digua graciac barrenen eguiten duan efectoa, nola bauptismoa, ceñ den sacramentuatic bat, eguiten den corpoza urarequin garbicen dela, eta orduan bertan deicen eta nombracen dela trinidadate santissimoa. Garbiceco ceremoniaren⁷³⁵ medioz, Jaungoicoac ematen du vere gracia, eta infundicen du⁷³⁶ batayecen denaren animan, eta ematen digu entendicera, nola urac garbicen duan corpoza, ala graciac garbicen duela anima mancha eta pecatu guzietatic.

G. Gauza bat⁷³⁷ sacramentua itzateco, cemba condicio bear dira?

<118v> E. Iru gauza edo condicio. Lendavicicoa, itzan dedin ceremonia edo accio bat campora aguercen dena. Vigarrena, ceremonia sagradu onequin Jaungoicoac eman dezan gracia. Irugarrena ceremonia⁷³⁸ onec itzan dezan semejanza ematen den⁷³⁹ graciaren efectoarequin, eta onela presenta dezan eta significa dezan. Eta ala sacramentuac dire zazpi: lendavicoa bauptismoa, vigarrena confirmacioa, irugarrena penitencia, laugarrena comunioa, bostgarrena extrema uncioa, seigarrena ordena eta zazpigarrena matrimonioa. Eta razovea cergatic sacramentuac diren zazpi da, cergatic Jaungoicoac proceditu nai itzandu guri ematean viciza espirituala, viciza corporala ematen digun moduan, viciza temporalaren gañean. Lendavicicoa, preciso da jaiocea;⁷⁴⁰ vigarrena aundicea;⁷⁴¹ irugarrena bat gaizquicen denean sendacea; laugarren atcicea; bostgarrena,⁷⁴² <119r> peleaceco eta guerreaceco vear ditu armac; seigarrena, preciso da⁷⁴³ itzan dedin norc governatu guizonac; zazpigarrena, preciso itzan dedin norc atenditu genero humanoaren conservacioari eta aumentoari, cergatic jayoac il ezquiero, ezpaldin valiz ondorecoric, laster acabatuco⁷⁴⁴ liceque naturaleza humana. Ala guertacen da viciza espiritualean. Lendavicicoa, preciso jayo dedin guregan Jaungoicoaren gracia, eta au eguiten da bauptismoan. Bigarrena, gracia au atci dedin eta fortalezi dedin, eta eguiten confirmacioan. Iru-

⁷³² graciac] aurretik *egui* tatxaturik.

⁷³³ campoco] esk. *compoco*. Aurretik letra bat tatxaturik, iduriz, *a-*.

⁷³⁴ señec: 'zeinek'; gaztelaniaz, *los cuales*.

⁷³⁵ ceremoniaren] esk. *ceremoniaren*.

⁷³⁶ du] lerro artean.

⁷³⁷ bat] lerro artean.

⁷³⁸ ceremonia] esk. *ceromioa*.

⁷³⁹ den] lerro artean.

⁷⁴⁰ jaiocea] esk. *jaiocea*.

⁷⁴¹ aundicea] lerro artean; azpian tatxaturik *atcicea*.

⁷⁴² bostgarrena] *bost* lerro artean; azpian tatxaturik *lau*. Ondoren tatxaturik dago: *guerreatu, eta pe-leatu*. Hurrengo orialdean berriro jartzen du *bostgarren*.

⁷⁴³ da] lerro artean.

⁷⁴⁴ acabatuco] esk. *acabatuco*.

garrena, galcen bada gracia, recobra dedin, eta au eguiten da penitenciaren medaina sagraduarequin. Laugarrena, gracia au aumenta dedin eta manteni dedin, eta au eguiten da comunio sagraduarequin. Bostgarrena, christaua eriozaco demboran arma dedin etsaien⁷⁴⁵ contra, cergicte orduan aundiac dire Demonioaren tentacioac, <119v> eta au eguiten da extrema uncioaquin. Seigarrena, preciso da Elizan itzan dedin norc guiatu eta govenatu gaicen viciza espiritualean, eta au eguiten da sacerdotean ordenarequin. Zazpigarrena, preciso da elizan itzan dedin norc atenditu dezan genero humanoaren eta fielan aumentuari, eta au eguiten matrimonioa-requin.

G. Norc eguin ditu eta arquitu ditu gauza aiñ miragarriac?

E. Sacramentu oiec bacarric arquitu cicequean sabiduria divinoac eta egui Jaungoicoac, ceñec eman dezaquean gracia. Eta argatic Jesu Christoc, ceñ den Jaungoicoa eta guizona, arquitu cituan eta egui cituan. Eta sacramentu gutziac dire conducto eta canale bat vezala, ceñetatic particen eta comunicacen den Jesu Christoren pasioaren virtutea, eta iñorc ere etzin dispensa dezaque Jesu Christoren tesoro infin[it]o onetatic, Jesu Christoc <120r> verac disponitu eta ordenatu duen moduan baicic.

Bauptismoaren explicacioa

G. Eliza amaren sacramentuetan ceiñ da lendavicoa?

E. Bauptismoa.

G. Cergicte sacramentu oni etsaten zayo «Bauptismoa»?

E. Iz au, «Bauptismoa», da iz griego, eta etsan nai du ‘lavatorio’. Eta Elizac beti nai itzan du servitu iz onezaz, cergicte lavatorioa den iz comuna, eta utsacen dena gauza bajoetan. Eta argatic, eta cergicte sacramentu onec itzan dezan izen propioa obequi ezagutua eta veneratua, deicen zayo bauptismoa.

G. Cer gauza da necesario bauptismoarenzat?

E. Guchienean iru gauza, eta cergicte necesidadeco demboretan edoceñec bataie dezaquean, necesario da icastea ongi,⁷⁴⁶ eta guziac iaquin dezan bataiecen. <120v> Lendavicoa, preciso eta necesario da ur naturala bataie[ce]co. Vigarrena, preciso eta necesario da ura botacen⁷⁴⁷ denean bataiecen denaren gañera, batai[e]cen duenac etsan dicen iz oiec: «Nic bataiecen zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren itzenean». Yrugarrena, preciso eta necesario da bata[ie]cen duenac, eduqui dezan intencioa verdaderoa bataie[ce]co. Au da, emateko sacramentua, Christoc instituitu zuena eta Elizac ematen duena, bataiecen duenean, cergicte bacarric eduquico balu intencioa, corpoza garbiceco mancharen batetic, eguienen luque pecatu gravissimoa, eta anima tristea ez liceteque gueldituko eguiazqui bataietua.

⁷⁴⁵ etsaien] zalantza <i></i> ote den.

⁷⁴⁶ ongi] esk. *onigui*.

⁷⁴⁷ botacen] aurretik, tatzaturik, *botacean bataietan denean*.

G. Cer efecto ditu bauptismoac?

E. Ditu iru efecto: lendavicicoa, renobacen du perfectamente guizona, ematen diola Jaungoicoaren gracia, eta <121r> eguiten du len Demonioaren semea zena, Jaungoicoaren semea. Pecataritic eguiten du justoa, eta ez bacarric garvicen du anima culparen mancha guzitic, baita ere libracen du infernuco eta purgatorioco pena guzitic, alako moduz eze bat illen baliz, bataietu te verela, zucen joanen liceteque cerura bein ere pecaturic ezpaldin balu itzandu vezala.

Constantino emperadorea arquicen zen lepra audi batequin, medicuac etsan cioan lepratic sendaceaco remedioa bacarra zuela arcea bañua aurran odolean. Determintatu zuan emperadore onec illeracicea iru milla aur, baño ecusi cituan amestetan⁷⁴⁸ San Pedro eta San Pablo, eta etsan cioan deitu zezala christauan Aita Santua, ceiñ zegoan Soracteco mendian, eta sendatuco zuela. Vialdu zuan Silbreteren⁷⁴⁹ esque, eta santuac atseguratu cion sendatu zuela bañu obean, bauptismoren bañuarquin. Fedean instruituric, bataiecean emperadorea, etcusi zan argui eguzquia <121v> baño claroago,⁷⁵⁰ eta atera zan pilatic aur baten araguiac vezalacoaquin, uzten zuela urean lepra ezcama bat vezalacoa.

G. Ceiñ da bauptismoaren vigarrengo efectoa?

E. Uzten du animan señal espiritual bat, ceiñ ezin quendu ditequean. Eta beti ezagutuco da señal au condenacen dire[ne]tan ere bataietu ezquiero, eta izandu dírenetan Jesu Christoren ardiac. Marcagatic ezagucen dire esclavoac norenac diren, eta orobat ganaduac. Eta argatic bauptismoa etzin recivi diteque beiñ baicic, cergicatic beiñ ere ezta galcen, cergicatic aren efectoa dagoan estampatua animan. Irugarren efectoa da, bauptismoagatic bat sarcen da Elizan, eta semeac vezala participacen ditu Elizaren ondasunac eta eguiten du profesioa christaua itzateco eta obedeciceco Christoren ordez Eliza governacen duenai.

<122r> *G. Auniz da⁷⁵¹ nola bauptismoa ematen zayoan aur jayaperriai,⁷⁵² bada oraindic eztaquia cer recivicen duen?*

E. Aiñ aundia da bauptism[o]aren necesid[ade]a eze recivicen eztuena edo guchianean deseacen eztuena, etzin sartu diteque ceruan. Eta nola aun chi[qui]ac dauden peligroan ilceco erraz eta eztuen capacidaderic bauptismoa deseaceco, necesarioa da bataie ditecen verala. Eta ez jaquinegatic cer recivicen duen, Elizac suplicen du, eta aitavichiac edo amavichiac angatic eranzu du eta prometicen du, eta au asco da; cergicatic Adanen medioz erori guiñen⁷⁵³ peccatuan eta Jaungoicoaren desgracian, bat ere ez guiñiquiela, ala Jaungoicoa contentacen da bauptismoaren eta Elizaren medioz izan gaitecen libreac pecatutic eta viur gaitecen aren graciara eta amistadera, guc ez jaquiñagatic eta ez obartuagatic.

⁷⁴⁸ amestetan: ‘ametsetan’.

⁷⁴⁹ Silbrete: gaztelaniazkoan *San Silvestre* jartzen du.

⁷⁵⁰ claroago] esk. *claroaga*.

⁷⁵¹ da] lerro artean.

⁷⁵² *jayaperriai*: ‘jaioberriari’.

⁷⁵³ guiñen] esk. *guinen*.

<122v> *G. Ceiñ da Ama Eliza santaren vigarrengo sacramentua?*

E. Confirmacioa.

G. Cergati[c] sacramentu oni etsaten zayo «confirmacioa» edo «chrisma»?

E. Deicen eta esaten zayo «confirmacioa», cergicatik aren efectoa den guizona confirmacea fedean, eta «chrisma», ceiñec griegoan lenguajearen esan nai duen «uncioa», cergicatik ungenicen edo untacen den confirmacien denaren copeta, cergicatik, nola baup-tismoan garvicen den urarequin bataiecen dena, cergicatik graciak garvicen duen anima pecatuaren mancha guzietatic. Ala, confirmacioan chrismarequin untacen da confirmatuaren copeta, adicera emateko graciak, untacen duela, anima fortificacien eta confortacien duela peleaceko Demonioaren contra, eta confesaceko fede santua firmequi eta vildur gave, tormentuetan⁷⁵⁴ eta eriozaren⁷⁵⁵ ere. <123r> Vaso bat chrisma sagraudarequin, Donatista heregeac leyo auguz altu batetik bota zuen calera, eta etzen ausi. Clodoveo reguea San Remigio obispoak bataietu zuenean acuditu zuen ambeste gendek eze iñora re etzin eman citequean paso bat. Aztu ciceon santuari reguea verela confirmaceko⁷⁵⁶ chrisma, eta etzen erraz eracarcea. Eta penaturic santuak alchatu ci-tuan veguiak cerura, eta ecusi zuen utsu⁷⁵⁷ bat elurra bezain zuria eldu zala botella bat chrismaz betearequin, ceñequin confirmatu zuen reguea.

G. Ceiñ demboraz recivitu veár da sacramentu au?

E. Bat uso razovezcora llegacen denean, cergicatik orduan atsicen da fedea confesacien eta necesidadea du itzateko confirmatua eta confortatua Jaungoicoaren graciak, baño, ala ere, recivitu veár da ocasiao denean, cergicatik obispo jaunak beti dembora artan etcin eman dezaquea <123v> confirmacio, cergicatik obispoak dituen lan aun-diac, bada Iruñeko obispadoak ere baditu milla eta amar parroquia.⁷⁵⁸ Eta argatik ocasiao denean galdu gave recivitu veár da confirmacioa.

G. Anima fortificaceaz campora, badu confirmacioac beste efectorik?

E. Bai, jauna. Uzten du animan⁷⁵⁹ señale espiritual bat, ceiñ beiñ ere quenduco eta borratuko ez dan⁷⁶⁰ animatic. Eta argatik confirmacioa etzin recivi diteque beiñ bestetan.

G. Cer necesidade da⁷⁶¹ animan estampa dedin beste señalea? Cer, eztà asco animan baup-tismoac utzi zuen lendavicico señalea?

E.⁷⁶² Ez, jauna, cergicatik baup-tismoko lendavico señaleagatik ezagucen da bat dela christaua eta Christoren familiacoa, baño confirmacioko vigarren señaleagatik etzagutu.

⁷⁵⁴ tormentuetan] <et> lerro artean.

⁷⁵⁵ eriozaren] aurretik tatxaturik ez.

⁷⁵⁶ confirmaceko] <ceco> lerro artean.

⁷⁵⁷ utsu: ‘uso’.

⁷⁵⁸ Azken esaldi hau itzultzialeak gehitu du, Nafarroaren egoeraren berri emateko.

⁷⁵⁹ animan] azken <n> lerro artean.

⁷⁶⁰ ez dan] lerro artean.

⁷⁶¹ da] lerro artean.

⁷⁶² E.] esk. galderaren jarraian, paragrafoa bereizi gabe, idatzia.

cen da dela Jesu Christoren soldadua eta dacarrela animan vere <124r> capitaren señalea eta insignia, nola soldaduac veren soñecoan gañean. Eta argatic confirmatuac infernuan itzanen due pena eta confusioa auguiz aundia, cergicat egun duen profesioa itzateco Jesu Christoren soldaduac, eta guero aren contra revelatu diren eta Jesu Christoren banderatic desertatu diren.

G. Ceiñ da Eliza ama santaren irugarrengo sacramentua?

E. Penitencia.

G. Cer gauza sacramentu au?

E. Penitenciac significacen ditu iru gauza. Lendavicicoa, virtute bat ceiñen medioz guizona arrepentien dan⁷⁶³ vere pecatuaz, eta vicio contrarioari deicen zayo impenitencia. Vigarrena, pena eta afilio bat guizonac arcen duena⁷⁶⁴ emateco satisfacia Jaungoicoari gaizqui eguinaz. Eta ala esaten dugu batec <124v> eguiten duela penitencia aundia baldin auniz barucen badu eta auniz mortificacen bada. Irugarrrena, penitenciac significacen du⁷⁶⁵ sacramentu bat Christoc eguiña⁷⁶⁶ edo instruitua⁷⁶⁷ barcaceco pecatuac bauptismoa ezquero galdu duenai Jaungoicoaren gracia eta damuturic deseacen badue viurcea Jaungoicoaren graciara.

G. Certan dago principalmente sacramentu au?

E. Vi gauzatan: pecatariaren confesioan eta sacerdotearen absoluci[o]an. Cergicat Jesu Christoc eguiñ ditu sacerdoteac bauptismoa ezquero egun diren pecatuau⁷⁶⁸ fuerzac, eta due autoridadea Jesu Christoren ordez pecatuac barcaceco, baldin confesacen badira, veal vezalaco disposicioarequin. Eta onetan dago sacramentua. Au da, pecatariac esteriormente edo aguirian confesacen ditu vere pecatuac, <125r> eta sacerdoteac ematen dio absoluci[o]a. Ala, Jaungoicoac arengatic interiormente ascacen du anima pecatuau locarritic, viurcen du⁷⁶⁹ vere graciara eta libracen du infernutic.

G. Cer gauza dà necesario sacramentu au reciviceco?

E. Iru gauza: contricioa, confesioa eta sacrificioa, ceiñ diren penitenciaren iru par-teac.

G. Bada, eztà esaten confesio on bat eguiteco vear direla bost gauza? Examina, doloreaa, propositua, confesioa eta satisfacioa?

E. Bai, jauna, baño bost gauza oie reducien eta incluicen dire concilio sagradu Trentocoac dacazquier iru gauzatan, ceiñ diren contricioa, confesioa eta satisfacioa, cergicat damu duenac vere culpaz, suponicen ditu pensatuac examinarequin. Eta doloreagatic dio concilio sagraduac itzan vear duela ez gueyago pecaturic, propositua-

⁷⁶³ dan] lerro artean.

⁷⁶⁴ duena] aurretik tatxaturik duela.

⁷⁶⁵ du] lerro artean.

⁷⁶⁶ eguiña] esk. <c> dago tatxaturik hitzaren akabuan.

⁷⁶⁷ instruitua] esk. <c> dago tatxaturik hitzaren akabuan.

⁷⁶⁸ pecatuau] hasieran *pecatuauac* idatzi zen, ondoren <ac> tatxatu.

⁷⁶⁹ du] lerro artean.

requin.⁷⁷⁰ Bada, animo⁷⁷¹ edo deseо au ezin aparta diteque doloretic, eta apartacen bada, orduan dolorea eztа asco confesio onarenzat.

<125v> G. Cer gauza da pecatuua examiña?

E. Bat oroicea vere pecatuaz, cer especiatacoac diren eta cembaт diren eta cer cir-cunstanciacoac. Bat badago ocasio proximoan edo urbilean pecatua eguiteco, edo baldin badu costumbrea eta oitura⁷⁷² pecaturen bat eguitecoa, recorritu manda-mentuac, bacoizaren vere estaduac, obligacioac, izandu dituan negocioac, sartu den echeac eta tratatu duen sujetoaс, vere pensamentuac eta atseguiñac. Eta eximiña onen arguiarequin, bat arquituco da sierpez betea eta inguratua. Eta orduan, dio San Gre-gorioc, atsicen gara damucen culpaz, atsicen garanean pensacen eta averigu[a]cen di-tugu obequi, cuidado aundiagoarequin arrepenticen garanean.

G. Cer cuidado, bada, paratu veар da⁷⁷³ examiñan?

E. Paratu veар da aimbeste cuidado <126r> nola paratuco licetequean negocio bat auguiз aundian. Alaba ezconceco, cer prevenicen eztа aurretic? Cer preguntac eta gal-derac? Cer informe eztа escacen? Cer eztа discurrinen? Censoan paraceco eun, milla edo amar milla ducat, lenagotic cer diligenciac eztira eguiten? Haciendac edo fincac ambeste valio duen, lenagoco censoric duen, izan ditequean enganioric. Mayorazco bateco pleitua conseguiceco, cer antigу[ed]adeac⁷⁷⁴ eztire revolbicen?⁷⁷⁵ Cer diligen-ciac eztire eguiten? Cer aidetasuan eta derechoac eztire villacen? Bada, mayorazco censoa eta alaba guziac batean eztue importacen, eximiñaren negocio onec adiña, ceñetan dagoan anima eguitea Jesu Christoren espresa, ceñetan dagoan censu bat pa-racen gloria eternoaren finca seguroan eta conseguicean Jaungoicoaren mayorazcoa. O! Cein ongi paratuteco⁷⁷⁶ cuidadoa. O! Cein ongi empleatuteco <126v> dili-gencia! Baño beiñ paratu ezquero veар den cuidadoa, confesatu gave uzten diren pe-catuac, acordatu gavez edo beste causaz, barcacen ditu Jaungoicoaren misericordiac, ceñec bacarric escacen digun para dezagula al dugun cuidado eta diligencia. Eta dugu obligacioa urrengó confesioan confesaceco oroicen bagara. Contacen du San Juan Climacoc monge batengatic, ceñec pasatu cituan⁷⁷⁷ desiertoan⁷⁷⁸ verroguei urte vi-ciza santa bat eguiten, eta eriozaco demboran arquitu zela congojaz beteric. Eta nola ecusten bazuan acusadore bat, esaten zuan: «Ala da, baño confesatu nincen». Beste gauza bati acusadoreanari esaten zion guezurra: «Dioc, guezurra. Dioc: «Eztiat eguin», eta eztuc cer eranzun, baicic valia daquidela Jaungoicoaren misericordia». Eta azqueneco asnasea⁷⁷⁹ atera zuan.

⁷⁷⁰ proposituarequin] lerro artean.

⁷⁷¹ animo] lerro artean taxtaturik *proposituarequin*.

⁷⁷² oitura] jarraian <ren> taxtaturik.

⁷⁷³ paratu veар da] esk. *paratu verda da paratu*.

⁷⁷⁴ antiguedadeac] gaztelaniazkoan *antiguedades*.

⁷⁷⁵ revolbicen] aurretek taxtaturik *cer*.

⁷⁷⁶ paratuteco] itxuraz aurretek *paratuteco* idatzi zen, eta ondoren <c> zuzendu <t> jarrita.

⁷⁷⁷ cituan] lerro artean.

⁷⁷⁸ desioertoan] esk. *desiortan*.

⁷⁷⁹ *asnasea*: ‘arnasa’. Larramendik aldaera bera erabili zuen (cf. *OEH*, s.v. *arnasa*). Goizuetako 1753ko sermoian ere aldaera hori agertzen da (Reguero 2015b).

Dolorearen explicacioa

G. Cer gauza da dolorea?

<127r> E. Da damutasun bat Jaungoicoa ofendituaz.

G. Cembat modutecoa da?

E. Bi modutecoa: atricioa eta contricioa.

G. Cer gauza da contricioa?

E. Contricio perfectoa da damu bat, damu guzian gañecoa edo pesadumbre bat pesadumbre guzian gañecoa Jaungoicoa ofendituaz, cergatic Jaungoicoaerez dan aiñ ona, proposituarequin confesaceco eta emendaceco. Bi gauza escacen ditu contricioac, eta bata bestea gave ezta asco. Bata da pecatariari damu daquion eguiazqui bauptrismoa ezquiero eguin dituan pecatu guziaz, ongi examinacen dituala eta pensacen dituala accio guziac, damu duela ez obratua Jaungoicoaren leguearen conforme. Bestea da eduqui dezan propositu firmea pecaturic ez eguiteco gueyago.

<127v> *G. Cer ondasun ematen digu contricioaz verez confesioaz campora?*

E. Contricioa duenari barcacen zazquio pecatuac, entenden dicen da baldin badu animoa confesaceco. Eta au⁷⁸⁰ eztu eguiten atricioac, ceñec bacarric ez gaituan paracen gracian, confesioarequin baicic. Espaniaco⁷⁸¹ ciudadatean⁷⁸² vici zan emacume gazte bat eguzquia vezala ederra vere⁷⁸³ corpuzan⁷⁸⁴ eta Demonioa vezala itsusia vere animan. Infernu guziaren sarea eguinic galcen zituan animan, edaten zuan vere erioza, jaten zituan vere infamia eta vere escandalaoac. Aditu zuan San Vicente Ferrer predicacen razove viaquin eta fuerteaquin contricio eguiazco baten virtutea eta indarra borraceco culpac, jarceco gracian eta irabazteco gloria. San Vicenteren doctrina adicearequin, sentido gave, emacumea au vera erori zan lurrean, accidente batec eman balio vezala. Acuditu zuen emacumearengana, <128r> eta arquitu zuan illa. Aren eriozac guziaz eguiñ cioan lastima sacramentu gave eta penitenciaren señale gave, eta viciza bat aiñ gaitzoarequin, baño San Viciteñec⁷⁸⁵ etsan cioan il zala contricio eguiazco baten sentimentuz. Eta verela aditu zan cerutic voza bat esaten zuela: «Eztezazuera errege eguiñ orrengatic, baicic encomenda zaitezte orri, cergatic ya da-goan glorian». O, virtute eta indarra eguiazco contricioarena!

G. Cer gauza da atricioa?

E. Da pesar bat edo damu bat Jaugoicoa ofendituarena, infernuaren vildurragatic edo cergatic galdu den cerua eta gloria, edo pecatuaren veraren itsusitasunagatic, proposituarequin confesaceco eta emendaceco.

⁷⁸⁰ au] lerro artean.

⁷⁸¹ Espaniaco] esk. *Espaniaco*.

⁷⁸² batean] <an> lerro artean.

⁷⁸³ vere] ondotik, hurrengo lerroan, *vere* tatxaturik.

⁷⁸⁴ corpuzan] esk. *corpazan*.

⁷⁸⁵ San Viciteñec: gorago San Vicente dago.

G. Cer motivo dire dolorearenzat?

E. Atricioaren motivoak dire: infernuaren vildurtasuna, galcea gloria edo pecatuaren itsusitasuna. Contricioaren motivoa da Jaungoicoaren bondadea, veregan denagatic, <128v> verez aiñ ona, injuriatua creaturac edo pecatariac. Eta au guzia ezaguturic fedearequin, itzan dedin dolorea sobrenaturala, bada eztà asco dolore naturala.

G. Nola, bada, ezagutuco da⁷⁸⁶ dolore eguiazcoa?

E. Gauza onetan ascoren artean da ignorancia auniz. Esclaco velz bat acusatu zan ostu zuela platera zillarreco bat. Galdetu cion confesoreac eya damu zuen, eta eranzun cion sereno: «Nic eztut damuric, nere nagusiac du damu». Cardenale santu batec visitatu zuen vere adisquide bat, ceiñ pecatu batengatic erori zan enfermedade batean. Eta exortcituric aren animaren remedioa zala contricio eguiázco bat, enfermoa etsan cion cer zan contricioa. Explicaturic, erantzun cion etzuela entendicen, eta ez cegoala⁷⁸⁷ artaco eta ala il zan.

Izanen da, bada, dolore eguiazcoa etsan dituden motivoacgatic, eta ez bestegatik. Damu zayo napurrari, cergatic napurrariacgatic deramen hurcavera? Deshonestoari <129r>, cergatic enfermo erori den obace bat? Doncellari, cergatic galdu duan vere virginidade[a]? Alargunari, cergatic gal[du] duan vere honra? Motivo ongatic sentituco balue pecatu eguna eta eguinen balue Santa Maria Madalenac baño⁷⁸⁸ negar gueyago, ala ere, dolore eta sentimentu au ez liceque izanen asco confesio eguiazcoarenzat eta, al contrario, bai esan ditudan motivoacgatic ez sentituagatic. Diot, San Pio V catecismo romanoaquín, eztela import dolorea, ez izanagatic sensiblea, itzateco⁷⁸⁹ eguiazcoa, cergatic ezten corpuzaco dolorea, baicic animacoa. Auniz asustacen dire, cergatic uste duen etzuela veren pecatuan doloreric, cergatic eztuen eguiten negarric, cergatic eztiren enterneccien eta cergatic veren viozeten eztuan deseacen dituan ansia eta congoja aiec.

Eta esanen due: «Baldin dolore onec izan vear badu damu batec, damu guzian gañecoac Jaungoicoa ofenditua, nic eztut senticen». Baño esadazu: «An, zere viozaren ondo-ondoan eztu[zu] senticen pecatua eguiña, edo cergatic Jaungoicoa <129v> den ona, edo cergatic vildur duzun infernuaz, edo cergatic galdu duzun gracia eta ceruco gloria, edo cergatic pecatua den aiñ itsusia? Ezagucen duzua dela egui, cergatic Jaungoicoac revelatu duen eta Elizac esaten dizun ori bai esanen duzu? Bada, nic esaten dizut baduzula dolore eguiazcoa, cergatic dolorearen audi-tasuna eztago principalmente senticean, baicic⁷⁹⁰ estimacioan eta aprecioan». Cavallero batec ditu bi seme, bata primogenitoa eta ya guizon eguna eta aitaren echearen honra, eta bestea aurra bacarric urte betecoa. Biac dire semeac, baño chiquiac eramaten ditu cariñoac eta cuidado guziac eta zarrari etzayo eguiten agasajoric. Ceiñ uste duzua dela maiteana? Guertatuco baliz casoa galceco bat edo bestea, laster ecusi liceteque. «Bie⁷⁹¹ gaztea» esanen luque aitac, «eztit eguiten faltaric, eta geldi bidi zarra

⁷⁸⁶ da] lerro artean.

⁷⁸⁷ cegoala] <co> lerro artean.

⁷⁸⁸ baño] lerro artean.

⁷⁸⁹ itzateco] esk. *itzatececo*.

⁷⁹⁰ baicic] aurretik tattaturik *ba*.

⁷⁹¹ *Bie*: ‘joan dadila, doala’.

nere echean». Bada ori zan amorio guzia? Bai. Chiquiari cion amoria zen verogoa eta intensogoa, eta audiari cion amorioa zen <130r> estimatugoa eta aprecio gueyaocoa eta veragatic valiosogoa.

Proposituaren explicacioa

G. Cer gauza da propositua?

E. Animo bat pecaturic gueyago ez eguitecoa.

G. Nola itzanen da eguiazcoa?

E. Baldin bada propositua universal, firmea eta eficaza. Universal, au da, pecatu guziana, bat ere utzi gave. Cromacio, San Tiburcio gloriosoaren aita, zegoan gaizqui, eta escatu zion otsasuna San Sebastiani. «Emanen dizut» esan cion santuac, «bal-din zere echetic botacen badituzu idoloac». Joan zan eta puscatu cituan idoloac, baño bat ceñi cion cariñoric audiiana gorde zuan. Recivitu zuan bendi[ci]oa eta etzan sendatu. Quexaturic santuari, eranzun cion eya idolo guziac ausi cituan. Confasatu cion bat ezuela ausi. Puscatu zuan eta guelditu zan sendaturic. Onela gueldituco dire⁷⁹² animac sendaturic penitenciaco medicinarequin. Baño <130v> viozean gueldicen bada cariño gueyenacoa, idolo ori, amistade ori, trato ori, pasio dominante eta costumbre gaizto ori, o!, propositu gaiztoa, firmea eta eficaza, alako moduz etze egon vear du determinaturic beiñ ere gueyago pecaturic ez eguiteco edocin lecutan, ocasian eta circunstanciatan, ez gustoagatic, ez interesagatic, ezta viciza veragatic ere. Propositu oni veguiratu vear zayo, etsaten balizua vezala torre altu batetic salta zaitez-tela. Saltatuco ciñetequea?⁷⁹³ Ez, suertez ere. Onela, bada, vear du gueyago pecaturic ez eguiteco determinacioac.

Nic badut propositua, baño ezagucen dut nere fragilidadea, ecusten dut nere miseria, obarcen naiz nere lenagoco eroriaz, eta ezin sifistetu dut eztudela gueyago pecaturic eguiñen. Vorondatea eta entendimentua dire potencia diferenteac: vorondateac proponicen du eta entendimentuac ezagucen du. Vorondatea <131r> dago determinatua pecaturic ez eguiteco gueyago? Bai, bada, entendimentuac ezagutuagatic peligro oriac,⁷⁹⁴ orrengatic itzan diteque propositua verdadero. General batec batalla presentacean eta ematean daukee victoria ciertoa? Ez, al contrario, dago vil-durraz betea guerraren contingencian eta suertean, baño orrengatic eztu propositua eguiazcoa, victoria irabaztecoa? Bay.

G. Certan ecusten da, propositua den eficaza?

E. Medioric onena etzaguceco, Santo Thomasec etsaten du⁷⁹⁵ dela obretan paratu dezan cuidad[o]a, aplica dizen diligenciac, artu dicen medioac, verac daquizquinac edo confesoreac ematen darazquinonac emendaceco.

⁷⁹² dire] lerro artean.

⁷⁹³ ciñetequea] esk. *cinetequa*.

⁷⁹⁴ peligro oriac: ‘arrisku horiek’. Esk. *peligroriac*, eta <o> bat lerro artean sartua.

⁷⁹⁵ du] lerro artean.

G. Erorcen bada pecatu ver veretan, itzandu zan propositua verdaderoa?

E. Ori eztà señale ona, baño orrengatic ere propositua izan citequean eguiazcoa. Penitenteac paratu bacituan medioac <131v> pecaturic ez⁷⁹⁶ eguiteco, eta ala erori bacen flacoa vezala,⁷⁹⁷ emacumeac⁷⁹⁸ botacen dituanac maldicioac escacen badu gracia ez botaceco, beiñ botacen badu eta verela arrepentituric esaten badu «O! Jauna, ecusten dut maldicioa eguin dudela, baño eztut gueyago eguin». Vista deshonestoarequin veguiracen, veguiracean, pecatu eguiten duenac eta verela proponicen due-nac ez viurcea, eta fragila vezala,⁷⁹⁹ modu onetan viurcea, eztà cergatic ezan izandu eguiazco propositua. Baño contra dà, baldin ezpada paracen batere cuidadoric ez erorceco, señalea da, propositua ezela izandu ona, eta ezta ere confesioa.

Baño pecatuac badire quenceco gaiztoac, nola diren costumbrezco pecatuac, izan vear du⁸⁰⁰ phisqueca phisqueca. Cardenale bat zegoan costumbre gaizto batean, eta esan cion San Bernardino de Senari, ezin garaitu zuela. Eta santuac esan cion⁸⁰¹ emanciozala itza iru egunaz garaizeco, Jesusen <132r> amorioz. Galdetu cion eya nola joan ciceon, eta eranzun cion dificultade aundiarequin garaitu zuela. Norc, bada, eztu ga[ra]ituco beste iru egunaz, Maria santissimaren amorioagatic? Ofrecitu zuan eta garaitu zuan. Orduan santuac, pasatu dituanac sei egun pecaturic eguin gave, eztitu pasatuco beste iru egun San Miguelen honran? «O! auniz da» cion, baño probatu zan, eta errazago pasatu cituan, eta orduan determinatu zuan otsoro uztea vere costumbre gaiztoa.

Baño costumbreari añadiden bazayo ocasiaoa, dio san Agustíñec pecatuac eztirela quencen, baicic gueldicen. Eta orduan propositua itzanen da gaiztoa. Eta caminan-tearen⁸⁰² alforcac vezalacoa,⁸⁰³ ceíñec botacen dituan erreccaren beste aldera, baño errecca pasatu te verela berriz arceco. Ala, aunizquec pasacen due Garizuma, botacen duela zacula confesio aparente batean, eta guero arceco Pazco ondoan, veren lenago-co⁸⁰⁴ tratoatan,⁸⁰⁵ <132v> costumbreatan, ocasioetan eta dambolin suñu orretan. Ez-titua verac bacarric culpac, baita ere absolvicen dituan confesoreac.

Confesioaren explicacioa

G. Cer esan nai du confesioac?

E. Pecataria ezedilla contentatu contricioarequin, baicic dijoala⁸⁰⁶ sacerdotearen ofetara Magdalena Christoren ofetara vezala eta esan dicela vere pecatuac, añaditu

⁷⁹⁶ ez] lerro artean.

⁷⁹⁷ vezala] aurretik taxtaturik *vela*.

⁷⁹⁸ emacumeac] aurretik hiru letra taxtaturik, agian *eta*.

⁷⁹⁹ vezala] lerro artean.

⁸⁰⁰ du] lerro artean.

⁸⁰¹ cion] lerro artean.

⁸⁰² -ren] lerro artean.

⁸⁰³ vezalacoa] <coa> lerro artean.

⁸⁰⁴ lenagoco] <go> lerro artean.

⁸⁰⁵ tratoatan] esk. *trato-* <132v> *teatan*.

⁸⁰⁶ dijoala] <la> lerro artean. Orain arte *joan* aditzaren beste adizki batzuk, *-jo-* gabekoak, erabili ditu. Honetaz gain, hurrengo paragrafoan *cijoala* dakar, baina esaldi berean *cin* ‘zihoan’ dauka.

gave, quendu gave eta guezurric esan gave, sencillamente besteai culpa bota gave, eta iz alper gave eta pecatu guziac, bat ere utzi gave, cembat diren eta cer circunstancialcoac diren, oroicen den guzian, lotsarequin eta humildadearequin, ez historia bat contacen den vezala, baicic gauza lotsagarriac eta indignoac christau batenzat eta es-
cacen duela barcacioa.

Aleyderi pecatari aundia cijoala⁸⁰⁷ confesacera galdetu cion Demoniac nora cin.⁸⁰⁸ Eta erazun cion: «Nere burua eta ii confundicera». O, cer humildadea! <133r> «Joaten zaranean zere aita espiritualaren ofetara», esaten du San Francisco de Salesec, «imaginatu vear duzu zaudela Calvarico mendian, Jesu Christo crucificatuaren ofetan, ceñen odol preciosa erorcen den zure gañean, alde guzietatic garviceco zure culpac».

Batzuan confesioac dio San Pedro Damianoc direla defensac, cergicat defendien diren, escusacen diren eta pecatuac guchicen dituan. Diogenesen discipulu bat zegoan tabernaco⁸⁰⁹ atarian, eta andic pasacean vere maisua lotsatu zan, eta ez cezan ecusi tabernaco atean, sartu zan barrena. Ecusi zuan, eta esan cion: «Cembat eta ezcutacen aizean, ago tabernan barrenago». Ala, zu cembat eta gueyago escusacen zaran, zaude culpan eta pecatuan sartuagoa».⁸¹⁰ «Acusacen bazara», dio San Gregorioc, «Jaungoicoac escusacen zaitu. Eta escusacen bazara, Jaungoicoac acusacen zaitu, ceñec gueyago valio du». «Escusaceco, bada, escusac pecatuetan», dio Davidec, «esazquizu⁸¹¹ sencillamente». Besteak confesioac, proseguien <133v> du⁸¹² San Pedro Damianoc, direla ofensac besteri culpa botacen diola. Acusaceco enfado batez edo maldicio batez, etsacen due: «Jauna, dut guizon bat gaiztoa, nic eguindako gauzaric batere eztarama⁸¹³ onzat, taberna ust batà. Iz bat onez esaten badiot, maldicioac eguiten ditu. Badut amaguiar bat auguiz impertinentea eta carroña, seme bat perversoa eta desobedientea». Besteak añadiecen due: «Diabruac⁸¹⁴ tentatu ninduan», ceñ quejatu dan bi aldiz baño gueyagotan falso testimonioaz. Bada, ura gueldiric dagoala, verac erorcen dira pecatuetan. Beste batzuan confesioac eztire besteric baicic confusio batzuac, cergicat eztituan ongui pensacen culpac. Eta explicacio gaiztoagatic batzuetan confesoreac eguiten badioa galderaren⁸¹⁵ bat gauza garvian aguerceco, arquicen dire arranzatuac. Tapacen due eta confundicen due len esan duena.⁸¹⁶ Calamar esaten dioan arrai batengatic esaten du Plinioc dela auguiz gaitza <134r> arranzaceco, cergicat itsasteco demboran botacen du abatic tinta belz bat ceñequin enturbiacen duen ur guzia. Baño lastima da, onequin eguiten ditua confesio sacrilegoac, eta ezagu diteque gueldicen diren satiscacio chiquian.

⁸⁰⁷ cijoala] <joa> lerro artean. Ik. arestiko oharra.

⁸⁰⁸ cin: ‘zihoan’.

⁸⁰⁹ tabernaco] hasieran *tarbenaco* idatzia, ondoren <r> tatxatu eta lerro artean erantsia, dagokion lekuian.

⁸¹⁰ sartuagoa] lerro artean.

⁸¹¹ esazquizu: ‘esan itzazu’. *Ezan aditzaren formaren -it- ordez -zki- erabiltzea goi-nafarrerazko testuetan ohikoa da; batez ere, XVIII. mendetik aurrera. Goi-nafarreratik kanpo, Zaraitzun, Lapurdiko ekialdean eta Nafarroa Beherean ere badago (Reguero 2019: 455). Mikelestorenak, esate baterako, gisa horretako adibideak erabili zituen.

⁸¹² du] lerro artean.

⁸¹³ eztarama] <ra> lerro artean.

⁸¹⁴ Diabruac] ematen du *Diabruiac* jartzet duela eskuizkribuan.

⁸¹⁵ galderaren] esk. *galdereraren*.

⁸¹⁶ duena] <na> lerro artean.

Izan vear du confesioac otsoac⁸¹⁷ pecatu guzienac. «Nic paratu⁸¹⁸ nuan» dio Jesu Christoc, «guizona guzia, otsoa». Finjiten⁸¹⁹ due Hercules[ec] il zuela zazpi buru cituan sierpe bat golpe batean, ebaquicen zarazquiola zazpi buruac, cergicatic sierpearri ebaquicen bazioan buru bat, andic yaiocen cizquion⁸²⁰ beste zazpi buru. Ala, vere animan dauzquenac zazpi pecatu mortalen sierpea, bat confesacen badu eta uzten baditu bestear confesatu gave, eztu ilcen, baicic andic jayocen zarazquio sacrilegioaren eta guezurracen mostruo espantagarri⁸²¹ eta horrendoac. Zazpi demonio cituan batetic, ez cituan bota seiac Christoc, baicic zazpiac. Dio San Agustiñec adicera ematen duela⁸²² batetan bota vear duela pecatu guziac. <134v> Confesioac izan vear du lotsatiac, lotsacen dela penitentea, pecatua eguiñaz, baño ez esateaz culpac eta pecatuac confesoreari. Guizon santu batec ecusi zuan Demonioa zebillela auguiz solicito confesonario batetic bestera, eta esan cion: «Cer eguiten duc, malditoa?» Eta eranzun cion: «Nabil viurcen oiei quendu nioana. Quendu nioan lotsa pecatua eguiteco, eta oraiñ viurcen dioat, eztezan confesatu». Enfermo bazuetan, esaten du Hipocratesec abatic ez botacea podredumbrea edo guelditza pechuan⁸²³ dela eriozaren señalea. Ala da animaren eriozaren señalea, pechuan gueldicea pecatua ciquintasuna, abatic bota gave confesorearen oñetan. Paviaco ciudadean San Bernardoc conjuratu zuan endominiatu bat, ceñec esan zuan cituala iru demonio, batari cerizquion⁸²⁴ «cierra bolsac», ceñec procuracen zuan etzezala eguin restitucioric besteren gauzaz; besteari cerizquion «cierra abac», lotsaz etcicen confesatu peccatuc eta besteari cerizquion⁸²⁵ «cierra viozac» <135r> etziten arrepentitu, eta ez bar[ca]cioa esperatu eriozaco orduan ere.

«Cerzaz corricen⁸²⁶ eta lotsacen zara guizona?», esaten zuan San Agustinec, «niri pecatuac confesaceaz? Ni naiz peccataria zu vezala». Confesoreac aditu ditu⁸²⁷ peccatu itsu[s]iagoac, eta mundu guziagatic ere iñori etcin esan diozaque. Contacen du San Juan Climacoc napur batec lepotico soca zuela berreun eta ogueta amar monjeren presencian confesatu cituala animaliaqueriac eta beste milla abominaleac eta horrosoac, eta monje bate[c] ecusi zuela esatean nola Demonioac borracen cituan quaterno batetic guelditu artean quadernoa guzia zuria.

Confesacen zan señora bat religioso batequin, eta lagunac ecusten zuan pecatu oro, ateracen ciceola abatic zapo bat, eta cicela elizatic campora. Ecusi zuan zapo bat bestear bañu terriblegoa, asi zala⁸²⁸ ateracean abatic, eta berriz⁸²⁹ barrena viurtu ciceola. Eta orduan beste atera cicezquion guztiac absolutioa bota cion bezain laster ecusi cituan <135v> berriz sarcera. Il zan derrepente, eta aguertu ciceon confesoreari,

⁸¹⁷ *otsoac*: ‘osoak’.

⁸¹⁸ *paratu*] jarraian bi letra tattaturik, ziurrenik <an>.

⁸¹⁹ Finjiten] <j> beste letra baten gainean.

⁸²⁰ *cizquion*: hau da -i(n)- laguntzaileko pluraleko adibide bakarra, pertsona horiekin; gainerakoetan *zarazquion* dago. Esk. *citquion*.

⁸²¹ *espantagarri*] jarraian tattaturik *aren*.

⁸²² *duela*] lerro artean.

⁸²³ *guelditza pechuan*] lerro artean.

⁸²⁴ *cerizquion*] esk. *cericquion*.

⁸²⁵ *cerizquion*] esk. *cericquion*.

⁸²⁶ *Corricen*: ‘korri egin’.

⁸²⁷ *ditu*] lerro artean.

⁸²⁸ asi zala] lerro artean.

⁸²⁹ eta berriz] lerro artean.

suzco catez inguratua, dragoi⁸³⁰ baten gañean, illezat cituan suanguilleac eta sierpeac, bi zapo veguietan, cergicat veguiratu zuan vegui deshonestoaquin, bi sierpe pechuetan, lepoa inguracencioala, cergicat erabilli cituan aguertuac, velarrietan suzco bi saietaz aditu eta cantatu cituan canta deshonestoacgatic. Eta esan cion: «Guztietic⁸³¹ libratuko ninzan, baldin lotsaz ezpanu utci pecatua confesatu gave. Ay, nere tristea, betico». Eta ondatu zan infernuan.

Satisfacioaren explicacioa

G. Cer gauza da⁸³² satisfacia?

E. Educicea intencioa eta eguitea confesoreac esaten diona. Eta izan vear du alic ere lasterrena, consideracen duela Jaungoicoac eguiten diola favore eta mesede bat auguiz aundia barcacean pena bat eterno, cein mereci zuan pecatuacgatic <136v> eta contentacen dan pena bat temporalarequin auguiz chiquagoarequin.

G. Satisfacia sacramentuaren cer⁸³³ parte da?

E. Ezta parte esenciala, baicic parte bat integrela; au da, parte bat sacramentua otsacen eta betecen duena, nola den beso bat corpuzaren partea eta besoa ebaquig[at]lic gueldicen da guizona eta corpuza. Eta ala sacramentua izanen da verdadera eta emanen du gracia, penitencia eman ezagatic, baldin ematen bada absolucion, nola naufragio batean edo erioza derrepente guertatzen dan⁸³⁴ batean. Onetaz campora, confesoreac eguiñen luquea pecatua⁸³⁵ ezpaldin balu emanen penitencia, eta penitenteac ezpalu ametituco penitencia. Baño beñ penitencia admititu ezquiero, eta absolucion eman ezquiero, gueldicen da sacramentua valiosoa, penitencia cumplitu ezagatic. Eta orduan eztu obligacioneak confesioa berriceko, baño bai acusaceko <136v> penitencia cumplitu gave egun zuan pecatua, eta penitencia bacen gravea pecatua ere izanen da mortala, eta penitencia bacen lebea, pecatua izanen veniala.

Penitencia medicinala da, nola confesoreac aguincen badu eztedilla sartu one-laco echetan, eztedilla pasatu ataria artarik, eztedilla egon bacarric persona arequin eta beste onelaco gauzac. Eta ezpaldin bada paracen cuidadorik cumpliceko, señalea da propositua izandu zala gaiztoa, baita ere confesioa, baño ez paracen badira medioak eta, ala ere, erorcen bada fragilidadez. Mutil gazte bat acusatu ciceon San Antonio Paduari bere amari eman ciola ostiko bat, eta santuac esan cion: «Mereci luque ebaquicea oñ orrec». Joan cen eta ebaqui zuen bere oña, eta santuac milagroz sendatu cion. Eztu Jaungoicoac escacen onenbeste, baño bai, ebaquicea ocasioaren lazoa, costumbre zarraren cateda, ceñequin Demonioak arrastacen dituan ambeste anima infernura. Hermitaño bat <137r> egondu zan sepultura batean sarturik amar urtean cerrura veguiric alchatu gave flaquezazco pecatua batengatic. Santo Domingo de Loridac

⁸³⁰ *dragoi*: ohart gaitezen hitz honetan -oi bukaera agertzen dela, baina besteetan -obe duela: *razobe, sermobe, turmobe*.

⁸³¹ *guztietic*] <tic> lerro artean.

⁸³² *da*] lerro artean.

⁸³³ *cer*] jarraian letra bat taxtaturik.

⁸³⁴ *guertatzen dan*] lerro artean.

⁸³⁵ *pecatua*] lerro artean.

bere guerria inguratu zuan ilze zorrozcaco cate ba [...]n,⁸³⁶ barucen zela ior, eta ogui garizuman⁸³⁷ [...]zcecen⁸³⁸ citala sei milla azote eta bere viciza guzian, cergatic consentitu zuan vere aitac regalaceaz obispo bati conseguicero beneficio bat, eta nor quejatu da edocin penitencia emanagatik?

G. Cer fruto dacar sacramentu onec?

E. Lau frutu auguiz aundiac. Lendavicoa, Jaungoicoac barcacen darazquigu bautismoa ezquero egindako pecatu guziak eta aldacen edo tru[ca]cen digu infernuco pena, munduko pena temporalean edo purgatoriokoan. Vigarrena, obra onac Jaungoicoaren gracian eguiñac eta galduac pecatuarequin, viurcen zarazquigu, jarren gara libratuak excomuniotic, bagueunden arequin lotuak, ceiñ den pena auguiz aundia, cergatic privacen, apartatzen⁸³⁹ gaituan. <137v> Elizaren oracioaetatic, sacramentuaetatic christau fielaquin itz eguitetic eta elizaren sepulturatic eta otatic guzietatic libracen gaitu sacramentu onec, confesoreac duen autor[itat]eagatic⁸⁴⁰ emana obispoac edo Aita Santuac. Laugarrena,⁸⁴¹ da eguiten gara capaz indulgencian thesoroaz.⁸⁴²

G. Cer gauza da indulgencia?

E. Da liberalidade bat⁸⁴³ Jaungoicoarena vere vicarioaren medioz fielaquin barcacen diola pena guzia edo partea padecitu veear zuena mundu onetan edo purgatorioan.

G. Cer esan nai du plenariac?

E. Barcacen duela pena guzia.

Esclabonian⁸⁴⁴ emacume bat ve[r]reun eta oguei personaquin joan zan irabazteria Jubileo Porciunculako, Maria Santissima aingueruetako Elizako diligenciac eguiñ eti il zan. Eta aguertu zan gloriosa purgatorioan pasatu gave.

*G. Cer esan nai du berroguei eguinaco indulgenciac?*⁸⁴⁵

<138r> E. Irabazten baditugu, barcacen zagula pena, ceiñ barcatuko liceuquean,⁸⁴⁶ berroguei eunean⁸⁴⁷ eguiñ penitencia, antiguo canone sagraduan conforme, ceiñ ciran bi edo iru barau, ur eta ogui zacuz janci eta ibilcea, araguiric ez jatea eta ardoric ez edatea, musiquetara eta festetara ez joatea, eta beste onela mortificacioac.

⁸³⁶ ba...n] lerro azpian orbana dago eta erdiko bi letrak estaltzen ditu.

⁸³⁷ garizuman] <zuz> lerro artean.

⁸³⁸ ...zcecen] orrialdea puntu horretan erreta dago eta ez da hitza osorik ikusten.

⁸³⁹ apartatzen] lerro artean.

⁸⁴⁰ autoritateagatic] orrialdea puntu horretan erreta dago eta ez da hitza osorik ikusten.

⁸⁴¹ Laugarrena] <ga> lerro artean.

⁸⁴² thesoroaz] <so> lerro artean.

⁸⁴³ bat] aurretik taxtaturik *au*.

⁸⁴⁴ *Esclabonia*: Eslavonia, gaurko Kroaziako ekialdean dagoen eskualdea.

⁸⁴⁵ indulgenciac] aurretik taxtaturik *penitenciac*.

⁸⁴⁶ liceuquean: 'litzaigukeen'.

⁸⁴⁷ eunean] lerro artean.

G. Cer vear da indulgenciac irabazteco?

E. Egoitea Jaungoicoaren gracian, eta eztagoana confesacea eta eguitea Aita Santuac aguin duen guzia.

G. Ceiñ maize confesatu vear da?

E. Eliza ama santac aguincen du⁸⁴⁸ urtean beiñ verere confesacea eta comulgatu vear duen[e]an, badago⁸⁴⁹ pecatu mortalean edo erioza peligroan. Eta da gauza ona da⁸⁵⁰ maiz confesacea, cergicat guchitan confesacen dena dificultadearequin ongi confesatuco da.

G. Cer obra onetan eguin vear⁸⁵¹ dira satisfaciceco pecatuagatic?

E. Reducicen dire iru obra generotara, <138v> cein diren oracioa, baraua eta limosna, nola eracusi⁸⁵² cion San Rafael ainguerauc Tobias santuari, eta razove aundia-requin, cergicat izanic⁸⁵³ guizonac anima, corpoza eta beste interesac, oracioarequin ofrecicen dio Jaungoicoari, animaren ondasunac, barauaquin corpuzarenac eta limosnarequin beste interesac. Oracioagatic entendicen da meza enzutea, oficio divinoac, calvarioa visitacea eta beste exercicio espiritualac. Baraugatic entendicen diren corpuzaren mortificacio guziac, cilicioac, disciplinac, lurrean lo eguitea, peregrinacioac eta beste onelaco gauza[c]. Limosnagatic entendicen da edocin caridade edo servicio proximoari eguiten zayona Jaungoicoaren amorioagatic.

G. Obe da Jaungoicoari ematea verez satisfacia obra oquin edo irabaztea indulgenciac?

E. Obe da batec vere personaz satisfacicea, cergicat indulgenciaquin bacarric emanen zayo penaren zorrari, baño obra <139r> oquin merecien da viciza eterno, baño, ala ere, bata eta besteak eguin vear da obra oquin eman satisfacia Jaungoicoari alden guzian eta irabaci indulgenciac.

Eucharistiaren⁸⁵⁴ explicacioa

G. Cer esan nai du Eucharistiac?

E. Eucharistia da itzen griegoa, eta significacen du memoria, atseguiña eta agradablea edo gracian accioa, cergicat misterio onetan eguiten den memoria eta agrade-

⁸⁴⁸ du] lerro artean.

⁸⁴⁹ badago] <go> lerro artean.

⁸⁵⁰ da] lerro artean.

⁸⁵¹ eguin vear] lerro artean.

⁸⁵² eracusi] esk. *eracusicuqui*. Gaztelaniaz *enseño* dago; beraz, euskaraz *eracusi cion* behar genuke. Amaierako -cuqui zer den, ordea, ez da erraza asmatzen. Beharbada, kopiatzean egindako hutsa da, duplografia-edo, baina batean <s> eta bestean <qu> izatea arraro da. Agian, jatorrizko eskuzkribuan lehenik modu batera idatzi zen, eta ondoren zuzendu, baina kopiatzean ez da zuzenketa jaso eta bi formak elkartu dira. Iduriz, <qu> erabil zitekeen txistukariak islatzeko; eskuzkribu honetan *aunizquec* dugu ‘au-nitzek’ adieran.

⁸⁵³ izanic] esk. *izaniz*.

⁸⁵⁴ Eucharistiaren] <sti> lerro artean.

cicen zayon Jaungoicoari Jesu Christoren pasioaren beneficio preciosoa. Eta misterio onetan ematen da aren corpoza eta odol preciosoa. Eta argatic gaude obligatuac beti ematera graciac Jaungoicoari.

G. Explica zazu gueyago cer dagoan sacramentu onetan?

E. Hostia consagratu baño len da ogui⁸⁵⁵ pisca bat, oblea nic bat⁸⁵⁶ eguiña, baño sacerdoteac consagracioco itzac esan eta ondoan dago artan Christo, viciaren corpuz <139v> verdaderoa eta unitua divinidadeari Jaungoicoaren semearen pe[r]sonan. Eta argatic corpuzarequin dago⁸⁵⁷ odola, anima eta divinidadea, eta Christo guzia, Jaungoicoa eta guizona. Calizan consagracioa baño len eztago besteric, baicic ardoa ur tantan batequin, baño consagracioco itzac acabacearequin dago Christoren odol verdaderoa, eta cergicat odola eztagoan corpuzatic campoan, argatic calizan dago Christoren odolarequin junto corpoza, anima eta divinidadea Christoc verarena Jaungoicoa eta guizona.

G. Bada, ecusten dut consagratu eta ondorean hostiac duela oguiaren figura, eta calizan dagoanac duela ardoaren figura?

E. Bai, hostia consagratu gueldicen da oguiaren figura, len zena, baño eztago an oguiaren itzatea eta substancia len zena. Eta, ala, oguiaren figuraren eztago oguiar, baicic Christoren corpoza. Loten emaztea convertitu zan⁸⁵⁸ gacezco estatua batean, eta ecusten zuenac estatua, ecusten zuan emacumearen <140r> figura. Eta orrengatik ere etzen Loten emaztea, baicic gaza, emacumearen figuraren. Ala, bada, nola conversio artan mudatu zan barrengo substancia eta guelditu zan campoco figura, ala misterio onetan mudacen da oguiaren barrengo substancia Jesu Christoren corpuzan eta gueldicen da len zan oguiaren campoco figura. Calizan, orobat, da ardoaren figura, utsaia eta gustoa, baño ezta gueldicen ardoaren substancia, baicic Jesu Christoren odola ardoaren especiareni azpian.

G. Nola Jesu Christoren corpoza ain aundia egon diteque especia bat ain chiquiarena azpian, nola den hostia?

E. Jaungoicoaren podorea aundia da eguiteco guc alcanza al dicequegun gauzac baño gauza audiagoac. Eta, ala, Jesu Christoc esan zuenean evangelioan, Jaungoicoac bacezaqueala eguiñ camello bat, ceíñ dan animalia bat zaldia baño aundia[agoa], pasacea yostorra[tz] batean veguitic, añaditu zuan gauza oiec imposible cirela guizorenatz <140v> baño Jaungoicoarenzat⁸⁵⁹ gutzia dela posible.

G. Explica zazu exemplo batequin nola Christoren corpoza egon ditequean ambeste hostietan eta ambeste aldaretan?

E. Ezta vearric Jaungoicoaren marabillac entendicea. Bada, asco da sinistecea. Ala ere, bat emanen dut gure animarequin. Gure anima da bat bacarra, eta guzia dago

⁸⁵⁵ ogui] jarraian <a> tatxaturik.

⁸⁵⁶ bat] esk. *bate* eta jarraian <quin> tatxaturik.

⁸⁵⁷ dago] lerro artean.

⁸⁵⁸ zan] lerro artean; hitz bat aurrerago berriro dago *zan* lerro artean tatxaturik.

⁸⁵⁹ Jaungoicoarenzat] esk. *Jaungoicoaren zaz.*

corpuzaren miembro guzietan, guzia buruan, guzia oñetan, guzia escuetan eta guzia corpuzaren⁸⁶⁰ beste parte guzietan. Bada, cer da extrañacecoa Jaungoicoac eguiñ dezaquean vere semearen corpoza egotea ambeste hostietan, eguiten badu, egoitea anima bat otsoa eta enteroa corpuzaren ambeste partetan, ain diferenteatan, elcargandic ain aparteatan? Leicen dugu San Antonio Paduagatic arquicen zalaric⁸⁶¹ santu au predicacen Ytalian, dembora artan verean Jaungoicoaren providenciaz⁸⁶² egondu zala Portugalen obra on bat eguiten. Vèraz Jaungoicoac eguin bazuan <141r> San Antonio egoitea dembora batean bi lecuten aiñ aparteatan, cergicte ezin eguin dezaque Christo egoitea auniz hostietan?

G. Christo jarcen denean hostian, vadie cerutic edo an gueldicen da?

E. Eztie cerutic, baicic dago ceruan, eta juntamente hostian. Gure animaren moduan, aur bat egun guchicoa da chiquia eta arraga⁸⁶³ bat vezala, guero accicen da, eta eguiten da⁸⁶⁴ bi arraga eta gueyago. Galdecen dut, arraga bat bacarrean cegoan animac utzi du lendavicico arraga etorceagatic vigarren arragara? Eztu utci eta ezta extenditu, cergicte den indivisiblea, veraz lendavicico arraga utci gave, atsi da egoiten vigarren arragan. Ala Christoc eztu uzten cerua egoiteagatic hostian,⁸⁶⁵ ezta ere hostia bat eztu uzten egoiteagatic beste hostian, baicic dago ceruan eta juntamente hostia guzietan.

G. Cer vear da dignamente reciviceco sacramentu au?

<141v> E. Iru gauza. Lendavicicoa, batec confesa dicen vere pecatuac eta dagoan Jaungoicoaren gracion. Bada, sacramentu au ematen da oguiaren moduan eta forman, cergicte ematen zayoan viciak eta ez illai, Jaungoicoaren gracia sustentaceco eta aumentaceco. Vigarrena, egoitea baru naturalean; au da, vezpera gau erdie atsita ez jan eta edan gave. Irugarrena, jaquin dezagun eta pensatu cer eguiten dugun eta eduki dezagun devocioa misterio bat aiñ audiari; eta argotic ezayoa ematen aurrai eta ezaguzaric eztuenai.

G. Cembał aldiz guchienean⁸⁶⁶ comulgatu vear dugu?

E. Elizaren mandamentua da pazcoa garizumetacon comulgacea, baño on da maiz comulgacea confesorearen consejuarequin.

G. Cer frutu recivicen da eta cer finetaraco Christoc instituitu⁸⁶⁷ eta eguin zuan sacramentu au?

E. Iru motivo eta causagatic. Lendavicicoa, itzan dedin animan sustentoa. <142r> Vigarrena, itzan dedin legue berrico edo evangelioco legueco sacrificioa. Irugarrena, Christoren pasioaren memoria bat perpetua eta vere amorioaren prenda amorosoa.

⁸⁶⁰ corpuzaren] <uz> lerro artean.

⁸⁶¹ zalaric] lerro artean.

⁸⁶² providenciaz] <n> lerro artean.

⁸⁶³ arraga: hemen eta aurrerago arraga erabiltzen da, gaztelaniazko *palmo* hitzaren ordain. OEHn ez da arraga aldaera jasotzen, baina bai arraa bokal bikoitza-rekin.

⁸⁶⁴ da] lerro artean.

⁸⁶⁵ hostian] esk. *hos-/ hostian*.

⁸⁶⁶ guchienean] lerro artean.

⁸⁶⁷ instituitu] esk. *institutu*. Gaztelaniaz *instituyó*.

G. Cer efecto eguiten du animaren sustentoa den partetic?

E. Sustento corporalac corpuzean eguiten duena. Eta argatic ematen da oguiaren especian, cergicat nola oguiac conservacen duen vero naturala, certan dagoan corpuzaren viciza, ala sacramentu onec conservacen eta aumentacen du caridadea, cein den animaren otsasuna eta viciza.

G. Cer efecto eguiten du sacrificioa den partetic?

E. Aplacacen du Jaungoicoa eta alcanzacen ditu auniz beneficio vicienzat eta purgatorioco animanzat. Legue zarrean ofrecicen cicezquion⁸⁶⁸ Jaungoicoari sacrificioac animalianac, baño legue verrian aien lecuan ofrecicen zayo mezaco sacrificioa, ceñetan sacerdotean escutic ofrecicen zayo Jaungoicoari veraren <142v> semearen corpuza eta odola.

G. Cer efecto eguiten du memoria den partetic, eta Jaunaren prenda amorosoa gurezat?

E. Oroitu gaitecen beneficio bat ain aundiaz, eta eracequi gaitecen amorioan, ceñec ambeste⁸⁶⁹ amatu guiñucen. Nola Jaungoicoac antigauco leguean nai itzandu zuan⁸⁷⁰ Ysraeltarrac jan zezan maña⁸⁷¹ cerutic vialdua, eta baita ere aguindu cioan artatic vaso bat betea gorde ze[za]la⁸⁷² Egyptotic ateraceaz eguin cioan beneficioaren memorian. Ala, Jesu Christoc nai itzandu du ez bacarric sacramentu au⁸⁷³ recivi dedin, baita ere⁸⁷⁴ conserva dedin aldarean eta ecarri dedin procesioan, ecustean oroi gaitecen digun amorio infinitoaz.

G. Nola da meza santua compendio bat Jesu Christoren viciza eta pasioarena?

E. Sacerdoteac aldarera eyota esaten duen introituac significacen du patriarcac ceuquen deseoa Jaunaren etorreraren. Esaten dituan *Kyrieisonac* <143r> significacen due patriarca santuac Jesu Christoren etorrera escacean eguiten cituan dedarrac. *Gloria in excelsis* significacen du Jesu Christoren jayoza. Ondorean etsaten dan⁸⁷⁵ oracioac significacen du presentacioa. *Epistolac* significacen du gendeian conversioa. Evangelioac escuñeco aldetic significacen Jesu Christoren predicacioa, ceñec pasatu guiñuzan ezquerreco aldetic escuñecora, gauza temporaletatic eternoatara eta peca[tu]tic graciara. Ecarcen dira arguiac eta incensuac, cergicat evangelioac arguitu zuan mundua, eta bete zuan Jaungoicoaren gloriaren utsai onaz. *Credoac* significacen apostolu sagraduan eta discipuluan conversioa. Isilic esaten diren oracioac significacen due judioan tradicioac. *Prefacioan*⁸⁷⁶ cantacen denac eta ceñ acabacen den⁸⁷⁷

⁸⁶⁸ cicezquion] esk. *cicenquion*.

⁸⁶⁹ ambeste] aurretik tatxaturik *ab*.

⁸⁷⁰ zuan] lerro artean.

⁸⁷¹ *maña*: ‘mana’, Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera (s.v. *mana*) «Jainkoak israeldarrei basamortuan igorri zien janari miragarria». Gaztelaniaz ere *el manà* dator. *OEHn* ez da sabaikaridun aldaera jasotzen.

⁸⁷² gorde zela] lerro artean.

⁸⁷³ au] lerro artean.

⁸⁷⁴ ere] lerro artean.

⁸⁷⁵ dan] lerro artean.

⁸⁷⁶ Prefacioan] <an> tatxaturik.

⁸⁷⁷ den] lerro artean.

etsaten dela «*Hosana in excelsis*» significacen du Jesu Christoren magestadea[c] ramu egunean Jerusalenen eguin zuen entrada <143v> solenea. Secretoan⁸⁷⁸ etsaten diran oracioa[c] Jesu Christoren pasioa, ostia alchaceac Christoren goracea crucean. Hostia particeac significacen du lanzarequin alboan eguin cioan herida. *Agnus deic* significacen du Jesu Christo gurucetic erastean iru Mariac eguin cituen negarrac. Sacerdotearen comunioac Christoren sepultura. Alegriarequin cantacen eta esaten den⁸⁷⁹ post-comunioac significacen du Christoren resurrecioa. *Ite Misaseec* Christoren ascensioa. Sacerdoteac ematen duen bendicioac Espiritu Santuaren etorrera. Azqueneco evangilioac significacen du apostolu sagraduac Espiritu Santuaz beteric eguin zuan predicationa mundu guzitic.

Portugalen, Santarin etsaten dioan ciudadean, emacume bat vere guizonaren discordiacatic izaten cituan penaquin vici zan sarturic infernu batean. Judia emacume echizera bati escatu cion remedio bat sujetaceco leobe ura. Judia embusterac aguindu cion emanen ciola erremedi[o]a,⁸⁸⁰ baldin arc ematen bacion hostia consagratu bat. Comulgacean izandu zuan maña <144r> eramatecoa oial batean, baño videan isurcen zuan odola. Galdecen cioan «Cer deramazu, emacume? Eritu zara?» Joan zan echeria eta sartu zuan caja batean. Gauaz ambeste argui eguiten zuan eze esnatu zan guizona etsaten zuela: «Cer da au?» Emacumeac esan zuan cer zan, eman cioten⁸⁸¹ abisoa, eta gendeaquin etorri zan parrocoa, eta ecusten zuan guzaiagueren ciceoan diferentea: bazuai crucificatua, besteai lotoa colunari. Santa Francisca Romanac ecusi zuan hostia garra bat vezala, ceiñ lurratic allegacen zela ceruraño. Santa Cathalina de Señac ecusi zuan labe bat eraciquia vezala. O, eracequicen balitu gure viozac!

Extrema uncioaren explicacioa

G. Cer gauza da extrema uncioa?

E. Da sacramentu bat Christoc eguna eta instituia enfermoanzat. Eta esaten da «uncioa» cergicatic ungenicen den⁸⁸² enfermoa oleo santuarequin, errezzacen direla oracio batzuac. <144v> Eta esaten da «extrema» cergicatic sacramentuetan den azqueneco uncioa; bada, lendavicia ematen da bauptismoan, vigarrenna confirmacioan, irugarrenna sacerdotean ordenan eta azquena enfermedadean. Eta esan diteque «extrema» cergicatic ematen den viciaren finan edo azquenan.

G. Cer efecto ditu extrema uncioa?

E. Iru efecto. Lendavicicoa, barcacen⁸⁸³ ditu pecatuac, ceiñ gueldicen diran ba-zuetan eta batec confesatuko lituquean, baldin ezagutu balitu eta oroituko baliz. Vigarrenna, alegracen du enfermoa eta confortacen du gaizaren trabajuan eta Demonioaren tentacioan contra. Irugarrenna, ematen dio otsasuna corpuzari, baldin conveni ba[z]yo animari. Eta iru efecto oieci significacen ditu sacramentu onen oliaoac; bada,

⁸⁷⁸ Secretoan] <c> lerro artean.

⁸⁷⁹ den] lerro artean.

⁸⁸⁰ ciola erremedia] lerro artean.

⁸⁸¹ cioten] lerro artean tatxaturik *cioan*.

⁸⁸² den] lerro artean.

⁸⁸³ barcacen] <ca> lerro artean.

confortacen du, alegracen du eta sendacen du Roberto Emperadoreac ilceco gaizqui fundatuteco vildur batengatic escusacen zuan recivicea, baño apenaz recivitu zuan verela sendatu zan eta jequi zan obetic. <145r> San Juan de Diosec Granadaco Hospitallean, ez desconsalaceagic enfermo bat, luzatu zuan pisca bat ematean extrema uncioa. Il zan enfermoa, eta amortajatu zuenean esan cion santuari: «Pobream aita, nere descuidoagatic recivicean sacramentu extrema⁸⁸⁴ unciocoa, egon vear du oguei urtean purgatorioan». Eta verela il zan.

G. Noiz recivitu veар du sacramentu onec?

E. Uts egiten due aunicec ez nai izatean recivitu agoniaco demboraraño. Dembora da reciviceco medicuac eta oficialeac juzgacen duenean enfermedadea dela peligrosoa, eta eztirenean asco remedio naturalac, acudiceco⁸⁸⁵ da remedio espiritual eta celestialatara. Eta ala sendacen da bazuetan oliazio santuarequin; eta ezta⁸⁸⁶ escatu veар eriozaren peligruric ezpada, eta ezta esperatu ere vicizaren esperanzaric ezterao. Eta argatic ezayoa ematen ajusticiatuai, cergatic eztauden gaizqui eta cergatic ezten vicizaren esperanzaric.

<145v> Venerabla Beata Ogniesec ecusi zuan Jesu Christo santua aunicequin confortacen eta animacen enfermoac extrema uncioa ematen cioanean, eta nola cicen ungicen miembroac, betecen cirela edertasunaz eta resplandorez, eta andic botacen cituala demonioac. Maria santissimac untatu zuan Fr. Reginaldo religioso dominico, eta verela sendatu zan religosoa, eta guero vere vicia guzian etzuan sentitu araguiaren tentacioric eta movimenturic desonestoric.

Sacramentu matrimoniocoaren explicacioa

G. Cer gauza da sacramentu matrimoniocoa?

E. Unio bat guizonarena eta emacumearena, ceñec significacen duen⁸⁸⁷ Christoren unioa Elizarequin encarnacioz eta Jaungoicoarena animarenarequin⁸⁸⁸ graziaz.

G. Cer efecto eguiten ditu?

E. Lendavicioa da gracia ongi arceco guizonac emacumea, eta elcar amaceco espiritualmente, nola Christoc amacen duan Eliza <146r> eta Jaungoicoac anima santa. Vigarrengoa gracia, jaquiteco semeac atcicen Jaungoicoaren vildur santuan. Irugarrengoa, eguiten eta produciken du⁸⁸⁹ vinculu bat ain estua guizonaren eta emacumearen artean, ceñ ezten posible escacea, nola ezten posible escacea, Christoren eta Elizaren arteco vinculoa. Iñorc etzin dispensa dezake guizonac utci dezan lendavicio andrea, eta artu dezan bestea; ezta ere emacumeac utci dezan lendacicico guizona eta artu dezan bestea. Eriozac bacarric deseguiten du matrimonioa. Eta, ala, bacarric bata ilcen denean, bestea pasa diteque vigarrengoa, irugarrengoa, laugarrengoa edo gueyagoco ma-

⁸⁸⁴ extrema] esk. *extremau*.

⁸⁸⁵ acudiceco] esk. *acuditeco*.

⁸⁸⁶ ezta] lerro artean.

⁸⁸⁷ duen] lerro artean.

⁸⁸⁸ animarenarequin] lerro artean.

⁸⁸⁹ du] lerro artean.

trimoniora, ambeste compañía ilcen bazazquio. Gauza increiblea diduri, baño gauza ciertoa San Geronimoc contacen duena. Dio santuac ure Roman vici zela, emacume batí il cicezquiola ogueta bi guizon, eta dembora artan verean guizon batec contacen cituan oguei andre⁸⁹⁰ enterratuac. <146v> Azquenic oieciac ezcondre ciran elcarrequin. Publicatu zan lance au Roma guzian, eta zeudan veguira cein ateracen zan vitoriarequin. En fin, lenago il zan emacumea, eta Romaco ciudadeco concurso audi baten artu zuan guizona, eta coronatu zuan lorez. Paratu cioan escuan palma bat, eta triunfoan eraman zuan entierroaren aurretic, ematen cioala norabuena vitoriagatic, con que emacumeac enterratu cituan ogueita vi guizon eta guzonac ogueita bat andre, eta oraindic guelditu zan victoria duden.

G. Cer veiar da ezconceco edo celebraceco matrimonio/a?

E. Iru gauza. Lendavicicoa, personac izan ditecen habillac elcarrequin juntaceco; au da, izan dezan edade legitimoa eta eztitecen izan aideac, laugarrengo gradoaren azpian, eta eztezan izan castidadeco votoric. Vigarrena, matrimonioa⁸⁹¹ celebracen dan⁸⁹² dembora asisti dezan parroco propioac edo aren ordenarequin beste sacerdote batec eta testiguac. Irugarrena, consentimentua viana izan dedin librea eta ez forzatua⁸⁹³ <147r> vildur audiarequin. Eta consentimentu onec izan veiar du declaratuac izequin edo beste señale equivalenteaquin. Eta iru gauza otaric bat falta bada, ezta matrimonioric.

G. Cer da obeagoa ez[c]onquea⁸⁹⁴ edo goardacea castidadea?

E. San Pablo declaratu zuan, esaten duela, juntacen duenac matrimonioan vere alaba, ongi eguiten duela eta ezconcen eztuenac goardaceaagatic virginidadea, obequi eguiten duela, cergatic matrimonioa da gauza humanoa eta virginidadea da aingueruan gauza. Matrimonioa da naturalezaren conforme, baño virginidadea da naturalezaren gañetic, eta ez bacarric virginidadea, baita ere matrimonioa baño obeagoa da alarguntasuna.⁸⁹⁵ Eta ala esaten du Jesu Christoc evangelio sagraduan: «Campo batean ereñ zan atciac, batac eman cituala ogeita amar,⁸⁹⁶ besteac irurogei⁸⁹⁷ eta besteac eman cituala eun».⁸⁹⁸ San Basilioc eta <147v> beste Elizaco Doctoreac esaten due ogueita amar⁸⁹⁹ fruto eman cituan atcia dela matrimonioa, iruroguei eman cituana alargunen estadua eta eun eman cituana virginidadea.

Baño orrengatic eztitu vituperacen San Pablo ezcondre santuac. «Ojola» esaten zuen San Ygnacio Martirec, «aien oñan azpian baguendu⁹⁰⁰ ceruco reinuan». Eta nic,

⁸⁹⁰ andre] lerro artean. Lerroan tattaturik *senar*.

⁸⁹¹ matrimonioa] esk. *motrimonioa*.

⁸⁹² dan] lerro artean.

⁸⁹³ forzatua] esk. *fortatua*.

⁸⁹⁴ *ezconquea*: ‘ezkontzea’, kasu gutxi batzuetan <qu> grafiak txistukaria islatzen du eskuzkribu honetan.

⁸⁹⁵ alarguntasuna] azken <n> lerro artean.

⁸⁹⁶ ogeita amar] aurretik tattaturik *eunenzat*.

⁸⁹⁷ irurogei] aurretik tattaturik *eunenzat*.

⁸⁹⁸ eun] aurretik tattaturik *eunenzat*.

⁸⁹⁹ amar] lerro artean.

⁹⁰⁰ baguendu] esk. *baguendo*; lerro artean.

vioz guziarequin, esaten dut: «Auguiz verago, Franciaco Luis aundian, EspaÑiaco Fernando admirablean, Austriaco Lepoldoan imperioco Enrique eta Conradoan Ysidoro necazarian eta beste aunizen azpian banengo». Necazari bat cegoan batallacen dembora lucean Demonioarequin, etzin botaz vere corpuzatic. Necazari au allegatu zan vezala Egypton Juan Abadeagana, utci cion libre espiritu malignoac, eta admiraturic abade santua[c] galdetu cion cer estadu zuan. Eranzun cion zela ezcondua, eta ocupacen zela campoan necazalzaco trabaju pisuan. «Ongui dago» esan zuan abadeac, «baño orretan nola vici zara? Eta <148r> cere virtute eguiten dituzu?» Eranzun zuan: «Nic eztaquit⁹⁰¹ gauz onenic, baicic egunero alorrera joan baño len joaten naiz elizara, Jaungoicoari escacera vere favorea. Eta ez naiz echeracen lenago Jaungoicoari gracia eman gave, vere beneficioaz. Eztut ere⁹⁰² echeracen fruturic Jaingoicoari amaren primiciac pagatu gave. Arcen dut cuidado⁹⁰³ aundia, iñori dañuric ez eguiteco». Abade santuari oraiñdic au cerizcoon guchi, eta galdetu cion eya zuan gueyago. Eta eranzun cion eta esan cion: «Bada, ameca urte nagoala ezcondua, eta vicitu naiz paquean, soseguan eta castidadean nere andrearequin». Orduan ezagutu zuan santuac onengatik i[e]seguin zuela Demonioac.

G. Cer atenditu vear da matrimonioan?

E. San Agustinec dio iru gauza. Lendavicicoa, elcarren arteco fede conyugala edo fidelidadea. Vigarrena, sacramentuaren ona edo ondasuna. Irugarrengoa semean ona edo ondasuna. Vestela, ainguerauc Tobias santuari esan cion vecela, <148v> ezconcen direnac verengatic eta Jaungoicoangandic vioza apartatuta veren araguiaaren gusto loia cumpliceagatic, juntacen direla zaldia eta muloa vezala. Eta aiez apoderacen dela Demonioa dio ainguera santuac.

Lendavicicoa, bada, da fede conyugala edo fidelidadea. Eta guardacen bada, izañen da matrimonioa instrumentu bat ongi templatua dulzurarena, baño falseacen bada izanen da escola bat Demonioarena. Manteniken bada contrato ori, izañen da vici bat guzia animacen duena, baño austen bada, talamo ori eta⁹⁰⁴ eche ori izanen da infernu bat. Obligacen du, bada, fidelidade onec ezconduan artean, cergatic mutuamente⁹⁰⁵ entregaturic corpuz batac besteari, ez senarra verea da, baicic emaztearena,⁹⁰⁶ eta ez emaztea verea, baicic senarrarena. Claramente onela esaten du San Pabloc. Emendic sorcen da matrimonioren zorra aiñ jaquínez. Veraz, besterena den gauzaz disponicen badu, napurra da? Eta au alaco muduz eze, senarrac consentituco <149r> baluque re, inorc usa dezan aren emazteaz oraindic izanen liceteque adulterioa, delito execrablea, nacio barbaroenac⁹⁰⁷ ere abomintatu duena, eta gaurco egunean christauan artean sobra comun eguin dena. Tenedioac⁹⁰⁸ Sirian adulteroac puscacen⁹⁰⁹ cituan. Ysraeltarrac Jaungoicoac leguea eman baño len viciric errezen

⁹⁰¹ eztaquit] esk. *eztaquic*.

⁹⁰² ere] lerro artean.

⁹⁰³ cuidado] esk. *cuidade*.

⁹⁰⁴ eta] aurretik taxtaturik *iza*.

⁹⁰⁵ mutuamente] esk. *mutuamenta*.

⁹⁰⁶ emaztearena] <z> lerro artean.

⁹⁰⁷ barbaroenac] esk. *barbaroneac*.

⁹⁰⁸ Tenedioac] <dio> ilunago eta lodiago, beste zerbaiten gainean idatzia, iduriz.

⁹⁰⁹ puscacen: *descabezarlos* dator gaztelaniaz.

ciutan. Partoac veguiac ateracen zarazquioan. Egypcioac sudurrac ebaquicen zarazquioan. Ysraeltarrai Jaungoicoac eman cioan leguea arriquececo vicia quendu artean. Romanoan⁹¹⁰ artean legue batec aplicacen cioan eriozaren pena. Gure Eliza ama santac ezpaldin badu ateracen ezpata odola isurceco, badaqui fulminacen excomunioaren rayo formidablea adulteroan contra.

Tertulianoc esaten zuan christauac bacarric vere andarencen dela guizona. Corinthioan artean adultero batengatic San Pabloc eguiten du negar ciudadate guzia galdua bacegoan vezala, <149v> dio San Chrisosmoc. Escandalizatuko ninceteque ezpalu esaten San Pabloc Jaungoicoac juzgatuco dituala adulteroac, bada Jaungoicoac guzia juzgacen badu ere, ala ere, adultoreoa contra dague reservatu juicioric aundiana.

Eliza ama santac aiñ cuidado aundia dague matrimonioaren unioaz, eze guizon excomunicatuari permiticen dio egotea vere emaztearequin. Canone sagraduac nai due⁹¹¹ beti dauden elcarrequin, sepultura batean ere, icasi vezea⁹¹² Cleembronoren⁹¹³ andream,⁹¹⁴ ceiñ utciric vere aita⁹¹⁵ Leonidas reguearen palacioa, joan zan vere guizonequin destierro triste batera.

G. Ceiñ da matrimonioaren ona edo ondasuna, vigarrena?

E. Sacramentua. Vi ezconduac dire sacramentu bat. Bada, guizonaren eta andarenen señale visiblearequin, invisiblemente, representacen ditua misterio altuac Christoren unioa Elizarequin encarnacioz eta Jaungoicoaren unioa animarequin <150r> graciáz. Eta nola Eliza dagoan sujeto Christori, ala emacumeac guzian egon vear dua sujeto veren guizonai. Eta elcar amatu vear due, bacoizac vere burua vezala, esaten du San Pabloc. Cergatic, añadiecen du San Agustíñec, iñorc ere eztu aborrecitu vere araguia. Aranzac zulatu cion oña, dio, senticen da corpuz guzian? Bai, vere araguia da. Ecusten duzu beste ura veguia aundituri? Bai. Eta ateracen du veguia? Ez. Beste⁹¹⁶ zancoa danguela llagaz betea eta ebaquicen du zancoa? Ez sendacen du, cergatic duen vere araguia. Onela, bada, guizonac eta emacumeac, bata bestea, amatu vear due. Eta oraindic da guchi. Bada, dio Jaungoicoac Malaquias profetaren abatic, vere vicizaren eta animaren erdia vezala eta, orobat emazteac guizona, eta au eguienen da bata bestea sufricen duela. Contacen digue historiac emperadore Conrado irugarrenac, Uabisbergco plazan ceuquela sitiatua Guelfo Bavieraco duquea, eta <150v> determinatu zuenean plazan arquicen ciran guziac, chiqui eta audi, ezpatan pasacea, escatu cioan emacumeac emperadoreari utci ciceoala libre ateracen bacarric bacoizac yaso ce[za]quean cargarequin. Conceditu cioan, eta emacumeac cer eguien zuan, utciric veren joiac⁹¹⁷ eta interesa valioac, emacume bacoizac artu zuan vere guizona soñean, eta modu onetan atsi ciran ciudadeco atetatic ateracen. Acio amoroso au emperadoreari ero[ri] ciceon aiñ gracian, eze barcatu cioan viciza, eta

⁹¹⁰ Romanoan] esk. *Romonoan*.

⁹¹¹ nai due] esk. *naindue*.

⁹¹² *icasí vezea*: ‘ikas bezate’; gaztelaniaz *aprendan* dago.

⁹¹³ *Cleembronoren*: gaztelaniazko dotrinaren arabera, *Cleonbroto* da izena.

⁹¹⁴ *andream*: ‘andreagandik’ ulertu behar da.

⁹¹⁵ *aita*] jarraian <ren> tatxaturik.

⁹¹⁶ Beste] esk. *bestea*.

⁹¹⁷ *joiac*] esk. *joaiac*. Gaztelaniazkoan joyas da.

ut[ci] cioan atera citezela vere interesa guziaquin. O, amorio casto onec eguin valenza consorteau artean, batac bestean cargarequin libre sarcea ceruco atean, mutuamente ligeraturic, veren estaduco pisua, logracen value junto llegacea ceruco gloriara! «Eramazua» dio San Pabloc, «batac bestearen carga eta cumplituco duzue Christoren leguea».

Desazonac,⁹¹⁸ disgustoac, atserreac eta discordiac <151r> estali vear due paquearen vinculuan, ceñ den⁹¹⁹ matrimonioa. «O, amorioa entrañaiblea eta caridadea ceñec estalcen duan pecatuan auniztasuna!» dio San Pabloc. Contacen du San Geronimoc⁹²⁰ ecusi zuela ezcondu bazuau sepultura letrero onequin: «Pasageroa, milagroa, emen⁹²¹ daude senar bat eta emazte bat, eztirenac⁹²² aserrecen». Senar emazte bazuac aserretuta⁹²³ eligitu zuan veren juezaz⁹²⁴ Archidiako. Artu cioan juramentua sujetatuco cirela aren sentenciara, joan ciceoan itcic aditu gave, pasatuaz itceguin gave eta azturi guzia aren presencian, batac bestea abra[za] zezala sentencia ederra, aditu gave pleitu guzia, dagoanean ez⁹²⁵ itceguitean. «Guizonaren partetic, cer paquea izan diteque, badago echean leove bat vezala?» esaten du Espíritu Santuac. Curiosidade aundi baten guzia averiguacen du, nedecade batetquín ordu guzietan cansacen du. Animalia⁹²⁶ baten <151v> ira eta colerarequin, guzia da oia, zalaparta, amenaza castigua eta golpeac. Mentecato⁹²⁷ bat da vere costumbreata[n], vere obretan christaua gaiztoa, vere maliciarequin eta nedecadeaquin guzia molestacen eta cansacen du. «Ezta prensaric, eta aiz⁹²⁸ ain⁹²⁹ pisuric», dio Espíritu Santuac, «necio baten irac vezalacoric oprimiceo emacume pobre batten vioza».

Baño baldin bada emacumea echean muviken dituana disgustoac, badiduri ez-tuela arquicen izic Espíritu Santuac, pondera[ce]co onelaco emacumearen malicia eta vere guizonaren desprecia[lo]. «Obe da», dio, «viciea desiertoan, emacume carraña⁹³⁰ eta colerarequin⁹³¹ baño. Obe da desiertoa eta cueva bat izugarria, eche bat baño ceñetan den emacume bat izoncia, carraña, sobervia, colerica eta atrevitura; bada, eguiten du echean, tellatuan, auniz itutic⁹³² eguiten duena, ez uztea echean gauzaric vere lecuan guzia trastornatu gave», da semejanza Espíritu Santuarena.

⁹¹⁸ Desazonac] esk. *Desazanac*, lehendabiziko <a> lerro artean.

⁹¹⁹ den] lerro artean.

⁹²⁰ Geronimoc] lerro artean. Azpian taxtaturik *Pabloc Roman*.

⁹²¹ emen] lerro artean. Azpian taxtaturik *vear*.

⁹²² eztirenac] aurretek taxtaturik *ce*.

⁹²³ aserretuta] esk. *aserretutac*.

⁹²⁴ juezaz: ‘jueztat’ ulertu behar da. Kopiagilearen hutsa izan daiteke.

⁹²⁵ ez] lerro artean.

⁹²⁶ Animalia] aurretek taxtaturik *alima*.

⁹²⁷ Mentecato] esk. *Mentecaco*.

⁹²⁸ aiz: ‘haitz’.

⁹²⁹ ain] esk. *aun*.

⁹³⁰ carraña] irakurketa zalantzazkoa, batez ere erdialdean, baina aurreraxeago berriro jartzen du *carraña*. Gaztelaniazko dotrinan begiratzeak ez du laguntzen, bertan *muger pleysista y encillosa* jartzen du. DRAEk (s.v. *carraña*) *carraña* Aragoiko hitza dela dio eta «persona propensa a la ira» moduan definitzen du.

⁹³¹ colerarequin] esk. *colerarequi on*.

⁹³² itutic: irakurketa garbia da, eta gaztelaniaz *goteras* dago; beraz, ‘itogin’ dela dirudi.

<152r> Gauza enseñanza aundicoa da, admiracecoa, ecusi zuena Mucianoc,⁹³³ eta contacen digu Plinioc. Ibai aundi batean zubizat cegoan zur me luce bat; batetan atsi ciran vi auniz pasacen zura bata alde batatic eta bestea bestetic, eta zuraren erdi erdian elcar topatuan. Ezen posible acera izulcea ez bata eta ez bestea. Porfiacen baciran, viac ibaiera erori vear zuan. Bada, cer eguiñ zuan? Batac poliqui poliqui zuraren gañean doblatu cituan belaunac, macurtu zuan burua, eta bestea aren gañetic pasatu zan, eta viac libratu ciran. Instinto naturalac eguiñ zuena animalian artean, eguiñ dezala matrimoniac graciaren eficaciak consorteak artean. Ecusten dut nequez⁹³⁴ utcico duela gañetic pasacen, eta lenago utcico duela itocen renditu baño. Baño ezpaldin bada humildaderic eta pacienciarequin, guzia dago galdua, guchiañean viatatic batean. Eta conseju ona da Alfonso Aragoacoarena: <152v> dio, bada, sabio onec, bazuetan conveni dela senarrac eguitea sorra eta emazteac itsua.

G. Ceiñ da matrimonioaren irugarrengoa ona edo ondasuna?

E. Semeana. «Baño ceiñ on da semeac izatea?» galdetu cioan Euripidesec vere academicoai, eta iñorc ere ez cion eman respuesta cavalic. Semeac ez izatea descansua da, baño bacartasun eta soledade tristea. Semean graciáz⁹³⁵ eta cariciáz embelesacen due gurasuan amorioa mille gustorequin, baño aien travesurac asustacen due, eta pasacen due vioza mille penarequin. Dicha, bada, desventuratuada⁹³⁶ aman fecudidadea. Bada, guciac izan vear du vere doloreaquin, nola logracea erdicean, nola galcea sepultura batean. Eta eztaquit [n]ic⁹³⁷ gueyago costacen zayoan ecustea vilduac edo pañaleatan edo sepulturaco mortaja batean. En fin, semeric eztuenac deseacen due izatea, eta semeac dituenac esaten due Jaungoicoac <153r> dizquiola⁹³⁸ semeac deseacen dituenai. Jaungoicoa da⁹³⁹ ematen⁹⁴⁰ dituana edo ematen eztituan, ecusten duen conforme ezconduai⁹⁴¹ nola conveni zayoan⁹⁴² vere salbacionaco. Acaso ecusten du emanen balitu, Raquel vezala, ama illen licetequea erdicean, edo semea bauptismoa gave privaturic betico ecusteaz Jaungoicoaren aurpegua. Eta da nai izatea dagoan desocupatua Jaungoicoa serviceco, cer⁹⁴³ daqui semean crianza gaiztoagatic aita eta ama condonatu lizequean. Juan Patricio Romacoa eta vere emaztea conforme Jaungoicoaren vorondatearequin semeric ez izatean, ofrecitu zarazquioan veren interesa aundiac Maria santissimari. Eta virgina soberanac admititu zarazquioan milagroarequin, eta erori zan Romaco ondoan agozuan, caniculako demboran elurra, eta abisatu cioan elurra erori zan lecuan eguiñ cizozala eliza, cein arquizen dan gaurco egunean Santa Mariaren izenarequin.

⁹³³ Mucianoc] esk. *Mucioanac*.

⁹³⁴ nequez] aurretik tatxaturik <e>.

⁹³⁵ graciáz] esk. *graciac*.

⁹³⁶ da] lerro artean.

⁹³⁷ eztaquit nic] esk. *eztaquitic*.

⁹³⁸ *dizquiola*: ‘ematen dizkiola’; -i(n)- aditzaren forma trinkoa.

⁹³⁹ da] lerro artean.

⁹⁴⁰ ematen] hasieran *baten* idatzia, ondoren <ba> tatxatu eta <ema> lerro artean gehitua.

⁹⁴¹ ezconduai] aurretik tatxaturik *ez*.

⁹⁴² zayoan] esk. *zayoan*.

⁹⁴³ cer] jarraian <ga> tatxaturik.

<153v>

Virtutearen explicacioa

Gauza jaquiña da doctrina santaren parte principalac direla lau, nola diren jaquiea, cer sinistatu vear den, cer oracio egun vear den, cer obratu vear den eta cer recitu vear den, eta oiec jaquin gave christaua ezin salba ditequeala.

G. Eta bada doctrina santan beste gauzaric jaquin veар denic?

E. Bai, jauna, badire auniz gauza auguiz utiliac eta provechosoa.

G. Ceiñ dire oriac?

E. Bira. Virtuteac eta vicioac, obra onac eta⁹⁴⁴ pecatuac.

G. Cer gauza da virtutea?

E. Da qualidade eta izate bat animan recivicen dena eta eguiten duena guizona izan dedin ona, nola cienciac eguiten duen bat izan dedin filosofo ona, eta arteac eguiten duen bat izan dedin artifice ona. Ala, virtuteac eguiten du guizona izan dedin ona, eta <154r> obra dezan ongui, laster eta erraz eta perfecioarequin. Virtuteric eztuenac ere obra dezaqui bazuetan, baño eguinen du dificultadearquin eta imperfeccioarequin. Ciencia eta practica duenac guitarra soñaceco,⁹⁴⁵ yoco du ongui eta erraz, baño beste batec, artea eztuenac, yo dezaque guitarra,⁹⁴⁶ baño ez ongui eta erraz. Ala, virtutea duenac, contu eguin dezagun templanzarena, vear denean erraz barutuco da, eta perfectamente barutuco, conveni den ordua esperacen duela eta jaten dituala janari permitituac, eta bein bacarrean. Baño eztuenac virtute au edo golosoa denac, erioza bat iricecen⁹⁴⁷ dio baruceari; eta barucen bada, ezin esperatu du jateco ordua, eta guero arrasean eguinen du⁹⁴⁸ colaciona, casi aparia vezalacoa.

G. Cembałt dire virtuteac?

E. Dire auniz, baño principalac dire zazpi: iru theologalac,⁹⁴⁹ fedea, esperanza, <154v> eta caridadea. Eta lau cardinalac: prudencia, justicia, fortaleza eta templanza.

Virtute theologalan explicacioa

G. Cer gauza da fedea?

E. Lendavicicoa virtute theologaletan, eta virtute oiec beguiracen dioa Jaungoikoari. Eta fedearen lendavicico oficioa da arguicea entendimentu eta jasocea sinistecera Jaungoicoac vere Elizaz revelacen digun guzia, izanagatic gauza dificultosoa eta razove naturalaren gañiecoa. Fr. Gil V.[ec], adicean credoa, dedarrez esan zuan: «Eztut esaten “sinistecen dut”, baicic “ecusten dut”, “ecusten dut”». Ain vicia zan onen fedea, Santa

⁹⁴⁴ eta] aurrerik tatzaturik y.

⁹⁴⁵ soñaceco: ‘soinu egiteko’.

⁹⁴⁶ guitarra] esk. *gitarra*. *Usus scribendian oinarriturik zuzentzea erabaki da. Aurrerago guitarra dago.*

⁹⁴⁷ *iricecen*: ez dago garbi zer den; gaztelaniaz, *le parece* dago. Beharbada *iritztu* edo *iritzetu* aditz bat proposatu behar da. Ik. 1044. oharra.

⁹⁴⁸ du] lerro artean.

⁹⁴⁹ theologalac] lehen <l> aurrerik idatzitako <g> baten gainean.

Theresa de Jesusec esaten zuan ez cioala invidiaric Jesu Christo ecusi zuenai, cergatic arc ecustearequin fedearen veguiaquin sacramentu santuan, vere consueloraco orobat zela corpuzeco veguiaquin ecusi balu vezala. Fedeac badu vere precepto propioa. Eta ala ezta asqui eguitea acto fedecoac sacramentuac recivicen <155r> direnean. Gauza ciertoa da precepto onec obligacen duela christaua uso razoveacoan⁹⁵⁰ sarcen den demboran, baita ere vere⁹⁵¹ vicilan auniz aldiz. Eta argatic gure Eliza santac condenatu zuan doctrina ceñec esaten zuan preceptoarequin cumpliceo asco zala christauac eguitea bein vere vicilan acto fedeco, esperanzaco⁹⁵² eta caradecoac. Eta da opinio⁹⁵³ comuna eztela asco urtean bein eguitea, baicic urtean auniz aldiz eguin vear duela. Eta parroco zelosoac eguiten ditua iandetan doctrinaren⁹⁵⁴ eta evangelioaren ondoan, veren peligresaquin, acto fedeco, esp[er]anza eta caradecoac. Cirilo obispo arrianoac eman zarazquion verrogueda amar ducat pobre bati fingiceagatic itsua, eta arc fingituco zuela izuli ciola vista. Baño pobrea eguiazqui guelditu zan itsuturic, eta ura habilade gave viurceco vista. Dedar eguiten cioala obispo catholicoai, obispo heregearen verrogueda amar ducatuac quendu cioala vista eta <155v> escatu cion Jaungoicoari bar[ca]cioa, eta obispo catholicoan oracioac viurtu cioan vista.

G. Cergatic ain firmequi sinistu veар due fedeco gauzac?

E. Cergatic fundacen den faltatu ezin dezquean eguijan. Eta fedeac proponicen duen guzia, izandu den revelatua⁹⁵⁵ Jaungoicoac, cein den egua vera, eta imposible da esaten duena izan dedin falsoa. Bada, baldin bada gauzaren bat diduriena razovearen contracoa, nola erdi dan virginia bat, da cergatic razove humanoa den flacoa eta erraz utsiguin dezquean. Baño Jaungoicoa ezin engaña⁹⁵⁶ diteque, eta ezin engaña⁹⁵⁷ gaizaquean.

G. Cer gauza sinistu veар da fedearequin?

E. Credoco articulo guziac, eta especialmente Eliza ama santac celebracen dituanac, nola diren Encarnaciona, Natividadea, Pasioa, Resurreccioa, Ascencioa, Espiritu Santuaren etorrera eta Trinidade Santisimoa, eta egoitea disponituric sinisteco <156r> Elizac declaracen digun guzia. Eta viocean eta obretan guardacea infidilidaea izan dezquean señaletic, nola jaztea turcoac edo Judioac bezala⁹⁵⁸ edo ostireletan araguia jatea heregeac vezala, cergatic necesaria da ez bacarric, viozarequin eta abarequin, baita ere campoco obraquin confesacea fede eguiazcoa.

G. Cer gauza da esperanza?

E. Virtute theologialetan da vigarrena, cergatic virtute onec ere beguiracen dio Jaungoicoari. Eta nola fedearequin sinistecen dugun Jaungoicoan, ala esperanzarequin esperacen dugu Jaungoicoan.

⁹⁵⁰ razoveacoan] esk. *razoveatoan*.

⁹⁵¹ vere] jarraian letra bat taxtaturik.

⁹⁵² esperanzaco] esk. *esperancaco*.

⁹⁵³ opinio] aurretik *com* taxtaturik.

⁹⁵⁴ doctrinaren] esk. *doctrinanen*.

⁹⁵⁵ revelatua] aurretik taxtaturik *ve*.

⁹⁵⁶ engaña] esk. *engana*.

⁹⁵⁷ engaña] esk. *engana*.

⁹⁵⁸ bezala] lerro artean.

G. Ceiñ da esperanzaren oficioa?

E. Alchacea gure vorondatea esperaceco felicidade eterno. Eta cergicat au dan ondasun bat ain altua eze ezta posible alcanzacea indar humanoaquin Jaungoicoac ematen digu virtute sobrenatural aun, onequin eduqui dezagun confianza allegaceco alcanzadera ondasun <156v> aiñ aundia.

G. Certan fundacen da esperanza?

E. Jaungoicoaren bondade eta misericordia infinitoa, ceiñen señaleac ditugun auguiz seguroac eta ciertoac, bada eman zigun vere seme propioa, eta onen medioz eguiñ guinuzan seme adoptivoac. Prometicen digu ceruco herencia,⁹⁵⁹ eguiten baditugu⁹⁶⁰ obra onac. Eta onetaraco ematen digu gracia. Aita on batec Constantino-plan⁹⁶¹ esan cion vere semeari: «Eya, nere semea, nai duzu utci zaizadan heredero⁹⁶² nere interesa guciarena?»⁹⁶³ Edo nai duzu nic nere interesac ematea pobreai, eta zuri uztea curadoretzat,⁹⁶⁴ Jesu Christo?» Eranzun cion semeac: «Nic curadore nai dut, Jesu Christo, eta ez interesac, cergicat interesac gaur badira viar eztira, baño Jesu Christo da beti, eta naiago dut esperatu Jesu Christogan». Interesa guciac repartitu pobreai, eta semea guelditu zan auguiz pobre. Dembora artan bertan zan Constantinoplan guizon bat noblea interesa aundiequin, eta zuen alaba <157r> bat bacarra, ceñenzat villacen zuen guizon honradu eta virtudoso bat, naiz izan cedilla cen pobreana, eta onetaraco determinatu zuan Jaungoicoac escuaz⁹⁶⁵ emana vezala izan zela mancebo ura, ceñ elizan biaramonean sarcen zan lendavicia. Eta zucen zucen izandu zan mancebo ura⁹⁶⁶ ceñec zuan vere curadorea Jesu Christo. Deitu cioan, eta jaquinduric zela aita aiñ limosneroren semea, eduquitu zuan zela Jaungoicoaren providencia arenatz, eta vere alabarenatz ezconza ure.

G. Cer da caridadea?

E. Virtute theologaletan irugarrena, ceiñec veguiracen dion Jaungoicoari, cergicat virtute onequin jasocen da gure anima amacera gauza guzian gañean, ez bacarric criadorea den vezala, eta ondasun naturalan guzian autorea, baita ere emallea vezala⁹⁶⁷ graciaren eta gloriarena, cein diren ondasun sobre naturalac.

G. Caridadea zabalzen da criatura guzietara?

<157v> E. Guizon guzietara⁹⁶⁸ eta Jaungoicoac eguiñ dituan gauza guzietara, baño diferencia onequin: Jaungoicoa amatu veár da vera denagatic, cergicat den ondasun infinitoa, eta beste gauzac amatu veár dira Jaungoicoaren amorioagatic, eta

⁹⁵⁹ herencia] esk. *herencioa*.

⁹⁶⁰ baditugu] esk. *baditugo*.

⁹⁶¹ Constantinoplan] <no> aurretik, tatxaturik <plo>.

⁹⁶² heredero] esk. *heredoro*.

⁹⁶³ guciarena] <rena> lerro artean.

⁹⁶⁴ curadoretzat] <zat> lerro artean.

⁹⁶⁵ escuaz] aurretik tatxaturik *ecus*.

⁹⁶⁶ mancebo ura] lerro artean.

⁹⁶⁷ vezala] aurretik hitz bat tatxaturik, *vevela* edo antzeko zerbaitei.

⁹⁶⁸ guzietara] <ra> lerro artean.

particularmente proximoa, cergicat dan eguiña Jaungoicoaren imaginara gu vezala. Eta proximoagatic eztire entendicen bacarric aideac eta adisquedeac, baicic edocin guizon, gure etsaia bada ere, cergicat den eguiña Jaungoicoaren imaginara. Ocasio batean elcarrequin navegacen zuan itsasoan christau fervoroso batec eta judio per-voso batec. Eta itsasoaren⁹⁶⁹ basterrean tempestade batec milla pusca eguin cioan oncia. Itsasi ciceon christaua ol bati punta batetic, eta ol ari judioa beste puntatic. Ol arc ezin libra cicequean viac eriozatic:⁹⁷⁰ arcen bazuan christauac ola verezat, judioac jo vear zuan itsasoaren <158r> ondarra eta infernuarena. Eta cer eguin zuan? Cari-dadeco acto bat, guzietan aundiana, esaten du Jesu Christoc, nola ematea batec vere anima vere adisquideagatic. Bada, christau onec eman zuan judioagatic, gure fede santaren etsaiagatic, uzten ciola escuan zuen ola, deseo aundiarequin converti cedin judioa eta salba cedin penitenciac olean. Eta motivo onengatic ondatu zan itsasoan eta lasterrago eta zucenago yo zan cerura. Bada, urac quendu bacion ere viciza, auniz urac ezuan itzali aren caridadea.

G. Virtute aundia da caridadea?

E. Virtute guziatan da aundiana. Eta ondasun⁹⁷¹ bat aiñ aundia, eze caridadea duenac ezin gal dezake animaren otsasuna, ezpaldin badu galcen caridadea. Eta ca-ridaderic eztuena ezin salba diteque, baldin balitu re beste virtute guziac.

<158v>

Virtute cardinalean explicacioa

G. Cer gauza da prudencia?

E. Prudencia da lendavicoa lau virtute cardinaletan, ceiñ diran virtute moral eta humano guzian fundamentuac eta principioac, cergicat prudenciac governacen du entendimentua, justiciac vorondatea, templanzac apetitua eta fortazelac colera.

G. Ceiñ da prudenciaren oficioa?

E. Eracusteaa accio guzietan vear den fina eta medio⁹⁷² conveni diranac eta cir-cunstacia guziac, au da, dembora, lecua eta modua, guzian obra gueldi dedin ongui eguna. Prudencia da virtutean maistra, corpuzean veguiac diran⁹⁷³ vezala, janarian gatza vezala eta munduan eguzquia vezala. San Anselmo Cantorberiaco⁹⁷⁴ arzobis-poagatic leurri gave murmuracen zuan monge gazte batec, pacienciarequin sufri-chen eta erregalacen zuan. Eta modu onetan irabaci zion vorondatea. Ya arcen cituan consejuac eta ya bacen virtuosoa <159r> eta ematen cituan esperanzac izateco Elizan guizon audi bat, baño gaizquitu zan eta il zan. Iru aldiz acusatu zuan Demonioac: sigloco pecatuaz, noviciadocoaz eta profesatu ezqueroco pecatuaz. Eta aingueru guar-dicoac atera zuan ongui alegacen zuela aren damua eta arrepentimentua. Orrengatic

⁹⁶⁹ itsasoaren] <aren> lerro artean.

⁹⁷⁰ eriozatic] <o> lerro artean.

⁹⁷¹ ondasun] esk. *ondusun*.

⁹⁷² medio] jarraian <ac> taxtaturik.

⁹⁷³ diran] lerro artean.

⁹⁷⁴ Cantorberiaco] aurretik taxtaturik *Cator*.

ere, San Anselmoc urte bat otsoan esan zuan arengatic meza, eta dude gave galduco zuan monge gazte au santuaren prudenciagatic baicic.

G. Ceiñ dira prudenciaren contraco vicioac?

E. Virtutea dago erdian, eta ditu bi vicio contrarioac, ceiñ dauden bi extremoatan. Bata da imprudencia eta temeridadea; au da, inconsideracioa. Eta da consideracen eztuenena cer egun veiar duen, eta ala eztioa veguiracen fin eguiazcoari edo eztitute arcen medio verdaderoac eta eguiazcoac. Besteak da astucia edo prudencia mundanoa. Eta da cuidado <159v> eta diligencia aundiarequin pensacen duenena fin eta medioac, baño guztia tiracen due utilidade eta provechu propiora, izateko munduko ondasunen bat. Eta procuracen due proximoa engañaacea, gauzac ateraceco veren gustora, baño azque[ne]an ecusico da onelacoac izandu cirela imprudenteac, eta necioac, eta galdu dituela ondasun eguiazcoac, ondasun falsoacgatic.

G. Cer gauza da justicia eta ceiñ da justiciaren oficioa?

E. Virtute bat ceiñec ematen dion bacoizari verea. Eta justiciaren oficioa da para cea igualdadea gauzatan eta munduko contratoetan, ceiñ dan soseguren eta paquearen fundamentua, cergatic bacoiza contentatuco baliz verearequin eta ezpaldin balu nai besterena, ez liceteque izanen guerraric eta discordiaric.

G. Ceiñ dira justiciaren contraco vicioac?

E. Bi. Injusticia, batec arcen duenean besterena dela, edo contrato eta tratoetan <160r> eman nai duanean zor duan baño guchiago edo recivitu nai duanean arceco⁹⁷⁵ duan baño gueyago. Eta justicia gueyegui bat denean gogorregua. Eta gauzac igualatu nai dituanean, razoveac escacen duan baño gueyago, cergatic auniz aldiz mezclatu veiar da compasioa justiciarequin, nola pobre batec ezcinc pagatu badu aiñ laster zor duena perjuicio auguiz aundia gave, razove da⁹⁷⁶ ematea dembora pisca bat gueyago, eta bestela izanen liceteque gogortasun aundia.

G. Cer gauza da fortaleza?

E. Virtute bat, ceiñec ematen digun erraztasuna garaiceco dificultadeac eragozten diguenac ongui obraceco. Eta zabalcen dira⁹⁷⁷ erioza padeciceraño, baldin conveni bada Jaungoicoaren gloriaraco edo ez faltaceco gueren obligacioan. Eta ala martire santuak eta soldadu valerosoac garaitu ditua veren etsiac. Cavallero bati, ceiñ ezzen confesacen, penitencia aundia eman ciozan vildurrez, esan cion <160v> confesore⁹⁷⁸ batec eya eguienen zuan zazpi urteco penitencia. Eranzun cion ezez, eja eguienen zuan iru urteco penitencia. Eranzun zuan, orobat, ezez. Galdetu cion eya gau bat bacarric pasatuco zuan soledadean cegoan eliza batean, eranzun cion baiez. Joan zan gaua pasacera eliazara. Demonioatan bat fingitu zan aren emaztearen figuran, bi aur besoetan cituala, eta esan cion aien echea napurrac arrobatu zuela. Baño cavalleroa zegoan

⁹⁷⁵ arceco] <co> lerro artean.

⁹⁷⁶ da] lerro artean.

⁹⁷⁷ dira] lerro artean.

⁹⁷⁸ confesore] esk. confosore.

lecutic ezen muvitu. Orduan rabiarequin bota cituan bi aurrac lurrera, ezen movitu. Beste demonio batec fingitu cion mendi guzia sutan zegoela, eta garrac ya llegacear cirela elizara eta eliza verela erreco zala. Cavalleroa ezen movitu. Orduan demonioa arrimatu ciceon, eta esan cion eya ura Fulano edo Urria zan, eranzun baiez. «Bada, ii ago excomulgatua, eta atera adi elizatic». Ezen batere movitu. Viaramon⁹⁷⁹ goizean⁹⁸⁰ arquitu cituan gauza guziac ceudela len vezala, eta guzia izandu zala Demonioaren <161r> finguecia.⁹⁸¹ Eta vere fortalezagatic cavallero arc irabazi cituan auniz coroa gloriaraco.

G. Ceiñ dira fortalezaren vicio contrarioac?

E. Vildurra eta atrevimentua. Vildu[r]rac⁹⁸² eguiten du⁹⁸³ erraz⁹⁸⁴ renditu eta sujetatu dedin. Eta jayo edo sorcen da fortaleza chiquiatic, eta atrenvimentua da bat sarcea peligroetan necesidate gave. Eta au da fortalezaren excesoa eta ezta virtutea, baicic vicioa.

G. Cer gauza da templanza?

E. Virtute bat ceñec sujetacen eta refrenacen dituan deleite sensualac. Eta eguiten du bat servi dedin gustoaz, razoveac aguincen duan leurrian.⁹⁸⁵

G. Ceiñ dira templanzaren vicio contrarioa[c]?

E. Destemplanza eta insesibilidadea. Destemplanza da bat ematen bada deleitara eta escedien bada jan-edanean, ceñec dañu eguiten dio animari eta corpuzari. Insesibilidadea da extremo bat, ceñequin <161v> uzten dituan gustoac, alaco moduz, eze eztu jaten ez veat duena vicizaco ez senticeagatic jateco gustoa. Baño nola den guizonan artean comunagoa destemplanza insensibilidadea baño, argatic beti santuac exortacen gaitua baracera eta mortificadera.

Espiritu santuaren zazpi dobaien⁹⁸⁶ explicacioa

G. Cembañ dire Espiritu Santuaren dobaiac?

E. Zazpi.

G. Ceiñ dira?

E. Ysaias profetac eracusi zarazquigunac. Eta dira sabiduriaren dobaia entendimientuaren dobaia, consejuaren dobaia, fortalezaren dobaia, cienciaren dobaia, piedadearen dobaia, Jaungoicoaren vildurraren dobaia.

⁹⁷⁹ viaramon] <mon> lerro artean.

⁹⁸⁰ goizean] esk. goiceizean.

⁹⁸¹ finguecia] finquicea ere jar lezake; edonola ere, finjitzea esan nahi duela dirudi. Testu honetan behin finjitzcen agertzen da, baina horretan ere <j> beste zerbaiten gainean dago idatzia.

⁹⁸² Vildurra] esk. Vidulrac.

⁹⁸³ du] lerro artean.

⁹⁸⁴ erraz] aurretik tatzaturik ezaz.

⁹⁸⁵ leurrian] esk. lerreurian.

⁹⁸⁶ dobaien] esk. donaien

G. Certan laguncen digua?

E. Christaven vicizaren perfeciora llegacen, cergicat den escallera bat pecatu-tic gradaz gradara yoceco santidadera. Guc lurretic cerura yoceco contacen ditugu grada oc, betic gora. Profetac nola ecusi <162r> zuan escalera bat eldu zala cerutic, contatu zarazquigun veronza⁹⁸⁷. Lendavicicoa, Jaungoikoaren vildurtasuna, ceñiec espantacen duen pecataria, pensacen badu Jaungoico bat infinitamente poderosoa dauquela etsaia. Vigarrena, piedadea, cergicat vildurra duanac⁹⁸⁸ Jaungoicoac pe-catariai amenazacen dioa⁹⁸⁹ penai, atsicen da izaten piadosoa eta deseacen du Jaungoicoa servicea. Irugarrena da ciencia,⁹⁹⁰ cergicat Jaungoicoa servitu nai duenac, es-cacen dio eracusi dicequiola vere mandamentuac, eta Jaungoicoac vere ministroan libruan eta inspiracio santuetan ematen dio arguia cer conveni zayon. Laugarrena da⁹⁹¹ fortaleza; bada, Jaungoicoa servicean baditu tentacioac munduaren, Demo-nioaren eta araguiaren partetic. Jaungoicoac ematen dio fortalezaren dobaia⁹⁹² ga-raiceco. Bostgarrena da consejua, cergicat Demonioa ezin garaitu badu fuerzaz, probacen du enganioa. Eta gauza onaren idurian erori dedin justoa procuracen <162v> du, baño Jaungoicoac ematen dio fortalezaren dobaia, eta ezta erorcen. Sei-garrena da entendimentuaren dobaia, cergicat bat ongi exercitatu ezquiero, viciza on batean eta Demonioa garaicen, Jaungoicoac eyocen du contemplacera eta enten-dimentuaren dobaiaarequin ezagucen eta entendenten ditu misterio divinoac. Zazpi-garrena da sabiduriaren dobaia, cein den perfecioaren complementua eta acabera; bada, sabioa denac ezagucen du lendavicico causa eta principioa. Eta onen con-forme ordenacen eta eguiten ditu vere accio guziac, eta ezin eguiñen du baldin en-tendimentuaren dobaiaari añaditu gave caridade perfectoa, eta caridadearequin gu-zia tiracen eta ordenacen arengana azqueneco fina den vezala, eta cergicat sabiduriac unicen duan vorondatea entendimentuarequin, deicen zayo dio San Bernardoc, sa-biduria edo ciencia atseguiña.

<163r>

Zorci bienaventuranzan explicacioa

G. Cer dira bienaventuranzac?

E. Beste escalera bat, Espiritu Santuaren dobaiac vezala. Jesu Christoc lendavi-cico iru gradoatan eracusten digu quences impedimentuac perfecioarenac, ceñeta-tic llegacen den bienaventuranzara. Izan oi dire iru: deseoa haciendarena, honrana, eta gustoena. Argatic esaten du lendavicicoan pobreza escogicen duenac, ceñec vor-ondatez menospresiacen duen hacienda. Bigarrenean, bienaventuratuac mansoac, cergicat aiec izanen dira lurrajen javeac. Irugarrenean, bienaventuratuac negar egui-ten duenac, ceñec eztituan villacen mundocon gustoac, baicic negar eguiten duen ve-ren pecatuac. Beste bi gradoetan eracusten digu viciza onaren perfecioa, ceñ dagoan

⁹⁸⁷ veronza: ‘beherantza’.

⁹⁸⁸ duanac] aurretik tatzaturik *dune*.

⁹⁸⁹ dioa] esk. *dioai*.

⁹⁹⁰ ciencia] jarraian zerbaiz tatzaturik.

⁹⁹¹ da] ondoren berriro *da*.

⁹⁹² dobaia] esk. *doboia*.

cumplicean justiciaz eta caridadez obligatua gaudena. Eta, ala, laugarrenean esaten du «Bienaventuratuac justiciaren gosea eta egarria duenac, cergicat <163v> aiec izanen dira contentatua». Eta bostgarrenen «Bienaventuratuac misericordiosoac, cergicat aiec alcanzatuco due misericordia». Azquenecoatan eramatzen gaitu vicizaren contemplacio perfectora. Argotic, seigarrenean esaten du⁹⁹³ «Bienaventuratuac vioz garvia duenac, cergicat aiec ecusico due⁹⁹⁴ Jaungoicoa». Ecusico due emen graciaren contemplacioarequin, eta beste vicizan gloriarequin. Zazpigarrennean esaten du «Bienaventuratuac paqueosoac, cergicat aienan izanen da ceruco reinua». Eta izanen dira Jaungoicoaren semeac, veren aitac vezala, santuac, perfectoac eta puruac. Zorcigarrenea[n] eztela, dio San Agustinec, perfecioaren grado verriric, baño, ala ere, ematen digu señale bat cloroa. Bat llegatu bada perfeciora, eta da batec gustuarequin padecien baditu persecucioac, cergicat nola urea eta cillara probacen diren suan, ala justoa tribulacioetan eta persecucioatan probacen da.

<164r>

Obra misericordiazcoan explicacioa

G. Cembał dire obra misericordiazcoac?

E. Amalau, eta arquicen dire evangelio sagraduan. Illac enterracea eracusi zigun Tobiasec eta Aingueru San Rafaelec.

G. Bada causaren bat, ceñec escusacen gaituan eguiteco?

E. Iru causa dira. Lendavicicoa, batec ezpadu moduric eguiteco, eta ala evangeli[o]co Lazaro pobreactezuan egunin obra misericordiazko corporalic, bada verac zuen necesidadea guziana, eta salvatu zan pacienciaren virtutearequin, ceñequin salbabean diren pobreactez, eta aberatsac misericordiarequin. Verezat eztuenac cienciaric eta prudenciaric, eztago obligatua besteai eracusteco eta conseju ona emateco. Vigarren causa, batec servicen badu Jaungoicoa estudio bat altuagoan viciza necoso eta trabajantean baño, eztu ocasioric caridatzeko obra eguiteco. Ala, desiertoetan vici diran mongeac eta hermitañoac⁹⁹⁵ eztaude obligatua uzteria, villaegagatik nori egunin obra misericordiazcoac. Irugarrena, ezpaldin bada norc duen necesidate notablea obra misericordiozkoana; bada, ez gaude obligatua socorrir <164v> norc lagundu eztuenai baicic eta verac ezcincin balitu dizan baicic, baño misericordia perfectoac eztio esperacen obligacioari, ba[i]cic dago pronto guciai lagunceco al duan modu guzian. Azqueneco Jaungoicoari regu eguitea proximoagatik, escacen zayola guziai asisti diazala vere graciarequin veartzen vezala.

Borgoñan Edicio gosete batean eman zioan jatera lau mila pobreteri, eta aditu zan voz bat cerutic esaten zuela: «Edicio, eztà faltatuko beiñ ere ogua zurezat eta zure ondorecoanzat; bada, eman diozu jatera nere pobreaki». Señadore batec egunin zuan diversiorako campoko eche bat eta paratu cion letrero bat esaten zuela an baccarric sartu eta alogitu⁹⁹⁶ veartzen zuela gende nobleak. Arrebatatu zuan Jaungoicoac espiri-

⁹⁹³ du] lerro artean.

⁹⁹⁴ due] jarraian <en> tatxaturik.

⁹⁹⁵ hermitañoa] esk. *hermitanoa*.

⁹⁹⁶ alogitu: ‘aloitu, ostatu hartu’.

tuan vere juiciora, eta esan cion, ya que botacen zuan ezquero⁹⁹⁷ vere echetic pobrea, arc ere botacen zuela cerutic. Movituric Maria Santissima misericordiaz, esan cion muda ce[za]lla letrero ure⁹⁹⁸ eta hospeda cicela perigrinoac eta pobreac, Jaungoicoari <165r> agradaceco.

San Paulino guelditu zan⁹⁹⁹ cautivo, rescataceagatic alargun pobre baten semea. Nola atera ciceoan ambesteri eguiteagatic obra misericordiazcoac? Pecatari aundiari, ceñec eguiñ cituan eun erioza baño gueyago, eta ostu eun milla ducat¹⁰⁰⁰ baño gueyago. Hostatua eman cioan San Franciscuco bi religiosori, eta determinaturic confesacea aietan batic, eraman zuan vere escuaquin lastoa aiei obea¹⁰⁰¹ eguiteco. Illic gau artan, eta arquituric galdua Jaungoicoaren juicioan, acuditu zuan Aita San Franciscuco eta misericordiazco obra onengatic, paraturic vere dolorea eta proposituarequin lastoa balanza batean ambeste pecaturen contra, egun zuan garai cezan aren animaren salbacioco balanzac, eta eraman zuan cerura, nola atera ciceon pobrea vesticean San Martin bati, ceñec partitute eman cion vere caparen erdia pobre bati, nola Santa Cathalina¹⁰⁰² de Senari, ceñec quendu zuan vere¹⁰⁰³ camisa pobrea vesticeagatic, eta verela¹⁰⁰⁴ <165v> vere camisa Jesu Christo veraren soñean perlaz veteric, eta San Martinec vere caparen erdia resplandorez vetea. Eta beste batengatic contacen digu San Damiranoc maie batera zeraman platera escatu zutela pobreac, ceñi eman cioan, eta verela platera eta pobrea egatu cirela cerura. Ona misericordiaren obrac cein meseida eta provechu aundiac eguiten darazquioan christau misericordiosoai.

Vicioan eta pecatuan explicacioa

G. Cer gauza da pecatua?

E. Da comisio bat edo eguite bat, edo omisio bat edo ez eguite bat, vorondatez-coa Jaungoicoaren leguearen contra. Iru gauza dira necesarioac pecatua eguiteco: lendavicicoa, comisio bat edo omisio bat, au da eguitea gauza devecatua edo ez eguitea gauza aguindua, nola blasfemacea da comisioco pecatua eta meza ez enzutea da omisoco pecatua; vigarrena, gauza izan dedin Jaungoicoaren leguearen contra, cergicat <166r> Jaungoicoaren leguea den regla ongui obraceco, eta nola ezten artifice ona eta eztuan ongui trabajatuko, ezpaldin badu eguiten artearen conforme, ala eztu ongui obracen eguiten eztuenac Jaungoicoaren leguearen conforme; regla au ezta bacarra amar mandamentuana, baita Jaungoicoac ematen diguna Aita Santuaren medioz eta beste superiore¹⁰⁰⁵ espiritualan eta temporalan medioz; bada, guziac dire Jaungoicoaren ministroac eta Jaungoicoagandic due autoridadea; irugarrengو gauza veat dena

⁹⁹⁷ ezquero] lerro artean.

⁹⁹⁸ ure] lerro artean.

⁹⁹⁹ zan] lerro artean.

¹⁰⁰⁰ ducat] esk. *ducac*.

¹⁰⁰¹ obeal] aurretik tatxaturik *og*.

¹⁰⁰² Cathalina] aurretik tatxaturik *Chali*.

¹⁰⁰³ vere] esk. *vera*.

¹⁰⁰⁴ verela] jarraian, lerroaren azkenean, *ecu*- dago, baina hurrengo orrialdean hitzak ez du jarraipenik.

¹⁰⁰⁵ superiore] jarraian tatxaturik <n>.

pecatua eguiteco da izan dedin voluntarioa edo vorondatezcoa, cergatic eguiten dena vorondatearen consentimentu gave ezta pecatua, nola batec blasfemacen badu lotan edo eztaquiala esan duan iza dela blasfemia edo ezaguzara eta uso razovezcora llegacen baño lenago,¹⁰⁰⁶ eztu pecatu eguiten vorondatearen consentimentuaren faltaz.

G. Cer gauza da vicioa?

E. Habitu gaiztoa bat pecatua eguiteco, cein eldu zayon maiz pecatua eguitetic. <166v> Contu eguin dezagun batec badu costumbrea blasfemaceoa edo juramentuac eguitecoa, blasfemacea da pecatua eta blasfemazallea izatea da vicioa.

G. Gaiz aundia da pecatua?

E. Gaizetan aundiana. Eta esan diteque gaizan artean pecatua vera bacarric gaiza edo gaiztoa, eta cein gueyena aborreci[ce]n duen Jaungoicoac. Regue batec balu vaso bat cillarrezcoa¹⁰⁰⁷ edo urrezcoa, eta arquituric vaso artan edari bat nazcagarria, autsico balu vasoa eta botaco balu itsasora, duderic gave regueac odio aundia izanen lioque edari ari. Jaungoicoac eguin zituan bi baso, dio San Efrenec, bata cillarrezcoa, ceiñ den guizona, eta bestea urrezcoa, ceiñ den aingueraua. Eta cergatic batagan eta bestean arquitu zuan pecatuaren edari nazcagarria, autsi zuan eta bota zituan infernura ainguerauc, eta orain botacen ditu pecatuan ilcen diren guizonac. Pecatuagatic diluvio batean itto cituan guziac, bacarric libracen zuela Noe vere familiarequin.

G. Cembat pecatu genero dira?

R. Originala eta actuala. Eta au da bata mortala eta beste veniala.¹⁰⁰⁸

<167r>

Pecatu originalaren explicacioa

G. Cer pecatu genero dira?

E. Originala eta pertsonala edo actuala. Eta au bata da mortala eta beste veniala.

G. Cer gauza da pecatu originala?

E. Pecatu ura, ceñequin jayocen garan, eta eldu zagu gure lendavicipo aita Adanengandic. Criatu zituan Jaungoicoac Adan eta Eva, eta eman zarazquioan zazpi dobai. Lendavicipo, vere gracia, ceñequin eguiñ cituan vere adisquide eta seme adoptivoac. Vigarrena, eman zioan ciencia bat auguiz aundia, jaquiteco gauza ona eta ies eguiteco gauza gaiztotetic. Irugarrena, eman cioan araguiañ obediencia espirituarí, ez citecen movitu deseó devecatuac razovearen contra. Laugarrena, eman cioan erraztasun auguiz aundia eguiteco gauza ona eta ies eguiteco gauza gaiztotic, eta bacarric aguindu cioan ez jateco fruitu bat. Bostgarrena libratu cituan trabaju <167v> guzitic, cergatic lurrac vezet bacarric ematen zuan vicizarenzat veat zan guzia, eta ezercere¹⁰⁰⁹

¹⁰⁰⁶ lenago] lerro artean.

¹⁰⁰⁷ cillarrezcoa] aurretik tatxaturik zirra.

¹⁰⁰⁸ Azken galde-erantzun hau aurreko paragrafoaren jarraian idatzi zen, eta tintan igartzen denez, beranduago.

¹⁰⁰⁹ ezercere] esk. ezerquere.

ezcin eguin ciozaquean dañuric munduco¹⁰¹⁰ animalia genero guziac eta egarria guziac eta itsa[so]co arrai guziac ceu[qu]ean¹⁰¹¹ veren mendean, eta veren escuan. Segarrena eguin cituan immortalac, ez cirela veiñ ere illen, ezpazuan pecatua eguiten. Zazpigarrena, nai cituan¹⁰¹² dembora pusca baten ondorean eraman cerura viciza eterno batera. Demonioac engañaturic¹⁰¹³ eguin zuan pecatua, eta galdu cituan zazpi dobaiac. Eta cergicat Jaungoicoac ezarazquioan eman dobai oc bacarric verenzat, baita ere aien ondoreco guzianzat,¹⁰¹⁴ galdu cituan gurezat ere, eta eguin guinucean participanteac pecatuan eta miserian, nola participatuco guíñuan gracian eta dobaietan, ezpalua eguin pecatua. Au da, bada, pecatu originala: enemistade bat Jaungoicoarequin eta pecatua ceñequin <168r> jayocen garan. Emendic jayocen da eta eldu da ignorancia, inclinacio gaiztoa, dificultade aundia gauza ona eguiteco eta erraztasun aundia gauza gaiztoa¹⁰¹⁵ eguiteco, pena eta trabajua, jatecoa villaceco, vildurrac eta peligroac, corpuzaren erioza auguiz ciertoa eta animaren erioza eterno, baldin pecatuan ilcen bagara eta Jaungoicoaren gracia gave.

G. Cer remedio pecatu originalaren contra?

E. Jesu Christoren pasioa eta erioza, ceiñ izanic pecatutic libre, Jaungoicoa eta guizon eguiazcoa, infinitamente aitaren agradable, padecicen zuela guruzeco¹⁰¹⁶ erioza afrentosoa, eman zuan Adanan pecatua satisfacioa. Remedio au aplicacen zugu bauptismoan. Eta ezpaldin badu ere nai izandu¹⁰¹⁷ Jaungoicoac guri viurcea¹⁰¹⁸ zazpi dobaiac, viurtu digu principala, ceiñ den vere gracia, ceñengatic garan Jaungoicoaren semeac eta vere herederoac.

<168v>

Pecatu mortalaren eta venialaren explicacioa

G. Cer gauza da pecatu actuala? Eta nola da bata mortala eta bestea veniala?

E. Pecatu actuala da, eguiten duguna gueren vorondate propioarequin, nola ostuea, ilcea, juramentu falsoa eguitea. Da mortala privacen bagaitu eta quencen badigu Jaungoicoaren gracia, ceiñ den animaren viciza, eta mereci dugu infernuco erioza eterno. Eta da veniala, Jaungoicoari desagradacen bazayo, baño ez ambeste, ceñengatic quencen digun gracia, baño mereci du castigua, baño ez eterno.

G. Nola ezagutuko da¹⁰¹⁹ den mortala edo veniala?

E. Vi gauzatan: bata pecatua baldin¹⁰²⁰ bada Jaungoicoaren eta proximoaren caridadearen contra, bestea pecatua bada vorondatearen consentimentu otsoarequin.

¹⁰¹⁰ munduco] <du> lerro artean.

¹⁰¹¹ ceuquean] <qu> behar lukeen lekuaren, tintaz egindako orban handi bat dago.

¹⁰¹² naicituan] <ci> lerro artean.

¹⁰¹³ engañaturic] esk. *enganaturic*.

¹⁰¹⁴ guzianzat] esk. *guzianzaz*.

¹⁰¹⁵ gaiztoa] aurretik tatxaturik *gauza*.

¹⁰¹⁶ guruzeco] <ru> lerro artean.

¹⁰¹⁷ nai izandu] lerro artean.

¹⁰¹⁸ viurcea] aurretik tatxaturik *vio*.

¹⁰¹⁹ da] lerro artean.

¹⁰²⁰ baldin] lerro artean.

Bada, bata edo bestea falta bada, ezta pecatua mortala, baicic veniala. Esaten da pecatua dela caridadearen contra, baldin bada <169r> leguearen contra materia gravean, alaco moduz eze ofensa bada asco deseguiteco amistadea, nola ostucea cantidade larrí bat. Gauza lebea bada, nola ostucea orraz bat, eta eztrà asco deseguiteco amistadea, ezta caridadearen contra, baño esaten da eztela caridadearen conforme.¹⁰²¹ Eta ala esaten da lendavicicoa dela leguearen contra, cergicetic den caridadearen contra, ceñ den leguearen fina, eta vigarrena esaten da eztela leguearen contra, cergicetic ezten caridadearen contra, baño eztela caridadearen conforme. Leguearen contra dena materia gravean eta vorondatearen consentimentuarequin da pecatu mortala, baño onela ezpaldin bada, nola bat etorcen bazayo repente pensamentu edo deseо bat ostuceco edo ilceco, eta verela obartu eta consentimentu otsoa eman baño len deseguiten bada, bacarric da veniala, baño ezagucen duen vezala, apartatu <169v> veat du veregandic. Eta onela eguiten bada, ezta pecaturic, ez mortalic eta ez venialic, bai contra orduan izanen da meritua eta virtutea.

Zazpi pecatu capitalan explicacioa

G. Ceiñ pecatu dira principalenac?

E. Pecaturic principalenac, cergicetic diran beste pecatuan iturriac eta sustraiac, deicen zayoa pecatu capitalac, eta dira zazpi. Beste pecatu principalenac, cergicetic diran gaizagoac barca[ce]co, deicen zayoa Espiritu Santuaren contraco pecatuac, eta dira sei. Beste bazuac dira principalenac, cergicetic claramente diran pecatu aundiac eta enormeac, eta diran razovearen contraco pecatuac. Eta esaten da pecatu oie escacen duela venganza cerura, eta dira lau.

G. Cergicetic deicen zayoa «capitala»?

E. Ez, cergicetic diran mortalac. Bada, pecatu auniz dire mortalac, eta eztira capitalac, nola homicidioa eta blasfemia. Eta beste pecatu bazuac dira pecatu capital, <170r> baño eztira beti mortalac nola ira, gula eta pereza. Deicen zayoa capital cergicetic diren beste auniz pecaturen buruac.

G. Cer gauza da soberbia? Cer pecatu eguiten ditu? Eta cein da aren remedioa?

E. Da pecatu bat, ceñengatic¹⁰²² uste duen eta pensacen duen guizonac badela, den baño gueyago. Eta nai du izan estimatuagoa gueyago besteac baño, goragocoric eta igualic eztuela. Sorcen dituan pecatuac dira vere burua alabacea, besteakquin atrevicea, discordiac eta desobedienciac. Remedioa da humildadea, ezagueaerez ezer eztela eta dugun guzia dela Jaungoikoaren dobaia eta pensacea gu baño besteac direla obeagoac, guzai sujetacen garala interiormente eta honracen ditugula veren gradoaren conforme. Soberviac eguiten du guizona Demonioaren iduricoa, eta auguiz desagradiac zayo Jaungoikoari, ceñec eguiten dioan resistencia sobervioai eta inclinacion da humiletara, confundicen ditu sobervioac eta <170v> alchacen ditu humillac.

¹⁰²¹ conforme] aurretik tattxaturik *contra*.

¹⁰²² ceñengatic] esk. *ceinengatic; -gatic* bereizirik agertzen da eta aurretik tattxaturik *peca*.

Religioso on batec guizon endemoniatu¹⁰²³ bat eraman¹⁰²⁴ zuan Cisten monasterioco abadeagana, eta esan cion: «Espiritu malignoa, monge onec aguincen badic, ateraco aiz?» Demonioac eranzun cion: «Ezeyoat¹⁰²⁵ vildurric, cergicatic monge ori duc soberbioa».

G. Cer gauza da avaricia?

E. Da afecto desordenatu bat interesena, eta dago iru gauzatan. Lendavicicoa, besteren interesac codici[a]cean, ez contentaric vere interesaquin. Vigarrena, nai izatean asco eta vear duena baño gueyago,¹⁰²⁶ eta sobra duena ez nai izatean ematea pobreal, obligatua dagoan vezala. Irugarrena, auniz amacean eta estimacen interesa verea iza-nagatic ere, eta ez iza-nagatic sobrantea. Eta au ezagucen da bat ezpadago disponitua galzera, necesario bague, Jaungoicoaren honraco. Eta, argatic, esaten du San Pabloc avaricia dela idolatria bat vezala, cergicatic avarientoac gueyago estimacen du¹⁰²⁷ interesa, Jaungoicoa baño. Bada, lasterrago contentancen da Jaungoicoa galduaz,¹⁰²⁸ <171r> interesa galduaz baño. Abariciatic jayocen dira rapiñac, napurretag, fraudeac eta trampac saldu erosietan eta crueldadeac pobreaquin. Remedioia da ejercitacea liberalidadean, consideracen dela viciza onetan garala pasageroac eta viageroac. Eta argatic on da ez cargacea interesaz, baicic reparticea vieco lagunetan, eta oieceraman dizagula patriara. Eta cembat eta carga guchiago dugun, lijerogo pasatuco dugu vieda, eta lasterrago llegatuco gara. Suecian Ribergeroc, guizon nobleac, auguiz aberasac eta avaroac, ecusiric aurretic garesti izanen zala granoa, bete cituan gariz grane-roac, atsi zan salcen precio auguiz altuan alaco moduz, edo goseac il vear cituan edo veren interesa guzia empleetu vear zuan garia erosteco. Guizon bat semez betea joan ciceon bi fanegaren esque, esaten cioala artu ciozala zuen diru piscia, eta bestea al zue-nean pagatuco ciola. Veguiretu <171v> cion veguirune gogorrarequin, eta esan cion zila¹⁰²⁹ nora mala,¹⁰³⁰ eta nai bazuan garia, ecar ciceola diru guzia. Baño Jaungoicoac castigatu zuan; bada, graneroa itsiric zeola aguertu ciran idi eta zaldi belcez bazuac, eta jan cioan garia eta jaquin¹⁰³¹ zuan vezala galdu zuan juicioa, eta eratu zan eta on-gui amarratu zuan eta lotu zuan.

G. Cer gauza da luxuria?

E. Da afecto desordenatu bat, araguiaren gusto loiena. Emendic jayocen dira entendimentuaren illuntasuna eta ceguedadea, inconstancia eta temeridadea, adulterioac, fornicacioac, iz deshonestoac eta loquieriac eta inmundiciac. Remedioia da exercitacea ateracen barauac oracioan eta ies eguitea conversacio gaiztoetatic. Eta guzian gañean,¹⁰³² ez fiacea veregan eta vere virtutean, apartatu peligroetatic, goardatu

¹⁰²³ endemoniatu] esk. *endemioatu*.

¹⁰²⁴ eraman] esk. *emaran*.

¹⁰²⁵ *ezeyoat*: ‘ez zioat’. Esk. *ezeyoac*.

¹⁰²⁶ gueyago] lerro artean.

¹⁰²⁷ du] lerro artean.

¹⁰²⁸ galduaz] esk. *galduac*.

¹⁰²⁹ *zila*: ‘zihoala, joan zedila’.

¹⁰³⁰ *zila nora mala*: gaztelaniaz que fuese en mala hora dago.

¹⁰³¹ jaquin] <qu> aurretik tatzaturik <n>.

¹⁰³² gañean] esk. *ganean*.

sentiduac eta consideratu Sanson fuertea, David santua eta Salomon sabioa <172r> erori cirela vicio onetan.

Flandesen iru mutil glotonac, tripazac¹⁰³³ eta¹⁰³⁴ amancebatuac, batac esan zuan: «Maien desalmatuanac, graciac ematen darazquioc eta emanen darazquioc Demonioari; bada, vici gara dishonestadearan eta luxurian». Joan ciren sala batera lo eguitera iru obetan, bacoiza vere mancebarequin. Eta gauaz deshoran sarcen da Demonioa, eta osc¹⁰³⁵ espantarri batequin esan zuan: «Non dago graciac eman darazquidena?» Llegatu zan aren obacera, eta anca batetic artuta furia aundiarequin atera zuan obetic eta bi cocinero vezalaco bazuai aguin cioan, su audi batean burruncian paratu burua eta loñac¹⁰³⁶ loturic corpuzari egazti bati burruncian erreccico egoac vilcen zarazquion vezala, erre cezala eta ongi coizpetatu ze[za]lla, cergatic esan zuan Demonioac nai zuela vere maiaraco. Onela egun zuan, pecatari aren deadar lastimosoquin, eta oñaze eta dolore atrozaquin. Lagunac eta emacume infame <172v> galduac ceuden icara beste egun zezan aiequin. Aditu zuan voz bat esaten zuela ez zuela Jaungoicoaren licenciaric gueyagoraco, ongi mereci zuela aiec ere, eta cila¹⁰³⁷ gogo gaitzoan beste aren anima eramaitera infernura.

G. Cer gauza da ira?

E. Da deseо desordenatu bat venganzarena, baño ira moderatua eta ongi ordenatua da ona. Argatic, esaten du Espíritu Santuac «aira zaiztea, eta eztezazuala egun pecaturic». Eta San Basilioc dio ira dela zacurra vezala, cein den ona sanca¹⁰³⁸ eguiten badioa etsaiai, baño ez ozca eguiten badioa adisquideai. Iraren desordena dago iru gauzatan. Lendabivicicoa, vengatu nai izatea ofenditu ez gaitu[en]aren contra. Vigarrena, venganza au izatean autorirade propioarequin, cergatic vengeance eta castigacea gaizqui eguiileac toca zayo regueari edo vere ministroai, ceñi principalmen[te] <173r> tocacen¹⁰³⁹ zayoa, cergatic dauden Jaungoicoaren lecuan. Irugarrena, venganzeaz odioz eta ez justiciaren zeloz eta ez cedicean moduan. Iratic jayocen dira ase-rreac, iz injuriosoac, tratamentu gaitzoac eta obra desatinatuac. Remedioa da exertizcea paciencian, Jesu Christoren eta santuan exemploarequin. Doncella bat noblea baño iracundoa eta lecu guzietan eta beti zebillena at[se]rrean guziaquin, il zan eta enterratu zuan elizaco atearen contra. Eta urrengo egunean etcusi zuan sepulturistic ateracen zela quea audi bat. Iriqui zuan sepultura eta etcusi zuan pechutic veraco guzia zegoala otsoa eta pechutic goraco guzia errea, señal claro guardatu zuela virgindadea, baño iraren suac erre ciola, eta consumitu ciola pechutic goraco guzia.

G. Cer gauza da gula?

E. Apetitu desordenatu bat¹⁰⁴⁰ jatecoa eta edateacoa. Eta consenticen du arcean conven zayon baño sustento gueyago, villacean janari delicatuac edo devecatuac, nola osti-

¹⁰³³ *tripaza*: ‘tripontzia’. *Tripazai* aldaera ezaguna zen lehenago, baina *tripaza* ez; agian hutsa da.

¹⁰³⁴ eta] jarraian berriro *eta*.

¹⁰³⁵ *osc*: ‘hots’.

¹⁰³⁶ *loñac*: itxuraz ‘oinak’ da; gaztelaniaz *pies* dago.

¹⁰³⁷ *cila*: ‘zihola’.

¹⁰³⁸ *sanca*: ‘zaunka’. *OEHn* ez da aldaera hau jasotzen.

¹⁰³⁹ *tocacen*] aurreko orriko azken lerroaren bukaeran ere *tocacen* da.

¹⁰⁴⁰ bat] lerro artean.

reletan <173v> araguaia, eta ez esperacean jateco dembora principalmente bare egunetan. Finalmente, jatean ansiarequin eta golosequairequin.¹⁰⁴¹ Gulatic jayocen dira animaren illuntasuna, alegría gozarratu¹⁰⁴² bat eta auniz eta gueyuegi¹⁰⁴³ itcegui[te]a, baita ere jayocen da luxuria eta vicio onetatic eldu diran pecatuac. Onen contra da templanza eta abstinenzia, cefíec sirvien dion animari eta corpuzari, eta consideracea gularen gustoa dela laburra, eta guero uzten dituala estomagoco eta buruco oñaceac eta besteac.

G. Cer gauza da imbidia?

E. Pecatu bat, cefíequin bati disgustacen zayon bestearen ona, iricecearequin¹⁰⁴⁴ galzen duela vere estimaciona eta grandeza. Bati disgustacen bazayoa bestearen onaz, cergatic ezten digno izateco edo cergatic gaizqui usacen duen arzaz, ezta pecatua. Baño baduzua pena besteac izan dezan onen bat, cergatic, iduricen¹⁰⁴⁵ zazunen, cergatic botacen duen <174r> eta abatican duen zuen gloria edo estimaciona, eta nai baciñuquea, ez izatea, cergatic eztedin izan zuec baño gueyago edo zuen igoala, da embidiaco pecatua. Eta emendic jayocen dira, juicio temerarioac, besteren gaizaren atseguna eta alegría, murmuracioac. Bada, embidiosoac procuracen du quencea proximoari fama eta estimaciona, eta bazuetan llegacen da gueyagora, nola Caiñec il zuan vere anaya Abel, eta judioac Jesu Christo. Remedioia da exercitacea proximoaren amorioan eta pensaeca imbidiac dañuric gueyenena eguiten dioala imbidiosoari verari. Jaungoicoac goracen du persona, cefí zayon imbidia, eta bazuetan galcen da imbidiosoa. Religioso batte[c] tragacen cituan aizeac izateagatic monasterioco abad. Eta zuen imbidia, cergatic beste bat zen monasterioco abadea, eta eman zarazquion solimanenco aus bazuac¹⁰⁴⁶ mutico bati, cefíec servicen zuen, esaten ciola: «Bota zaquioc aus oc abadea[c] jaten¹⁰⁴⁷ duen elzeari, eta naico dic auniz <174v> eta eztic ristatuko».¹⁰⁴⁸ Cer egun zuan muticoac? Ausan erdiac bota cituan abadearen barazcara, eta gorde cituan beste erdiac berriz erristacen bacion ere. Il zan abadea eta aren lecuan nombratu zuan monje embidioso ura, eta artu zuan muti[co]¹⁰⁴⁹ ura vera serviceco, baño cer guertatu zan? Egun batean erristatu cion augviz, eta muticoac abadeac nai izan ciozenagatic gorde cituan ausac bota zarazquion pucherora. Eta modu onetan, vere embidia pagatu zuan eriozarequin.

G. Cer gauza pereza?

E. Pereza da iz griegoa, eta esan nai du enfadoa, fastidioa eta negligencia, eta da pecatu capitala. Bat enfadacen bada obra onac eguiteaz eta mandamentuac goardaa

¹⁰⁴¹ *golosequairequin*: akaso, *golosokeriarekin* izan daiteke. *Golosekia* edo *golosokia* ez da beste inon lekukotzen; *golosokeria* behin behintzat jaso da Luzaiden (Kamino & Salaberri, 2007) eta Pomier hiztegiaren ere lekukotzen da (Gómez-López & Zulaika 2020: 133).

¹⁰⁴² alegría gozarratu] gaztelaniazkoan *alegría vana* jartzen du.

¹⁰⁴³ gueyegui] esk. *gueyagui*. Gaztelaniazkoan *demasiado*.

¹⁰⁴⁴ *iricecearequin*: ez da erraza hau interpretatzten. Gaztelaniazkoan *por parecerle* dago. Beharbada *iritzitu* edo *iritzetu* aditz bat proposatu behar da. Ik. 947. oharra.

¹⁰⁴⁵ iduricen] esk. *iricicen*. Kopiatzean egindako hutsa bide da; gaztelaniazkoan *por parecerlos* dago.

¹⁰⁴⁶ bazuac] esk. *bazuán*.

¹⁰⁴⁷ jaten] esk. *jacen*. Kopiatzean egindako hutsa izan daiteke.

¹⁰⁴⁸ *ristatuko*: ‘errietatuko, errieta egindo’. Testuan zertxobait aurrerago *erristacen* dago. *OEHn* jasotzen denez (s.v. *errietatu*), *erristatu* erabiltzen da Larraunen.

¹⁰⁴⁹ mutico] <co> ez da irakurtzen, beltzune bat dagoelako; dena den, <i> ondoko letra <c> dela dirudi, ez <l>.

ceaz, eta emendic sorcen da mandamentuac depreciacea eta entregacea viciotara eta izatea odioa esaten dionai utzi dazala pecatua. Remedioa da oziosidadean ez egoitea, leicea libru ona eta pensacea Jaungoicoac prometitura dauquen premioa diligenciarri [...] goardacean vere <175r> leguea. Monje batec, cergatic vici zan iturritic erruti, nai izandu zuan egun vere zelda iturriaren urbillago, eta arcen cituan vere leurriac. Ura-ren esque cila, iru aldiz aditu zuan iz bat esaten zuela «bat, bi, iru» pasoac contacen zarazquiola. Irugarrenean ecusi zuan aingueru bat, eta esan cion: «Contacen daraz-quiet nequearen pasoac, eztedin guelditu batere premioa gave». Orduan egun zuan errutiago vere zelda, eta chavola irabazteagotic, gueyago Jaungoicoarequin eman gave lecua perezari.

Pecatuac Espiritu Santuaren contra

G. Cemba dira eta ceiñ dira?

E. Sei: animaren salbacioaren desesperaciona, presuncioa salbatuco dela meritua gave, impugnacea egquia ezagutua, besteren graciaren embidia, pecatuetan gogorcea eta impenitencia final edo azquenecoa.

G. Cergatic dira Espiritu Santuaren contra?

E. Cergatic eguiten diran maliciaz, especialmente irugarrena bestean baño propioago, batec ezagucen duenean egquia, eta ala <175v> ere porfiacen eztela egquia. Pecatua eguitea maliciarequin da Espiritu Santuaren contra, cergatic Espiritu Santuari tocacen zayo eta atribuicen zayo bondadea, ceiñ den maliciaren contra pecatu eguitea. Ignoranciaz da Semearen contra, cergatic Semeari atribuicen zayo eta toca-cen zayo sabiduria. Pecatua egquia flaquezaz da Aitaren contra, cergatic Aitari tocacen zayo eta atribuicen zayo podorea.

G. Cer gauza particularera due pecatu oie?

E. Eztiela barcacen pecatu oie, ez mundu onetan eta ez beste munduan, dio evangelio sagraduac. Au da, eztiela errazac barcaqueco,¹⁰⁵⁰ cergatic auguiz guchitan eguiten dan¹⁰⁵¹ penitencia pecatu ocgatic. Ala esaten dugu enfermedade batengatic dala incurablea, ez cergatic iñola re ezin senda diquean, baicic auguiz guchitan senda-cen den, eta cergatic comunmente eztuen remedioric.

Cerura venganza escacen duen pecatuan explicacioa

G. Cemba dira eta ceiñ dira?

E. Lau: homicidioa edo guizona ilcea, pobreac oprimicea eta batez¹⁰⁵² ere huer-fanoac eta alargunac, eta languilleari eguneco jornala ez pagacea eta naturalezanaren araguiaren contraco pecatua.

¹⁰⁵⁰ barcaqueco] hemen ere <qu> afrikatu irakurri behar da.

¹⁰⁵¹ dan] lerro artean.

¹⁰⁵² batez] esk. *batzez*.

G. Cergatic dedar eguiten due eta ceruari escacen dioa venganza?

E. Cergatic pecatu oien injusticia da ain aundia, eze iñola re ezin estali diteque.

Postremenian edo azqueneco guizoaren fiñan explicacioa

G. Nola igues eguingo dut pecatutic?

E. Sabioac dio: «Oroi zatea postremeniaz edo zere azqueneco finaz, eta beiñ ere eztugu eguiñen pecaturic». Oiec dira: erioza, juicio universal, infernua eta gloria.

G Cergatic deicen zayoa postremeniak?

<176v> E. Cergatic erioza da vicizaren azquen fina. Juicio finala edo universal da juicioetan azquenecoa eta apelaciona gave. Infernua da gaiz guzian azqueneco gaiza, eta gloria da on guzian azqueneco ona. Erioza da ciertoa, eta iñorc ere ezin es- capa dezaque eriozatic. Ordua da incertoa, eta auniz ilcen dira usteric guchiana due- nean. Eta arequin acabacen dire viciza onetako proyecto guziac, eta orduan ezagucen da ongi munduaren vanidadea. Eta gustiak damucen zayoa eguiñen gaiza edo eguiñen ezuen ona. Eta ala eraqueria da eguitea damutu veartzaguna. Pansa ale bat- tec quendu cion viciza Nacreonti, Homero ilzan tristezagatic, Sofloges alegrigatic, Dionisio reguea victoria baten noticiagatic, Tales Milesto comediacoko echean ze- gola festa bazuac ecusten, egarriak acabatu zuan. Carlos Naparroaco regueari para- cen ari ciozcalak corpuz guzian agoarditan busticeko eunak, paracen zarazquionai yos- teko aria ebaquiceko arrimatu zuan arguia eta eunak artu zuan sua, erre zuan reguea.

<177r> Regue onen viaia egondu zan ari batetic eta beste ari batetic dago gure viaia.

Juicio universal izanen da on guzian ona, edo gaiz guzian gaiza. Eguiñen due juez supremoak, ceñec daquian guzia eta iñorc ere ezin eguiñen dio resistenciaric.¹⁰⁵³ Eguíñen da mundu guziaren presencian, eta iñor ere ezta ezcutatuco¹⁰⁵⁴ eta iñorc ere eziñ ies eguiñen. Bada, Christoren imagiña batet veguiracearequin vegui aiza- tuaquin lurrean bota bactituan iruretan eun guizon sentidu gave cer [...]nonen¹⁰⁵⁵ da Jesu Christo vera jarcen denean juez supremoa vere justiciaco tronoan? Religioso bat- tec ceñec ecusi zuan, esan zuan iñorc ere ezuala siñistuteco. Parisen enterra cen Rai- mundo Diocro. Jequi zan iru aldiz. Lendavicioan esan zuan: «Jaungoikoaren juicio justoz naiz acusatua». Vigarrenean, «Jaungoikoaren juicio justoz naiz juzgatua». Eta irugarrnean esan zuan: «Jaungoikoaren juicio justoz naiz condenatua». Mundua es- pantatu bazuan Teodoro Aita Santuak Pirro heregearen condenacioa firma cezan, <177v> caliceko Jesu Christoren odolarequin emen gure Hispanian Jesu Christoc ver- rac condenatu zuan pecatarri obstinatu bat, botacen ziola aurpegiria vere alboco odol sagradua.

Infernua verequin ditu, eta dauque imaginable ditezquean¹⁰⁵⁶ pena guziac eta eternoak, consueloa gave, eta tormentuac yonen yonenak. Parisen doctore bat conde-

¹⁰⁵³ resistenciaric] esk. resicencearic.

¹⁰⁵⁴ ezcutatuco] aurretik taxtaturik *ecu*.

¹⁰⁵⁵ [...]nonen] ez da garbi irakurtzen hasierako zatian; beharbada, *izanen* dago. Gaztelaniaz *será* dago.

¹⁰⁵⁶ ditezquean] esk. *ditenquean*.

natua aguertu ciceon vere obispari, eta esan cion: «Oraindic badira guizonac, munduan egun otan jetsi da ambeste anima onera, eze uste nuan acabatu zela mundua. Gueyena senticen dudena da ezin etcusi Jaungoicoa, eta ez izatea finic nere penac pasatu balira ere, urte gueyago ceruac izarrac dituan, itsasoac are lergarcac eta arbolac ostoac. O abismoa, abismoa».

Cerua da ceñetan dauden eta arquicen diran on eta ondasun pensatu al ditezquean guziac baño gueyago, altuagoac eta soberanoac, garviac eta ondasun puruac gaizaren cusuric gave. Eta eztira mundu onetacoac eta viciza onetacoac <178r> vezala, guchiac, laburrac eta chiquiac, eta beti daudenac [qu]ezcarequin¹⁰⁵⁷ nasiac.

Fr. Jordan religiosoac galdetu cion Demonioari eya non egonen zan obequi. Eta eranzun cion «ceruan».¹⁰⁵⁸ Jaungoicoa ecusteagatic, cergicat gauza creatu guziac eztira etcer criadorearen aldean, ceñec dauzcan prevenituac, dio San Pabloc, gauzac veguiac ecusi eztituanac, velarriac aditu eztituanac eta entendimentuac ezin comprendi dicequeanac. San Francisco batec adizearequin ainguera baten musica uste zuan cegoala ceruan, Naparroan Leirako monasterioan monge bat ateracen zan paseacera eta sentitu gave pasatu cituan bost eun urte chorri baten canta adicen eta uste zuan ezuela pasatu ordu erdi bat. Au, bada, iduri eta semejanza bat ceruarena, cer izanen da gloria, ceñetara eraman gaizan jaunac, Aitac eta Semeac eta <178v> Espiritu Santuac. Amen.

Acto fedecoa

Sinistecen dut dela Jaungoico eguiazco bat, eta iru persona diferenteac, ceñac diren Aita eta Semea eta Espiritu Santua. Sinistecen dut trinidadate santissimoco vigarren persona egui zala guizon Maria santissimaren entraña garbiatan, Espiritu Santuaren obraz eta virtutez, gueldicen zala señora soberana au virgen, semea egui baño leen, eguitean eta egui ezquiero. Sinistecen dut jau[n] onec padecitu zuala, eta ill zala gu salbaceagatic, piztu zala illen artetic irugarren eunean, igo zala ceruetara eta etorrico dala viciac eta illac juzgacera; au da, onac premiacera eta gaiztoac castigacera. Sinistecen dut aldareco sacramento santuan dagoala Jesu Christo gure jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa ceruan dagoan vezala. Sinistecen dut ama Eliza santa <179r> catolicoco sinistecen duen guzia eta fede onetan nai dut vici eta ill.

Acto esperanzacoa

Daucat¹⁰⁵⁹ esperanza Jaungoicoagan barcatuko darazquidala nere pecatuac guziac, eta emango didela vere gracia eta gloria vere misericordia infinitoagatic, Jesu Christo nere jaunaren merecimentuacgatic eta aren ama santissimaren reguacgatic, eguiten badut nere partetic obligatua nagoana, eta dezaqueadena ceñ dan penitencia eguiazcoa.

¹⁰⁵⁷ quezcarequin] eskuizkribuan ez dago garbi lehen letra zein den, <j> dirudi. Gaztelaniaz *afán* dago.

¹⁰⁵⁸ ceruan] esk. *ceruran*.

¹⁰⁵⁹ Daucat] esk. *Daucac*.

Acto caridadecoa

Amacen dut Jaungoicoa beste gauza guziac baño gueyago, eta naiago ditut galdu guziac aren divina magestadea baño. Eta nai nuque amatu munduco justo guziac eta ceruco bienaventuratuac, eta Serafin guziac amacen duen vezala. Eta posible baliz, nai nuque amatu <179v> veraren amac eta nere señora María santissimac amacen duen vezala. Ez amatua, ofenditua izatea ambeste ofendicen duenac, eta guziac ez amacea aren divina magestadea, vera dana izanagatic damu dut vioz gutiz,¹⁰⁶⁰ eta proponicen dut emendacea aren gracia mediante dela. Amen.

¹⁰⁶⁰ gutiz] esk. *gutic.*

Pedro José Aldazabalen euskal testuak: edizioa eta filologia-gaiak¹

The Basque texts by Pedro José Aldazabal: Edition and philological issues

Eneko Zuloaga San Román

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In this paper I present a critical edition of the Basque texts found in the books published by Pedro José Aldazabal. Apart from the critical edition of the texts, I analyse the authorship of the verses published in honor of the virgin of Itziar in *Euskal Erria* (1887) and *ConTAV* (Sarasola 1983). Even though they were dated in the 17th century, I defend that they were actually written by Aldazabal. Aldazabal's novena was republished in the 19th century by Gorostegi, who introduced some linguistic changes. I also present a comparative study of both texts, as it may be interesting to understand the evolution of the literary Guipuzcoan and writers' linguistic choices in the 18th and 19th centuries.

KEYWORDS: Philology, First Modern Basque, Pedro José Aldazabal, literary Guipuzcoan.

LABURPENA: Lan honetan Pedro José Aldazabal idazle gipuzkoarraren euskal lanen edizio kritikoa aurkezen da; hala Aldazabalek berak idatzitako testuena nola bestek idatzi eta Aldazabalek bere lanetan jasotakoena. Testu horien edizio kritikoa aurkezeaz gain, Euskal Erria aldiak (1887) eta ConTAVen (Sarasola 1983) XVII. mendekotzat joaz argitaratutako Itziarko Ama Birjinaren omenezko kopla-sorta egiazki Aldazabalen dela defendatzen da; bestalde, Aldazabalen bederatziurrena XIX. mendean berrargitaratu zuen Gorostegik, hizkerako hainbat ezaugarri eraldatuta: bi testuen arteko alderaketa ere aurkezen da, literatur gipuzkeraren bilakabidea eta XVIII.-XIX. mendeen amaierako hautu lingüistikoak hobeto ezagutzeko lagungarri izan daitekeelakoan.

HITZ GAKOAK: Filología, Lehen Euskara Modernoa, Pedro José Aldazabal, literatur gipuzkera.

¹ Lan honek MINECOK finantzatutako «Monumenta Linguae Vasconum (V): periodización y cronología» (kodea: FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzaren «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HMLV-LHC) [IT1344-19] ikerketa-talde kontsolidatua babesa izan du. Bihoazkie nire eskerrik lan honen zenbait puntu argitzen lagundu didatenei, Joseba A. Lakarra, Borja Ariztimuño, Olatz Leturiaga eta Dorota Krajewskari. Esan barik doa arestikoen ez dutela zertan bat etorri hemen azaltzen diren irakurketa eta proposamenekin, eta egon litzkeen akatsak nireak besterik ez direla.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Eneko Zuloaga San Román. Hizkuntzalaritz eta Euskal Ikasketak Saila. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateko ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz) – eneko.zuloaga@ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: Zuloaga San Román, Eneko (2021). «Pedro José Aldazabalen euskal testuak: Edizioa eta filologia-gaiak». *ASJU*, 53 (1-2), 361-445. (<https://doi.org/10.1387/asju.22418>).



1. Sarrera

Euskararen corpus historikoa bereziki zabala izan ez arren, oraindik ere bada langairik filologiaren esparruan. Izan ere, ugari dira, eta ez beti bigarren edo hirugarren mailakoak, hala edizio txukunak behar dituzten testu klasikoak nola berrikusi eta argitu beharreko arazo filologikoak. Bada, lan honek ekarpena egin nahi dio Lehen Euskara Modernoaren (Lakarra 1997) ezagutzari eta, zehatzago, Gipuzkoako XVIII. mendeko testuen corporusari.

Deba aldeko testuak aztertu direnean, oro har garai arkaiko eta zaharrekoek era karri dute arreta, hala nola Milia Lasturkoren eresiak, Sasiolaren olerkiek edo Debakox XVI. mendeko serora baten gutunak. Garai modernoagoetako iturriak, aldiz, ez dira hainbeste erabili eta, kasuren batean, ezagutu: dakidala, Itziarko Ama Birjinaren omenezko koplak ez dira berraztertu Sarasolak (1983) editatu zituenetik, Arakistainen *Eranskina* eta kopla-sortak gehiago ustia daitezke ezaugarri linguistikoei zein ikuspegi dialektologikoari dagokienez, Angela Txakartegi mutrikuarraren 1775eko gutun bat oraintsu ezagutarazi da (Santazilia 2020 [2015]), Oikiako dotrinen data-zioaz eta egiletzaz oraintsu eman dira argibide zehatzagoak (Segurola 2013), eta Pedro José Aldazabalen testuak gutxi aipatu eta ezagutu dira, oro har.

Lan honek, hain zuzen, Aldazabalen lanak ditu ardatz: XVIII. mendeko idazlea izan zen Aldazabal, Lehen Euskara Modernoko idazlea, bete-betean: Larramendi aipatu eta erabili zuen, eta euskarazko testuetan agertzen den hizkera landua da; besteren testuak zuzendu eta eguneratu zituen, eta garaiko ezaugarri dialektalen artean hautuak egin zituen, zenbait puntutan lokalismoak gainditu eta Gipuzkoan nagusitutako ikuspegi linguistiko supralokalarekin bat egin nahian (ikus Zuloaga 2020: 652). Halaber, hitzen banaketa zenbaitek joera etimologiazalea islatzen dute; zenbait toponimo eta berbaren etimologia azaltzean agertzen den zaletasuna ere agerikoa da, bestalde.

Gaztelaniaz eta euskaraz idatzi zuen Aldazabalek, besteak beste Itziarko Ama Birjina omendu eta goraipatzeko, eta Aldazabalen lan argitaratu ezagun guztiak aztertuta, zenbait ekarpen egiteko aukera izan dut. Lehenik, Arakistainen eta Aldazabalen arteko harremanaz eta material idatzien transferentziaz gehiago jakiteko. Bigarrenik, Sarasolak (1983) emandako Itziarko Ama Birjinaren omenezko koplen sortze-garaia eta egileta berrikusteko, eta bestelako proposamena finkatzeko, Aldazabali egotiz. Hirugarrenik, Aldazabalen erdal lanetan agertzen diren euskal testuak eta Aldazabalek lehenengo 1768an argitaratutako eta 1790ean berrargitaratutako euskal lan bat irakurri eta editatzeko.

Gai horiek guztiak jasotzen dira lan honetan: § 2 atalean Aldazabalen biografiari eta lanei buruzko datuak aurkezten dira. § 3 atalean Aldazabalen 1767-1769ko erdal lan batean agertzen diren euskal testuen edizioa ematen da eta filologiari dagokion zenbait gai lantzen dira: § 3.1 azpiatalean Arakistainen kopla-sorta bat, § 3.2-n Sarasolak (1983) emandako kopla-sortari buruzko proposamena eta edizioa, § 3.3-n Gipuzkoako kopla zahar bat eta § 3.4-n Aldazabalek eginiko zenbait proposamen etimologiko. § 4 atalak, bestalde, Aldazabalen *Ama Virgina santissima Yciarcuaren bederatzi urena* liburuaren 1790eko edizioaren (ezagutzen den bakarra) berri dakar (§ 4.1), bai eta edizioa (§ 4.2) eta pasarte ilunei eta hizkerari buruzko oharra (§ 4.3) ere, amaierako hiztegiarekin batera (§ 4.4). § 5 atalean Aldazabalen bederatziurrenaren eta Gorostegik XIX. mendearen *Euskal Erria* aldizkarian berrargitaratutako be-

ronen bertsioaren alderaketa egiten da, eta § 6-k azken hitza dakar. § I., § II., § III., § IV. eranskinetan, bestalde, Aldazabalen lanetako euskal testuen faksimileak ematen dira, bai eta Gorostegiren argitalpenaren faksimilea ere.

Lan honetan aurkezten diren edizioak egiteko, ikuspegi kritikoa baliatu da eta jatorrizko testua ahal bezainbeste errespetatzeko helburuari eutsi zaio. Zehazki, honako irizpide orokor hauek baliatu dira:

- Jatorrizko orrialdeak eta bertso-lerroak zenbakitu dira. Orrialdeak zenbaki-tzeko, < > ikurrak erabili dira.
- Jatorrizko orrialdeen barrenean agertzen ziren deiak ezabatu dira.
- Hitzen banaketari dagokionez, hitz konposatuen kasuan banaketa bere horretan uztea izan da irizpide orokorra, agerikoa baita idazleak nahita egin zituela bereizketa batzuk, hitzaren osagaiak agerianago uzteko edo. Irizpide bera era-bili da postposizioekin.
- Izen bereziak zeuden bezala utzi dira.
- Laburdurak garatu dira.
- Ortotipografía-gaiak egungo arauen arabera eman dira: puntuazioa, letra larri eta xeheen banaketa, letra etzanen erabilera, etab.
- Aldaketa grafiko gutxi egin dira:
 - <v> bokalikoak → <u>bihurtu dira.
 - Jatorrizko <ʃ> luzeak → <s>bihurtu dira.
 - Jatorrizko <ge> eta <gi> → <gue> eta <gui>bihurtu dira hala zegokienean.
 - Aldazabalen *usus scribendia* aintzat hartuta, beronen testuetan afrikatu le-pokaria <z>-z edo <c>-z adierazten den kasu bakanak erratatzat jo dira, eta <z> → <tz> eta <c> → <tc> aldatu dira.
- Letra bat falta zela uste izan denean [] artean gehitu da.
- Testuetan egindako bestelako zuzenketak testu bakoitzaren amaieran jaso dira.
- Gaztelaniazko izenburu eta pasarte guztiak CHARTA sareak edizio kritikoeta-rako ezarritako irizpideen arabera eman dira.²

2. Pedro José Aldazabal Murgia

Pedro José Aldazabal Murgia Gipuzkoako ipar-mendebaleko jaunxo-leinu batean jaio zen. Hain zuzen, aldazabalarren dorretxeak eremu hartako hainbat gunetan aurki daitezke, eta badirudi zaharrena Erdi Arokoa dela: Azkoitia eta Elgoibar arteko bidean dago, Azkarate gainetik oso hur. Bestalde, Lasturren ere bada XVIII. mendeko Aldazabal dorretxea, eta Deban Aldazabal-Murgia etxea³ dago, familiak XVIII. mende-an bertan erositakoa.

² Interneten irakur daitezke: <https://www.redcharta.es/criterios-de-edicion/> [azken kontsultaren data: 2020/10/23].

³ Badirudi Aldazabal eta Murgia leinuak XVII. mendearen amaieran egin zutela bat: «[Murgia] también enlazó con los Aldazábal a finales del siglo XVII, formando el linaje de Aldazábal-Murguía, por el matrimonio de doña María Antonia de Arriola y Murguía, natural de Iciar, con don José de Aldazábal, natural de Azcoitia» (Atienza 1958: 626-627).

Pedro José Aldazabal Murgiaren jaiotza-data zehatza zalantza-iturri izan da, baina gaur egun auzia argiturik dago: 1728 aldera jaio zela proposatu zuen Alzolak (1970: 480), nahiz eta ez zuen bataio-agiria aukitzerik izan Debako dokumentuen artean. Aldabaldetrecuk (1993: 11) erakutsi bezala, ordea, Aldazabal 1729ko ekainaren 29an jaio zen, ez Deban baina Zestoan, Antonio Aldazabal eta Josefa Arizaga guraso zituela.⁴ Hil, berriz, 1779ko otsailaren 12an hil zen, Deban.⁵

Elizgizona izan zen Pedro José Aldazabal: 1750-1751n hartu zituen ordenak eta 1753tik 1765era bitartean bikario-lanak egin zituen Debako eliza nagusian eta atxikietan; hain zuzen, hil artean Debako Santa María elizako presbítero benefiziatu izan zen (Aldabaldetrecu 1993: 12). Aldazabal Deban bertan hil zen, eta haren gorputza hiribilduko Santa María elizan dago lurperaturik. Beste alde batetik, eta garaiko bizitza soziokulturalari dagokionez, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide izan zen. Hala zioen Guerrak (1924: 185): «Aristocrata por nacimiento, educación y trato, amante de la antigüedad y nada horaño con las corrientes modernas, como afiliado que estaba a la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, y era por ende Capellán nato de los *caballeritos de Azcoitia*».

Orotara hiru liburu argitaratu zituen Aldazabalek bizi zelarik, hirurak bere bizi-tzako azken urteetan:

- *Breve historia de la aparición del más luminoso astro y brillante estrella de la mar, la milagrosa imagen de María santíssima de Iziar* (Martín Joseph de Rada, Iruña, 1767-1769).
- *Ama Virgina santísima Yciarcuaren bederatci urrena* ([s.n.] [s.l.], 1768).
- *Compendio heráldico. Arte de escudos de armas, según el método más arreglado del blasón* (Viuda de Martín Joseph de Rada, Iruña, 1775).

Izenburuak islatzen duenez, hirugarrena heraldika-gaiei buruzkoa da, eta gerora ere hainbatetan aipatu eta zenbaitetan berrargitaratu da: Guerraren (1924: 185) arriba, «acertó a resumir, con discreción y tino, lo mejor que hasta entonces se había escrito sobre el asunto»; ikus xehetasun gehiago Esparza (2005-2006) lanean. Bestalde, Itziarko Ama Birjinari eskainiak edo hura omentzeko aitzakiarekin idatzia dira beste biak, eta horiek interesatzen zaizkit gehien lan honetan, bertan agertzen diren euskal testuak direla eta.

Harrerari eta ezagutzari dagokienez, ez dirudi Aldazabal bereziki ezaguna izan denik eta, hala izan bada, ez bide da bereziki garrantzitsutzat jo, leku gutxitan aipatu baita haren izena: Vinsonek (1891-1898) 1768ko liburuaren berri eman zuen, Guerrak (1924) Itziarko Ama Birjinaren omenezko bertso-sortak bildu zituen, eta Alzolak (1970) eta Aldabaldetrecuk (1993) zertzelada biografikoak laburtu zituzten. Onaindiak *Euskal literatura* obrako hirugarren liburukian jaso zuen Aldazabalen berri zehatzagoa (1974: 171-172); aldiz, ez dut debar idazleari buruzko aipurik aurkitu

⁴ Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan ikus daiteke bataio-agiria (signatura: 3278/002-01, 71r). Informazioa Interneten kontsulta daiteke: <https://artxiboa.mendezmende.org/eu/> [azken kontsultaren data: 2020/10/26].

⁵ Heriotza-agiria ere Donostiako Elizbarrutiko Artxibo historikoan dago (signatura: 1826/001-04, 333v). Informazioa Interneten kontsulta daiteke: <https://artxiboa.mendezmende.org/eu/> [azken kontsultaren data: 2020/10/26].

Villasanteren *Historia de la literatura vascan* eta Mitxelenaren *Obras completas* bildumako izenen aurkibidean. *Euskararen historia* mardulean Urgellek (2018: 598) behin aipatzen du Aldazabalen 1768ko lana, 1766-1780 bitartean argitaratutako obra txikien artean.

3. Aldazabalen lanak: 1767-1769ko laneko euskal testuak

Aldazabalen 1767-1769ko liburuak izenburu luzea du, eta bere luzeran ondo laburbiltzen ditu zein diren liburuaren asmoa eta edukia, bai eta iturri nagusia ere. Hala dio: *Breve historia de la aparición del más luminoso astro y brillante estrella de la mar, la milagrosa imagen de María santíssima de Iziar, singularíssima protectora de los navegantes, con algunos de sus prodigios, sacados de los escritos que acerca de esta santíssima imagen dexó a su muerte el Muy Reverendo Padre Fray Joseph de Jesus María y Araquistáin, provincial que fue de la provincia de S. Joaquín de los Descalzos del Carmen, difinidor G. por la de Indias y secretario del difinitorio, que con otras muchas noticias adquiridas da a luz pública Don Pedro Joseph de Aldazaval y Murguía, vicario propio y perpetuo que ha sido de las parroquiales de la real iglesia Santa María, la matriz y anexas, de la noble y leal villa Mont Real de Deva en la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa.*

Gaur-gaurkoz, liburuaren hainbat ale aurki daitezke Euskal Herriko zein kanpoko biblioteketan, hala nola Euskaltzaindian,⁶ Deustuko Unibertsitatean,⁷ Bizkaiko Foru Agiritegian,⁸ Koldo Mitxelena Kulturunean (J. Urkixo funtsa),⁹ Nafarroako Unibertsitate Publikoan,¹⁰ Sancho el Sabio Fundazioan¹¹ eta Espainiako Biblioteka Nazionalean.¹²

Mende baten buruan liburuaren euskal bertsioa argitaratu zen, Vicente Aizpuruk laburtua eta zuzendua, eta Francisco María Gorostegik itzulia: zenbait atal *Euskal Erria* aldzikarian agertu ziren, eta obra osoa, liburu-formatuan, *Guizadiaren eta batez ere ichaz-guizonen izar eder eta laguntza benetacoa dan Ama Virgiña Iziar-coaren condairachoa* izenburuean atera zen (Francisco Mugerza, Tolosa, 1884).

Izenburuak argi dioenez, beraz, Itziarko Ama Birjinaren omenez idatzitako lana da Aldazabalea; zehazki, historia, gertakizun, sendatze, mirakulu eta debozio-gaiak azaltzen ditu. Argitalpen-datari dagokionez, aurkitu ditudan ale guztien azalean esaten da *Año de 1767*, baina data hori ez dator bat aurkitutako aleen hasierako zentsura-lizentziatan agertzen direnekin: 1768ko urtarrilaren 13a (25. or.), 1768ko urtarrilaren 16a (26. or.), 1768ko otsailaren 29a (28. or.) eta are 1769ko apirilaren 14a (29. or.) eta 1769ko apirilaren 12a (30. or.) aipatzen dira horietan. Baliteke, beraz, Aldazabalek 1767an idazten amaitutako lana egiazki ez 1767an baina apur bat ge-roago argitaratu izana. Baliteke, halaber, 1768ko liburuarekin berarekin gertatzen

⁶ Signatura: OI-3839.

⁷ Signatura: 248.159.4 Itziar (460.15).

⁸ Signatura: V6-635.

⁹ Signatura: J.U. 4696.

¹⁰ Signaturak: []9, *4, §-2§8, 3§5, A-Q8, R-T4.

¹¹ Signatura: ZRV 942.

¹² Zehazki, liburuaren ale bat eta bigarren ale mikrofilmatu bat gordetzen dira, 2/62674 eta DGMICRO/35723 signaturekin, hurrenez hurren.

den legez, ezagutzen diren aleak ez izatea lehenengo ediziokoak, ezpada geroagokoak (1769koak?), nahiz eta azalean 1767. urtearen aipamena gorde.¹³

Lanaren iturriak direla eta, testua irakurriz behin eta berriz ikusten denez,¹⁴ Arakistainek idatziz utzitako materialak baliatu zituen Aldazabalek: azaleko izenburuan ez ezik, paratestuetan (eskaintza, protesta, etab.) eta testu nagusian ere behin eta berriz aitortu zuen Arakistainek utzitako agirietatik ateratak informazioa baliatu zuela, gehienbat, bere lana prestatzeko. Badirudi Arakistainek berak heriotza tarteko gauzatu ezin izan zuen asmoa gauzatzeaz arduratu zela Aldazabal: cf. «que lo formal de la mayor parte de esta obra he sacado de los documentos que me suministraron los papeces que tenía ya para el mismo intento Fray Joseph de Jesús María y Araquistain, que dexé dicho en el prólogo» (Aldazabal 1767-1769: 42).

1767-1769ko lana gaztelaniaz eta prosaz idatzita dago, eta erdialdeko atalak beserrik ez daude zenbakitura. Hasieran, liburuak 68 orrialdeko sarrera luze eta zenbaikitu gabea du, eta horren azken atalean ematen dira Itziarko Ama Birjinaren omenezko kantuak: lehenik eta behin, gaztelaniaz eta latinez idatzitako kantu bat dago, «Canción que se halla escrita en el coro de la iglesia del santuario de Iziar» izenekoa (69. or.). Ondoren, euskarazko bi kantu ematen dira: Arakistainen bat lehenbizi, eta *Euskal Erria* al-dizkarian eta *ConTAVen* xvii. mendekotzat jo zena beste alde batetik (70.-72. or.).

3.1. Arakistainen euskal koplak

3.1.1. Argibide orokorrak

Gaztelaniazko kopl-a-sorta baten ondotik, 71. orrialdean Arakistainek sortutako kopl-a-sorta bat eman zuen Aldazabalek, egileta izenburuan bertan adierazita. Hamabi ahapaldiz osatutako laukoena sorta da, Itziarko Ama Birjinaren omenez osatua, aldez aurretik argitaratua eta gerora ere zenbait kantutegitan bildua; dirudienez, aha-paldietako batzuk *Ave Maris Stella* eresekiaren itzulpenak edo egokitzapenak dira (Unzueta 1985: 214; Ondarra & Unzueta 1997: 272-273; Baraiazarra 1997: 128), eta xx. mende hasierako kantu-biltzaileek ere jaso zituzten:

Algunas estrofas vienen a ser una graciosa traducción del conocido himno mariano «*Ave Maris Stella*». Lo publicó con su música y traducción al castellano D. Resurrección María de Azkue en el *Cancionero Popular Vasco*, t. IX, p. 31-33 (canción n. 718). Aunque Azkue sabe que su autor fue el P. José de Jesús María, sin embargo, lo trae como tomado de labios de D. Juan José Aguinagalde, de Itziar; el cual, por otra parte, parece que ya no conoce más que las siete primeras estrofas; y de entre éstas, la última —«Penaz dagoena...»— no se encuentra en la *Breve historia...* También el P. Donostia ha recogido esta canción religiosa (*Euskal-Eres-Sorta*, 1921, 204), pero sólo la primera estrofa es original del P. Araquistáin; las otras son del P. Iraizoz. (Unzueta 1985: 214)

¹³ Azaleko eta zentsuretako data-ezberdintasunak katalogazio-gorabeherak eragin izan ditu; zehazki, katalogo batzuetan azaleko data hartu da aintzat (Ondare Bibliografikoaren Biblioteca Birtuala, Bizkaiko Foru Liburutegia, Deustuko Unibertsitatea, Euskaltzaindia...), eta beste batzuetan paratestuetakoa (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Espainiako Biblioteca Nazionala, Koldo Mitxelena Kulturunea...).

¹⁴ Arakistaini edo haren agiriei buruzko erreferentzia zehatzak Ondarra & Unzueta (1997: 271-275) lanean irakur daitezke.

Kantua, beraz, ezaguna zen aurretik ere: Fita (1880-1881) eta Ondarra & Unzueta (1997: 273) lanetan osorik jasotzen da Arakistainen testuen artean, nahiz eta editoreek ez zituzten egindako zuzenketak adierazi eta zenbait grafema moderno itzuri zitzainkien.

Euskalaritzan sona Larramendiren hiztegiari eginiko eranskinaren bidez lortu bazuen ere (Mitxelena 1970: 172), ez da bereziki harrigarria Arakistainek Itziarko Ama Birjinaren omenezko bertsoak egin izana: bertan hazi zen (Ondarra & Unzueta 1997: 287) eta, Aldazabalen 1767-1769ko obrak islatzen duenez, informazio eta material ugari bildua zuen tokiko historiari eta gertakizunei buruzko lan bat egiteko. Kantua dela eta, bestalde, ez dira ahaztekoak Arakistainek Larramendiri eskainitako laukoena sorta biak,¹⁵ Arakistainek neurri horretako bertsoak edo kantuak idazteko zaletasuna bazukeela islatzen dutenak.

Arakistain-Aldazabal loturari dagokionez, lehenago ere esan bezala, bigarrenak sarritan aitorru zuen lehenengoaren materialak baliatu zituera bere lana taxutzeo. Bestetik da, ordea, Aldazabalek Arakistainen koplak zeuden-zeudenean txertatu zituen, edo bere irizpideen arabera galbahetuta aurkeztu. Izan ere, zenbait erabilera batasun handiagoa atzematen da Aldazabalen 1767-1769ko liburuko bi sorten artean, Arakistainek Itziarko Ama Birjinari idatzitako sortaren eta Larramendiri 1746an igorritako laukoena artean baino. Nolanahi ere den, hiru alderdi hartu behar dira aintzat antzekotasun eta ezberdintasun horiek aztertzean:

- a) Arakistainek ekoitzitako testuen artean ia hogei urteko denbora-tartea egon liteke, eta baliteke Arakistainek berak irizpideak aldatu izana.
- b) Arakistainen testuak Fitaren (1880-1881) eta Ondarraren eta Unzuetaaren (1997) edizioen bidez ezagutzen dira, eta azken horiek ere ez zuten jatorrizkoa ikusterik izan.¹⁶
- c) Testuen laburtasunak eta ezaugarri eta adibideen kopuru urriak ezer sendorik ondorioztatzea eragozten dute.

Aldeak direla eta,¹⁷ grafian zenbait ezberdintasun aurki daitezke; adibidez, LarLau1 eta LarLau2 lanetan ez dago <c->-rik hitz hasieran, baina bai ArakLau eta LauAnon sortetan, eta Aldazabalen bederatzurrenean. Halaber, LarLau1 eta LarLau2 testuetan ez dago <tce>-rik afrikatu lepokaria adierazteko, baina Aldazabalen liburuetaurki daitezke adibideak. Fonologiari dagokionez, Larramendiri igorritako laukoetan besterik ez daude -e > -a-ren eta iV > iiV-ren adibideak. Bestalde, herskarien aurreko lepokari > apikari neutralizazio-zantzuak ugaria-goa dira lauko zaharrenetan: LarLau1 7-4 *estarri*, 11-3 *gustitic*, 13-3 *eztauscala*;

¹⁵ Eskuizkribuez eta argitalpenez, begiratu Ondarra & Unzueta (1997: 279-281) lana, laukoon transkripzioa ere badakarrena.

¹⁶ «Lauko txiki hauek ere desagertu egin dira Historiako Akademiako Bibliotekako aipatutako papereratik eta gaur egun Aita Fitak eginiko argitalpenari esker ezagutzen ditugu soilik» (Ondarra & Unzueta 1997: 280).

¹⁷ Erkaketa astunegia suerta ez dadin, laburdura hauek erabiliko ditut tarteka: LarLau1 = Arakistainek Larramendiri igorritako lehenengo lauko eta LarLau2 = Arakistainek Larramendiri igorritako bigarren lauko, ArakLau = Arakistainek idatzitako eta Aldazabalek 1767-1769ko liburuan argitaratutako lauko, LauAnon = Aldazabalek 1767-1769ko liburuan emandako lauko anonimoa eta Ald1768 Aldazabalen 1768ko bederatzurrena.

LarLau2 3-3 *daramasqui*; ez dut halakorik harrapatu Aldazabalen liburuetaiko koplakan. Aldiz, lepokariaren aldeko neutralizazioaren adibide bana aurkitu dut egile bien testuetan: LarLau1 13-4 *azcoren* eta LauAnon 3-4 *ondazunac*. Izenaren morfologian, *aien* ‘haien’ eta *ain* ‘hain’ baliatu zuen Arakistainek Larramendiri igorritako laukoetan, baina *aen* zaharragoa agertzen da ArakLau testuan (12-3 *aen bien*) eta Aldazabalen bederatzurrenean. Ablatiboan testu guztiak dute *-tik*, nahiz eta motibatiboan *-gaiti* dagoen LarLau1 (3-1 *Orregaiti*) sortan; baina, ArakLau testuan 3-3 *zeugatic* eta 10-2 *gugatic* daude. Aditzetan, berriz, *izanen* adizkietan *-de* pluralgilea Aldazabalen liburuetaun besterik ez da agertzen (LauAnon *Leloa-4 guerade*; ArakLau 7-2 *cerade...*). Aginteran [aditzoina + **ezan*] arrunt da baten eta bestearen sortetan, baina ArakLau testuak [partizipioa + *egin*] dakar behin: 6-1 *Quendu eguzgutzu*.

Ikusten denez, aldeak gutxi eta txikiak dira oro har, eta ezin atera daiteke ondorio sendorik Aldazabalen balizko iragazki eta aldaketez: balirudike kasu batzuetan zertxobait molda zezakeela Arakistainen testua bere irizpideen arabera, baina aldeak hain txikiak (eta ez beti sistematikoak) izanik, idazleen barne-bariazioari ere egotz dakizkioke.

3.1.2. *Edizioa*

<71> Canción compuesta por el reverendo padre fray Joseph de Jesús María, para alabanza de nuestra señora de Iziar.

1/ Agur, Iziarco virgina ederra; agur, ama maite, ichasoco izarra.	
2/ Gabriel santuac zizun avisatu zeugan nai zevala jaunac encarnatu.	5
3/ Evaren izena mudatu zenduan, zeugatic baquea artu izan guenduan.	10
4/ Errecivi gaitzazu zeruco cortean erregu eguiten degunac lurrean.	15
5/ Cautivoac ascatu, itsuac arguitu, onac eman eta gaitzac quendu itzazu.	20

- 6/ Quendu eguzgutzu, arren,
gure miseriac,
baita baqueatu
guerra gaitz guztiac.
- 7/ Bigun eta garbi 25
cerade aurquitcen,
nola aingueruac
diran espantatzen.
- 8/ Bada, eguin gaitzazu
garbi ta bigunac, 30
gueran becatutic
beti libratuac.
- 9/ Iguzu gracia
garbi vizitzeco,
edertasun ori 35
guero icusteco.
- 10/ Erregutu ezazu
gugatic ceruan,
eracus cer dezun
podore munduan.
- 11/ Lagundu zaquizcu 40
ceruco glorian,
Jesus icusteco
zeure compañian.
- 12/ Gloria aitari
eta semeari, 45
nola aen bien
espirituari.

Amen

APARATU KRITIKOA

3-2 mudatu] *mundatu* || 3-3 baquea] *bequea* || 10-1 Erregutu] *Erregatu* || 11-2 ce-
ruco] *cereco*.

3.2. Itziarko Ama Birjinaren omenezko laukoak

3.2.1. Aurreko edizioez eta testuaren dataazioaz

ConTAV gogoangarriari bi testu labur gehitu zizkion Ibon Sarasolak (1983: 76,
1. oin-oharra) azken orduan: alde batetik, Bermeoko Ertzilla dorretxeari buruzko

kantu zahar baten hasiera;¹⁸ beste alde batetik, J. A. Lakarrak helarazitako lauko-sorta bat, Itziarko Ama Birjinaren omenez egindakoa eta *Euskal Erria* aldizkarian 1887an argitaratutakoa. Interesgarria izanagatik, *ConTAVeZ* geroztik ez da azken sorta horri buruzko bestelako ikerketarik egin, eta bere horretan utzi izan dira *Euskal Erria* aldizkarian eman zitzaitzkin datazioa (xvii. mendea) eta egileta ezezaguna, nahiz eta zenbait ezaugarrik testua modernoagoa eta giro jakin batekoa dela pentsarazten duten.

Euskal Erria aldizkariak 1887ko uztaileko alean eman zituen argitara Itziarko Ama Birjinaren omenezko laukoak, argibide askorik gehitu gabe. Izenburuan hala aurkezten dira: «Cuartetos ó laukos bascongados del siglo XVII á Nuestra Señora de Iziar, por sus Cofrades de Deva, con motivo de una calamidad pública». Ondoren testua ageri da, grafia modernoz goialdean leloa emanik eta laukoak zutabe bitan antolatuta. Amaieran, testuak duen oin-ohar bakarrean, hau adierazten da: «Se han hallado en el archivo de la ilustre familia de los Churrucas de Motrico».

Testuaren sistema grafikoak, hizkeraren kutsu landuak eta Arakistainen laukoe-kiko antzekotasun formalak eta tematikoak halako susmo bat eragin izan didate hala dataz nola egiletzaz azken urteotan, baina bestelako datuen faltan, izan zitekeen *Euskal Erria* aldizkariko erredaktoreren batek Txurruka familiaren ondarean testua aurkitu eta garaiko joeren arabera eraldatu izana.

Aldazabalen 1767-1769ko liburua esku artean hartzeaz batera ezustekoak hartu nuen; izan ere, 72. orrialdean, Arakistaini egotxitako laukoak ondoren, *Euskal Erria* aldizkarian eta *ConTAVen* argitaratutako laukoak agertzen dira.¹⁹ Orrialdean ez dira txurrukatarra aipatzen, eta egilea nor den ere ez da zehazten: «Canción compuesta por un devoto hijo suyo» adierazten da, eta Deban izuriaren aukako bederatzurren baten karietara sortuak direla zehazten: «al tiempo que se hizo el novenario en Deva contra la pestifera epidemia y se cantó todos los días delante de la santa imagen». Leloak eta bederatzi ahapaldi osatzen dute testua;²⁰ alegría, *Euskal Erria* eta *ConTAVeZ*ko edizioetan ez dagoen beste ahapaldi bat du, hirugarrena.

Testua begiratuta, grafiak modernoegia dirudi xvii. mendekoa izateko. Hori baieztago zantzu nagusia txistukarien adierazpen grafikoa da, beste testu batzuekin gertatu izan den bezala.

Ezagun da Hego Euskal Herrian, Larramendi baino lehen, oro har eta salbuespenak salbuespen, txistukari frikariak eta afrikatuak ez zirela grafikoki bereizten (Lakarra 1985; Urgell 1987: 359, 2018: 608). Larramendik, aldi, afrikatuetaν <tz> eta <ts> sistematikoki erabiltzea proposatu zuen; XVIII. mendeko gipuzkoar idazleen erabilera eta joerez, ikus Lakarra (1985). Itziarko koplez den bezainbatean, testuan ez dago erabilera erabat sistematikorik, baina frikariak eta afrikatuak bereizteko ahalegina agerikoa da:

- a) Afrikatu apikaria <ts>-z adierazten da sistematikoki, nahiz eta adibide guztiak berba bakarrari dagozkion: 2-2 & 2-3 & 3-3 *jatsi*.

¹⁸ *Torrenteroan torrea dago / arri labradus cercatua, / Portu guichian Santa Clara / Yturria eta gaztelua.*

¹⁹ Tamalez, Ondarrak eta Unzuetak (1997) ez zuten sorta hau aipatu, hala Aldazabalen lanari nola aurreko orrialdeko Arakistainen sortari buruzko hainbat zehaztapen eman arren.

²⁰ Kasu honetan leloa lehenengo ahapaldiaren azpian agertzen da, «Estrivillo» izenburupean eta letra etzanez.

- b) Afrikatu lepokariaren adierazpenean poligrafia dago: beherago aipatuko den <z> bakarraz gain, <tz> eta <tc> erabiltzen dira, lehenengoa gehienetan <a> aurretik eta bigarrena beti <e> aurretik: LauAnon Leloa-1 *itzazu*, 3-1 *viotzac*, 4-4 *zaitzaten*, 8-4 *vizitzac*; 4-2 *garbitcen*, 4-4 *aditcen*, 5-3 *defenditcen*, 6-2 *bi-guntcen*, 6-4 *etorrictcen*, 8-1 *arquitcen*. <tz>-ren eta <tc>-ren banaketa hori hausten duen adibide bakarra dago: 8-4 *mudatutzeco*.
- c) Afrikatu bakar bat adierazten da oro har frikariak adierazteko erabiltzen den <z> grafemarekin: 1-3 *sendatuzeco*.²¹

Banaketa grafiko horiek aintzat hartuta, bi ondorio atera litzke. Lehenik, testua modernoa dela pentsatzeko zantzuak daude; zehazki, Larramendiz edo Lehen Euskarra Modernoaren hastapenez geroztiko testua dela pentsatzeko zantzuak. Bigarrenik, grafemen banaketa ez da Larramendiarena bera, afrikatu lepokarian <tz> ez ezik <tc> ere agertzen delako. Erabilera horrek Larramendi ez beste gipuzkoar idazle eta testu batzuen hautu grafikoak gogorarazten ditu (Irazuza, Zegamako dotrina eta, are beranduago, Kardaberatz), bakoitzarekin egin beharreko ñabardurak ñabardura; ikus Lakarra (1985: 243-245).

Beste alde batetik, testuari landu-kutsua dario: XVIII. mendekoa (eta, zehatzago, 1745 ondokoan) dela onarturik, Gipuzkoako ipar-mendebaleko testu arkaiko, zahar eta modernoen argitan espero zitezkeen zenbait ezaugari linguistikoren falta idazlearen hautu linguistiko-estilistikoen ondorio dela uste dut: bereziki gogoan ditut XVIII. mendearen ugaritutako baina Deba aldean XVI.az geroztik lekukotutako bokal-bilkuretan fenomenoak, testuan agertzen ez direnak, edo txistukarien neutralizazioa, kasu bakar batean legokeena, lepokariaren alde (3-4 *ondazunac*). Nire ustez, horien falta erraz(ago) azaltzen da pentsatuaz testua XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik arian-arian hedatutako eredu linguistiko supralokalari jarraituz idatzi zela (cf. Zu-Loaga 2020: 652, 15. taula).

Testuaren data zehatza aurkitu nahian Txurruka familiaren artxibo katalogatuak arakatu ditut,²² baina ez dut hizpide dudan kantuaren erreferentziarik edo berririk aurkitu. Agiri gehienak XVIII. mendekoak edo orduz geroztikoak dira, eta gehienbat ondasunen kudeaketari eta merkataritza-gaiei buruzko agiriak, eta dokumentazio pertsonala (gutunak, curriculumak) biltzen dira.

Euskal Errria aldizkarian XVII. mendeaz egiten den baieztapenari bestelako azalpenik erantsi ez izana tamalgarria da, eta akatsa (XVII. esatea XVIII. esan beharko lu-keen lekuau) izan daitekeela uste dut. Hain zuen ere, horretan nengoela, ideia berbera aurkitu nuen Guerrak eginiko oin-ohar labur batean: «Atribuyéndole un siglo más de antigüedad, la publicó la Revista *Euskal-Errria* en el año 1887 (tomo XVII, página 169)» (Guerra 1924: 186, 1. oin-oharra). Are gehiago, Itziarko Ama Birjinaren omenezko kantua 1766kotzat jo zuen: «la primera canción fue compuesta el año 1766, para implorar la protección de la Virgen con motivo de la peste que en el mismo año padeció la villa de Deva» (1924: 186). Datazioa eta izurritearen berria Aldazabalen 1767-1769ko liburuan irakurria zuen Guerrak, eta Aldazabali berari ego-

²¹ Aldazabalen *usus scribendi* eta edizio-irizpideei jarraikiz, edizioan zuzendu egin da.

²² Euskadiko Artxibo Historikoan gordetzen dira eta kontsulta zuzenean egin daiteke egun: <https://dokuklik.euskadi.eus/badator/search> [azken kontsultaren data: 2020/09/15].

tzi zion kantuaren egileta. Hurrengo azpiatalean zehaztuko dudanez, bat nator Guerrarekin.

Aldazabalek bere historia-liburuan ematen dituen azalpenetik ondorioztatzen da Deba aldean izurritea gertatu zela 1766an eta Itziarko Ama Birjinaren laguntzaz gainditu uste zutela tokiko bizilagunek gaixoaldia. Jarraian ematen dituen azalpenak nahasgarri izan daitezke, XVI.-XVII. mendeetako beste izurrite batzuen berri ematen baitute, baina hasierako esaldiak argigarri dira datazio-gaietarako:

[...] [Itziarko Ama Birjina] es estrella de vida y de salud, que destinó Dios para general medicina y remedio de los contagios y epidemias de los hombres, como se ha visto diferentes veces y especialmente el año próximo passado de 1766 en esta villa de Deva y su jurisdicción, pero muy en particular en el cuerpo del mismo pueblo. Mas primero haremos mención de otra peste general, que es fama haber cesado por intercesión y patrocinio de esta divina señora de Iziar en toda la jurisdicción de esta citada villa de Deva, aunque no está averiguado el tiempo y, si bien consta en los libros de la iglesia de Iziar que el año de 1597 hubo una muy grande peste en las ciudades y villas de San Sebastián, Lequeitio, Oñate y Passages, y dos años después en Bilbao, Vitoria, Logroño, Santo Domingo, Burgos, Valladolid, Sevilla, Pamplona, Estella, Puente la Reyna y otras muchas ciudades y villas, pero es sin duda mucho más antiguo el caso y ocasión en que sucedió el milagro, porque el año de 1660 se habla de los instrumentos este caso como de cosa inmemorial y antiquíssima [...]. (Aldazabal 1767-1769: 211-212 [letra etzana neurea da, EZ])

Hurrengo orrialdean beste puntu batean agertzen den informazioa lausotzat jo liteke. Badirudi 1766ko gertakariak azaltzen dela idazlea, tartean garai zaharragoetakoak azaldu ondoren; baina, ez du 1766. urtea berriz aipatzen eta hortik lausotasuna:

El caso fue que, haviéndose encendido en todas las provincias de España una cruel peste que causó estragos lastimosos, tocando también en las costas de Cantabria, llegó a picar en los términos de Deva y Universidad de Iziar. En grande aflicción se hallaron sus vecinos con un mal tan eficaz y contagioso, pero acordándose los parroquianos de Iziar del soberano patrocinio de su celestial madre y protectora, y de las maravillas y prodigios que havían experimentado de su benigníssima piedad en diversas necesidades y trabajos, acudieron a la protección de tan misericordiosa madre con la más tierna devoción y confianza, suplicándola los librarse de un mal tan activo y pernicioso. Y, para más obligarla, determinaron hacer una muy devota procesión desde el santuario de la santíssima virgen, cogiendo dos leguas de rodeo y mucha parte de la jurisdicción de la villa y, volviendo otra vez al santuario, como oy día se egecuta, se diesse fin a él. (Aldazabal 1767-1769: 212 [letra etzana neurea da, EZ])

Zentzuzkoa dirudi pentsatzea prozesio berori Itziarko Ama Birjinaren omenezko bertsoen izenburuan aipatzen den berbera dela: hurrengo orrialdeetan prozesioaren nondik norako zehatzak azaltzen dira, eta Ama Birjinaren omenez euskaraz hainbat kantu kantatzen zirela aipatzen da: «cantando al mismo tiempo en lengua bascongada muchos hymnos y alabanzas a la madre de Dios de Iziar» (Aldazabal 1767-1769: 215).

Aurreko paragrafoetan bildutako informazioarekin eta emandako ikuspegiarekin bat, beraz, sinesgarriagoa dirudi Itziarko Ama Birjinaren omenezko laukoen sorta ez XVII. mendekoa baina XVIII.ekoia izatea: datu grafiko-linguistikoek horren alde egi-

ten dute, eta Aldazabalek berak emandako datu historikoek ere horretarako euskarria ematen dute; Guerrarekin (1924) bat etorri, 1766ko sorta izan daiteke.

3.2.2. Egiletzaz

Aurreko azpiataleko datazioa onarturik, agerikoa da Arakistainek ezin izan zuela 1766an sortarik idatzi, bi urte lehenago hila baitzen (Unzueta 1985: 207); bestalde, Aldazabalek ez zion egileta Arakistaini egotzi, ezkarpeta tokiko elizkoi bati. Arakistainez eta Aldazabalez gain bestelako idiazel elizkoirik zenik ezin da guztiz baztertu, baina eskuieran dauden datuekin errazagoa da, Guerrarekin (1924) bat, egilea Aldazabal bera dela pentsatzea. Izan ere, Aldazabalek berak 1768an Itziarko Ama Birjinaren omenez argitaratutako bederatzurrenaren amaieran beste kopla-sorta bat gehitu zuen, eta 1767-1769ko liburuan aipatzen diren prozesioetan Aldazabal zen Debako beneficiadu. Badirudi, beraz, Aldazabalek apaltasunez sinatu zuela hirugarren pertsonan.²³

Alderdi linguistikoari begiratuta, Itziarko Ama Birjinaren omenezko laukoetako eta Aldazabalen 1768ko liburuko hizkera berbera direla esan daiteke, ñabardurak ñabardura. Kasu honetan ere zaila da erkaketa sendoa egitea, kopla-sorta laburra baita bere horretan, baina zenbait bat etortze esanguratsuak dira.

Grafiaren esparruan, Arakistainek ez zerabilen <tc> afrikatu lepokaria adierazteko, baina lauko anonimoan eta 1768ko liburuan arrunt da. Frikari apikaria adierazteko, bestalde, <ss> digrafoa lauko anonimoan eta Aldazabalen liburuan agertzen da, bakan bada ere:²⁴ cf. LauAnon 4 *assi*; Ald1768 7 *Santissimoac*, 9 *santissimoco*, 18 *santissimo*.

Bokalen esparruan *e + e > eer* bat aurki daiteke LauAnon eta Ald1768 testuetan, bai eta Arakistainen 1746ko laukoetan ere; aitzitik, azken horietan inoiz agertzen den VhV > VV-rik ez dago garaitiko testuetan. Txistikarien neutralizazioa dela eta, 1768ko lanaren luzerak eragiten du gainerako testuetan baino adibide gehiago aurkitzea. Gehienetan, lepokariaren aldeko neutralizazioa agertzen da (2 *eztitazunac*, 5 *ezca*, 12 *edertazunez*, 13 *edertazun*, 18 *Ezateaz*, 23 *ezcatcen*), nahiz eta 4 *gustietan* ere badagoen. Joera horrek ere bat egiten du LauAnon sortarekin, neutralizazio-zantzu bakarra (3-4 *ondazunac*) lepokariaren aldekoa baita, Arakistainen laukoetan ez bezala.

Hirugarren pertsona pluralean *aek* dago Aldazabalen 1768ko liburuan sistematikoki (7 *aetan*, 8 *aec*, 28 *aen*), eta hori Arakistainen 1746ko laukoetako *aiek* formari kontrajartzen zaio, nahiz eta bat egin ArakLau sortako erabilera-rekin. Motibatiboan, bestalde, *-gatik* da forma bakarra Aldazabalen liburuan, ArakLau sortan legez, baina LarLau1-en ez bezala.

Aditz-izenetan partizipio-marken gainean eratutako *-tutze* eta *-itze* ItziarLau eta Ald1768 lanetan besterik ez ditut aurkitu, eta beste horrenbeste gertatzen da *-de* pluralgilea duten *izanen* adizkiekin: LauAnon Leloa-4 *guerade*, 9-4 *guiñaden*; Ald1768 8 & 10 (birritan) *dirade*, 31 *diraden*. Bestalde, Ald1768 testuan nahas-mahas agertzen dira **ezan* eta *egin* laguntzaileak, ArakLau testuan legez, baina pe-

²³ Jokamolde hori ezaguna da XVIII. mendeko bertako euskal tradizioan. Gogoratzeko da zenbait hamarkada lehenago D. L. Urkizu durangarrak ez zuela bere *Liburu virginia santissimien erosario sanctuena* (1737) liburua izen-abizenez izenpetu: *Durangoco urico deboto batec* formula baliatu zuen.

²⁴ Arakistainen laukoetan <ss>-k [ʃ] sabaikaria adierazten duela dirudi: 4-1 *Isil bite*.

rifrasi-ereduetan nahaste gehiago dago 1768ko liburuan: [aditzoin + *ezan] eta [partizipio + *egin*] banaketa zaharra harago (ikus Mounole 2007, 2018 [2014]), [aditzoin + *egin*] eta [partizipio + *ezan] ereduokoa ere aurki daitezke.

Azpiatal honetara bildutako datuen arabera, errazena da laukook Aldazabalek sortu zituela pentsatzea.

3.2.3. Edizioa

<72> Canción compuesta por un devoto hijo suyo a Nuestra Señora de Iziar, al tiempo que se hizo el novenario en Deva contra la pestífera epidemia y se cantó todos los días delante de la santa imagen.

Estrivillo²⁵

Ama gozoa, adi itzazu
gure deadar tristeac:
becatariac baguera ere,
guerade zure semeac.

1/ Izar eder bat etorri zaigu
Iziartican Devara,
miñez daudenac sendatutzeco
bere pareric ez dana.

2/ Penen artean ozta geunden
jatsi artean izarra,
jatsi ezquero aguertuco deu
ondo laster bere garra.

3/ Gure viotzac tristeric zeuzcan
penac, minac ta pobrezac,
baña izar hau jatsi ezquero
etorri zaizcu ondazunac.

4/ Nere Christauac, asi zaitezte
ceren animac garbitcen,
Ama Virginia Iziarcoac
assi zaitzaten aditcen.

5/ Virginia ama, becatarien
vitarteko izan zaite:
gu zuc defenditcen bagaituzu,
beti izango guera libre.

6/ Zu gure aldetic jarri ezquero
Jesus maitea biguntcen,
berealatic sentituco da
osasuna etorritcen.

²⁵ Aldazabalen lanean (1767-1769: 72) lehenengo ahapaldiaren ondotik dator errepika.

7/ Gure becatu ta culpa andiac
mereci zuten onela,
baña, ala ere, acorda zaite
zerala guztien ama.

8/ Damu ta mínez arquitcen guera
izan gueralaco gaitzo,
gogo firme bat artu izan degu
vizitzac mudatutzeco.

9/ Ama maitea, veguira ezazu
cere cofradeen artera:
zure graciac andiac dira,
galdu guíñaden bestela.

APARATU KRITIKOA

1-3 daudenac] *daunenac* || 3-1 tristeric] *tristiric*.

3.3. Gipuzkoako kopla zahar bat

3.3.1. *Koplaren berri*

xviii. mendeko idazleek sortutako testuez harago, Aldazabalen 1767-1769ko liburuak euskarazko beste kopla bat ere badakar: gipuzkoarrek Domenjón González de Andiaren (Tolosa, ? - Zumaia, 1489; ikus Garmendia 2007) omenez sorturikoa. Kopla zaharra da, eta Aldazabalek mende bat lehenago Braulio de Lanak argitaratu-tako *Descripción de las casas y solares de Andia, Yrarraçaual, Zarate, Recalde y Biuero* (Madril, 1620) monografiatik hartu zuen. Hain zuzen, horrek pentsarazten dit jatorrizkoa Domenjón González de Andia hil zen garaikoa dela, xv. mendearen amaiera-ko. Hala dio Lanaren bertsioak (1620: 2-3):²⁶

Sagarra eder gueçatea
guerian ere espatea
Don Menjon de Andia
Guipuzcoaco eReguea

Gerora, J. I. Iztuetak (1847: 494) bere historia-lanean jaso zuen kopla bera, xv. mendekotzat joaz eta kasu honetan ere grafian eta ezaugarrietai zenbait aldaketa erantsita:

Sagarra eder guezatéa
guerriyan ere ezpatéa
Domenjon de Andía
Guipuzcoaco erregua

²⁶ BNEko funtsetan gordetzen den alea erabili dut.

Bestalde, M. P. Lekuonak bildutako eta Kaltzakortak (2003: 147) editatutako Oiartzungo xx. mende hasierako kopla zaharren sorta batean ageri den ahapaldiak ere arrestikoa du oinarri:

Sagar gorri gezatea
gerrian bere ezpatea
Pedro Arbide Aldako'kua
Oyartzun'go alkatea

Halaber, xx. mendean Manuel Lekuonak (1978: 91) bertsio hau eman zuen:

Sagar gorri gezatea
gerrian bere ezpatea,
Domenjon de Andia da
Gipuzkoa'ko erregea.

3.3.2. Aldazabalen testua

<88> Esta ilustríssima casa juntóse con la antiquísima e inmemorial Torre de Andia en la Villa de Tolosa, <89> Provincia de Guipúzcoa, por casamiento de Doña Teresa Ruiz de Irarrázaval, dueña y señora de ella, con Antón González de Andia, hijo primogénito y heredero de Domenjon González de Andia, aquel célebre padre de la patria a quien los guipuzcoanos en loor y alavanza le cantaban las coplas siguientes:

Sagarra eder guezatea
guerrian ere ezpatea,
Domenjon Andia
Guipuzcoaco erreguea.

3.4. Azalpen etimologikoak

Aurreko azpiatalean emandako kopla-sorteze gain, Aldazabalen 1767-1769ko liburuak biltzen dituen euskarazko materialen artean Gipuzkoako zenbait toponimori eta hitzi buruzko proposamen etimologikoak ere badaude. Garaiko irizpide eta ikuspegien arabera egindako proposamenak dira, oro har: aurreko mendeetako historialaren proposamenen oihartzunak aurki daitezke, bai eta Larramendiren *Hiztegi hirukoitze* azalpenen argitan emandakoak eta herri-etimologiaren esparrukoak ere.

ARANTZAZU

Arantzazuren azalpena emateko, aurreko mendeetako historialarien (ikus Garibai 1571 eta Gamarra 1648, *apud* Villasante 1965) bidetik jo zuen Aldazabalek: «*Arantzaz* en lengua bascongada quiere decir ‘espina’ y *zu* significa ‘tú’» (54. or.).

DEBA

Deba toponimoa dela eta, zalantza gehiago zuen Aldazabalek, eta azalpenetarako Larramendiri jarraitu zion:

Llámase de Deva por el río assí denominado por los antiguos y porque es su término el que le da fin al ser del río, mezclando sus raudales con el occeano. No sé si el nombre de Deva le vino a este río del antiguo bascuence *divana*, que quiere decir en el de ahora *batzarrea*; esto es, junta o congregación en castellano, o por que dicho río congrega en sí las aguas de la Provincia de Álava, Señorio de Vizcaya y las de esta misma provincia de Guipúzcoa, o si por otra razón que no alcanzamos. Ello este asunto no es de nuestra inspección. (14. or.)

Larramendi dela eta, *Hiztegi hirukoitzaren divan sarrera aipatzen du Aldazabalek, zehazki. Hala dio: «Divan. Turcoen batzarrea, divaná. Lat. Turcarum supremum consilium»* (1745, I: 296).

IZIAR₁

Liburuan etengabe aipatzen du *Iziar* leku-izena Aldazabalek, eta behin baino gehiagotan lotzen du *izar* hitzarekin bai liburuaren sarrerako orrialdeetan, bai ondokoetan; cf. «IZIAR, esto es, estrella» (9. or.), «los rayos de una estrella luminosa, expresada a lo claro en vuestra imagen de IZIAR» (12. or.), «aun vuestro mismo nombre de María se interpreta ‘iluminadora’» (13-14. or.), «Izar ó Iciar» (17. or.), «la brillante estrella, la virgen sacratíssima de Iziar» (34. or.), «Iziar o estrella» (39. or.).

Aurreko azalpenez harago, beren-beregi ere aipatzen du ustezko etimología: «Corrobora, assí mismo, esta esperanza ver, madre piadosíssima, que esta mi obra se erige para dar luz a los lectores píos de vuestra imagen milagrosa de IZIAR, voz que en lengua bascongada quiere decir ‘estrella’, y con tan buena estrella como vos no me faltará luz» (12. or.), «Estrella es la sagrada imagen de Mont-Real de *Iziar*, no solamente porque imita con toda propiedad y lleno las particularidades del celestial astro, sino también porque *Iziar* o *Izar* significa en idioma bascongado ‘estrella’» (42. or.). Azalpen bera beste bitan edo hirutan aurki daiteke liburuan zehar.

IZIAR₂

Beste alde batetik, Aldazabalek *iziari* izeneko landarearekin lotzen du Aldazabalek *Iziar* topónimoa, Larramendiren azalpenei jarraituta:

Significa también *iziarra* o *errazlatza* en bascuence cierto arbusto espinoso que en castellano se llama *tamujo*, segun en su diccionario enseña el reverendo padre Larramendi, y puede tener su bella alusión. Llámale Dioscorides a esta misma planta *brusco* o *ruso*, que tiene su oja a manera de una lanza y en medio de ella trae su fruto muy encarnado y hermoso, que sirve para infinitos medicamentos. Symbolo admirable de María Santíssima de Iziar, que apareció con su hijo preciosísimo en medio de su dulce regazo, para que como fruto encarnado de su vientre, sirviera de medecina espiritual y temporal a todos los que la buscassen. (46. or.)

Es utilíssimo para curar varias enfermedades humanas el fruto de la planta brusco o tamujo, que en bascuense se llama *iziarra*, y es hermosísimo, encarnado y grato, mas si a sus ojas quisiesse hacer violencia el hombre con sus manos, le punza en ellas, por tener hechas en forma de punta de lanza, para oponerse à las cosas contrarias. (148. or.)

Iziarra landare-izena dela eta, Larramendiren hiztegia aipatzen du Aldazabalek iturritzat; zehazki, *tamujo* sarrera. Hala dakar *Hiztegi hirukoitzak*: «Tamujo,

arbusto espinoso, *erratz latza, iñuncilatza, iciarra*. Lat. *Arbustum spineum»* (1745, II: 316).

LIZARBE

Lizarberi dagokionez, etimologia zuzena eman zuen Aldazabalek, fitonimoa eta *be(he)* ondo identifikatu baitzituen:

El maravilloso descubrimiento de la santa imagen de nuestra señora sucedió en el mismo sitio, no muy distante de una fuente, que se llama *Lizarbe*, esto es, *lo bajo de los fresnos*, por los que havría en aquel parage o lugar de acia la fuente, para significar que, si le conviene a la devotíssima imagen de Iziar ser estrella hermosa del cielo con la mayor propiedad, también la quedaron los symbolos de fresno y fuente, con grande conveniencia. (44. or.)

ZABAleta

Zabaleta toponimoaz den bezainbatean, ‘landa’ eta ‘lautada’ esanahiekin loturik agertzen da:

Pero reparando que aquel sitio era algo desigual y quebrado, los mas fueron de parecer que la fábrica se hiciesse en el sitio de mas arriba, en el parage que oy se venera el apostol San Bartholomé en su hermita, que en su mismo nombre, que es *Zavaleta*, está mostrando las conveniencias del pensamiento, porque significa ‘pradera’ y ‘sitio llano’. (41. or.)

4. *Ama Virgina santissima Yciarcuaren bederatci urrena* (1790 [1768])

4.1. Liburuaz

Euskararen corpusaren txikitakun txikitakun, Aldazabalek euskara hutsean idatzitako liburu bakarrak ez du aparteko arretarik erakarri. Ezagutu ere, bigarren edizioa (Tolosa, 1790) besterik ez da ezagutu XIX. mendearen hondarretik hona. Vinsonek lehenengo edizioa aipatu zuen, ondotik «Je ne connais cette plaque que par la réimpression suivante» zehaztuta (1891-1898 [1983]: 222); halaber, Bilbao-ren *Eusko bibliographian* edizio bien berri jasotzen da, baina 1768koaren argitaralekuari eta inprimatzailarei dagozkion [s.l.] eta [s.n.] zehaztapenek erakusten dute hark ere ez zuela lehenengo edizioaren alerik ezagutu. Bigarrena bai, zehatz aipatzen du Bilbaok.

Azken urteotako digitalizazio- eta katalogazio-lanek 1768ko edizioaren aleren bat azaleraz zezaketelakoan hainbat datu-base eta katalogotan bilatu dut, baina ez dut bat ere aurkitu, eta bigarren edizioa, 1790ekoia, izan dut langai. Zehazki, Frantziako Biblioteca Nazionalean gordetzen den ale digitalizatua baliatu dut, kalitate bikaineko irudiak eskaintzen baitira *Gallica* atarian.²⁷ Jabetza dela eta, badirudi Vinsonek edukitako edo erabilitako alea dela, portadaren atzealdeko orrialdean hala adierazten

²⁷ Lana *Fonds régional : Aquitaine* funtsean gordetzen da, *Département Littérature et art* dela-koan, Z BASQUE-101 signaturarekin. Helbide honetan ikus daiteke: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k886872v>.

baita: *Basque / 101 / Vinson 110 li*; hala ere, liburuaren azalean eta 17. eta 33. orrialdeetan Antoine Abbadieren bildumari dagokion zigilua agertzen da, tinta gorriz: *Bibliothèque Nationale. Academie des sciences* agertzen da zirkuluaren kanpoaldean goi eta behe, eta *Collection Antoine D'Abbadie* barnean erdiraturik.

Liburuaren eitea ez bide da bereziki lagungarria izan liburia ezagutu eta hedatzeko. Tamainari dagokionez, 33 orrialde hartzen ditu testuak, azala barne: hasierako orrialdearen atzealdean Itziarko Ama Birjinaren eta Aldazabal sendiaren armariaren irudiak daude, eta behealdean, eskuinetara eta koadro baten barruan, testu labur hau irakur daiteke: «V[enerable] Retr[ato] de N[uestra] S[eñora] de Yziar. Protectora de navegantes en la población de Deva. Benerada en la M[uy] L[eal] provincia de Guipúzcoa. A costa de Don Pedro Josseph de Aldazabal y Murguia». Testu horren gainean, bestalde, Frantziako Biblioteka Nazionalaren zigilua agertzen da estanpaturik.

Azaleko testua erdiraturik dago, eta badirudi 1768koaren zati bat bere horretan utzi zela, egiletzaren ondoren «ateratzen debana 1768 garren urtean» esaten baita. Horren azpian, ordea, 1790eko argitalpenari dagozkion datu zehatzak agertzen dira: «1790 urtean» alde batetik eta «Tolosan: Libruguille D. Fermin Huarte eta Arlegui. Preceptorea» beste alde batetik.

Edukiari dagokionez, bederatziurren bat da, funtsean. Irakurleari desenkusa-ku-tsuko sarrera eskaintzen zaio (2.-3. or.), eta ondotik datozen bederatziurrenaren sarrera (3.-4. or.), eguneroko otoitzta (4.-5. or.) eta bederatzi egunetako bakoitzari dagozkionak (9.-25. or.). Gero, «Gozoak» izeneko atalean, Itziarko Ama Birjinaren omenezko kopla-sorta bat ematen da (26.-29. or.):²⁸ hasierako leloak eta zortzi ahapaldik osatzen dute. Liburuaren azken atalean Aldazabalek Iruñeko apezpiku Juan Lorenzo Iri-goiени eginiko eskaintza agertzen da (29.-33. or.).

Aldazabalen lanaren ibilbidea dela eta, XIX. mendearen bigarren erdian gaztelaniara itzulita argitaratu zen, «avec une introduction spéciale» (Vinson 1881-1898: 222) eta *Novena de la santísima Virgen de Iciar* izenburuean (Viuda de Mendizabal, Tolosa, 1866). Euskal testuak ere izan bide zuen arrakastarik, XIX. mendearen bigarren erdian grafia eta hizkera eraldaturik berrargitaratu baitzen, nahiz eta berrargitaratzale-moldatzaileak ez zuen Aldazabalen egilezarik aipatu; zehazki, Francisco María Gorostegik²⁹ berrargitaratu zuen testua, 1884an, *Euskal Erria* aldizkarian (XI. lib., 148. zk., 129.-134. or.); ikus § IV. eranskina.

²⁸ Guerrak (1924: 188-193) kopla-sorta hori bildu zuen, gaztelaniara eginiko itzulpenaz lagundurik.

²⁹ Gogoratu behar da Gorostegi izan zela 1884an Aldazabalen 1767-1769ko gaztelaniazko liburu euskarara itzuli zutenetako bat; hain zuzen, *Euskal Erria* aldizkarian aurki daitezke itzulpen horren pasarteak. Bestalde, aldizkari berorren 1884ko XI. liburukian Itziarri eta Itziarko Ama Birjinari buruzko hainbat testu aurki daitezke, hala nola bertan antolatutako literatur sariketa batera aurkeztutakoak.

4.2. Edizioa

Ama Virgina santisima Yciarcuaren bederatci urrena

Don Pedro Joseph de Aldazaval y Murgua Debaco beneficiadu len vicario izanac
ateratzen debana 1768 garren urtean.

Bear dan bezela

1790 urtean

Tolosan: libruguille Don Fermin Huarte eta Arlegui. Preceptorea.

<2> Iracurleari sarrera

Yracurle amaric onenaren devotoa eta nere adisquidea: badaquit libracho onetan oquer asco arquitu cenzaqueana. Baldin ama gozo onen eztitzunac atzeratzen ezpaleu zure vorondatea <3> eta minga esan-mesanetatic, ez daguiozula, bada, arren, veguiratu emen arquitzen dezun izcunde torpearri, ezpada libracho onequin deseatzten danari; au da, ama maite Yziarcoaren devocioa zavaltea mundu guztian, iñor ere guelditu ez ded[i]n onen favoreac errecibitu bague. Nic gordeco ditut nere viotcean zureac, baldin izaten bada zure gustocoa. Eta adio.

Ama Virgina Yziarcoaren bederatzi urrena

Garagarillaren lenda vicico ygandearen vezperatic emango zayo <4> asiera, modu onetan.

Belaunico jarriric, gurutce santuaren señalea egungo debe bederatci urren onen asi eraraco eta, onen ondoren, esango debe *Acto contriciooa* egunero.

Egun gustietan, bederatci urren onec diraben artean, egungo debe limosnachoren bat edo beste obra onen bat, ta bederatci urren onetan egunero lendabician esango da, *Acto contricioocoaren* ondoren, seguitcen dan oracio au.

Bederatci urreneco eguneroco oracioa

Ceruetaco erreguina, Jaincoaren ama, aingueruen eta <5> guizonen consueloa: baldin Jaincoaren gloriaric andieneraco, zure honraraco eta nere animaren provechurako izaten vada nic escatcen dedana bederatci urren onetan, alcanza eguidezu zure seme jauna gandic gracia au eta, ezpaere, zuzen ezazu nere oracioa eta ezca eguiouzu nere Jaincoari gueyen eta onen dagoquidana bere honraraco eta nere animaren pro-vechuraco. Amen.

O Maria, virgina guztiz santa, Jaincoaren ama, ceruetaco eta lurreco erreguina, gure ama gozo eta eztitsua, gure oneraco epeñi nai <6> izan zenduana zure imagina ederra munduan, escogituric onetaraco Yziarco erri doatsua, garbi guelditu ziñana cere lendavizico izatean, doatsua cere jaiotzan, humildea presentacioan, guztiz casta esposorioan, graziaz betea cere anunciacioan, diligentea visitacioan, obedientea purificacioan, dolorez betea zure seme jaunaren pasioan, gloriaz jancia cere asumpcioan eta coroacion. Ona, andrea, non daucazun zere oin sagraduetan macurturic zure de-

votoen arteco chiquiena. Nic, andrea, daucat atseguin andi bat, nere <7> Jaincoaren ama santa, cerren aimbeste privilegioz apaindu zinduan Trinidate Santissimoac, empeñatzen zala aita bere podore cabu baguearequin, semea jaquiunde ezin gueiagoarequin eta Espiritu Santua amorio fingabearequin zure gracieta, ematen zizutela Jaincoaren ama izateco bear zenduan santidade guztia. Gracia, doay ta misterio oec gatic escatcen dizut, nere ama gozoa, alcanza deguidazula vicitcea beti zure semearen gracieta, equiten diedala virtute guztiai, batecere, gueyena, aguertcen naizala araco amabi aetan ceñetan zu, gueyena, <8> ezagutua izan ziñan munduan, eracusten diguten becela araco amabi yzar eder zure coroa apaincen debeen aec, ceñetan adierazotzen zaizcun. Oec gatic alcanza ditzadan zuri jarraituaz eta zu vitarteko zaitudala eriotza on bat Jesus maitearen viotzean, berac nai debanean, eta bederatci urren onetan escatcen dizudan favorea, Jaincoaren gloriaric andieneraco bada. Amen.

Oracio au esan ezquiero, bacoitzac, isilic dagoala tempora labur batean, escatcen dio ama maiteari conveni zayona viotzarequin, eta guero errezzatuco dirade iru *Ave Maria* eta, oen ondoren, eguneco oracioa modu onetan.

Lenengo <9> eguneco oracioa

Virginia garbi, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erreguina, santa graciaren edertasunetan becatuaren loi gave cere lendavicico izatean sortua: atseguin andi bat daucat, nere ama gozoa, zu bacarric escogitu zindualako jaunac doay onetaz, izan zindean bear zan becela Trinidate Santissimoco bigarren personarenzat, zugan guizon eguiñ zidi apartatua eta, orregatic, *Jaincoaren ama* deitua. Nic escatcen dizut zure sorce edo <10> concepcio garbia gatic eman daguidazula nere animaco eta gorputzeco garvitasuna, eta bederatzurren onetan escatcen dizudan mesedea, zure honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

Orain esaten edo cantatzen dirade gozoac, eta oen acabuan esaten dirade antifona eta oracio azpian dautzan oec egunero. *Sancta Maria, sucurre miseris, juva pusillanimes, refove flebiles: ora pro populo, interveni pro clero, intercede pro devoto fæmineo sexu. Sentiant omnes tuum juvamen, quicumque celebrant tuam sanctam <11> commemorationem. V. Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix. R. Ut digni efficiamur promisionibus Christi.*

Oremus

Concede nos famulos tuos, quæsumus, Domine Deus, perpetua mentis et corporis sanitatem gaudere: et gloriosa beatæ Marie semper virginis intercesione, a præsenti liberari tristitia, et æterna perfrui lætitia. Per Christum, et cetera.

Bigarren egunean, lenda vicicoan becela eguinik gurutze santuaren señalea eta *Acto contriciocta*, esango da eguneroko oracio lendabician <12> dagoena, eta onen ondoren eguingo da an dagoana lenengo egunean becela, eta guero esango da bigarren eguneco oracioa.

Bigarren eguneco oracioa

Virginia doatsua, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erreguina, zere jaiotza-quin alegratu zenduana ceruac eta lurra, aingueruac eta guizonac. Egunsenti eder,

mundura justiciaco eguzquia, Jesu Christo, ecarri ziguna, argui eguiteco ceruraco vi-dean dabilzanai eta edertazunez eta gloriaz ceruan <13> janxitceco jaunaren vorondatea eguiten vizi eta beren eriotzan justu arquitzen diranac. Atseguein andi bat daucat zure doay eta edertazun graciazco oriezaz guztiezaz, ceñaquin zure seme Jaincoac eguzqui divinoac becela cere jayotzan janci zinduan. Eta escatcen dizut zure zori oneco jayotza orregatic nere animarenzat graciaraco etorrera ain arguia eta segurua, ceinda inoiz ere erori ez naitequean pecatuauren loyan, eta bederatci urren onetan escatzen de-dan mesedea, conveni bada, zure honra eta gloriaric andieneraco. <14> Amen.

Gañeroncean, lenengo egunean becela.

Irugarren eguneko oracioa

Virgina escogitura, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erreguina, Jerusalengo templo santuan iru urteco edade gaztearequin presentatua, eche santu onetan cere virtuteaquin eracusten ceniela icusten cinduen guztiai vizi modu jaincozcoa, guero zure semearen etorrera servitu zezaten graciaco temploetan exemplotzat, beren vizitzac jaunari consagraturic <15>. Atseguein andi bat daucat, o virginia escogitura! Zu, gracia eta virtute andi parebague oec mereci izan cindualaco templo santu onetan eguin cinduan mirariac gatic. Eta escatzen dizut presentacio gozo onegatic eman daguidazula izatea nere anima Trinidade Santisimoaren templo vici bat, nere estaduko obligacioac cumplitzeco eta bederatci urren onetan escatzen dizudan mese-dea, baldin combeni bada, Jaincoaren honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

Laugarren <16> eguneko oracioa

Virgina guztiz garbia eta casta, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erre-guina, esposatua San Jose zeure esposo garbiarequin, ceñec zure compagnia gandic eta izcuntza gozoa gandic alcanzatu izan ceban graciaren, virtutem eta doayen aumentua. Atseguein andi bat daucat, o virginia garbia eta casta, icusteaz zure esposorioan familia bat ain baquetsua, amodiotsua eta garbia, non da beguitanzen zatan ceratela moduren batean gloriaco bienaventuratuac <17> era, Jesusa jayo ezquero, trinidad humanaoa lurrean. Nic escatzen dizut esposorio garbi oec gatic nere memoria, entendimentua eta vorondatea Trinidade Santisimoagan beti eduquitzeo gracia, eta bederatzi urren onetan escatzen dizudan mesedea, baldin conveni bada, Jaincoaren honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

Bostgarren eguneko oracioa

Virgina, graziaz betea, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erreguina, ceñi <18> Trinidade Santissimo guztiac viraldu zizun San Gabriel goy-ainguerua zori oneco embajada batequin zure vorondatearen baiaren billa, verbo eternoza zure sabelean guizon eguiteco. Atseguein andi bat daucat, o virginia graciaz betea, izateaz zu verbo divinoaren ama, moduren batean doai cabu bagaea, eta escatcen dizut embajada gozo one-gatic alcanza daguidazula cere seme jaunagandic nere anima graciaz betetcea, onela Je-sus maiteac arquitu dezan nere viotcean ostattu garbi bat, batez ere aldareco sacramento santua errecibitzen <19> debanean. Eta bederatci urren onetan escatcen dizudan mese-dea, baldin conveni bada, Jaincoaren honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

Seigarren eguneko oracioa

Virgina amorioz betea, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erreguina, zere seme Jesus savelean zenduala bien vorondatearequin igoric Judeaco mendietara cere lengusu Santa Isabel visitatcera, onen echean egon ciñana, betetzen cinduala graziaz ama eta semea. Atseguin andi bat daucat, o virginia <20> guztiz amoriotsua, zure virtute, humildade, obediencia eta charidade visita santu onetan eracutsi zinduanaz, eta escatcen dizut oen bitartez eracutsi daguiozula nere animari humildadeco, obedienciaco eta charidadeco videa, allegatu artean oec mereci debeen azquenera. Eta bederatzি urren onetan escatzen dedan mesedea, baldin conveni bada, Jaincoaren honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

Zazpigarren eguneko oracioa

Virgina guztiz esanguiña eta <21> obedientea, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erreguina, cere semearen jayotzatic berroguei egunac cumplituric presentatu ciñana Jerusalengo temploan leguea cumplitzeagatic, esqueintcen cenduela beste doauen artean zere savel virginaleco frutu bedeincatua eta guelditzen zinala virginia garbi, loyaren queriza gave, semea egui baño len, eguitean eta egui ezquiero, ez cergicat inoiz ere izan zenduan loiric cer garbitu, baizic nai izan zendualako legueaz cumplitu. Atseguin andi bat daucat, o virginia guztiz esanguina eta obedientea, <22> cerren zere seme jaunac comunicatu ziutzun gracia andi oec eta cerren misterio onetan eracutsi ziñuzcun virtute andiac. Escatzen dizut, bada, eman daguidazula batez ere obedienciaco [virtutea],³⁰ zure seme jaunaren leguea gordetzeco eta nere estaduko obligacioac cumplitzeco. Baita ere bederatzi urren onetan escatzen dedan mesedea, baldin conveni bada, Jaincoaren honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

Zorzigarren eguneko oracioa

Virgina dolorez betea, Jaincoaren <23> ama, aingueruen eta guizonen erreguina, constancia andi batequin egon ziñana zere semearen gurutzearen ofíean munduaren redencioco obra andi ura egui zebanean, penaz eta dolorez zere viotza urtutzen cizatzula, baña orregatic ere artutzen guinduzula zure semetzat cere dizipulu amatuaren personan. Erruquitzen naiz, o virginia dolorez jancia, zure pena eta min oriezaz, eta orien vitartez ezcacen dizut artu nazazula zere, eta zure devocioan beti izateco seme eta mendecotzat, eta eman daguidazula gracia cere mendetic ez irteteco. <24> Baita ere bederatzi urren onetan escatzen dizudan mesedea, baldin conveni bada, Jaincoaren honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

Bederatcigarren eguneko oracioa

Virgina gloriaz betea, Jaincoaren ama, aingueruen eta guizonen erreguina, ceñaren eriotza izan zan eriotza amoriozco bat, egaca cerura igotzeco aingueruen eta se-rafinen compañian, viurcen zinala irugarren egunean cerutic lurrera aingueru asco-ren compañian, sartutzeco berriro anima gloriosoa cere <25> gorputz eder artan, eta

³⁰ Beste aukera bat izan liteke *obedienza* zuzentzea, -ko kenduta.

igotzeco cerura gorputz eta anima lagun oequin guzlioquin gloriaco cortera, non arquitzen [zeran] zere semearen alde escuyan, bienaventuratu guztiac baño gloria an-diagoarequin, eternidade bateraco. Atseguin andi bat daucat, o virginia gloriaz betea, zure eriotza gozoaz, zure ceruraco igoer[a] gloriosoaz eta gloriaco coroacio estimatuaz, eta escatcen dizut iru zori dichoso oen vitartez nere eriotzaco zori ona zure mendeian. Baita ere bederatzi urren onetan deseatzen dedan mesedea, baldin conveni bada, Jaincoaren honra ta gloriaric andieneraco. Amen. <26>

Gozoac

Virgina Iciarcoa,
yzar ederra munduan;
ama maitea, gu gatic
erregu ezazu ceruan.

1. Zu escogitu zinduan
Jaungoicoac amatzat.
Zori onean guretzat,
diña arquitu cinduan;
bestela, lotu guinduan
Luciferren becatuan.

Ama maitea, etab.

2. Munduco peligroetan
sarturic arquitzen dana
etorten bada zu gana
garbi <27> eta bear dan moduan,
bestela ecin debana
alcanzatzen deu orduan.

Ama maitea, etab.

3. Ichasoco tormentetan
zu zera argui izarra,
«onci guztiac amarra
portuan eman artean»
escatzen dizutenean
guizonac seme moduan.

Ama maitea, etab.

4. Asco ezconduc penatu
ez dacardelaco aurric,
esperanza ere galduric
izateco sucesioric,
zu gandican lograturic
gozatu debe frutua.

Ama maitea eta abar <28>

5. Frutua logratu arren,
zembait arquitutzen dira
alimentu faltaz billa
ceñec aci al daiqueen.
Zu, bada, oen guztien
beti zaude socorruan.

Ama maitea, etab.

6. Emacumeac erditcen
eldutcen diran zorian,
campoan eta errian,
asco ditugu icusten
ondo dirala libratzen
zure izenaren costuan.

Ama maitea, etab.

7. Erri-modu guztietañ
zu zera alivioa,
argatic devocioa
zatzu artu campoetan,
osasunaren pozetan <29>
etorzen zaizun moduan.

Ama maitea, etab.

8. Moroen cate andiac
urratu izan dituzu,
baita libratu dituzu
ascoren presoindegiac;
daude oen aguiriac
zerori zauden lecuan.

Ama maitea, etab.

Omnia Submitto Correctione Santaë Romanæ Ecclesiæ

†

Don Juan Lorenzo de Irigoyen Pamplonaco obispo jaun ilustrisimauari.

Hitz guichitan, jauna, nai nituque nic eracutsi nere oblicacio <30> andiac, es-quintceco berorren señoria ilustrisimari nere ofrenda chiqui au, ceñaren ezer ezta-sunac berac ere escatcen dit billatcea jabe onen bat berau gordetceco. Zor andi bat-tequin arquitzen da nere veneracioa berorren señoria ilustrisima ganaco, batez ere

merecitu nebalaco bere ezaguntasuna eta amorioa orain emezorzi urte danean, ejercicio espiritualac eguiten guinduala bioc batean eta alcarrequin Yruñeco ciudadean Aita Ynurrerequin; baña, aguiz andiagoa sortu zat berriro dignidade veneragarri janci deban orretan. Bada, or topatcen det nere aita, or nere garaya eta or <31> nere onguíña, zeñac diraden nere oblicacio eta zorraren bururic principalenac.

Baña cer esquintcen diot, jauna, nic ain beste zor eta ain andien alderaco? Lotsa andi batequin aguertuko ninzaque, jauna, ni onen sari chiquiarequin bere señoría ilustrisimaren aurrera, baldin animatcen ezpanindu beroren devocio andiac Ama Virgina santissima gana, aingueruen erreguina gana vezela. Ez det, jauna, dudatzen aingueruen devocio zavalzea beroren señoría ilustrisimac bezela eracutsi debanari gustatuco ez zayola beren erreguina santismaren devociocho au, batez ere bere <32> imagina miragarri Yciarco-renzat, ceñaren historiaco libru igaz esribitu nebanac adierazoco dion zein devocio eta veneracio andicoa dan. Orregatic, bada, jauna, uste det artuco debala bere mendean.

Bay, jauna, bay: guztiaren bearrean arquicen da librucho au, eta ala daraman ize-nagatic ar veza, arren; bestela, jauna, izango lituque etsayac, imagina onen historico libruac izan zituan bezela, baña, beroren ilustrisimaren mendean jarri ezquiero, seguro nago izango dala ondo icusia. Ala uste det, jauna, eta horrela berriro bere mendo servitzarien artean humildeen eta favorecituena.

Eztet <33> ezer esaten beroren nobleza eta egcelencien gañean, cerren publicoac eta aguiriac diran, eta cegatic ez naizan libru chiqui onetan luzatzen eta gueyago cerren daquidan beroren humildadeari ez zacana agradatzen onelaco alabanzaric, bai-zic Jaincoaren servicioco gauzac, eta berari erregutcea beroren onagatic. Devan, maiatzaren 2, 1768 garren urtean.

Yruñeco edo Pamplonaco obispo jauna, Jesu Christogan bere servitzari eta capillaure humildeena.

Don Pedro José de Aldazabal y Murguia.

APARATU KRITIKOA

3 esan-mesanetatic] *esna-mesanetatic* || 5 gloriaric] *gloriae* || 5 dagoquidana] *deao-quidana*³¹ || 5 ceruetaco] *ceruetaraco* || 7 equiten] *eguiten* || 8 adierazotzen] *adoratzten* || 8 gloriaric] *gloriae* || 9 sorce] *sorcee* || 10 gorputzeco] *gorputzaco* || 12 egunsenti] *egunsinti* || 12 ceruraco] *cerraco* || 13 eguzqui] *eguzquin* || 13 jayotzan] *jayoza* || 13 onetan] *onetan* || 14 ceniela] *cinela* || 16 aingueruen] *ainguerueu* || 16 baque-tsua] *baqueatsua* || 16 beguitanzen zatan] *beguitan zeuzatan* || 17 andieneraco] *andienco* || 20 virtue] *virtute* || 20 humildadeco] *hnimildadeco* || 20 daguiozula] *dagniozula* || 21 jayotzatic] *jayozatic* || 21 cumplituric] *cumplituric* || 21 zenduan] *zeuduan* || 24 cere] *cero* || 25 daucat] *baucat* || 25 oen] *oea* || 26 Jaungoicoac] *Jaun-yoicoac* || 27 zera] *zere* || 28 Frutua logratu arren] *Frutua logratua aen* || 28 diran] *dian* || 28 osasunaren] *osasunaen* || 29 ascoren] *ascoen* || 29 esquintceco] *esquintteco* || 29 O[mnia] S[ubmito] C[orrectione] Santæ R[omanæ] E[cclesiae]] *Y.S.C.S.R.E.* || 31 zeñac] *zeña* || 33 onagatic] *onagaric*.

³¹ Testuan arestian adierazitako aldaketa egin badut ere, Borja Ariztimuñoren (komunikazio pertsonala) oharrari jarraikiz, ez litzateke erabat baztertu behar *deaoquidana* irakurketa zuzena izatea, Aldazabalek *diao-ren* ordez *deao-* eman izan balu, hiperzuzenketa.

4.3. Zenbait ohar Aldazabalen hizkeraz

Lan honen helburu nagusia Aldazabalen lanetako euskal testuak finkatu eta aurkeztea izanik, egiteke utzi dut gipuzkoarraren hizkeraren eta aurreko eta garaiko literatur gipuzkerarekiko lotura eta eraginen azterketa zehatzagoa. Halere, ediziogintzan ari den ikertzaileak testuak irakurri, transkribatu eta editatu ahala ezinbestean ikusi eta aztertu behar izaten ditu bai testuan agertzen diren ezaugarri linguistikoak, bai ezaugarri linguistiko horiek idazleen garaiari zein hizkuntzaren historiari begira duten garrantzia. Hori dela eta, Aldazabalen euskarazko bederatziurrenaren edizioa eman ondotik, zenbait ohar egingo ditut testuan agertzen den hizkeraz.

4.3.1. Pasarte ilunak

Oro har, Aldazabalen testuak ez du aparteko arazorik, nahiz eta ediziorako erabilitako alean behintzat askotariko akatsak (hizkuntzari zein tipografiari lotuak) dauden eta horrek halako axolagabekeria bat islatzen duen. Zuzenketa txikiez harago, 7.-8. orrialdeetako pasarte batek eragiten ditu irakurketa-zalantza handienak; izan ere, ageri diren elementu guztiak egoki identifikatzen eta ulertzten diren arren (tarteka zuzenketak eginda), zail da jakiten 8. orrialdean ageri den *ceñetan adierazotzen zaizcun* zeri eta nola lotu behar zaion. Ondoz ondo ematen ditut (a) jatorrizko pasartearen transkripzioa, (b) nire irakurketa-proposamena eta (c) Gorostegik 1884an emandako bertsio eraldatua:

a. Gracia, Doay, ta Misterio oecgatic escatendizut, nere Ama gozoa, alcanza deguidazula, vicitcea beti zure Semearen gracian eguiten diedala virtute guztiai, batecere gueyena agertzen naizala araco amabi aetan, ceñetan zu gueyena <8> ezagutua izan ziñan munduan, eracusten diguten becela araco amabi Yzar eder, zure Coroa apaincen debeen aec ceñetan adoratzotzen zaizcun; oecgatic alcanzaditzadan zuri jarraituaz, eta zu vitar-teco zaitudala eriotza on bat Jesvs Maitearen viotzean, berac nai debanean; eta bederatciurren onetan escatzen dizudan favorea, Jaincoaren gloriaric andieneraco bada: Amen.

b. Gracia, doay ta misterio oec gatic escatcen dizut, nere ama gozoa, alcanza deguidazula vicitcea beti zure semearren gracian equiten diedala virtute guztiai, batecere, gueyena, aguertzen naizala araco amabi aetan ceñetan zu, gueyena, <8> ezagutua izan ziñan munduan, eracusten diguten becela araco amabi yzar eder zure coroa apaincen debeen aec, ceñetan adierazotzen zaizcun. Oec gatic alcanza ditzadan zuri jarraituaz eta zu vitar-teco zaitudala eriotza on bat Jesus maitearen viotzean, berac nai debanean, eta bederatciurren onetan escatzen dizudan favorea, Jaincoaren gloriaric andieneraco bada. Amen.

c. Grazia, doai, ta misterio oekgatik eskatzen dizut, nere Ama gozoa, alkanza degidazula, bizitza beti zure Semearen grazian, segitzen diedala bertute guztiai, batez ere geyena ezagutua izan ziñan munduan, erakusten diguten bezela arako amabi izaer eder, zure koroa apaintzen duten aek, zeñetan adoratzotzen zaizkan; alkanza ditzadan oekgatik, zuri jarraituaz, eta zu bitarteko zaitudala, eriotza on bat, Jesus maitearen Biotzean, berak nai duanean; eta bederatziurren onetan eskatzen dizudan mesedea, Jaungoikoaren gloriarik andienerako bada. Amen.

Pasarea azaltzeko modu errazena da *adorazotzen* → *adierazotzen* aldaketa onartzea eta *ceñetan adierazotzen zaizcun* pasartearen erreferentea aurretik aipatutako hamabi bertuteak direla pentsatzea; alegia, ‘hamabi izar haiak, zeinetan adierazten zaizkigun [hamabi bertuteak]’ irakurtzea dirudi errazena, nahiz eta irakurketa ziurra ez izan.

4.3.2. *Grafa eta hotsak*

Grafiari dagokionez, Aldazabalen testuaren ezaugarri nabarmenena txistukari frikarien eta afrikatuen bereizketa grafikoa da: § 3.2.1-en aurreratu legez, Larramendiz gerotzik bereizketa horri tinko eutsi zioten Hego Euskal Herriko idazleen tradizioan kokatu behar da Aldazabal, nahiz eta tarteka afrikatua adierazten duen eta hemengo edizioan zuzendu egin den <c>-ren eta <z>-ren bat agertu. Halaber, gogoan hartze-ko da, bereizketa egin arren, Aldazabalek ez zituela Larramendik proposatutako <ts> eta <tz> digrafoak sistematikoki erabili: afrikatu apikaria bai, <ts>-z eman zuen al-dioro, baina <tz>-rekin batera <tc> ere badago; zehazki, 44 aldiz aurkitu dut <tze> eta 34 aldiz <tce>, eta 5 aldiz <tzi> eta 13 aldiz <tci>.

Frikari/afrikatu banaketari loturik, Aldazabalen testuan arreta ematen du ozen ondoko txistukarietan egiten den bereizketa; izan ere, txistukari frikariak adierazten dituzten grafemak agertzen dira, oro har, ozenen ondotik: 14 eta 17 aldiz aurkitu ditut, hurrenez hurren, <nc> eta <nz>, hiruna aldiz <rc> eta <rz>, beste hiru aldiz <ns>, eta sei eta hiru aldiz <lc> eta <lz>. Aurrekoei kontrajartzen zaizkien adibideak oso bakanak dira: 7 *aguertcen*, 16 *izcuntza*, 21 *esqueintcen*, 30 *esquintceco* eta 31 *esquintcen*. Banaketa horrek arreta emateko arrazoia agerikoa da, oro har Euskara Arkaikoari eta Zaharrari loturik aipatu izan baita (ikus Zuloaga 2020: § 5.1.5.1.2). Idazlearen hautu «grafiko huts» ez bada (De la Quadra bizkaitarraren testu ia garai-kideak antzeko egoera islatzen du), ozen ondoko frikari-ebakeraren adibide beranko-rrak genitzuke Aldazabalenak.

Hotsak direla eta, zalantzarik gabe baiezta daiteke, garai eta inguru bertsuko tes-tuen argitan, Aldazabalek tokiko hizkeran arrunt ziren ebakera eta erregela fonologikoak ostendu zituela. Txistukarien neutralizazioa eta bokal-bilkuretako askotarik fenomenoak aipatu behar dira, gutxienez: ondo dokumentatuta daude Gipuzkoako ipar-mendebalean aurreko mendeetatik, baina Aldazabalean oso bakan agertzen dira. Neutralizazioari dagokionez, apikariaren aldeko adibide bakarra (4 *gustietan*) eta lepokariaren aldeko bost (5 *ezca* eta 23 *ezcatzen* —baina 22 aldiz dago *eska*—, eta 2 *eztitazunac*, 12 *edertazunez* eta 13 *edertazun*) aurkitu ditut. Bokal-bilkuretako feno-menooak direla eta, azaleko *Yciarcuaren* formako *o* > *u* / _V besterik ez dut aurkitu.

4.3.3. *Izenaren morfologia*

Izenaren morfologiaren esparruan Aldazabalen testuak ez du garai eta eremu har-tarako espero ezin zitekeen ezaugarririk. Denboran aurrerago, Gipuzkoako testuetan ugariago ageri da -a itsatsiaren galera, baina Aldazabalean adibide bakarra aurkitu dut, 32 *historico*, orrialde berean 32 *historiaco* aurka duena.

Mugatzaleei lotuta, aipagarria da 17 *Jesusa jayo ezqueroko* izen artikuluduna, oro har testu zaharragoetan ageri direlako era horretakoak; halere, Lakarrak (1983: 61-62) adibide berankorragoak aurkitu zituen Bizkaiko XIX. mendearen hasierako testuetan, bai eta XX. mendearen hasierako kantutegietan ere.

Erakusle eta izenordainetan *aek zaharra* (8 *araco amabi aetan*, 8 *apaincen de-been aec*, 28 *Frutua logratua aen*) eta *oek* (7 *oec gatic*, 8 *oen ondoren*, 10 *oen acabuan*, 25 *oequin...*) ageri dira, eta ez dago Gipuzkoako mendebaleko zenbait hizkeratarako *aura* ‘hura’ aldaeraren alerik: 23 *obra andi ura* azaltzen da behin. Bestalde, 2. per-

tsona singularreko izenordain posesiboan *zure* & *zere* daude: 32 aldiz aurkitu dut *zure*, eta 22 aldiz *zere* & *cere*.

Kasu-marketan ere ez dago aparteko gorabeherarik: *-az* eta *-zaz* ageri dira instrumentalean, bigarrena ohiko legez izenordain eta erakusleei loturik (8 *jarraituaz*; 13 *oriezaz guziezaz*, 23 *min oriezaz*), *-ai* datibo pluralean (12 *dabilzanai*, 14 *guztiai*) eta Euskal Herriko erdialde zabaleko *-ikan* ablatiboan (27 *zu gandican*).

4.3.4. Aditzaren morfologia

Aditzaren esparruko zenbait erabilera eta aldaera izenaren morfologiaren esparrukoak baino interesgarriagoak dira, izan forma zaharrak azaltzen direlako, izan zenbait banaketa zahar neutralizaturik agertzen direlako.

Aditz-izenenen atzizkien artean *-tze* da arrunt Aldazabalen testuan, are partizipioari erantsita ere (*-itze* & *-tutze*), bide batez partizipioaren eta aditzoinaren arteko bereizketa galdua zela erakutsiz (ikus Urgell 2006: § 2.7.4): 13 *janzitceo*; 23 *urtutzten*, 23 *artutzten*, 24 *sartutzeco*, 28 *arquitutzten*. Bestalde, etorri aditzari loturik *-te* eta *-tze* agertzen dira (26 *etorten*, 29 *etortzen*), lehenengoa akatsa ez bada.

Erroei dagokienez, Gipuzkoan Debagoienaz kanpo espero zitekeen *-e-* dago *izanen* eta **edunen* orainaldiiko adizkietan: 27 *zera*; 3 *dezun*, 5 *dedana*, 13 & 20 *dedan*. **Edunen* beraren 3. pertsonako adizkietan *-eu-* & *-ebV-* zaharrak daude sistematikoki Aldazabalenean: 27 *alcanzatzen deu*; 4(2) *eguingo debe*, 4 *esango debe*, 8 *apaincen de-been aec*, 8 *nai debanean*, 16 *alcanzatu izan ceban*, 23 *eguin zebanean*, 27 *ecin debana eta abar*.

Gipuzkoako adizkietan numeroaren araberako erroen banaketa aipatu izan da: «Otxoa de Arinen dotrinatik hasita gipuzkera zaharrean ezaguna den banaketa dugu *-i-* eta *-i(r)au-* erroen artekoa, bata singularrako eta bestea pluralerako erabiltearena» (Altuna 1995: 623). Leturiagak (2020a: 374) Urolako testuez oro har eta Aldazabalez beren-beregi dioenez:

Eskualdeko [Urolako] testuen artean, AzkSerm (1737) eta LoiolaDot (xviii) lekukotasunetan bildutakoak dira, besteak beste: *eguin diauztan* ‘dizkidan’ (AzkSerm, 1737: 11), *berrituco ciauzcan* ‘zizkion’ (AzkSerm, 1737: 13), *barcacen diaustegun* ‘dizkiegun’ (LoiolaDot, xviii, 8); Itziar (1790 [1768]) lekukotasunean bildutakoak, aldiz, *comunicatu ziutzen* ‘zizkizun’ (22) eta *eracutsi ziñuzzun* ‘zenizkigun’ (22).

Bestalde, *-z-* pluralgilea dela eta, halakorik gabeak dira 29 *nai nituque eracutsi* eta 32 *izango lituque* adizkiak.

NOR-NORI saileko adizkietan *ai* > *a* monoptongazioa ageri da singularreko zenbait adizkitan: 16 *beguitanzen zatan*, 23 *urtutzen cizatzula*, 28 *zatzu artu*, 30 *sortu zat...* (halere, cf. 29 *etorzen zaizun*). Bestalde, pluralean eta ‘hari’ datiboaren aurretitik, *ai* gordetzen da: 8 *adierazotzen zaizcun*; 3 *emango zayo*, 8 *conveni zayona*, 31 *gustatuco ez za-yola*; Gipuzkoako adizkietako *ai* & *a* polimorfismoaz, ikus Leturiaga (2020b: § 4.2.6).

Pluralgileekin jarraituz, *izanen* 3. pertsona pluralean arrunt da kutsu estilistikoa duen (Ariztimuño 2013: 37) *-de* pluralgilea: 8 *errezzatuko dirade*, 10 *esaten edo cantatzen dirade*, 10 *esaten dirade*, 31 *diraden* (ekarrin ere ageri da behin *-de*: 27 *dacardel-laco*). *Izani* loturik *-te* ageri da 16 *ceratela* adizkian, eta *-te* dago, halaber, adizki hauek tan pluralet markatzeko: 7 *ematen zizutela*, 8 *eracusten diguten*, 27 *escatzen dizutenean*.

Aditz laguntzaileen esparruan, [aditzoin + *ezan] eta [participio + egin] perifrasi zaharren artean nahastea dago (ikus Mounole 2007, 2018 [2014]); zehazki, [aditzoin + egin] eta [participio + *ezan] ereduokoa ere aurki daitezke:

- [aditzoina + *ezan]: 5 *zuzen ezazu*, 8 *alcanza ditzadan*, 26 *erregu ezazu*
- [participioa + *ezan]: 2 *arquitu cenzaqueana*, 14 *servitu zezaten*, 18 *arquitu dezan*
- [participioa + egin]: 3 *ez daguiozula, bada, arren, veguiratu*, 20 *eracutsi daguiozula*
- [aditzoina + egin]: 5 *alcanza eguidezu*, 5 *ezca eguiozu*, 7 & 18 *alcanza deguidazula*

Perifrasien banaketaz kanko, Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko testuetan *egin* aditz laguntzaileari lotutako *dag-* (adizki bipertsonalak) vs. *deg-* (adizki hirupertsonalak) bereizketa Lehen Euskara Modernoan neutralizatu zen, *dag-* ereduok adizkien alde. Mendiburu, Añibarro, Mogel eta Frai Bartolomeren adibideak aipatu zituen Urgellek (2018: 621), eta horiei gehitu behar zaizkie Aldazabalenak: 3 *ez daguiozula, bada, arren, veguiratu* eta 7 & 18 *alcanza deguidazula*, baina 10 & 15 & 22 & 23 *eman daguidazula* eta 20 *eracutsi daguiozula*.

**Edin* laguntzaileaz den bezainbatean, 9. orrialdeko honako pasarte honetan *izan zin Dean* eta *eguin zidin* aditzak bi eratara interpreta daitezke: «atseguin andi bat dau- cat, nere ama gozoa, zu bacarric escogitu zindualaco jaunac doay onetaz, *izan zin Dean* bear zan becela Trinidade Santissimoco bigarren personarenzat, zugan guizon *eguin zidin* apartatua eta, orregatik, *Jaincoaren ama* deitua» (Aldazabal 1790 [1768]: 9; letra etzana neurea da [EZ]).

Alde batetik, helburuzko mendeko perpausak direla eta, aditzak subjuntiboan daudela pentsa daiteke bai egitura, bai garaia kontuan hartuta. Beste alde batetik, Joseba A. Lakarrak diostanez (komunikazio pertsonala), bestelako irakurketa ere egin liteke, eta aoristotzat interpretatu; alegia, *izan zin Dean* ‘izan zinen’ eta *eguin zidin* ‘egin zen’ irakurria. Hartara, aoristoaren adibide bakan baina oso berankorrak leudeke Aldazabalean; Lehen Euskara Modernoko aoristoez, ikus Lakarra (1996), Al-dai (2015), Urgell (2018) eta Jiménez (2019).

Arestiko ezaugarriez gain, tarteka eta bakan agertzen diren ezaugarri gutxi batzuk aipa daitezke, hala nola objektu pluralarekiko komunzadura falta 12 *alegratu cenduana ceruac eta lurra* perpusean eta *etzanen* adizki trinko plural baten agerrera (10 *oracio azpian dautzan oec*).

4.3.5. Sintaxia

Sintaxiaren esparruan Aldazabalen testuak ez dakar erabilera berezirik eta aparteko aberastasunik; ezer aipatzekotan, izen osteko erlatiboen zenbait egitura aipa daitezke (8 *araco amabi yzar eder zure coroa apaincen dabeen aec*, 10 *oracio azpian dautzan oec*, 11-12 *eguneroco oracio lendabician dagoena*, 32 *historiaco libru iaz escribitu nebanac*), bai eta ezeztapenaren hurrenkera zaharraren arrastoren bat ere mendeko perpaus batean (32 *eracutsi debanari gustatuco ez zayola*).

Tarteka, erdal ereduoen arabera egindakoentzako itxurako egiturak agertzen dira, testuaren pasarte batzuk behintzat ez jatorrizkoak baina inondik egokituak edo itzuliak di-

rela islatuz; cf. 21 *ez cergicat inoiz ere izan zenduan loiric cer garbitu, baizic nai izan zendualaco legueaz cumplitu.*

4.3.6. Lexikoa³²

Lexikoaz den bezainbatean, Aldazabalen bederatiurrenak dakartzan hitz eta aldaera batzuk interesgarriak dira bai dialektologiaren, bai hizkuntzaren historiaren ikuspegitik. Hori dela eta, testuaren edizioa eman ondotik beronen hiztegi osoa ematen bada ere, zenbait hitzen eta aldaeraren gaineko azalpenak argigarri izan daitezke.

Podore aldaera Gipuzkoako testu gutxi batzuetan agertzen da (Ubillos eta Otaegi) eta *gehienetarikoa* ‘nagusia’ lotuago dago Ipar Euskal Herriko tradizioarekin: *OEHn* Lardizabal bakarrik aipatzen da berau baliatu zuten Hego Euskal Herriko idazleen artean (s.v. *gehien*). *Tenpora* aldaera, bestalde, ez da arrunta Euskal Herriko erdi-mende-balean: Landucciren hiztegian eta Nafarroako Pirinioetako ibarretan besterik ez da agertzen.

Gipuzkoa osoan edo probintziako eremu jakin batzuetan baliatzen diren aldaera eta hitzak dira *eskui*, *gitxi* eta *hagitz*, eta Gipuzkoakoan ez ezik beste euskara batzuetan aurki daitezkeen aldaerak dira, bestalde, *adierazo* ‘adierazi’, *arkitu* ‘aurkitu’, *epeñi* ‘ipini’, *eskini* ‘eskaini’, *libru* ‘liburu’ (eta *librugile*) eta *zerren* ‘zeren’. Oro har, Aldazabalek sistematikotasunez erabili zituen aldaerok, baina tarteka polimorfismoa ere ageri da: cf. *amodio* & *amorio* eta *bage* & *gabe*.

Aurreko orrialdeetako azalpenek argiro bermatzentz dute Aldazabal garaiko gipuzkoar idazle handienetan itzalpean aritu zela, batzuetan hertsago eta bestetzueta asuntasun handiagoa hartuz: Larramendi eta Kardaberatz hainbatetan aipatu zituen 1767-1769ko liburuan eta, ondotik argitaratutako bederatiurrenean euskal idazlerik aipatzen ez badu ere, argia da Larramendiren eragina: § 4.3.2-n aipatutako hautu grafikoetan ez ezik, lexikoan ere behin baino gehiagotan islatzen da andoaindarren eragina; funtsean, zenbait berba *Hiztegi hirukoitzetik* hartuak direla dirudi, lan horretan edo lan horrez geroztikoa bakarrik agertzen baitira euskal testuen tradizioan.

OEHn biltzen diren datuen arabera, Aldazabalek emandako *bai* ‘baimen’ Nafarroa Beherean erabiltzen da, eta Hego Euskal Herrian Larramendirenean eta harez geroztikо hiztegigintzan. Are argiagoak dira Aldazabalek erabilitako *jakiunde*, *hizkunde*, *lehendabizian* eta *ongin*: lauren lehenengo agerrera dira *Hiztegi hirukoitzekoak*, eta orduz geroztik ez dute tradizioan sendo edo ugari txertatzea lortu. *Presoindegia* aldaera dela eta, *OEHn* arabera Leizarragak bazerabilen, baina Hego Euskal Herrian Larramendiri loturik ageri da.

³² Atal honetara bildutako hitzen historiari buruzko argibideak *Orotariko euskal hiztegitik* (Mitxelena & Sarasola 1987-2005) eta *Euskal hiztegi historiko-etimologikotik* (Lakarra, Manterola & Segurola 2019) atereak dira.

4.4. Hiztegia

A

- adierazo** *ad.*
 adierazoco 32
 adierazotzen 8
- adio** *interj.*
 adio 3
- adiskide** *iz.*
 adisquidea 2
- andi** *adj.*
 andi 6, 9, 13, 15(2),³³ 16, 18, 19, 21,
 22, 23(2), 25, 30, 31
 andiac 22, 29, 30, 31
 andiagoa 30
 andiagoarequin 25
 andicoa 32
 andien 31
 andieneraco 5, 8, 10, 13, 15, 17, 19,
 20, 22, 24, 25
- agertu** *ad.*
 aguertcen 7
 aguertuco 31
- agiri**
 1 *iz.*
 aguiriac 29
 2 *adj.*
 aguiriac 33
- agradatu** *ad.*
 agradatzen 33
- ahal** *ad.*
 al 28
- ailegatu** *ad.*
 allegatu 20
- aingeru** *iz.*
 aingueru 24
 aingueruac 12
 aingueruen 4, 9, 12, 14, 16, 17, 19, 21,
 23, 24(2), 31(2)
- aita** *iz.*
 aita 7, 30(2)
- akabu** *iz.*
 acabuan 10
- akto** *iz.*
 acto 4(2), 10
- alabanza** *iz.*
 alabanzaric 33
- aldare** *iz.*
 aldareco 18
- Aldazabal** *iz. prop.*
 Aldazabal 33
 Aldazaval 1
- alde** *iz.*
 alde 25
 alderaco 31
- alegratu** *ad.*
 alegratu 12
- alibio** *iz.*
 alivioa 28
- alimentu** *iz.*
 alimentu 28
- alkanzatu** *ad.*
 alcanza 5, 7, 8, 18
 alcanzatu 16
 alcanzatzen 27
- alkar** *izord.*
 alcarrequin 30
- ama** *iz.*
 ama 2, 3, 4, 5(2), 7(3), 8, 9(3), 12,
 14, 16, 17, 18, 19(2), 21, 23, 24,
 26(2), 27(3), 28(2), 29(2)
 amaric 2
 amatzat 26
- Ama Birjina** *iz. prop.*
 Ama Virginia 3, 31
 Ama Virjina 1, 3
- amarratu** *ad.*
 amarra 27
- amatu** *ad.*
 amatuaren 23

³³ Parentesi arteko zenbakiak orrialde berean agertzen diren adibideen kopurua adierazten du.

amen <i>iz.</i>	arren
amen 5, 8, 10, 14, 15, 17, 19, 20, 22, 24, 25	1 <i>lok.</i> arren 3, 32
amodiotsu <i>adj.</i> → <i>amoriotsu</i>	2 <i>mend.</i> arren 28
amodiotsua 16	
amorio <i>iz.</i>	arte
amorio 7	1 <i>iz.</i> artean 21, 32
amorioa 30	arteco 6
amorioz 19	
amoriozco 24	2 <i>postpos.</i> artean 4, 20, 27
amoriotsu <i>adj.</i> → <i>amodiotsu</i>	asko <i>zenbtz.</i>
amoriotsua 20	asco 2, 27, 28
andre <i>iz.</i>	ascoren 24, 29
andrea 6(2)	
anima <i>iz.</i> ‘arima’	asumpzio <i>iz.</i>
anima 15, 18, 24, 25	asumpcioan 6
animaco 10	
animaren 5(2)	atera <i>ad.</i>
animarengat 13	ateratzen 1
animari 20	
animatu <i>ad.</i>	atsegin <i>iz.</i>
animatcen 31	atseguiñ 6, 9, 13, 15, 16, 18, 19, 21, 25
antifona <i>iz.</i>	atzeratu <i>ad.</i>
antifona 10	atzeratzen 2
anunziazo <i>iz.</i>	aumentu <i>iz.</i>
anunciacioan 6	aumentua 16
apaindu <i>ad.</i>	aurre <i>iz.</i>
apaincen 8	aurrera 31
apaindu 7	Ave <i>interj.</i>
apartatu <i>ad.</i>	ave 8
apartatua 9	azken <i>iz.</i>
argi	azquenera 20
1 <i>iz.</i>	azpi <i>iz.</i>
argui 12	azpian 10
2 <i>adj.</i>	
arguia 13	
argi-izar <i>iz.</i> ‘artizar’	B
argi izarra 27	
arkitu <i>ad.</i>	bada <i>lok.</i>
arquitcen 32	bada 3, 22, 28, 30, 32
arquitu 2, 18, 26	bage <i>postpos.</i> → <i>gabe</i>
arquitutzen 28	bagüe 3
arquitzen 3, 13, 25, 26, 30	bagüea 18
Arlegi <i>iz.</i> <i>prop.</i>	bagüarequin 7
Arlegui 1	bai
	1 <i>adb.</i>
	bay 32, 32

- 2 *iz.* ‘baimen’
baiaren 18
- baina** *junt.*
baña 23, 30, 31, 32
- baino** *part.*
baño 21, 25
- baita** *junt.*
baita 22, 24, 25, 29
- baizik** *junt.*
baizic 21, 33
- bakarrík** *adb.*
bacarric 9
- baketsu** *adj.*
baquetsua 16
- bakoitz** *izord.*
bacoitzac 8
- baldin** *part.*
baldin 2, 3, 5, 15, 17, 19, 20, 22, 24,
25, 31
- bat** *zenbtz.*
bat 4(2), 6, 8, 9, 13, 15(2), 16(2),
18(2), 19, 21, 24, 25, 30
batean 8, 16, 18, 30
bateraco 25
batequin 18, 23, 30, 31
- batez ere** *adb.*
batecere 7
batez ere 18, 22, 30, 31
- bedeinkatu** *ad.*
bedeincatua 21
- bederatzigarren** *ord.*
bederatcigarren 24
- bederatiurren** *iz.*
bederatci urren 5, 8, 13, 15, 19, 22,
24
bederatci urrena 1, 4(3)
bederatci urreneco 4
bederatiurren 10
bederatzi urren 25
bederatzi urrena 3, 17, 20
- begiratu** *ad.*
vegiratu 3
- begitandu** *ad.*
beguitanzen 16
- behar** *iz.*
bearrean 32
- **behar** **edun*
bear cenduan 7
- **behar** *izan*
bear dan 1, 27
bear zan 9
- bekatu** *iz.*
becatuan 26
becatuauren 9
- belauniko** *adb.*
belaunico 4
- benefiziadu** *iz.*
beneficiadu 1
- beneragarri** *adj.*
veneragarri 30
- benerazio** *iz.*
veneracio 32
veneracia 30
- bera** *izord.*
berac 8, 30
berari 33
- berau** *izord.*
berau 30
- berbo** *iz.*
verbo 18(2)
- bere** *izord.*
bere 5, 7, 30, 31(2), 32(2), 33
- beren** *izord.*
beren 13, 14, 31
- berori** *izord.*
berorren 30(2), 31(2), 32, 33(3)
- berriro** *adb.*
berriro 24, 30, 32
- berrogei** *zenbtz.*
berroguei 21
- beste** *adj.*
beste 4, 21
- bestela** *lok.*
bestela 26, 27, 32
- bete**
1 *adj.*
betea 6(2), 17, 18, 19, 22, 24, 25
2 *ad.*
betetcea 18
betetzen 19
- beti** *adb.*
beti 7, 17, 23, 28

bezela <i>part.</i>	bositazio <i>iz.</i>
becela 8, 9, 10, 12, 13, 14	visitacioan 6
bezela 1, 31, 32	bitarteko <i>iz.</i>
vezela 31	vitarteco 8
bezpera <i>iz.</i>	bitarte <i>iz.</i>
vezperatic 3	bitartez 20
bi <i>zenbtz.</i>	vitartez 23, 25
bien 19	bizi
bioc 30	1 <i>ad.</i>
bide <i>iz.</i>	vizi 13
videa 20	2 <i>adj.</i>
videan 12	vici 15
bienabenturatu <i>iz.</i>	bizimodu <i>iz.</i>
bienaventuratu 25	vizi modu 14
bienaventuratuac 16	bizitza <i>iz.</i>
bigarren <i>ord.</i>	vicitcea 7
bigarren 9, 10, 12(2)	vizitzac 14
bihotz <i>iz.</i>	borondate <i>iz.</i>
viotcean 3, 18	vorondatea 2, 13, 17
viotza 23	vorondatearen 18
viotzarequin 8	vorondatearequin 19
viotzean 8	bostgarren <i>ord.</i>
bihurtu <i>ad.</i>	bostgarren 17
viurcen 24	buru <i>iz.</i>
bikario <i>iz.</i>	bururic 31
vicario 1	
bila <i>adb.</i>	D
billa 18, 28	
bilatu <i>ad.</i>	de <i>prep. (gazt.)</i>
billatcea 30	de 1, 29, 33
biraldu <i>ad.</i>	Deba <i>iz. prop.</i>
viraldu 18	Debaco 1
birjina <i>iz.</i>	Devan 33
virgina 5, 9, 12, 14, 15, 16(2), 17,	deboto <i>iz.</i>
18, 19(2), 20, 21(2), 22, 23, 24,	devotoa 2
25, 26	devotoen 6
birjinal <i>adj.</i>	debozio <i>iz.</i>
virginaleco 21	devocio 31(2), 32
birtute <i>iz.</i>	devocioa 3, 28
virtute 7, 15, 20, 22	devocioan 23
virtuteaquin 14	devociocho 31
virtuten 16	deitu <i>ad.</i>
bisita <i>iz.</i>	deitua 9
visita 20	deseatu <i>ad.</i>
bisitatu <i>ad.</i>	deseatzen 3, 25
visitatcera 19	

dibino adj.	eduki ad.
divinoac 13	daucaut 6, 9, 13, 15, 16, 18, 19, 21, 25
divinoaren 18	daucazun 6
dignidade iz.	eduquitzeco 17
dignidade 30	
diligente adj.	*edun ad. lag.
diligentea 6	ceban 16
dina adj.	cenduan 7
diña 26	cenduela 21
ditxoso adj.	cinduala 19
dichoso 25	cindualaco 15
dizipulu iz.	cinduan 15, 26
dizipulu 23	cinduen 14
doai iz.	debala 32
doai 18	deban 30
doay 7, 9, 13	debana 1, 27
doayen 16, 21	debanari 31
doatsu adj.	debanean 8, 19
doatsua 6, 6, 12	debe 4(3), 27
dolore iz.	debeen 8, 20
dolorez 6, 22, 23(2)	dedan 13, 20, 22, 25
Don iz.	dedana 5
don 1(2), 23, 33	det 30, 31, 32(2)
dudatu ad.	deu 27
dudatzen 31	dezun 3
E	
edadiz iz.	diedala 7
edadiz 14	diguten 8
eder adj.	dio 8
eder 8, 12, 25	dion 32
ederra 6, 26	diot 31
edertasun iz. → edertazun	dit 30
edertasunetan 9	ditugu 28
edertazun 13	ditut 3
edertazun iz. → edertasun	dituzu 29(2)
edertazunez 12	dizudan 8, 10, 15, 17, 19, 24
*edin ad. lag.	dizut 7, 9, 13, 15, 17, 18, 20, 22, 23, 25
ded[i]n 3	dizutenean 27
naitequean 13	ezpaleu 2
zidin 9	ezpanindu 31
zindean 9	eztet 32
edo junt.	guinduala 30
edo 4, 9, 10, 33	guinduan 26
	guinduzula 23
	lituque 32
	nebalaco 30
	nebanac 32
	nituque 29

- zaitudala 8
 zebanean 23
 zenduala 19
 zendualaco 21
 zenduan 7, 21
 zenduana 5, 6, 12
 ziguna 12
 zindualaco 9
 zinduan 7, 13, 26
 zinduanaz 20
 ziñuzcun 22
 zituan 32
 ziutzun 22
 zizun 18
 zizutela 7
- egin**
 1 *ad.*
 eguin 9, 15, 21(2), 23
 eguingo 4(2), 12
 eguinic 10
 eguitean 21
 eguiteco 12, 18
 eguiten 13, 30
 2 *ad. lag.*
 daguidazula 10, 15, 18, 22, 23
 daguirozula 3, 20
 daiqueen 28
 deguidazula 7
 eguidezu 5
 eguirozu 5
- egon** *ad.*
 dagoquidana 5
 dagoala 8
 dagoana 12
 dagoena 12
 daude 29
 egon 19, 23
 nago 32
 zaude 28
 zauden 29
- egun** *iz.*
 egun 4
 egunac 21
 egunean 10, 12, 14, 24
 eguneco 8, 9, 12(2), 14, 16, 17, 19, 20,
 22, 24
- egunero** *adb.*
 egunero 4(2), 10
 eguneroco 4, 10
- egunsenti** *iz.*
 egunsenti 12
- eguzki** *iz.*
 eguzqui 13
 eguzquia 12
- ekarri** *ad.*
 dacardelaco 27
 ecarri 12
- ekin** *ad.*
 equiten 7
- emakume** *iz.*
 emacumeac 28
- eman** *ad.*
 eman 10, 15, 22, 23, 27
- embajada** *iz.*
 embajada 18(2)
- enpeñatu** *ad.*
 empeñatzen 7
- entendimentu** *iz.*
 entendimentua 17
- epeñi** *ad. ‘ipini’*
 epeñi 5
- erakutsi** *ad.*
 eracusten 8, 14
 eracutsi 20(2), 22, 29, 31
- eraman** *ad.*
 daraman 32
- erditu** *ad.*
 erditcen 28
- ere** *adb.*
 ere 3, 13, 21, 22, 23, 24, 25, 27, 30
- eriotza** *iz.*
 eriotza 8, 24(2), 25
 eriotzaco 25
 eriotzan 13
- erori** *ad.*
 erori 13
- erregina** *iz.*
 erreguina 4, 5, 9, 12, 14, 16, 17, 19,
 21, 23, 24, 31
 erreguina gana 31

- erregu *iz.***
erregu 26
- erregutu *ad.***
erregutcea 33
- erezatu *ad.***
erezatuko 8
- errezipitu *ad.***
errezipitu 3
errezipitzen 18
- errukitu *ad.***
erruquitzen 23
- esan *ad.***
esan 8
esango 4(2), 10, 12
esaten 10(2), 33
- esangin *adj.***
esanguina 21
esanguiña 20
- esan-mesan *iz.***
esan-mesanetatic 3
- eskatu *ad.***
escatcen 5, 7, 8(2), 9, 10, 13, 18, 19,
20, 24, 25, 30
escatzen 13, 15(2), 17(2), 20, 22(2), 27
ezca 5
ezcatcen 23
- eskeini *ad.* → eskini**
esqueintcen 21
- eskini *ad.* → eskeini**
esquintceco 30
esquintcen 31
- eskogitu**
1 *ad.*
escogitu 9, 26
escogituric 6
escogitua 14, 15
- eskribitu *ad.***
escribitu 32
- eskui *iz.***
escuyan 25
- esperantza *iz.***
esperanza 27
- espiritual *adj.***
espiritualac 30
- Espíritu Santo *iz. prop.***
Espíritu Santua 7
- esposatu *ad.***
esposatua 16
- esposo *iz.***
esposo 16
- espororio *iz.***
espororio 17
espororioan 6, 16
- estadu *iz.***
estaduco 15, 22
- estimatu *ad.***
estimatua 25
- eszelentzia *iz.***
egcelencien 33
- eta *junt.***
da 16
eta 1, 2, 3(2), 4(2), 5(7), 6, 7, 8(4),
9(2), 10(6), 12(7), 13(6), 14, 15(4),
16(5), 17(5), 18, 19(4), 20(6),
21(4), 22(3), 23(7), 24(3), 25(4),
27, 28, 30(3), 31(2), 32(4), 33(6)
ta 4, 7, 25
- eta abar *lok.***
eta abar 27
etab. 26, 27(2), 28(2), 29(2)
- eternidade *iz.***
eternidade 25
- eterno *adj.***
eternoa 18
- etorrera *iz.***
etorrera 13
etorreran 14
- etorri *ad.***
etorten 26
etorzen 29
- etsai *iz.***
etsayac 32
- etxe *iz.***
eche 14
echean 19
- etzan *ad.***
dautzan 10
- exemplo *iz.***
exemplotzat 14
- exerzizio *iz.***
exercicio 30

- ez** *adb.*
 ez 3(2), 13, 21, 23, 27, 31(2), 33(2)
 ezpaleu 2
 ezpanindu 31
 eztet 32
- ezaguntasun** *iz.*
 ezaguntasuna 30
- ezagutu** *ad.*
 ezagutua 8
- ***ezan** *ad. lag.*
 cenzaqueana 2
 dezan 18
 ditzadan 8
 ezazu 5, 26
 nazazula 23
 ninzaque 31
 veza 32
 zezaten 14
- ezer** *izord.*
 ezer 30, 33
- ezin** *ad.*
 ecin 27
 ezin 7
- ezkero** *postpos.*
 ezquero 8, 17, 21, 32
- ezkondu** *ad.*
 ezconduc 27
- ezpada** *junt.*
 ezpada 3
- ezpaere** *lok.*
 ezpaere 5
- etzasun** *iz.* ‘falta, gabezia’
 etzasunac 30
- eztitazun** *iz.*
 eztitazunac 2
- eztitsu** *adj.*
 eztitsua 5
- F**
- fabore** *iz.*
 favorea 8
 favoreac 3
- faborezitu** *adj.*
 favorecituena 32
- falta** *iz.*
 faltaz 28
- familia** *iz.*
 familia 16
- Fermin** *iz. prop.*
 Fermin 1
- fingabe** *adj.*
 fingabearequin 7
- frutu** *iz.*
 frutu 21
 frutua 27, 28
- G**
- gabe** *postpos.* → *bage*
 gave 9, 21
- Gabriel** *iz. prop.*
 Gabriel 18
- gain** *iz.*
 gañean 33
- gainerontze** *lok.*
 gaferoncean 14
- galdu** *ad.*
 galduric 27
- garagaril** *iz.*
 garagarillaren 3
- garai** *adj.*
 garaya 30
- garbi** *adj.*
 garbi 6, 9, 17, 18, 21, 26
 garbia 16(3)
 garbia gatic 10
 garbiarequin 16
- garbitasun** *iz.*
 garvitasona 10
- garbitu** *ad.*
 garbitu 21
- garren** *ord.*
 garren 1, 33
- gauza** *iz.*
 gauzac 33
- gazte** *adj.*
 gaztearequin 14
- gehiago** *zenbtz.*
 gueiagoarequin 7
 gueyago 33

- gehien**
 1 *adb.*
 gueyen 5
 2 *adj.* ‘nagusi’
 gueyena 7(2)
- gelditu** *ad.*
 guelditu 3, 6
 guelditzen 21
- gero** *adb.*
 guero 8, 12, 14
- gitxi** *zenbtz.*
 guichitan 29
- gizon** *iz.*
 guizon 9, 18
 guizonac 12, 27
 guizonen 5, 9, 12, 14, 16, 17, 19, 21,
 23, 24
- gloria** *iz.*
 gloria 25
 gloriaco 16, 25(2)
 gloriaric 5, 8, 10, 13, 15, 17, 19, 20,
 22, 24, 25
 gloriaz 6, 12, 24, 25
- glorioso** *adj.*
 gloriosoa 24
 gloriosoaz 25
- goi-aingeru** *iz.*
 goy-ainguerua 18
- gorde** *ad.*
 gordeco 3
 gordetceco 30
 gordetzeco 22
- gorputz** *iz.*
 gorputzeco 10
 gorputz 25(2)
- gozatu** *ad.*
 gozatu 27
- gozo**
 1 *adj.*
 gozo 2, 5, 15, 18
 gozoa 7, 9
 gozoaz 25
 gozo gandic 16
 2 *iz.*
 gozoac 10, 26
- grazia** *iz.*
 gracia 5, 7, 15, 17, 22, 23
 graciaco 14
 gracian 7
 graciaraco 13
 graciaren 9, 16
 graciaz 18(2), 19
 graciazco 13
 gracietan 7
 graziaz 6, 17
- gu** *izord.*
 gu gatic 26
 gure 5(2)
 guretzat 26
- gurutze** *iz.*
 gurutce 4
 gurutze 10
 gurutzearen 23
- gustatu** *ad.*
 gustatuko 31
- gusto** *iz.*
 gustocoa 3
- guzti** *zenbtz.*
 gustietan 4
 guztia 7
 guztiac 18, 25, 27
 guztai 7, 14
 guztian 3
 guztiaren 32
 guztien 28
 guztietan 28
 guztiezaz 13
 guztioquin 25
 gutziz 5, 6, 16, 20(2), 21

H

- haek erak.**
 aec 8
 aetan 7
- hagiz** *adb.*
 aguiz 30
- hain** *adb.*
 ain 13, 16, 31
- hainbeste** *zenbtz.*
 aimbeste 7, 31

hala <i>adb.</i>	hiru <i>zenbtz.</i>
ala 32(2)	ira 8, 14, 25
hamabi <i>zenbtz.</i>	hirugarren <i>ord.</i>
amabi 7, 8	irugarren 14, 24
han <i>adb.</i>	historia <i>iz.</i>
an 12	historico 32
harako <i>adj.</i>	historiaco 32
araco 7, 8	hitz <i>iz.</i>
hargatik <i>lok.</i>	hitz 29
argatic 28	hizkunde <i>iz.</i> ‘hizkuntza’
hartu <i>ad.</i>	izcunde 3
ar 32	hizkuntza <i>ad.</i>
artu 23, 28	izcuntza 16
artuco 32	hoek
artutzen 23	1 <i>erak.</i>
hasiera	oec 10, 15, 22
asiera 4	oec gatic 7, 8, 17
asi eraraco 4	oen 25
hau <i>erak.</i>	oequin 25
au 4, 5, 8, 30, 31, 32	2 <i>izord.</i>
onec 4	oec 20
onegatic 15, 18	oen 8, 10, 20, 28, 29
onen 2, 3, 4(2), 12, 19, 31, 32	honela <i>adb.</i>
onetan 2, 4(2), 5, 8(2), 10, 13, 14, 15(2),	onela 18
17, 19, 20(2), 22(2), 24, 25, 33	onelaco 33
onetaraco 6	honra <i>iz.</i>
onetaz 9	honra 10, 13, 15, 17, 19, 20, 22, 24, 25
onequin 3	honraraco 5(2)
hau da <i>ant.</i>	hor <i>adb.</i>
au da 3	or 30(3)
haur <i>iz.</i>	horiek <i>erak.</i>
aurric 27	orien 23
hazi <i>ad.</i>	oriezaz 13, 23
aci 28	orretan 30
hegaka <i>adb.</i>	horregatik <i>adb.</i>
egaca 24	orregatic 9, 13, 23, 32
heldu <i>ad.</i>	horrela <i>adb.</i>
eldutcen 28	horrela 32
hemen <i>adb.</i>	Huarte <i>iz.</i> <i>prop.</i>
emen 3	Huarte 1
hemezortzi <i>zenbtz.</i>	humano <i>adj.</i>
emezorzi 30	humanoa 17
herri <i>iz.</i>	humildade <i>iz.</i>
erri 6, 28	humildade 20
errian 28	humildadeari 33
	humildadeco 20

humilde *adj.*
 humildea 6
 humildeen 32
 humildeena 33
hura erak.
 artan 25
 ura 23

I

ibili *ad.*
 dabilzanai 12
igande *iz.*
 ygandearen 3
igaz *adb.*
 igaz 32
igo *ad.*
 igoric 19
 igotzeco 24, 25
igoera *iz.*
 igoer[a] 25
ikusi *ad.*
 icusia 32
 icustea 16
 icusten 14, 28
ilustrisima *adj.*
 ilustrisimac 31
 ilustrisima ganaco 30
 ilustrismaren 31, 32
 ilustrismari 30
ilustrisimu *adj.*
 ilustrismuari 29
imagina *iz.*
 imagina 6, 32(2)
inoiz *adb.*
 inoiz 13, 21
inor *izord.*
 iñor 3
Inurre *iz. prop.*
 Ynurrerequín 30
irakurle *iz.*
 iracurleari 2
 yracurle 2
iraun *ad.*
 diraben 4

Irigoiien *iz. prop.*
 Irigoyen 29
irten *ad.*
 irteteco 23
Iruñea *iz. prop.*
 Yruñeco 30, 33
Isabel *iz. prop.*
 Isabel 19
isil *adj.*
 isilic 8
itxaso *iz.*
 ichasoco 27
Itziar *iz. prop.*
 Iciarcoa 26
 Yciarcoarenzat 32
 Yciarcuaren 1
 Yziarco 6
 Yziarcoaren 3(2)
izan
1 ad. nag.
 bada 8
 ceratela 16
 dan 32
 danean 30
 diraden 31
 diran 33
 izan 8, 9, 21, 24, 32
 izanac 1
 izango 32(2)
 ivateco 7, 23, 27
 ivateaz 18
 izaten 3, 5
 zera 27, 28
2 ad. lag.
 bada 3, 13, 15, 17, 19, 20, 22, 24,
 25
 cinela 14
 ciñana 19, 21
 cizatzula 23
 da 4, 12(2), 30, 32
 dala 32
 dan 1, 4, 27
 dana 26
 danari 3
 dira 28
 dirade 8, 10(2)

- dirala 28
 diran 28
 diranac 13
 izan 5, 15, 16, 21, 29
 naiz 23
 naizala 7
 naizan 33
 vada 5
 zacana 33
 zaizcun 8
 zaizun 29
 zala 7
 zan 9, 24
 zat 30
 zatan 16
 zatzu 28
 zayo 3
 zayola 31
 zayona 8
 zinala 21, 24
 ziñan 8
 ziñana 6, 23
 [ziran] 25
- izar** *iz.*
 yzar 8, 26
- izate** *iz.*
 izatea 15
 izatean 6, 9
- izen** *iz.*
 izenagatic 32
 izenaren 28
- J**
- jabe *iz.*
 jabe 30
- Jainko** *iz.* → *Jaungoiko*
 jaincoac 13
 jaincoaren 4, 5(2), 7(2), 8, 9(2), 12, 14,
 15, 16, 17(2), 19(2), 20, 21, 22(2),
 24(2), 25, 33
- jaincoari 5
 jaincozcoa 14
- jaio** *ad.*
 jayo 17
- jaiotza** *iz.*
 jaiotzan 6, 13
 jaiotzarequin 12
 jayotza 13
 jayotzatic 21
- jakin** *ad.*
 badaquit 2
 daquidan 33
- jakiunde** ‘jakintza, ezagutza’
 jaquiunde 7
- janzi**
 1 *ad.*
 janci 13, 30
 janxitceco 13
 jancia 6, 23
- jarraitu** *ad.*
 jarraituaz 8
- jarri** *ad.*
 jarri 32
 jarriric 4
- jaun** *iz.*
 jaun 29
 jauna 29, 31(3), 32(4), 33
 jaunac 9, 22
 jauna gandic 5
 jaunagandic 18
 jaunaren 6, 13, 22
 jaunari 14
- Jaungoiko** *iz.* → *Jainko*
 jaungoicoac 26
- Jerusalen** *iz. prop.*
 Jerusalengo 14, 21
- Jesukristo** *iz. prop.*
 Jesu Christo 12
 Jesu Christogan 33
- Jesus** *iz. prop.*
 Jesus 8, 18, 19
 Jesusa 17
- José** *iz. prop.* → *Joseph*
 José 16, 33
- Joseph** *iz. prop.* → *José*
 Joseph 1
- Juan** *iz. prop.*
 Juan 29
- Judea** *iz. prop.*
 Judeaco 19

justizia *iz.*
 justiciaco 12
justu *adb.*
 justu 13

K

kabu *iz.*
 cabu 7, 18
kanpo *iz.*
 campoan 28
 campoetan 28
kantatu *ad.*
 cantatcen 10
kapillau *iz.*
 capillauric 33
karidade *iz.*
 charidade 20
 charidadeco 20
kasta *iz.*
 casta 6, 16(2)
kate *iz.*
 cate 29
keriza *iz.*
 queriza 21
komunikatu *ad.*
 comunicatu 22
konbeni *ad.*
 -- konbeni *izan*
 combeni bada 15
 conveni zayona 8
 conveni bada 13, 17, 19, 20, 22,
 24, 25

konpainia *iz.*
 compañía gandic 16
 compañian 24(2)
konsagratu *ad.*
 consagraturic 14
konstanzia *iz.*
 constancia 23
konsuelo *iz.*
 consueloa 5
kontrizio *iz.*
 contriciocoa 4, 10
 contriciocoaren 4

konzepzio *iz.*
 concepcio 10
koroa *iz.*
 coroa 8
koroazio *iz.*
 coroacio 25
 coroacioan 6
korte *iz.*
 cortera 25
kostu *iz.*
 costuan 28
kunplitu *ad.*
 cumplitu 21
 cumplituric 21
 cumplitzeagatic 21
 cumplitzeco 15, 22

L

labur *adj.*
 labur 8
lagun *iz.*
 lagun 25
laugarren *ord.*
 laugarren 15
lege *iz.*
 leguea 21, 22
 legueaz 21
lehen *adb.*
 len 1, 21
lehendabizi *adb.*
 lendavicico 9
 lenda vicico 3
 lenda vicicoan 11
 lendavizico 6
lehendabizian *adb.*
 lendabician 4, 10
lehenengo *ord.*
 lenengo 8, 12, 14
lehengusu *iz.*
 lengusu 19
leku *iz.*
 lecuan 29
libratu *ad.*
 libratu 29
 libratzen 28

- libru** *iz.* ‘liburu’
 libru 32, 33
 libruac 32
 librucho 2, 3, 32
librugile *iz.* ‘liburugile’
 libruguille 1
limosnatxo *iz.*
 limosnachoren 4
logratu *ad.*
 logratu 28
 lograturic 27
lohi
 1 *iz.*
 loiric 21
 loyan 13
 loyaren 21
 2 *adj.*
 loi 9
Lorenzo *iz. prop.*
 Lorenzo 29
lotsa *iz.*
 lotsa 31
lotu *ad.*
 lotu 26
lur *iz.*
 lurra 12
 lurrean 17
 lurreco 5
 lurrera 24
luzatu *ad.*
 luzatzen 33
Luzifer *iz. prop.*
 Luciferren 26
- M**
- maiatz** *iz.*
 maiatzaren 33
maite *adj.*
 maite 3
 maitea 26(2), 27(3), 28(2), 29(2)
 maiteac 18
 maitearen 8
 maiteari 8
- makurtu** *ad.*
 macurturic 6
- Maria** *iz. prop.*
 Maria 5, 8
- memoria** *iz.*
 memoria 17
- mende** *adb.*
 mendean 25, 32(2)
 mendeco 32
 mendecotzat 23
 mendetic 23
- mendi** *iz.*
 mendietara 19
- merezi** *ad.* → merezitu
 -- merezi *edun
 mereci 15, 20
- merezitu** *ad.* → merezi
 merecitu 30
- mesede** *iz.*
 mesedea 10, 13, 15, 17, 19, 20, 22, 24,
 25
- min** *iz.*
 min 23
- mingain** *iz.*
 mingaña 3
- miragarri** *adj.*
 miragarri 32
- mirari** *iz.*
 mirariac gatic 15
- misterio** *iz.*
 misterio 7, 22
- modu** *iz.*
 modu 4, 8, 28
 moduan 27(2), 29
 moduren 16, 18
- moro** *iz.*
 moroen 29
- mundu** *iz.*
 mundu 3
 munduan 6, 8, 26
 munduaren 23
 munduco 26
 mundura 12
- Murgia** *iz. prop.*
 Murguia 1, 33

N**nahi** *iz.*-- **nahi *edun**

nai izan zenduana 5

nai izan zendualaco 21

nere *izord.*nere 2, 3, 5(4), 6, 7, 9, 10, 13, 15(2), 17,
18(2), 20, 22, 25, 29, 30(4), 31(2)**ni** *izord.*

ni 31

nic 3, 5, 6, 9, 17, 29, 31

nobleza *iz.*

nobleza 33

non *gald.*

non 6, 25

-- **non eta**

non da 16

O**o** *interj.*

o 5, 15, 16, 18, 19, 21, 23, 25

obediente *adj.*

obedientea 6, 21(2)

obedienzia *iz.*

obediencia 20

obedienciaco 20

obedienziaco 22

obispo *iz.*

obispo 29, 33

obligazio *iz.*

oblicacio 29, 31

obligacioac 15, 22

obra *iz.*

obra 4, 23

ofrenda *iz.*

ofrenda 30

oin *iz.*

oin 6

óñean 23

oker *adj.*

oquer 2

on1 *adj.*

on 8

ona 6, 25

onagatic 33

onean 26

oneco 13, 18

onen 4, 5, 30

onenaren 2

2 *iz.*

oneraco 5

ondo *adb.*

ondo 28, 32

ondoren *postpos.*

ondoren 4(2), 8, 12

ongin *adj.*

onguiña 31

onzi *iz.*

onci 27

orain *adb.*

orain 10, 30

orazio *iz.*

oracio 4, 8, 10(2)

oracioa 4, 5, 8, 9, 12(2), 14, 16, 17,
19, 20, 22, 24**orduan** *adb.*

orduan 27

osasun *iz.*

osasunaren 28

ostatu *iz.*

ostatu 18

P**Pamplona** *iz. prop.*

Pamplonaco 29, 33

parebage *adj.*

parebague 15

pasio *iz.*

pasioan 6

Pedro *iz. prop.*

Pedro 1, 33

pekatu *iz.*

pecatuaren 13

peligro *iz.*

peligroetan 26

pena *iz.*

pena 23

penaz 23

- penatu *ad.***
penatu 27
- persona *iz.***
personan 23
personarenzat 9
- podore *iz.***
podore 7
- portu *iz.***
portuan 27
- poz *iz.***
pozetañ 28
- presentatu *ad.***
presentatu 21
presentatua 14
- presentazio *iz.***
presentacio 15
presentacioan 6
- presoindegi *iz.***
presoindeguiac 29
- prezeptore *iz.***
preceptorea 1
- pribilegio *iz.***
privilegioz 7
- prinzipal *adj.***
principalenac 31
- probetxu *iz.***
provechuraco 5(2)
- publiko *adj.***
publicoac 33
- purifikazio *iz.***
purificacioan 6
- R**
- redenzio *iz.***
redencioco 23
- S**
- sabel *iz.***
sabelean 18
savel 21
savelean 19
- sagradu *adj.***
sagraduetan 6
- sakramentu *iz.***
sacramento 18
- San *iz.***
san 16, 18
- santa *adj.***
santa 5, 7, 9, 19
- santidade *iz.***
santidade 7
- santisima *adj.***
santisima 1
santisima gana 31
santisimaren 31
- santisimo *adj.***
santisimoagan 17
santisimoaren 15
santissimo 18
santissimoac 7
santissimoco 9
- santu *adj.***
santu 14, 15, 20
santua 18
santuan 14
santuaren 4, 10
- sari *iz.***
sari 31
- sarrera *iz.***
sarrera 2
- sartu *ad.***
sarturic 26
sartutzeco 24
- segitu *ad.***
seguitcen 4
- seguro *adb.* → seguru**
seguro 32
- seguru *adj.* → seguro**
segurua 13
- seigarren *ord.***
seigarren 19
- seinale *iz.***
señalea 4, 10
- seme *iz.***
seme 5, 6, 13, 18, 19, 22(2), 23, 27
semea 7, 19, 21
semearen 7, 14, 21, 23, 25
semetzat 23

señoria *iz.*
 señoria 30(2), 31(2)
serafín *iz.*
 serafinen 24
serbitu *ad.*
 servitu 14
serbitzari *iz.*
 servitzari 33
 servitzarien 32
serbizio *iz.*
 servicioco 33
sokorru *iz.*
 socorruan 28
sortu *ad.*
 sortu 30
 sortua 9
sorze *iz.*
 sorce 9
suzesio *iz.*
 sucesioric 27

U
urratu *ad.*
 urratu 29
urte *iz.*
 urte 30
 urtean 1(2), 33
 urteco 14
urtu *ad.*
 urtutzen 23
uste *iz.*
 -- **uste *edun**
 uste det 32(2)

Y

y *konj. (gazt.)*
y 1, 33

Z

T
tenplo *iz.*
 templo 14, 15(2)
 temploan 21
 temploetan 14
tempora *iz.*
 tempora 8
Tolosa *iz. prop.*
 Tolosan 1
topatu *ad.*
 topatcen 30
tormenta *iz.*
 tormentetan 27
torpe *adj.*
 torpearri 3
trinidadade *iz.*
 trinidadade 7, 9, 15, 17(2), 18
txiki *adj.*
 chiqui 30, 33
 chiquiarequin 31
 chiquiena 6

zabaldu *ad.*
 zavalzea 3, 31
zazpigarren *ord.*
 zazpigarren 20
zegatik *gald.*
 cegatic 33
zein
 1 *izord.*
 zeñac 31
 ceñaren 24, 30, 32
 ceñaquin 13
 ceñec 16, 28
 ceñetan 7, 8
 ceñi 17
 2 *gald.*
 zein 32
 -- **zeinda** 'zein eta'
 ceinda 13
zenbait *zenbtz.*
 zembait 28
zer *gald.*
 cer 21, 31

zere izord. → <i>zeure</i>	zor iz.
cere 6(4), 9, 13, 14, 18, 19, 21, 23(2), 24	zor 30, 31
zere 6, 12, 19, 21, 22, 23(3), 25	zorraren 31
zergatik galde.	zori iz.
cergatic 21	zori 13, 18, 25(2), 26
zerori izord.	zorian 28
zerori 29	zorzigarren ord.
zerren galde.	zorzigarren 22
cerren 7, 22(2), 33(2)	zu izord.
zeru iz.	zu 7, 8, 9, 15, 18, 26, 27, 28(2)
ceruac 12	zugan 9
ceruan 12, 26	zu gana 26
ceruetaco 4, 5	zu gandican 27
cerura 24, 25	zuri 8
ceruraco 12, 25	zure 2, 3, 5(2), 6(3), 7(2), 8, 9, 10,
cerutic 24	13(4), 14, 16(2), 18(2), 20, 22,
zeure izord. → <i>zere</i>	23(3), 25(3), 28
zeure 16	zureac 3
ziudade iz.	zuzendu ad.
ciudadean 30	zuzen 5

5. Gorostegiren edizioaz (*Euskal Erria*, 1884)

5.1. Eraldatutako pasarteak

1884an Aldazabalen bederaziurrena berrargitaratu zuen Francisco María Gorostegik *Euskal Erria* aldizkarian, bere izenez sinatuta eta Aldazabalen izena aipatu gabe. Zehazki, edukiari eta egitura nagusiari eutsi zion arren, hizkuntza-maila guztietan al-daketa eginik aurkeztu zuen testua Gorostegik: *Euskal Erria* aldizkarirako ezarritako irizpide grafikoak aplikatu zizkion, eta morfologian (bereziki adizkietan) eta lexikoan aldaketa-andana egin zuen, besteak beste testua modernizatzetik eta XIX. mendearen amaierako joera garbizaleekin bat eginez.

Hurrengo azpiataletan zehatzago aipatzen dira Gorostegik hizkuntza-maila ba-koitzean eginiko aldaketa nagusiak; baina, halakoei heldu aurretik, 1. taulan jaso dut ez hizkuntza-ezaugarriei baina edukiari dagozkion aldaketa nagusien berri: adibideak irakurridik ikusten denez, Aldazabalen idazkera traketsa, iluna edo zehazgabea iruditu zitzaiorean, Gorostegik arrunt eraldatu zituen pasarteak, batzuetan esaldiak goitik behera berridatziz eta beste batzuetan osagaiak gehituz edo ezabatuz.³⁴

³⁴ Zenbait esaldi eta pasarte eraldatzeaz gain, Aldazabalen testuan ikusitako hainbat akats zuzendu zituen Gorostegik; baina, berriak ere gehitu zizkion testuari bere bertsioa ematean: 129 *alkanta* ‘alkanza’, 129 *egindazu*, 130 *Jaungoikoarekin ama* ‘Jaungoikoaren ama’, 31 *janzintzeko*, 131 *arkintzen* ‘aurkitzen’, 133 *Jaungoikooren* ‘Jaungoikoaren’ eta abar.

Aldazabal 1790 [1768]	Gorostegi (1884)
5 provechuraco izaten vada	129 probechurako bada
6 zure imagina ederra	129 zure imagiña
6 Nic, andrea, daucat atseguiñ andi bat	130 Nik daukat atsegíñ andi bat
6 dolorez betea zure seme Jaunaren pasioan	130 Dolorez betea zure Jesus jaunaren pasioan
6 garbi guelditu ziñana zere lendavizico izatean	130 zure lendabiziko izatean pekatugabe sortua
7/8 batecere gueyena aguertcen naizala araco amabi aetan ceñetan zu gueyena ezagutua izan ziñan munduan, eracusten diguten becela araco amabi yzar eder, zure coroa apaincen debeen aec, ceñetan adoratzotzen zaizcun...	130 batez ere geyena ezagutua izan ziñan munduan, erakusten diguten bezela arako amabi izar eder, zure koroa apaintzen duten aek, zeñetan adorazotzen zaizkant...
9 bear zan becela	130 bear bezelakoa
13 zure seme Jaincoac	131 zure semeak
13 cere jayoza	131 jayotzan
14 iru urteco edade gaztearequin presentatua	132 iru urteko aurchoa ziñalarik agertua
15 Zu. Gracia, eta virtute andi parebagoe oek mереци izan cindualaco templo santu onetan egun cinduan mirariac gatic	132 Zuk grazia eta bertute andi paregabe oek mереци izanaz Eliza santu artan egiñ zinduan mirarikgatik
16 Virgina guztiz garbia eta casta	16 Birgiña guztiz garbia
16 Virgina garbia eta casta	132 Birgiña garbia
16 ceñec zure compañia gandic eta izcuntza gozoa gandic alcanzatu izan zeban	132 zeñak zurekiñ bizitzetik eta zure izkuntza gozotik irichi izan zuan
18 Verbo eterno zure sabelean guizon eguiteco	132 Jaungoikoaren semea zure sabelean gizon egiteko
18 Verbo divinoaren ama	133 Jaungoikoaren semearen ama
18 moduren batean	133 ta moduren batean
20 Zure virtute, humildade, obediencia eta charidade visita santu onetan eracutsi zenduanaz	133 bisita santu onetan erakutsi zinduan zure bertuteaz, nola diran humiltasuna, obediencia eta karidadea
21 baizic nai izan cindualaco legueaz cumplitu	133 baizik zerren egin nai izan zenduan
21 loiric cer garbitu	133 loirik-ezer garbi-bearrik
22 eman daguidazula batez ere obedienziaco zure seme Jaunaren leguea gordetzeko	133 eman degidazula batez ere obedienziako bertutea
23 constancia andi batequin egon ziñana zere semearen gurutzearen ofíean munduaren redencioco obra ura egun zebanean	134 zure semearen gurutzepelan iraupen sendo andi batekiñ egon ziñana erospen edo redenzioko obra andi ura egiñ zuanean
25 igotzeko cerura gorputz eta anima lagun oequin guztioquin gloriaco cortera	134 igotzeko zerura gorputz eta animaz zerutar guztiakñ gloriara

1. taula

Gorostegik eraldatutako pasarteen adibideak

5.2. Grafia eta hotsak

Arestiko aldaketez harago, grafia eta hizkuntzari dagozkionak ere agerikoak dira: lerroz lerro ugari dira Gorostegik aldatutako grafema, morfema, adizki, egitura eta hitzak. Hain zuzen, aldaketa horiek astiro aztertuz gero, erraz ikusten da grafiaren esparruan Gorostegik Aldazabalen testua eguneratzeko gogoan ibilitako irizpide nagusia bat datozena José Manterolak Ipar Euskal Herriko joeretan oinarrituta *Euskal Erria* aldizkarirako ezarritakoekin (ikus Camino 2018: 716).

Gorostegik eginiko aldaketa grafikoen artean daude <c> eta <qu> → <k>,³⁵ <v> → , <gue> eta <gui> → <ge> eta <gi>, eta <mb> eta <mp> → <nb> eta <np> bihurtzea, sistematikoki. Hona hemen lauren adibideak:

- <c> eta <qu> → <k>: 3 *vezperatic* → 129 *bezperatik*,³⁶ 4 *consueloa* → 129 *kon-sueloa*, 4 *Belaunico* → 129 *Belauniko*, 4 *jarriric* → 129 *jarririk*, 4 *Acto* → 129 *Akto*, 4 *asi eraraco* → 129 *asierarako*, 5 *dagoquidana* → 129 *dagokidana*, 6 *chi-quienā* → 130 *chikienna*, 7 *isilik* → *isilik*, 17 *ezquero* → 132 *ezker...*
- <v> → : 3 *vezperatic* → 129 *bezperatik*, 5 *vada* → 129 *bada*, 5 *provechu-raco* → 129 *probechurako*, 7 *virtute* → 130 *birtute*, 9 *lendavicico* → 130 *len-dabiziko*, 10 *garvitasuna* → 130 *garbitasuna*, 13 *vizi eta* → 131 *bizita*, 18 *vi-raldu* → 132 *bialdu*, 19 *savelean* → 133 *sabelean*, 21 *gave* → 133 *gabe...*
- <gue>, <gui> → <ge>, <gi>: 4 *eguingo* → 129 *egingo*, 4 *aingueruen* → 129 *aingeruen*, 5 *gueyen* → 129 *geyen*, 7 *baguearequin* → *bagearekin*, 7 *geiagoa-requin* → 130 *geyagorekin*; 9 *guizonen* → *gizonen*, 11 *eguinic* → 131 *egiñik*, 14 *guero* → 132 *gero*, 20 *daguiozula* → 133 *degiozula...*
- <mb> eta <mp> → <nb> eta <np>: 7 *aimbeste* → 130 *ainbeste*, 7 *empeña-tzen* → 130 *enpeñatzen*, 8 *tempora* → 130 *denpora*, 15 *cumplitzeco* → 132 *kunplitzeko*, 21 *cumplituric* → 133 *kunpliturik*, 21 *cumplitezagatic* → 133 *kun-plitzagatik*, 22 *cumplitzeco* → 134 *kunplitzeko*.

Horiez landara, Aldazabalek hitz hasieran eta amaieran emandako <y>-ak <i> bihurtu zituen Gorostegik; zehazki, hitz hasierako guztiak eta hitz amaierako gehienak: 130 & 131 *doay* da salbuespen. Hala ere, Aldazabalek erabilitako eta Gorostegik mantendutako hautu grafikoen artean dago bokalarteko <y> kontsonantikoa; areago, Aldazabalek baliatu ez zuen kasuren batera ere zabaldu zuen Gorostegik: 3 *zayo* = 129 *zayo*, 5 *gueyen* → 129 *geyen*, 6 *jaiotzan* → 130 *jayotzan*, 7 *gueiagoarequin* → 130 *geyagorekin*, 7(2) *gueyena* → 130 *geyena*, 8 *zayona* = 130 *zayona*, 13 *jayotza* = 131 *jayotza*, 13 *loyan* = 131 *loyan*, 17 *jayo* = 132 *jayo*, 25 *escuyan* → 134 *eskuyaldean* eta abar.

Txistukariei eta berauen adierazpenari dagokienez, frikari/afrikatu bereizketari eutsi zion Gorostegik; zehazki, <tz> eta <ts> digrafoen erabilera sistematizatu zuen, Aldazabalean inoiz afrikatu lepokaria adierazten zuten <z> bakanak eta <tc>-ak <tz> bihurtuz: 13 *jayoza* → 131 *jayotza*, 21 *jayozatic* → 133 *jayotzatic*, 23 *semezat* → 134 *semetzat*, 23 *mendecozat* → 134 *mendekotzat*; 4 *bederatci urren* → 129 *bederatziurren*, 7 *vi-citcea* → 130 *bizitza*, 4 *seguitcen* → 129 *segitzen*, 4 *Gurutce* → 129 *Gurutze* eta abar.

³⁵ *Karidade* hitzean, baita <ch> → <k> ere: 20 *charidadeco* → 133 *karidadeko*.

³⁶ Adibideak x → y eskemari jarraituz ematean, lehenengo orrialde-zenbakia Aldazabalen lanari dago, eta bigarrena Gorostegiren bertsioari.

Frikarietan, bestalde, Aldazabalen <c^e, i>-ak → <z^e, i> bihurtuak dira Gorostegirenean: 3 *lenda vicico* → 129 *lendabiziko*, 4 *lendabician* → 129 *lendabizian*, 4 *oracio* → 129 *orazio*, 4 *oracioa* → 129 *orazioa*, 4 *contriciocoa* → 129 *kontriziokoa*, 4 & 5 *ceruetaco* → 129-130 zeruetako eta abar.

Ozen ondoko txistukariak adierazteko, Aldazabalek frikarien grafemak baliatu zituen oro har ozen ondotik. Gorostegiren bertsioan, <nz> da arrunten (130 *Anunziazioan*, 130 *janzia*, 130(2) *alkanza*, 130 *konzepzio*, 131 *janzintzeko*, 131 *janzi*, 131 *Gañeronzean*, 133 *obedienzia*, 133(2) *obedienziako*, 134 *redenzioko*), nahiz eta <ntz>-rik ere badagoen (130 *apaintzen*, 131 *arimarentzat*, 132 *izkuntza*, 133 *eskintzen*, 133 *agintzen*). <l> eta <r> ondotik, bestalde, <tz> besterik ez dut aurkitu: 131 *dabiltzanai*; 130 *sortze*, 133 *artzen*, 134 *biurtzen*.

Txistukarien adierazpenari loturik, Aldazabalenean ustez lepokari eta apikari frikarien arteko neutralizazioa islatzen duten adibide guztiak zuzendurik agertzen dira Gorostegiren testuan: 4 *gustietan* → 129 *guztietan*; 5 *ezca egiozu* → 129 *eska egiozu*, 12 *edertazunez* → 131 *edertasunez*, 13 *edertazun* → 131 *edertasun*, 23 *ezcatcen* → 134 eskatzen.

/ʃ/ eta /tʃ/ sabaiurrekoak direla eta, Gorostegik <ś> eta <ch> eman zituen: 130 *isilik*; 129 *limosnachoren*, 129 *probechurako*, 130 *chikiena*, 130 & 132(2) *chit*, 132 *aurchoa*, 132 & 133(2) *irichi*, 133 *echean*. Azken horretan bat egin zuen Aldazabalekin, baina ez lehenengoan, <s> soila emana baitzuen Aldazabalek: 8 *isilic*.

Txistukariez harago, Aldazabalek <ń>-ren bidez eman zituen hainbat sudurkari palatalizatu (3 *mingaña*, 5 *epeña*, 6 *ziñana*, 7 & 8 *ceñetan*, 8 *ziñan*, 13 *ceñaquin*, 14 *Gañeroncean*, 20 *esanguinya*, 21 *baño*...), nahiz eta ez sistematikoki, <in> ere ugari agertzen baita. Bada, Gorostegirenean <ń> orokortzeko joera ikusten da, Aldazabalek <in>-z emandakoak <(i)ń>-z eman baitzituen Gorostegik: 4 *erreguina* → 129 *erregiña*, 6 *oin* → 130 *oñ*, 7 *viotzarequin* → 130 *biotzarekiń*, 10 *Orain* → 131 *Orań*, 13 *ain* → 131 *ań*, 18 *Goy-Aingueraua* → 132 *Goy-ańgerua*....

Arestiko guztiez landara aldaketa txikiren bat besterik ezin da aipatu, hala nola Gorostegik Aldazabalen testuan ez zegoen <ee>-ren bat txertatu izana (16 *virtuten* → 132 *birtuteen*) eta Aldazabalek -z emandako 4 *diraben* ‘dirauen’ adizkia 129 *dirauen* bihurtu izana.

5.3. Morfologia-gaiak

Izenaren morfologiaren esparruan ez dago berebiziko aldaketarik Aldazabalen eta Gorostegiren testuen artean. Ezaugarri linguistikoei dagokienez, -a itsatsiaren glera aurreratuago ageri da Gorostegirenean: Aldazabalen liburuan adibide bakarra zegoen (32 *historico libruac*), baina Gorostegirenean zenbait hitzetara hedaturik agertzen da: 5 *gracia au* → 129 *grazi au*, 16 *familia bat* → 132 *famili bat*, 22 *gracia andi oec* → 133 *grazi andi oek*.

Determinatzileei eta kasu-markei dagozkien aldaketak ere aurki daitezke, nahiz eta oro har larriak ez izan. Alde batetik, *Jesus* izen propioari mugatzailea kendu zion Gorostegik (17 *Jesusa* → 132 *Jesus*), *bat* zenbatzailearen ordez artikulu mugatua ezarri zuen behin (18 *batequin* → 132 *arekin*) eta gradua aldatu zuen 19 *bien* → 133 *bion*, 14 *onetan* → 132 *artan* eta 15 *onegatic* → 132 *argatik* pasarteetan.

Beste alde batetik, kasu-sistemari loturik, -zaz baztertu zuen behin (13 *oriezaz guiezaz* → 131 *oriez guiaz*), -koren ordez -rako eman zuen destinatiboan beste behin (17 *Eguneco* → 132 *Eguneraco*), partitiboaren marka kendu zion sintagma bati (24 *gloriaric andieneraco* → 134 *gloria andienerako*), soziatiboa hobetsi zuen 9 *onetaz* → 130 *onekiñ* adibidean, genitibo pluraleko -en bikoiztua sahestu zuen 21 *Aingueren eta guizonen* → 133 *Ainguera eta gizonen* koordinazioan eta inesibo pluraleko -etan gehitu zion beste honi: 18 *doai cabu baguea* → 133 *doaietan kabu gabea*.

Arestikoez landara, bigarren pertsonako erakuslearen *zure* forma neutroaren alde egin zuen inoiz (6 & 12 *zere* → 130 & 131 *zure*), eta 19 *ama eta semea* koordinazioaren ordez 133 *ama-semeak* eman zuen.

Aditzaren esparruan aldaketa gehiago egin zituen Gorostegik.

**Edunen* adizkietan Aldazabalek 3. pertsonan arrunt erabilitako -eu- & -ebV- zaharren partez -u- ereduko adizkiak eman zituen Gorostegik: 4 *eguingo debe* → 129 *egingo due*, 4 *esango debe* → 129 *esango due*, 4 *eguingo debe* → 129 *egingo due*, 8 *nai debanean* → 130 *nai duanean*, 16 *alcanzatu izan ceban* → 132 *irichi izan zuan*, 18-19 *errecibitzen debanean* → 133 *artzen duanean*, 23 *eguin zebanean* → 134 *eguin zuanean*. Bestalde, aditz zaharren ordez molde berriagokoak agertzen dira bi adibideotan: 14 *eracusten ceniela* → 132 *eracusten ziezula* eta 12 *ecarri ziguna* → 131 *ekarri ziguzuna*.

Egin laguntzaileaz den bezainbatean, *dagi-* vs. *degi-* bereizketaren neutralizazioa islatzen du Aldazabalen testuak; Gorostegik, nahiz eta erabateko sistematikotasuna lortu ez, arau zaharrarekin bat etorri *degi*-ren aldeko hautua egin zuen hirupertsonaletan, eta horren arabera moldatu zituen Aldazabalen adizkiak: 15 *eman daguidazula* → 132 *eman degidazula*, 18 *alcanza daguidazula* → 133 *irichi degidazula*, 20 *eracutsi daguiozula* → 133 *erakutsi degiozula*, 22 *eman daguidazula* → 133 *eman degidazula*, 23 *eman daguidazula* → 132 *eman degidazula*. Aldatu gabe utzi zuen, halere, 9 *eman daguidazula* = 130 *eman dagidazula* (halaber bereizketa zaharrarekin bat datorren 7 *alcanza deguidazula* = 130 *alkanza degidazula*).

**Edini* dagokionez, Aldazabalen 9 *izan zindean* subjuntibotzat jota 130 *izan zindezen* eman zuen Gorostegik, eta 9 *eguin zidinen* ordez → 130 *egin zedin*.

Aditzetako pluralgiletan ere aldaketa bat baino gehiago ageri da Aldazabalen eta Gorostegiren testuak parez pare jartzean.

Izanen adizkietan, Gorostegik -de pluralgilea desagerrarazi zuen: 7 *errezzatuco dirade* → 130 *errezzatuko dira*, 10 *cantacen dirade* → 131 *kantatzen dirala*, 10 *esaten dirade* → 131 *esaten diran*.

NOR-NORK sailean 19 *betetzen cinduala graziaz ama eta semea* pasartean komunitadura gordetzeko -z- pluralgilea gehitu zion Gorostegik laguntzaileari: 133 *betetzen ziñuela graziaz amasemeak*.

NOR-NORI-NORKEN Aldazabalek zerabilen -e pluralgilearen ordez -te ageri da Gorostegirenean behin (20 *mereci debeen* → 133 *merezi duten*), nahiz eta alderantzizko aldaketaren adibide bat ere badagoen: 7 *ematen zizutela* → 130 *ematen zizuela*. Bestalde, -zki- ezarri zion Gorostegik **eradunen ziutzun* adizkiari (22 *comunicatu ziutzun* → 133 *eman zizkitzun*), eta 8 *zaizkunen* ordez 130 *zaizkan* ezarri zuen lehenago ere aipatutako 7.-8. orrialdeetako pasarte nahasian.

Azkenik, aipa litezke Gorostegik gaztelaniaz -ción amaiera duten hitzak aditz-izenetako -tzeren bidez eman izana (6 *purificacioan* → 130 *purifikatzean*, 15 *presenta-*

cio → 123 presentatze) eta eta juntagailuaren gramatikalizazio bestela ere argia era-kusten duen 13 vizi eta → 131 bizita aldaketa.

5.4. Sintaxia

Sintaxiaren esparruan zailagoa da joera edo irizpide jakin batekin lotutako alda-keta sistematikoak aurkitzea, nahiz eta aintzat hartu behar den, jakina, § 5.1 azpi-atalean aipatutako eduki- eta antolamendu-aldaketek bete-betean ukitzen dituztela egitura sintaktikoak. Azpiatal horretan zerrendatutako aldaketez harago, oro har alda-keta sintaktiko txikiak daude Aldazabalen eta Gorostegiren testuen artean: sintagma edo perpausen osagaien ordena-aldaaketa txikiak ageri dituzte 5-6 *gure oneraco epeñi nai izan zenduana zure imagina ederra munduan* → 130 *zure imajina gure onerako ipini nai izan zenduana munduan*, 8 *oec gatic alcanza ditzadan* → 130 *alkanza ditzadan oekgatik* eta 16 *Esposatua San Jose zeure esposo garbiarequin* → 132 *San Jose zure esposo garbiarekin esposatua* adibideek, eta erlatibo aposatua izen aurrera ekarria du beste honek: 11-12 *esango da eguneroco oracio lehendabician dagoena* → 131 *esango da lendarbiziko dagoan eguneroko orazioa*.

5.5. Lexikoa

Lexikoaren esparruan aurreko ataletan baino askoz ugariagoak dira Gorostegik eginiko aldaaketak; funtsean, bi multzotan bana daitezke: alde batetik, ordezkatutako euskal hitz eta aldaerak daude; beste alde batetik, gaztelaniazko mailegu gordinen ordez emandako hitzak.

Alde batetik, Gorostegik sistematikoki egin zituen *Jainko* → *Jaungoiko* eta *templo* → *eliza* aldaaketak, eta zenbait hitz eta aldaera zahar baztertu zituen, hala nola 5 *epeñi* → 130 *ipini* eta 10 *dautzan* → 131 *dauden*. Sinonimoekin ordezkatutako hitzen artean daude, halaber, 5 *ezpaire* → 129 *bestela*, 5 *Jaincoari* → 129 *Jaunari*, 10 *Gozoac* → 130 *Gozo-kantak*, 16 *beguitanzen* → 132 *iduritzan*, 18 *baiaren* → 132 *bai-menaren*, 23 *orregatic ere* → 134 *ala ere eta 21 zergatic* → 133 *zerren*. Ordezkatutako aldaerak dira, bestalde, 4 *eguneroco* → 129 *egunoroko*, 12 *lenengo* → 131 *lelengo*, 17 *eduquitzeo* → 132 *idukitzeko*, 18 *guztiac* → 132 *guziak*, 18 *viraldu* → 132 *bialdu*, 21 *esqueintcen* → 133 *eskintzen*, 24 *amoriozco* → 134 *amorezko* eta 25 *ta* → 134 *eta*.

Gorostegik ikuspegi garbizaleari jarraituz eginiko aldaaketak are ugariagoak dira, ondoko zerrendak erakusten duenez: 5 *provechuraco* → 129 *oneraco*, 6 *escogituric* → 130 *auturik*, 6 *humildea* → 130 *umilla*, 6 *casta* → 130 *garbia*, 6 *diligentea* → 130 *arretazkoa*, 6 *Asumpcion* → 130 *zeruratzean*, 7 *privilegioz* → 130 *mesederekiñ*, 7 *Trinidad Santissimoac* → 130 *Irutasun chit santuak*, 7 *podore* → 130 *indar*, 7 *tingabearequin* → 130 *azkenbagearekin*, 7 *santidade* → 130 *santutasun*, 7 *favorea* → 130 *mesedea*, 9 *apartatua* → 130 *berezia*, 10 *acabuan* → 130 *akaberan*, 13 *dívinoac* → 131 *Jaungoikozkoak*, 14 *Temploetan* → 132 *Elizetan*, 15 *estaduco* → 132 *bizimoduco*, 16 *aumentua* → 132 *geitzea*, 16 *zure esposorioan* → 132 *zure alkargatzetik*, 17 *Bienaventuratuac* → 132 *doatsuak*, 18 *Trinidadate* → 132 *Irutasun*, 17 *Esposorio* → 132 *Esposatza*, 17 *memoria* → 132 *oroimen*, 17 *Entendimentua* → 132 *Adimentu*, 18(2) *embajada* → 132(2) *biaikinde*, 18 *alcanza* → 133 *irichi*, 18 *errecibitzten* → 133 *escatzen*, 21 *presentatu* → 133 *agertu*, 21 *savel virginaleco* → 133 *Birjin*

sabeleko, 22 comunicatu → 133 eman, 23 redencioco → 134 erospen edo redenzioko, 24 Aingueru ascoren compañian → 134 Aingeru askorekin batean, 25 bienaventuratu → 134 zorioneko, 24 Aingueruen eta serafinen compañian → 134 Aingeru eta serafínakin batean, 25 eternidade → 134 betikotasun, 25 coroacio estimatuaz → 134 koroatze goiorretzaz, 25 iru zori dichoso oen → 134 iru zorion oen eta abar.

6. Azken hitza

Lan honek P. J. Aldazabal debarraren euskal testuak izan ditu ardatz, eta askotariko gaiak (ber)aztertzeko aukera eman dit. Ez dirudi Aldazabal idazle bereiziki ezaguna izan denik (aipatu behintzat, gutxitan eta labur aipatu da azken mendeko bibliografian), eta helburu nagusia izan da bere euskal idazlanak bildu eta batera editaturik aurkeztea. Alde batetik, Itziarko Ama Birjinaren omenez gaztelaniaz idatzitako liburu batean ageri diren euskal testuak aurkeztu dira: Arakistainek idatzitako kopla bat, oraintsu arte XVII. mendekotzat jo izan den kopla izengabe bat, Gipuzkoako kopla-ahapaldi zahar bat eta zenbait proposamen etimologiko. Beste alde batetik, dakidala Aldazabalek hasi eta buka euskaraz idatzitako liburu bakarra, funtsean Itziarko Ama Birjinaren omenezko bederatziurrena biltzen duena.

Lan honek, beraz, ikertzaile eta bestelako interesdunen eskueran jartzen ditu Aldazabal debarraren euskal lanak; baina, ez da horretara mugatu. Halakoetan geratu ohi denez, testuen ediziogintzak eta ikuspegি filologiko zabalak barne biltzen dituen azpigaiez arduratzeak aukera eman dit egileaz ez ezik, hark bizitako garaiaze ere gehiago jakiteko; zehazki, Lehen Euskara Modernoa eta garai linguistiko haren gurpilean gipuzkoar idazleek eginiko lan eta hautuez, bai eta Larramendi eta Arakistain bezalako idazle handien eraginaz ere.

Lehen Euskara Modernoko idazlea izan zen Aldazabal bete-betean, eta garai hartan Gipuzkoako euskal idazle ospetsuenen artean zabilen ikuspegia baliatu zuen: bere sorterrian (eta are Gipuzkoako euskara zaharrean) espero zitezkeen ezau-garri dialektalak ageri dira, baina aurrekoak bezain agerikoak dira tokian tokiko ezau-garriak baztertu eta eredu orokorrako eta landuago baterantz jotzeko ahalegin neurri handi batean lortuak. Gipuzkoako euskarari dagokionez, halaber, Aldazabalek idatzitako testua eta Gorostegik mende baten buruan *Euskal Erria* aldizkarian argitaratutako bertsio eguneratua alderatzea argigarri da literatur gipuzkerak berak zenbait puntutan izandako bilakabideaz jabetzeko, bai eta beronen ikerketari astinalditxoa emateko ere.

7. Erreferentziak

- Aldabaldetrecu, Roque. 1993. Semblanza histórica. Pedro Joseph de Aldazabal y Murguia. *Deba* 25. 11-14.
- Aldai, Gontzal. 2015. Subordinadas completivas del verbo *gertatu* ‘ocurrir’ en Haraneder: ¿Subjuntivo extendido o conservación del Aoristo Perifrástico? *Fontes Linguae Vasconum* 120. 327-344.
- Aldazabal, Pedro José. 1767-1769. *Breve historia de la aparicion del mas luminoso astro, y brillante estrella de la mar, la milagrosa imagen de Maria santissima de Iziar*. Iruñea: Martín Joseph de Rada.

- Aldazabal, Pedro José. 1790 [1768]. *Ama Virgina santissima Yciarcuaren bederatci urrena*. Tolosa: Fermín Huarte eta Arlegi.
- Aldazabal, Pedro José. 1775. *Compendio heráldico. Arte de escudos de armas, según el método más arreglado del blasón*. Iruñea: Viuda de Martín Joseph de Rada.
- Altuna, Fidel. 1995. Loiolako dotrina. *ASJU* 29(2/3). 611-650.
- Alzola, Nicolás. 1970. Apuntaciones bio-bibliográficas. Pedro Joseph de Aldazabal y Murguía (1728?-1779). *BAP* 4. 480-484.
- Ariztimuño, Borja. 2013. Finite Verbal Morphology. In Mikel Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque*, 359-427. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Atienza, Julio. 1958. Linajes de la Villa de Deva (Guipúzcoa) (continuación). *Hidalguía* 29. 617-632.
- Baraiazaarra, Luis. 1997. Jose Arakistain eta Migel Zuzaeta. xviii/xix. mendeetako karmelitar bi idazle. *Karmel* 219. 125-132.
- Camino, Iñaki. 2018. Bigarren euskara modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 659-735. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Esparza, Andoni. 2005-2006. El compendio heráldico de Pedro Joseph de Aldazábal y Murguía. *Anales de la Real Academia Matritense de Heráldica y Genealogía* 9. 349-376.
- Fita, Fidel. 1880-1881. Suplementos al *Diccionario Trilingüe* del P. Larramendi escritos en 1746 por el P. F. José de María, carmelita descalzo. *Revista de Ciencias Históricas* II. 416-433; III. 113-120 eta 350-374; IV. 72-87 eta 149-163.
- Garibai, Esteban. 1571. *Los quarenta libros del compedio historial (1556-1566)*. Anberes: C. Plantino.
- Garmendia, Juan. 2007. *Domenjón González de Andia y la villa de Tolosa*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Guerra, Juan Carlos. 1924. *Los cantares antiguos en euskera: viejos textos del idioma*. Donostia: Martín y Mena.
- Iztueta, Juan Ignazio. 1847. *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*. Donostia: Ignacio Ramón Baroja.
- Jiménez, Izaskun. 2019. *Leizarraga eta Haranederen zenbait erkaketa: saio bat hizkuntzaren periodizazioan*. Gasteiz: UPV/EHUko gradu amaierako lan argitaragabea.
- Kaltzakorta, Jabier. 2003. Erronda kantuak eta eske bertsoak. *Euskera* 48(1). 109-163.
- Lakarra, Joseba Andoni. 1983. Oharrak zenbait arkaismoz. *ASJU* 17. 41-68.
- Lakarra, Joseba Andoni. 1985. Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia. *ASJU* 19(1). 235-282.
- Lakarra, Joseba Andoni. 1996. *Refranes y sentencias. Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, Joseba Andoni. 1997. Euskal Filología: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31(2). 447-535.
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Segurola. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimológico*. Bilbo: Euskaltzaindia.
